





Giza Eskubideei Buruzko Nazioarteko II. Biltzarra:
gatazken konponbidea

2006ko azaroaren 14tik 16ra
Bilbao

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2007

Argitaraldia: 1.a, 2007ko abendu.

Ale-kopurua: 700 ale.

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila

Internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitu Nagusia.
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.

Diseinua eta maketazioa: Orma estudio gráfico

Inprimatzea:


ISBN:


LG:

AURKIBIDE

JOSEBA AZKARRAGA RODERO	
Aurkezpena.....	9
LUÍS PAULINO MORA MORA	
Costa Ricako Auzitegi Konstituzionalak bakearen inguruan emandako epaia.....	11
ROELF MEYER	
Gatazken konponbideak: Hegoafrikako esperientzia	21
HARRY G. BARNES	
Giza eskubideak eta gatazken konponbidea	27
JAVIER ZÚÑIGA	
Bake-prozesuak eta giza eskubideak nazioartean	39
HAROLD GOOD OBE	
Eskubideak, erlijioa eta konponbideak.....	47
JOANNA WESCHLER	
Bake-prozesuak eta giza eskubideak: nazio batuen eginkizuna	55
KAI AMBOS	
Nazioarteko justizia, bake-prozesuak eta giza eskubideak	65
J.P. LINSTROTH	
Gatazka tranpak eta tranpa gatazkatsuak: giza eskubideak, gatazka konponezinak eta eragozpenak bake-negoiazioetan	81
BRICE DICKSON	
Ipar Irlanda: Northern Ireland Human Rights Commission batzordearen esperientziak.....	121
ZORAN PAJIC	
Nazioarteko gainbegiratze mekanismoen ekarpena bake hitzarmenen aplikazioari: Bosnia-Herzegovinako ikasgaiak	143
KIERAN McEVOY	
Presoak eta Bake prozesua Ipar Irlandan.....	161
BILL BOWRING	
Segurtasun nacionala eta Giza Eskubideen Babesa	173

RAFAEL BENITEZ	
Nazioarteko terrorismoa: Gatazka berri bat?	
Definizio baterako parametroak.....	199
CHARLES VILLA-VICENCIO	
«Desberdintasuna» nola bideratu nazio-eraikuntzan	
Hegoafrikako EABaren politikari buruzko ondoriak.....	225
NORA IRMA MORALES DE CORTIÑAS	
Maiatzaren Lehenaren Plazako Amak: erakundeen indarkeriaren	
aurkako borroka Argentinan.....	241
DANIEL INNERARITY	
Oroimenaren politikak Euskadin: aintzat hartu,	
adiskidetu, kontatu, gogoratu.....	249
JUAN ERNESTO MÉNDEZ	
Justizia eta Berradiskidetzea.....	262
NORA IRMA MORALES DE CORTIÑAS, RAFAEL BENITEZ,	
BILL BOWRING, CHARLES VILLA-VICENCIO,	
JOHN P. LINSTROTH, CARLOS MARTÍN BERISTAIN	
Eztabaida saioa.....	275
ADOLFO PÉREZ ESQUIVEL	
Zeroren balioa. «0» eta gatazken konponbideak.....	291
Ondorioak.....	301





Aurkezpena

JOSEBA AZKARRAGA RODERO


Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza Saila Sailburua

Giza Eskubideak gizartearen antolaketaren erdigunean jartzea ez da behin eta betiko hartzen den erabakia. Horretarako beharrezkoa da etengabeko eguneratzea eta estrategia aplikatzea, herritarrek balioak, jarrerak eta mezuak bereganatu ditzaten. Nazio Batuen Erakundeak eta Europako Kontseiluak behin eta berriz eskatzen ari dira gogoetarako, esperientzia-trukerako eta eztabaidarako foroak sustatzeko, Giza Eskubideen kultura lehen planoan kokatu dadin. Hala ere, ukaezinak, zatiezinak eta unibertsalak diren eskubideen defentsan egunero lan egiten duten ekintzaileekin, gobernuz kanpoko erakundeekin eta nazioarteko erakundeekin harremanik izan gabe, ez dago munduan Giza Eskubideak sustatu eta zabaltzeko lana garatzeko gauza den gizarterik. Esperientzia arrakastatsuak izan dituztenek, gogoeta sakonena egin dutenek, haien bizipena ekarri, zailtasunak aurreikusi, datorrenerako prestatu, estrategiak igarri eta akatsak ekidin ditzakete.

Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean jasotzen diren askatasunaren, berdintasunaren eta elkartasunaren aldeko borrokaren egoeraren inguruko eztabaida, alderaketa eta ebaluazioa herritarrei aurkezteko erarik onena da Bakerako Giza Eskubideari buruzko Nazioarteko II. Biltzar hau.

Gatazken konponbidea aukeratu dugu biltzarraren gai nagusitzat; izan ere, ziur gaude ez dagoela eskubide bakar bat ere beste eskubide batzuk urratzeko aitzakia gisa erabili daitekeenik. “Ez dugu zalantzarik gatazkek bake bidez konpontzea dela bide bakarra. Horixe baita benetako bakea, herritar guztien eskubideak kontuan izan eta babestu eta errespetatzen dituen bide bakarra. Ez naiz indarkeriarik ezaz ari bakarrik: justizia ere behar da.

Sufrimendua eragiten duen gatazka ezin da errepresioaren bidez eraldatu. Han-hemenka –eta, zoritxarrez, munduko edozein lekutan– begiratzen badugu, ikusiko dugu nola gatazkei aurre egiteko bide bakartzat errepresioa hautatzen denean Giza Eskubideen babesaren estandarrak gutxieneko mailetara jaitea baino ez den lortzen. Gatazkek konponbide demokratikoak daukate; onartu ezin den gauza bakarra norbaitek berea indarrez eta giza eskubideak alboratuta edo herritarrek askatasunez adierazitako borondateetik aparte inposatu nahi izatea da. Bakerako Giza Eskubideari buruzko II. Biltzarrean adierazitako gogoetak jasotzen dituen liburu hau izan dadila baliagarria denontzat, errespetuan oinarritutako ekintzarako tresnak eskuratu ditzagun. Errespeturik gabe ezin da bizi demokratikorik izan, ezta bizikidetzarik ere; ezer ezin da inposizioaren ikuspuntutik eraldatu, ezta pentsamolde totalitarioen bidez ere.



Costa Ricako Auzitegi Konstituzionalak bakearen inguruan emandako epaia

LUÍS PAULINO MORA MORA JN.

Costa Rica-ko Justiziako Korte gorenaren lehendakaria

Luis Paulino Mora Mora jauna Costa Rica-ko San José-n jaio zen 1944an. Lehen eta bigarren hezkuntzako ikasketak Puriscal-en egin zituen, eta unibertsitatekoak, abokatu graduatua atera arte, Costa Rica-ko Unibertsitatean. Oso gazte zela Costa Rica-ko Botere Judizialean sartu zen epaile, eta hain ondo egin zuen han lana ezen espezializazio-ikasketak egiteko beka ere lortu zuela. Beka huraxe baliatuta, Madrilgo Complutense Unibertsitatean Doktore graduatua eskuratu zuen azkenik.

Costa Rica-ra itzuli zenean, ia 20 urtez, urtez, epailetzetan egiten zuen lanaz gain –Zigor-epaile, Epaile Nagusi, eta Justizia Gorte Goreneko Zigor Kasazioaren Aretoko Magistratu–, Costa Rica-ko Unibertsitatean eta Zuzenbideko *Escuela Libre*-n ere jardun zen irakasle-lanetan denbora askoan.

1986 eta 1989 urteen artean, Costa Rica-ko Justizia Ministro izendatu zuten; ondoren, garai hartan sortu berria zen Konstituzioaren Aretoran sartu zen. Horretan dabil gaur oraindik ere, nahiz eta 1999 ezkerotik Costa Rica-ko Botere Judizialeko Lehendakaria den. Hain justu, kargu horretatik Botere Judiziala modernizatzeke mugimendua bultzatu du, eta puri-purian dago gaur egun.

Literatur sorkuntza ugaria du, bereziki zigor-zuzenbidean eta konsitutuzio-zuzenbidean espezializatutako artikulua idatzi ditu; eta, azkenaldian justizia-administrazioaz eta horrek demokrazioan duen paperaz ere idazten du.



CURRICULUMA

LABURPENA

Costa Ricako Epaitegi Konstituzionalaren epaiaren azalpen laburra egin du Mora jaunak. Bertako gobernuak Irakeko gatazka armatuan izandako jokabideei buruzkoa da epaia, eta bakearen inguruko hainbat alderdi aztertzen eta balioesten ditu, besteak beste.

Gai garrantzitsua da, giza eskubideen ikuspegitik. Izan ere, epaiaren arabera, bakea funtsezko balioa da erregimen demokratiko orotan, eta eskubidea ere bai. Beraz, hiritarrek bake-eskubidea, beste hainbatekin batera, betearazteko eskatu diezaioke gobernuari.

Epaian, noski, kontuan hartu dira bai Costaricaren ibilbide historikoa bai bertako hiritarrek horrelako gaitan duten sentsibilitatea. Ondorioetan, aldiz, bertako ordenamenduaren mugak gainditu dituzte, hirugarren belaunaldia delakoaren eskubide ukaezinari ere erreparaturaz. Costarican, hirugarren belaunaldiaren kezka politikoak bereziki nabarmenak dira, eta boterean daudenek onartu eta bete egin behar dituzte haien aldarrikapenak.

Costarican, ezbairik gabe, beste aurrerapauso bat eman dugu armada desegin ondoren urratzen hasitako bidean. Gatazkan konpontzeaz arduratzen diren nazioarteko mekanismoetarako jo dugu, eta gure herriak ere ekarpen bat egin dio nazioarteko komunitateari: neutraltasun-adierazpena.

Costa Ricako Auzitegi Konstituzionalak bakearen inguruan emandako epaia

Sarrera

Lehenik eta behin eskerrak eman nahi dizkiet hitzaldi honen antolatzaileei, eta zuei entzuleoi ere, Ameriketako gure herri txikian gizarte bidezkoago eta demokratikoagoa lortzeko egiten ditugun ahalegin batzuen berri zabaltzeko emandako aukerarengatik. Costa Ricako biztanleok ahalegin handiak egiten ditugu giza eskubideen inguruko gaiak oso serio hartzeko. Alor horretan dugun esperientziak argi-ilunak ditu, baina esperientzia horrek ederki irudikatzen ditu gaur egungo gizartearen alderdi onak, batetik, eta pertsonen garapen bidezkoa lortzeko gizarte zibilak eta gobernuek egin beharreko ahaleginak eta jendearen kexuak, bestetik.

Ahalegin horien alderdi zehatz bati buruz mintzatuko naiz, bereziki, eta gure gobernuak Irakeko gatazka armatuaren inguruan hartutako neurriak zirela eta Auzitegi Konstituzionalak emandako epaia azalduko dut. Epaia horretan, bakearen inguruko hainbat alderdiren azterketa eta balorazioa egin zuen Auzitegiak.

Aukera honezaz baliatu nahi dut, beraz, epai horren oinarrian dauden alderdi juridiko eta konstituzionalen azterketa bat egiteko, gai jakin honen inguruan duzuen ikuspegia zabaltzen laguntzeko.

13

Gertakarien laburpentxo bat

Onartu beharra daukat 34 urtean epaile jardun ondoren, ezingo nuela juridikoa ez den bestelako eskema formalik erabili edozein gai aztertu edo ikertzeko. Hortaz, laburpentxo hau hasteko, ikuspegi konstituzionaletik funtsezkoak izan diren zenbait gertakari aipatuko ditut.

AEBetako gobernuak buru zutela zenbait herrialde Irakeko gobernuaren kontra jarri ziren gatazka armatua piztu zenean, botere betearazlearen jarduna Costa Ricako Konstituzioaren aurka zihoala pentsatu zuten zenbaitek gure herrian eta, hori zela eta, konstituzio-kontraktasun errekurtsio bat aurkeztu zuten Auzitegi Konstituzionalean, hainbat ikuspegitatik abiatuta, gobernuaren neurri horiek zuzentze aldera.

Urratuzat jo ziren alderdi guztien artean, Auzitegiak interes handia zuen bati heldu zion bereziki. Interes hori zuzenbide konstituzionalaren ikuspegitik zituen ondorioei zor zitzaion, batetik, eta gure herriak gai horretan duen egoerari, bereziki. Auzitegiak «bakearen balioz» identifikatu zuenaren ustezko urraketari buruz ari naiz hemen, izan ere, errekurtsioa aurkeztu zutenen arabera, balio hori Costa Ricako Konstituzioaren oinarrietako bat da, berariaz hala jasota ez badago ere, eta Gobernuaren jardunak balio hori urratu zuen.

Alderdi juridikoak

Gauzak horrela azaldu ondoren, eta zuzenbidearen ikuspegitik, argi eta garbi zegoen hasiera-hasieratik kasuaren benetako garrantzia ez zitzaiola zor botere betearazleak eginda-koaren gainean eraikitzen zenari, elkarrekin lotura estua zuten bi punturi baizik: batetik, ‘bake’ kontzeptuak egitura juridiko-konstituzionalean duen pisu edo funtsari, izan ere, gorago esan dugunez, kontzeptu hori ez baitago berariaz jasota gure legeetan; bestetik, kontzeptu hori Costa Ricako legediaren barruan «aurkitu izana» azaltzeko emandako oinarriari, kontzeptu hori legedian sartuta dagoela onartzeko ariketa hermeneutiko egokia egin beharra zegoen eta. Ondorengo lerroetan, epaian bi alderdi horiei buruz esaten dena laburbiltzen saiatuko naiz.

a) ‘Bake’ kontzeptuaren izaera gure antolamendu juridikoan

Epaia irakurriz gero, berehala konturatzen gara terminologia oso zehatza erabiltzen dela bakea izendatzeko: «bakearen balioa» esaten da. Hori ez da hutsalkeria bat; izan ere, bakeak zuzenbide-sistema baten baitan eta, zehazki, antolamendu konstituzional baten barruan duen betekizun zehatza azpimarratu nahi da. Errazago azalduta, Konstituzio Politikoaren barruan jasotako balio batzuk daudela onartzea dakar balio horren aipamenak. Hala, oso egokia iruditzen zait Gregorio Peces Barba-k *Los Valores Superiores en la Constitución Española* lanean idatzi zuena. Konstituzioaren testuaz ari denean, luzetxo jarduten du *balio* kontzeptuaren egokitasunaren inguruan, *printzipioa* eta antzeko beste balio batzuk hain egokiak ez direla esanez. Espainiako kasuan, Peces Barbak dio balioak Konstituzioaren 1. artikuluan zehaztuta daudela eta, azpimarratzen duenez, hori eginez, balioei itxitako positibismoaren eta alderantziz jokatzeko duen iusnaturalismoaren artean aukera bat egin zela, antolamendu positiboa bigarren mailan utziaz. Hauxe dio Peces Barbak *balio* nozioaren inguruan:

Kultura juridiko demokratikoak berezkoa duen arrazionaltasun baten oinarritzko hitzarmena da hori, eta behar adinako adostasun historiko batean oinarrituta dago. Gizakiek arrazoiaren eta esperientziaren bidez ezagutu dezakete kulturak bereak dituen esanahi horiek; legelari eratzailak, aldiz, goi-mailako balio horietan mundu modernoari dagokion kultura historiko horren idealak txertatu nahi izan ditu.

Honako hau eransten du aurrerago:

[...] *Goi-mailako balioak* kontzeptua kontuan hartzea argudio sendoa da zuzenbidea jokamolde-arauetz eta, aldi berean, indarraren erabilera arautzen duten arauetz osatua dagoela esateko. Horrek ez du esan nahi, ordea, bi aukera horien artean aukeratu beharra dagoenik, ez dira bi aukera alternatiboak. Izatekotan, indarraren erabilera arautzen duten arauak instrumentalak dira irizpide materialak finkatzen dituztenen aldean, eta irizpide horien artean bizikidetzat antolatzen, ondasunen banaketa arautzen eta eskubide eta askatasunak bermatzen dituzten goi-mailako balioak dauzkagu, lehenik eta behin, hots, gizartearen bizimodu duina izateko aukera ematen diguten balioak.

Peces Barbaren aipamenekin bukatzeko, balioek Konstituzioaren bizitzan berebiziko garrantzia dutela dioten tesiaren laburpena ekarriko dut lerrootara: lehenik eta behin, justizia ideien inguruan historian egon diren adostasun historikoak adierazten dituzte, hots, *justizia objektibatua* deritzona, konstituzioaren gainerako alderdien bermea osatzen duen

azpiegitura, alegia. Bigarrenik, segurtasun juridikoa ematen dute, boterea gauzatzeko aukeratuak izan diren haiek botere hori erabiltzeko modua gidatu eta bideratu –eta modu egokian mugatu– egingo duen gida moduko bat egoteak ematen duen lasaitasun eta ziurtasunean oinarritutako segurtasuna, hain zuzen. Azkenik, Konstituzioa legitimatzeko betekizuna ere badute balioek, gizarteak bere burua identifikatzeko eta bere legeekin bat egiteko balio duten aldetik, hots, lege horiek bete eta errespetatu beharreko zerbait direla ulertarazten duten aldetik.

Halako kontzeptuei jarraiki, hizpide dudan epaiak argi eta garbi uzten ditu zenbait alderdi: batetik, Costa Ricako Konstituzioaren testuan gure sistemarentzat funtsezkotzat jo ditzakegun balio zehatz batzuk daudela finkatzen da, edo, nahiago bada, zehazkiago esatearren, halako balioak daudela onartzen da. Balio horiek –Alemaniako legedian bezalaxe, esate baterako– ez daude positibatuta, berariaz adierazi beharrekoak diren zentzuan, baina, halere, ondorioztatu egin daitezke testu horretatik, eta Alemaniako Auzitegi Konstituzionalak, adibidez, horixe egin berri du. Bestetik, Costa Ricako Konstituzioan jasotako balio horiek konstituzioaren norabidea adierazteko xedea izango dute, gizarteko bizimodua zuzenbidearen bidez bideratzeko prozesua arautzen duten aldetik.

b) Gure legedian bake balio bat dagoela esateko oinarriak

Epaiaren hurrengo urrats logikoa, «bakearen balio» hori Costa Ricako Konstituzioa bermatzen duten balioetako bat dela frogatzen saiatzea da. Bigarren urrats hori askoz zailagoa da, askogatik gainera, aurrekoak baino, *zenbait oztopo edo eragozpen* gainditzea eskatzen duelako.

Lehen oztopoari dagokionez, epaiak –Auzitegi Konstituzionala eratu zenetik sendotasun handiz finkatutako joera bati jarraiki– alde batera uzten du Konstituzioaren ikuspegi soilik normatibista, eta azken gerraondoaz geroztik nazioarteko zuzenbidean errotu den konstituzionalismo berriko joera modernoekin bat egiten du argi eta garbi. Manuel Aragón Reyes Espainiako Auzitegi Konstituzionaleko kideak hitz hauekin azaldu du joera hori:

Konstituzioa Frantziako Iraultzaren eta AEBetako kolonia ingelesaren independentziaren ondorioa izan zen, eta, hortaz, ezaugarri formal eta material batzuk ditu. [...] Egonkortasun politikoa eta askatasuna ziurtatzeko antzinako asmo bikoitz horiek bat egiten dute, eta, hala, Konstituzioak boterea mugatu egiten du, bai egitura jakin baten barruan zedarrizteko, bai norbanakoen autonomian barneratzen ez uzteko. Areago, bi helburu horiek banaezinak dira, egitura bera ez delako xedea, bitartekoa baizik.

Hauxe dio, geroago:

Boterearen mugaketa materiala, hots, oinarrizko eskubideak, Konstituzioa kontzeptuaren gunea dira Estatu konstituzionala sortu zenetik bertatik. Botere eratzailearen eta botere eratuaren arteko bereizketa, ordezkaritza politikoa, boterearen mugak –denboran nahiz eginkizun aldetik– Estatu konstituzionalaren ezaugarriak dira, zalantzarik gabe, baina estatu horren bereizgarri nagusia burujabetza herriaren esku uzteko erabakia da. Eta burujabetza herritar askeez osatutako herri askeek bakarrik izan dezaketenez, burujabetza hori (barrualderantz, noski, zuzenbide konstituzionalaren alorreko burujabetzaz ari garelako, eta ez nazioarteko zuzenbideari dagokionaz) «bermatzeko» modu bakarra agintarien boterearen aurrean eta, oro har, legelarietarako duten ahalmenaren aurrean, oinarrizko eskubideak «mugatzat» jartzea da.

Azkenik, adierazpen biribil hau erantsi zuen:

Gaur egungo pentsamendu juridiko «eta politiko» fidagarrienean erabat onartuta eta hedatuta dago Konstituzioa zuzenbide-arau gorentzat hartzea. Arau horrek boterea mugatuta dagoela ziurtatzen du, botere hori, herritik datorren aldetik, herritarren izaera askeari gailendu ez dakion. Alegia, Konstituzioa demokraziaren juridifikazioa besterik ez da, eta halakotzat hartu beharra daukagu.

Laburbilduz, beraz, epai horrek tradizio berriena eta zabalena islatzen du. Gizakion babesari dagokion tradizio horrek boterearen mugak Konstituzio kontzeptuari berez dagozkion muga batzuk direla dio, eta formalak ez ezik, muga horiek materialak ere badira. Konstituzioa ez da, beraz, ezaugarri jakin batzuk dituzten arau juridikoen multzo soil bat, helburu edo xede batzuen adierazpena baizik. Xede horiek oso zehatzak dira, gainera, arrazoiak eta historiak taxutu baititu urteetan zehar, eta, doktrina berrienaren hizkera erabiliz, botereari debekatutako esparrua osatzen dute. Botere horrek ezin ditu xede horiek mugatu, edo xedeok hobetzearen edo lortzearen aurka jardun.

Epaiaren bidez gairitu eta konpondu beharreko *bigarren oztopoa* konstituzionalismoko tradizio zaharkituenen jarrerari dagokio, halakoek oso babes gutxi ematen diote-eta bakea funtsezko balioa dela dioten tesiari. Izan ere, XIX. mende amaierako konstituzionalismoaren dotrina agurgarriek ez dute bakea aipatu ere egiten, ez gizabanakoen eskubide bezala, ez eta konstituzioak babestu beharreko balio bezala ere.

Beste hitz batzuetan esanda, harro-harro konstituzionalismoaren oinordekoak gairela esaten dugunean, askatasun eta berdintasun printzipioei behar besteko garrantzi eta babesa emateko esaten dugu, batetik, eta boterea legearen mende jarriaz kontrolpean jartzeko beharra azpimarratzeko, bestetik. Printzipio horiek luze eta sakon aztertu izan dira bai egungo adierazmoldean, bai antzinakoetan, eta, beraz, ez nahiz horren inguruan luzatuko. Hala eta guztiz ere, ukazina da bakea ezin dugula balio historiko horien artean sartu, askatasun, berdintasun eta senidetasun ideia handiak sortu ziren garaian bakea ez zelako gizartearen ondasuntzat hartzen, eta, beharbada, oso arriskutsua izango zatekeen herriarentzat halakorik egin izana. Gogoan izan behar dugu «nazioarteko gizartea» delakoa sistema izugarri korapilatsua izan dela beti, eta banaketak «bakoitzari duen indarraren arabera» egiteko araua nagusitu dela sistema horretan. Ondorioz, historikoki, gizateriaren garapenean ez da bakea nagusitu, gerra baizik, eta historia hori gatazkez eta oinazeaz josia egon da.

Egoera horri aurre egiteko, bakea historikoki xede «berria» baina, aldi berean, gizartearentzat oinarritzakoa eta funtsezkoa zela eta halakotzat sailkatzea bideragarria zela frogatu beharra zegoen maila abstraktuan. Horretarako, gaur egun bakea lehen mailako ondasuntzat jotzen duen izaera unibertsaleko kontzientzia historiko bat dagoela zalantza izpirik gabe erakusten diguten adierazgarri garbi bezain sendoetara jo behar izan zen, nahiz eta, tarteka ideia horren aurka dauden zenbait adibide isolatu aurkitzen direnik ezin ukatu. Adierazgarri horien artean hauxe da nagusia: nazioarteko ordena politikoa berreraikitzekeo garaian, herri guztiak bakearen eta giza duintasunaren inguruan elkartu izana, Nazio Batuen Erakunde hain zuzen ere. Erakunde hori oso emankorra izan da bakearen funtsezko izaera aldarrikatzeko garaian, bere adierazpen eta printzipioetan behinik behin. Gaur egun, mundu osoko herrialde gehien-gehienak daude NBEn, eta erakunde horren bidez gizarteek argi eta garbi adierazi dute bakea eta giza garapena beren helburuak direla eta lehen mailako gizarte-ondasunak direla, eta horretarako eskubidea dutela, beraz, beren askatasuna edo aukera-berdintasuna bermatzen zaien modu berean.

Ikuspegi horretatik, beraz, bigarren oztopoa gainditzea izango genuke, arrazoibide horri jarraiki: bakea konstituzionalismoa egituratu zuten printzipio sortan egon ez badago ere, horrek ez du esan nahi, historian izandako garapenaren ondorioz, bere garaian mugimendu konstituzionalistaren akuilu eta eragile izan ziren printzipioen pareko balio eta gizartearen ondasun bihurtu ez denik. Gainera, epaian ulertzen denez, printzipio haiek ez dute zerrenda itxi bat osatzen, irekia baizik, Aragónek azpimarratzen zuenez, konstituzionalismoa demokraziaren juridifikazioa baita, eta azken kontzeptu hori beti dago gehiago hobetzea.

Gainditu beharreko *hirugarren* oztopora garamatza aurreko arrazoiketak. Izan ere, zuzen-bideko edozein ikaslek onartuko duenez, aurreko argudioak txertatuta daudeneko politikaren esparrua legediaren oinarria dira, baina, ez dute hura ordezkatzeko eta ezin dute haren lekua bete. Aurrekoari jarraiki, bakea gure legediaren bidez babestutako ondasun sozialen multzoan txertatzen saiatu beharra daukagu, eta konstituzionalismoa da horretarako esparru egokiena eta Costa Ricako legedian txertatzeko bidea.

Konturatuko zinetenez, ikuspegi juridiko-formaletik gai honek ez zeukan halako zailtasunik, Konstituzioak berezkoak dituen hainbat funtsezko balio dauzkala onartu baitugu oraintxe. Gainera, balio horiek ez dira edozein, sistema demokratikoko balioak baizik, eta demokraziaren balio horien barruan bakea sartzea guztiz onargarria da, gure iragan hurbilean bakeak hartu duen protagonismo historikoa ikusita. Horrenbestez, arrazoibide hau zilegiztatzeko edo baliozkotzat hartzeko eragozpen handiena gizartean gai horren inguruan dagoen erantzunean edo sentsibilitatean egon daiteke, baina, hortxe dauka, hain zuzen, indarririk handiena gure herrian.

Costa Ricako herritarrok urrats sendoak eman ditugu historian zehar bakea gizartearen bilakaeran ondasun maitatu eta eraginkorra bihurtzen duen tradizioa eratzeko. Urrats horrietatik abiatuta aztertu dugu hizpide dugun epaia, nolabait ere. Baina, oso garrantzitsua da, bestalde, Auzitegiak gure herriaren historiako azken hamarkaden inguruan egindako ariketa, bolada horretan gure inguruko herrietatik bereiztea lortu baitugu, bizikidetzak baketsuari –barnekoa nahiz kanpoko– diogun atxikimenduarengatik. Aipatzeko moduko oinarri ugarietatik hiru nabarmentzen dira, gure gizarteak bakea bezalako funtsezko balio bat bere baitan jasotzeko duen borondatearen adierazgarri garbiak direlako.

Armada indargabetu edo deuseztatzea izan zen lehen oinarria. Gure herriko azken gatazka armatuan garaile izan zen taldeak hartu zuen erabaki hori, hain zuzen ere. Gaur egun, erabaki hartatik 50 urte baino gehiago igaro ondoren, munduko gainerako herriak ez dira guztiz jabetu hura bezalako erabaki batek zer nolako eragina duen bakea nagusitzeko urrats beharrezko eta atzeraezin bezala. Zoritxarrez bitxikeria bat gara munduan, alderdi horri dagokionez.

Bigarren oinarria: nazioen artean bakea egoteko bitartekoa nazioarteko erakundeetan parte hartzea eta erakunde horiek onartzea delako uste politiko sendoa dutela denek gure herrian, bereziki NBEtako organo eta tresnei dagokienez. Atxikimendu eta hurbilketa horri jarraiki, urtetan zehar erakutsi dugu fede osoa dugula nazioarteko sisteman eta nazioen artean egon litezkeen liskarrak bideratzeko sistema egokiena iruditzen zaigula. Fede horrek erronka zail bati aurre egin behar izan zion 1955ean, gure gizartea desegonkortzeko kanpotik etorritako azken erasoak jasan genuen urtean.

Bakerako dugun bokazioa erakusten duen hirugarren oinarria Costa Ricako gobernuak eta herriak aldarrikatutako neutraltasun aktibo eta iraunkorra dugu, armada deuseztatzearen ondoren zetorren urrats normala izan zena. Munduari zuzendutako bake-adierazpena izan zen erabaki hura. Gurea bezalako ingurune baten emaitza izan dira erabaki horiek guztiak,

nire ustez, belaunaldi luzeetan ez baitugu gerrarik izan eta arazoak konpontzeko garaian bide hori gaitzetsi izan baitugu beti. Eta alderdi hori azpimarratu nahiko nuke, ez baitago inolako kontraesanik gure balio eta printzipioen sistemarekin, behin eta berriz esan dugun moduan. Bere garaian aldarrikatu genuen neutraltasuna ez da neutraltasun ideologikoa, inondik ere. Aitzitik, gure herriak sinesmen sendoak dauzka, eta beharrezkoa iruditzen zaigu gainerako gizarteek ere gu gabiltzan askatasunaren, bakearen eta demokraziaren bidetik joatea.

Laburbilduz, gure legedian bakearen «juridifikaziorantz» emandako urratsa oraintxe aipatutako hiru oinarri horietan bermatu zen: armadaren deuseztatzea, NBEen sisteman xertatzea eta Neutraltasun Aldarrikapena onartzea.

Aurreko guztiari jarraiki, bidezkoa zen bakea bezalako balio bat bazegoela eta garrantzi handikoa zela aldarrikatzea, eta onartu beharra zegoen balio horrek Costa Ricako antolamendu konstituzionala eratzen zuela. Horrexegatik, erakunde publikoek, eta Auzitegi Konstituzionalak berak ere, beren erabakietan kontuan hartu beharreko balioa da hori.

Azaldutakoaren aplikazioa gure kasu zehatzean


Oraintxe aipatu dudan lotura hori izan zen, hain zuzen ere, diskurtso juridiko zehatzean, hizpide dugun ekintza auzitaratzea ahalbidetu zuena, eta ikusi zen ekintza horrek ez zuela behar besteko errespeturik erakusten bakearen balioarekin, eta kontraesanetan zegoela bere betekizunekin eta NBEk gatazkak konpontzeko duten sistemako kide izateak dakartzan ondorioekin. Era berean, ikusi zen ekintza hark muzin egiten ziela Neutraltasun Aldarrikapenean jasotako betebeharrak eta ondorioei, biak ere adierazpen zehatzak diren aldetik, gure sistema konstituzionalak taxutzen duen bakearen balioaren forma juridikoz jantzitako konstituzionaltasun-parametro zehatz bihurtu zirenak, gainera.


18

Ondorioak

Nire hitzaldi laburra amaitzeko, denboran atzean egingo dut gure herriak gure kulturak eta historiak eskaintzen dizkigun balio gorenen defentsa eta sustapenaren alde egindako lana aipatzeko. Bai bakearen gai zehatzean, bai pertsona eta gizartearen eskubideen gai orokorragoan, Costa Ricak balio horiez jabetzeko eta gure herrikide guztiek balio horiek gauzatu ahal izateko modua jasotzeko sentsibilitatea izan duten pertsona eta taldeak izateko zortea izan du.

Auzitegi Konstituzionalak bere epaian jasotako doktrina horrek, ikusi dugunez pertsona askoren ahaleginen fruitua izan dena berez, urrats garrantzitsua eman du bakerantz eta bakearen gauzapean eta errespetu eraginkorrerantz, eta beste legedi batzuetan ere urrats bera eman litekeela iruditzen zait.





Gatazken konponbideak: Hegoafrikako esperientzia

ROELF MEYER JN.

Defentsa eta konstituzio gaietarako ministroa Hego Afrikan, apartheid-etik demokraziarako trantsizio-garaian.

Roelof Petrus (Roelf) Meyer 1947ko uztailearen 16an sortu zen Eastern Cape-n, Hegoafrikan. 1964an University of the Free State izeneko unibertsitatean matrikulatu zen, eta Enpresa Zientzietako eta Zuzenbideko lizentziaturak lortu zituen han, 1968an eta 1971n, hurrenez hurren. Abokatu-lanetan jardun zen Pretoria-n eta Johannesburgo-n, 1979an parlamentuan politikan hasi aurretik. 2000ko urtarilaren amaieran dimititu egin zuen, 21 urtez politikan aritu ondoren. Urte haietan Lege eta Ordenaren Ministro-orde izan zen lehenik, Konstituzioaren Garapenerako Ministro-orde ondoren (1968-1991); Defentsa Ministro ere izan zen gero eta, azkenik, Konstituzio Gaietako Ministro (1991-1996).

Roelf Meyer jauna hurbil-hurbiletik aritu da Hegoafrikako gatazkak konpontzeko negoziatioetan, Alderdi Nazionalako Gobernuaren Negoziatzaile buru izan baita. Ahalegin horretan, apartheidaren amaiera hitzartu zuen Cyril Ramaphosa junarekin (Afrikako Kontseilu Nazionalako, AKN, negoziatzaile burua) eta negoziatio horiei esker Hegoafrikako lehenengo hauteskunde demokratikoak izan ziren, 1994ko apirilaren bukaeran. Hauteskundeen ondoren, Meyer-ek Konstituzio Gaietako Ministro izaten jarraitu zuen, Nelson Mandela presidente ohiaren kabineteen.



CURRICULUMA

Gaur egun, sektore pribatuan dabil Meyer, bake-prozesuetako aholkulari-lanetan. Eta, hala, munduko hainbat lekutan ezarritako prozesuetan parte hartu du, esate baterako, Ipar Irlandan, Sri Lankan, Ekialde Ertainean, Ruandan, Burundin, Kosovon, Euskal Herrian eta Bolivian. Horrez gain, Trantsizio-aldiko Justiziari buruzko New York-eko Proiektuaren Batzorde Estrategikoko kide da, eta 2001ean Ulster-eko Unibertsitateko (Ipar Irlanda) bake-ikasketei buruzko Tip O'Neill katedraren titular izendatu zuten.

LABURPENA

Gerra zibil handia piztu aurretik bukatu zen Hegoafrikako gatazka. Bi aldeetako buruzagiak ohartu ziren irtenbide bakarra hitzarmen negoziatua zela, eta horrek hondamendia eragotzi zuen. Negoziazioak lagungarri izan ziren tentsioak baretzeko, eta horri esker, hegoafrikar biztanleak bakearen bidea urratzeari ekin zioten. Lau urteko tirabira gogorren ostean, negoziazioen emaitzaz konstituzio berria finkatu zuten. Adostasuneko legea eta demokrazia berriaren funtsezko oinarria izan zen hura.

Hainbat faktoreri esker lortu zuten arrakasta negoziazioetan, baina nire iritziz, jarraian azalduko ditudan hamarrek funtsezkoak izan ziren gatazkari irtenbidea emateko:

Aurrez aurre zeuden aldeek ez zuten baldintzarik jarri prozesuari ekin aurretik.

Eragile nabarmen guztien parte hartzeari esker, prozesua inklusiboa eta unibertsalki onartua izan zen.

Hegoafrikarrak arduratu ziren prozesuaz, nazioarteko komunitatearen zain egon gabe.

Buruzagien eta negoziazioetan parte hartu zuten gainerakoen artean elkarrenganako konfidantza eta begirunea izan ziren nagusi.

Bi aldeetako buruzagiek gidaritza eta lidergoa eskaini zizkieten jarraitzaileei, hitzarmen baketsuaren beharra onartu zezaten.

Alde guztiak gogobetetzeko moduko emaitza lortzeko baldintzak sortu ziren, eta horrela, errazagoa izan zen akordioa adostea.

Beste aldearekiko tolerantzia eta errespetua nagusitu ziren hasiera-hasieratik.

Prozesuan zehar, alde bakoitzak oinarrizko kontsultak egin zizkien jarraitzaileei, ordura arteko nondik norakoaren berri emateko eta bidea egokiena zela bermatzeko.

Prozesua guztiz gardena izan zen, eta irekia jendearentzat.

Akordioaren oinarria norbanakoaren eskubideak berdintasunez onartu eta babestea izan zen.

Gatazken konponbideak: Hegoafrikako esperientzia

Herritarrak arrazaren arabera banatzeko politika 300 urtean egon zen indarrean Hegoafrikan. Apartheid-garaian, zuriak eta beltzak bereizita zeuden politikan, ekonomian eta gizartean. Horrek liskar eta gatazka ugari eragiten zituen etengabe. Eta azkenerako erabateko gerra zibila pizteko zorian egon zen Hegoafrikan. Zorionez, hondamendia saihestea lortu genuen, eta Hegoafrika demokrazia moderno eta liberala da gaur egun.

Oraindik orain harriduraz ikusten dugu nola lortu genuen gaindiezina zirudien arrazen inguruko liskar haiek hain modu baketsuan eta hain tarte laburrean gainditzea. Alde bietako buruzagiak konturatu ziren gatazkak bere horretan jarraituz gero gure herriak ke eta errauts bihurtua bukatuko zuela, eta horregatik lortu zen konponbide hura. Gure herria hitzarmen negoziaturako prozesu batean murgiltzea hobe zela erabaki zuten.

Hitzarmena lortu arteko prozesua oso neketsua izan zen eta sei urtetik gora luzatu zen. Emaitza konstituzio berria izan zen. Konstituzio horretan Hegoafrika herri bakar eta banatu gabea dela eta denok eskubide berberak ditugula esaten da, eta gure demokraziaren erreferentzia bihurtu da testu hori.

Konstituzio berria egiteko prozesuak hain emaitza ona izan badu, alderdi askori esker izan da. Jarraian aipatuko ditudan hamar alderdiak funtsezkoak izan ziren Hegoafrikako gatazka konpontzeko, eta beste gatazka batzuk konpontzeko ere baliagarriak izan litezkeela iruditzen zait.

23

Aurretiazko baldintzarik ez

Hegoafrikako prozesua aurretiaz inolako baldintzarik jarri gabe hasi zen, nahiz eta alde biek (askapen-mugimenduak, batetik, eta orduko gobernuak, bestetik) beren helburu eta xede zehatzak izan. Halako baldintzarik jarri ez izanak alderdiak elkarriketetan hastea ahalbidetu zuen, hasiera batean mesfidantza eta etsaitasuna nagusi ziren arren.

Prozesua hasi zenean, garaia egokia zen aldeak elkarriketan hasteko eta, gainera, bi aldeak ere serio zebiltzan konponketa negoziatu bat lortzeko asmotan. Gobernuan aldaketak egon ziren eta F.W. de Clerk izendatu zuten Hegoafrikako presidente. Orduan aurrera egiteko leiho bat ireki zen. Nelson Mandela askatu egin zuten, lehenik eta behin, eta bi aldeak aukera hura aprobetxatzen hasi ziren bakea lortze aldera. Orduz geroztik ez zen inoiz atzera bueltarik egon, prozesuan zehar oztopoak egon arren.

Denen parte-hartzea

Prozesuaren hasiera-hasieratik ikusi zen bake-akordioan zeresana zuten alderdi guztiek parte hartu behar zutela negoziazioetan. Horregatik, garai hartan legebiltzarrean ordezkatuta zeuden alderdi guztiek eta legebiltzarretik kanpoko alderdiek ere prozesuaren presuntakuntzan eta ondorengo negoziazioetan parte hartu zuten. Ikuspegi zabal hari esker, joera politiko eta komunitate politikoko sektore guztiek konponbidean parte hartzeko aukera izan zuten. Eta negoziazio-prozesu koherente baterako aliantzak sortzeko aukera eman zuten horrek.

Jabetza

Hegoafrikarrak beren etorkizunaren gaineko ardura hartu zuten harrotasunez. Ez zen kanpotik etorritako ekimenik behar izan prozesua abian jartzeko, eta alderdiak izan ziren prozesua etapa guztietan zehar bultzatu eta bideratu zutenak. Ikuspegi horren ondorioz, alderdiek konponbideak zuzenean beren artean bilatu behar izan zituzten, negoziazioak gidatzeko ardura kanpoko inoren esku utzi gabe.

Negoiazioako etapa guztietan argi gelditu zen emaitza bezain garrantzitsua zela prozesua bera. Hainbat kasutan, alderdien arteko desadostasun garrantzitsuak konpontzeko aldaketak egin behar izan ziren prozesuan. Hala, alderdiek arazoak konpontzeko senarekin jardun zuten, eta horri esker oztopo handiak gainditzeko gai izan ziren, negoziazioak apurtzear egon zirenean, adibidez. Era berean, erabaki bateratuak hartuz eta epeak denen artean finkatuz, blokeoak eragotzi eta prozesuan aurrera jarraitzea lortu zen, bi aldeetako muturreko jendeak presio handia egiten zuenean.

Elkarrekiko errespetua eta konfiantza

Arrazan oinarritutako gatazka luze baten ondorioz sortutako mesfidantza izan zen konpondu beharreko arazo korapilatsuenetako bat. Zorionez, bateko nahiz besteko buruzagiek errespetua erakutsi zioten elkarri hasieratik, eta prozesua konfiantzan oinarrituta egon zen negoziatioetan zehar.

Konfiantza hura sortzeko, elkarren iritzi eta jarrerak, batzuen eta besteen jatorri eta abiapuntuak ezagutzeak asko lagundu zuen. Hala, harreman pertsonalak sortu ziren ezagutza horretatik, eta azkenerako harreman haiek berebiziko garrantzia izan zuten prozesu osoan zehar. Ez genuen inoiz mezularien bidez negoziatu behar izan. Negoziatioak guztiz etenda zeudenen ere, negoziatioetako buruzagien arteko komunikazioari esker elkarriketari berriz ekitea lortu genuen.

24

Aitzindaritza

Prozesuari ekiteko garaian, Mandelak eta De Clerkek izandako aitzindaritza ezaguna zaigu denoi. Halere, bi buruen aitzindaritza baino garrantzitsuagoa izan zen jarraitzaileak hitzarmen negoziatu baten beharraz konbentzitzeko eta, konstituzio berria onartu arte, prozesu osoan zehar haien babes mantentzeko erakutsitako gaitasuna. Oinarriaren babes hura gabe prozesua bertan behera geldituko zatekeen hainbat alditan. Era berean, Mandelaren eta De Clerken garaiko nahiz aurreko beste buruzagi batzuek ere betekizun garrantzitsua izan zuten prozesua hasi eta bideratzeko garaian.

Denek irabazteko moduko emaitza

Hegoafrikako testuinguruan oso posible izango zen garaipena askapen-mugimenduak lortu zuela esatea. Horren orde, ordea, Nelson Mandelaren eta beste batzuen aitzindaritzari esker, denek irabazteko moduko eredu bat garatu zen, eta azkenean guztien babesean oinarritutako demokrazia aterata zen garaile. Demokratikoki aukeratutako lehenbiziko gobernurako trantsizioa baketsua izatea ahalbidetu zuen horrek, eskuin muturraren erresistentzia handirik edo atzerapausorik gabe.

Prozesua aurrera eramateko, alde baten nahiz bestearen garaipenak onartu behar izan ziren behin baino gehiagotan. Hori lagungarria izan zen hitzarmenerako bidea bizkortzeko, batzuetan, eta bere oinarriarekin arazoak zituen alderdi baten parte-hartzea justifikatzeko, beste batzuetan.

Tolerantzia eta ulermena

Negoziaziotan hasi aurretik, Hegoafrikako egoera oso larria zen. Arraza desberdinetako pertsona eta alderdi politikoez ez zituzten besteak ia ezagutzen eta elkarrekiko errespetua ere oso txikia zen. Prozesu eraginkorra lortzeko, aurkako aldeek elkarren arteko ulermena garatu eta besteen jarrerakiko tolerantzia landu behar izan zuten. Berriro ere, Mandela izan zen bidea erakutsi ziguna, komunitate zuriari eskuak luzatu zizkionean. Horrek bidea erraztu zuen gai korapilatsuen inguruan akordioak lortzeko eta adiskidetzeari begira ikuspegi orokor bat izateko garaian.

Kontsulta zabala

Negoziazioan alderdi eta egituretako buruzagiek parte hartu zuten, berez, baina ahalik eta kontsulta zabalenak egiteko neurriak aurreikusi ziren.

Alderdiek bilerak egin zituzten kide eta jarraitzaileekin. Horri esker, jendeak negoziazioen beharra eta ezaugarriak ulertu zituen, eta emaitzaren inguruan errezelarik sortzea saihestu zen horrela.

Konstituzioa osatzeko azken asteetan, beren proposamenak bidaltzeko eskatu zitzaizkien herritarrei eta bilerak antolatu ziren, han esandako iritzia kontutan hartuz. Horri esker, konstituzio berriaren aldeko adostasun nazional zabala lortu zen.

25


Gardentasuna

Prozesu osoan zehar tentsio handia egon zen arren, hasieratik erabaki zen hedabideek prozesu osoa jarraitzeko aukera izango zutela. Haien prozesuan aurrera egiten lagundu zuten, eta jendeak bidean egondako oztopo guztien eta aurkitutako konponbideen berri izan zuten etengabe. Gardentasunari eta hedabideei esker, hegoafrikar gehien-gehienek babesa izan zuten negoziazioen emaitzak: 1994an egindako lehen hauteskunde demokratikoan ia %100eko parte-hartzea egon zen.

Eskubide indibidualak eta berdintasuna

Hegoafrikako akordioaren oinarri nagusia denen eskubide indibidualak denentzako baldintza berberetan onartu, babestu eta errespetatzea izan zen. Zutabe horietan bermatutako hitzarmenik lortzea ez zen posible izan, hasiera batean, gutxiengo zuria bereziki bere taldearen interesak babesteko moduen bila zebilelako.

Horrek desadostasun handiak eragin zituen elkarrizketetan zehar, eta une batean prozesua etenda gelditu zen. Norbanakoen eskubideen inguruan paradigma aldatu zenean lortu zen denen helburuen inguruko akordioa, eta gure herrirako negoziazio berri baten xehetasunen inguruko negoziazioak hasi ziren orduan. Horri esker, harro esan dezakegu gure Konstituzioak eskubide indibidualen multzo moderno eta liberal bat jasotzen duela, Auzitegi Konstituzionala izanik eskubide horiek bermatzeko ardura duena.



Giza Eskubideak eta Gatazken Konponbidea

HARRY G. BARNES JN.


Enpresa Fondo errumaniar-amerikarreko lehendakaria eta Asia Erakundeko aholkulari exekutiboa. Carter Zentroan gatazken eta giza eskubideen konponbiderako zuzendari ohia. Ameriketako Estatu Batuak

2000. urtearen amaiera aldetik, Harry Barnes jauna Hego-afrikari buruzko gaien inguruan ari da lanean batez ere, eta, hein batean, baita Asia Ipar-ekialdeari eta Euskal Herriari buruzko gaien inguruan ere.

1993tik 2000ra bitartean Carter Zentroan jardun zuen giza eskubideen eta gatazka-konponbideen programetako zuzendari, Asia, Ekialde Ertaina, Europa eta Afrikan zentratuta.

1990. eta 1993. urteen artean irakasle gonbidatu izan zen Mount Holyoke, Hamilton eta Simmons unibertsitateetan, giza eskubide eta kanpo-politika estatubatuarrari buruzko zein zientzia eta kanpo-politika estatubatuarrari buruzko mintegiak ematen.

1988. urtean, Foreign Office-an eginiko karrera amaitutzat eman zuen, hamaika urtez lan eskerga egin ondoren: enbaxadore izan zen Txilen (1985-1988) eta Indian (1981-1985), Kanpo Politikako Zuzendari Nagusi eta Estatu Departamentuko Pertsonaleko Zuzendari (1977-1981) bai eta Errumaniar enbaxadore ere (1974-1977).



CURRICULUMA

1997 urtea ezkerre Enpresa Funtz errumaniar-estatu-batuarrako administrazio-kontseiluko lehendakaria da eta, horrez gain, Zientziaren Aurrerapenerako Elkarte Estatubatuarrako kidea.

Gaur egun, Asia Fundazioaren aholkulari exekutiboa da, Harreman Etnikoen Proiektuko eta Komunitate Jasangarrien Institutuko zuzendaritza-kontseiluko kide eta Human Rights Watch Asia elkarteko aholkularitza-kontseiluko kide.

LABURPENA

Prestakuntza profesionalaren ondorioz, diplomatikoez gai baten alderdi guztiak aztertze eta «batetik» eta «bestetik» moduko adierazpideak erabiltzeko ohitura dute, eta hori beharrezkoa da arazo bat aztertzen denean, baina ez da nahikoa heldu behar zaion ala ez eta nola erabaki behar denean. Iruditzen zait paralelotasun partziala dagoela, gatazken konponbide-egoerei eta giza eskubideen urratze-egoerei dagokienez. Azterketak ekintzarako edo ez jarduteko erabakia hartzeko oinarri izan beharko luke. Bai giza eskubideen ikuspegia eta bai gatazken konponbidearen ikuspegia baliagarriak dira, baina berez ez dira nahikoak. Beharrezkoa da gatazkak ebazteko jarduerak giza eskubideak kontuan hartzea, eta giza eskubideen babesak gatazkak konpontzeko printzipioak kontuan izatea. Komeni da jakitea gatazkak ez direla beti bortitzak eta ez direla beti gobernuen artean ematen, izan ere gobernu barruan ere ematen dira, eta horiek ere gatazkak dira, ezinbestez.

28

Idea horien argibide, nik zuzenean ezagutu nituen hiru egoera aurkeztuko ditut. Lehena AEBetako Gobernuaren barruan sortutako eztabaidari buruzkoa da: AEBetako politikan erregimen autoritarioen gainean aldaketak egin edo ez zen eztabaida. Gatazka giza eskubideei eta demokraziari lehentasun handiagoa emateko erabakiaren inguruan sortu zen: eman ez gero kritikagoak izan beharra zegoen erregimen autoritarioekin. Eztabaida hori Reaganen bigarren administrazioaldian gertatu zen eta bereziki gogorra izan zen Txileko (demokrazia oso errotuta zegoen bertan) Pinochet Jeneralaren Estatu Kolpeari buruz. Bigarren adibidea, Centro Carter-en giza eskubideen eta gatazken konponbidearen zuzendari-kargua izan nuenekoa da, eta Sudaneko gerra zibilaren inguruko gertakaria da. Hirugarren adibide gisa, Ipar Koreako kasua aipatuko dut, nolabaiteko lotura duena Carter-ekin, eta gaur egunera egokitutako ikuspegi posible bat iradokiko dut, giza eskubideei eta gatazken konponbideari buruzko alderdiak barne dituen.

Giza Eskubideak eta Gatazken Konponbidea

Lehenik eta behin, diplomatikoz osatutako giro batean hazi nintzela azpimarratu nahi nuke. Horrek esan nahi du denetarik entzun behar izan nuela: oso ikuspegi desberdinak sarritan, eta batzuetan muturrekoak ere bai, aurrez aurre zeuden iritziak. Hortaz, ez da harritzekoa gai bati buruzko alderdi desberdinak aditzen ohitu izana. Esatera zahar baten arabera, diplomatikoez ezin dute lan egin esku bat bizkarrari lotuta dutela, ohituta baitaude «alde batetik eta bestetik» pentsatzen eta lan egiten. Ziur aski, horrelako zerbait antzemango zenuten nire iruzkinetan.

Gatazkak konpontzen eta giza eskubideekiko errespetua sustatzen diharduten pertsonak ohoragarriak direla eta bizitzan funtsezko eginkizuna betetzen dutela pentsatzeko joera dut. Gaur adierazi nahi dudana zera da, giza eskubideen sustapenak eta gatazken konponbideak lotura estua izan behar dutela horrelako prozesuetan. Edo, besterik gabe, gatazkak konpontzeko prozesuetan giza eskubideek lekua izan behar dutela. Eta giza eskubideen sustapenean, ezinbestean, konpondu beharreko gatazka bat egongo da.

Arazoa, askotan, alde guztien eskakizunak adiskidetzeko eran sortzen da: zerk izan behar duen lehentasuna eta, denboraren ikuspegitik, noiz eman behar zaion garrantzia gatazken konponbideari eta noiz giza eskubideen babesari. Indarkeriaren sorrerak beste zailtasun bat eragiten du. Adibidez, indarkeriak erantzun bortitza eskatzen du beti? Hala bada, noiz eta nola? Edo, batzuetan, indarkeria halabeharrezko erantzuna da eskubideak urratzen direnean? Gatazken konponbidearen esparruan lan egiten dutenek ahaleginak egiten dituzte, gatazkari amaiera ematean, egon litezkeen eztabaida guztiei konponbide baketsua eskaintzeko. Giza eskubideen babesean eta sustapenean dihardutenek, berriz, dauden giza eskubideak bermatzeko eta urratzeak zigortzeko ahaleginak egiten dituzte. Baina, sarritan, ez dago adostasunik zer datorren lehen eta zenbat denboraz erabakitzeko. Nire iritziz, gai bateko adituek beste gaiaren funtsezko oinarriak eta jarduerak zenbat eta gehiago ezagutu, orduan eta hobeak izango dira ahaleginen emaitzak eta gutxiago korapilatuko da egoera.

Sarritan izaten dugun irudipenaren arabera, gatazken konponbidearen alorreko adituek hainbeste ahalegin egiten dute konponbide bat aurkitzeko, non ez baitute kontuan hartzen izandako eskubideen urratzeak behin betiko desagertu behar direla. Su-eten batek ez du derri gorrez esan nahi giza eskubideak lehen baino babestuago daudenik. Giza eskubideetako adituek, bestalde, eginahalak egiten dituzte justizia bermatzeko, baina ez diete gatazkaren azpian dauden eta gatazka berriz piztu dezaketen faktoreei erreparatzen.

Gauzak horrela, atsegin dut bai giza eskubideen sustapena bai gatazken konponbidea aintzat hartzen dituen biltzar batean parte hartzea.

Nire esperientzian oinarriturik, gatazkak konpontzeko eta giza eskubideak babesteko printzipioen aplikazioa erakusten duten hiru adibide aipatuko ditut. Haietatik bi iraganeko ardurak nituelarik gertatu ziren, eta hirugarrena gaur egungo arduraren emaitza da.

Kontuan izan behar duzue gatazka guztiak ez direla bortitzak eta gatazka bortitz guztiak ez direla beti bortitzak izaten... Era berean, garrantzitsua da gogoratzea gatazka bortitzen prebentzioa sortutako gatazken konponbidea bezain garrantzitsua dela. Izan ere, neurri handi batean, nik «alde batetik eta bestetik» deitu ohi ditudan egoerak dira.

Txile

Bortitza ez den gatazka bat aipatuz hasiko naiz. Hala ere, jarrerak oso muturrekoak ziren, aurrez aurre zeuden erabat, baita ikuspegi filosofikotik begiratuta ere. Gatazka Estatu Batuetako gobernuaren baitan sortu zen, 1980ko hamarkadan. Reagan lehendakariak 1981ean kargua bereganatu zuenean, bere gobernuko arduradunek uste zuten aurreko administrazioak, Jimmy Carter buru zuenak, gehiegizko arreta emana ziela giza eskubideei. Gainera, administrazio hura oso kritikoa izan zen AEBen ohiko aliatu gehienekin, aliatu horiek giza eskubideen urratzeak onartzeaz gain, beraiek ere urratu ohi zituztelako. Gobernu berriko agintarien ustez, berriz, AEBen interesetarako komenigarriagoa zen komunismoaren aurkako eta AEBen aldeko gobernuari laguntzea. Ikuspegi horren adibiderik ezagunena administrazio berriak NBEan izendatutako enbaxadore Jeane Kirkpatrick-ek urte batzuk lehenago erakutsitakoa izan zen. Kirkpatrick-ek erregimen autoritarioen eta totalitarioen arteko ezberdintasunei buruz idatzi zuen: lehenengok ez dute beste lurralderik menderatzeko asmorik, eta bigarrenak atzerriko gobernu demokratikoak makurrarazteko helburua dute. Hortaz, Reaganen lehenengo agintaldiak aldaketa handia eragin zuen Carterren administrazioarekin alderatuta, eta diktadura ez-komunistak egotea ontzat eman zuen, beste eredu bat baitziren, eredu erabilgarria gainera. Horrelakoak onartu ez ezik, haien gehiegikeriak barkatu ere egin zituen.

30

Ni AEBetako enbaxadorea izan nintzen Txilen, 1985etik 1988ra bitartean. Garai hartan Augusto Pinochet diktadoreak gobernatzen zuen Txilen. Lurralde hark tradizio demokratiko luzea izan arren, Pinochetek eskuratu zuen boterea 1973an, estatu-kolpe baten bidez. Ni heldu nintzenean, lurraldea nahikoa aberatsa zen eta politika liberalak erabiltzen zituen, AEBen gustukoak. Komunikabideak kontrolpean zeuden. Alderdi politikoak zeuden, baina muga asko zituzten. Pinochet jeneralak eta indar armatuek boterearen monopolioa zuten. Talde armatu bat matxinatuta zegoen eta noizean behin ekintzaren bat burutzen zuen, baina lurraldea, oro har, lasai zegoen.

Baina Washingtonen, lehenengo agintaldian ez bezala, 1985ean zalantza asko zeuden administrazioaren barruan Klirckpatricken teoriaren egokitasunaren inguruan. Txile tradizio demokratiko luzeko lurraldea izanik eta, batez ere, AEBetako Kongresuan demokraziaren aldeko sentimendua nagusitu zenez, eztabaida piztu zen AEBetako gobernuaren barruan, AEBek Txilerekiko erabilitako estrategia aldatu ala ez erabakitzeko. Hala, Reaganen hasierako agintaldian Pinochetekin harreman onak izatea eta laguntzea lehentasunezko helburua zen, komunismoaren aurkako bastioia baitzen. Reaganen bigarren agintaldian gauzak aldatu eta giza eskubideak «ulermenari» nagusitu zitzaizkion. Logika berriaren arabera, giza eskubideen aurkako gehiegikeriek hondatu egiten zuten egonkortasuna eta, ildo beretik, giza eskubideen errespetuak gizarteko tentsioak gutxitu eta egonkortasuna eragingo zuen. Horrez gain, giza eskubideen sustapenari beste sinesmen bat gehitu zitzaion, berrieta baina antzinakoa: giza eskubideak AEBen izaeraren funtsezko osagarria zirela, alegia. Washingtonetik Santiagora abiatu aurretik, AEBek Txilerekiko erabili beharreko politikari eutsiko zioten hiru zutabe nagusiak adostu nituen AEBetako gobernuarekin: demokraziaren itzulera irmoki bultzatzea, giza eskubideekiko errespetua eta merkatu libreko ekonomia sustatzea. Aurreko agintaldian, berriz, azkenari soilik eman zitzaion garrantzia.

AEBen politikaren erabateko aldaketa hura ez zuen gogoko izan Pinochet jeneralak eta, zenbaitetan, AEBetako administrazioari oldartu zitzaion. Kolperik nabarmenena orduko senatari boteretsu Jesse Helms-en bisita izan zen, Santiagora abiatu baitzen Pinocheti sostengu irmo eta publikoa eskaintzera. Vernon Walters jeneral erretiratuaren eginkizuna ez zen hain nabarmena izan. Bera Pinocheten aspaldiko laguna zen, eta Jeane Kirkpatricken ordezkoa NBEko enbaxadore estatubatuarren karguan. Waltersek beti onetsi zuen nazioarteko erakunde ekonomikoek Txileri maileguak ematea eta, batzuetan, bere ahotsa nagusitu eta AEBek horren aldeko botoa eman edo abstenitu egiten ziren. Baina, oro har, AEBek 1980ko hamarkadaren bigarren erdialdean emandako irudia demokraziaren aldekoa izan zen. Izan ere, administrazioaren barruko gatazka hartan, gehienetan, giza eskubideekiko babesaren aldeko jarrera nagusitu zen. Babes hari oxigenoa eman zion Txilen demokrazia itzultzearen alde herrian sortutako sentimendu gero eta biziagoak. Eta babes haren ondorioz, Pinochetek galdu egin zuen betirako gobernatu ahal izateko antolatutako plebizitua.

Sudan

Nire bigarren adibideak Sudanera garamatza, 1990eko hamarkadan.

1993tik 2000ra bitartean, giza eskubideetarako eta gatazken konponbiderako programen arduraduna izan nintzen Carter Zentroan. Carter Lehendakariak eta andreak 1980an sortu zuten Zentroa. Osasun eta nekazaritzarako laguntza teknikoa eta giza eskubideen sustapena zein gatazken konponbidea barne hartuko zituen gobernu kanpoko ekimenak aurrera eramateko tresna bat sortzea zuten helburu. Zentroaren eta Carter senar-emaztearen jardueraren gehientsuenek Afrika zuten xede.

Sudanen kasuan, 1990eko hamarkadan, Zentroak bere jardueraren aurrera zeraman, nahiz eta Jartum-eko gobernuak eta John Garang buru zuen Hegoaldeko Herrien Askapenerako Armadak (ELPS) gerra krudelean ziharduten elkarren aurka. Zehazki, osasun-prebentzioaren alorrean egiten zuen lan eta hainbat gaixotasunen eragina (hala nola Gineako Harriarena) gutxitzeko helburua zuten jarduerak betetzen zituen. Carter lehendakariak uste zuen halako prebentziozko jarduerak bultzatu beharra zegoela, bai gobernuaren kontrolpeko Iparraldeko eremuetan baita ELPSk kontrolatutako lekuetan ere. 1990eko hamarkadaren hasieran, bi aldeak su-etena sinatzeko konbentzitu ahal izan zituen, eta meniak urte eta erdi iraun zuen. Geroago hautsi bazen ere, jardueraren humanitarioak adiskidetzeko prozesua aurrera eramaten lagunduko zuela espero zuen.

1998an, Sudaneko lehendakari Bashir-ek Jartumera ELPSrekin bake-plana eztabaidatzera joateko eskatu zion Carterri. Osasunari lotutako jardueren gain, Carterrek gobernuaren eta ELPSren arteko su-etena sinatzeko akordioa lortzeko ahaleginetan ibilia zen. AEBen eta Sudanen arteko harremanak oso tirabiratsuak ziren. Gertakaririk gertukoena Carterrek Bashiren eskaera jaso baino pixka bat lehenago egokitu zen. AEBetako indar armatuek terroristentzako ekipamendua ekoizten omen zuen fabrika bat bonbardatu zuten. Washingtonera joan nintzen Sudango egoerari buruzko txosten baten bila, hain zuzen ere gerra zibilari buruzkoa. Hantxe jakin nuen Estatu Departamentuak ez zuela begi onez ikusten Carterren misioa. Izan ere, nahiago zuten bera Jartumera ez joatea, baina erabakia haren eskuetan utzi zuten.

Carterrek joatea erabaki zuen, su-etena lortu zitekeela egiaztatzen zuen informazioa jasoa baitzuen Garangengandik. Hala, Carter senar-emazteak Bashirekin elkartu zirenean, Jartumen, Carterrek esan zion Garangekin ere elkartzea aurreikusita zeukala. Bashir tinko jarri zen horren kontra, baina Carterrek azaldu zion ezinezkoa zitzaioela gatazkari konponbidea aurkitzen laguntzea Garangekin bildu gabek. Bashirek ez zuen txintik ere aldatu bere jarrera.

Hurrengo goizean Hegoaldera abiatu ginen hegazkinez, Kenyako aireportu batera, eta bertan beste hegazkin bat hartu genuen. Hegazkin txikiagoa behar genuen Sudaneko Hegoaldean ELSPk kontrolatutako aireportu batean lurra hartzeko. NBEk hegazkin bat utzi zigun haraino joateko. Baina Kenyan lurra hartu genuenean, NBEko pilotuak jakinarazi zigun erabili behar genuen aireportua bonbardatua zutela Sudaneko hegazkinek ordubete lehenago. Jakina, horrek esan nahi zuen ezin ginela Garangekin elkartu. Geroago, Carter lehendakaria harremanetan jarri zen berarekin eta lanean jarraitu ahal izan zuten urrundik. Beharbada, Carterrek urte luzeetan egindako lana lagungarri izan zen ELPSren eta Jartumen arteko bake-akordioa lortzeko. Tamalez, akordioa sinatu eta handik gutxira hil zen Garang, hegazkin-istripuz.

Carter lehendakariak Sudanen egindakoa barne-gatazka bat konpontzeko lana edo gatazkan hautsitako giza eskubideak berreskuratzeko lana izan ote zen esatea zaila da. Beraren iritziz, ez zen »A edo B» motako kontua izan, baizik eta elkarrekin nahaspilatutako hainbat arazo, eta arazo horiek gatazka arintzeko (edo konpontzeko) osagarriak, giza laguntzakoak eta giza eskubideak babestekoak barne hartzen zituzten.

Era batera edo bestera ulertzen bada ere, Carterren ikuspuntuan aipatzeko moduko alderdi batzuk daude, bai gatazken konponbideari dagokionez baita giza eskubideen babesaren aldetik begiratuta ere. Buruzagi eztabaidagarriekin eta zentsuragarriekin hitz egiteko prest egon da Carter. Beti ere, esku-hartze horrek gatazka bortitza geldiarazteko eta, ondoren, giza eskubideen egoera hobetzeko balio zezakeen egoeretan. Balantzea ez da arbitrarioa, baizik eta konpromisoa erakusten du, bere pertsuasio-gaitasuna eta bere posizioa epe laburreko eta, beharbada, epe luzeko emaitzak lortzeko tresna gisa erabiltzeko konpromisoa, hain zuzen. Ez dio porrotari beldurrik eta ez du zalantzarik egiten ahaleginak errepikatuzko, laguntzarren.

32

Egoera gatazkatsu batean, buruzagiekin hitz egiteko tematzen da, hau da, bere ustez, hartu beharreko erabakia hartu dezaketen buruzagi horiekin. Ez du zalantzarik izaten bere solaskideei zer pentsatzen duen eta zergatik pentsatzen duen esateko. Aldi berean, bete-betean uste du berarekin harremanetan jartzen direnei errespetua izan behar diela, nahiz eta haien jokaerarekin ados ez egon. Gatazkako alde guztientzat gogobetegarria izango den irtenbidea bilatzeko harreman zintzoa sortzen saiatzen da.

Ohartuko zinetenez, aipagai ditudan egoeretan, giza eskubideei eta gatazken konponbideari lotutako kontuak ez dira »A edo B» motakoak, baizik eta »bai A eta bai B» erakoak.

Hirugarren adibidean, Carterren ikuspegia eta puri-purian dagoen kontu bat azaltzen da,

Ipar Korea

Ipar Koreari buruz dudak esperientzia mugatua da. Carter lehendakariak eskatuta, 1996an nekazaritzari buruzko aholkulariarekin joan nintzen Ipar Koreara, Zentroaren eta Nekazaritza Zientzien Akademiaren arteko lankidetzak aztertzerako. Ondoren, 2000. urtean itzuli nintzen, hainbat GKEren ordezkarietako kide nintzela, Estatu Departamentuak elikadura-laguntzako programa bat negoziatzeko eskatu baitzion ordezkarietako horri.

Gure taldeak hainbat egunez negoziatu zuen zenbait konturi buruz: GKEetako ordezkariak Koreako Herri Errepublikako Demokratikoan (KHED) izango zuten statusa, elikaduren banaketa kontrolatzeko ahalmena, Ipar Korean egon zitezkeen denbora, egoteko bisatua berritu zezaketen ala ez eta koreerazko hiztunak izan zitezkeen ala ez. Elikaduren banaketa kontrolatu behar zutenentzat ahalik eta baldintza operatiborik egokienak lortzea zen gure

helburua. Ipar Koreako negoziatzaileek akordio mugatuak lortzeko agindua jaso zuten. Negoziazioa luzea izan zen, baina bi aldeen helburuak bateraezinak zirela zirudien. Oso gutxi egin genuen aurrera. Orduan, Pyongyanen egin genuen azken eguneko arratsaldean, Ipar Koreako ordezkari buruzagia zakarki altxatu eta esan zuen bere taldeak ez zuela akordioa lortzeko inolako aukerarik ikusten. Bere ordezkari osoak azkar alde egin zuen gelatik.

Gure ordezkariak hurrengo goizean goiz alde egin behar zuen. Gure artean jarraitu genuen eztabaidatzen ea zereginik ba ote genuen geratzen zitzaigun denbora laburrean.

Gauerdi aldera, azken ahalegina egitea deliberatu genuen. Zorionez, bi ordezkariak hotel berean geunden ostatu hartuta, hortaz, ez zen batere zaila izan Ipar Koreako ordezkari aurkitzea. Eskatu genion azken bilera egiteko, behintzat nolabaiteko hurbiltasuna lortzeko xedez. Onartu zuten eta, goizaldean zenbait orduz negoziatzen jardun eta gero, akordioa lortu genuen, doi-doi gure hegazkina hartzeko garaiz.

Ordutik ez naiz itzuli Ipar Koreara. Baina azken urtean lanean ibili naiz, zientzilar estatubatuarren eta iparkorearren arteko lankidetzaproiektuak aurrera eramateko aukera eman dezaketen nekazaritza-zientzietako eremuak bilatzen. Gutxi dira Ipar Korearekin harremanak dituzten AEBetako ikerketa-erakundeak. Gainera, oraindik ez dago argi nolako eragina izango duten NBERen zigorrak gobernuz kanpoko elkartrukerako harremanetan. Zientziaren Aurrerabiderako Amerikar Elkarteak datorren otsailean urteko biltzarra egin behar duela eta, Ipar Korearekiko lankidetzaren inguruko sinposioa prestatzen ari gara.

Zilegi bekik orain hamarkada bat iraganera egitea. 1994an, Ipar Koreak mehatxu egin zuen Energia Atomikoaren Nazioarteko Erakundeko adituak kanporatzearekin eta arma nuklearretarako materiala ekoizteko gauza izango zen errektore bat abian jartzearekin. AEBek Segurtasun Kontseiluaren babesa bilatzen zuten zigorrak ezartzeko. Carter lehendakariak, ingeniari nuklearrean prestatuta baitzegoen, kezkatu jarraitzen zuen sortzen ari zen egoera. Ipar Korea bisitatzeko gonbidapen zahar bat gauzatzea lortu zuen eta bertako buruzagi Kim II Sung-ekin elkartu zen. Bisitak mesfidantza handia sorrarazi arren, administrazioak horren kontra ez egitea erabaki zuen, eta zenbait txosten eman zion. Carterren bisitak ez zeukan inongo aurrekaririk, hainbat aldetatik begiratuta. Adibidez, Eremu Desmilitarizatu bisitatu ahal izan zuen (hain zuzen, armarik gehien dauden munduko eremua da).

Are nabarmenagoa izan zen Carterrek Kim II Sungekin lortutako akordioa, ikuskatzaileek lurralde hartan jarraitu eta AEBen eta Ipar Korearen arteko negoziazioak zabaltzeko. Negoziazio haien emaitza Hitzartutako Markoa izan zen. Aldebiko akordio hark mugak jartzen zizkien Ipar Koreako programa nuklearrei. Ordainez, arazorik ekarriko ez zuten ur arineko bi errektore eskaini zizkioten AEBek Asiako lurraldeari. Hego Koreako lehendakari Kim Young Sam-ekin izandako elkarriketetan, Carterrek bi Kim-en arteko bilera prestatu zuen. Baina bilera ez zen gauzatu, handik gutxira Kim II Sung hil egin baitzen. *A moment of Crisis* liburu liluragarriak xehetasun guztiekin kontatzen ditu Carterrek egindako ahaleginak. Egilea Zentroko lankide Marion Creekmore da, bidaia hartan Carterrekin batera joan baitzen, eta duela gutxi argitaratu da. Gatazken konponbidean inork gutxi espero zuen arrakasta harrigarri baten analisi kasuistiko bikaina da. Horrez gain, giza eskubideen alderdia ez dagoela tartean azpimarratu daiteke.

Hitzartutako Markoaren negoziazioen osteko urteetan gorabeherak egon ziren hitzarmena betetzean, alde bakoitzak gutxiagotzat jotzen baitzuen bestearen jokaera. Baina 2000. urtean, orduko Estatu Idazkari Madeleine Albright Pyongyanger joan zen eta, geroxeago, Ipar Koreako funtzionario bat Washingtonera abiatu zen. Orduantxe iritsi ziren AEBetako lehendakarietarako hauteskundeak.

Jakingo duzuenez, Bushen administrazioak bat-bateko bira eman zion bere politikari. Aurreko administrazioek hitzartutako jarraibideetatik aldentzeaz gain, lehendakari hautetsi berriak argi utzi zuen ez zuela inongo interesik Hitzartutako Markoaren aginduak betetzeko. Hilabete batzuk geroago estrategia bat jarri zuen abian, Ipar Korea, Iran eta Irakekin batera, «Gaizkiaren Ardatzean» sartuta. Baina egungo egoera eragin duten beste jokaera batzuk ere badaude. Hala, 2001ean, Ipar Koreako Giza Eskubideen aldeko AEBetako Batzordea eratu zen. Hasiera batean txostenak egitea zuen helburu, kartzelaratzeko politikoak, kontzentrazio-esparruak, elikagai eta ondasunen ez-bidezko banaketa eta Txinara ihes egiten duten erre-fuxiatuen zailtasunak oinarri hartuta. 2004an, Kongresuak Ipar Koreako Askatasunaren Legea onartu zuen, lurralde hartako giza eskubideen egoera hobetzeko aukerak gehituko zituzten jardueri ekiteko asmoz. Ipar Koreak areago nahaspilatu zituen gauzak uranioa aberasteko programari ekitean, Hitzartutako Markoaren aginduetako bat hautsita, era horretan arma nuklearrak ekoizteko ahalmena izango baitzuen. AEBek beste negoziazio-esparru bat eratu zuen Ipar Koreako programa nuklearraren inguruan, seiko talde deritzona alegia, Hego Korea, Txina, Errusia eta Japon barne hartuta, AEBen eta Ipar Korearekin batera. Talde horren balio ukazina lurralde garrantzitsu guztiak barne hartzea izan zen. AEBentzako beste abantaila bat «Gaizkiaren Ardatzeko» lurralde batekin aurrez aurre negoziatu behar ez izatea zen edo, bestela esanda, AEBek eutsi egin zioten Ipar Koreak galdegindako alde-biko negoziazioak ukatzeari, ez zirela beharrezkoak argudiatuta. Iazko irailean, seiko taldeak hitzarmen bat lortu zuen baina, handik gutxira, AEBetako gobernuak zigor ekonomikoen programa sortu zuen. Ipar Korearen erantzuna seiko taldean parte hartzeari uztea izan zen. Azken hilabeteotan, Ipar Koreak irismen luzeko misilak probatu ditu, baita arma nuklear txiki bat ere. Segurtasun Kontseiluak aho batez onartutako zigor zorrotzak berehala heldu ziren.

34

Azken gertaerak ezagutzen dituzue, noski. Txinaren presioagatik batez ere, Ipar Koreak ontzat eman du seiko taldera itzultzea eta AEBek zigor ekonomikoei buruz hitz egitea onartu dute, baina negoziazio berezietan.

Zalantzarik ez dago AEBek eta Japoniak ahaleginak egingo dituztela Nazio Batuen Erakundeko Segurtasun Kontseiluak ezarritako zigorrak betearazteko eta Txinak, Hego Koreak eta Errusiak kontu handiagoz jardungo dutela. Hala, adibidez, Txinak Ipar Korea ezkutuan erregaiz hornitzeko jarduera eten egin du neurri handi batean. Agian ez gintuzke harritu behar Kontseiluaren ebazpenak giza eskubideen aipamenik ez egiteak.

Utzidazue orain Ipar Koreako giza eskubideen alderdiari heltzen. Bigarren Mundu Gerraren osteko erregimen komunista ezarri zenetik, Ipar Koreako gizartea zapalkuntzarik handiena dutenetakoa omen da munduan. Ipar Korearen eta Hego Korearen arteko mugan AEBetako soldadu-multzo handia finkatu zen eta aldikako borrokaldiak izan ziren, baina 1990eko hamarkadaren hasieran tentsioa nabarmen jaitsi zen zenbait boladatan.

Carterren bisitaldiaren ostean, batez ere azken hamarkadan, Ipar Korearen eta Hego Korearen arteko harremanak dezente gehitu dira, Hegoaldean «eguzki-politika» deitu diotenari esker. Giza eskubideek ez dute presentzia nabarmenik izan. Politika horren oinarritzko printzipioaren arabera, Ipar Korearen eta Hego Korearen arteko lankidetzaren ondorioz, Ipar Korearen arriskua arindu eta errepresio-elementuak pixkanaka leunduko dira. Baina Ipar Koreak egindako proba armamentistiko eta nuklearrek zalantzan utzi dute aipatutako printzipioa.

Ondorioz, giza eskubideen gaia xehetasun handiagoz helduko diot orain.

Ipar Korea, jakina, munduko gizarterik itxienetakoa eta zapaltzaileenetakoa omen da. Baina egon dira irekitzeko ahalegin txiki batzuk ere, gehienetan Ipar Korearen eta Hego Korearen arteko harremanen testuinguruan zedarrituta, batez ere Hego Koreako Kim Dae Jung lehendakariak Ipar Koreara egindako bisiten emaitzaz.

«Eguzki-politikari» esker, milaka eta milaka hegokorear Iparraldeko mendi sakratu batera joan ahal izan dira. Hego Koreako zenbait konpainiak enpresa txikiak ireki dituzte Keasong inguruan. Barne-murrizketa ekonomikoak leundu eta nekazaritza-merkatuak agertu izanaren arrastoak ere izan dira, noizbehinka eta han-hemenka. Dena den, giza eskubideek, oro har, ez dute eginkizun nabarmenik Hego Koreako agendan.

AEBetan, 2001ean, Ipar Koreako Giza Eskubideen aldeko Batzordea sortu zen. Haren helburua ekimen humanitarioen jarraipena egitea da, jenderik behartsuenarengana iristea bermatzeko. Horrez gain, nazioarteko laguntza ekonomikoa lortzeko xedea ere badu. Bestalde, Batzordeak Txina konbentzitu nahi du errefuxiatu iparkorearrei lurralde hartan egoten utzi eta nahitaez ez aberriratzeko. Halaber, Batzordeak Ipar Koreari buruzko informazioa lortzeko bitartekoak bilatzen ditu, iparkorearrek bizi duten nahitaezko isolamendua hautsi eta Iparraldean lan egiten duten enpresa hegokorearrak jokabide-kode bat betetzera bultzatzeko.

Azken urteetan, NBEko Giza Eskubideei buruzko edesle bereziak Ipar Korea bisitatzeko ahaleginak egin ditu, baina ez diote sartzen utzi. Haren aldikako txostenen arabera, KHEDn era guztietako gehiegikeriak burutzen dira, hala nola norbait bere senideren batek egindakoaren erantzukizun penalak egozte edo adimen urriko milaka pertsona kontzentrazio-esparruetan biltzea.

Esku hartzeko azken deialdia giza eskubideen alorreko goi-mailako hiru ordezkariak egin dute, alegia, Vaclav Havel-ek, Kjell Bondevik-ek eta Elie Wiesl-ek. «Ipar Koreako herritarren sufrimenduarekiko etengabeko arreta» eskatu eta ezinbestekotzat jo dute Ipar Koreako gobernuarekin giza eskubideen gaiari berriz ere heltzeko aukera aprobetxatzea. Era berean, Nazio Batuei zigor-ebazpenik ez onartzeko eskatu diote, Ipar Koreara laguntza humanitarioa eraman, preso politikoak askatu eta NBEko edesle bereziaren bisitak onartzeko.

Nire ustez, ideia horiek guztiz zentzuzkoak dira. Nola lortu daitezkeen da kontua, ne-guaren ondorio latzak eta elikagaien etengabeko arrazionamendua kontuan hartuta. Gainera, Ipar Koreako gobernuarekiko eta elikagaiak behartsuenei emateko gaitasun eta borondatearekiko mesfidantza orokorra kezagarria da. Giza eskubide unibertsalekin eta bere herriarekin konpromiso gutxien duen gobernu izendatzeko lehiaketa egingo balitz, Ipar Korea txapeldun ukazina izango litzateke.

Baina, itxuraz, hori ez da nahiko Ipar Korean jarduteko aukerak alde batera uzteko. Izan ere, Hitzartutako Markoaren aginduak sei urtez bete zituen Ipar Koreak. Eta Estatu Batuek ere bai. Isolamenduak oso ondorio larriak eragin ditu ondoko sei urteetan. Beraz, zergatik ez egin aurrera 2005eko irailean lortutako hitzarmenetik abiatuta? Horren inguruan negoziatzen den bitartean, estrategia bat izan liteke Segurtasun Kontseiluak argi uztea egungo zigorrak ez doazela herri iparkorearren aurka.


Neurrietako bat Elikagaien Mundu Programa (EMP) elikagaiak banatzeko programak gehitzera bultzatzea izan liteke, nahiz eta Ipar Koreako gobernuak EMPren ekarpena mozte erabaki duen. Bigarrena izan liteke seiko taldeko gainerako bost lurraldeak hurrengo negoziazio-errondara joatea, KHEDrekin akordioa lortzera, eta ez errenditzera, doazela pentsatuz. Ikuspegi hori onartzeko azken urteotako borondate faltaren ondorioz, oso denbora baliotsua galdu da. Izan ere, gai nuklearraren inguruko akordio bat lortuz gero,


baldintza humanitarioak eta giza eskubideak hobetzeko aukerak nabarmen ugarituko lirateke. Nola dio esakerak? «Pertsona paranoideek ere, batzuetan, etsaiak izaten dituzte».

Jakina, nik «zehazgarri» eta «zehazgaitz» deitzen ditudan hainbat faktore hor daude. Litekeena da herritar iparkorearrek, gaur egun, inongo lurraldetan konfiantzarik ez izatea, ezta Txinan ere. Gainerako bostak ere ez dira Ipar Koreaz fidatzen. Hori dela eta, are beharrezkoagoa da bostek, elikagai-laguntza eskaintzeaz gain, Ipar Korearekiko «errespetua» erakustea. Errespetu horren alderdi bat, zaila izan arren, honako hau litzateke: elkartzea, eztabaidatzea eta besteak solaskide onargarritzat hartzea. 1994an posible izan zen. Orain, posible izateko aukerak bilatu beharko lirateke.

Gatazka horrek kaltegarri izateko ahalmen ikaragarria du.

Baina aldi berean, irudimenaren eta iraunkortasunaren bidez, konponbidea aurkitzeko eginahalak eginez etengabe, giza eskubideak sustatzeko oinarria izan daiteke.





Bake-prozesuak eta giza eskubideak nazioartean

JAVIER ZÚÑIGA JN.

Amnistia Internacionalen Idazkaritza Nagusiko aholkulari berezia

Javier Zúñiga jauna, gaur egun, Eskualde Programetako Aholkularia da Nazioarteko Amnistiaren Idazkaritza Nagusian, Londresen. 1977an sartu zen AIn, eta 1994ra arte eta 1997tik 2001era bitartean, erakundearen programaren zuzendaria izan zen Amerikan. Ordutik, hainbat goi-kargu izan ditu AIn: Eskualde Estrategien Zuzendaria eta Eskualde Programen Zuzendari Nagusia izan da, besteak beste. Aipatutako erakundean denboraldi sabatikoa hartu zuen 1995etik 1997ra, eta tarte horretan Nazio Batuen Erakundeko eta Amerikako Estatu Erakundeko Giza Eskubideen Zuzendaria eta Zuzendariorde Exekutiboa izan zen Haitiko Nazioarteko Misioan, eta halaber, Nazio Batuetako Giza Eskubideen Goi Komisariotzako Giza Eskubideen Misioaren burua Ruandan. Zúñigak lan-bidaia eta landa-azterketak egin ditu honako herrialde hauetan: Argentina, Brasil, Amerikako Estatu Batuetan, Mexiko, Haiti, Kuba, Bolivia, Txile, Nikaragua, El Salvador, Peru, Dominikar Errepublika, Guatemala, Kolonia, Israel eta Lurralde Okupatueta, Venezuela, Afganistan, Nepal, Yemen, Aljeria, Espainia, Frantzia, Maroko, Tunisia, Zimbabwe eta Hegoafrikar Errepublikan. Alk Erresuma Batuari eta Ipar Irlandari buruz egindako lanaren gainbegiralea izan zen hainbat urtez.



CURRICULUMA

Nazioarteko Amnistiaren baitan eta kanpoan burututako lanetan zehar, Nazioarteko Amnistiaren eta Egia, Justizia eta Berradiskidetzaren aldeko era guztietako Batzordeen arteko lankidetzaz oso hurbiletik jarraitu eta zuzendu du hainbat herrialdetan, hala nola, Argentina, Txile, Guatemala, Peru, Haiti, El Salvador eta Ipar Irlandan. Ardura berberak izan ditu zenbait herrialdetako aurretiazko bake-prozesuetan ere. Ruandan emandako denboran, genozidioa bukatu eta bi urtera, erronkak zuzenean egiaztatzeaz gain, sarraskiak eragindako zauriak sendatzen eta gizarte-ehuna berrantolatze ahaleginak bideratzen lagundu zuen.

LABURPENA

Giza Eskubideak ezinbesteko tresna dira gatazkak konpontzeko, eta, gainera, edozein behin betiko akordio politikoren zati izan behar lukete.

Esperientziak askotan erakutsi du gatazka bati amaiera ematen dion baina bere muinean giza eskubideak sartzen ez dituen edozein akordio politiko oso akordio kaskarra gertatzen dela.

Egia bilatzeak izan behar du biktimei justizia eta ordaina emateko lehen urratsa, eta zigorgabetasuna amaitzea eta eraso ez dela errepikatuko bermatzea dira helburuak.

Bake-prozesuak eta giza eskubideak nazioartean

Amnesty Internationalen Idazkaritza Nagusiaren izenean, mila esker Eusko Jaurlaritzari biltzar garrantzitsu honetan parte hartzeko gonbita bidaltzeagatik gure erakundeari.

Gure iritziz, oso erabaki egokia izan zen konferentzia batean elkarrekin uztartzea giza eskubideak eta gatazken konponbidea, hau adierazten baitu horrek: onartu egiten da giza eskubideak ez direla bake-prozesuari itxura hobea ematearren eranstean zer bat, baizik eta bidezko bake iraunkorra lortzeko ardatza. Hala erakutsi dio Amnesty Internationali 45 urteko ibilbideak, gatazketan izan diren giza eskubideen bortxaketak dokumentatu baititugu. Indar armatuaren erabilera izan dute ezaugarri gatazka gehienek.

Alabaina, asko, gehiegi beharbada, erabili da «giza eskubideak» terminoa azken urteotan. Oro har, gatazka bateko aldeetako bakar batek ere ez du jendaurrean onartzen giza eskubideak bortxatzen dituenik. Beste aldea da beti horrelakorik egiten duena.

Horregatik, zeri deritzogun giza eskubide azalduko dut lehenbizi. Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaz ari naiz, jakina, eta haren baitatik sortutako hitzarmenez. «Unibertsal» hitza gaiaren gakoa da, denoi dagozkigula adierazten baitu, ezin dela inor utzi horiek gabe, denok dugula horien alde egiteko eta betearazteko obligazioa. Nire herrikide ospetsu batek, Benito Juárezek, esan zuenez, «Besteen eskubideak errespetatzea, hori da bakea». Nazio Batuen Erakundearen eraikineko atarian daude grabatuta hitz horiek, New Yorken. Zilegi bekit eranstea niri hitz horietan dagoela gatazkak konpontzeko sekretua.

Testuinguru horretan, aipatu berri dudan unibertsaltasunak eskatzen du giza eskubideen arabera konpontzeko euskal gatazka, hala nahi baitu nazioarteak. Unibertsaltasun horrek dioskunez, Nepalen norbait «desagertzen» den bakoitzean edo Espainian norbait torturatzen dutenean, ez dituzte bakarrik biktimen giza eskubideak urratzen, gu guztionak baizik, gizateriaren kide garen aldetik.

Ez da nire asmoa euskal gatazkaren sakoneko zergatiei buruz iritzia ematea, ez baita hori Amnesty Internationalen jarduteko era. Gure erakundearen lana izan da gatazka horretan edo horren aitzakiatan izan diren giza eskubideen bortxaketak jaso, dokumentatu eta salatzea.

Amnesty Internationalek ikusi izan duenez, talde armaturen bat herritarren babesarekin aritzen bada, haien aldarrikapenen baten alde ari omen delako (eskubide nazional, erregional edo etnikoen onespina, edo agintean dagoen erregimen konstituzionalaren aldaketa), giza eskubideen bortxatzea ere ekarri ohi du gobernu zentralaren erantzunak.

Besteak beste, neurritz kanpo erabiltzen du indarra gobernuak, eta itaunketak egiteko legez kanpoko metodoak, gogorak, erabiltzen ditu (muturreko kasuetan, tortura edo beselako tratu ankerrak, gizalegearen aurkakoak eta doilorrak, epaiketarik gabeko exekuzioa edo «desagerraraztea»).

Talde armatuak menderatu ezin dituzenez, gatazkan esku hartzen ez duen populazioari ere eragiten dion legedia sortzen du estatu zentralak (besteak beste, bilera, adierazpen eta elkartze eskubideen aurkako erabakiak). Gatazka areagotzea besterik ez dute egiten lege horiek eta aipatutako errepresio-jarduerak. Etengabeko soka hori (probokazioa-errepresioa) da gatazka konpontzeko oztoporik nagusietakoa.

Talde armatuek, berriz, giza eskubideen urratze larriak egiten dituzte beren helburuak lortzeko, jarduera politikotik aparte edo haren osagarri gisara: segurtasun-indarretako ki-deak eta pertsonaia politikoak hil, bonbak zartarazi leku publikoetan (biktima zibil ugari eragiten ere, sarritan), bahiketak eta estortsioak egin, eraso egin azpiegitura ekonomikoeci...

Euskal gatazka ere bat dator beste gatazka batzuetan izaten diren ezaugarri horietako batzuekin, guztiekin ez bada.

Aldaketa politiko, ekonomiko eta sozialek, nazioarteko testuinguruak eta gatazkaren eraginpean dagoen herritarren presioak, ordea, bake-hitzarmenak sinaraztera behartzen ditu –poliki baina tinko– gatazketako partaideak. Baina inongo bake-hitzarmenik ez da iraunkorra izango eta gatazka jasan dutenen itxaropenak beteko baldin eta giza eskubideak ez badira prozesuaren ardatz nagusietakoa.

Gogoan izan Amnesty Internationalek ez duela parterik hartzen bake-prozesuetan, ez alde ez bitartekari modura. Gure erakundearen eginkizuna da prozesuko eragileei printzipio batzuk gogoraraztea. Printzipio horiek aintzat hartu ezean, osatu gabea eta akastuna izango da hitzarmena.

Besteak ez bezalakoa da gatazka armatu bakoitza; beraz, desberdinak bake-prozesua garatzeko bideak. Amnesty Internationalek ezin du, bada, ekarpenik egin alde horretatik. Uste dugu, ordea, estatu espainiarrak eta ETAk zenbait neurri eta jokabide hartzeak erraztu egin lezakeela bake-prozesua abiarazteko giroa.

Premiazkoak eta larriak dira neurri horiek, eta bake-prozesurik ez balego ere indarrean jarri beharrekoak, egun izaten ari diren giza eskubideen urratzeak amaiaraztea baitute helburu. Giza eskubideek ez dute ezeren zain egon behar, ez dira erabili behar truke-txanpon gisara, baldin eta bake-hitzarmenak sinesgarritasunik izango badu.

Amnesty Internationalek bidali dizkie jada eskariak Espainiako gobernuko buruari, José Luis Rodríguez Zapatero jaunari, eta ETako zuzendaritzari neurri horiek lehenbailehen har ditzaten.

Zein dira, baina, neurri horiek?

Estatu espainiarrari dagokionez, hauek:

Atxilotuak inkomunikatuta ez edukitzea

Inkomunikazio-erregimenak bidea zabalik uzten die torturei eta tratu txarrei, giza eskubideen beste bortxaketa larri batzuk gertatzeko arriskua areagotuz.

Ez da kasualitatea inkomunikazio-erregimena zer hauekin lotzea jendeak: bahiketak, torturak, epaiketarik gabeko atxiloteta mugagabeak, defentsa-eskubiderik eza, abokatua hautatzeko eskubiderik eza, atxilotze-leku sekretuak, atxilotuak hegazkinez eta ezkutuan garraiatzea torturapean itauntzeko...

Zerrenda hori ez da Hego Amerikan 70eko hamarkadan gertatzen ziren gehiegikeriei buruzkoa, horiek guztiak egin baziren ere: Ameriketako Estatu Batuek egiten dituzte horiek guztiak, hango gobernuak «mehatxu terroristatzat» jo duen horri erantzunez.

Horregatik, tamalgarria deritzo Amnesty Internationalek Espainiako gobernuak ez hartu izana atxilotuak babesteko neurri legalik. Ez omen dira beharrezkoak, dio gobernuak. Gure iritziz, ordea, atxilotuak hautatutako abokatua izatea eta epailearen aurrera lehenbailehen eramatea ezinbestekoak dira, terrorismoagatik atxilotutakoek tratatu txarrak jasateko arriskua murrizteko.

Giza eskubideen aldeko nazioarteko elkarte eta gobernu kanpoko erakunde askok eskatu diote Rodríguez Zapateroren gobernuari inkomunikaziopeko atxilotetak bertan behera uzteko. Besteak beste, Nazio Batuetako Torturari buruzko Begirale Bereziak egin dio eskari hori. Espero dugu lehenbailehen aintzat hartzea gomendio hori R. Zapateroren gobernuak.

Presoen edo terrorismoagatik atxilotutakoen sakabanatze-politika bertan behera uztea eta beren sendietatik gertu kondena betetzen uztea da, gure iritziz, hartu beharreko bigarren neurria

Familiatik hurbil egoteko presoak duen eskubidea urratzen du sakabanatze-politikak, eta presoaren familia osoaren aurkako zigor bihurtzen da. Politika ankerra da, Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmeneko eskubideen aurkakoa. 2003ean, presoen eta haien familiaren arteko batez besteko distantzia 630 km-koa zen, Begirale Bereziaren txostenak zioenez. Diru-arazoak eragiten ditu horrek, eta istripuak izateko arriskua areagotzen. Sakabanatze-politikari ekin zitzaionetik, 16 lagun hil dira auto-istripuz.

Alderdi politikoei buruzko legea, bestalde, anbigua da, etengabeko mehatxua pentsamendu, adierazpen-eta elkartze-eskubideentzat eta jarduera publikoan parte hartzeko eskubidearentzat. Nazioarteko zenbait hitzarmenek bermatutako eskubideak dira guztiak ere; besteak beste, Giza Eskubideei buruzko Europako Hitzarmenak eta Espainiako Konstituzioak berak.

43

9.2 artikulua bereziki kezkarria da, honela baitio:

Erakunde terroristen jarduera osatu edo politikoki laguntzea, ordena konstituzionala hankaz gora jartzeko edo bake publikoa larriki hondatzeko helburuarekin betiere, botere publikoak, gizarteko talde edo pertsona jakin batzuk edo herritarrak, oro har, izupean jartzen saiatuz ...

Legearen 9.3 artikulua baditu ongi zehaztu gabeko terminoak eta esaldiak: «Terrorismoari isilpean laguntzea[...]», «Enfrentamendu eta gatazka zibila sustatzen duten jarduerak[...]», «[...]ri dagozkion jokabideak[...]».

Irizpide politiko jakin batzuk kriminalizatzeko saiotzat jo daitezke xedapen horiek, talde «terroristen» helburu berberak (independentzia, adibidez) bide baketsu eta demokratikoetatik lortu nahi dituztenak alegia.

Amnesty Internationalek uste du, bada, aldatu egin behar dela lege hori, eta kendu giza eskubideei eragin diezaieketen anbiguotasun horiek. Esan dezadan gure erakundeak ez duela iritzirik eman Herri Batasuna hauteskunde-koalizioa legez kanpo uzteko Espainiako auzitegiek hartutako erabakiaz.

ETArri dagokionez, erabat gaitzetsi ditu Amnesty Internationalek erakunde horrek egindako giza eskubideen urratzeak. Ez dago aitzakia edo justifikaziorik gehiegikeria horiek zurituko dituenik: herritar zibilen hilketak, bahiketak... ETAk ez du bake-prozesuaren mende jarri behar urraketa horiek gerarazteko erabakia. Bake-prozesurako giro egokia sortzen laguntzeko, ETAk ere bertan behera utzi behar lituzke erasoak, mehatxuak, estortsio ekonomikoa eta herritar zibilak izutzeko kale-borrokakako ekintzak (ETAk sustatuak, segur aski), berehala eta baldintzarik gabe.

Egia, justizia eta ordaina izateko eskubidea

Hiru kontzeptu horiek ezinbestekoak ditu bake-prozesu orok, bai negoziazio-agendan daudelako, inplizituki, bai noiz adieraziko zain daudelako, une egokia noiz iritsiko. Kontua da egia bakarrik ireki ahal dizkiola ateak justiziari, eta justiziarik eta ordainik gabe ez dagoela berradiskidetze-itxaropenik.

Nazio Batuen Batzar Orokorrak zenbait printzipio eta oinarritzko irizpide onartu zituen giza eskubideen nazioarteko arauen eta nazioarteko giza zuzenbidearen aurkako urratze agerikoek biktimek errekurtsioak aurkezteko eta ordaina jasotzeko duten eskubideaz.

Positiboa iruditu zaio Amnesty Internationali terrorismoaren biktimekiko elkartasun-legea.

ETAren biktimek badute egia, justizia eta ordainaren alde jarduteko biderik; alabaina, Estatuaren ordezkariak eragindako giza eskubideen urratze larrien biktimek ez dirudi aukera bera dutenik legearen babesa eta onespina jasotzeko.

Iraganean egindako giza eskubideen bortxaketa guztiak hartu behar dituzte aintzat egia eta justiziak, direla ETAk eginak direla Estatuaren ordezkariak eginak (edo haien laguntzarekin; hor daude, adibidez, ETako kideen epaiz kanpoko exekuzioak, GAL taldeak eginak. Dena den, epaiketa batzuk ere egin izan dira erakunde horretako kideen aurka, eta erru-edo errugabetasun-epai argiak kaleratu ere).

Zuzenbideko estatuetan ere oztopo ugari gairatu behar izaten dira legea betearazi behar duten funtzionarioen gehiegikeriak ikertzeko. Izan ere, «isiltasun-legeak» zaildu egiten du segurtasun-indarretako kideen testigantza hartzea; horrez gain, sarritan ez da egoten ikertzeko borondate politikorik.

Amnesty Internationalen ustez, mekanismo independente bat (azkarra, inpartziala eta sinesgarria) behar da poliziak egindako giza eskubideen bortxaketak ikertzeko. Funtsezkoa da mekanismo hori, eta bake-prozesurik egon edo ez egon jardun behar du lanean.

Espanian, behin baino gehiagotan eskatu du AIk horrelako mekanismo bat sortzeko. Izan ere, poliziak eragindako tortura eta tratu txarren gaineko salaketak ikertzeko tresna azkar eta eraginkorrik ez dagoela deritzogu (adibidez, 2005eko abuztuan Ceutan eta Melillan gertatutakoak ikertzeko).

Egiaren bila

Egia izaten da gatazka armatuetako lehenbiziko biktima. Latinoamerikako bake-prozesu guztietan, adibidez, Egiaren Batzordeak izeneko mekanismo batzuk jarri zituzten mar-txan. Izan ere, egiaz gabe, bake-hitzarmenek ez dute euskarririk, eta justiziak eta ordainak behar beharrezkoa dute egia. Bake-prozesu bakoitzak sortu behar du egia bilatzeko bideren bat, bere egoerara egokitua. Baldintza hau betetzea, ordea, ezinbestekoa da: parte-hartzai-leen laguntza erabatekoa eta fede ona, haien esku baitaude egia (edo hura jakiteko modua) eta lekukoak babesteko ahalbideak.

Edozein dela ere mekanismo hori, Amnesty Internationalek dio ez egia ez justizia ez di-rela erabili behar truke-txanpon gisara bakea erdiesteko. Horrela lortutako bakea, izan ere, ez litzateke ez bidezkoa ez iraunkorra izango. Giza eskubideen urraketak ikertzea eragozten duten edo errudunen zigorgabetasuna ziurtatzen duten amnistia orokor, barkamen eta an-tzeko neurrien aurka dago, bereziki, gure erakundea. Nazioarteko zuzenbidearen agindu-peko estatuen eginkizunen aurkakoak dira neurri horiek, baldin eta aurretik ez bada egin epaiketarik, nazioarteko arauen arabera.


Arrazoi ugari aipatu izan dira biktimek justizia bilatu eta jasotzeko duten eskubidearen aurka, batez ere bake-prozesuetan. Ohituta gaude jada arrazoi horiek entzutera: justizia-al-darrikapenak arriskuan jartzen duela bake-prozesu ahul hori, edo berradiskidetzea eragoz-ten duela. Ohituta gaude, halaber, honelakoak entzutera: «Iragana ehortzi eta etorkizunari begira diezaiozun».

Baina hona hemen zer erantzun dezaketen biktimek: «Nola barkatu biktimatzat onartzen ez banaute? Nola ahaztu, zer gertatu zen zehazki ez badakigu? Nola ahaztu, ez badakigu nori barkatu behar diogun edo zer ahaztu behar dugun? Nola lortuko dugu historia ez errepikatzea iraganeko bidegabekeria eta irainen zergatiak kentzen ez badira?

45

Adiskideok

Berriro diot: Amnesty Internationalek ez du parterik hartzen bake-prozesuetan; haiek gidari izan behar dituzten printzipioak finkatzen ditu. Dena dela, arreta eta gogo handiz egingo du prozesu honen segimendua, eta, hala badagokio, lagundu egingo du giza eskubi-deak prozesuko ardatz bihurtzen, denok nahi dugun helburua erdietsi arte: zuzenbide-esta-tuaren garaipena, denon giza eskubide guztiak denok errespetatzea.



Eskubideak, erlijioa eta konponbideak

HAROLD GOOD OBE

Ipar Irlandako Britainiar Inperioaren Ordenako kidea

Harold Good Londonderry-n (Derry) jaio zen, Ipar Irlandan, 1937ko apirilaren 27an. 1962an, Irlandako Eliza Metodistako apaiz ordenatu zuten, eta Ipar Irlandan, Irlandako Errepublikan eta Amerikako Estatu Batuetan jardun du apaizgoan.

60ko hamarkadan AEBetan prestatzen emandako aldiak berebiziko eragina izan zuen bere ikuspegietan, hau da, banatutako gizartearen, bakea sendotzearen eta giza eskubideen inguruan zituen usteetan. Horrela, arrazismoaren eta sektarismoaren arteko antzekotasunez jabetu zen. 1968an Shankill Road barrutira bidali zuten, Belfastera. Bertakoaren artean oso errotuta zegoen «protestantea/lealista» sentimendua. Apaizak kaleetan egiten zuten gehienbat lan, beldurrak uxatzeko, indarkeriazko ekintza eta erantzunak bertan behera utzi arazteko eta bi gizartearen artean «zubi» sendoak eraikitzen laguntzeko.

1973an, Corrymeela-ko Berradiskidetze Zentroko Zuzendari izendatu zuten. Kristau katoliko eta protestanteen artean sortutako zentroa da Corrymeelakoa: bake-giroa eskaintzen die gatazkaren ondorioak zuzenean jasan dituztenei, eta halaber, hainbat jatorritako eta helburu sozial, erlijioso eta politiko desberdinetako hiritarrek elkarrekin hitz egiteko «gordelekua» edo txokoa da.



CURRICULUMA

Gobernuaren aholkularia izan da gizarte-politikan, Giza Eskubideetarako Ordezkaria, espetxeko kapi-laua, *Delitugileak Lagundu eta Gizarteratzeko Ipar Irlandako Elkarteko* lehendakaria, eta *Oroituz Sendatu* taldeko kide fundatzailea. Izan ere, Biktimei iragan mingarria gainditzen laguntzea du helburu aipatutako taldeak.

2001ean, Irlandako Eliza Metodistako buru izendatu zuten Harold Good. 2005eko irailean, Alec Reidekin batera, IRAk armak erabilezin utzi zituen egiaztatzeaz arduratu zen, ikuskatzaile independente moduan.

2005eko abenduan, Eusko Jaurlaritzak Giza Eskubideen René Cassin saria eman zien Good eta Reidi. Bere lanak Isabel II.a erreginak ere aitortu du: 1970ean, Hiritar Merituaren Domina eman zion, eta 1985ean Britainiar Inperioaren Ordenako kide izendatu zuen.

Clodagh-ekin dago ezkondata, eta bost seme-alaba eta hamabi biloba dituzte.

LABURPENA

Hitzaldi honetan Harold Good agurgarriak aztertuko du erlijio-sinismen forma «distortsionatu» jakin batzuek zenbateraino eragin txarra, baita suntsitzailea ere, izan dezaketen giza eskubideen ulermenean eta gure planetan zabaltzen ari diren giza eskubideen praktika bi-ziatuetan.

Azalduko digu eragin horren arrazoiak honakoak izan daitezkeela:

Testu judo-kristauen eta idatzi islamiarren interpretazio subjektibo eta distortsionatua.

Fundamentalismo zurruna.

Indibidualismo osasungaitzak pizten duen kezka.

Debozio-praktika zentsuratzailer eta mendekariak.

Herialde, kultura eta kredoen arteko interes-gatazkak.

Erlijio-erakundeak babesteko egitura eta balio-sistema autoritarioak erabiltzea.

Erakutsiko digunez, ez dago erlijio handien historian oso urrun jo beharrik «Jainkoaren izenean» gertatu omen direla-eta defenditu nahi izan diren giza eskubideen kontrako abusu latzak aurkitzeko.

48

Nolanahi, esan beharra dago erlijioa ez dela izan bere ekintzak horrela justifikatzen saiatu den sektore bakarra. Beste hainbeste adibide –edo gehiago– badaude defenditu ezina «Estatuaren izenean» defenditu nahi izan duten nazioena. Pertsona batzuentzat, izan ere, Estatua «jainkoaren autoritatearen» ordezkaria da, edo horren interpretazio propioa egiteko tresna.

Hala eta guztiz ere, teologia biziari eta distortsionatuekiko errefusa legitimotasunez defenditzea ez ezik (funtsezko eskubide guztiak ukatuz injustizia zilegi egin nahi dutelako), hitzaldi honen helburua da antzinako eskriturek eta kredo historikoei ekarritako eskubide eta obligazioen balio unibertuala aitortu eta nabarmentzea.

Balio komun horiek berriz deskubritu eta elkarbanatzea da bide bakarra erlijioak izan behar dutena izateko, eta mundu sekularra ere aberastu egingo da hala, balio horiek *gizarte-ordena egokiaz* kanpo ulertzeko gai izango delako, ordena hori garrantzitsua izanik ere.

Bakoitzaren hizkuntza edozein dela ere, deskubrimendua entzuteaz iritsiko da.

Eskubideak, erlijioa eta konponbideak

Ipar Irlandako Giza Eskubideen aldeko Batzordeko kide izan nintzen garaian, nire elizako Buru izendatu ninduten. Aipatutako batzordea *Ostiral Santuko Akordioa* sinatu ondoren eratu zuten. Prentsaurrean, politika-gaietan espezializatutako kazetari batek honako galdera hau egin zidan: «Aurrerantzean elizako Buru izango zarenez, dimititu eta Giza Eskubideen Batzordeko postua utzi egingo al duzu?» Hori zergatik pentsatzen zuen esan nion, eta bere ustez «interes-gatazka» garbia sortuko zela erantzun zidan. Gatazka bakarra sortuko zitzaidala adierazi nion: nire agenda.

Dena den, kazetari hori ez da horrela pentsatzen duen bakarra, jende askok uste baitu giza eskubideak eta erlijioa bateraezinak direla. Zenbaitek giza eskubideez duten ikuspegia, ez dirudi bat datorrenik beraiengan tinko erroturik dauden sinesmenekin, erantzukizun pertsonalari buruzko fede-irakaspenetan oinarriturikoak.

Beste hainbatek erlijio-pentsaera jakin batzuek eragindako ondorio suntsitzaileak aipatzen dituzte iritzi horren arrazoiak azaltzeko. Ikuspegi «kutsatua» dela uste dut, giza eskubideak mundu osoan ulertzeko eta gauzatzeko modu gehienei dagokienez.

49

Nire ustez, okerreko ikuspegi horrek hainbat iturburu izan ditzake:

Testu judu-kristauen eta eskritura islamiarren interpretazio desitxuratua, mugatua eta subjektiboa.

Fundamentalismo zorrotza.

Okerreko indibidualismoak eragindako kezka.

Debozio modu gaitzesgarriak eta gogorrak.

Herrialdearen, kulturaren eta fedearen interesak aurrez aurre egotea.

Erljio-erakundeak babesteko ezarritako egitura autoritarioak eta balio-sistemak.

Zoritxarrez, gure ez dugu oso urruti jo behar giza eskubideetan «Jainkoaren izenean» egindako gehiegikeriarik larrienak aurkitzeko.

Nire kasuan, hortxe dago Irlandako uhartearen iraganeko eta duela hainbat urtetako historia. Hegoafrikan, Holandako Eliza Erreformatuaren «teologia» kutsatuaz baliatu ziren apartheid-erregimena zurrizteko. AEBetako hegoaldeko estatuetan, eskrituren gezurrezko interpretazio fundamentalistan oinarritu ziren esklabotzari «legitimitatea» emateko. Inksizioaz, gurutzadez eta zigorrez ere hitz egin dezakegu, zenbaitentzat gai ezagunak dira eta, baina luze joko luke, eta ez dugu astirik.

Baina zorionez, baditugu bestelako historiak ere, batzuk dokumentatuak: munduko «Ghandi», «Martin Luther King», «Ama Teresa Kalkutako» eta «Mandela» guztienak, hain zuzen. Justiziaren eta eskubideen alde jarduteko asmoari, fedean tinko errotuta zegoena, gogotik eutsi zioten beti edonon bizi zirela.

Mundu sekularrean ere, erlijioaren eremuan bezalaxe, hamaika neurrigabekeria babestu dira «estatu-interesen» izenean. Eta ziur nago denok bat gatzela honetan: giza eskubideetan ezin da inolako urraketarik onartu, ez «Jainkoaren izenean» ez «Estatuaren izenean».

Eskubide erlijioso eta sekularren interpretazioen arteko kontraesanak egiaztatzen hasi beharrean, nahiago dut eskubideetan eta erantzukizunetan ditugun balio komun unibertsalak aitortzea eta azpimarratzea, eskritura zaharretan eta sinesmen historikoetan ala bizko gizarteak lortzeko baldintzei buruzko interpretazio sekular humanistetan oinarritzen diren kontuan hartu gabe.

Balio komun horiek berraurkituz eta elkar trukaturaz gero, erlijioaren munduak benetan izan beharko lukeena izateko askatasuna lortuko du, eta mundu sekularra aberastu egingo da, *gizarte-ordena* (garrantzitsua zinez) baino harantzago heltzen den zuzenbideari buruzko interpretazioaz jabetuz. Berdin dio nola deitzen dion bakoitzak horri guztiari; entzutea da kontua, besterik gabe.

Datazka konpontzeko, adostasuna lortu behar daoinarrizko printzipioei eta balio komunei buruz gatazkaren alde guztiek Giza Eskubideen inguruan egindako interpretazioan eta hartutako konpromiso bateratuan oinarrituko da adostasuna.

Ipar Irlandakoa naiz ni. Dakizuenez, hango gatazka «erlijiosotzat» jo izan dute. Jarraian, gure bake-prozesuan orain gauden egoerara heltzeko eman ditugun urratsak aipatuko ditut. Izan ere, ikuspegiak desberdinak izan dira, baina balioak komunak.

Egia

50

Lehen urratsa emateko, alde guztiek ezetza baztertu eta gatazkaren arrazoiengan eta iraupenean izandako erantzukizun indibidual eta kolektiboa aitortu behar dute.

Zer ez garen izan, zer ez dugun egin, eta zer egin behar genuen. Hori guztia aitortu behar dugu. Eta elkarri zer egin diogun ere bai.

Elkarrizketa zintzoa

Horra zer eskatzen duen:

Aurrez aurre jartzea, mingarria izan arren, eta gero, adiskidetzeta.

Sentiberatasuna.

Eztabaidatzeko eta hitzeko erasoak hartzeko eta egiteko prest egotea.

Gelan sartzeko gogoia izatea eta irteteko prest egotea.

Entzuteko eta hitz egiteko gaitasuna.

Hasieran, partaide erabat independente batek edo batzuek bideratuko dute elkarrizketa. Ipar Irlandan, George Mitchell Senadoreari eman zioten ardura hori.

«Bestearen» jarrera enpatiaz ulertzea

«Bestearen tokian jartzea». Hori lortzeko oinarria elkarrizketa zintzoa da. Belfasteko ekitaldi publiko batean, estatuko goi-funtzionario bat IRAko buru ohi batekin hitz egiten ikusi nuen. Pozik zegoen itxuraz, duela urte batzuk IRAk etxean bonba bat jarri zion arren. Horra zer erantzun zidan horretaz galdetu nionean: «Bere komunitatean garai berean jaio banintz, nik ere berdin jokatu nuke, ez bairik gabe.»

Gizarte kontzeptu zeharo inklusiboari atak irekitzea*

Aniztasun onuragarria onartzeko.
Bestearen duintasuna eta balioa aitortzeko.
Ideologia eta helburu politiko anitzen legitimitatea onartzeko.
Niretzat aldarrikatutako eskubideak beste guztiei ere bermatzeko konpromisoa hartzeko.

«Guztiak» hitzak den-denak hartzen ditu barne: krimenen egileak, borrokalariak eta biktimak; nire iritziekin bat datozenak eta ez datozenak; bai «txalogarria» bai «mespretxagarria» iruditzen zaidan jendea.

Shalom da Biblian bakea adierazten duen hitz handia. Baina hitz horrek aditzera ematen duen bakea ez da indarkeriarik gabeko egoera soilik. *Justizian* oinarritutako gizarteaz ere mintzo zaizu, ez baitago bakerik *justiziarik* gabe.

Bide demokratikoak eta baketsuak bakarrik erabiltzeko konpromisoa *

Horrela konpondu behar dira gai politikoetako desadostasunak.
Ez da onartuko inolako mehatxurik edo indarkeriarik helburu politikoak lortzeko.
Ostiral Santuko Akordioaren atalak (Belfast).

Guztien, biktimen eta bizirik ateratakoen, erantzukizuna onartzea *

Maite zuten norbait hil zaien edota zauriak izan dituzten *guztiek* laguntza errealista, praktikoa eta emozionala ematea, beharrezkoa eta egokia den eran.
Biktimen artean «hierarkiarik» ez finkatzea.
Biktimen eta bizirik ateratakoen egoera latza ez «politizatzea».

51

Eskuzabaltasuna eta elkarrekikotasuna

«Lagunekin» ez ezik, «etsaiekin» ere bai.
Eskuzabaltasuna era askotakoa izan daiteke.
Eskuzabaltasuna denek ez dute berdin ulertuko; batzuentzat gauza bat izango da, eta beste batzuentzat beste bat.
Batzuen ustez, eskuzabal jokatzeko «barkamena», hitz zaila benetan, eskatzea izango da.

Programa eta prozesu sofistikatuak erabili arren, eskuzabal jokatzeko ez bada, ezinezkoa izango da adiskidetzeko eta zauriak sendatzea. Hegoafrikan, oso ugariak dira hizpide dugun eskuzabaltasuna agerian uzten duten historiak. Hor dago, noski, Nelson Mandela, baina badira adibide gehiago ere: Botha, Lehen Ministro ohia eta apartheidaren defendatzaile sutsuenetakoa, hil eta gero, Mbeki presidentea hileta-elizkizunera joan zen nazioaren ize-nean, eta eraikin ofizial guztietan nazioko bandera erdi jaitsita jartzeko agindu zuen. «Eskuzabaltasun-ekintza» garbia dugu, gogora ekarri behar baita Bothak eman zuela Mandela eta erregimena aldatzeko borrokatzen zuten beste ekintzaile batzuk kartzelaratzeko agindua.

Inoiz ez da izango erraza etsai zaharrekin eta errunduntzat ditugunekin eskuzabal jokatzeko. Ipar Irlandan, preso politikoak askatzeko proposamenari buruzko eztabaida korapilatsuetan murgilduta genbiltzanean, hauxe esan zuen hegoafrikar abokatu batek (Brian Curren): «... ez erabili “justizia” terminoa horretaz hitz egiteko. Alargun bati edo aitarik gabe geratutako umezurtz bati ezin diozue gai horretan “justizia” hitza aipatu. Gatazkako

alde guztiei berriz hutsetik abiatzeko aukera ematea da kontua, merezi duten ala ez pentsatzen hasi gabe». Guk, predikalariok, horri «Grazia» deitzen diogula erantzun nion nik.

Eta hauxe esan zidan berak: «Zure ustez hori bada hitz egokia, erabili ezazu sarri, asko beharko duzu eta».

«Eskuzabaltasuna», «Grazia». Funtsezko gakoak dira, guri eta geure jendeari inposatu egin digutela iruditzen zaigun horri erantzun zeharo suntsitzaileak –ulergarriak bestalde– ez emateko. Eskuzabaltasuna da bai banaka bai denok batera aurrera egiteko modu bakarra.

Pentsaezina dirudiena egiteko prest egotea *

Alde bakoitzak bere esanahia emango dio pentsaezina hitzari.

Ipar Irlandan:

Irlandar errepublikarrak Ipar Irlandako Legebiltzarrean egotea.

Arma entregatzea.

Unionistak eta Errepublikarrak boterean elkarrekin egotea. Amaigabea da zerrenda!

F.W. de Clerk Hegoafriko bake-prozesuan egindako ibilbide pertsonalaz mintzatzen entzun izan dut. Nazioaren kontra ezarritako zigor gogorrek kontuan hartuta, eta ekonomia eta politika porrot egiteko zorian zeudela ikusita, aurrera jarraitzeko aukera bakarra zegoela iruditu zitzaion: etsaiekin bakea lortzea. Beraz, arrazoi pragmatiko hutsen ondorioz ekin zion bakerako bidaiari.

Dena den, halako batean, egiten ari zen hura *berez ona zela* ikusi zuen, argi eta garbi.

52

«Pentsaezina» zirudiena egiteko prest zegoen, hasieran arrazoi pragmatikoak bakarrik kontuan hartu arren, ekinaren ekinez, bidean aurrera egin ahala, pertsona moduan askatzea eta nazioa berrantolatzea lortu zuen. Konponketa-prozesuei hasiera emateko arrazoiak ez dira ibilbidea bezain garrantzitsuak, baina argi dago hasietatik «bidezkoa» eta egokia dena egiteko asmoa edukiz gero, oso bestelakoa izango litzatekeela dena.

Konfiantza

Geure buruarengan konfiantza izateko prest egon behar dugu; bestela, ez dugu besteengan konfiantzarik izango.

Itxaropena

Zakarias profetak Itun Zaharrean adierazi bezala, «Itxaropenaren gatibu» bihurtzeko prest egon behar dugu.«Gaixotasun sendaezin bat daukagu ... *itxaropena*» (Buruzagi palestinarrek).


Laburbilduz «Egizu *justizia*

Izan eskuzabala zure epaietan

Ez izan harroputza»

(Micah poetaren parafrasia)

* Ipar Irlandan, izartxoarekin (*) adierazitako pasarteak baino zerbait gehiago geratu da islatuta «Ostiral Santuko Akordioan (Belfast)», 1998ko apirilean alderdi politiko guztiek, batek izan ezik, sinatua.



Bake-prozesuak eta giza eskubideak: Nazio Batuen eginkizuna

JOANNA WESCHLER AND.

Columbiako Unibertsitateari afiliaturiko erakundea den Ameriketako Estatu Batuetako Security Council Report-eko Ikertkuntza Zuzendaria. Human Rights Watch-en ordezkari ohia Nazio Batuetan

Joanna Weschler Polonian jaio zen, baina AEBetan bizi da 1982az geroztik. Bere sorterrian kazetaria izan zen, Solidarity Union prentsa-agentzian. Agentzia horrek sindikatuko lehendakari Lech Walessaren eta gobernu komunistaren arteko bilera gehienen berri eman zuen, baita sindikatuko exekutibako liderrek parte hartu zuten ekitaldi gehienen berri ere.

Gaur egun Segurtasun Kontseiluari buruzko Txostenaren zuzendaria da. Erakunde hori sortu berria da, Columbiako Unibertsitateko Nazioarteko Harreman eta Administrazio Publikoko Eskolarekin lankidetzan.

1994tik 2005era bitartean, Weschler andrea Human Rights Watch-en ordezkaria izan zen Nazio Batuen aurrean. Erakundeko kargu berria izanda, HRWk NBEren aurrean erabili beharreko estrategia guztia garatu eta egituratzeko ardura Weschler andreak hartu zuen. Hala, HRWk NBEren menpeko agentzia guztiakin, gorputz diplomatikoarekin eta NBEan dauden komunikabideekin egiten den lanaren koordinazioa eta jarraipena bere ardura izan da. Haren kargutik komunikabideetara zuzendu den ahotsa ere berea izan da, Nazio Batuekin erlazioatutako giza eskubideei buruzko kontuen berri emateko.



CURRICULUMA

Horrez gain, hainbat ekitaldi publikotan parte hartu du hizlari gisa eta ordezkari gisa (HRW-en ordezkaria da Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Batzordean), baita NBEk New York-en edo Genevan, besteak beste, egin dituen bileretan ere.

Haren ibilbidean azpimarratu beharreko beste postu batzuk honako hauek dira: ikertzaile espezializatua Polonian, Helsinki Watch-entzat, eta Brasilen, Americas Watch-entzat; HRWk Espetxeentzat egindako Proiektuaren zuzendaria; giza eskubideei buruzko ikertzailea bost kontinenteetako hainbat lurraldeetako proiektuetan eta giza eskubideei buruzko hainbat txosten eta artikuluren egilea. Bi master egin ditu: bata Varsoviako Unibertsitatean, Espainia eta Latinoamerikari buruz, eta bestea Columbiako Unibertsitatean, kazetaritzari buruz.

LABURPENA

NBEren historian zehar, giza eskubideak ez dira gehiegi kontuan hartu bake-negoiazioetan edo bakea lortzeko prozesuetan. Giza eskubideei buruzko xedapenak oso urriak izan dira bake-akordioetan. Gainera, horrelako hainbat akordiotan aurreikusitako amnistien ondorioz, zenbait krimen ere, batzuk oso larriak, zigorrik gabe geratu dira. Aipatutako jokabideak honako uste hauetan zeuden oinarrituta: bake-negoiazioetan giza eskubideen gaiari heltzea akordioa azkar lortzeko oztopo izan zitekeela, eta akordioaren osteko susperraldian eskubideok bermatzea ez zela batera erraza.

Baina urteen poderioz, nazioarteko gatazken ordez barne-gatazkak bihurtu ziren NBEko Segurtasun Kontseiluaren kezka-iturri nagusi. Gatazka horien sorburua giza eskubideen zapalketa zen ia beti. Beraz, gero eta ageriago geratu zen bake iraunkorra lortzeko nahitaezkoa zela bake-prozesuetan giza eskubideen gaiari sarbidea ematea. Horrez gain, nazioarteko komunitateak argi ikusi zuen zigorgabetasunean oinarritutako bakea erraz zapuztu zitekeela, eta gatazken ostean gizartea berriz antolatzeko, ezinbestean, giza eskubideak betearazi behar zirela. Ondorioz, hamaika arrazoi pragmatiko zeuden giza eskubideak bake-prozesuen urrats guztietan sartzeko.

56

Iragan mendearen bukaeran, tokian tokiko operazio guztietan giza eskubideak kontuan hartzen hasi zen NBE. Giza Eskubideen aldeko Goi Komisarioak, operazio horietan partaidetza aktiboa izateaz gain, gatazkak gainditzeko urratsak ematen ari ziren gizarteetan giza eskubideei lotutako ekimenak gauzatzen lagundu zuen. Bakearen alde lan egiten duten NBEko agentzia eta programa batzuetan ere, besteak beste Garapenerako Nazio Batuetako Programan, giza eskubideen inguruko ekimenak sartu dituzte estrategietan. Ildo horretan, gatazken osteko egoerak bideratuko dituen erakunde berriaren, Bakea Finkatzeko Batzordearen, jardueretan giza eskubideen gaia zenbateraino jorratuko den ikustea interesgarria izango da.

Bake-prozesuak eta giza eskubideak: Nazio Batuen eginkizuna

Bere Gutunaren arabera, nazioarteko bakea eta segurtasuna iraunaraztea du helburu Nazio Batuen Erakundeak, eta hala, 170 bake-akordiotan hartu du parte sortu zenetik hona, munduko alde guztietan¹. Epe horretan, dena dela, giza eskubideak gutxitan hartu izan dira kontuan bakea negoziatzerakoan. Bake-akordioetan ia inoiz ez da jaso giza eskubideei buruzko xedapenik. Are gehiago, zenbait bake-akordiotan onartutako amnistien bidez, zigorrik gabe geratu dira oso krimen larriak, baita gizateriaren kontrakoak ere. Giza eskubideen kontua bake-negoziaketetara eramatea kaltegarritzat jo izan dute askok, akordiora azkar iristeko oztopotzat. Gerra hotzaren amaierara arte, gutxi gorabehera, Nazio Batuen operazio asko su-etena ezartzeko aginduak betearaztera mugatu ziren, giza eskubideak euren eskumenetatik kanpo zeudelakoan.

Alabaina, urteek aurrera egin ahala, Nazio Batuen Erakundeak bake- eta segurtasun-kontuez arduratzen den Segurtasun Kontseiluaren kezken artean, barne-gatazkak nagusitu ziren, nazioarteko gaien ordez. Horrelako gatazken iturburuak giza eskubideen urratzeak izan ohi dira, eta gero eta bistakoagoa da bake iraunkorra lortzeko ezinbestekoa dela bakea eraikitzeke eta eusteko urratsetan giza eskubideak kontuan hartzea. Nazioarteko komunitatean, asko konturatu dira dagoeneko zigorgabetasunean oinarritutako bakea oso eze-gonkorra izaten dela, eta gatazken ondoren gizartea berreraikitzeke nahitaezkoa dela giza eskubideak zainduko dituen erakunderen bat sortzea. Egon badaude, beraz, giza eskubideei bake-prozesuetako alderdi guztietan sarbidea emateko arrazoi pragmatikoak.

Ildo horretan, merezi du kasu zehatzak aztertzea. Horietako bat El Salvadorrekoa da, Nazio Batuek zuzendutako bake-prozesu batean giza eskubideak kontuan hartu ziren lehenengo aldietako bat izan baitzen. Gainera, orain arte egondako adibide positiboenetakoa ere bada. Merezi du, beraz, une batez gai horri erreparatzea.

1980ko hamarkadaren amaieran, hainbat urtez, El Salvadorreko gerra zibil luze odoltsua eteten saiatu zen NBEa, bere Idazkari Nagusiaren ofizio onaren bidez. Lan horri esker bi aldeek, bake-akordioa lortu aurretik, Giza Eskubideen Hitzarmena sinatu zuten San Josen, Costa Rican, 1990eko uztailen. 1991ko maiatzean, Segurtasun Kontseiluak 693. Ebazpena onartu zuen San Joseko akordioaren «garrantzia azpimarratzeko», eta lehen aldiz, bere agindu-peko misio batean giza eskubideen atala sortu zuen². Hala, 693. Ebazpenean xedatutako agindua eredutzat hartu daiteke gaur egun ere, giza eskubideen gaiari nola heltzen dion ikusita. Honako zeregin hauek finkatu zituen:

- a) Giza eskubideen egoeraren ikuskapen aktiboa.
- b) Giza eskubideen ustezko urratze-kasu zehatzak ikertzea.
- c) Giza eskubideak sustatzea.

- d) Giza eskubideen urratzeak ekiditeko eta haienganako errespetua sustatzeko gomendioak ematea.
- e) Idazkari Nagusiarentzako, eta haren bidez, Segurtasun Kontseilu eta Batzar Orokorrarentzako txostenak egitea.

Kontseiluak hasieratik, akordioa sinatu aurretik, giza eskubideen inguruko misio korapilatsu hori abian jarri izanari esker, gehiegikeriak eragozteaz gain, bi alderdiek azken akordioak sinatzeko behar zuten konfiantza-giroa sortu zen. Ondoren, ONUSAL bake-misioaren giza eskubideen atalak eskubide horien aurka orduan edo lehenago buruturiko gehiegikerien kontra egindako lana baliagarria izan zen trantsizio baketsu eta erraz samarra bermatzeko³.

El Salvadorreko kasuak, nolana ere, ez zuen joera berririk ezarri Nazio Batuek bake-zaintzan gauzaturiko misioetan. NBEak bideratutako hurrengo bake-prozesu eta ebazpenen ondorioak nahiko kaskarrak izan ziren (hala nola, Kanbodia), eta batzuk tamalgarriak benetan (Rwanda eta Bosnia).

Giza eskubideei bake-prozesuetan sarbidea emateko kontuan izan beharreko faktore garrantzitsu bat amnistien eta zigorgabetasunaren kontu korapilatsua da. Izan ere, honako joera hau da nagusi: zigorgabetasunari gero eta presentzia handiagoa ematea bake-negoziaketen testuinguruan, krimen garrantzitsuen egileek amnistien aldeko presioa egiten baitute, bake-akordioa sinatzeko prest azaldu aurretik. Eta halako egoeretan, hamaika zalantza sortu ohi da justizia eta bakearen artean aukeratzeko behararen inguruan, eta halaber, bakeari eta justiziarik lotutako gaiak bideratzeko ordenari buruz⁴. Esanak esan, historiak argi erakutsi du amnistiek gutxitan ekarri dutela bake iraunkorra. Angolan, esate baterako, bake-prozesuak urteak behar izan zituen emaitzak lortzeko, eta gerra zibila 27 urtez luzatu zen. Sei amnistia bermatu ziren prozesu hartan, eta sarraski eta basatikeria gehiago egiteko aukera eman zitzaizkien egileei.

58

Litekeena da, era berean, NBEak zalantzan jarri izana bake-prozesuetan ordura arte erabilitako filosofia nahiz praktika –amnistiak onartzea, alegia–, Sierra Leonan burutako ahaleginen emaitzak ikusita. 1999ko uztailean, Fronte Iraultzaile Batua (RUF) talde errebolutariak basatikeria beldurgarriak –besteak beste, haur txikiei gorputz-atalak moztu zibilak ikaratzeko– egin zituen denboraldi baten ostean, bake-akordioa sinatu zuten gobernuak eta RUFek. Akordioaren bidez, ankerkeria haien guztien amnistia bermatu zioten RUFi, eta taldeko burua herrialdeko presidente-orde izendatu zuten, besteak beste. Ituna sinatu aurretik, dena dela, bidean ziren akordioaren eta amnistiaren inguruko albisteek protesta eta gaitzespen gogorak eragin zituzten nazioarteko iritzirik publikoan. Gauzak zertan ziren ikusita, azken unean, nazioartekak amnistia haiek ez zituela onartzen zioen xedapena gehitzeko agindu zion NBEak bere negoziatzaileari. Baina itxurakeria hutsa izan zen. Urtebete baino lehenago, RUFeko errebolutariak tinko finkatuta eta berriz armak eskuratua zeuden, Sierra Leonako diamante-meatze aberats ezagunen etekinen bidez. Izan ere, bake-akordioari esker eskuratu zuten meatze haien kontrola. Eraso bortitza bat ere burutu zuten, besteak beste, NBEko ehunka bakegile bahituz.

NBEak nolabaiteko egonkortasuna ezarri zuen eremuan, parakaidista britainiarren laguntzaz, eta erantzukizunean oinarritutako prozesua abian jartzeko urratsak eman zituen berehala, Sierra Leonarako Auzitegi Berezia sortuz.

Sierra Leonako bake-akordioa sinatu eta NBE amnistiatik urruntzeko egindako azken ahaleginen ondoren, NBEaren zuzendaritzak argi ikusi zuen erakundeak ezin zuela zerikusirik izan giza eskubideen balioak hain nabarmen urratzen dituzten akordioekin. Azken akordioari buruzko ondorioetan jasotako arrazoi pragmatikoetan oinarritu ziren erabaki hori hartzeko, eta beste arrazoi garrantzitsuago batzuetan ere bai: Nazio Batuek ezin dutela onartu, edo ez luketela onartu behar, berak zaindu eta babestu beharreko balioak aintzat ez hartzea.

Horrela, Idazkaritzak jarraibide nagusi batzuk finkatu zituzkien bake-negoziatzaileei. Haien arabera, negoziaketan helburu nagusia adostutako konponbideen iraunkortasuna bermatzea izango litzateke, eta halaber, giza eskubideen inguruan lortutako akordioen kalitatea eta iraunkortasuna ziurtatzea. Gainera, jarraibide nagusien dokumentuan jasotzen zenez, NBEak zuzendutako negoziaketetan honako zeregin hau zegokien NBEko bitartekariari: negoziatzen ari ziren aldean artean giza eskubideei buruzko gogoeta sustatzea, eta guztiei jakinaraztea NBEak ez duela gerra-krimenak, gizateriaren kontrakoak eta genozidioak barkatzeko amnistiarik onartzen. Negoziatzaileei jarraibideak eman zituzkieten, halaber, erakundeen gaitasuna bideratzeko edo eraikitzeko urratsen inguruan. Dokumentuan bertan zehazten denez, gobernuari, segurtasun publikoari eta sistema judizialari lotutako eremuetan hartutako neurrien bidez, berriz gatazkarik ez sortzea lortu beharko litzateke.

Barne-neurri horiek finkatzeaz gain, 2000. urtearen hasieran, NBEko Bake Operazioetarako Taldea sortu zuen Idazkari Nagusiak, Lakhdar Brahimi-ren agindupean. Segurtasun Kontseiluari erabaki horren berri emateko bidalitako gutunean, Kofi Annan-ek Rwanda eta Srebrenican izandako porrotak onartu zituen, eta etorkizunean horrelako akatsak saihesteko eginahalak egin beharko zituztela nabarmendu zuen⁵.

Erabakiari buruzko dokumentuan (2000ko abuztuan argitaratu zuten «Brahimi txostena»), NBEak bakearen eta segurtasunaren esparruan buruturiko ekintza guztiak jaso ziren: prebentzioa, behaketa, bakea zaintzea, era guztietako operazio humanitarioak eta gatazken osteko bakea eraikitzeko lanak. Azterketa sakon eta zintzoak egin eta gomendio zehatz ugari eskaini zituen dokumentuak⁶. Era berean, proposatutako aldaketaren funtsezko oinarria ere azpimarratu zuen: «Nazio Batuen sistemak funtsezko garrantzia du giza eskubideen nazioarteko tresna eta neurriak eta nazioarteko lege humanitarioak sustatzeko orduan, bakearekin eta segurtasunarekin zerikusia duten alderdi guztietan».

Gomendioen artean, NBEaren misioen zereginak zehazten zituen dokumentuak: «Giza eskubideak sustatzea, gutxiengoaren eskubideak babestea eta talde guztiak ordezkatuko dituzten akordio politikoak ezartzea». Halaber, «talde guztiek Estatu guztion kontua dela onartu behar dutela», azpimarratzen zuen.

Aipatutako txostenak zioenez, «bake-operazioetan, giza eskubideen atala funtsezkoa da bake eraginkorra lortzeko. Nazio Batuetako giza eskubideen alorrean dabiltzanek zeregin garrantzitsua izan dezakete, esaterako, adiskidetze nazionalako programa zehatzak gauzatzen laguntzeko».

Behin argitaratu ostean, Brahimi txostenak eztabaida sutuak piztu zituen eta bere gomendioetako askok –baita giza eskubideekin zerikusia zuten batzuk ere– estatu kide ugariaren kontrako jarrerarekin egin zuten topo, eta zenbaitetan NBEaren burokraziarekin. Alabaina, txostenak pixkanaka iritsi ziren erreforma garrantzitsuen prozesuari eman zion bidea.

Bake-negoziaketei dagokienez, berriz, Idazkari Nagusiak aurretik esandakoak berretsi zituen 2004an, justiziak eta legearen aginpideak gatazketan nahiz gatazken osteko egoeretan duten zereginari buruz egindako txostenean. Izan ere, txostenaren arabera, Segurtasun Kontseiluak ondoren aipatuko diren alderdiak izan beharko lituzke kontuan bere ebazpenetan, negoziaketak, bake-akordioak eta mandatuak aztertzerakoan: «Genozidioa, gerra-krimenak edota gizateriaren aurkako krimenak, nahiz etnia, genero eta sexualitatean oinarritutako nazioarteko krimenak barkatzeko amnistiei inolako babesik ez ematea, eta ziurtatzea, halaber, aurretik bermaturiko amnistiek ez dituztela oztopatuko Nazio Batuek sortutako edo babestutako auzitegien prozesamenduak⁷».

Brahimi txostenak 2000. urtean gomendatu zuenez, Giza Eskubideen Aldeko Goi Komisarioak zeregin esanguratsuagoa izan beharko luke bake-operazioak prestatu nahiz gauzatzekoan, eta horretarako ahalmena eman behar litzaioke, beraz. Gomendio horiek, hein handi batean, txostena argitaratu eta berehala aintzat hartu ez baziren ere, 2004-2005ean NBEaren erreforma-jarraibideei buruzko hurrengo txostenetan izan zuten sarbidea. Hala, 2005eko iraileko Mundu Gailurrak eta haren ondoren hartutako erabakiek bultzada sendoa eman zioten Goi Komisarioari, eta horrela, New Yorkeko bulegoa handitu egin behar izan zuten, besteak beste. Kontuan izan behar da Komisarioaren funtzioetako asko bake- eta segurtasun-kontuei hertsiki loturik daudela.

Arestian aipatu bezala, 1990eko hamarkadaren hasieran ekin zion NBEak bake-akordioetan giza eskubideak sartzeari. 1999. urtearen amaieran, Giza Eskubideen Aldeko Goi Komisarioak adostasun-memoranduma, abian jarritako jardunbideei buruzkoa, sinatu zuen Bake-operazioen Saileko buruarekin⁸. Bakea eta segurtasuna sustatu ahal izateko giza eskubideak errespetatzea funtsezkoa dela azpimarratzen zen aipatutako dokumentuan, eta halaber, NBEaren baitan ere alor hori kontuan hartu behar dela Gutunean jasotako aginduak betearazteko. «Nazio Batuek gatazkak prebenitzeko, bakea zaintzeko eta gatazkaren ondoren dena berrantolatzen laguntzeko egiten dituen ahaleginetan, ezinbestekoa da giza eskubideak babestu eta sustatzea, eta bake-operazio bakoitzean alderdi horri arreta osoz erreparatzea, arrakasta bermatzeko». Memorandumak, halaber, xehetasunez azaltzen ditu beste gai batzuk: misioen aurreko plangintza, tokian bertan lortu beharreko akordio instituzionalak, burutu beharreko zereginak, eta horri guztiari buruzko txostenak egiteko urratsak.

Hala, «giza eskubideen kontua» salbuespen baino gehiago arau bihurtu da bake-operazioetan, eta gaur egun, gai hori atalen batean jasotzen da beti⁹. Gainera, NBEak bake-operazioak bukatu ondoren abian jarritako jarraipen-misio batzuetan giza eskubideen moduluak finkatu dira. Era berean, Goi Komisarioaren Bulegoak zenbait programa eta bulego independente ditu, horietako asko gatazken ondorengo egoeran dauden tokietan. Hainbat eratako zereginak gauzatzen dituzte, tokian tokiko beharren eta NBEaren gaitasun eta baliabideen arabera, baina edonon daudela ere, beti ikuskatzen dituzte bai giza eskubideen egoera bai nazioarteko lege humanitarioak zertan diren. Tokiko eragileak trebatzeko ekintzak burutzea eta erakunde nazionalak sortzeko laguntza eskaintzea da xedea. Bere zeregin ugarien artean beste hauek ere aipatu behar dira: giza eskubideei buruzko prestakuntza ematea eskola-umeei; haurrei giza eskubideetan oinarritutako saioak eskaintzea txotxongiloak erabilita, giza eskubideei buruzko telebista-saioak ekoizteko eta emateko laguntza eskaintzea, tokiko GKEak giza eskubideen alorrean trebatzea, eta tokian tokiko beharren araberrako beste asko. Era berean, Goi Komisarioak erantzukizunak hartzeko prozesuak bideratzen ere laguntzen du, batik bat egiaaren aldeko batzordeak martxan jarritz: esaterako, Sierra Leonan.

Bake-operazioetan parte hartzeaz edota dagokion herrialdera ordezkariak bidaltzeaz gain, Goi Komisarioaren Bulegoak Nazio Batuen Garapen Programako talde nazionalekin batera egiten du lan sarritan. Eta hori bereziki garrantzitsua da zenbait arrazoiengatik. Munduko herrialde gehienetan hedatuta dagoen NBEaren atala da UNDP, eta baketzetropak ez bezala, tokian bertan geratzen da urte askotan. Hala, funtsezko zeregina izan dezake bakea finkatzeko prozesuetan¹⁰.

UNDP, urte askotan, oso urrunduta egon zen giza eskubideen alorretik. Izan ere, gai horiek oso korapilatsutat jotzen zituen, herrialdeekin zituen harremanetan arazoak sortu zitzakeela eta. Alabaina, pixkanaka, argi ikusi zuen giza eskubideak kontuan hartu gabe ezinezkoa zela misioak egoki eta eraginkortasunez burutzea, eta era berean, giza eskubideak errespetatzea ezinbestekoa zela garapen iraunkorra lortzeko. Bere web guneak dioten moduan, «gatazka bortitzen ostean, funtsezkoa da iraganeko zauriak ixtea eta etorkizun ziurra bermatzeko moduko testuingurua finkatzea».

1998ko martxoan, UNDPak Adostasun Memoranduma sinatu zuen Giza Eskubideen Aldeko Goi Komisarioarekin. «Beraien agindupean buruturiko ekintzen eraginkortasuna areagotzeko lan egitea» adostu zuten biek akordio hartan¹¹.

Egun, UNDPek honako eginkizun hauek ditu giza eskubideen alorrean: trantsiziozko justizian oinarritutako erakundeak eta jarduerak martxan jartzen laguntzea, eta egia aldeko batzordeak, aberriratzeko eta adiskidetze-neurriak bideratzea. Justiziaren aldeko programak ditu, eta polizia eta militarrek giza eskubideen alorrean trebatzeko programak ere bai. Eta talde nazionaletako funtzionarioek UNDP eta Goi Komisarioaren Bulegoaren aurrean eman behar izaten dituzte azalpenak.

Giza eskubideak NBEaren bake-operazioen berezko atal gisa sartzeko prozesua pixkanakakoa izan da, eta batzuetan izugarri geldoa. Baina berebiziko bultzada eman zitzaion 2005/2006ko erreformari ekin ondoren. NBEaren erreformaren bukaerako oinarritzko dokumentu guztietan azpimarratzen da, hain zuzen, segurtasunaren, giza eskubideen eta garapenaren arteko lotura erabateko da eta hiru alde horiek ezin direla bereizita jorratu¹². Ondorioz, Giza Eskubideen Aldeko Goi Komisarioaren Bulegoaren baliabideak eta New Yorkeko egoitza nabarmen handitzea erabaki zuten gobernuek, eta ordutik errazagoa izan da giza eskubideak bake-prozesuetan sartzeko gomendioak betearaztea.

2005/2006ko erreforma-prozesuaren ondorioz, NBEaren baitan giza eskubideen alorra indartzeaz gain, beste erakunde bat sortu zuten, giza eskubideen eta bake-prozesuen arteko lotura instituzionala gauzatzeko: Bakearen aldeko Batzordea (PBC). Batzorde horren sorburua Brahimi txostena izan zen. 2000. urtean, ondoko xehetasunak eman zituzten aipaturako txostenean: «Bakea eraikitzea honetan datza: bakearen oinarriak finkatzeko, gatazkaren eremurik urrunenean ere jarduerak burutzean, eta gerra ez egotea baino gehiago den zerbaite eraikitze erremintak eskaintzean. Hala, bakea eraikitze, zeregin ugari egin behar dira: borrokan ibilitakoak gizarteratu, legea betarazi, giza eskubideak zorrotz errespetatzeko moduko ikuskaritza eta hezkuntza bermatu, oraingo eta lehengo gehiegikeriak ikertu, demokrazia garatzeko laguntza tekniko eskaini (eta hauteskundeak antolatze eta komunikabide libreak ekinean hasteko babes), eta adiskidetze-teknikak eta gatazkaren konponbidea bultzatu¹³. Brahimi txostenaren arabera, bakea eraikitzea prebentzio-ekintza da, alde batetik, eta gatazka baten ostean burutu beharrekoa, bestetik, betiere giza eskubideak funtsezko osagai izanik. Hala, Gai Politikoen Sailaren baitan Bakearen aldeko Unitatea sortzea ere aholkatzen zuen txostenak, Bakearen aldeko Sailarekin eta Giza Eskubideen Aldeko Goi Komisarioarekin elkarlanean aritu dadin.

Brahimiren beste gomendio asko bezala, ez zen guztiz abian jarri txostena argitaratu eta berehala. Alabaina, Mehatxu, Erronka eta Aldaketak aztertzeko Goi Taldearen txostenaren bidez, berriro heldu zitzaion gaiari. Aipatutako taldea nazioarteko pertsonalitate politikoez zegoen osatuta. Irailaren 11ko gertakarien ostean, NBEa egoera berrira moldatu ahal izateko, erakundea eraldatzeko gomendioak emateko eskatu zion talde horri Idazkari Nagusi Kofi Annan-ek. Taldearen 2004ko Txostenak honako hau zioen: «Gure azterlanean oinarrizko hutsune instituzionala dagoela egiaztatu dugu. Nazio Batuen sisteman ez dago estatuetan hondamendiak eta gerrarako bideak saihesteaz edota gerratik bakerako trantsizioak bideratzen laguntzeaz arduratzen den atalik, ez era esplizituan bederen. Hori Nazio Batuen Gutunean ez sartu izana ez da arraroa, Nazio Batuak orain dela gutxi hasi baitira barne-gatazketan esku hartzen. Egun, ordea, gatazketan edo gatazkak gainditzeko ahaleginetan murgilduta dozenaka herrialde daudela kontuan izanda, argi dago nazioarteak estatuei laguntza eskaini behar diela, funtzio subiranoak eraginkortasunez eta zentzuz betetzeko gai izan daitezen». Txostenak, era berean, Bakearen aldeko Batzordea sortzea gomendatzen zuen, baita Bakea Eraikitze Bulego Babeslea ere Idazkaritzaren baitan. Horrez gain, erakunde berriak Giza Eskubideen Aldeko Goi Komisarioarekin elkarlan estuan jardun beharko lukeela azpimarratzen zuen.

Idazkari Nagusiak erakundearen erreformari buruz 2005ean argitaratutako «Askatasun-kontzeptu zabalagoa» txostenean, gomendio horiek azpimarratzen zituen berriro ere. Irailean, Mundu Gailurrak babestu egin zuen Bakearen aldeko Batzordea sortzeko gomendia, baina ez zuen erakundea giza eskubideen alorrekin lotzeko beharrari buruzko gomendiorik aipatu¹⁴. Eta hilabete batzuen buruan Batzorde hori sorrarazi zuen ebazpenak ere ez zuen halakorik egin, bere hitzaurrean honako hau aldarrikatu arren: «garapena, bakea, segurtasuna eta giza eskubideek lotura estua dute elkarrekin, eta elkarri indarra ematen diote¹⁵».

62

Bakearen aldeko Batzordea martxan dago egun, eta premiazko prozedura-akordioak egiten hasi da. Urriaren erdialdera, lehen bilerak egin zituen herrialde jakin batzuetako egoera aztertzeko (Sierra Leona eta Burundi). Oraindik ez dakigu erakunde berria osatzen duten gobernuak giza eskubideen alorra ardua nagusizat hartuko duten, baina argi dago tokian tokiko gizarte zibilak kezkatzen direla gai horretaz. Izan ere, estatu kideetako gizarte zibilen ordezkarien lehen bileran, Burundi eta Sierra Leonako ekintzaileek lehenbizi zerrandan giza eskubideak, justizia eta erantzukizuna aipatu zituzten lehenbizi.

Hitzaldiaren inguruko oharra

¹ Informazio gehiago eta 1930etik hona sinatutako 330 bat bake-akordioen testu osoa, <http://peacemaker.unlb.org/web> gunean.

² 693. Ebazpenak (1991) operazioak giza eskubideen atal izateko baimena eman zuen, Idazkari Nagusiaren S/22494 8 a-e. txostenaren zirriborroan.

³ «The Lost Agenda: Human Rights and UN Field Operations», Human Rights Watch 1993.

⁴ Segurtasun Kontseiluaren 3. Txosten Eguneratua, Nazioarteko Legea Indartzea helburu duena. 2006ko ekainaren 16an. www.securitycouncilreport.org.

⁵ Idazkari Nagusiaren gutuna Segurtasun Kontseiluko Presidenteari. 200ko martxoaren 7an.

⁶ A/55/3-5-S/2000/809.

⁷ The rule of law and transitional justice in conflict and post-conflict societies S/2004/616*. 2004ko abuztuaren 23an.

⁸ http://www.unhchr.ch/html/menu2/4/mou_dpko.htm. Giza Eskubideen Aldeko Goi Komisarioaren eta Bake Operazioen Sailaren arteko Memoranduma. 1999ko azaroaren 5ean.

⁹ <http://www.ohchr.org/english/countries/field/hrc.htm> NBEaren Bake Misioen Giza Eskubideen Atalak.

¹⁰ <http://www.ohchr.org/english/countries/field/index.htm>. Giza Eskubideen Aldeko Goi Komisarioaren Bulegoaren tokiko presentziak.


¹¹ <http://magnet.undp.org/new/html/HRMOUfinal.htm> Nazio Batuen Garapen Programaren eta Giza Eskubideen Aldeko Goi Komisarioaren Memoranduma. 1998ko martxoaren 4an.

¹² Esaterako, Mehatxu, Erronka eta Aldaketak aztertzeko Goi Taldearen txostena, «A more secure world: our shared Responsibility», A/59/565; Idazkari Nagusiaren «In Larger Freedom» A/59/2005.

¹³ S/2000/809 13 paragrafoa.

¹⁴ 2005 Mundu Gailurra A/RES/60/1.

¹⁵ S/RES/1645.



Nazioarteko justizia, bake-prozesuak eta giza eskubideak

KAI AMBOS JN.

Zuzenbide penalean, zuzenbide penal prozesalean, zuzendibe konparatuan eta nazioarteko zuzenbide penalean katedraduna Göttingen-eko Georg August Unibertsitatean. Göttingeneko Alemaniako, Auzitegi Erregionaleko epailea

Heidelberg, Alemanian, jaio zen 1965/03/29an. Friburgoko (Alemaniako) Albert Ludwig Unibertsitateko Zuzenbide eta Politika Zientzietako Fakultatean, Oxforden (Britainia Handian) eta München (Alemanian) egin zituen ikasketak. München, 1990ean, lehen estatu-azterketa (1. *Staatsexamen*), eta Baden Württemberg-en, 1994ean, Freiburg-eko Auzitegi Probintzian epaile izateko bigarren estatu-azterketa (2. *Staatsexamen*). Doktoregoa 1992/12/9an egin zuen Municheko Unibertsitatean (Schüler Springorum irak.). Doktoratu ondokoa ere München egin zuen (*Habilitation*, Volk eta Simma Irakasleekin, Roxin, Schöch eta Schünemann Irakasleak barne), 2001eko uztailean amaituz. *Venia legendi*-a lortu zuen honako gai hauetan: zuzenbide penalean, zuzenbide penal prozesalean, kriminologian, nazioarteko zuzenbidean eta zuzenbide konparatuan.

1991 eta 2003 artean Friburgoko atzerriko eta nazioarteko zuzenbide penaleko Max-Planck Institutuan arduradun-kargua izan zuen (*inter alia*) «Nazioarteko» eta «Hispanoamerikako zuzenbide penalaren» (Giza Eskubideak barne) eta irakasle laguntzaile izan zen Albin Eser irakaslearen katedran.



CURRICULUMA

Municheko Unibertsitatean «irakasle agregatua» (*Privatdozent*) izan zen, eta Friburgoko Unibertsitatean «ordezko irakaslea» (*Lehrstuhlvertreter*). 2003 urte hasieran Göttingen-eko eta Graz-eko Unibertsitateetan katedrak betetzeko «Rufe» eskaintza jaso zuen. 2003ko maiatzaren 7an «zuzenbide penaleko, zuzenbide penal prozesaleko, nazioarteko zuzenbide penaleko eta zuzenbide konparatuko» katedradun izendatu zuten Göttingeneko Georg August Unibertsitatean. Göttingen Unibertsitateko Kriminologia Zientzien Institutuko Atzerriko eta Nazioarteko Zuzenbide Penalaren Departamenduko Zuzendaria da. Göttingen-eko Auzitegi Estadualeko epaile izendatu zuten 2006ko martxoaren 24an.

Ikerketa eremu nagusiak: herrialde iberoamerikarren eta angloamerikarren zuzenbide penala, zuzenbide penal prozesala, nazioarteko zuzenbide penala eta zuzenbide konparatua.

Latinoamerikako erreforma judizialari buruzko eta Ekialdeko Timorreko, Kanbodiako, Antiguako, Jugoslaviako, Mazedoniako eta Kosovoko nazioarteko justizia penalarari/nazioarteko zuzenbide penalarari buruzko aholkularitza.

Nazioarteko Gorte Penal Iraunkorra sortzeko Alemaniaren ordezkarietako kidea NBEen Biltzarrean, Erroman, Italian (1998/6/15–1998/7/17).

Alemaniar Gurutze Gorriaren *Humanitäre Völkerrecht* (Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioari buruzko) lan-taldeko kidea (1998ko martxoaren 12tik 2002ra).

Nazioarteko Gorte Penalarentzat Erromako Estatutuak inplementaturikoa oinarritzat hartuz, nazioarteko zuzenbide penalarari buruzko lege-proiektua egiteko Justizia Ministerio Federalak hautaturiko aditu-taldeko kidea (1999ko udazketik 2001eko maiatzera).

Alemaniar Ordezkarietaren kide aholkularia ICC Preparatory Commission Intersessional Meeting batzordean, Sirakusan, Italian (2000ko urtarrilaren 31tik otsailaren 5era).

Editorial board eta book review editor Criminal Law Forum-eko kidea, *The Official Journal of the Society for the Reform of Criminal Law* (12 liburukiko 1 zenbakitik aurrera, 2001).

International Criminal Law Review aldizkariaren argitaratze-kontseiluko kidea, Kluwer Law International.

Hamburgoko Institut für Iberoamerika-Kunde institutuko Lateinamerika Analysen Zientzia Batzordeko (Wissenschaftlicher Beirat) kidea.

Honako aldizkari hauetako argitaratze-kontseiluko kidea: Cuadernos de Doctrina y Jurisprudencia Penal (ad hoc argitaletxea, Argentina); Derecho Penal Contemporáneo, Revista internacional (Legis argitaletxea, Kolonbia); Ciencias Penales (Zientzia Penalen Elkarte, Costa Rica); Revista de Derecho Penal (Rubinzal Culzoni argitaletxea, Argentina) eta Política criminal (Talcako Unibertsitatea, Txile, www.dpenal.cl/politcrim/portada.htm).


Revista Penal (La Ley argitaletxea, Espainia) aldizkari-ko Nazioarteko Zientzia Batzordeko kidea.

Truke Akademikorako Alemaniar Zerbitzuaren Latinoamerikako bekariorak aukeratzeko batzordeko kidea (DAAD, 2006-2009).

Nazioarteko Justizia Kriminaleko Sistema

- 1 maila Estatuaren/ Susmagarriaren/ Biktimaren esparrua
- 2 maila Nazioarteko Gorte Penal (NGPren Estatutuaren aitziinsolasa, 17. art.)
- 3 maila Jurisdikzio unibertsala oinarri duen Hirugarren Estatu
(adib. Nazioarteko Zuzenbide Penalar buruzko Alemaniaren Legea,
Prozesu Ordenantza Penal)

Balore Gatatzka



Haztapen-metodoa

- Neurri egokia/aukerakoa
- Beharrezko neurria/ezinbestekoa
- Proporzionaltasuna zentzu zorrotzean
- Balorazioa

NGPren Erromako Estatutua


Oinarria: zigorgabetasunik ez nazioarteko krimenetarako

Malgutasuna bake-prozesuen aurrean

- Estatutuko 17. art. (osagarritasuna)
- Estatutuko 16. art. (Segurtasun Kontseiluaren eginkizuna)
- Estatutuko 53. art. (Justiziaren interesak)

Mugak:

- Ratione materiae: ekintzak/ gertaerak
- Ratione personae: buruzagiak, *most reasonable*
- Erabateko zigorgabetasuna: auto-amnistiak
- Prozedura formala: legitimazio demokratikoa



Nazioarteko justizia, bake-prozesuak eta giza eskubideak

Nola dago gaur egun nazioarteko justizia penala?

Segur aski, jakingo duzue iragan ostegunean hasi zela *Pre-Trial Chamber* deritzona, Nazioarteko Auzitegi Penalaren (NAP) atariko epai-gela, Kongoko Thomas Lubanga herritarren kasuan karguak berresteko auzialdiarekin (*confirmation hearing*¹). Gertakari historikoa dugu hori, lehenbiziko kasua baita *Pre-Trial Chamber*-en karguak berresteko auzialdira iristen dena. Kongoko Errepublika Demokratikoko iparraldean zenbait krimen egin zituen milizia bateko buruaren kasua dugu. Kasu zehatz honetan, mutikoak indarrez errekrutatzea leporatzen zaio. Beste arrazoi bategatik ere bada garrantzitsua kasua; izan ere, NAPren, dagokion herrialdearen (Kongoko Errep. Dem.) eta NBEko bake-misio baten (MONUC²) arteko elkarlan egokiaren emaitza da. Gogora dezadan Kongoko agintariek jarri zutela Lubanga NAPren esku, MONUC-en laguntzarekin³.

Bestalde, Kongoko Err. Dem.-koaren ondoko beste herrialde batean, Ugandan, bake-prozesu bat dugu, hainbat eragilerekin. Nazio Batuak dira eragile horietako bat. Garbi asko ikusten da han zer arazo izaten dituen NBEk horrelako prozesuetan. Ugandari dagokionez, oso kasu berezia dugu, Museveni lehendakariak berak eskatu baitzion esku hartzeko NAPri, hau da, ikertzeko *Lord's Resistance Army* (LRA) erakundearen jarduera herrialdeko iparraldean. Horretarako, Estatutuaren 13 (a) artikulua baliatu zen. Artikulu horrek dioenez, eskubidea du estatu batek fiskalari igortzeko «NAPren eskumenekoak diren krimenak egin diren egoerak». Aipatzekoa da oso jende gutxik uste genuela, Erroman arau hori eztabaidatzen ari ginela, inoiz erabilerak praktikorik izango zuenik. Kasua NAPren eskura iritsi zenean, jurisdikzioa bereganatu zuen Auzitegiak eta LRAko lau buru (batez ere Joseph Kony buruzagi gorena) atxilotzeko aginduak plazaratu zituen. Atxilotze-aginduak eman eta gero, ordea, Museveniaren gobernuari hurbildu zitzaizkion Kony eta haren jarraitzaileak bake-negoziazioak eskaintzera. Jakina, baldintza «txiki» bat jarri zioten lehendakariari: atxilotze-aginduak kentzeko, ezin omen da eta lasai negoziatu atxilotzeko arriskupean egonik. Bistakoa da dilema: alde batetik, 1998an sortutako eta 2002tik Hagan⁴ martxa betean den erakunde baten atxilotze-aginduak daude, Lubangaren aurkako kasua (zorrotz prestatuak), Kongoko Err. Dem.-ra bidalitako zenbait misio... Bestetik, *orain* bakea negoziatu nahi duen talde matxinatu hori dugu –lehen, armek bakarrik hitz egiten zuten–, segurtasuna bermatzeko eskatzen duena, baita, azkenaldian, egindakoengatik zigorgabetasuna ere. Eta hor ditugu, halaber, gatazkak gogorkien astindutako komunitateak. Atxoli komunitate indigenak, adibidez, behin baino gehiagotan eta publikoki eskatu du azkenaldi honetan atxilotze-aginduak bertan behera uzteko, bake-negoziazioek aurrera egin dezaten (*Financial Times*, azaroak 7)⁵. Hor dugu Museveni lehendakaria ere: politikari azkarra izaki, tresna politiko gisara erabiltzen ditu atxilotze-aginduak bere *stick and carrot* ('akuilua eta saria') estrategia horretan. Urriaren 28an argitaratutako elkarrizketa batean zioenez, «hutsegite taktikoa» (*tactical error*) izango omen litzateke atxilotze-aginduak bertan behera uztea bake-hitzarmena sinatu aurretik: «The ICC is actually very good for us (Uganda) because it makes the terrorists (rebels) come up

to seek peace and end impunity⁶». Museveni zioen, beraz, bere horretan eusteko atxilotze-aginduei, talde matxinatu hari presioa egin ahal diezaion. Alegia, bere interes politikoen arabera erabiltzen ditu Museveni atxilotze-aginduak. Ugandako gobernuak berak ere plazaratu zuen adierazpen bat NAPEko estatuen batzarrean, Hagan, 2006ko azaroaren 23an. Hauxe zioen⁷:

LRAk (Lord's Resistance Army – Jainkoaren Erresistentziaren Armadak) izua eragin du hamarkada ugaitan Ugandako iparraldeko, Sudango hegoaldeko eta Kongoko Errepublika Demokratikoko ekialdeko biztanleen artean. 2003ko abenduan, kasua Nazioarteko Auzitegi Kriminalaren esku uztea erabaki zuen Ugandako gobernuak. Erabaki hori ez zuen hartu, ordea, bera ez zelako LRA epaitzeko gauza, edo ez zuelako horretako asmorik, auzitegiaren izaera bereziagatik baizik, hau da, horrelako krimen handiak epaitzeko sortu zutelako berariaz. Gainera, gobernuak ez zuen Ugandatik kanpo zebiltzan LRAko kideak geldiarazteko modurik. Ildo horretan, komandante gehienak non dauden jakinikoa den arren, oraindik ez dituzte atxilotu, eta bahitutako haur eta emakumeak ere ez dituzte askatu.

Jarraian, Ugandan bake-elkarrizketei zergatik ekin zitzaizen azalduko dut. Bilatzeko eta harrapatzeko aginduak duela urtebete eman ziren, baina eginahalak eginagatik ezin izan ziren bete. LRAko kideek Garambako Parke Nazionalera, Kongoko Errepublika Demokratikora, joan behar izan zuten, UPDFren (Uganda Peoples Defence Force. Ugandako Herria Defendatzeko Indarra) eta SPLAren (Sudan People's Liberation Army. Sudango Herriaren Askapenerako Armada) presio militarren ondorioz, eta halaber, Nazioarteko Auzitegi Kriminalaren presentziaren eraginez. LRAko kideak Estatuko hiru Alderditan sartu ziren. Inguru hartan, kideak atxilotzen lagundu dezaketen bost indar militar daude. Baina indar horiek, MONUCek (Mission de l'Organisation des Nations Unies en République démocratique du Congo. Nazio Batuen Erakundeko misioa Kongoko Errepublika Demokratikoan), UNMISek (United Nations Mission In Sudan. Nazio Batuen Misioa Sudanen) eta Uganda, Sudan eta Kongoko armada nazionalek ez zuten LRAko bost buruak harrapatzerik lortu. LRAk kolokan jarri dezake eskualdeko segurtasuna, eta horixe bera egin zezakeen Sudango eta bertako hegoaldeko gobernuen arteko akordioa abian jartzeko urratsekin ere. Beraz, Museveni lehendakariak egoera «baretzeko» eskaintza egin zion LRARI.

Machar lehendakariordea bitartekari zela burututako bake-elkarrizketen ondorioz, Erasoak bertan behera uzteko Akordioa sinatu zuten udan.

Ugandako iparraldeko biztanleek etxera itzuli nahi dute. Segurtasuna nagusi da berriz, eta jendea etxera itzultzen hasi da, gobernuaren eta gobernuari atxikitakoen laguntzaz.

Ugandak etengabeko harremanak ditu OTPrekin (Office of the Prosecutor. Fiskalaren Bulegoa), eta bake-prozesuaren nondik norakoak jakinarazten dizkio uneoro. Bilatzeko eta harrapatzeko agindurik eman ez balitz, LRAk ez zuen inondik inora parte hartuko negoziazio-prozesuan. Aipatutako aginduak etengabeko presioa dira oraindik ere, eta LRAko buruak bake-prozesuari lotuta jarraitzea behartzen ditu. Ugandan, bilatzeko eta harrapatzeko aginduak betetzen saiatu dira. Ustez Raska Lukwiya buru duen LRAko

taldearekin hitz egiten hasi zen UPDF. Taldeko burua hil egin zen, Nazioarteko Auzitegi Kriminalaren laguntzaz egiaztatu zenez.

Bake-elkarrizketetan emaitza onak lortzeko konpromisoa hartu du Ugandak. Duela gutxi, abokatu-talde bat Garambara, Kongoko Errepublika Demokratikora, joan da LRAkoei Erromako Estatutuko lege-xedapenak azaltzera. Elkarrizketek aurrera jarraitzen dute, eta hainbat espekulazio sortu dira ustezko emaitzen inguruan. Ugandak ez du inpunitaterik onartuko.

LRA eskualdearentzat mehatxu-iturri dela aitortu du Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak. Estatuko Alderdiak ongi ulertu behar dute bilatzeko eta harrapatzeko aginduak betetzea guztien ardura dela. Lantaldeek ez dute egin behar lan teorikoa soilik, ez dira mugatu behar gomendio-zirriborroak idaztera. Aitzitik, estatu-lankidetzaren eremu guztietan laguntza praktikoa emateko gai izan behar dute, eta horrela, besteak beste, epai irmoak eman, lekukoak birkokatu eta bilatzeko eta harrapatzeko aginduak bete egin behar dituzte.

Nazioarteko Auzitegi Kriminalak Ugandan izandako parte-hartzeak berebiziko oihartzuna lortu du, eta eskualdean aurrerapausoak eman dira alor ugarritan.

Egitura aldetik NAPk itxuraz duen eragin positiboaz aparte (disuasio-efektua), badago arazo bat ere: barne-gatazka batean, aldeetako batek NAP erabiltzea bere interesetarako, alde horrek ere giza eskubideak bortxatzen dituen armada bat eduki dezakeelarik. Testuinguru horretan esku hartu zuen NBEk, Jan Egelanden bidez (bitartekaria, NBEko laguntza humanitarioaren koordinatzailea eta Kofi Annanek berak bidalia). Jakina, Egeland ere ataka gogor batean zegoen, irteerarik gabeko bide batean: alde batetik, aldeek bake-hitzarmena sinatzea nahi zuen; bestetik, ordea, NAPren atxilotze-aginduekin bat zetorren. NBEren eta NAPren arteko harreman bereziaz gain⁸, NBEk bake-prozesu horietan duen jarrera ere kontuan zuen bitartekariak. Erdialdeko Amerikan, adibidez, inoiz ez zuen onartu Egelandek erabateko amnistiarik gizateriaren aurkako krimenak egin zituztenentzat. Ataka larrian zegoen, bada, Egeland. Azaroaren 12an, bilera pribatua egin zuten Kony eta Egelandek oihanean, oihal-etxola batean, prentsa eta ikus-entzulerik gabe. Noski, Konyren matxinoek atxilotze-aginduez hitz egin nahi zuten hasiera-hasieratik, Egelandek NAP presionatzea aginduak indargabetzeko. Egelandek, ordea, hitzarmen humanitarioa nahi zuen. Gainera, bitartekariak ez du aginpiderik NAPren gainean. Horrelakoetan gertatu ohi denez, negoziatzaileak ez ziren adituak zuzenbidean, gerra-gaietan baizik, eta ez zituzten xehetasunik teknikoak ulertzen. Uste zuten, bada, NAPren izenean joana zela Egeland hara, bazuela hark ahalmena atxilotze-aginduak indargabetzeko... Egoera ikusirik, ez da harritzekoa inongo emaitzarik gabe amaitu izana bilera. Matxinoek, gainera, ukatu egin zuten krimenik egin zutenik, eta ez zuten horretaz hitz egin nahi. Ataka larria, bada.

Bada beste gatazka bat ere, nazioarteak dezente arreta gutxiago egiten diona, baina, aldi berean, oso garrantzizkoa justizia eta bakearen arteko ustezko gatazka aztertzeko. *Kolonbiako* gatazkaz ari gara. NAPren ikerkuntza-agindu formalik ez badago ere, erakunde horretako partaide da Kolonbia eta Auzitegiko fiskaltza behatzen ari da herrialde hartako egoera, batez ere «Justizia eta bake legea» deritzonaren bidez formalizatutako bake-prozesua⁹. Kexurik aurkeztu zen Auzitegi Konstituzionalean¹⁰ lege hori zela eta. Auzitegiak esan zuen Konstituzioarekin bateragarria zela legea, baina aldaketa eta/edo argibide batzuk agindu zituen, 2006ko irailaren 29ko 3391 Arauzko Dekretuaren bidez. Kolonbian ere ataka berbera aurkitu zuen bitartekaritzak, baina argudio tekniko eta juridikoak askoz ere konplexuagoak ziren han, bai Uribe lehendakariaren gobernuarenak bai Kolonbiako komunitate juridikoarenak.

Uste dut, beraz, merezi duela pixka bat gehiago azaltzea hango konponbide juridikoa. Izan ere, Kolonbiako Auzitegi Konstituzionalaren epaia da munduko garrantzitsuenetakoa (garrantzitsuena ez bada) gai horri dagokionez.

Nazioarteko justizia penalaren sistema

Baina hitz egin dezagun, lehenik, nazioarteko justizia penalaren sistemaz. Bake-prozesua eta giza eskubideak baino gehiago, nazioarteko zuzenbide *penala* eta bake-prozesua dira gakoa. Beste maila batera iritsiak gara gaur egun. Baieztapen ziniko samarra dirudien arren, gauditua dugu giza eskubideen eraginkortasunik eza nazioarteko justizia penaleko sistemari, NAPri eta *ad hoc* auzitegi esker. Izan ere, erantzukizunak ez dira bakarrik kolektiboak, estatuena; indibidualak ere badira, giza eskubideak urratzen dituzten gizon-emakumeena. Zenbait maila bereiziko ditugu. *Lehenbiziko mailan* dugu biktimak eragin dituenaren (edo susmagarriaren) herrialdea/estatu. Nazioarteko krimenak (genozidioak, gizateriaren aurkako krimenak eta gerra-krimenak; ikus NAPren Estatutuko 5-8 artikulua) egin dituztenak bilatu eta zigortzeko obligazioa (NAPren Estatutuaren atarikoak berretsia) dauka estatuak.

Argentinako estatuak, adibidez, azkeneko diktadura militarreko giza eskubideen bortxatzaileak zigortzeko obligazioa dauka. Kongo, Uganda, Kolonia eta AEBetako (Abu-Ghreib kasua) estatuak dagozkien krimenak zigortzeko obligazioa daukate. Hortaz, *lehen* erantzukizuna ez da nazioartearena, delituak egin diren *estatuarena* baizik (bertako herritarrek edo bertakoen aurka egin diren estatuarena). Garrantzizkoa da gogoratzea estatuaren eginkizun hori. Estatuak ez badute betetzen obligazio hori –tamalez, hala egiten dute sarritan, zigorgabetasun-maila handiak erakusten duenez– beste bitartekoaren bat behar da. NAPren *bigarren mailan dago* bitarteko hori. Jakina, eskumena baldin badauka bakarrik esku har dezake NAPk. Eskumena izateko, baina, erakundeko partaide diren 104 estatutakoren batean egina behar du izan krimenak –12 (2) (a) art.– edo estatu horretako herritarren batek –12 (2) (b) art.–,¹¹ edo dagokion estatuan Estatuak indarrean sartu ondoren egina (11, 126 art.) edo 5. artikulutik 8.era bitartera aipatutako krimenen bat behar du izan (genozidioa, gerra-krimena edo gizateriaren aurkako krimena). Bestalde, badu Auzitegiak eskumen- edo onespren-muga larri bat: *complementarity* (osagarritasuna) deritzona, hots, nazio bakoitzeko justizierekiko mendekotasun moduko bat. Horregatik diogu sistemaren lehen mailari dagokiola. Muga horrek dioenez, NAPk aintzat hartu behar ditu krimena izan den estatuaren eskumena, biktimaren eta susmagarriaren estatuena eta haien burujabetza. Are gehiago ere badio; alegia, estatu horiei dagokiela kriminalak aurkitzea. Auzitegiak esku hartzen du –bakarrik– dagokion estatuak ez badauka borondaterik edo ahalmenik kriminala (k) bilatu eta zigortzeko. Estatuak berak eskatzen badio Fiskalari esku hartzeko (hala gertatu zen Ugandan, Kongoko Errepublika Demokratikoan eta Afrika Erdiko Errepublikan), estatuak horretarako gaitasunik ez duela jotzen da. Dena dela, horrek ez du esan nahi estatu libre gelditzen denik kriminala bilatu eta zigortzeko erantzukizunetik. Estatuak lehen mailako erantzukizuna badutenez, ezin da onartu Auzitegiaren esku lagatzea erantzukizun hori. Estatuaren lehen mailako erantzukizuna aintzat hartu behar badugu, estatu bera saiatu behar da, beste inoren aurretik, arazoa konpontzen, bere bitartekoekin, bere botere judizialarekin, «bere etxeko» arazoa baitu.

Bi maila horiek edukirik ere, ordea, zenbait estatu ez daukate krimen horiek zigortzeko bitarteko egokirik. Hori gertatzen zaie, batetik, NAPeko Estatutuaren partaide ez diren estatuak (India, Txina, Errusia, Uzbekistan eta Azerbaijan, besteak beste), eta, bestetik, estatuan bertan ere zigortzen ez dituztenei (sobera ezagun diren zigorgabetasun-arrazoiengatik¹²).

Beraz, beste maila bat, hirugarrena, behar dugu, hau da, hirugarren estatu baten jurisdikzio unibertsala (krimena egin den estatuarena ez dena, ezta, normalean, susmagarriaren edo biktimarena ere). Espainian, oso hurbiletik ikusi dute egoera hori Txileko Augusto Pinochet jeneralaren kasuan, hura atxilotzeko agindua Baltasar Garzón epaile ezagunak eman baitzuen¹³. Bistakoa da eskumen- edo jurisdikzio-mota horren arazoa¹⁴: estatu batek bere gain hartzen du bere herrialdetik kanpo, milaka kilometrora, egindako krimen batzuen gaineko eskumena. Gerta daiteke estatu horrek sarbide errazik ez izatea beste estatu hartan, ez ezagutzea hango ohiturak, hizkuntza ez menperatzea... Eta, gainera, bere zuzenbide penalaren hedatze horrekin beste estatu baten barne-gaietan sartzen da. Beste estatu baten arazoetan esku ez hartzeko argudioak ez du baliorik ukan behar giza eskubideen urratze larriak egin badira, noski, baina, hala eta guztiz ere, argudioa hortxe dago, eta ez da beti erraza izaten bazterreraz uztea. Zintzo mintza gaitezen: nork du atsegin inor bere etxean sartzea, baimenik gabe, beste herrialde batean gertatutakoak inor ikertzen hastea, batez ere ikertzailea ikertuaren antzinako potentzia kolonizatzailea izana bada? Pinochet kasuak eta antzekoek sortu izan dituzten arazo diplomatikoak ikusirik, estatu eta aditu askok diote NAPren sorrera dela irtenbiderik egokiena, hirugarren estatu baten esku-hartzea baino egokiagoa. Noski, beti izango da egoerarik non hirugarren estatu bat eskumenaz (unibertsala) baliatzen den edo zigorgabetasuna dagoen. Atzoko albisteetan (azaroak 14) entzungo zenutenez, amerikar eta aleman abokatu-talde batek (Washingtoneko Center for Constitutional Rights erakundeak eta Abokatu Errepublikarren Elkartek) berriz ere aurkeztu zuten, Berlinen, Donald Rumsfelden eta beste zenbaiten aurkako salaketa Abu-Ghreibeko gehiegikeriengatik¹⁵, Alemaniako nazioarteko zuzenbide penala oinarri harturik (*Völkerstrafgesetzbuch*). Jurisdikzio unibertsalaren alorrean arau oso zabala du, izan ere, Alemaniako zuzenbideak¹⁶. Beste hitz batzuekin esanda, Abu-Ghreibeko kasuan ere erabili da nazioarteko jurisdikzioa, argudio honekin: sekula ez dituztela goi-arduradunak (Rumsfeld eta Pentagonoko agintariak) ikertu izan, eta jende horrek Abu-Ghreibeko gehiegikeriei ez ikusiarena egin zietela, gutxienik. Noski, kasu korapilatsua da. Izan ere, nola eska diezaioke Alemaniak –adibidez– zuzenbideko estatu bati (AEB) justizia egiteko, bera (Alemania) mende bakar batean bi diktadura totalitario izana izaki?

73

Justiziaren eta bakearen arteko gatazka?

Gatozen, honenbestez, saio honen gai nagusira –justiziaren eta bakearen artean hautatu beharra– eta geroxeago ekingo diogu *balioen arteko gatazkari*. Alde batetik, bake-prozesu bat daukagu, bakea lortzea helburu duena, jakina, izenarekin bat baldin badator izana, behintzat. Inork ez du zalantzan jarriko bakea balio bat dela, batez ere iraunkorra eta egonkorra bada. Bestetik, kontrabalio gisara edo, justizia eta horrek dakarren guztia daukagu: erantzukizunak argitzea, biktinekiko errespetua (biktima-estatusa aitortzea barne), egindako kalteak konpondu eta haiengatik ordaina eman beharra, krimenak berriro ez egiteko konpromisoa eta, azkenik, krimenen arduradunei zigorra (penala) ezartzea. Bakearen eta justiziaren arteko balio-gatazka hori dela eta, hona galdera: ba ote dago irizpide zentzuzko, garden eta demokratikorik gatazka hori konpontzeko? Objektiboagoak, zorrotzagoak izaten dira irizpide horiek bake-prozesuetan normalean agertzen diren interes politikoak baino (bidegabekeria eta subjektibotasunez beteak). Nolanahi dela ere, badirudi badagoela zuzenbideko, nazioarteko zuzenbideko, nazioarteko zuzenbide penaleko araurik. Gidari ditugu arau horiek, sakoneko gatazka konpontzeko eta bakeranzko prozesu politikoa zedarrizteko esparru formala ematen baitigute: *Bakea bai, baina ez edozeren truke!* Arau horietako bat, oinarritzakoa, hau dugu: amnistiarik ez nazioarteko krimenei. Nazioarteko jurisprudentzian, akademikoen idazkietan... onartzen da arau hori; *zuzenbideko* araua dela esango genuke¹⁷.

Baina, bake-prozesu bateko ekinbide *politikoan* ere balio ote arauak, balio ote armen indarra duen talde matxinatu baten aurrean, bahiketak egiten eta noiznahi gobernua hankaz gora jar dezakeen erakunde baten aurka? Jar gaitezen, une batez, nazioarteko bitartekari eskarmentudun baten larruan (Egeland jaunarenean, adibidez), Ugandako bake-prozesuan edo antzekoren batean. Herritarrek bakea eskatzen diote bitartekariari, bakea edozeren truke, bakea besterik ez. Edo irudika dezagun bake-prozesu guztiz konplexu bat (historia, politika eta ekonomiaren aldetik); Kolonbiakoa, adibidez. Hango prozesuan ez zuten amnistiari eman premiazko prozeduraz (lehenago ez bezala), baina eztabaida itxuraz demokratiko bati ekin zioten bai Kongresuan bai gizarte zibileko zenbait sektorerekin. Ondorioz, kriminalei zegozkien zigorrak nabarmen jaitsi ziren. Ez zen doakoa izan zigor-murrizketa, baizik eta betekizun zorrotz baten truke emana, agiriak zioenez behintzat¹⁸.

Kontuan izan, dena den, bake-prozesu ororen justizia-balioak askoz ere zehazkiago eta txukunago adierazi izan dituela Ameriketako Herrien arteko Giza Eskubideen Auzitegiak (CIDH), Kolonbia, Peru eta Erdialdeko Amerikako zenbait estaturen aurkako kasuetan¹⁹. CIDH auzitegiak dioenez, biktimen eskubideek badituzte hiru funtsezko elementu edo azpielementu: biktimari eskubideak itzultzea, egindako kaltea ordaintzea eta berriro kalterik ez egiteko konpromisoa. Nola bete, ordea, baldintza edo oinarri horiek? Badago horri buruz halako malgutasun moduko bat. CIDH auzitegiak aukera ugari eskaintzen ditu: batzuk, ekintza sinbolikoak dira –egindako giza eskubideen bortxaketak aitortzea, adibidez (hala egin zuen Argentinako armadako buru izanak, Martín Balza jeneralak)–; beste batzuk, diru-ordainak... Badago, beraz, estatuak aplika ditzaketan hainbat neurri.

Alor konstituzionalari dagokionez, bakearen eta justiziaren arteko gatazkak adierazten du bi balio horiek hartzen dituztela aintzat konstituzioek. Justizia hartzen dute aintzat konstituzio gehienek (berezko balioz edo justizia eskuratzeko herritarrek duten eskubidetzat), baina gutxik daukate bakea balio konstituzionaltzat. Kolonbiako konstituzioa da bigarren multzokoetako bat (ikus 2, 2 artikulua). Horrenbestez, Uriberen gobernua beti aldarrika dezake bakearen balio konstituzionala bake-prozesua bultzatzeko, konstituzioak berak hala agintzen diola argudiatuz. Bestalde, justiziak ere badu balio konstituzionalik (250, 4 art.); izan ere, konstituzioak bereganatu egiten ditu giza eskubideak, baita CIDHren jurisprudentzia ere biktimen eskubideen gainean. Bakearen eta justiziaren arteko auzia konpontzeko, *Abwägung* (haztapena) deritzon sistema erabili du Auzitegi Konstituzionalak, betiere Alemaniako zuzenbide eta jurisprudentziaren ikuspegitik. Eta, hona lehenbiziko galdera: Hori ote neurririk *egokiena* edo onena nahi den helburu hori lortzeko? Dagokigun kasuan, bake- eta justizia-legea da? lege hori oinarri duen negoziazio-prozesua bide egokia da bakea erdiesteko? Bigarrena galdera: *beharrezkoa*, ezinbestekoa da neurria bakea lortzeko? Normalean, matxinatuek ez dute negoziatzen ez badute abantaila edo onuraren bat ateratzen negoziatuz. Horregatik, lege bat behar da onura horietarako esparru formal bat eratzeko. Azkeneko galdera, berriz, hauxe: neurrizkoa da erabakia, *stricto sensu*? Hortxe dago, hain justu ere, gakoa, eta hor sartzen da lehenago aipatutako araua, amnistiak debekatzekoa: bake-hitzarmen batek amnistia osoa agintzen badie gatazkako alde guztiei biktimen interesak aintzat hartu gabe, ez da zuzen jokatzeko ari ez biktimekin ez justizierekin. Noski, subjektiboa da oso haztapan-prozesu hori: horregatik, oso gutxitan onartzen dute alde guztiek erabat. Zaila da, bestalde –edo ezinezkoa– kanpotik erabakitzea zer egin behar duten besteek (adibidez, Espainiak erabakitzea zer egin behar den Kolonbian, edo Madrilera erabakitzea zer den egoki Euskal Herrirako). Tokian tokikoei dagokie prozesua; haiek ez badute sostengatzen, akabo. Ez da inoiz ipini behar ikuspegi *makro* bat oinarritzko ikuspegiaren gainetik, ezta metropoliaren edo hiriburuaren ikuspegia ere herrien (*periferia*) ikuspegiaren gainetik.

NAPren Estatutua, tresna malgua

Nazioarteko krimenen zigorgabetasuna amaiaraztea du helburu nagusi NAPren Estatutuak (5-8 artikulua), atariko irakurrita ondorioztatuko zenutenez, eta lehenbizikoz argi sailkatzen ditu krimen horiek. Esan behar da, hala ere, Estatutua ez dela *tresna* dogmatiko eta zurruna, *malgua* eta bake-prozesuei irekirik dagoena baizik. Prestakuntza-lanetatik ez ezik, Estatutuaren hiru arau hauetatik ere ondorioztatzen da hori:

16. artikulua, zeinak Nazio Batuen Erakundeko Segurtasun Kontseiluari ahalmena ematen dion ikerketa bat bertan behera uzteko, Nazio Batuetako Gutunaren 7. kapituluaren arabera.

17. artikulua, zeinak osagarritasun-printzipioa bermatzen duen; eta

53. artikulua, justizia-interesen klausulei dagokiena (*interests of justice*). Amerikako auzibide-zuzenbidean *common law* deritzon sisteman, ohikoa da klausula hori, zeinak fiskalaren esku uzten duen ikerketari ekiteko (edo ez) erabaki formala.

Hiru arau horiek erakusten digutenez, Estatutua ez da bake-prozesuetarako oztopo: Estatutua idatzi zutenen (diplomazialariak, zuzenbidean adituak, justizia-ministerioetako funtzionarioak...) irizpideen emaitza dira arauak. Nazio bakoitzeko gorabeherak oso aintzat hartu beharrekoak dira gatazka armatuetan, Estatutua egin zutenen iritziz. *Osagarritasun* printzipioak, bereziki, garbi adierazten du NAPren asmoa ez dela nazio barruko justizia penalarren ordeko bihurtzea (NBEko Segurtasun Kontseiluak sortutako *ad hoc* auzitegiek ez bezala), baizik eta *estatu bakoitzeko justizia penalak zigortzea aipatutako nazioarteko krimenak*. Beraz, NAPk bultzatzaile-lana egiten du, presioa, nazio bateko justizia penalak porrot egiteko arriskurik sumatuz gero (borondaterik ezak edo ezinak eragindako porrota).

Beste *ratione materiae* muga bat hau izaten da, batzuetan: gatazka jakin batean egiten diren krimenen kalitatea eta kantitatea. Nazioarteko krimenen alorrean bakarrik du eskumena NAPk, hau da, halako elementu kolektibo, orokor edo testuinguruko bat egon behar du: talde jakin bat suntsitzeko asmoa (genozidioa), krimen sistematikoak edo askotarikoak (gizateriaren aurkako krimenak) edo gatazka armatua (gerra-krimenak). Ez da aski delitu «arruntak» egotea (hilketa selektiboak, bahiketak, torturak... guztiak ere delitu gure zuzenbide penalarren arabera, baina ez nazioarteko krimenak). Euskal Herriko egoerari dagokionez, nekez esango genuke hemen egiten diren delituak nazioarteko krimen direnik, NAPren 5-8 artikuluetako baten arabera krimenak direnik²⁰. Kontuan izan behar da, bestalde, *bake-prozesuaren beraren metodologia*, hots, goitik agindutako prozesua den, edo eragiten dien herritarren partaidetza zabala duena. Egon daiteke herritarren partaidetzarik bide demokratiko formalen bidez bederen (legebiltzarra, autonomia-erkidegoetako legebiltzarrak, udalak...) edo gerta daiteke goitik agindutako bake-prozesua izatea.

Horrezaz guztiaz gain, funtsezko beste galdera bat ere egin beharra dago: zeri deitzen diogu nazioarteko *krimenak ikertu edo zigortzeko obligazioa*²¹? Zertan datza, zehazki, obligazio hori? Bistakoa da ezin direla ikertu eta zigortu nazioarteko krimen guztien egileak –adibidez, Kolonbiako 17.000 paramilitarrak (edo gehiago) edo 20.000 edo 30.000 gerrilariak–. Munduko inongo sistema judizialek ez dauka ahalmenik delitu guztiak ikertu eta gaizkile guztiak zigortzeko. Ez Nurenbergeko prozesuak, ez Tokiokoak, ez Jugoslavia zenekorako eratutako *ad hoc* auzitegiak (ICTY) ez Ruandarakoak (ICTR) ez zituzten zigortu nazioarteko zuzenbide penala urratu zuten guztiak. Nolabait esatearren, *jazarpen selektiboa* egin zen. Nurenbergeko epaiketari bezala, zigortu behar diren hautaketa egin behar da (krimen handien eta ugarien egileak, erakunde kriminaletako buruak...). Badakigu talde kriminaletan ari direnetako asko demagogiaren biktima direla, ez direla erakunde horietako

kide konbikzio ideologikoagatik (gaur, gerrillari; bihar, paramilitar; gehien ordaintzen duenarekin). 1998an ICTY eta ICTR auzitegietako fiskalak erabaki zuen honela finkatzea bere zigor-estrategia:

Bat etorritz estrategia horrekin, hots, krimenetan ardura handienak izan dituztenak zigortu behar direla, edo delitu bereziki anker edo bereziki larriak egin dituztenak, erabaki nuen zenbait auzipeturen aurkako karguak erretiratzea...²².

Fiskalaren erabakia onartu egin zuen Apelazio Ganberak, eta eskumen zabala eman zion jazarpen-estrategiari ekiteko:

Testuinguru horretan, zuzenbide penaleko sistema askotan giza eta finantza baliabide oso mugatuak izaten ditu krimenak zigortu behar dituen organismoak; beraz, alferrik da pentsatzea organismoaren jurisdikziopeko krimen guztiak ikertu eta zigortuko dituenik. Nahi eta nahi ez, erabaki beharra dauka erakunde horrek zer krimen eta zer kriminal ikertu/zigortu. Zalantzarik gabe, erabakimen handia du fiskalak ikerketei ekiteko eta akusazioak prestatzeko²³.

Ikuspegi hori bera aldarrikatu du NAPeko fiskaltzak zigor-estrategiari buruz egin berri dituen adierazpenetan. Garbi dago, beraz, badagoela *mugarik ratiōne personae* zigortze-obligazioan, hau da, ikertu eta zigortu behar diren lagunei dagokienean. Erakunde kriminetako buruak, liderrak zigortzea da helburua. Irizpide hori egokia badu sistema nazional batek, are egokiago nazioarteko justizia penalak. NAP ez da inoiz arduratuko Kolonbiako Cauca eskualdeko gerrilari txikia edo Antioquia aldeko paramilitarra atxilotzeaz, baizik eta haien erakundeetako buruzagitzak zigortzeaz. Zentzuzko irizpidea, zinez. Horra, bada, nazioarteko justizia penalaren beste malgutasun-elementu bat.

76

Azkenik, NAPren Estatutuko 53. artikuluan ageri den ‘justiziaren interesa’ terminoak –lehendik ere aipatua dugu– beste hau ere esan nahi du: *beste justizia-bide batzuk* ere birlatu behar direla gatazkak konpontzeko. Ugandan, Museveni presidenteak berak aipatu zuen gatazkak konpontzeko hango metodo tradizionala (Matu Put deitzen da), oraindik ere Atxoli komunitateak erabiltzen duena²⁴. Ruandan, berriz, Gacaca deritzen auzitegiek epaitu zituzten zenbait auzipetu²⁵. Kasu horietan, berriro aztertu beharra dago Mendebaldeko auzi-kontzeptua. Izan ere, tokian tokiko berradiskidetze-prozesuak eraginkorragoak izaten dira auzi penalak baino bizikidetzeta eta bakea sendotzeko nazioarteko krimenak izan diren herrialdeetan.

Hitzaldiaren inguruko oharra

¹ 2006ko azaroaren 9an hasi zen *confirmation hearing* deritzona, NAPeko Estatuaren 61. artikuluan arautua, eta azaroaren 28an amaitu zen. Hamabost urtez beheko gaztetxoak errekrutatu eta gerrarako erabiltzeagatik ari dira epaitzen Lubanga, gerra-krimena baita jokabide hori NAPeko Estatuaren 8. artikulua dioenez. NAPren estrategia berritza har daiteke epaiketa (*ad hoc* auzitegien aurkakoa), hau da, kargu jakin batzuegatik egitea epaiketak, eta ez «megaepaiketak». Izan ere, «megaepaiketek» zaildu egiten dute ikerketalana eta frogabiltzeta, eta luzeegiak eta garestiegiak izaten dira. Informazio gehiago, http://www.icc-cpi.int/pressrelease_details&id=202&l=en.html.

² Mission de l'Organisation des Nations Unies en République démocratique du Congo (Nazio Batuen Erakundeko misioa Kongoko Errepublikan Demokratikoan).

³ Ikus Hamann, Internationaler Strafgerichtshof und Vereinte Nationen in der Demokratischen Republik Kongo, ZStW 118 (2006), 799-822. or.

⁴ 2002ko uztailaren 1ean sartu zen indarrean Erromako Estaturua, eta 104 estatu dira egun (abenduak 6) erakundeko partaide. Negoziazioen historiaz, ikus Ambos/Guerreroren (elkarlanean), *El Estatuto de Roma de la CPI*, Bogotá (Universidad Externado) 1999; Ambos (koord.), *La nueva justicia penal supranacional. Desarrollos post-Roma*. Valentzia (Tirant lo Blanch) 2002; Ambos, *Internationales Strafrecht*, München (Beck) 2006, *Seis notas marginales (nm.) 40 ss. con ulteriores referencias*. Gai horri eta nazioarteko zuzenbide penaleko egungo beste batzuei buruz, ikus Ambos *Temas de derecho penal internacional y europeo*. Madrid (Marcial Pons) 2006.

⁵ Financial Times, Comment & Analysis, Andrew England, Nikki Tait eta Mark Turner, *Vague at The Hague? Why the UN war crimes trials may be off to a timid start*, 2006ko azaroak 7.

⁶ The Monitor, Solomon Muyita, Grace Natabaalo eta Emmanuel Gyezaho, *Museveni Insists on Kony ICC Arrests*, 2006ko urriak 28 <http://allafrica.com/stories/200610270919.html>.

⁷ NAPrako Nazioarteko Koalizioaren txosteneko laburpenetik hartutako aipua <www.iccnw.org>.

⁸ *Relationship agreement*, 2004ko urriaren 4koa. NBERekiko harremanei buruz, ikus <www.iccnw.org/?mod=agreementsun>.

⁹ 2005eko 975 Legea. Hori baino lehenagoko proiektuei dagokienez, ikus nire txostena <http://lehrstuhl.jura.uni-goettingen.de/kambos/Forschung/Forschung.html-en->> irizpenak.

¹⁰ C-370 epaia, 2006ko uztailaren 13koa (epaiaren argitalpena) <www.constitucional.gov.co>.


¹¹ Eskumen-erregimenari buruz, ikus Kaul/Kreß, Ambos oharra *La nueva ...-n*, 297. orrialdea eta hurrengoak; Ambos *Internationales Strafrecht*, 8. oharra eta hurrengoak.


¹² Ikus Ambos *Impunidad y derecho penal internacional*, Buenos Aires (Ad hoc) 1999.

¹³ Pinochet kasuari buruz, ikus Ambos *Revista Penal* (La Ley, Espainia), 4. zk (1999), 3-20 = *Nuevo Foro Penal* (Medellín, Kolonbia) 62 (1999ko iraila-abendua), 159-185.

¹⁴ Oso kritikoa izan, adibidez, Fletcher –*Journal of International Criminal Justice* 1 (2003), 580. orrialdea eta hurrengoak– Eserren aurka, *Tulsa Law Review* 39 (2004), 955. orrialdea eta hurrengoak; *Internationales Strafrecht*-eko eztabaidaren laburpena, oharra.

- ¹⁵ Ikus, adibidez, *Times*, 2006ko azaroaren 16koa
<<http://www.time.com/time/nation/article/0,8599,1560224,00.html>>.
- ¹⁶ Lege honetaz eta jurisdikzio unibertala mugatzen duen auzibide-arauaz, ikus Auzibide Arau Penalaren § 153f, ikus Amboson NStZ 2006, 434. orrialdea eta hurrengoak, gaztelaniaz, *Revista Penal*-en, 19. zk (2007ko urtarrila). Ikus legearen testua eta oinarriak http://lehrstuhl.jura.uni-goettingen.de/kambos/Forschung/laufende_Projekte_Translation.html-n.
- ¹⁷ Ikus Amboson oharra *Internationales Strafrecht*-en, gerora erantsitako aipuekin.
- ¹⁸ Hortaz, Kolonbiako gobernuarentzat lege hau *is fully in line with international standards* da (NAPeko partaide diren estatuen deklarazioa, Haga, 2006ko azaroak 23).
- ¹⁹ Ikus azkeneko epaia «Masacres de Ituango vs. Colombia» kasuan, 2006ko uztailaren 1a, 3545. orrialdea eta hurrengoak, gerora plazaratutako zenbait epairi buruzko aipuekin, <www.corteidh.or.cr>.
- ²⁰ Nazioarteko krimenei buruzko azterketa zehatzagoa nahi izanez gero, ikus Amboson *Internationales Strafrecht*, oharra, . 122. orrialdea eta hurrengoak, eta Amboson *Temas*, oharra, 271. orrialdea eta hurrengoak.
- ²¹ Obligazio horri buruz, ikus Amboson *Impunidad*, 12. oharra, 66. orr. eta hurrengoak.
- ²² Hau dio testu originalak: «Consistent with those strategies (of prosecution, K.A.), which involve maintaining an investigative focus on persons holding higher levels of responsibility, or on those who have been personally responsible for the exceptionally brutal or otherwise extremely serious offences, I decided that it was appropriate to withdraw the charges against a number of accused ...» (Press release, 1. orria, Prosektorren aipua. Ikus Delalic et al., Judgement 2001eko otsailak 20, IT-96-21-A, 597. orr.).
- ²³ Hau dio testu originalak: «In the present context, indeed in many criminal justice systems, the entity responsible for prosecutions has finite financial and human resources and cannot realistically be expected to prosecute every offender which may fall within the strict terms of its jurisdiction. It must of necessity make decisions as to the nature of the crimes and the offenders to be prosecuted. It is beyond question that the Prosecutor has a broad discretion in relation to the initiation of investigations and in the preparation of indictments.» (Prosecutor, ikus. Delalic et al., 22. oharra, 602. orr.; ikus, halaber, Prosecutor v. Akayesu, Judgement 1 June 2001 (ICTR-96-4-A), para. 94; Prosecutor v. Ntakirutimana, Judgement 21 February 2003 (ICTR-96-10 & ICTR-96-17-T).
- ²⁴ The Monitor-ek, supra nota 6, Museveni du aipagai hau esatean: «In order to help these people get a soft landing, why not use a traditional system?».
- ²⁵ Ikus S. Schilling, *Gegen das Vergessen: Justiz, Wahrheitsfindung und Versöhnung nach dem Genozid in Rwanda durch Mechanismen transnationaler Justiz: Gacaca Gerichte*, Bern et al. 2005.





Gatazka tranpak eta tranpa gatazkatsuak: giza eskubideak, gatazka konponezinak eta eragozpenak bake-negoiazioetan

J. P. LINSTROTH JN.

Giza Antropologian Doktorea. Ameriketako Estatu Batuetako Nova Southeastern University-ko Gatazkak Analizatzeko eta Ebazteko Departamenduko irakaslea

J. P. Linstroth Oxfordeko Unibertsitateko (Erresuma Batua) Antropologia Sozial eta Kulturalako Institutuan egin zen antropologiako doktore. Han eman zizkioten, halaber, Euskal Herrian 1995etik 1997ra ikerketak egiteko bekak (Peter Lienhardten Oroimenezko Funtza, Wolfson Ikastetxeko bekak joan-etorrien gastuetarako eta graduondoko Unibertsitate Beka).

Egun, irakasle laguntzaile da, master eta doktoretza programetan, Nova Southeasterneko Unibertsitatean (Fort Lauderdale, AEB), eta Gatazka Konpontzeari eta Antropologiari buruzko eskolak ematen ditu. Zientzia Politikoetan lizentziatu zen, gaztelania ikasgai zuela, Holy Cross ikastetxean (Phi Sigma Iota, hizkuntzalaritzako adarra) eta badu Antropologia masterra ere (Floridako Estatu Unibertsitatea).

Datu berriak ekarri dituzte bere ikerketa-lanek arlo hauetara: gatazka-konponketa, genero-gaiak, historia, lokalismoak, nazionalismoa, funtzio eta erituak (antropologia kulturalarekin estu loturik, betiere) eta bakegintza.



CURRICULUMA

Maiz aipatu du Euskal Herria bere ikerlanetan, eta hauek ditu aldizkari espezializatuetan argitaratutako azken artikulua: «Grounds for Contention, Modes of Protest: legal conundrums and minority dissidence among the Spanish-Basques».

Laster argitaratzekoa: *Gatazken zergatia eta protesta-moduak: galdekizun legalak eta gutxiengoan disidentziak euskal-espainiarrena rtean*; «Commentary: Basque Avenues Toward Peace: building a new road to a new dawn, a new beginning». Laster argitaratzekoa: *Iruzkina: Euskal bideak bakerantz-egunsenti berria, hasiera berria*; «Su-etena AEBetatik ikusita», (*Ekarri* aldizkaria, 2006, maiatza, 42-46 orrialdeak); «An Introductory Essay: Are We in ‘The Age of Resistance’ in a Post-9/11 World?» (Atariko entsegua: ‘erresistentziaren aroan’ ote dago mundua irailak 11z

geroztik?, *Revista sobre Paz y Resolución de Conflictos* aldizkariaren edizio berezian, 2005, 12. liburukia, 2. zenbakia, udazkeneko zenbakia, 1-54 orrialdeak); «The Basque Conflict Globally Speaking: material culture, media, and Basque identity in the wider world» (Euskal gatazka, ikuspegi globaletik begiratuta: kultura materiala, komunikabideak eta euskal nortasuna, mundu zabalago honetan, *Oxford Development Studies*-en (ODS), 2002a, 30. liburukia, 2. zenbakia, ekaina, 205-222 orrialdeak); «History, Tradition, and Memory among the Basques» (Historia, tradizioa eta memoria euskaldunen artean, *History and Anthropology*-n, 2002b, 13. liburukia, 3. zenbakia, iraila, 159-189 orrialdeak); eta Arrani, Arrain, Arrai: en torno al protovasco 'Arrani' y sus derivaciones lingüísticas (Arrani, Arrain, Arrai: protoeuskarako 'Arrani' eta haren eratorpen linguistikoez) (*Fontes Linguae Vasconum: studia et documenta*-n, 1998, XXX. urtea, 79. zenbakia, iraila-abendua, 397-406 orrialdeak). 2005ean, *Journal of Peace and Conflict Studies* (PCS) argitalpeneko erredaktore burua izan zen.

Laster argitaratuko dituen liburuen artean, aipatzekoak dira: *Marching Against Gender Practice: political imaginings in the Basqueland* (Generoagatikoko bazterketaren aurka ekinean: irudimen politikoa Euskal Herrian) eta *The Anthropology of Conflict and Peacebuilding: meaning-making and worldviews in comparative perspective* (Gatazkaren eta bakegintzaren antropologia: ikuspegi konparatua), Mark Davidheiserrekin batera.

Nova Southeasterneko Unibertsitatean ari da lanean egun, I+G lehendakaritza-beka batekin Alexander von Humboldt Fundazioaren diru-laguntzarekin, immigranteen etnizitatea eta nortasuna ikertzen, Goettingeneko (Alemaniako) George-August Unibertsitatearen laguntzarekin. I Gernika Gogoratzuz elkarteak gonbidatuta, «La Imagenación Moral. El Arte y el Alma de un Proceso de Paz» (Irudimen morala. Bake-prozesu baten artea eta arima) txostena aurkeztu zuen 2005ean, Gernikan (Espainia) egin ziren Bakea eta Kulturari buruzko Nazioarteko Jardunaldietan. Bestalde, hizlari eta konferentzia-emaiile jarduna da Australian, Alemanian, Erresuma Batuan eta AEBetan.

LABURPENA


Tranpen metafora eta metafora hori gatazketan eta gatazkak konpontzeko teorietan erabiltzeko moduak aztertzen dira lanean.

Egileak dioenez, mugimendu politikoetan dabilzan eragile politikoak irtenbiderik gabeko egoeretara heltzen dira maiz, nagusiki kultura, historia, ahaidetasun, oroimen eta traumekin zerikusia duten gaietan.

Gainera, gatazkak konpontzeko teoria batzuk tranpa tentagarriak baino ez direla dio, eta horren arrazoiak ematen ditu. Giza indarkeriaren konplexutasunak hobeto ulertzeko, teoria sakonagoak sortu behar direla ere aldarrikatzen du, eta horren zergatiak azaltzen.

Giza eskubideen kontzeptuak autodeterminazioaren eta kultur bereizketen aldeko diskurtsoetan nolako eragina duen ulertzea garrantzitsua dela adierazten du egileak. Halaber, honako arrazoi hauek ere argitzen ditu: zergatik den beharrezkoa irudimenaren kontzeptualizazioa berrantolatzea eta bake-negoiazio konplexuetan sortu daitezkeen oztopoak aurreikustea.

Euskal Herriko bake-prozesua aztertu eta euskal hiritarrek bakea lortzeko finkatu ditzaketan oinarriez hitz egiten du.



Gatazka tranpak eta tranpa gatazkatsuak: giza Eskubideak, gatazka konponezinak eta eragozpenak bake-negoiazioetan

«Oso gauza gutxi gertatzen dira une egokian, eta gainerakoak gertatu ere Historialari arduratsuak zuzendu egingo dituzte oker horiek.»

Herodoto Halikarnasokoa (K.a. 484-425)

«Arriskutsua da eskumeneko agintariek oker daudela erabaki duten gaietan arrazoia izatea.»

Voltaire [François-Marie Arouet] (1694-1778)

«Iragana ez da inoiz hiltzen. Berez, iragana ere ez da.»

William Faulkner (1897-1962)

Hitzaurrea

Nire aurkezpen honen izenburua Alfred Gell antropologoari zor diot, izan ere, haien ideia sendoak inspirazio-iturri zaizkit oraindik antropologiaren inguruko gaietan¹. Hemen, ordea, tranpak artetzat hartu beharrean, edo artea tranpatzat, Gellen (1999) zenbait kontzeptu erabiliko ditugu gatazkak, gatazka konponezinak bereziki, eta gatazken teoria azaltzeko. Giza tranpek kezkatzen naute gehienbat. Eta tranpen metafora erabiliko dut hemen, giza eragileak gatazka batean harrapatuta nola gelditu daitezkeen ikusteko, eta ikerlariak tranpazko hizkera batean are harrapatuago nola gelditu diren azaltzeko. Bi gauza argitu nahi ditut hemen. Batetik, gatazkaren aurrean, gatazka luzeen aurrean bereziki, gizaki guztiei sortzen zaien dilema. Bestetik, eta batez ere, intelektualak nola murgiltzen diren giza esperientziarekin oso zerikusi gutxi duten abstrakzioan teorizatzeko ahaleginetan. Antropologia eta gatazken konpontzaile naizen aldetik, politika-zientzien, nazioarteko harremanen eta gatazken konponketen ikerlariak aurkeztutako teorien gaineko azterketetan oinarritzen dut nire ikuspegia. Ikerketa-esparru horietako zenbait proposamen teoriko argitzea dagokigu hemen, alderdi hauek aztertuz: kulturak gatazken konponketan duen zeregina, bakegintzako xehetasun praktikoak eta baketze-eredu batzuen inguruko esanahiak. Gatazka konponezinei heltzeko ñabardura gehiago dituen ikuspegia lantzeko, etnografiara jotzea proposatzen dut, oroimenaren, oinazearen eta indarkeriaren esanahien inguruan kontzeptualizazio humanistago bat lortzeko. Bestalde, giza eskubideen inguruan dauden interpretazio kontrajarriak erantzuteko, autodeterminazioaren aldeko mugimenduetan oinarritzen naiz bereziki, eztabaidan oinarritutako demokraziaren teoriak (*deliberative democracy*) eta askatasunaren eta norberaren autonomiaren inguruko ideiak aplikatzearen, gehienbat. Azkenik, euskal gatazkari heltzen diot, aurreko ideietatik bake-prozesuan aurrera egiteko atera litezkeen ikasgaiak proposatuz.

Buruko mapak: kulturaren tranpa

Hasiera batean, tranpa batek hutsune edo gabezia izugarria dagoela adierazten du, tranpa asmatu eta jarri zuen gizonaren gabezia, eta biktima bihurtuko den animaliaaren gabezia. Gabezia nabarmen horien ondorioz, tranpa, tranpa guztiak bezalaxe, ikur indartsua bihurtzen da. Berez ez zen sortu ikur bezala jarduteko edo komunikatzeko (ezkutuan egoteko eta inork ez ikusteko baizik), baina, hala ere, tranpak esanahi indartsuagoa du berariaz horretarako sortutako ikur askok baino. Uztai bandatuaren indarkeria estatikoa, makila eta sokekin prestatutakoaren asmo txarreko tramankulua, horiek adierazgarriak dira berez, konbentzionalismora jo behar izan gabe. Ikur hau ikurra da, baina ofizialki ez, eta, hortaz, zentsuratik kanpo gelditzen da. Egilearen gogoia eta biktimaren halabeharra irakurtzen ditugu bertan. Hortaz, sortzailearen–ehiztariaren– eta biktimaren –ehizaki edo harrapakinaren– eredia da ikurra. Tranpa batean harrapatuta gelditzen diren animaliak beren ekintzen ondorioz bukatzen dute egoera horretan, beren buruarekiko konfiantza gogobetearen ondorioz hain zuzen, eta horren ondorioz tranpa ehizatze modu askoz poetiko eta tragikoagoa da harrapaketa hutsa baino (Gell 2006: 200-202).

Gatazkaren beraren edo gatazkaren teoriaren metafora bezala tranpa kontzeptua erabiltzea harrigarri samarra izan liteke hasiera batean, baina iruditzen zait ederki irudikatzen duela jendea nola gelditzen den harrapatuta, alegia, giza eragileak gelditzen dira gatazkak gainditu ezinik eta, areago, teoriariek zergatik maite duten hainbeste gizakien egiazko dramak azaltzeko teoria abstraktuak bilatzen ibiltzea. Alfred Gell britainiar antropologo entzutetsuaren aipu batekin hasi naiz, hark Pascal Boyer ezagutzaren antropologoarengandik hartu zuen «pentsamendu-tranpen» ideia, gatazken azterketan erabiltzeko (Gell 2006: 213). «Pentsamendu-tranpen» ideia azaltzeko, kulturaren, bakegintzaren eta baketzearen inguruko zenbait ideia aurkeztuko ditut lehenik eta behin, eta gatazkak konponezinen kasuan tranpei lotuta agertzen diren gizakien alderdiak jorratuko ditut ondoren. Teoria askok kale itsu batera eramán gaituzte, eta ikerlari eta adituok ez atzera ez aurrerako egoera horretatik ateratzeko bidea aurkitzea da helburua hemen.

Antropologoa naizen aldetik, iruditzen zait minduta egoteko arrazoi sendoak daukagula gatazkak konpontzeko garaian askok «kultura» behin eta berriz astintzeko duten tema ikusita. Kultura gatazkarekin lotzea inolako esanahirik ez duen termino orokor bat erabiltzea bezalakoa da. Hortxe dago, hor nonbait, gu deskubritzeko, «bestetasun» bat da, gatazkak konpontzeko hizkeran, ezezagun deskribatzaile bat izango litzateke. Horrek arazo ugari dakartza, besteak beste, ez dituelako bestelako kultura, herri eta sinesmen-sistemak aintzat hartzen. Lehenik eta behin, termino horren erabilera hutsala da, hutsik dago, eta gauza bera gertatzen da etnia eta nortasun terminoekin, eta biak ez bereiztearekin ere. Bigarrenik, gauzak nahastu eta estereotipoak sortzea gain, alor honetan oso gutxik aztertu dituzte kontzeptualizazio horien inguruan dauden desberdintasunak, Kevin Avruch (ia antropologo eta gatazken konpontzailea) izanik horren salbuespen bakarra, hein batean. Hala eta guztiz ere, kulturaren tranpa eta haren erabilera okerra begien aurrean daukagu, eta bibliografian jasota dago. «Kultura» terminoa antropologiako definizio zaharkituetatik hartzearen ondorioz gertatzen da hori funtsean, nire ustez behintzat, zaharkituta egon arren, politologoen eta nazioarteko harremanetako adituek definizio horiek erabiltzen jarraitzen dutelako, alegia. Beherago azalduko dudanez, antropologia sozialak eta kulturalak aspaldi egin zuten aurrera, eta gaur egun modu landuagoan erabiltzen dituzte kontzeptu huts horiek.

Era berean, nire iritziz berriro ere, kulturaren gaiari arreta jarri eta haren interpretazio egiazkoagoa lortzen saiatu beharko genuke, ikerlariak kontzeptu hori osotasun konplexu bat balitz bezala erabiltzen jarraitzen badute, modu orokorrean hartuaz, xehetasun eta zehaztasunetan sartu gabe.

David Augsburger teologoa dugu azterketa orokorrak egiten duten horietako bat. *Conflict Mediation Across Cultures* [Kulturen arteko bitartekaritza gatazketan] (1992) liburuak unibertsitate askotan erabiltzen da ikasleei kultura eta gatazka eta haien arteko lotura irakasteko. Antropologiako iturrietatik hartzen ditu gauza asko, baina azterketa landurik eta zehatzik egin gabe, eta bere testuan jakinduria antropologikoaren erakusketa egiten du, kulturari buruz eta arrazoi antropologikoengatik ari dela aditzera emanez. Halere, Augsburgeren testua zehaztasun gehiagorekin aztertzen badugu, gauzak argitu baino nahastu egiten dituela ikusiko dugu. Hauxe dio (1992: 7): «Kulturak komunitate bakoitzaren helburu berezi-bereziak eta kultura horren zinezkotasuna gorpuzten ditu. Kultura bakoitza herri baten balio, sentipen eta espiritueltasuna aditzera ematen saiatzen da». Dena den, ez da aipatu ere egiten kultura terminoak zergatik sortzen dituen hainbeste arazo eta ez da auzitan jartzen haren sorrera. Gauza emantzat jotzen da. Liburuak, berez, gatazkan dauden hainbat kulturaren inguruko azalpen lañoen bilduma bat besterik ez da, ipuin asko eta koadro ugari biltzen dituena, gai nagusi bat azpimarratu gabe, edo jasotzen dituen desadostasun guztiak bateratzen lagunduko digun bitartekorik gabe. Kultura modu horretan laburbilduz, kulturaren esanahira hurbildu beharrean zalantza-zorabio eta ziurgabetasun kulturalen nahaspilan galtzen da. Augsburger eta James Clifford (1988: 11 eta 14) alderatuko ditugu orain: «... mundu-mailako botere-sistemetan diskurtsoa zerbaiten aurrean lantzen da, desberdintasun edo berezitasun zentzua ezin da kultura edo tradizio baten jarraikortasunean kokatuta egon bakarrik. Nortasuna egoeraren araberrako zerbait da, ez zerbait funtsezko edo berezkoa. XX. mendeko nortasunek ez dira kultura edo tradizio jarraituetan oinarritzen. Gizabanakoak eta taldeak iraganaren agerpen berriak aurkezten dituzte, tokian tokiko egoerara egokituta, eta atzerriko hedabide, sinbolo eta hizkuntzak ere oinarritzat hartuta». Bestela esanda, kultur moldeak eta nortasun kulturalak etengabe sortzen eta birstortzen dira, etengabe ukatzen eta negoziatzen dira, eta aldatuz doaz denborarekin batera. Kontzeptuaren jarioasuna ukatuz gero, nortasun kultural moldeatu eta prefabrikatu bat onartuko genuke, etengabe berregiten ari diren prozesuetako ataltzat hartu beharrean. Hauxe eranstu du Cliffordek (1988: 16): «Mundu osoan zehar, herri indigenek “aurrerapenaren” eta batasun “nazionalaren” aldeko indarrekin jardun behar izan dute. Hartu-eman horren emaitza suntsitzailea eta sortzailea izan da. Tradizio, hizkuntza, mundu-ikuskera eta balio ugari galdu dira, horietako asko suntsitu egin dituzte. Halere, aldi berean, halako beste asko asmatu eta biziberritu dira, aurkakoak eta konplexuak ziren giroetan». Ondorioz, Augsburgerek berezkoz jotzen duen errealitate kulturalik ez dago berez. Errealitate etnografikoek askoz irudi ilunagoa ematen digute gure munduaz, eta ikusten dugu mundu osoan zehar herri askok beste erlijio batzuen proselitismoa jasaten dute, kristautasunarena bereziki, *Conflict Mediation Across Cultures* liburuak horren gaitzespenik egiten ez duen arren, bere mezu nagusia barkamenaren aldeko mezu judu-kristaua delako. Augsburgeren liburuan ez da biziraupenaren alde borrokan ari diren herri askoren suntsipena ekarriko duen globalizazio ideologiko, material eta teknologikoaren aipamenik ere agertzen. Halako egoera nabarmen eta esplizituak baztertzeko baditugu, zer irakatsi edo ikasi dezakegu kulturari buruz edo gatazkan dauden kulturei buruz?.

Augsburger ez da hori egiten duen bakarra, ordea. John Paul Lederach gatazken konponketarako bitartekari ezagunak, adibidez, kultura «inguruko errealitate sozialak ulertzeko, interpretatzeko, adierazteko eta errealitate horiei erantzuteko jende multzo baten sortutako

eta erabilitako jakinduria eta eredu komunetan errotuta» dagoela dio (1995: 9). Elise Bouldingen iritziz (1990), aldiz, mundu-mailako gizarte positibista, utopiko eta zibil bat lortu liteke. Horixe dio, baina ez du esaten *etnia*, *nazionalismoa* edo *arraza* kontzeptuak ikuspegi antropologiko eta soziologiko erabilgarriagoetatik nola kontzeptualizatu litezkeen, halako ikuspegiak 1950eko hamarkadaz geroztik gutxienez mahai gainean dauden arren (cf. Banks 1996; Jenkins 1997; Sansone 2003). Are etsipen handiagoa sortzen dute Kevin Avruchen tank-erako ikerlariak, kultura zehatz-mehatz azaltzen duten arren, ez dutelako etnografiako adibide egokirik ematen falta dena ulertzen laguntzeko. Nolanahi ere, Avruchek argi esaten du bere helburua ez dela «haiek [beste adituak] kritikatzeko, kontzeptuaren inguruan argitasun handiagoz pentsatzen laguntzea baizik», eta ni bat nator Avruchekin horretan (Avruch 2004: 16).

Dena den, kultura «homogeneoa» ez dela, «gauza bat» ez dela, elkarketa bitxiak, «ohiturak» eta «betierekoa» ez dela azaltzean, kontraesanetan sartzen da aurretik esan duenarekin, gaia orokorreki edo gehiegi sinplifikatuz aztertzen duelako bere arrazoibidearen amaiera aldean (2004: 14-21). Kulturari lotutako arazoak aztertu gabeko uzteko joera hori Pat Chew-ren *The Conflict & Culture Reader* [Gatazkari eta kulturari buruzko antologia] (2001) izeneko bilduman agertzen zaigu, bi ataletan bakarrik aztertzen delako gatazken konponketako adituek kultura nola erabiltzen den aztertzeko.

Andreas Wimmerrek ederki laburbiltzen du auzi hori (2002: 24): «[...] kulturaren kontzeptu klasikoak lau arazo teoriko eta metodologiko garrantzitsuren kontra jotzen du. Ez dio aldaketa kulturaren barruko aldaketen arazoari erantzuten. Ez digu boterearen eta esanahiaren arteko erlazioa ulertzen laguntze. Giza ekintzaren inguruan duen ikuspegia desegokia da guztiz. Ez du aldaketa kultural eta sozialeko prozesuak aztertzeko tresna egokirik eskaintzen. Ez nator bat harekin kultur itun eta itxurari buruz duen ideian (2002: 33), «parte-hartzaileen eta kanpotarren arteko mugak definitzen» dituenean, nazioak erakunde baztertzaila edo barne-hartzaile bezala sortzen direla esan nahi duelako horrek. Halere, kulturaren ideia klasikoaz egiten duen laburpena zuzena da. Gutxienez, desadostasun horiek kulturaren eta gatazkekin duen harremanaren arteko eztabaidaren maila gorago jartzeko bideetik jotzen dute. Zehatzago azalduko dut esan nahi dudana. Kultura niretzat erreferentzia-puntu bat da, edo etiketa orokor bat, etnia eta nazionalismoa bezalaxe, kontzeptu hutsak dira, beraz, ez kontzeptu mugatu eta zehatzak, kontzeptu malgu eta arinak, gizartearen bidez etengabe aldatuz eta bihurrituz doazen nortasunaren alderdi «banatu» eta «zatigarriak», alegia, talde, barne-banaketa eta talde-dinamikaren baitan gizabanakoek egiten dituzten interpretazio berrien edo kanpoko eraginen bidez modu irudimentsuan eta herri-nahiz eskualde-mailan osatuz doana (Linstroth 2005). Kultura, etnia eta nazionalismoa, kontzeptu hutsalak dira, hutsik daude, ez dutelako ia ezer esan nahi, edo muturreko esentzialismora eramanean izatearen ondorioz haien esanahia hutsaldu egiten da. Fikzio sozialak dira, berez, ikerlariak uneoro birformulatu ditzakete eta, gauzak areago zailtzeko, nik nire definizioa emango dut hori zein erraz egiten den erakusteko.

Kulturari edo kultur jardunari buruz ezer esan nahi izanez gero, jendearen jokamoldea eta pentsamoldea ulertzen saiatu beharko genuke aurrena, eta ikusten horrek eragina ote duen esparru sozial askoren baitan hizkuntzaren, jakintzaren eta gizarteratzearen artean dauden elkarrenginetan. Bestela esanda, kultura gauza asko dira: *jende multzo batek* bere mundu-ikuskerak irudikatzen duen modua, multzo bateko *gizabanakoek* mundu-ikuskerak batzuk ikusteko duten modua, *beste multzo batzuek* ikuskera horiek edo beren ikuskeretako herri kolektiboak ikusteko modua eta, *multzo gisa*, bizitzako berariazko nahiz ustekabeko gorabehera eta aukeren mende nola dauden, eta zenbait ezaugarri lehentasunezko eta ondo finkaturri aurre eginez, iraganeko jardun batzuk berreskuratu eta jardun horiek guztiz nahiz zati batean aldatzeko

dituzten aukerak. Hori guztia da kultura. Eta hori guztia ausaz gertatzen da *ezagutza-mapen eta igorpen kodetuen bidez*, hots, hizkuntzaren eta jardunaren bidez. Era berean, ingurune sozializatu baten kontzeptualizazio orokorra gertatzen da modu osagabe, noizbehinkako eta zatikatuan, ahozko tradizio eta oroimen kolektiboen bidez batzuetan, eta esanahi, interpretazio, egokitzapen eta asmakuntza berri askoren bidez, modu etenean, talde, sare eta harreman kolektiboak berregokituz denboran zehar, gizabanako eta taldeen arteko lehiaketa, negoziazio eta manipulazioen bitartez, talde jakin baten mugikortasun edota iragazgaiztasunaren eta erabateko nahiz pixkanakako eraldaketa-prozesuen bidez jasotako kanpo-eragin nahiz barne-dinamiken bitartez. Bestela esanda, jendeak kultur nortasun bat eta talde jakin batzuekiko atxikipen kultural bat irudikatzen du, kide izateko hainbat mailatan egituratuta, nahiz eta halako nortasunak era askotara eratu eta iraganeko mitoen nahiz gizabanakoak edo taldeak berezkoak dituen gorabeheren gaineko ikuspegiaren aurrean etengabe azaleratu.

Eztabaida hau gehiago zabaltzeko, Harvey Whitehouse-ek (1995) Britainia Berriko (Melanesia) sekta milenarista bati buruz egindako azterketa ekarriko dut hona. Whitehouse-en arabera, kultur transmisioa hobeto ulertzeko, «jainkozaletasun-moldeei» buruz egin zuen ikerketa hartu beharko genuke oinarritzat, *ezagutza* hobeto ulertzen laguntzen duelako. «Erljioa aztertzeo ikuspegi intelektual, psikologiko eta soziologikoa» erabiliz, eta psikologia kognitiboan edo *ezagutzaren* psikologian oinarrituz gehienbat, Whitehouse-ek (1995: 3 eta 194) erakusten digu nozio erlijiosoak [kulturalak] nola kodetzen diren eta «elkarren aurkako erregimen politiko-erlijiosoak» elkarrekin nola bizi diren, doktrina-molde eta ikono desberdinetan oinarrituta. Hori guztia Papua Ginea Berriko Pomio Kivung mugimenduan aurkitzen dugu. Whitehouse-ek azaltzen digu taldeak nola hausten, banantzen eta berregituratzen diren aldiro-aldiro, taldeko kide izateko sentipenak berrosatu ahala. Azterketa horrek erakusten digunez, liskarrek edo aldiro aldiko zatiketek sendotu egiten dute nortasuna, Wimmeren (2002) eta bere jarraitzaileen konpromiso sozialaren edo itxituraren eredu soilekin bakarrik azaldu ezin diren bitarteko konplexuen bidez. Aitzitik, ikusten da esanahi edo kidego aldetik kontrajarriak diren interpretazioak funtsezkoak zaizkiola taldeari, eta funtsezkoak direla, halaber, errituzko ohiturak gordetzeko edo talde nahiz leku batekiko leialtasun ugariz eraturako kontzientzia kolektiboko sentipen bat irudikatzeo (Linstroth 2002a). Gainera, Whitehouse-ek erakutsi du jakintza edo *ezagutza* errutinizat hartua daukagun letania praktikoa bat izan litekeela, eta sentipen nahiz ikonoetan oinarritutako bitartekoen bidez zabaldu daitekeela. Bestela esanda, Maurice Bloch honetaz jabetu zen (1998: 4): «pertsonek gizarte-ingurune jakin batean eraginkortasunez jarduteko jakin behar duten guztia edo jakin beharrekoaren zati bat baldin bada kultura, lehenik eta behin ondorioztatzen da pertsonen jakintza hori ondo barneratu behar dutela sortzetikako ahalmenak garatuz, kanpo-iturrietara joaz edo bi aukerak uztartuz». Jakintza ikasia, bestalde, «erraz eskuratzeko modukoa da» eta «ikaskuntza, oroimena eta berreskuratzea» ditu oinarritzat. Hortaz, antropologo eta adituak kulturaren inguruan lanean ari direnean, ez lukete *ezagutzak* kultur jakinduria hedatzeko duen garrantzia hain erraz baztertu beharko (Bloch 1998: 4).

Hemen, nik «kulturaren tranpa» deritzodan hori, gatazkak konpontzeko adituen kasuan bereziki, «kultura» terminoa erudizio handiagor tratatzen ez jakitearen ondorioa da, baitetik, eta jendeak mundu sozialak eratzeo moldearen eta ikerlariet terminologiaren edo erabilera terminologikoen jatorriaren inguruan teorizatzeo duten moduaren inguruan gogoetarik egiteo ezintasunaren ondorioa, bestetik. Kulturaren eta gatazkaren inguruko teoria berrikusteko proposatzen dut, eta bibliografia antropologiko eta soziologikoa kontu handiagor irakurri beharko genukeela iruditzen zait, lañotasun ulertezin baten ondorioz sortutako iruzur eta tranpa ugariak saihestearren. Zehatzagoak izateko, kultura eta antzeo terminoen hutsaltasunaz eta moldaketek eta gehiegizko sinpletzeak duten arriskuez jabetu behar dugu,

eta konturatu behar dugu, halaber, termino horrek ia dena besarkatu dezakeela, aldi berean, ezertxo ere esan nahi izan gabe, prozesu horretan kontzeptua bera esanahiez hustuz.

Bakearen abstrakzioa eginez: bakegintzaren eta baketzearen tranpak

«Kulturaren tranparen» antzekoak dira bakegintzaren eta baketzearen oinarri teorikoekin lotutako tranpa teorikoak. Era horietako tranpak mendebaldeko interes eta ereduiei lehen-tasuna ematen dien bakegintzaren eta baketzearen abstrakzio baten ondorio dira askotan, eredu hori ez delako ulertzen saiatzen munduko herrialde askotan beren arazo eta gatazkak konpontzeko erabiltzen dituzten justizia-sistema informalak (ikus Kemp eta Fry 2004; Fry 2006). Zoritxarrez, askotan pentsatzen dugu besteak ez direla bakea lortzeko gai «aditu» baten aholkurik ez badute, eta ikuspegi hori kolonialismo paternalista baten parekoa da, eta garapen bidean dauden herriek jasandako iragan txar batera eramaten gaitu. Horregatik, mendebaldekoak ez diren gatazkak konpontzeko alternatiben azterketatxo bat egingo dut hurrengo lerroetan, gure artean nagusitutako kontzeptuekin alderatzeko.

Testuinguru honetan, hauxe da bakegintza niretzat: indarkeriari aurre egiteko bitarteko baketsuak sortzeko oinarriko mugimenduen eraketa, mugimendu horiek ireki edo iragazkorrak izanik, eta biztanleria jakin batean hedatuta egonik. Baketzea, aldiz, eliteen kontua izaten da askotan, eta diplomatikoez, estatuburuak eta tankerako gobernu-erakundeek bakea negoziatzeko gaitasunari dagokion kontzeptua da. Kasu batzuetan, eta neurri bateraino, baketzea isilpean egiten den prozesua da, iraganean izandako esperientziarengatik edo, gatazkan dauden komunitateetako batean duten pribilegiozko lekuaz baliatuz, bake-prozesuan eragina izateko duten ahalmenarengatik gobernuak kontratatutako gobernu kanpoko eragileen parte-hartzeari esker. Oro har, aurrenekoa, bakegintza alegia, informalagoa izaten da baketzea baino, eta askotan gatazkatik aldentutako ingurune neutraletan gertatzen da. Indarraren erabilera edo indar militarra erakustea baketzearen aurkako poloak dira, beraz. John Paul Lederachek entzute handia du bake kontuetan, eta mintegi eta hitzaldi ugari eman ditu mundu osoan zehar, Euskal Herrian tartean, bakegintzaren printzipioen zutoinak azalduz. Lederachen iritziz, bakegintza zientzia bat baino gehiago da arte bat. Erdialdeko Amerikan bakearen alde lanean emandako urteetan bildu zuen duen esperientzia, eta bolada luzeak eman zituen han, bere kontzeptu soziologikoak sinesgarriagoak izanik horri esker. *Preparing for Peace: conflict transformations across cultures* [Bakerako prestatzen: gatazken eraldaketa kulturen bidez] (1995) da Lederachen lanik ezagunena, ziurrenik. Bertan, bakegintzarako eredu arauemaileak eta gatazkan dauden hainbat kulturei begira berak erabilitako akuilu moduko ikuspegia bereizten ditu. John Burtonen *Resolving Deep-Rooted Conflict* [Erro sakoneko gatazkak konpontzen] (1987) lana da eredu arauemaile klasikoaren adibide onena, gatazkak konpontzeko urratsez urrats bete beharreko bide bat proposatzen duelako bertan, gatazka guztiak unibertsalak direla esanez, eta, hortaz, gatazka horien guztien konponbidea printzipio eta jarraibide batzuk zehatz-mehatz betetzetik datorrela.

Lederach Burtonengandik eta tankerako teorialariengandik bereziten duena «gatazka eraldatzea» kontzeptua erabiltzeko modua da, Lederachen arabera, «konponketa eta kudeaketa ez bezala, gatazkaren eraldaketak ez dakar beti gatazkaren suntsiketa edo kontrola, haren berezko izaera dialektikoa aintzat hartzea baizik» (Lederach 1995: 17). Lederachen ustez, gatazkak tratatzen eta gainditzen irakasten duten eredu arauemaileek botere-harreman bat dute beren baitan, eta konponketarako teknikak irakasten dituen adituak bere jarrera azaltzen du: «hauxe da guk egiten duguna» eta «honela egiten dugu» (Lederach 1995: 50). Lederachen iritziz, ikuspegi horren oinarrian ezagutzaren transferentzia dago, hots, bakearen inguruko mintegietan parte hartzen dutenei ezagutza bat jakinarazten zaie, enpresako

praktikak egiten ariko balira bezala. Eredu horretan pentsatzen da gatazka guztiak berdindin konpondu daitezkeela ikasitako metodologia zorrotz-zorrotz betez gero (Lederach 1995: 53). Hala ere, Lederachen iritziz, ikuspegi horrek ez du bakegintzak behar dituen dinamika sortzaileak eratzen uzten, eta trebatzaileek beren burua adituztat jo beharrean gatazka konpontzen laguntzeko «bitartekari» edo «katalizatzailezat» jo beharko lukete (Lederach 1995: 56). Ikuspegi horrek agerian uzten ditu eta sinetsi egiten du bakearen inguruko mintegi eta ikasketa-prozesuetako parte-hartzaileengan. Dena den, eta Lederachek bakegintza-prozesu guztietan besteen ezagutza mahaigaineratzen saiatzen bada ere, trebatzaileak aditua izaten jarraitzen du. Halako mintegiak trebatzailearen ezagutzari esker egin daitezke bakarrik. Halakoetan ez dira aipatu ere egiten justizia informaleko prozesuak edo gizarteek iraganean gatazkak konpontzeko erabilitako bideak, eta Mendebaldeko ideiak lantzen dira bakar-bakarrik. Lederachen eredu askoz urrutiago doa, ordea, bakea egiteko garaian beste kultura batzuetako parte-hartzaileek egindako ekarpenak ere aintzakotzat hartzen dituelako, baina ez ditu guztiz onartzen Lurreko herri askok gatazkak konpontzeko erabilitako ikuspegiak eta justizia informaleko prozedurak.

Borondate onez arituagatik ere, bakegintzako eta gatazkak konpontzeko ereduak argaltzeko, aberasteko nahiz adiskideen eta hurkoen gainean eragina izateko gidien tankerako gida praktikotzat hartzen dira maizegi, eta gida horietako batzuk, gainera, modako sukaldarien liburuen edo dekorazio liburuen itxura izaten dute. Gatazkak konpontzeko errezeta hau betez gero, arrakasta lortuko duzu seguru. Zure etxea honela eta honela apaintzen baduzu eta gatazkak saihesteko jarraibideak betetzen badituzu, zure senide eta bizilagunek miretsi egingo zaituzte, bai eta nazioarteko komunitateak ere. Diogun horren adibiderik garbiena Fisher eta Uryren liburu hau dugu: *Getting to Yes: negotiating agreement without giving in* [Baiezkoa iristen: hitzarmena negoziatzen amore eman gabe] (1991). Lan horretan teknika hauek agertzen dira, besteak beste: hitzarmen negoziatu bat lortzeko aukerarik onena (BATNA ingelesezko siglak hartuta) eta negoziatziorako *jujitsu* jarraibideak, karatearen antzeko eraso eta autodefentsako teknika diskurtsibo batzuk, estrategia honen bidez laburbiltzen direnak: «ez eraso zure jarrerari, haratago begiratu»; «ez defendatu zure ideiak, kritikak eta aholkuak ondo hartu», «zure aurkako erasoak arazoaren aurkako eraso bihurtu», «galderak egin eta itxoin» (Fisher eta Ury 1991: 97 eta 107-116). Fisherren eta Uryren ereduak enpresa alorrekin teknika makiavelikoen adibideak ematen ditu, negoziazio-estrategia batean gure aurkariak menderatu eta argudiorik gabe uzteko ikasteko. Baina halako jarraibide praktikoak oso kezkarriak dira, bertan jasotako teknikak eta hizketarako gaitasunak nazioarteko negoziazioetan ere erabilgarriak direla uste baitute, eta halakoak unibertsalak direla, gainera. Berrito ere, eredu horrek ikuspegi zeharo mendebaldarra erabiltzen du beste herri eta kultura batzuekin aritzeko garaian.

Bakegintzaren inguruko beste ikuspegi bat aipatuko dugu orain: Johan Galtung adituak jorratzen duena TRASCEND izeneko bakearen aldeko aholku-taldean. Galtungek gizarte askotan bakearen alde egiten duen lana onuragarria da, zalantza izpirik gabe, baina Galtungek, nazioarteko mundu akademikoko eta politika-zientzien alorreko beste aditu askok bezalaxe, gatazkaren alderdiak eta gatazkaren konponketa ikuspegi zeharo abstraktu batetik jorratzeko joera izaten dute. Batzuetan, haiek erabilitako kategoria edo kategorizazioak definizio baten tankerako aginduak ematen dira edo kontzientziaren estadio psikologikoen moduko faseak bereizten dira. Hala, «gatazkaren zikloak» sailkatzen dira: «I. fasea: indarkeriaren aurretik: baketzea=gatazka eraldatzea eta baketzea = despolarizazioa, II. fasea: indarkeria dagoen bitartean, baketzea=eremu baketsuak, III. fasea: indarkeriaren ondoren, adiskidetzea (eraikuntzarekin batera)» (Galtung, Jacobsen eta Brand-Jacobsen 2000: xvi). Ziklo horiek zizera pinpilinpauxa edo euli bihurtzeko eraldaketa edo metamorfosi biologikoak dakartzate gogora –arrautza, larba,

pupa, heldua-, hots, intsektuen metamorfosiaren zikloa gatazken konponbidean aplikatua. Definizio-sortak ematen dira, halaber, mundu baketsu baten ereduak sortzeko, baina «bake kultura» eta antzeko terminoak benetan aztertu gabe, horren arabera ez baitago gizarte baketsurik berez. Era berean, «baketzea» askotan indarkeria handia dakarren oximoron bat dela ahazten dute (2000: xvii). Agerikoa denez, «gatazka» baten faseen ideien jarraitzaile sutsua da Galtung (2000: 3-15) indarkeriaren gorakada fluxu-diagrama baten bidez azaltzen baitu, abstrakzio horren baitan maila sakonagoak gordeko balira bezala, nahiz eta azaleran Elizabeth Kübler-Rossek hiltzerian zeudenentzat zehaztutako maila psikiatrikoen itxura izan, edo matematikako formula batena, bestela. Eszenategi artifizial horiek zentzugabekeria bat balira bezala aurkezten dituzte gatazkak, aurrerago, gatazka konponezinei buruzko atalean azalduko dudanez.

Galtungen arrazoibidearen indarra politikari eta kazetariak lortzen ez duten zerbaiti zor zaio: indarkerian jartzen du arreta guztia, konpondu gabeko gatazkan beharrean; gatazkaren funtsa eta gatazkaren sorrera nahasten dituzte, eta polarizazioak sendotzean indarkeria saihestu ezinezko zerbait bezala aurkezten dute; muzin egiten diote egiturazko indarkeriari, bai eta atsekabetuta bizi direnei eta haien mendeku-nahiari; ez dituzte aztertzen gatazkan esku hartzen duten alderdi guztiak, ez eta gatazka ez aurrera ez atzera egiteko arrazoiak ere; ez dituzte bake-proposamen sinesgarriak aztertzen; su-etenaren eta bake-konferentzien inguruko itzaropena bakerako agendekin nahasten dituzte; eta, azkenik, baztertu egiten dute «adiskidetzeari» (Galtung 2000: 14-15). Kritika hori guztiz zapuztuta gelditzen da, ordea, «ABC hirukiaren» ondorioz: «Gatazka = Jarrerak + Jokamoldea + Kontraesanak». ABC hirukia ingelesezko inisialak hartuta. Ondoren, hiruki hori hainbat fasetan aurkezten dute, berriro (Galtung *et al.* 2000: xiv-xv).

92

Beste teoriarik batzuek, William Zartmanek adibidez, baketzean jarri dute arreta, eta gobernuen betekizuna aztertu dute, bakea ahalbidetzen duten faktoreei erreparaturik. Zartman oso ezaguna da «heldutasunaren teoriagatik». Teoria horren arabera, «gatazkan dauden aldeak horretarako prest daudenean baino ez dute konponduko gatazka. Formula horrek Gerra Hotzeko kontzeptuak dakartza gogora: zero galerak, etab. Eta «jokoen teorian» oinarrituta daude, hein batean (Zartman 2001: 8). Nire iritziz, ordea, Zartmanek adibideak bere erduetara egokitu besterik ez ditu egiten, nolabaiteko «prêt-à-porter» bat eginez, eta hori onargarria da iraganeko adibideak erabiliz gero. Nazioartean, heldutasunak bake-negoziazioak hasteko aukera eman dueneko adibide ugari ditugu: «Zimbabwe, Namibia, Angola eta Eritrea, Hego Afrika, Filipinak, Zipre, Iran-Irak, Israel, Mozambique, etab.» (2001: 10).

Zartmanen arabera, gatazkan dauden aldeak, ez atzera ez aurrera dauden gatazka konponezinetan bereziki, une egokia iristean iritsiko da konponketa negoziatua, «elkarren kalteetan berdintzea» bilatuz emaitza bezala. Zartmanek dioenez, hauxe da ideia: «alde biek ikusten dutenean murgilduta dauden gatazkan ez batek ez besteak ez duela garaipenik lortuko, eta gatazka ez aurrera ez atzera gelditzea bi aldeentzat txarra dela konturatzen direnean (nahiz eta kalte hori biez neurri berekoa edo arrazoi beraren ondoriozkoa izan ez), orduan bestelako bideak edo irtenbideren bat bilatzen hasiko dira» (2001: 8). Baina, abstrakzio horiek –eta abstrakzio horiei lotutako tranpek– zertan laguntzen digute gatazka ulertzeko garaian? Zer gertatzen da une egokia ez bada sekula iristen? Edo fruitu helduak zuhaitzean jarraitu eta halako batean erori eta berebiziko nahaspila eragiten badu? Edo, areago, fruitua sekula heldu ez, edo gorabeheren ondorioz uzta galtzen bada? Edo fruta erori, lurtean gelditu eta hartzen hasten bada, orduan zer? Bitartekariengana jotzen dute aldeek orduan? Kanpokoen esku-hartzerik gabe negoziatorik ez dagoela dioten ideiarik jarraiki, arerio suntsitzailerik bide arriskutsuetatik jarraitzen utziko diegu? Iruditzen zait hemen gehiago direla erantzunik

gabeko galderak erantzun zuzena dutenak baino eta, gainera, errazagoa da esatea iraganean negoziatzeko heldutasuna egon zela, historiari erreparatzen badiogu, gaur egun ez atzera ez aurrera dauden egoera gaindiezinei heltzea baino. Zartmanek bere kritikariei erantzunez dio (2001: 13-14) bere teoria «negoziazioei hasiera emateko garaiari dagokiola bakarrik» eta «heldutasunik ez egoteak ezin duela bigarren edo hirugarren aldeak ezer egin gabe gelditzeko aitzakiatzat hartu». Teoria hori Gerra Hotzaren garairako da egokia, politika arriskutsuen eta jokoaren teoriaren moduko teoria da, baina ez gaitu gakora eramaten eta Galtungenen «hegaztien begirada» moduko ikuspegia (2000) dauka bere baitan. Non dago giza alderdia hor? Zer gertatzen da biktimenik eta sufritzen ari diren pertsonekin? Eta haien historia eta istorioekin?.

Bakegintzaren eta baketzearen inguruko beste teoria bat aurkezten digute Diamondek eta McDonaldek *Multi-Track Diplomacy: a systems approach to peace* [Hainbat bidetako diplomazia: sistemetan oinarritutako ikuspegia bakearen ingurua] (1996). Bertan metodologiari erreparatzen zaio, diplomaziaren teorietan oinarrituta. «Bide bikoitzeko» paradigma dago oinarrian, eta nazioarteko baketzea aurkezteko hainbat bitarteko erabiltzen dira, eliteen eta oinarrien mailak bereiziz. Bi egile horiek aukera berriak aurkezten dituzte eztabaidarako: (governuen) diplomaziaren bidezko baketzea, gobernu kanpoko baketzea, merkataritzaren bidezko baketzea, herritarren eta norbanakoen parte-hartzearen bidezko baketzea, ikaskuntzaren bidezko baketzea, aholkularien bidezko baketzea, erlijio-erakundeen bidezko baketzea, fundazioen bidezko baketzea eta hedabideen bidezko baketzea (1996: 4-5). Ikuspegi hori positibista samarra da, baina ez ditu bide ugariekin lotutako arazoak aztertzen, eta ez du aipatzen gobernuak diren eta gobernuak ez diren bakegileen arteko botere-harremanak orekatuak ez direla. Gainera, ez du aipatzen mendebaldeko hainbat bidetako diplomaziak nola jarduten duen, ez eta maila formala eta informala aldi berean lantzen direnean zein bide nagusitzen diren. Positibistegia da eta oso helburu eta lelo erromantikoak ematen ditu azkenean, modu praktikoan: «sistemen ikuspegia hartu», «harremanak eratu», «zure barne-gatazkak landu», «ikuspegi teorikoa islatzen duten ereduak sortu», «baliabide berriak sortu», «gure ezagutza besteekin partekatu», «baketze sistemikoa aztertu», «hainbat zereginetarako erakundeak sortu», «zilegiztatzearen alde aritu», «zure burua zaindu», «erantzukizunak hartu zure gain» eta «jabetu daukazun botereaz». Lelo horiek guztiek AEBetako Salbazio Armadaren leloak ematen dute (1996: 162-165). Hemen ez ditut jaso «gomendioekin» batera ematen diren azalpenak, baina iruditzen zait izenburuek behar beste irudikatzen dutela atzean dagoen idealismoa. Lelo horiek erabilgarriak izan litezke erakunde jakinen publizitate-gida bezala, baina ez diote erantzuten bake-prozesuak eratzeko dauden arazoei, maila formalean izan nahiz informalean.

Bakegintzaren eta baketzearen gaia eta bakearen inguruan bitartekari nahiz trebatzaile izateko garaian erabili beharreko metodologiak aztergai dituzten beste liburu asko aipatu genitzakeen arren, hemen emandako adibideak nire hipotesia frogatzeko adinakoak direla uste dut. Gatazkak konpontzeko adituak beren baitan bilduta daude zeharo, gida praktikoak idazten eta gatazkak konpontzeko molde abstraktuen inguruko teoriak ontzen, eta ezinezkoa zaie, beraz, ikuspegi humanistagoak eta mendebaldekoak ez diren justizia sozialeko ereduak aintzakotzat hartzen dituzten ikuspegiak aplikatzea.

Ondorioz, abstrakzioaren tranpak oso erakargarriak dira, ugariak gainera, eta formulazio horiek jarraitu egiten dute eta egingo dute *ad nauseam*, harik eta teoriariek gatazkak objektibatzeari eta giza osagaiak baztertzeari utzi edo beren ikuspegietan humanismorik ez edukitzen saiatzeari uzten dioten arte. Jakintza-alor honetako aitzindarien deiari jarraitzeko eta *de jure stare decisis* kontzeptua *ad hoc* erabiltzeko tranpak izugarri ugariak dira, eta horrek

esanahi berria ematen dio Pierre Bourdieuren *Homo Academicus* lanari (1988) eta arau akademikoen izaerari. Eskatzen dudana abstrakzio-diskurtso hau gidatzen duen hori dela esango nuke. Ikerlariak eginahalak eta bi egiten badituzte gatazka zer den eta zer ez den aztertzen, eta gatazkarik txikienarekin hasi eta nazioarteko gatazka suntsitzaileenak ere konpontzeko formulak bilatu nahian teorizatzen ibiltzen badira, nolatan sortu zen biktimak eta haien narratibak edo biktimagileak eta haienak alde batera uzteko ohitura edo moda? Tranpa intelektualak dira horiek, eta mutua mutu utzi eta ikuspegi elitistak irauarazi besterik ez dute egiten, gatazka batean benetan zer gertatzen den eta zergatik jakin nahi izan gabe. Botere-harremanak daude, eta ez dira «alde guztiei min bera eragiten dieten hitzarmenak» lortzen saiatzen bakarrik, «egoera desberdineko arerioak» Zartmanen hizkeran, abstrakzio artifizialek ikerlariak bere aztergaiaren gainean nolako botere-harremanak nola sortzen dituzten aztertzean baizik, gatazkak kaltetutako pertsonengan benetako arretarik jarri gabe.

Errekurrentzia: gatazka konponezinak eta ez atzera ez aurrera dauden gatazkak

Aurreko atalean argi gelditu denez, bakeaz abstrakzioa egiten da askotan eta gauza bera gertatzen da gatazka konponezinekin eta ez atzera ez aurrera dauden gatazkekin ere, horien gainean ere abstrakzioa egiten baita. Hona iritsita, gatazkak gainditzeko eta bitartekaritza-ereduak bilatzeko trebakuntza-jardueren maila praktikoan egondako abstrakzioen ordez, gatazkaren mugiezintasuna zenbatekoa den zehaztearen eta Lurreko gatazka konponezinak jardunean zenbateraino dauden neurtzearen garrantzia azpimarratzen duten abstrakzioak aurkitzen ditugu. Historiografia ideologikoari helduz, bi pentsalari klasiko ekarri nahi ditut lerrootara: lehenik eta behin, eta ororen gainetik, Aristoteles (K.a. 384-322), Mendebaldeko printzipio ideologiko eta zientifikoen sortzailetzat jotzen den greziar filosofo aski ezaguna; bestetik, Alfred North Whitehead (1861-1947), matematikari, fisikari eta zientziaren filosofo bikaina. Gauza bat argitzeko aipatzen ditut bi filosofo horiek. Izan ere, Whiteheadek Aristotelesi buruz dioena oso argigarria zaigu, nire iritziz, abstrakzioak edota kategorizazioak egiteko ahalegin horien garrantziaz jabetzeko. Hauxe esan zuen Whiteheadek *Science and the Modern World* [Mundu moderno] liburuan (1925: 28):

[...]Aristotelesek, bere Logikarekin, sailkapena nabarmentzen du. Aristotelesen Logikaren entzuteak oztopatu egin zuen zientzia fisikoaren aurreapena Erdi Aroan. Gauzak hainbeste sailkatu beharrean neurtu egin izan balituzte askoz gehiago aurreratuko zuten zientzialariek!

Banakako osagaiaren zehaztapenaren eta matematikako kontzeptuen erabateko abstrakzioaren arteko erdibidea da sailkapena. Espezieetan alderdi zehatzak hartzen dira kontuan eta generoetan alderdi orokor edo generikoak. Baina matematikako kontzeptuak izadiko gertakarietara lotzeko prozesuan, zenbatuz, neurtuz edo erlazio geometrikoak nahiz ordena motak bilatuz, behaketa arrazionala espezie eta genero zehatzen abstrakzio osagabeetatik matematiketako abstrakzio erabatekoetara iristen da. Halere, sailkapenetik matematiketara jauzi egiteko gai ez bagara, ez gara oso urruti iritsiko gure arrazoibidean.

Nik uste dut «sailkapenak» ez gaituela oso urruti eramango gatazka konponezinak aztertzeko garaian. Halere, teoriarari askok bide horixe aukeratu dute, arrazoibide zientifikoaren eta gatazken sailkapenaren bidea, hain zuzen, azterketa humanistak eta gizarte-zientzietatik abiatutako azterketak egin beharrean. Gainera, erakutsiko dudanez, askotan ezabatu ere egin da «sozial» hitza *gizarte-zientzia* terminotik. Bestalde, iruditzen zait, bai bere idatzietan

dioenaren arabera, bai zientziari zion erabateko arbuioa ezagututa, Jean-Jacques Rousseau (1712-1778) bat etorriko litzatekeela diodan honekin batzuk auzia objektibatu nahian noraino iritsi diren ikusiz gero, azkenerako gaia bizigabea bihurtu baitute, eduki sozial guztiak ezabatuz, eta, hizpide dugun kasuan, indarkeriaren errealitateak baztertuz. Rousseau urrutiago joango zen, agian, intelektualismoa berez halako tranpa arriskutsu bat dela esanez. Era berean, zintzo jokatzuz gero, beste filosofo politiko bat ere aztertu beharko genuke: Niccolò Machiavelli (1469-1527). Hark ederki erakutsi zigun errealitate politikoa nolako den, boterearen banaketa desorekatua dela eta boterea dutenek nola jokatzuten duten. Eta horrek guztiak garrantzia du eliteek gatazka konponezinetan duten eragina aztertzeke garaian.

Objektibazioaren adibide argi bat aurkituko dugu Crocker, Hampson eta Aallen saiakera-bilduma honetan: *Grasping the Nettle: analyzing cases of intractable conflict* [Asunari heltzen: gatazka konponezinak aztertzen] (2005). Lan horretan, egileek gatazka konponezin «mota» sailkatzen dituzte, gatazka mota hauek bereiziz: «estatu barruko eta estatuen artekoak», «jardunean dauden gatazka konponezinak», «etenda dauden gatazka konponezinak». Ondoren, gatazkak «eragile nagusien» arabera sailkatzen dituzte: «erantzukizunik ez lidergoarekin», «erabaki-egitura ahul edo banatuak» dituzten gizarteak, «haustura etniko edo komunitate-mailako oso errotuak» dituztenak, «auzo arriskutsuetako» gatazkak [eskualde-mailako elkarteei egiten zaie erreferentzia hemen], «nazioarteko eragile garrantzitsuek esku hartzerik onartzen ez dutenak» (Crocker, Hampson, Aall 2005: 10-15). Hori guztia ondo egongo litzateke, abstrakzio horrek gatazka konponezinen eta Lurrean ez atzera ez aurrera dauden gatazken argazki osoago bat eskainiko balu. Halere, geroago azalduko dudanez, kategoria horiek zientifikoagoak eta objektiboagoak dira saiakera etnografikoetan oinarrituta gizarte eta kultur antropologiak egindako ikerketak baino. «Konponezina» terminoa «konpontzerik ez dagoen gatazka bat aipatzeko erabiltzen da gehienetan, eta ez konponketa zaila duena aipatzeko» (Crocker *et al.* 2005: 5). Hala, egoera horretan bizita jendeak indarkeria nola jasaten duen jakin behar dugu, ezinbestean. Edo gatazkak errealitatearen eskema biologiko baten barruan edo eboluzioaren *continuum* bat balitz bezala hartu beharrean, gizakion errealitate eta oinazea erakusten diguten giza elementuak identifikatzen saiatu beharko genuke, gatazka konponezinak dirudien garaietan bizitzea nolako den erakusten diguten istorio eta kontakizunak oinarritzat hartuta. Bestalde, asko hitz egiten da indarkeria etnikoaz, baina ez da azaltzen nortasun etnikoak benetan zer diren azaldu gabe (ikus Banks 1996; Jenkins 1997; eta Wimmer 2002). Gatazka konponezin askotan iragana edota kolonia-garaiko gertakizunen eragina ere aipatzen dira, istorio haiek zer esan nahi duten edota historia nortasun etnonazionalistaren egitasmoaren osagai nola bihurtzen den aztertu gabe (ikus Zartman 2005: 48). Gatazken konponezintasunari buruzko bibliografia hori guztia gatazkei buruzko historia bat ematen du berez, eta ez benetako pertsonen bizimoduan eragina duten konponezintasunei buruzko istorioak.

Crocker *et al.* (2005) ez ziren izan konponezintasuna kategoria, fase edo eskemen bidez azaltzen saiatu diren bakarrak. Christopher Mitchell ere (1997: 6) ikuspegi hori erabili zuen, «gatazken intentsitatea» *continuum* jarraitu batean kokatzean. *Continuum* horren barruan intentsitate hauek bereizten ditu: «indarkeria txikia eremu mugatu batean» (Ipar Irlanda edo Kurdistan), «gerra-jarduera antolatua Estatuaren zati handi batean» (Sudan eta Sri Lanka), «Estatuaren erabateko kolapsoa gerra zibilean» (Somalia, Liberia eta Jugoslavia ohia). Bestalde, Mitchellen arabera, gatazka konponezinek «ezaugarri» batzuk dituzte, luzakin edo tasun morfologiko batzuk bezalakoak: bortitzak dira, ez atzera ez aurrera daude, barne-mailakoak dira, zabalak eta zeharo nahaspilatuta daude (Mitchell 1997: 6). Dena den, gatazkei buruz eman ditugun ezaugarri horiek laguntzen al digute indarkeriak zergatik jarraitzen duen azaltzeko, eta indarkeria egon arren jendeak zer egiten duen ulertzeko?

Mitchellek, alor honetako beste teoriarari askok bezalaxe, kategoriak finkatu eta ondorio orokorrak ateratzen ditu gatazka jakin bat edo bakegintzaren faseak deskribatzeko garaian. Eta aurrerapenak lortzeko aspaldiko gatazkek konpontzeko estrategia praktikoak hezkaitzen ditu, beste askok bezalaxe. Mitchellen estrategiak medikuen errezeten modukoak dira, sendatzeko bitarteko bat ematen dute, baina ez dira benetako aktore edo eragileen kontakizunak kontuan hartzen, haiek esateko eskaintzen zaiena bideragarria den oinarrian, edo gatazka-eremuan daudenek, eliteekin batera, proposatutako estrategia onartzeko prest dauden jakiteko.

Oraintxe aipatu ditudan bi ikerlanen tankerako beste hiru aipatuko ditut jarraian: Crocker *et al.* (2004), *Taming Intractable Conflicts* [Gatazka konponezinak otzantzen], Edward Azar (1990), *The Management of Protracted Social Conflict* [Gatazka sozial luzeen kudeaketa] eta Kriesberg *et al.* (1989), *Intractable Conflicts and Their Transformation* [Gatazka konponezinak eta haien eraldaketa]. Argitalpen-urtearen arabera aipatu ditut, zaharrenetik berrienera. Liburu horiek guztiak antzeko ikuspegia dute bitartekaritzari eta gatazka konponezinen konponketari dagokionez aurreko atalean aipatutako azterlanen bidetik jotzen baitute hauek ere. Kriesberg *et al.*-ren lanean, egileek beraiek eta ekarpenak egin dituztenek gatazka konponezinak izatea eragiten duten erroak identifikatzen saiatzeaz gain, *konponezintasun* kontzeptuaren inguruko aldagaiak eztabaidatzen dituzte, hala nola, nortasun kontuak, lan alorrekoak, biktimizazioaren ingurukoak... Liburuaren azken zatian gatazkek eraldatzeko estrategia praktikoak eskaintzen dira. Azar, bestalde, gatazka konponezinak «identifikatzen» hasten da, eta geroago, Marylandeko Unibertsitatean hainbat gatazken inguruan (Libano, Sri Lanka, Malvinak) antolatutako eztabaidetan aztertutako neurriak aipatzen ditu. Herrialde horietako parte-hartzaileak gonbidatu zituzten beren herrian ez atzera ez aurrera zegoen indarkeria gainditzeko ideiak aurkezteko, eta herri haietako gai bereziak aztertu zituzten, halaber. Crocker *et al.*-k, azkenik, gatazka konponezinetan bitartekari-lanak egiteko gida praktiko orokor bat eskaintzen digu.

96

Konponezintasunari buruzko ikerlan horiek guztiak alde batera uzten dute zeharo giza osagaia. Zehazkiago, konturatu naiz ez dagoela oroimenari buruzko inolako eztabaidarik, irudimenak iragana sortzeko duen indarra eta gaur egungo ekintzak kontrolatzeko duen ahalmena edozein dela ere. Gainera, trauma kolektibo batek gatazka konponezin batek kaltetutako biztanleria batean eragindako ondorioak aztertu beharra dago. Azken alderdi horren inguruko saiakera-bilduma onena, hots, bortxazko egoera batek eragindako trauma kolektiboek buruzko bilduma onena, Antonius Robbenek eta Marcelo Suárez-Orozok (2000) antropologian eta psikologian oinarrituta egindako jakintza-arloen arteko ikerketa hau izan liteke: *Cultures Under Siege: collective violence and trauma* [Kultura estutuak: indarkeria kolektiboa eta trauma]. Liburu horretan munduko bazter askotako pertsonak agertzen dira: Argentinan «gerra zikina» jasandakoak, Palestina-Israel arteko gatazkan murgildutako umeen traumaren ondorioak, Jugoslavia-ohiko umeena, Mumbai (India) parsi komunitateak jasaten duena, New Yorkeko etorkinek eta iheslari politikoez jasandako trauma eta trauma-ondoko estresa, Greziako eta Turkiako biztanleek beren herrien arteko gatazkaren ondorioz jasandako estres psikodinamikoa, Turkiako emakumeek jasaten duten indarkeria sinbolikoa buruko zapia erabiltzeko garaian, islamdar tradizioko osagaia delako, batetik, baina genero-bazterketaren ikur ere bai. LeVinek dioenez (2000: 272): «gizakia hobeto ulertzeko antropologia psikologikoa etorkizunean garatzearen inguruan dugun itxaropen handiena jakintza-alor hori esperientzia pertsonal, kontziente eta inkontzienteak, gure garaiko mundu honetako eredu sozial eta kulturelekin dituen loturez gainean dugun kontzientzia zabaldu eta sakontzen duen tresna bezala erabiltzean dago». Nire iritziz, azterlan horiek gatazka konponezinetara eta gatazka horiek herritarrengan duten eraginera hurbiltzen gaituzte, umeen nahiz emakumeen benetako istorio traumatikoak islatzen dituzte, eta askotan isilpean dauden ahotsak erakusten dizkigute.

Gure asmoa ahots horiek jasotzea edota gatazka konponezinen inguruan oroimenean arakatzea izanik ere, kontuz ibili behar dugu gure ekintzekin. Inork egoera traumatikoren bat jasaten duenean, oroimenak luzaz irauten du herritarren artean, eta oroimen soziala bihurtzen da, hurrengo belaunaldietara pasatuz.. Horrek erakusten digu iragana bizi-bizirik dagoela orainean eta, beharbada, oroimenak funtsezko zeregina duela gatazka konponezinek zergatik jarraitzen duten ulertzeko. Maurice Blochek azaltzen duenez (1998: 120-121), «iraganak –zuzenean bizi izan ez duguna, bai artean jaio gabe ginelako, bai han ez ginelako– orainean bizirik zergatik eta nola irauten duen argitzea da kontua, kontatu dizkiguten istorioen oroimen soiletik haratago joan behar dugu, beraz». Blochek (1998) 1947an Madagaskarren Zafimaniry herriaren matxinadaren ondorioak aztertzen ari zela aurkitu zuen aurreko galderaren erantzuna, matxinada hartan «soldadu frantsesek su eman baitzioten herri bati, hango biztanleek koloniarren aurkako matxinadari emandako babesaren ordainetan. Sarraski haren ondoren, herritarrak oihanean babestuta bizi izan ziren bi urtean, frantziar soldaduek harrapatuko zituzten beldurrez» Oroimenari dagokionez, eta herrixka hartako aitona baten kontakizuna alde batera utzita, hona zer idatzi zuen Blochek (1998: 119-120): «...gauza harrigarriena hauxe izan zen: familiako kide guztiek, haurrek ere bai, orduan zer egin zuten erakutsi zidaten, non ezkutatu ziren, gauzak nola gertatu ziren, nahiz eta haietako batzuk artean jaio gabeak izan 1947an. Leku hartan elkartzean sortutako giroak gertatutakoaren inguruko elkarrizketa eta parodia bat ekarri zuen, eta denek parte hartu zuten parodia horretan, ez niri gertatutakoaren berri emateko bakarrik, zekitena erakutsi eta nik bakoitzari buruz nekiena osatu nezan». Berez, oroimenaren eginkizun afektiboa, biztanleriak jasandako trauma-ondoko estresa bereziki, taldekideek jasandako traumaren modukoa da. Oroitzapenak norberak bizi izandako esperientzien haragitze biziak izatea ez da hain garrantzitsua, talde guztiarenak izatea baizik. Horrela, oroitzapen traumatikoen ondorioak kaltetutako talde baten barruko gizarte-sareen eta familiako harremanen bidez zabaltzen direla ikusten dugu, Madagaskarko Zafimaniryekin gertatu zen bezala. Hortaz, memoria autobiografikoez talka egiten dute memoria historikoeekin eta «bizi izandako» memoria kolektibo eta sozialen transmisio bihurtzen dira, eta «esperientzia biziak» ere bai, hein batean (Bloch 1998: 121).

Gatazka konponezin batek biztanleria jakin batengan eragindako ondorioei buruz ezagutzen dudak kontakizunik onena Carolyn Nordstrom etnografoaren *A Different Kind of War Story* [Bestelako gerra istorio bat] liburua da (1997). Mozambikeko gerra zibilari (1975-1994) buruzko deskribapen etnografiko horretan. Nordstomek gerrak kaltetutako gizon-emakumeen istorien berri ematen digu jario handiarekin, eta nola jende haiek indarkeriari aurre egiteko bide kreatiboak izan zituzten, trauma handia jasan arren. Era berean, komunitateen arteko eta gizarte barruko sareei eutsi zieten, eta beren historia pertsonalak osatu zituzten, gerran komunitate, herri eta hiri osoak suntsitu zituzten arren. Nordstomek azaltzen duenez (1997: 189): «izateak, kulturak eta errealitateak birsortu egiten dute. Jendea bizi den munduaren arabera definitzen bada, eta mundua beren burua mundu horretako kideatzat duten pertsonen bidez eratzen bada sozialki eta kulturalki, jendeak errealitatearen sorkuntza kontrolatzen du azkeneko, eta errealitate horretan duen lekua. Bere burua sortzen du, azken batean. Terroreak eta gerrak pertsona suntsitzen saiatu arren, jendeak borroka egingo du, eta bere burua birsortu egingo du erresistentziaren bitartez». Nordstrom kontu handiz ibiltzen da «indarkeriaren pornografian» ez murgiltzeko, eta izenik gabeko gizon, emakume eta haurren sufrimentuak kontatzen dizkigu, Mozambikaren indarkeriari aurre egiteko izandako gaitasuna azpimarratuz. Etengabeko indarkeriak bildutako itxaropen istorio bat da Nordstromena, funtsean eta gehienbat. Kontu handiz eta duintasun handiz, «aurrean dugun bizitzaren errealitatea» eta «Mozambikeko zorigaitzaren baitako bizitza» jasotzen ditu gure egileak. Mozambikeko emakume batek hauxe kontatu zion Nordstromi:

Gerra zer den jakiterik ez dago, bertan murgilduta zauden arte. Pertsona bat etorri eta gerra aztertu lezake, gerraren beldur izan, indarkeriaren beldur, baina gerrak ez luke haren bizimodua, haren izaera bera, baldintzatuko. Nire herria da hau, nire arbaso, senide eta lagunena, nire etorkizuna. Eta gerra hortxe erdian sartu da. Badakit denek galdu dutela norbait gerran: senideren bat hil dutelako, adiskideren bat bahitu eta haren berri ez dutelako. Baina hori baino askoz gehiago da, herriaren muineraino iristen da, nire bihotzaren erdiraino. Oinez noanean nerbioak nirekin datoz, nire izaeraren berezko osagai bezala. Danbateko bat entzuten dudanean, ez naiz pertsona normalak bezala bidean gelditzen zer izan ote den jakin nahian. Aurrera jarraitzen dut, beldurtuta, nire bizia arriskuan dagoela jakinik. Eta senideengatik ere egiten dut. Haiengandik aldentzen naizen bakoitzean kezkatzen hasten naiz: Ikusiko al ditut berriro? Izugarrikeriaren bat gertatzen ari ote zaie oraintx ebertan? Ikaratu egiten naiz nire lurtean pentsatzen, odolez bustita, fruiturik eman ezinik. Hori guztia nigan bizi da, nire zati bat da, nire bidailagun nekaezina, gure herrira etorri eta bere biziaz baino kezkatzen ez den batek, egunero ataka horretan egonagatik ere, sekula ulertuko ez duen zerbait da [...] (Nordstrom 1997: 7).

98

Horiexek dira indarkeria konponezinari buruzko azterketa eta analisisetan behin eta berriro isilarazten diren ahotsak, hain zuzen ere. Esanahia ematen diete sufrimenduari eta galerari. Benetako oinaze eta mina jasan duten eta gerra zer den ederki dakiten pertsonen ahots mutuak dira. Konponezinatasunaren kategorizazio eta abstrakzioa indarkeriaren biktimen eta suntsitutako eremuetan eta Mozambikekoaren tankerako gatazkek kaltetutako pertsonen artean nagusitutako kaosaren gainean kokatzen ditugunean bazterrean utzi ohi duguna azpimarratzen dute kontakizun horiek, nire iritziz. Horregatik, eta horra funtsezko kontu bat, mendebaldetarrak garen aldetik, ez gara hainbeste saiatu behar beste pertsona batzuk trebatzen edo bake-prozesuak hasteko moduak azaltzen. Kontzeptu horiek aurreiritziak sortzen dituzte beren komunitateetan bakea eraikitzeke gai izan diren pertsonengan, haiek ederki baitakite zer egin behar duten inork ezer esan gabe, edo gerra nolakoa den deskribatzen tematuta dabiltzan zientzia politikoetako nahiz nazioarteko harremanetako aditu eta bitartekariak ezer azaldu behar izan gabe. Objektibazio, taula eta grafiko horietan guztietan ez dago humanismo izpirik ere, eta eskala eta graduazioetan ez da inoiz gatazka baten benetako ondoriorik edo benetako historiarik islatzen, edo gatazka benetan nolakoa den. Abstrakzio horiek gatazken inguruan teoriatzeko edo gatazken inguruko teorien inguruan teorizatzeke formula hutsalak baino ez dituzte eskaintzen, baina ez gaituzte errealtatera hurbiltzen eta ez digute nahigabe eta pairamen horrek kaltetutakoek esateko dutena entzuten uzten.

Berez, jende gehienak ez du behar inork esaterik bere bizitza edo komunitatea nola berreraiki behar duen, eta ez du inongo mintegitara joan beharrik bere aurreko bizitza berreskuratzeko. Bake-bitartekarien eta baketze-adituen artean hedatutako ikuspegiaren arabera, gatazka bat amaitzean edo sortzen denean ere nola jokatu behar den irakatsi behar zaio jendeari, eta irakatsi egin behar zaie gatazkek zer diren, intentsitatearen inguruko termino abstraktoak erabiliz, nahiz eta hori, gutxienean, aski ez eta iraingarria ere baden. Gainera, kolonialismo garaiko diskurtsoen tankera du joera horrek, Mendebaldeak planeta osoa nola kudeatu beharra zegoen zekien garaiko diskurtsoena, hain zuzen ere, jakintzaren jabego autoritarioa zegoeneko, pribilegio eta etorkortasunean oinarritutako eredu bidez.

Nordstromek (1997: 218) Mozambikeko gerra zibilak kaltetutakoekin izandako elkarrizketen ondoren deskribatu zuenez, bake-eraikuntzak «arrakasta handia izan zuen gerraren erdian, biztanleriaren zati handi batek biziraupen-kulturak baztertzeari utzi ziolako, alor askotan: komunitatea, hizkuntza, tribuak, klasea eta generoa». Gerra zen etsaia, eta etsai haren aurka borrokatzen ziren guztiak aberkideak ziren. Hauxe gehitzen du Nordstromek:

Gizarte-prozesu horretan zeharo berrizale eta indartsua da bere helburua indarkeria modu ez bortitzean birdefinitu nahi izatea da. Hor funtsezkoa da ulertzea jendeak elkarren artean beharrez gerraren beraren aurka borrokatzea erabaki zuela. Jendeak bortzarik ez erabiltzea erabaki zuen, haien aurka erabili izan zen moduan ez erabiltzea, hain zuzen. Indarkeriaren erabilerak politikoa zilegitasunik gabe utzi zuen jendeak, bai prozesu orokorraren baitan, bai beren herrietan bertan ere. Komunitatearen eta segurtasunaren definizioa erakunde politiko-militarren esku utzi beharrez, Mozambikeko herritarrak beren komunitate, klase politiko eta segurtasuna beraiek berreraikitzen tematu ziren.

Indarkeriari aurre egiteko indarkeria gehiago erabili beharrez kaltetutako egiturak berreraikitzea erabaki zutenean, komunitate-egitura sendotzeko eta ordena sozialari eusteko erakunde politikoaren beharrik ez zutela erakusten ari ziren funtsez (Nordstrom 1997: 218 eta 220).

Horren azpian dagoen mezua hau da: trauma ondorengo estresa zer den, gerra-eremu batean estres hori nolako den, edo trauma-ondoko oroimena zer den azaldu ez eta abstrakzioari lehentasuna ematen dioten eredu teorikoak baztertu egin behar ditugula, batetik, eta, bestetik, Mozambikeko herritarrak gai izan zirela beren bizimodua berreraikitzeko eta, indarkeria egon arren, esanahiak sortzeko, historian sekula izan den tragedia humanitariorik handienaren erdian, hain zuzen.

Horrenbestez, gero eta argiago ikusten denez, jendearen istorioak jasotzeko eta irudikatuzeko, gerra zibilak suntsitutako gizarte baten errautsetatik abiatuta jendeak bere bizitza nola berreraiki zuen islatzeko edo indarkeria konponezinak kaltetutako pertsonen kontakizun hunkigarri eta beldurgarriak kontatzeko biderik onena antropologia sozial eta kulturalera jotze da, nire ustez. Literaturak gizakion eguneroko nahigabeen eta nahigabe horiek gainditzeko dugun ahalmenaren adibide bikainak ditugu, noski, egile askok jorratu baitute ildo hori: Baldwin, Beckett, Dickens, Dostoevsky, Ellison, Faulkner, Hugo, Kazantzakis, Maughm, Shakespeare, Steinbeck, Wright, Zola eta, Espainian eta Euskal Herrian, Bernardo Atxaga, Pío Baroja edota Miguel de Unamuno. Aurrekoei literaturako jeinu eta maisu askoz gehiago gehitu behar zaizkie, baina ez daukagu horretarako lekurik hemen.

Aurrekoarekin ez dut esan nahi gizarte-zientzietako beste adar batzuetako adituek egindako ikerlan ugariak alferrikakoka direnik, beste hau azpimarratu baizik: konponezintasunaren auzia abstrakziotik aztertuz gero, akademikoak garen aldetik, ez gaituela indarkeria horren eta indarkeria horrek jendearengan utzitako benetako ondorioen «egiara» hurbiltzen, ez digu argitzen bakearen gaia gerrak kaltetutakoekin nola landu behar dugun argitzen, eta ez digu laguntzen ikusten jendeak badituela beste bitarteko informal batzuk gizarte modu baketsuan berreraikitzeko eta edozein eratako indarkeriari aurre egiteko.

Nire iritziz, kontuan izanda antropologoek tankerako ikerlarietako urteak ematen dituztela indarkeria konponezinak kaltetutako pertsonen bizimodua aztertzen, haiekin batera bizitzen eta haien bizitzan parte hartzen, haiek dira, hain zuzen ere, era honetako gatazken egia gertuen daudenak. Antropologoen «behaketa parte-hartzailea» deritzote beren

ikerketa-metodoari: ikerlariak, bolada luze batean, aztergai dituzten pertsonen eguneroko zereginetan eta errealitate sozialean parte hartzen dute. Horregatik, oso aberasgarria izaten da etnografiari buruzko bibliografia irakurtzea. Haraino eramaten gaitu. Gatazka gertatzen den lekuan gaudela iruditzen zaigu, indarkeria hasi den lekuan bertan, eta iraganaeko errealitate bortitzak berreraiki eta egoera haiek jasan zituztenen kontakizunen bidez eta haiek ezagutuz indarkeria hark izandako ondorioak zertan diren ikusten dugu.

Azaltzen ari garen hau guztia modu zehatzagoan ikusteko, Sri Lankako, Ipar Irlandako eta Israel eta Palestinaren arteko gatazkak zuzenean jaso dituzten hiru etnograforen lana aztertuko dugu jarraian. Valentine Daniel, Allen Feldman eta Laetitia Bucaille dira hiru egile horiek, eta haien lanak orain arte aipatutako ikuspegi politikoekin alderatuta, iruditzen zait lan horien balio humanoa eta konponezintasuna ulertzeko egiten duten ekarpena izugarria dela. Gainera, lan zehatz horiek aipatzearekin batera, humanismoa eta sentikortasuna aldarrikatu eta indarkeriaren abstrakzioa eta objektibazioa baztertu nahi ditut.

E. Valentine Danielen (1996) *Charred Lullabies: chapters in an anthropography of violence* [Schaska-kanta kiskaliak: indarkeriaren antropologia bateko kapituluak] lanean iragana orainean ulertzeko funteszkoak diren ikuspegi ugari jasotzen dira. Danielek Sri Lankako betiko gatazkaren gaineko aurkezpena egiten digu, xehetasun ugari lagunduta, baina alderdi honetan oinarrituz bereziki: sinhala budistek, tamil hinduek ez bezala, mundua «ikusteko» hainbat bide garatzen dituztela, eta kontrastea sortzen da horren eta munduan «egotearen» edo errealitatearen adierazpen epistemiko eta ontikoen artean (1996: 43-71). Gorago azaldu dudanez, «botere kolonialarekin batera haustura iritsi zen, iragana goratzearen bitartez» (Linstroth 2005: 18). Daniel haratago doa eta gatazkak eragindako oinazea dakar gogora, azalduz nola sinhala budistek eta tamil hinduek gatazka erabiltzen duten beren desberdintasun etnikoak kontzeptualizatzeko, eta tamilek, aldiz, tamil estatalek bereziki, te-hazkuntzatik hartutako metafora «agro-agriak» erabiltzen dituzte, sinhalei dieten gorrotoa adierazteko. Gure egileak gatazkaren indarkeriari buruz sentikortasunez idazteko modua aztertzen du, funtsean, baina irakurlea gatazka dagoen lekura eramanez eta kito egin beharrean, indarkeria Sri Lankako sinhala budisten eta tamil hinduen ikuspegitik azaltzen ere saiatzen da. Gorroto etnikoko anbiguotasun horretan murgiltzeko, filosofiko azalpen semiotikoak erabiltzen ditu Danielek, Charles Peirce-en lana edota Michel Foucaulten lanen objektibazioa oinarritzat hartuta.

Torturaren bitartean beren haragian terrorea jasan zuten tamilen olerkiak izugarri hunkigarriak dira. Thiyagarajah Selvanity (Selvi izenez ezagutzen dena) dugu egile horietako bat, eta 1994an Nazioarteko Poesia Sari ospetsua jaso zuen olerki honekin:

Nire arima, etsipen hutsa,
bizi-irrikatan.
Edonora begiratuta ere
gizaki primitiboak
ikusten ditut
beren hortz horiska eta aho itsusiekin
odol-gosez, larrua urratuta,
txistu etengabea ahoan
hazkazala anker eta begi lazgarriekin
harropuztuta eta pozarren,
aspaldiko garaipena ospatzen
hanka galduak paseo amaigabeetan
denak tronu baten bila.

Egun galduak ilbetearen zain,
asperdura izanik irauten duen gauza bakarra...

(Daniel 1996: 146-147)

Oroitzapen horiek torturatzailen esku jasandako oinazea dakarkiole gogora irakurleari, «esperientzia integral, oraingo, berehalako, kategorizatu gabe eta gogoetaren aurreko batean sentitutako kalitate» izanik hori guztia (Daniel 1996: 152). Danielek dioenez (1996: 152) «terrore gogoratuak desartikulatu eta “desindibidualizatu” egiten du». «Terroreak suntsitu egiten du oinazea eta hori egitean edertasunarekin bat egitea ahalbidetzen du». Beste hitz batzuetan, prosaren bidez oinazean aurkitutako edertasunak birsortu egiten da, berregituratu egiten da eta Paul Celanek Holokaustoko oinazeak jasan ondoren idatzitako olerkiak dakartzkigu gogora. Theodor Adorno intelektualaren iritziz «Auschwitz buruzko olerki bat idaztea izugarrikeria hutsa» zen arren Celanek erantzun zion «oinaze betierekoak torturatuak garrasi egiteko adina eskubide dauka aditzera emana izateko [...] hortaz, iruditzen zait okerra dela esatea Auschwitz buruz olerkirik idazterik ez dagoela» (Daniel 1996: 153). Danielek argi uzten du indarkeria hori nola kokatu behar den. «Askotan ahaztu egiten zaigu (a) objektu etnografikoak objektu teorizatuak direla, definizioz, eta (b) teoria eta objektuak elkarrengandik bereiztea dagoen neurrian, gogoan izan behar dugu biak ere “alde batera uztea” deritzon buruko ariketaren bidez kodetzeak direla dialektikoki, dialogikoki ez badira ere» (Daniel 1996: 12). Bestela esanda, ikerlariak garen aldetik gogoan izan behar dugu nola idazten dugun subjektuei buruz eta zein subjektu egiten ditugun gure idazkuntzaren gai, gerra zibil luze baten ondorioak jasan dituzten gizarteei buruz ari garenean bereziki.

Ez naiz gehiago luzatuko Valentine Danielen inguruan ez eta indarkeriaren etnografiari buruzko adibide onenetakoa dela azaltzen ere, eta Allen Feldmanen liburu zirikatzaile bati helduko diot jarraian: *Formations of Violence: the narrative of the body and political terror in Northern Ireland* [Indarkeriaren sorrerak: Ipar Irlandako terrore politikoari eta gorputzekoari buruzko kontakizunak] (1991). Antropologo gutxik jakin izan dute Feldmanen moduan Ipar Irlandako gatazkako ekintzaile paramilitarren ahotsak jasotzen. Bere lanean, eragile politikoak bizi-bizi agertzen zaizkigu Long Kesheko espetxeari edo H-Blocks-ei buruzko kontakizunetan, edo hainbat erakundetako PIRA (Irlandako Behin Behineko Armada Errepublikarra), INLA (Irlanda Askatzeko Armada Nazionala) eta UDA, UDR eta UVFkoak (Ulster Babesteko Elkartea, Ulster Babesteko Errejimendua eta Ulsterko Indar Boluntarioa) talde armatuen nahiz Belfastko komunitate sektarioetako emakumeen diskurtsoetan gorputza indarkeriarako gai nola bihurtzen den azaltzeko garaian. Ahozko istorio horietan xehetasun ikaragarri eta harrigarriekin kontaktzen zaizkigu Ipar Irlandako indarkeria sektarioari lotutako kausak, indarkeria fisikoa azpimarratuz bereziki. Feldmanek azaltzen duenez (1991: 9), «Hegelengandik hasi eta Nietzsche, Lukás nahiz Foucaultekin jarraituz, gorputzaren eraketa subjektu politikoaren eraketatzat hartu izan da». Indarkeria hori subjektuen ikuspegitik irudikatze, ehundik gora elkarrizketa egin zituen Feldmanek Belfastko langile-eremu protestante eta katolikoetan, 1984 eta 1986 bitartean (Feldman 1991: 10-11). Auzia sakon-sakonean aztertzen du ikuspegi berezi batetik, Ipar Irlandako paramilitarren artean gorputza beren indarkeria politikoaren erdigunea bihurtu zelako haren iritziz, eta haren objektibazioak gatazkako tresna politikoaren manipulazioa eta suntsiketa negoziatua ekarri zuten, gainera. Gure egilearen arabera: «Ipar Irlandan, gorputza gizarte-eraldakuntza egituratzen duen funtsezko tresna politikoa izateaz gain, bestetasun historikoaren iragaite kolektiboa bistaratzeko ezinbesteko osagaia ere bada. Gorputzaren desitxuratze materiala denbora historikoaren desitxuratze, instrumentalizazio eta “bizkortze-arekin” lotu izan da. Ipar

Irlandan indarkeria politikoaren erabilerak gorputzaren ekoizpen, truke eta agortze ideologikoa eragiten du» (Feldman 1991: 9). Bestalde, askotan irakurri izan dugu komunitate sektario katoliko eta protestantearen arteko borroka etnikoaren berri eta, jakin badakigu, banaketa espazial bat dutela han, Stormontek Hitzarmenak sinatu arte eguneroko bizimodua jasan ezina gin zuena. PIRako militante batek haxe zioen horren inguruan: «kalean zaudenean badakizu espetxean edo hilik bukatuko duzula. Hori oso ondo dakizu pistola bat eskutan kalera ateratzen zarenean». UDAko kide batek, aitzitik, beste hau esan zion Feldmani: «norbait akabatzea erabakitzen denean, haren profil bat osatzen da. Non dago oraintxe bertan? Zer gertatzen da harekin? Nola jokatzeko du?» (Feldman 1991: 85). Aurkeztu berri ditugun moduko bortxazko adierazpenek modu zakar eta gogorrean islatzen dituzte gatazka errealitateak. «Bortxazko ekintza zati kodetu bihurtzen du gorputza: gorputzaren zatiak daude eta osotasun handiagoak. Bortxaren bidez gorputza zati txikitzen uztea edo alderdi bereiziaz bihurtzea gorputz hori funtsezko unea da gorputzaren metaforizazio politikoan, eta Belfasten jardun materiala da hori hizkuntzazko jarduna ere baden neurrian...» (Feldman 1991: 69). Hala, agerian gelditu denez, Ipar Irlandako gatazkan gorputza objektu politikoa bihurtzen da, eta komunitate sektarioek indarkeria eta aurkariak ikusteko duten modua eta gorroto kolektibizatua zeharo konponezina, antzinakoa eta zurruna zela ikusten da. Berez, hemen daukagun hauek ez dira abstrakzioak ekintzaile paramilitarrek kontatutako benetako istorioak baizik, ekintzaile haien begietan gatazka besteak –beste katoliko edo protestanteak– egiten zuenaren arabera neurtzen zen, eta ez egoera horretan egunak joan egunak etorri bizitzeko izugarrikeriaren arabera. Gainera, H-Block-etan (Long Kesheko espetxean), Bobby Sands eta IRAko beste ekintzaile batzuek preso politikoen estatusa lortzeko gorputza protesta politikorako tresna bezala erabili zuten. Dena den, kontakizun guztiak ere ez dira paramilitarrei buruzkoak, gatazka jasan zutenen istorioak ere jasotzen dira. Hona etxeko andre katoliko baten hitzak, esate baterako:

102

Gogoan ditut barrikadak. Tiro egin zioten nire lagun bati. Barrikadan zegoen lealistak gure auzoan sartzea oztopatzen. Auzo katoliko batetik bestera joateko kontrazeinuak erabiltzen ziren, «ogia», «gurina» edo «esnea» bezalako kontrazeinuak. Garai hartan asko pentsatuko genuen janaritan! Umetan oso ernagarria izaten zen barrikadak egiten ikustea, jokatzeko leku bat zirelako guretzat. Zuhaitzak genituen, baina ez haien gainera igotzeko haien gainetik ibiltzeko baizik. Ezkutaketan jolasten ginen, batzuk brits-ak ziren eta beste batzuk IRAkoak [IRA]. Ederra zen hura. 1969ko abuztuaren 15erako, ordea, ez zen zuhaitzik gelditzen. Arantzak jartzen zituzten autorik ez sartzen uzteko. Kale guztiak jasota zeuden. Barrikadak haurrak jokatzeko lekua bihurtu ziren. Gatazka armatuaren garaian, etxean itxita egoten ginen, baina orduan ateratzea geneukan. Hantxe elkartzen ginen denok, barrikaden inguruan (Feldman 1991: 33).

Goikoa bezain kontakizun laburrak gatazkan bizitzearen muina azaltzen digu, baina ume batentzat gatazka hura bizitzea zer zen ere erakusten digu. Gatazkan interesa dugun ikerlariak garen aldetik, gatazka hark umeengan izandako eragina ere ikertu beharra daukagu, zientzia politikoei lotutako ikuspegiak halakorik egiten ez duten arren. Indarkeria errotuak umeengan eragindako ondorio psikologikoei errealegiak dira.

Horrexegatik ekarri nahi dut ona Laetitia Bucaille-en lan etnografiko bikain bat: *Growing Up Palestinian: Israeli occupation and the Intifada generation* [Palestinar bezala hazten: Israelen okupazioa eta Intifadako belaunaldia] (2004). Liburu horrek ederki erakusten digu etnografia zein baliagarria izan daitekeen gatazka konponezinak ulertzeko. Sami, Najy eta

Bassam hiru mutiko palestinar *shebab* dira, eta haien begiradari jarraiki lehen eta bigarren Intifadak Gazako zerrendan eta Zisjordanian bizi diren haur horien bizitzan zer-nolako eragina duen ikusten dugu, bai eta Intifadak haien bizimoldea nola egituratzen duen, erresistentziaren inguruan bizitzera behartuta egonik. Bucaille-ek kutsu filosofiko txikiagoa du Nordstromek, Danielek eta Feldmanek baino subjektu sozialak aztertu eta haien berri emateko garaian, baina Bucaille-ek Intifadaren azpian dauden arrazoi historikoak islatzen ditu, Palestinako gatazka nazionalista osatzen duten alderdi guztien eta Palestinako bizimodu politikoaren berri ematearekin batera. Bucaille-ek azaltzen duenez (2004: 17-18):

Intifadan garrantzi handia zuen alderdi bat ausardia hutsaren errituala zen. Aurpegia *keffieh* zapiarekin estaltzea, hormetan leloak marraztea, Palestinako bandera haiztzea, armadaren zaintzari itzuri egitea etxeratze-aginduari entzungor eginez, komunikatu politikoak irakurri eta zabaltzea.. hori guztia debekatuta zegoen, eta atxilotze-agindua zegoen halakorik egiten zutenen aurka. Egunero-egunero desafiozko ekintza batzuk sortzea zen kontua, lurralde okupatuek Israelgo armadari aurre egin eta Palestinako nazioaren nor-tasuna eta existentzia sendotzearen.

Gazte palestinar haiek Intifadarekin bat egiteko zituzten arrazoi ugariak azaltzeaz gain, Palestinaren eta Israelen arteko gatazka historia politiko bat bezala azaltzean, gu ere murgildu egiten gara maila pertsonalean konponbiderik gabeko gatazka horretan. Egileak Najyri buruz egiten duen argazki ederrean honela dio:

Mutil bihurria izan zen beti. Hamahiru urte zituenean, Samik eta biok mehatxu fisikoa egin zioten irakasle bati, eta eskolatik bota zituzten bola-da baterako. Handik gutxira, etxean egindako arma bat konpondu zuten beste mutil batzuekin, eta juduen kokaleku baterantz egin zuten tiro. Sami onik atera zen, eta ez zuen inork salatu. 1985an, ordea, artean hamalau urte ez zituela Najy atxilotu eta bost urteko espetxe-zigorra jarri zion israeldar auzitegi militar batek. Gogoan du epaia entzutearekin batera negar batean hasi zela. Baina amorrua nagusitu zitzaion berehala. «Epaileak epaia ematean muturrekoa eman nion nire abokatuari [palestinarra] eta txitua bota nion epaileari. Esan nion: ume bat daramazue espetxera, baina, badakizu, handik gizon bat aterako dela!» (Bucaille 2004: 3).

Beste pasarte batzuetan egileak erakusten digu Palestinako borroka hainbat alderditan banatuta dagoela, eta ekintzaileak beraiek ez direla elkarretaz fidatzen.

Arafaten gertu-gertukoetatik haratago, askatasun eskuratu berriari errezeloa nagusitzen zitzaion. Yussefek, Jabalijako errefuxiatu-esparruko bizilagun eta FPLPko kideak [Palestina Askatzeko Fronte Herrikoa, PLO, Palestina Askatzeko Erakundeko alderdi ezkertiarra], Palestinako Polizia trebatzeko irudiak ikusi zituen Egipton, eta bota zuen haserre: «Zertarako nahi dituzte borrak? Ez da inor geldituko gu jotzeko». Bortxa fisikoaren monopolioa duen aginpide bat ezartzeak errezeloak pizten zituen indarkeria israeldarren okupazioarekin lotzen duen belaunaldiko kideen artean. (Bucaille 2004: 34).

Palestinako gatazkan bertako barne-mailako ika-mika politikoek gauzak areago nahaspilatzen dituela erakutsiz, Israelgo estatuaren aurkako altxamendua bere osotasunean irudikatu nahi du Bucaille-ek. Palestinar mugimendua hainbat talde edo joera politikoetan zatikatuta

dago, eta palestinarrak beraiek zigortu egiten dituzte batzuetan Palestinar Agintearen aginduak betetzen ez dituztenean. Gainera, militanteek modu desberdinetara ikusten dute beren borroka:

Horixe onartuko dudala Palestinar Estatu bat Gaza, Zisjordania eta Jerusalemekin batera. Gehiago eskatzea ezinekoa da ia. Errespetatzen bagaituzte, errespetatu egingo ditugu guk ere. Bakea nahi badute, bakea ematen badigute, guk bakea itzuliko diegu. Bat nator Kadafirekin: Israelek palestinarrei beren eskubideak itzultzen badizkiete, arabiar munduak ez du Israel etsaitzat hartuko. Israeldarrek onartzen bagaituzte, ez dut arazorik izango Arabiar Ligako buruzagitza haien esku uzteko.

Txamarran bilduta, gerrikitik pistola eta eskuko telefonoa zintzilik dituela, Samik irribarre egiten du Israeli eta Arabiar Ligari buruz egindako proposamen ausarta entzutean. Okupazioa ez zen amaitu. Aitzitik, palestinarren eguneroko bizimodua eta gogo baldintzatzen jarraitzen zuen. Samik erantsi zuen: «adin txikiko guztiek eskubideak dituzten herri bat ikusi nahiko nuke. Aske mugitzeko aukera izan nahiko nuke, gainerako jende guztiak egiten duen moduan. Gerrarik eta armarik gabeko herri bat nahi dut, Suitza bezalakoa. Nik ez dut halakorik ikusiko bizi naizen artean, baina nire seme-alabek beharbada bai» (Bucaille 2004: 112).

Kontakizun horiek etsaiaren inguruko eta gatazka-ondoko munduaren inguruko kontraesanak, sentipen pertsonalak eta irudipen orokorrak azaltzen dizkigute. Hizpide dugun ikerlan bikainean zehar, irakurleak hobeto ezagutzen du Palestina eta Israel arteko gatazka, gatazka hori jasaten duten pertsonen bizitzetan murgilduz. Akademikoeek egiten dutenaz bestela, abstrakzioaren eta objektibazioaren tranpei ihes egin eta gure arreta beste zerbaitetan jartzen badugu, zientifismoak ezarritako mugetatik askatuz gertuago egongo gara. Non jarri behar dugu arreta, ordea? gatazkek gatazka horiek jasaten dutenen edo gerra zibil baten ondoren bizirik jarraitu dutenen bidez subjektiboki irauten duten moduan, hain zuzen ere. Enpirismo filosofikoan eta gatazka horiek berezkoak dituzte alderdi filosofikoak bilatzean oinarritutako ikuspegi humanista hartuz gero, egunak joan egunak etorri gatazka horiek jasaten dituzten benetako pertsonen bizitzekin eta haien begitarteekin egingo dugu topo, akademiko gehienen hizkerarekin eta unibertsitate-mailako mintegiekin batere zerikusirik ez dutenak. Era guztietako jendea ezagutuko dugu horrela: gerra zibilen izugarrikeria gaitzeko moduaren inguruko dilema existentzialetan harrapatuta daudenak, Nordstromek Mozambiken erakutsitako moduan; Sri Lankan desberdintasun etnikoak nola egituratzen diren ikusiko dugu, Danielen kontakizunen bidez; komunitate errepublikar eta lealitek eta talde paramilitarrek indarkeria politikoa gorputzean nola gauzatzen duten kontakutako digu Feldmanek; eta, azkenik, Palestinako gazteak aurkituko ditugu, jaiotzetik inguruan izan duten gerra-girotik aldendu ezinik.

Antropologoa naizen aldetik, ziur nago ikuspegi etnografikoa oso egokia dela konpon-ezintasunaren auzia irudikatzeke, baina auzitan jarri nahi ditut indarkeriari buruz behar bezala idazteko, indarkeria hori onartzeko eta indarkeria jasaten duten pertsonen kontakizunetan egia aurkitzeko egiten ditugun ahaleginak. Guk, antropologok, indarkeriaren auzia lantzen dugunean, indarkeria hori ulertzen eta onartzen saiatzen gara eta, askotan, harrapatuta dauden bizitzekin ari garela konturatzen gara. Indarkeriaren inguruan idazten ditugun kroniketan eta ikuspegi soilik filosofiko batetik egiten saiatzen garen azterketetan aurkezten dugun benetako erretratuaren bidez argi pixka bat botatzen dugu zoko ilunetan. Gainera, guk jasotako dokumentazioa indarkeriaren eta indarkeria horren ondorio lazgarrien

ahalmen geldiezinaren lekukoa ere bada. Lekukotza horien bidez gu ere murgildu egiten gara egoeran eta, eleberri humanistetan bezala, etorkizun hobea lortzeko erantzunak eman ditzakegu.

Honaino iritsita euskal gatazka eta gatazka horren konponezintasuna aipatu beharra daukat, ezinbestean. Atzerritarra naizenez, ezin dut euskalduna banintz bezala hitz egin. Eta, hortaz, ikasleentzako nazioarteko truke-programa batean Euskal Herrian emandako denboran bildutako esperientziaren arabera mintzatuko naiz gai horri buruz. Gainera, ia bi urte eman ditut Gipuzkoako itsasertzeko bi herritan auzolandegietan lanean. Dakidana da arazo politikoa oso konplexua dela. Francoren diktadura eta Estatuaren errepresioa gogoan dutenen kontakizunak, atxilotuta zeuden bitartean torturatutako ekintzaileen oroitzapenak edo GALEk egindako izugarrikerien inguruko oroimen bizia. Zalantzarik gabe, kontakizun ugaritan aurkitzen dugu Estatuak Euskal Herriaren aurka erabilitako izuikara eta terrorearen berri. Horrekin batera, hiri-ingurunean iraganean gertatutako sarraskien inguruko oroitzapenak astintzen dituzten bitarteko mnemoteknikoak dauzkagu, Poliziarengandik ihesi zihozenean bizkarretik tirokatutako giza irudiak irudikatzen dituzten horma-irudiak edo Guardia Zibilak tiroka hildako gaztea oroitzeko txokoa, adibidez. Adibide gehiago: bularrean tirokatutako militante gazte baten inguruko lekukotza sinesgaitzen inguruko egunkariko artikulua, buruaz beste egin zuela auzitan jarriz; Espainiako espetxeetan modu misteriotsuan hildako militanteei buruzko artikulua; Lasa eta Zabalaren historia, Estatuak torturatu eta exekutatuta eta, ondoren, adierazi gabeko leku batean kare bizitan lurperatuak, eta handik urte batzuetara handik atereak; Francoren garaian euskaraz hitz egiteko debekua; Poliziaren komisarian leihotik behera botatutako militantearen historia; gomazko pilotakada baten ondorioz ikusmena galdu zuen gaztearen historia, nik neuk zuzenean entzundakoa, eta abar, eta abar. Auzi honen inguruan ezer ikasi behar badugu, hauxe izan behar du: iragana jende askoren gogoan bizi-bizi dagoenean oroimenak hortxe jarraitzen duela. Jende askorentzat bizi izandako trauma gogorarazten dieten oroitzapen «ikonikoak», «episodikoak» dira, eta ez dira erraz ahaztekoak (Laidlaw 2004: 6-7).

105

Estatuak eragindako indarkeriari buruzko kontakizunetaz gain, ETaren biktimen kontakizunak dauzkagu. Bahitutakoen eta haien senideen kontakizunak dira, eta «familia osoaren biktimazioa» dakar horrek, ez pertsonaren bakarrik (Zulaika eta Douglass 1996: 194). Euskal kultura eta gizartea aztergai duten bi antropologok hauxe idatzi dute: «Gipuzkoan egindako azterketa baterako elkarrizketatutako biktimetatik, biktima zibilen %23 «hutsegite» baten ondorioz ziren biktima; %65,4ek trauma psikologikoren bat zuen eta %73ek «ondorio sozial txarrak» aipatu zituzten. %65,4en kasuan egoera ekonomikoak okerrera egin zuen. Ehunka familia «biktimizatu» horiek dira ETaren indarkeriaren hedadura ongien azaltzen dutenak. Mehatxuei buruzko kontakizunak ere badaude, eta beldurren bizitzeari buruzkoak. Beste batzuk ez dira gai indarkeria, orokorrean hartuta, gaitzesteko.

Kontua hauxe da, ordea: Nola ezkondu daitezke euskal gatazkaren inguruan dauden oroimen desberdin horiek? Nola uztartu Euskal Herriaren iraganarekin? Nola idatzi dezakegu indarkeria horri buruz modu esanguratsuan? Adituen arabera, gaurko egunean iraganari begira bizi diren pertsonak gehiengoaren bitartean, iragan horrekin adiskidetu eta iragan hori egia baten batzordeetan aztertu egin beharko da, iraganeko mamuak baztertu eta bake-prozesu bat benetan gauzatu nahi bada, behintzat. Halako oroitzapenak egiazkoak dira, eta ez dira erraz baztertzen. Oroitzapen horiek berriro gogoratzea eta bizitzea mingarria da. Julio Medemen *Euskal Pilota: larrua harriaren kontra* dokumental bikaina (2003), adibidez, ariketa ausarta da zentzu horretan, eta era horretako ekimen gehiago egin beharko lirateke su-eten garaian gauden honetan, elkarrizketa bizirik iraunarazi eta gatazkaren oroitzapen guztiak ondo jasotzeko,

guztia ere iraganarekin adiskidetu ahal izateko. Ariketa hori bera alor sozialean egiteko, egiaren batzordeak eta adiskidetzeko batzordeak sortzea komeniko litzateke, euskal gatazkari lotutako tragediako alderdi asko argitzearen.

Onarpena: giza eskubideak, eztabaidan oinarritutako demokrazia eta askatasun kontzeptua

Iraganeko gatazka baten tranpak gaintzeko, giza eskubideak, eztabaidan oinarritutako demokrazia eta norberaren askatasun eta autonomia koherentziaz eta zuhurtziaz aztertu beharra dago. Nire ustez, alderdi horiek zuzeneko ondorio praktikoak dituzte Euskal Herriko bake-prozesuan, eta ondorio horiek antropologiarekin, teoria politikoarekin eta ideien historiarekin dute zerikusia.

Lehenik eta behin, «giza eskubideen» auziari lotutako zailtasunak azalduko ditut, eta teoriarari batzuk nola mintzaten diren giza eskubideen unibertsaltasunari buruz, baina gai horri lotutako beste auzi batzuei heldu gabe. Zenbait antropologok, giza eskubideetako adituek egiten dutenaz bestela, heldu diote arazo horri eta hainbat erantzun edo kontzeptu diskurtsibo eskaini dituzte giza eskubideen eta jendeak bere eskubideen alde egindako borrokaren inguruan ikuspegi orokor bat emateko. Hortaz, hauxe galdetu beharko genuke, lehenik eta behin: «Zer dira eskubideak?», «Nor hartzen dugu eskubide horiek izateko ahalmen osoko izaki edo pertsonatzat?» (Messer 2002: 321). Messerek azaltzen duenez, antropologo batzuk saiatu dira giza eskubideetako adituek ez bezalako erantzunak eskaintzen, haiek Nazio Batuek giza eskubide unibertsalen inguruan finkatutako arauari lotuegi daudelako (2002: 321). Giza eskubideen auzia ikuspegi integral batetik aztertzen duten ikerlan honenak hauek dira, nire ustez: Jane Cowan, Marie-Bénédicte Dembour eta Richard Wilsonen *Culture and Rights: anthropological perspectives* [Kultura eta eskubideak: ikuspegi antropologikoak] (2001) eta Richard Wilson eta Jon Mitchellen *Human Rights in Global Perspective: anthropological studies of rights, claims and entitlements* [Giza eskubideak ikuspegi orokor batetik: eskubide eta aldarrikapenei buruzko azterketa antropologikoak] (2003).

106

Cowan *et al.*-k (2001: 1) hauxe diote, bestalde: «historikoki eskubide eta betebeharren arteko lotura kontzeptualizatzeko erabili izan den bide bakarreko eskubideen eredu, gaur egun indarrean dagoena, hegemonikoa da eta halako emantzipazio-kutsu bat dauka. Eredu horrek, ordea, ondorio konplexu eta kontraesankorrak izan ditu beren eskariak ereduari jasotako baldintzekin bat etorri egituratu behar izan dituzten gizabanako eta eskubideentzat». Egile horien arabera, antropologia gai izan liteke giza eskubideen inguruko eztabaidan desberdintasunak finkatzeko, «eskubideei lotutako prozesuen gaineko azterketa enpiriko, kontestualen bidez» bereziki eta giza eskubideen kontzeptua tokian tokiko esparruetan gaur egun «gauzatu, ukatu eta eraldatzeko» erabiltzen diren modu guztiak aztertzearen bidez. Giza eskubideen ikerlari askok kultura ideia murrizteko joera dute, txosten honen hasieran azaldu dugun tranpan eroriz (Cowan *et al.* 2001: 3). Egile horiek galdera hauek egiten dituzte: «Ez al litzateke lagungarriagoa izango eskubideei lotutako kontzeptu, erakunde eta prozesuen berezitasunak, desberdintasunak eta erlazioak identifikatu eta haien inguruan gogoeta emankorrakoak egitea, guztia ere era honetako eskubideen inguruan: a) espezifikokoak, tokian tokikoak edo kolektiboak; b) nazionalak eta estatukoak; eta c) nazioz gaintzekoak? Kultura eta giza eskubideak aurrez aurre jartzen dituen formulazio batetik *kultur prozesuak* giza eskubideetan eta subjektibotasunetan era askotan eta kontraesankorretan eragina duen beste formulazio batera igaroz gero, horrek ez al liguke lagunduko zenbait etenaldi gaintzen eta galdera mota berriak galdetzen?» (Cowan *et al.* 2001: 3). Formulazio horiei erantzutean, «eskubideak vs. kultura, «kulturarako eskubideak» eta «kulturaren tankerako

eskubideak» bezalako auziei heltzen diete. Hala, oso garrantzitsua da *kultura* kontzeptua azterketarako tresna bezala erabiltzea, eskubideoi lotutako kontzeptuak aztertzeko garaian bereziki (Cowan *et al.* 2001: 4).

Hizpide ditugun egileen arabera, «kultura vs. eskubideak» kontzeptua bera Alemaniako Berpizkundetik eta Frantziako Ilustraziotik iritsi zaigu, lehenak «odola eta lurra» kontzeptua kontrajartzen baitzituen, eta bigarrenak, berriz, gizakion behar «unibertsalak». Horrek eragina dauka gaur egun «unibertsalismo eta erlatibismo kulturalaren» arteko eztabaidan (Cowan *et al.* 2001: 4). «Kulturaren inguruko hizkera eskubideen aldeko mugimenduen erresistentzia-hizkera nola bihurtu den ikustea da interesgarriena hemen. Hala, aldarrikapen «kulturalistak» –kultura, tradizioa, hizkuntza, erlijioa, etnia, herria, tribua edo arraza–eskubideen inguruko gaur egungo prozesuetan ohiko elementu erretorikoak bihurtu dira. Gero eta eragin handiagoa dute, salbuespenak salbuespen, adjudikazio-prozesuetan. Gainera, beste aldarrikapen batzuen oinarritzat ere erabil litezke, lurra, ingurumena, hezkuntza, enplegua edota autonomia politikoa nahiz independentzia helburutzat duten aldarrikapenetan, esate baterako» (Cowan *et al.* 2001: 9-10). Horren bidez ez ditugu kulturaren oinarritutako aldarrikapenak gaitzetsi edo gutxietsi nahi, termino horiek denak «kulturarako eskubide unibertsalaren defentsa» baten inguruan bateratzeko modua baizik (Cowan *et al.* 2001: 8). Gainera, ez dira modu berean hartzen eskubideei lotutako diskurtsoa eta jardunak, haiek beren baitan «nortasun elkartuen» kultura bat sortzen baitute edo «kulturaren tankerako eskubideen» kultura bat, edo Cowanek dioenez (*et al.* 2001: 11-12), «eskubidea, diskurtsotzat hartuta, eta eskubide horiei lotutako pentsamolde eta jardunak gizabanakoaren nolabaiteko eraikuntza batzuk dituzte, eta zenbait sozializazio eta izate-mota ere bai».

Giza eskubideen inguruko eztabaida honen helburua hau da, azken batean: giza eskubideen auzia molde oso zehatz batzuetan zergatik eta nola aztertzen den azpimarratzea. Gai horretan aditu direnak jabetzen badira kulturaren azterketaren inguruan hainbat iruzur daudela, baina «jariora eta erronka» azpimarratzen badituzte prozesu moduan, giza eskubideen inguruko terminoak erabiliz, termino horren izaera izate bezala finkatzea izango dute, objektutzat hartu beharrean (Cowan *et al.* 2001: 14). Bestalde, Cowan *et al.*-k (2001: 20) beste hau nabarmentzen dute: oso litekeena da «kulturaren eta eskubideen arteko edo gutxiengoaren eta gehiengoaren eskubideen arteko inolako eredu ez izatea kasu guztietarako egokia, bai ikuspegi normatibotik, bai ikuspegi analitikotik».

Wilson eta Mitchellek gai horien inguruan emandako iritziak eta antropologikoki nola landu dituzten ikusiko ditugu orain (2003: 4):

Antropologoak eskubideen funtzionamenduari buruzko azterketa kritikoak egiten hasten direnean, kritika hori kulturen boterearen, diziplinaren eta arauketa sozialaren azterketan oinarritzen da gehienbat, eta ez hainbeste kulturek berezkoa duten logikan. Eskubideak kategoria malgu eta iragazkortzat jotzen dituzten kritikak edo eskubideek esparru zabalagoetan kokatutako ekintzak bakartzen dituztela dioten kritikak estatuaren ordenamenduan oinarritzen dira, eta ez kulturen arteko desberdintasunetan. Estatu guztiek zuzenbidearen bitartez jarduten dute, formalki behintzat, eta zuzenbide horrek jardun sozialak sinplifikatzeko joera dauka. Hortaz, zuzenbideek nahi gabe eragindako ondorioen inguruan asko dago esateko oraindik, baina azterketa antropologikoetan «kultura» eta sistema kontzeptualak beharrean nazio-estatuaren eta gobernuaren arteko burokrazien jardun arautzaile eta diziplinazkoak aztertzen dituzte funtsean.

Hala, Wilson eta Mitchellen arabera (2003:5), azterketa antropologikoak egitean «hainbat eratako legezko kultura edo arau-erregimenen itzulpenetatik aldendu beharra daukagu» eta, aitzitik, «botere-harremanen» azterketan oinarritu beharko genuke gehiago, edo, bestela, «nazio-estatueta eta nazioz gairako erakundeetan sendotutako botere-ordenetan eta eguneroko jardunaren bidez jasaten dituzten eraldaketetan». Bi egile horien kritika «positibismoaren» edo «eskubideen inguruko diskurtsoetan egoten den positibismo soziologiko eta legalaren arteko bat-egitearen» aukako kritika batean oinarritzen da, haien iritziz «ez dituelako gizakion subjektibotasuna eta asmoak» azaltzen (Wilson and Mitchell 2003:6). Giza eskubideak «liberalismoaren» filosofian oinarritzen dira, eta filosofia horrek azpimarratzen du «giza izaera» «zehaztagarria eta arrazionala» dela eta gizakion eskubideen potentzialtasunarekin bete beharreko «ontzi hutsak» garela (Wilson eta Mitchell 2003:7). Antropologiak duen indarra «giza eskubideak», berez, «pertsonek sozialek gorpuzten dituztela eta sare sozialen barruan daudela» (2003:8) ulertzeari zor zaio, funtsean. Nire iritziz, ordea, Wilson eta Mitchell (2003) hankamotz gelditzen dira beren egitasmoan, ez baitute guztiz ulertzen nazionalismo orokorraren edo etno-nazionalismoaren egitasmoaren benetako funtsa zein den. Gizarte askotan, «estatu modernoetako erakundeen barne-hartze eta baztertze jardunetan printzipio nazionalistak» zein indartsuak izan diren ulertu beharra daukagu (Wimmer 2002:9). Barne-hartze eta baztertze erlazio horrek azaltzen digu Espainiaren eta Euskal Herriaren arteko harremana, izan ere, Euskal Herria baztertu egiten da, eta galarazi egiten zaie euskaldunei beren estatua eratzen. Wimmerek dioenez (2002:5), «gure gizarteak batuta eusten dituzten baztertze eta barne-hartze molde nazionalistak gaur egungo izaeraren inguruko arrazoibide sofistikaturako eta diskurtso politikorako oinarri ikusezina izan dira». Euskal Herriari bere estatua eratzen ez uzteak galarazi egiten dio, halaber, eztabaidan oinarritutako demokrazia-prozesu batean parte hartzen edo bere prozesua bera ere izaten. Euskal Herriko independentziaren aldeko mugimenduari dagokionez, onartu beharra dago eztabaidan oinarritutako demokrazia garrantzi handia duela jardun demokratiko berriak sortzea ahalbidetuko duen diskurtso bat eratzeko garaian, eta askatasunean eta norberaren autonomian oinarritutako prozesu bat eratzeko garaian.

Desadostasun horiek eta etenaldi analitiko eta teorikoa gaingaitzeko, zenbait taldek, euskaldunek adibidez, beren erakunde sozial eta politiko sendoeekin, «eztabaidan oinarritutako demokrazia»-ren baitako politika teorikoak aintzakotzat hartu eta berraztertu beharko lituzkete, bai eta ideien historiako egitasmoaren baitako askatasun eta norbanakoen autonomia kontzeptuak ere. Horrek ez du esan nahi kontzeptu horiek aztertze garaian arazorik ez dagoenik, baizik eta abiapuntutzat hartu genitzakeela, kontzeptuak zabaltzeko eta eskubideen auzia eztabaidagune publikoetan modu eraginkorrean aztertze modua bilatzeko.

Demokratizazio-dinamiken inguruan egiten duen azterketan, John Dryzekek (2000: 113-114) azaltzen du «demokratizazioa gizarteko bizitza politikoan hainbat kolektibo edo talde onartuz joatea da funtsean, baina ez soilik hori. Barne-hartze eta onarpen orokor hori estatuko bizitzan sartzearen bidez gauzatzen da batzuetan. Halere, onartu beharra dago demokratizazioaren aldeko presio eta mugimendu gehienak matxinada zibiletatik datozela eta ez estatutik, eta, horregatik, demokratizazioa lortzeko ezinbestekoa da oposizio gizar zibila sortzea». Horrekin batera, ulertu beharra dago eztabaidan oinarritutako demokrazia «iritzi publikoa zabaltzeko bitarteko diskurtsiboen» azpiproduktu bat dela eta «eremu publikoko eztabaida diskurtsiboa» erabilgarria dela «talde-mailako emaitza eraginkorrak» lortzeko (Dryzek 2000: 162). Nolanahi ere, gorago genionez, irakurleek liberalismoaren eta estatu liberalaren inguruko arazoak izan behar dituzte gogoan hemen, teoria politiko horietan pertsonak sozializatu edo gizarteratzeko moduak bazterrean uzten direlako normalean, eta askotan halako taldeen sorrerari ere muzin egiten zaio, autodeterminazio-prozesuak edo

matxinada-mugimenduak dituzten herrietan halakoek garrantzi handia duten arren. Dryzekek (2000) eta beste teorialari politiko batzuek bultzatutako eztabaidek estatua «ona» dela hartzen dute oinarritzat, estatu-sistemak dituen akatsak aintzat hartu beharrean, edo, Wimmerrek (2002) definitu bezala, estatu barne-hartzaile eta baztertzailleak daudela onartu beharrean.

Hauxe da hemen garrantzitsua: «eremu publikoan komunikazio-ekintza» bati ekitea eta prozesu demokratiko horiek praktikan eta modu eraginkorrean garatzeko printzipio diskurtsiboak taxutzea. Errealistak izateko, autodeterminazio-prozesuen edota bake-prozesuen beraien inguruko diskurtsioan «berdintasun politikoa» dagoela onartzen da eta «prozesuko parte-hartzaile guztiak emaitzan eragina izateko aukera berberak» daukatela (Dryzek 2000: 172). «Komunikazio-arrazionaltasun» hori azaltzeko garaian, Dryzekek (2000: 172) dioenez, «eztabaida argudioarekin eta arrazoibidearekin zerikusirik ez duten komunikazio-moldeetara zabalduz gero, esku hartzea izango lukeen botere bakarra «komunikazio hobekia berezkoa duen indarra» izan beharko litzateke. Bestela esanda, eztabaida-prozesu batek arrakasta izango badu, botere-harreman batzuk edo aginpide batzuen gauzapena alde batera utzi beharra dago, emaitzak bidezkoak eta berdintasunezkoak direla bermatzeko. Bake-prozesu bati dagokionez, edo independentziaren aldeko mugimenduen aurka ari diren estatuen kasuan, botere-harremanetan dauden desorekak ezinbestean azaleratuko dira. Arrazoi askogatik du garrantzia «deliberazio» edo eztabaida kontzeptuak, eta eztabaida bidezkoa egiteak ondorio filosofiko garbiak dauzka. «Eztabaidak lotura estua du erabaki garrantzitsuekin, edo bestela konponezinak direnekin, edo biekin» (Dryzek 2000: 174).

Arrazoibide horretan, eta puntu honetan ere bai, Euskal Herriko bake-prozesuari buruz ari naiz zuzenean, eta espero izatekoa da prozesu zaila izatea, desadostasunak sortuko direlako ezinbestean. Dena den, bake-prozesu bidezko eta berdintasunezkoa sortzeko aukera ematen duen bide bat bilatu beharra daukagu, horrela, «erabakitze-prozesu libre, berdintasunezko eta kolektiboa» taxutzeko (Stotsky 1999: 161). Horixe da emaitza onak lortzeko ezinbesteko gutxienekoa.

Baina erabaki bidezko eta berdintasunezko horrek funtzionatuko badu eta eraginkorra izango bada, «autonomia autogobernurako ahalmenak gauzatzean» oinarritzen dela onartu beharko dugu edo, bestela, Stotzkyk dioen moduan (1999: 162):

Pertsona libreek [autogobernurako] ahalmenak dituzte eta ahalmen horiek onartzen zaizkie. Kide guztiak askatasunean erabakitze aukera dutela ziurtatzera bideratutako antolamendu politiko batean, zilegizkoa da antolamendu horretako kideek espero izatea antolamendu horrek ahalmen horiek gauzatzeko aukera emateaz gain, autonomia ahalbidetu eta bultzatzea ere.

Bakearen aldeko eztabaida bideragarria izatekotan, jendeak autogobernurako eta autodeterminaziorako eskubidea duela onartu beharko da. Ondorioz, norbanakoen autonomiak eta askatasunak auzi honetan benetan zein ondorio dituen ulertu beharra dago ezinbestean, nire iritziz. Iruditzen zait Euskal Herriko bake-prozesuan eragile politiko eta sozialek prozesuaren ondorio filosofikoak definitzen aurrera egin beharra daukatela, eta prozesuak euskaldun guztien geroan izango dituen ondorioak ere zehaztu beharko dituzte. «Askatasun kontzeptuan» sakontzearen, ideien historiako funtsezko pentsatzaileetako bat izandako Isaiah Berlinen zenbait ideia hartuko ditut. Hauxe esan zuen askatasunari buruz:

Askatasun sozial zein politikoa gizakion ideal zaharretakoa da eta, lehen begiratuan behintzat, ulergarriena ere bada. Askatasun-nahia gizabanako nahiz taldeen beste gizabanako nahiz taldeen esku-hartzerik ez jasateko nahia da

beste ezeren aurretik. Horixe da bere esanahi nabarmenena eta gainerako interpretazio guztiak artifizialak edo metaforikoak dira (Berlin 2006: 88).

Nire ustez, pertsona eta intelektual gutxik aldarrikatu dute *askatasun* kontzeptua Isaiiah Berlinek adinako adierazgarritasunez. Gainera, Berlinek *askatasun* kontzeptuaren inguruko azterketa historiko batean oinarritu zituen bere ideiak, ideal hori liberalismo eta erromanizismo ideologiaren bidez nola sortu zen frogatzeko. «Norbanakoen autonomiaren ideala», adibidez, «XVIII. mendeko pentsamendutik» sortu zen, eta bi gailur izan zituen: Ameriketako Estatu Batuetako Independentzia Adierazpena eta Frantziako I. Errepublikako «gizakien eta herritarren eskubideetan» (Berlin 2006: 156). Berlinek dioenez (2006: 156), «autonomia politikoa kontzeptu negatiboa da: autonomia hori eskatzea esparru jakin batean pertsona bati nahi duena egitea ez debekatzeko eskatzea bezalakoa da, hots, debekurik ez, nahi duguna egiteko edo ez egiteko ahalmen osoa. Funtsean, *norbanakoen autonomia* kontzeptua ideia honetan oinarritzen da: erabateko zoriona lortzeko gizartean arau batzuk jarri behar dira, autonomia hori urratzea galarazteko eta beste inori norbanakoen autonomiaren esparruan sartzen ez uzteko. Arau horiek emandako eskubideen tankera hartzen dute, eta gure bizia babestu, jabegoak babestu, askatasunez pentsatu eta hitz egiteko ahalmena, lanpostu bat lortzekoa edo komunitateko «bizitza politiko eta sozialean» parte hartzeko eskubidea arautzen dute (Berlin 2006: 2006).

Autonomia politikoa, bere adiera politiko eta ez metaforikoan, beste inor guri dagokigun esparruan esku hartzen ez duela esan nahi du. Autonomia zibilak, berriz, jokabide-arau edo, kodeak «naturala» nahiz «positiboa» beste inoren esku-hartzetik babesten dituen esparruak arautzen ditu, dituen esparruak, kode edo arau horren helburua zein den arabera betiere (Berlin 2006: 158).

110

Askatasunaren kontzeptualizazio negatiboa aipatzen duenean, Berlinek aditzera ematen duena hauxe da: askatasunak «halakoren aurkako askatasuna» eta norbanakoen autonomia «halakoren aurrean norbanakoak duen autonomia» esan nahi dutela, hots, «esku hartu nahi dutenen aurrean dugun askatasuna, gure kontuetan esku hartu nahi duten gizabanakoen aurrean dugun askatasuna» (Berlin 2006: 160). Gure askatasuna eta norbanakoen autonomia beste inoren urraketatik babestuz, gizabanakoek gizarte zibil batean bizitzeko duten eskubidea babesten ari gara, halaber. Askatasunaren gaineko ikuspegi hori «askatasunaren kontzeptu positiboari» kontrajartzen zaio (Berlin 2006: 166). Hauxe da askatasun positiboa Berlinentzat «norbere burua errealitateak dituen joera aldaezinetara egokitzeko dotrina, errealitate horrek gu suntsitzea galarazteko». Hortaz, esku-hartzea berez hartzen ez duen kontzeptua da hori, «gatazkak adiskidetzeko» bitartekotzat hartzen du esku-hartzea, «gatazka horiek betiere ametsezkoak» direla dioen arren, eta, ondorioz, «ez dute konponbiderik behar gertatzen diren maila horretan» (2006: 166). Konnotazio horretan, askatasuna gizabanakoen barne-izaerari zuzentzen zaio, mundu materialetik aske dagoen izaera horri, «pentsatzaile kristau eta estoikoen» antzera, edo «haragiaren nahi guztiak eta gauzenganako maitasun guztia hiltzea» aldarrikatzen duen kontzeptu budistaren antzera (Berlin 2006: 168). Askatasunaren aurkako kontzeptu horiek, lehenbizikoa liberalismo politikotik sortua eta bigarrena kontzeptu filosofiko erromantikoetatik, agerian uzten dute Mendebaldean ideal horiek nola ikusten ditugun.

Giza eskubideak zer diren eta zer ez diren inguruko definizioa, esparru publikoan bakearen inguruko askapen bidezko eta berdintasunezkoa bultzatzeko beharra onartzea eta *askatasuna eta norbanakoen autonomia* kontzeptuak nondik datozen eta gaur egungo pentsamoldean nolako bilakaera izan duten ulertzea funtsezkoa eta ezinbestekoa da bake-prozesua garatzeko eta eragile politikoak buruan landutako ibilbide-orrietan aurrera egiteko. Euskaldunentzat bake-prozesuaren atzean ondorio eta itxaropen ugari daude.

Bake-negoiazioetako oztopoak: nola heldu bakeari Euskal Herrian

Euskal Herriko bake-prozesuak dituen aukerak aztertzeko garaian, ez dio inori esan nahi bake-prozesuan nola jokatu behar duen. Gainera, azpimarratu nahi dut, nire iritziz, bake-prozesuen inguruko inongo adituk edo bitartekarik ezin dutela prozesua euskaldunek beraiek baino hobeto definitu. Ondorioz, nire ideia guztiak Euskal Herriko bakearen aldeko ekintzaile baten ideietan oinarritzen dira. Gorka Espiauri buruz ari naiz, urteak daramatzana Euskal Herriko bake-prozesuaren alde lanean. Elkarriko nazioarteko harremanetarako arduraduna izan da, eta AEBetako Bakerako Institutuko ikerlaria izan zen, Jennings Randolph bekari esker. Espiauren iritzia aipatu arren, ez ditut beste inoren iritzien gainetik jarri nahi. Gainera, iruditzen zait aipagarriak direla Batasuna, eta haren inguruko guztiak, Eusko Jaurlaritza eta Euzko Alderdi Jeltzalea, guztiak ere pareko mintzakideak izanik Euskal Herrian bakea lortzerako bidean doan eztabaidan oinarritutako elkarrizketan. Laburbilduz, Espiauren iritzi batzuk aurkeztu eta eztabaidatuko ditut, eta erabakiak hartzeko esparru berriak proposatuko ditut.

AEBetako Bakerako Institutuaren txosten berezi batean, hauxe idatzi zuen Espiauk (2006: 9): «Espainiako eta EAeko gobernuak eta alderdi politiko nagusiek negoziazio barne-hartzailetan parte hartu nahi dute, baina aldeek erabakitzeke daukate oraindik gatazkaren oinarri politikoak eraldatzeko metodologia». Negoziazioak aurrera egingo badu, «negoziatu beharreko gaiak» adostu beharko dira, eta eztabaida ireki eta bidezko baterako eremu edo gune bat sortu beharko da, halaber. Aldeek ez dute zertan bat etorri alderdi politikoek edo eragile politikoek proposatutako «negoziatu beharreko gaien» inguruan. Baina oso garrantzitsua da alderdi politikorik ez gelditzea negoziazioetatik kanpo. Hortaz, Batasunak zeresan handia du bake-prozesuan.

Espiauren iritziz (2006: 10), bake-prozesuan garrantzia duten alde guztiek «ideia politikoak soilik bide baketsuetatik defenditzeko konpromiso argia» adierazi beharko lukete, gatazkaren biktima izandakoak ohoratu eta haien senideei parte hartzeko eskubidea ziurtatu, joera politiko guztiei parte hartzeko aukera eman eta ETAko presoan auziari erantzun beharko zaio». Gainera, auzi horien inguruko joera guztiak modu irekian defenditu beharko dira, eta beharrezkoa da onarpena ziurtatzea. Espainiako gobernuak Euskal Herriko alderdi politiko guztiak onartu behar ditu eta desberdintasunak ere bai, benetako adiskidetzeta ahalbidetu eta bake prozesuak ondorio iraunkorrak izan ditzan Euskal Herriko nahiz Espainiako gizarteentzat.

Burujabetzari edo subirautzari dagokienez, harreman zuzen eta publikoak behar dira EAeko, Nafarroako eta Espainiako gobernuen artean, eta EAeko gobernuak zuzenean Europar Batasunarekin elkarrizketatzeko aukera izan beharko luke. Bestela esanda, mugarik gabeko Europar Batasun baterantz goazen garai honetan, Euskal Herriari bere burujabetza izaten utzi behar zaio, Espainiaren mende egon gabe, europar estatuen federazioaren barruan jarduteko. Espiauk (2006: 10) bete-betean asmatzen du Espainiako, Frantziako eta Nafarroako euskal lurraldeen artean «euroeskualde» edo «euroerregio» bat proposatzen duenean. Eskualde hori lurralde guztien artean lehendik dauden lankidetzazko harremanetan oinarrituko litzateke, eta euskaldunek beren euroak egiteko eskubidea izango lukete, eta euroerregioko lurraldeetan Euskal Herriko ikurrak daramatzaten legezko billeteak erabiliko lirateke, Erresuma Batuan eskoziarrekin gertatu den bezala.

Gizarte zibilak negoziazioetan esku hartu ahal izateko, eztabaidan oinarritutako demokraziarako guneak sortu beharko lirateke, bai alderdientzat, bai eragile politikoentzat, bai herritar arruntentzat, horrela, euskal gizarte osoak parte hartzeko aukera izan dezan.

Bestalde, Espainiako gobernuak euskal lurraldeen aurka darabiltzan salbuespen-egoera guztiak ezabatu behar ditu, berdinen arteko negoziazio bidezko bat egiteko. Horrekin batera, preso politikoentzako amnistiaren gaia aztertu beharko da bai eta preso politikoek eskubiak bermatzeko modua ere.

Egiaren batzordeak eta adiskidetze-batzordeak ere eratu beharko lirateke, nire iritziz, prozesu zibiko bati ekiteko eta bake-prozesuaren baitan eztabaidan oinarritutako demokraziaren kontzeptua txertatzeko, Gainera, nazioarteko adituek ere esku hartu beharko lukete bake-prozesuaren bermatzaile bezala, emaitza alde guztientzat bidezkoa dela ziurtatzearen.

Espiauk prozesuaz egiten duen kontzeptualizazioa (2006) integrala da, oro har, eta alde guztientzat funtsezkoak diren auziak eta kezak azpimarratzen ditu. Aipatutako ekimenetatik abiatuta, etorkizunean nazio-erakuntzarako esparru berriak sortzeko, arreta handia jarri beharko litzateke, nire ustez, eztabaidan oinarritutako demokraziatik sortutako teoria politikoetan eta askatasuna eta norbanakoaren autonomia bezalako kontzeptu filosofikoetan.

Bake-prozesuetan agertu ohi diren oztopoek edo normalean azaltzen diren tranpek aldeetako bat xehetasunetan ez atzera ez aurrera gelditzea izaten dute helburutzat, edo elkarrizketari ekin aurretik alde aurretiko baldintza batzuk ezartzea, bestela. Elkarrizketa eraginkorra izango bada alde guztiak aintzat hartzea eta onartzea ezinbestekoa da eta, horrekin batera, nazioarteko adituek zuzendu dezaketen bake-prozesu bidezko eta irekia ziurtatu beharra dago, halaber. Bestalde, kontuan hartu behar dugu bake-prozesu guztiak zailak direla eta eragozpen eta oztopo ugari agertuko direla bidean. Horregatik, oso garrantzitsua da egonarria edo pazientzia. Horren arabera, ezin zaie lehentasuna eman batzuen iritzi eta jarrereri, besteenen gainetik. Denek eman behar dute amore zerbaitetan bakea lortzeko, eta bake-prozesua egonkorra izango bada alde guztiek zerbaitetan amore eman beharko dutela onartu beharko dute. Baina, ororen gainetik, Espainiako gobernuak euskaldunen eskubideak onartu behar ditu, haien hizkuntza zaharraren antzintasuna eta kulturaren originaltasuna oinarritzat hartuta, izan ere, euskal gatazka gainditzeko kausak antzeko aldarrikapenak dituzten beste talde batzuenak ez bezalakoak dira. Euskal jendearentzat bake-prozesuak adiskidetzea esan nahi du, hots, iragana eta oraina adiskidetzea, eta etorkizunera begira etorkizun hori eraikitzeko bitartekoak bilatzea.

Amaierako ondorioak

Txosten honen hasieran tranpei buruzko bi metafora aipatu ditut, hots, jendea nola murgiltzen den gatazka batzuetan, gatazka horietatik ateratzeko aukera handirik gabe, eta nola erabili daitekeen tranpen kontu hori zientzia politikoetan, nazioarteko harremanetan eta gatazken konponketan nagusi diren teoria abstraktu eta objektibatzaileak aztertzeko. Metafora agerian uztean, hots, tranpei ihesi egitean, Mozambikeko gerra zibiletik bizirik iraun zutenek gerrari aurre egiteko erabilitako modu kreatiboa eta beren bizimodua berre-raikitzeke egindakoa aipatu dut Carolyn Nordstrom etnografoaren adibideen bitartez. Esan dudanez bezala, gatazkek traumatizatutakoak iraganean kateatuta gelditzen dira nolabait ere, edo, bestela, iragan bortitz haren tranpa bizi dute orainean. Bestalde, gatazken konponezintasuna abstrakzioetik ulertzen saiatzeak indarkeriari lotutako errealitateak ulertzeko balio ez duela azaldu dut. Mozambikeko, Sri Lankako, Ipar Irlandako eta Palestinako gatazketatik ateratako adibideek erakusten digutenez, ikuspegi humanistak ez atzera ez aurrera dauden gatazkek ulertzen laguntzen digu. Gainera, frogatu dudanez, baketzearen inguruko aditu eta bitartekariak diskurtso kolonial eta patriarkalak izaten dituzte askotan, lagundu nahi dituzten haien inguruan. Bakearen inguruan nagusi diren ikuspegiak mendebaldeko ikusmoldea

islatzen dute bakarrik, eta ez dute azaltzen mendebaldeko moldeetatik kanpo munduak nola funtzionatzen duen, justizia-sistema ez-formalen bidez, adibidez. Ez dute azaltzen, ezta ere, mendebaldekoak ez diren ikuspegietatik zer ikasi genezakeen, haiek gugandik ikasi beharrean. Baketze eta bitartekaritza alorreko adituek beren ikerketak zientzia-munduan txertatzeko duten tema ere salatu dut, hori paradoxa hutsa delako «gizakiei» dagozkien gatazkak aztertzen ari diren aldetik. Halako azterketa gehienek sasi-zientziazkoak ematen dute, biologia merkea, hipotesi matematikoak, formula eta grafiko hutsalak eta gatazka konponezinen mailaketa eta bilakaerari buruzko metamorfosiak.

Kultura eta gatazkaren gaia aztertu dut nire txostenaren hasieran, eta erakutsi dut, zergatia azalduz, gatazken konponketako teoriariek huts egin dutela kultura kontzeptua zehaztean. Hutsegite hori bera aurkitzen dugu giza eskubideen inguruko teoria eta azterketetan ere, kontzeptu horiek edukirik gabe uzten dituztelako alderdi aldakor, negoziatu eta gatazkatsuak baztertearen ondorioz. Geroago azaldu dut antropologia askoz eraginkorragoa dela giza eskubideen gaia jorratzeko, eta bai independentziaren aldeko mugimenduek, bai bake-prozesu bati ekin nahi dietenek, Euskal Herrikoaz ari gara gure kasuan, «eztabaidan oinarritutako demokrazia»-ri buruzko teoria politikoa eta askatasuna eta norberaren autonomia bezalako printzipio filosofikoak bereganatu beharko lituzketela esan dut. Nire txostenaren amaiera aldean euskal bakezale baten ideietan eta nire gogoetetan oinarritutako zenbait alderdi aipatu ditut, nire ustez Euskal Herrian behin betiko bake-prozesu bat eratzekeo lagungarriak izango lirakeelako.

Oro har, erakutsi dut jendea harrapatuta gelditzen dela gatazka konponezinetan, eta azpimarratu dut oroimena oso erabilgarria dela gizarte jakin batean indarkeria iraunarazteko. Ideia batzuk eman ditut, halaber, gatazken inguruko tranpa humanistetan ez erortzeko. Bestalde, teoria batzuk teorizazio eta abstrakzioaren sare erakargarrietan nola erori diren azaldu ditut, teoria horiek tranpa intelektualtzat joaz. Erakutsi dut, halaber, gatazka bat ulertzeko askoz erabilgarriagoa dela kontakizun eta bizipenen berri jasotzea eta gatazkan dauden edo egondako esparruetan azterketa etnografikoak egitea. Horretarako, ezinbestekoa da eremu horietan egonaldi luzeak egitea. Gatazken inguruan gogoeta egiteko molde zehatz eta jakin batzuk bakarrik daudela edo eragile politiko eta sozialek konponezina dirudien gatazka batetik ateratzerik ez dagoela pentsatzea tranpa intelektual hutsak dira.

Nire ideiak euskal gatazkan esku hartzen duten eragileei bake-prozesurako interesgarriak eta erabilgarriak izango zaizkiela espero dut. Hala, euskal gatazkaren inguruan gogoeta bultzatzeko eta etorkizuneko Euskal Herrirako bake-prozesu bat eraikitzekeo tresna analitiko batzuk emanez, Euskal Herriko bake-prozesuan zerbaitetan lagundu izana espero dut, beraz.

Eranskina

[Lehengo ondorioei eranskin hau gaineratu nahi nieke]. J. P. Linstrothen artikulua-
ren laburpena. Izenburua: «Bakerako Euskal Bideak: egunsenti berri baterantz, hasiera
berri baterantz *Journal of Peace and Conflict Studies*, (2006ko azaroa), 4-6 orr.:

«Baketzearen alorreko ikerlari eta adituak garenez, ezinbestekoa da deskribatzen ari
garen kulturak ulertzea, eta horietan ahots aktiboak –hau da, kultur mentalitatearen adie-
razpen guztiak– aurkitzea. Orduan bakarrik ulertu ditzakegu ikuspuntu subjektibo batetik
bertakoek adiskidetzeaz eta konpontzeaz dituzten kontzeptuak. Irudi horiek behar ditugu;
ez hirugarrenei hartutako gezurrezko kontzeptu oso moralizatzaileetan oinarritutakoak,
gizarteen kultura-oinarrian txertatutako giza kezka sakonetan oinarritutakoak baizik, eta
horrek dituen ikuspuntu desberdinak kontuan izanda. Beste kultura batzuetako historiak
kontatzen baditugu, gure iritziak, ahal den neurrian, errespetuan eta enpatian oinarritu be-
har dira, errealtatearen esentzia ulertzen saiatzeko, eta orduan bakarrik deitu diezaiokegu
horri «bakea»¹ Hori dela-eta, Euskal Herriko bake-prozesuan pentsatzen dudanean, bertako
hizkuntzan ideiak antolatzeke duten moduan pentsatzen dut, eta euskaraz –indoeuroparren
aurreko hizkuntza bakarretako bat, Europa mendebaldeko zaharrena, agian– kontzeptuei
ematen zaien esanahian.

Bidaia ezezagun horri ekiten diotenean, elkarren laguntza eta adiskidetasuna bilatuko
dute, nolabaiteko «harmonia» (gogaidetasuna) lortzeko. Are zailagoa da haientzat «bestea»
(aurkakoa), Espainia eta Frantzia, prozesuaren partaide gisa gaineratzeko modua aurkitzea.
Hori dela-eta Espainiak eta Frantziak erabaki behar dute nola onartzen dioten autonomia
handiagoa Euskal Herriari –baita independentzia ere agian– Europa berriaren barruan, mu-
garik gabeko European, europar estatuen federazio berrian.

114

Laburbilduz, bakea lortzeko modu bakarra komunikazioaren eta elkarrizketaren bidea
da. Horren ondorioz, abentura horretarako Euskal Herriak eta Espainiak Irlandaren eredu
aintzat hartzen badute, konturatu beharko dute adimen zabala eta alderdi politiko guztien
arteko elkarrizketa oinarritzko osagaiak direla adiskidetzeko, adiskidetasunerako eta gatazka-
ren konponbiderako. Irlandak, besteak beste, honako irakaspina ematen digu: konfiantzazko
gune bat sortu behar da, itxuraz bakar bat ere ez dagoen arren. Halaber, ezinbestekoa da
«errespetua» (begirunea)–alderdi guztiei entzuteko, pazientzia izateko eta elkarrizketak bere
bidea egin dezan uzteko zabaltasuna— sustatzea. Horren ondorioz, iraganeko desadosta-
sunak ahaztu behar dira eta bakea eraiki behar da, adreiluz adreilu, astiro eta «lasaitasun
handiz» (lasai-lasai). Bakerako bidea, finean, luzea eta nekeza da.

Bake prozesu bat edo elkarrizketa-mahai bat baino askoz gehiago dago jokoan, «gizarte
baketsu» baten sorrera dago jokoan, eta hori hil edo bizikoa da. Bake benetako, praktikoa eta
iraunkorra eraikitzea artea eta zientzia baino askoz gehiago da, eta printzipioak aldatzarekin,
balio-sistemak eta sinesmenak aldatzarekin eta ingurune baketsu batean bizitzeko nahiarekin du
zerikusia. Geure buruari honako galdera egin geniezaioke: zer dira eta nola kontzeptualizatzen
ditugu gizarte baketsuak?

¹ Euskaraz jatorrizkoan.

Hori lortzeko, noski, borrokarako eta gerrarako gaitasuna bertan behera utzi behar da, gatazka iraunarazteko joerarekin batera. Finean «bakegile» izan behar dugu. Horrez gain, ETAk bere «ekintzak» gelditu beharko ditu, armak, bahiketak eta iraultza-zerga alboratzeaz gainera. Horrez gain, Espainiak polizien kopurua murriztu beharko du Euskadin, eta terrorismoaren aurkako politika eta konstituzioaren aurkakoak diren legeak indargabetu beharko ditu, bereziki habeas corpus prozedura deuseztatzen dutenak eta salbuespen-egoerak onartzen dituztenak. Halaber, Espainiako Gobernuak terrorismoarekin lotzen dituen eta iraganean ETA sostengatzen zuten alderdi politikoak (Batasuna) legeztatu behar dira». Gainera, amnistia eman behar zaie errefuxiatu politikoei, hau da, atzerrian bizi diren ekintzaileei.

Izan ere, Estatuaren ekintza horiek guztiak Frankoren diktaduraren hondar ikaragarriak dira; Estatu totalitarioaren presentzia XXI. mendean, alegia. Finean, hasiera berriaren oinarria amore emateek osatzen dute, elkarri egin beharreko amore emateek, nahiz eta batzuetan bereziki mingarriak izan».

Bibliografía

ANDERSON, BENEDICT

(1991 new edn.). *Imagined Communities: reflections on the origin and spread of nationalism*. Londres: Verso.

AUGSBURGER, DAVID W.

(1992). *Conflict Mediation Across Cultures: pathways and patterns*. Londres: Westminster John Knox Press.

AVRUCH, KEVIN

(1998, new edn. 2004). *Culture & Conflict Resolution*. Washington, DC, EE.UU. Institute of Peace.

AVRUCH, KEVIN Y BLACK, PETER W.

(2001). «Conflict Resolution in Intercultural Settings: problems and prospects» in *The Conflict and Culture Reader*, (ed.) Pat K. Chew. Nueva York: New York University Press, pp. 7-14.

AZAR, EDWARD E.

(1990). *The Management of Protracted Social Conflict: theory and cases*. Aldershot, GB: Dartmouth Publishing Co. Ltd.

BANKS, MARCUS

(1996). *Ethnicity: anthropological constructions*. Londres: Routledge.

BERLIN, SIR ISAIAH

(ed. Henry Hardy) (2006). *Political Ideas in the Romantic Age: their rise and influence on modern thought*. Princeton: Princeton University Press [basado en su manuscrito no publicado de 1952].

BLOCH, MAURICE E. F.

(1998). *How We Think They Think: anthropological approaches to cognition, memory and literacy*. Oxford: Westview Press.

BOULDING, ELISE

(1988, new edn. 1990). *Building a Global Civic Culture: education for an interdependent world*. Syracuse: Syracuse University Press.

BOURDIEU, PIERRE

(1988). *Homo Academicus*. Stanford: Stanford University Press.

BUCAILLE, LAETITIA

(2004). *Growing Up Palestinian: Israeli occupation and the Intifada generation*. Princeton: Princeton University Press.

BURTON, JOHN W.

(1987). *Resolving Deep-Rooted Conflict: a handbook*. Lanham, EE.UU.: University Press of America.

CHEW, PAT K. (ED.)

(2001). *The Conflict and Culture Reader*. Nueva York: New York University Press.
Clifford, James (1988). *The Predicament of Culture: twentieth-century ethnography, literature, and art*. Cambridge, EE.UU.: Harvard University Press.

COWAN, JANE K., DEMBOUR, MARIE-BÉNÉDICTE, Y WILSON, RICHARD A. (EDS)

(2001). *Culture and Rights: anthropological perspectives*. Cambridge: Cambridge University Press.

- CROCKER, CHESTER A., HAMPSON, FEN OSLER, AND AALL, PAMELA
 (2004). *Taming Intractable Conflicts: mediation in the hardest cases*. Washington, DC: EE.UU. Institute of Peace Press.
- (eds.) (2005). *Grasping the Nettle: analyzing cases of intractable conflict*. Washington, DC: EE.UU. Institute of Peace Press.
- DANIEL, E. VALENTINE
 (1996). *Charred Lullabies: chapters in an anthropology of violence*. Princeton: Princeton University Press.
- DIAMOND, LOUISE Y McDONALD, JOHN
 (1996, 3ª edn). *Multi-Track Diplomacy: a systems approach to peace*. West Hartford, EE.UU.: Kumarian Press.
- DRYZEK, JOHN S.
 (2000). *Deliberative Democracy and Beyond: liberals, critics, contestations*. Oxford: Oxford University Press.
- ESPIAU IDOIAGA, GORKA
 (2006). «The Basque Conflict: new ideas and prospects for peace». En Special Report: United States Institute of Peace (USIP), N.º 161. Washington, DC: EE.UU. Institute of Peace Press, pp. 1-12.
- FELDMAN, ALLEN
 (1991). *Formations of Violence: the narrative of the body and political terror in Northern Ireland*. Chicago: University of Chicago Press.
- FISHER, ROGER Y URY, WILLIAM
 (1991, orig. 1981). *Getting to Yes: negotiating agreement without giving in*. Nueva York: Penguin Books.
- FRY, DOUGLAS P.
 (2006). *The Human Potential for Peace: an anthropological challenge to assumptions about war and violence*. Oxford: Oxford University Press.
- GALTUNG, JOHAN
 (2000). «Conflict, War and Peace: a bird's eye view», en *Searching for Peace: the road to TRANSCEND*, (eds.) Johan Galtung, Carl G. Jacobsen, y Kai Frithjof Brand-Jacobsen. Londres: Pluto Press.
- GALTUNG, JOHAN, JACOBSEN, CARL G. Y BRAND-JACOBSEN, KAI FRITHJOF (EDS.)
 (2000). *Searching for Peace: the road to TRANSCEND*, Londres: Pluto Press.
- GELL, ALFRED
 (1999, nueva edn. 2006). «Vogel's Net: traps as artworks and artworks as traps», en *The Art of Anthropology: essays and diagrams*, Alfred Gell (ed, Eric Hirsch). Oxford: Berg, pp. 187-214.
- IBARRETXE MARKUARTU, JUAN JOSÉ
 (2006). Speech by the Lehendakari (President) of the Basque Government. Sin publicar, Washington, DC: EE.UU. Institute of Peace, 6 de junio.
- JENKINS, RICHARD
 (1997). *Rethinking Ethnicity: arguments and explorations*. Londres: SAGE Publications Ltd.
- KEMP, GRAHAM Y FRY, DOUGLAS P. (EDS.)
 (2004). *Keeping the Peace: conflict resolution and peaceful societies around the world*. Londres: Routledge.

- KOH, HAROLD HONGJU Y SLYE, RONALD C. (EDS)
(1999) *Deliberative Democracy and Human Rights*. New Haven: Yale University Press.
- KRIESBER, LOUIS, NORTHRUP, TERREL A., Y THOMPSON, STUART J. (EDS).
(1989). *Intractable Conflicts and Their Transformation*. Syracuse: Syracuse University Press.
- LAIDLAW, JAMES
(2004). «Introduction», en *Ritual and Memory: toward a comparative anthropology of religion*, (eds) Whitehouse, Harvey y Laidlaw, James. Oxford: Altamira Press.
- LEDERACH, JOHN PAUL
(1995). *Preparing for Peace: conflict transformation across cultures*, Syracuse: Syracuse University Press.
- LEVINE, ROBERT A.
(2000). «Epilogue», en *Cultures Under Siege: collective violence and trauma*, (eds.) Robben, Antonius C. G. M. y Suárez-Orozco, Marcelo M. Cambridge: Cambridge University Press.
- LINSTROTH, J. P.
(Próximamente). «COMMENTARY: Basque Avenues Toward Peace: building a new road to a new dawn, a new beginning» en *Journal of Peace and Conflict Studies* (PCS), Fall Issue, vol. 13, núm. 2.
—(2006). Especial: «La Tregua desde los E.E.U.U.», *Revista Elkarri*, pp. 42-46, mayo.
—(2005). «An Introductory Essay: Are We in ‘The Age of Resistance’», en a Post-9/11 World?, introducción Special Issue of the Peace and Conflict Studies Journal, vol. 12, núm. 2 (Fall Issue), pp. 1-54.
—(2002a). «Basque Imagination and Commemorative Identity: local history and every day life in relation to the Hondarrribian ‘Alarde’ (1638-2000)», Tesis doctoral no publicada, Institute of Social and Cultural Anthropology, University of Oxford, Oxford (Reino Unido).
—(2002b). «The Basque Conflict Globally Speaking: material culture, media and Basque identity in the wider world», *Oxford Development Studies*, 30 (2): 205-222.
—(2002c). «History, Tradition, and Memory among the Basques», *History and Anthropology*, 13 (3): 159-189.
- MEDEM, JULIO
(2003). Película: *Euskal Pilota: larrua harriaren kontra/La Pelota Vasca: la piel contra la piedra*. PAL/Region [110 mins; 417 mins. en version extendida].
- MESSER, ELLEN
(2002). «Anthropologists in a Wider World with and without Human Rights», en *Exotic No More: anthropology on the front lines*, (ed) Jeremy MacClancy. Chicago: University of Chicago Press, pp. 319-337.
- MITCHELL, CHRISTOPHER R.
(1997). «Intractable Conflicts: keys to treatment», *Gernika Gogoratuz*, ensayo n.º 10, 1-17.
- NORDSTROM, CAROLYN
(1997). *A Different Kind of War Story*. Philadelphia: University of Pennsylvania Press.
- ROBBEN, ANTONIUS C. G. M. Y SUÁREZ-OROZCO, MARCELO M. (EDS.)

(2000). *Cultures Under Siege: collective violence and trauma*. Cambridge: Cambridge University Press.

RUBIN, JEFFREY Z. Y SANDER, FRANK E. A.

(2001). «Culture, Negotiation, and the Eye of the Beholder», en *The Conflict and Culture Reader*, (ed.) Pat K. Chew. Nueva York: New York University Press, pp. 15-16.

SANSONE, LIVIO

(2003). *Blackness without Ethnicity: constructing race in Brazil*. Nueva York: Palgrave Macmillan.

STOTZKY, IRWIN P.

(1999). «Creating the Conditions for Democracy», en *Deliberative Democracy and Human Rights*, (eds) Koh, Harold Hongju y Slye, Ronald C. New Haven: Yale University Press.

STRATHERN, ANDREW, STEWART, PAMELA J., Y WHITEHEAD, NEIL L. (EDS.)

(2006). *Terror and Violence: imagination and the Unimaginable*. Londres: Pluto Press.

WHITEHEAD, ALFRED NORTH

(orig. 1925, 1967). *Science and the Modern World*. Nueva York: The Free Press.

WHITEHOUSE, HARVEY

(1995). *Inside the Cult: religious innovation and transmission in Papua New Guinea*. Oxford: Clarendon Press.

WILSON, RICHARD ASHBY Y MITCHELL, JON P. (EDS)

Human Rights in Global Perspective: anthropological studies of rights, claims and entitlements. Londres: Routledge.

WIMMER, ANDREAS

(2002). *Nationalist Exclusion and Ethnic Conflict: shadows of modernity*. Cambridge: Cambridge University Press.

ZARTMAN, I. WILLIAM

(2005). «Analyzing Intractability» en *Grasping the Nettle: analyzing cases of intractable conflict*, (eds.) Crocker, Chester A., Hampson, Fen Osler, y Aall, Pamela. Washington, DC: EE.UU. Institute of Peace, pp. 47-64.

—(2001). «The Timing of Peace Initiatives: hurting stalemates and ripe moments», *The Global Review of Ethnopolitics*, vol. 1, núm. 1, 8-18.


Zulaika, Joseba y Douglass, William A.

(1996). *Terror and Taboo: the follies, fables, and faces of terrorism*. Londres: Routledge.

119

Oharrak

¹ Alfred Gellen artikulu bikainak eragin handia izan zuen. Artikulu honi buruz ari gara: «Vogel's Net: traps as artworks and artworks as trap» (1999, arg. berria: 2006). *Journal of Material Culture* (1. lib. [1]: 15-38) aldizkarian argitaratu zen lehenbiziko aldiz, eta Gell hil ondorenean berriro argitaratu zuten saiakera-bilduma batean: *The Art of Anthropology: essays and diagrams* (arg. Eric Hirsch), 187-214. or.



Ipar Irlanda: Northern Ireland Human Rights Commission batzordearen esperientziak

BRICE DICKSON JN.¹

Ipar Irlandako Giza Eskubideen Batzordeko Lehen Zuzendaria (1998-2005).

Ipar Irlandako Queen's University-ko Nazioarteko Zuzenbideko eta Zuzenbide Konparatuko irakaslea

Brice Dickson-ek urteak eman ditu 1970eko hamarkadatik hona giza eskubideen alde ikertzen eta kanpaina egiten, legelari eta karrerako abokatu gisa. Irakaskuntzaren aldetik, zuzenbide-eskolak eman ditu Erresuma Batuko hiru unibertsitatetan (Leicester-en, Ulster-en eta Belfast-en), eta bi urtez aritu da zuzenbidea ikasten Frantzia eta Alemanian.

1990etik 1996ra bitartean Ipar Irlandako Aukera Berdintasunerako Batzordeko kide izan zen, eta ondoren Ipar Irlandako Giza Eskubideen Batzordeko Lehendakari. Erakunde hori Ipar Irlandan 1998an sinaturiko bake-akordioaren ondorioz sortu zen.

Bere kargutik, mundu zabaleko giza eskubideak eraginkortasunez babestuko dituzten erakundeak sortzearen defendatzaile sutsua izan da. 2005eko martxotik irakasle dihardu Queen's-eko Unibertsitatean, Belfasten (Ipar Irlanda) eta Nazioarteko Zuzenbide Konparatuko eskolak ematen ditu bertan.



CURRICULUMA

LABURPENA

Nire txostenean, bi gobernuentzat (Eusko Jaurlaritzarentzat eta Espainiako Gobernuarentzat) oso baliotsuak izan daitezkeen irakasgaiak landuko ditut, Ipar Irlandako Giza Eskubideen Batzordean bake-akordioaren lehenengo urteetan izan genuen esperientzian oinarrituta.

Hauek dira gai nagusiak:

Euskal Herrian giza eskubideak babesteko erakundea sortzen bada, funtsezkoa izango da behar beste boterez eta baliabidez hornitzea, izango dituen erronkei behar bezala aurre egiteko;

Botereetako bat kasuak auzitegietara eraman ahal izatea izango litzateke;

Giza Eskubideen inguruko erakunde berria iraganean gertatutako giza eskubideen urraketez ere arduratuko litzateke. Hala ere, erakundeak Euskal Herrian adiskidetzeko eta egia bilatzeko prozesuan zeresana izan behar duela erabakiz gero, kontu hori argi eta garbi zehaztu beharko litzateke eta erakundeari eginkizun hori aurrera eramateko behar dituen bitarteko zehatzak eta derrigorrezko eskumenak eman;

Erakunde berriak nazioartean dauden giza eskubide guztiak sustatu eta babesteko konpromisoa hartuko luke, berdintasun eta justizia ekonomiko eta sozialaren alorrean ezarritako arauak barne.

Ipar Irlanda: Northern Ireland Human Rights Commission batzordearen esperientziak

Sarrera

Artikulu honetan, hausnarketa sakon bat egiten dut. Nire ustea da Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak, eta Euskal Herriko gizarte zibilak berak ere, ikasgai onuragarriak ikas ditzaketela bake hitzarmen bat inplementatzen zen lehen urteetan Ipar Irlandako Giza Eskubideen Batzordeak (IIGEB) bere lanean irabazi zuen esperientziatik. Hausnarketa hau egitean, badakit Ipar Irlandan eta Euskal Herrian ez dauzkatela zirkunstantzia berak, eta arriskutsua dela pentsatzea testuinguru batean egokiak diren erakundeak inolako zailtasunik gabe alda daitezkeela beste testuinguru desberdin batera.

Testuingurua

IIGEB 1999ko martxoaren 1ean eratu zen ofizialki. Horren sorrera 1998ko apirilaren 10eko (Ostiral Santuko) Belfastko Akordioan zuten agindua, eta agintzari hori betetzeko legeria (1998ko Ipar Irlanda Legea) 1998ko azaroaren 19 zuten onartua. Jardun osoko lehen Batzordeburuaren (idazle hau) eta jardun zatituko beste bederati batzordekideren izendapena 1999 hasieran iragarri zen. Jatorrizko 10 batzordekideetatik, bost emakumeak ziren, eta bost, gizonak; sei komunitate protestantekotzat jotzen ziren, eta lau, komunitate katolikokotzat². Ipar Irlandaren ardura zeukan Britainiar Gobernuako ministroak (orduan Estatu Idazkari zen Mo Mowlam doktorea) izendatu zituen guztiak, baina hamarrek iragarki publiko bati erantzunda eskatu zuten postua, eta jende talde batek elkarrizketatu zituen aurretik; elkarrizketagile horietatik, bakarra zen gobernu funtzionarioa, beste guztiak kanpoko herritar profanoak baitziren.

IIGEB ez zen izan Ipar Irlandan giza eskubideen alorrean aritzeko izendatutako lehen erakunde ofiziala. 1973ko Ipar Irlandako istiluak konpontzeko lehenagoko ahalegin baten ondoren, Giza Eskubideen gaineko Batzorde Aholku-emaile Iraunkorra (GEBAI) sortu zen 1974an³. Horrek bizirik jarraitu zuen, harik eta 1999an IIGEBek ordezkatu zuen arte.

Zergatik behar zen erakunde berria? Nagusiki behatzaile askok ahula eta eraginik gabea zekusatelako GEBAI; iruditzen zitzaien GEBAIk ez zuela ia batere hobetu giza eskubideen egoera Ipar Irlandan bere 25 urteko bizitzan. Aitortzen zen erakunde horrek lan ona egin izan zuela diskriminazio politikoaren eta erlijiozkoaren alorrean; eragin handia izan zuela arlo horietan 1976an, 1989an eta 1998an onartu ziren lege sendo berrietan, baina ez zuela beharbada asko lortu terrorismoaren aurkako legeriaren, legeria penalaren eta konpentsazio lege zibilararen alorrean, ez eta Ipar Irlandarako Eskubideen Deklarazio bat osatzeko lanean ere⁴. Arrakastarik ezaren atzean ondoko arrazoi hauek zeuden, askoren iritziz: a) baliabiderik eza, eta horrek esan nahi du soilik bi edo hiru langile eduki ohi zituztela normalean, eta jardun osoko batzordekide bakar bat ere ez; b) botererik eza, eta horrek esan nahi du, haren izenak berak dioen bezala, aholku emate hutsera mugatzen zela erakundeak; c) gobernu

eta parlamentu munduek errespeturik ez izatea erakundearen ikuspegiekiko, eta bada gainera hori oso ongi islatzen duen datu bat: GEBAIren historian, behin bakarrik eztabaidatu zen haren txosten bat Westminsterreko Parlamentuan. GEBAIren bizitzan zehar, Britainiar Gobernuak zuzenean agindu zuen Ipar Irlandan: Ipar Irlandako indarkeria amaitzeko ahalegin guztiek eta hango alderdiek bertako Erakunde batean boterea partekatzeke ahaleginak ere porrot egin zuten, 1974 hasierako aldi labur batean izan ezik⁵.

Azkenean, 1980. hamarkadako azken urteetan hasi ziren Ipar Irlandan bake akordio iraunkor bat sortzeko negoziazioak. Negoziatioetan sartuta zeuden batzuek azpimarratu zuten Britainiar Gobernuak oso lan txarra egin izan zuela Ipar Irlandan giza eskubideak babesteko lanean, eta horregatik iraun izan zutela istiluek. Nagusiki alderdi nazionalistek esan zuten hori, hau da, Alderdi Sozialdemokratik eta Sinn Feinek, baina baita askatasun zibilengatik eta justiziagatik arduratuta zeuden pertsonak eta gobernuz kanpoko erakundeek ere. Alderdi unionistek, eta Britainiar Gobernuak berak ere, ez zuten partekatzen iritzi hori. Giza eskubideen aldeko militanten eskari nagusietako bat zen Eskubideen Deklarazio bat jarri behar zela indarrean Ipar Irlandarako, hots, Parlamentuaren Lege bat behar zela Ipar Irlandako pertsona guztiei giza eskubide guztiak bermatzeko, nazioarteko giza eskubideen hitzarmenetan jasota zegoen bezala. Eta ondoko hitzarmenak aipatzen ziren: Giza Eskubideen Europako Konbentzioa, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Hitzarmena eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Hitzarmena⁶.

Zein ziren giza eskubideen inguruko kezka nagusiak Ipar Irlandan garai horretan? Asko istiluekin zeuden lotuta, eta hauek ziren, besteak beste:

Polizien indarkeria, bereziki egiazko eta plastikozko balen erabilpena;

terrorismoaren aurkako «larrialdiko» legeak erabiltzea pertsonak eta etxeak miazteko, galdekatu nahi ziren susmagarriak atxilotzeko eta susmagarriei epaimahairik gabeko epaiketak egiteko («Diplock» auzitegiak zeritzetenetan); eta

poliziak eta beste segurtasun zerbitzu batzuek legez kanpoko erakunde paramilitar protestanteetako kideekin zeukaten harreman estua, lehenek maiz salatari gisa erabiltzen baitzituzten bigarrenak.

Giza eskubideen aldeko militante gehienak ez zeuden kezkatuak, garai horretan, legez kanpoko erakundeek egindako giza eskubideen urraketekin. Legez kanpoko erakunde nagusiak ondokoak ziren: Irlandar Armada Errepublikarra (IRA), Irlandako Nazio Askapen Armada (INLA), Ulsterren Defentsarako Elkarte (UDA) eta Ulsterreko Boluntarioen Indarra (UVF). 1999rako, modu esanguratsuan jaitsi ziren talde horien hilketak eta bonbarasoak, 1994ko eta 1997ko su-eten deien ondoren⁷, baina «zigor erasoak» zeritzetenak lehenago bezain ugariak ziren. Eraso horietan, gizonezko gazteak izaten ziren biktimak ia beti, eta beisboleko makilaz egurtzen zituzten edo tiro ematen zieten belaunean, orkatilan edo ukondoan, beren ustezko jokabide antisozialagatik⁸.

Aipatu militanteek gero eta kezka handiagoz ikusten zituzten istilu politikoen loturarik ez zuten beste giza eskubide gai batzuk: haurren eskubideak, Irlandar Alderriaren eta beste gutxiengo etniko batzuen eskubideak, pertsona ezinduen eskubideak, emakumeen eskubideak. Eta gauza jakingarri bat: Ipar Irlandan emakume batek nekez lortzea abortatzeko eskubidea ez zen askotan aipatzen. Giza eskubideen aldeko erakunde militante gehienak ohartu ziren abortatzea hain zela gai minbera beren kideentzat, hura aipatze hutsak ere erakunde zati baitzezakeen⁹.

1998ko bake akordioaren eta Ipar Irlandan itzultitako gobernu berrezarri ondoren giza eskubideen arazoak behar bezala tratatuko zirela ziurtatzeko, giza eskubideen aldeko militante batzuek eskatu zuten giza eskubideen batzorde batez ordezkatu behar zela GEBAI, eta batzorde berriak gatazkatik irten berri diren herrietakoen (bereziki Hegoafrika) mailakoa izan behar zuela¹⁰. Batzorde horrek, gainera, 1993an Nazio Batuen Erakundeak giza eskubideen erakunde nazionalentzat onartutako arauak (Pariseko Printzipioak deritzetenak) bete beharko zituen¹¹. Aldi berean, presioa handitu zen beste erakunde batzuk ere sortzeko edo indartzeko, eta horiek ere, zuzenean nahiz zeharka, giza eskubideak babestu beharko zituzten Ipar Irlandan. Eztabaida sutu eta gogorak izan ziren Ostiral Santuko Akordioaren edukia idazteko 1998ko martxoan eta apirilean. Baina azken bertsioak bazekarren giza eskubideei buruzko atal bat¹².

Akordioari esker, hauek sortu ahal izan ziren: Ipar Irlandako Giza Eskubideen Batzordea (1999ko martxoa), Berdintasunerako Batzordea (1999ko urria)¹³, Polizia Arartekoa eta Zainketa Batzordea (2000ko azaroa), eta Justizia Penaleko Ikuskatzaileta (2002). Geroago, berriz Izendapen Judizialeko Komisario bat¹⁴, Polizia Gainbegiratzeko Komisario bat, Justizia Gainbegiratzeko Komisario bat eta Kontrol Batzorde Independente bat gehitu zitzaizkien aurrekoei¹⁵. Beste beharrezko erakunde batzuen eginkizuna ere berretsi zen. Horietan aipagarrienak: bisitari profano edo ez adituak joatea polizia-etxeetara, Ustezko Terrorista Atxilotuentzako Komisario Independentea eta Militarren Kexuen Prozeduretako Aholkulari Independentea. Biktimen Gorpuzkiak Aurkitzeko Batzorde Independente bat sortu zen 1999an, baina 2005 arte ez zuten izendatu Biktimen Komisario bat (eta eskumen mugatuak zituen). Giza Eskubideen Batzordea, beraz, bake prozesua gauzatzeko sortutako erakunde ugarietako bat bakarrik izan zen.

Garrantzitsua da gauza bat nabarmentzea: zeharo halabeharrez, Ipar Irlandako Giza Eskubideen Batzordea bere burua eratzten ari zen garai berean, Britainiar Parlamentuak Giza Eskubideen Legea (1998) onartu zuen Erresuma Batu osorako. Lege horren eraginez, Erresuma Batuko auzitegi eta epaimahai guztiek Giza Eskubideen Europako Konbentzioko giza eskubide gehienak bermatu behar zituzten. Horrela bete zen Alderdi Laboristak 1997ko hauteskunde orokorretarako lehian ari zenean emandako hitza. Garai horretan, Alderdi Kontserbadorea zegoen agintean, 1979tik. Giza Eskubideen Legeak ez zeukan inolako zerikusirik Ipar Irlandako bake akordioarekin. Legea 2000ko urrian sartu zen indarrean.

125

Giza Eskubideen Batzordearen eginkizuna

Batzordearen eginkizuna 1998ko Ipar Irlanda Legearen 69. atalean dago ezarrita. Honakoak egin behar ditu:

- Giza eskubideen babesarekin lotutako legeriaren eta praktiken egokitasuna eta eraginkortasuna aztertu;
- giza eskubideak babesteko hartu beharreko legegintza eta beste mota batzuetako neurriez aholku eman Estatu Idazkariari eta Ipar Irlandako Batzarreko Batzorde Exekutiboari;
- Batzararen lege proiektuak giza eskubideekin bateragarriak diren ohartarazi Batzarrari;
- Ipar Irlandan giza eskubideek duten garrantziaren ezagutza eta kontzientzia sustatu (eta, xede horrekin, finantza edo beste mota batzuetako laguntzak abia, eska edo eman ditzake, ikerketarako edo heziketa jardueretarako);

Ipar Irlandarako Eskubideen Deklarazio baterako eskubideak definitzeko gaien aholku eman;
Irlandako Giza Eskubideen Batzordearekin Batzorde Bateratu bat sortzeko ahal duen guztia egin.

Batzordeak ondokoak ere egin ditzake:

Banakoei laguntza eman eta giza eskubideen babesarekin lotutako legeengatik edo praktikengatik auzitara jo;
era horretako ikerketak egin, beharrezko edo komenigarri deritzonetan;
bere aholkuaren eta bere azterketaren nahiz ikerketen emaitzak argitaratzea erabaki.

Batzordeak aurrean dituen apustuak

IIGEB sortu zenean, batzuek uste zuten erakundeak lorpen handiak izango zituela giza eskubideen frontean. Baina ia berehala gelditu zen agerian Batzordeak gogor lan egin beharko zuela aztarna uzteko. Atzera begiratuta, uste dut lau faktore nagusigatik izan zela hori:

- Bake Akordioan aitortu bazen ere Giza Eskubideen Batzorde bat behar zela, garbi dago Akordioa negoziatzen lagundu zuten politikari unionistek ez zutela politikari nazionalistek bezain beharrezko ikusten Batzorde hori; Baliteke aipatu Batzordea unionistek egindako kontzesio bat izatea, ordainetan berek nahi zuten baina nazionalistek nahi ez zuten zerbait lortzeko; Batzordearen premiari buruzko adostasun falta horrekin batera, iritzi desberdinak zeuden gainera Batzordea osatzeko izendatutako pertsonen egokitasunaz.
- baliteke ondokoa heretikoa iruditzea batzuei, baina Ipar Irlandako giza eskubideen egoera 1999an ez zen erreforma gogor bat egiteko bezain *larria*; jakina, gauza asko aldatu behar ziren, baina hori bera zen kasua Erresuma Batuko beste toki batzuetan eta Irlandako Errepublikan bertan; legerian (polizia arautzen zuen legerian, esaterako) egin beharreko aldaketen gainean, Batzordeak berak ez zeukan ahalmenik aldaketa horiek indarrean jarrarazteko; dena dela, beste erakunde batzuk sortu ziren polizia erreforma egiteko;
- Batzordeari emandako ahalmenak eta baliabideak urriegiak izan ziren hasieratik;
- azkenean, iritzi desberdinak azaldu ziren Batzordekideen artean; ondokoak izan ziren zatiketa piztu zuten gaiak: nola egin kanpaina giza eskubideen alde? Zein lehentasun ezarri? Nolako oreka bilatu pertsonaren eskubideen eta gizartearen interesen artean?

Hitz batzuk esan behar dira faktore horietako bakoitzaz¹⁶.

Laguntza politikorik eza

Batzordearen lehenengo egunetatik bertatik, garbi ikusi zen politikari unionistak zirela sinesgogorrenak Batzordearen balioaz. Adibidez, Trimble jauna, Ipar Irlandako Gobernuko orduko Lehen Ministroa, guztiz aurka zegoen (bostekoa ere ez zidan ematen bileretan). Batzordeari asko kostatu zitzaion beti alderdi unionisten lankidetzaz lortzea, bai giza eskubideen gaien ekarpenak egin zitzaizkion, bai Ipar Irlandarako Eskubideen Deklarazio baterako proposamenak egin zitzaizkion (gai honetaz, behean ageri da gehiago).

Zehazki, arrazoi bategatik ez zeuden pozik politikari unionistak: Giza Eskubideen Batzordeko hainbeste kide (sei) Justizia Administrazioari buruzko Batzordean zeudelako edo berrikitan egonak zirelako. Azken batzorde hori gobernuz kanpoko zen, eta batzuek nazionalisten aldekoegia jotzen zuten, nahiz eta batzorde horretakoek bere gogor ukatu. Batzuek uste zuten, halaber, Giza Eskubideen Batzordean lege alorreko akademiko gehiegi (lau) zeudela, eta ez behar adina abokatu (bakarra). Akordioaren aurkako unionistek zioten, saminez, Batzordekideetako bakar bat ere ez zutela aldekoa, nahiz eta Ostiral Santuko Akordioaren erreferendumean (1998ko maiatza) bozkatu zuten lagunetatik % 28k haren aurka bozkatu, eta nahiz eta legez Batzordeak «zintzo ordezkatu behar zuen komunitatea». Unionista horiek zioten, halaber, Batzordekideetako batzuk protestante jatorrikoak zirela teoriarik, baina nazionalistak, limurtze politikoen ondorioz. Giza Eskubideen Batzordeak ahalegin handiak egin zituen kritika horiek gutxiesteko (egiazkoak izatekotan, Gobernuaren hutsa ziren, hark egin baitzuten izendapenak¹⁷), baina halere oztopo nabarmen eta amorragarri izan ziren Batzordearentzat bere bizitzako lehen sei urteetan.

Ez da, noski, ezohikoa alderdi politikoen kexua agertzea erakunde publikoetarako egindako izendapenez. Politikari hautatuak normalean minduta egoten dira beste pertsona batzuk hauteskundeetako proba gogorra igaro gabe heltzen direlako eragin handiko postuetara. Ipar Irlandan, gainera, beste arazo bat dago: legeriak maiz agintzen du erakunde publiko jakin batzuek, Giza Eskubideen Batzordeak barne, «zintzo ordezkatu behar dutela komunitatea». Orain arte, auzitegiek modu bakarrean interpretatu dute esaldi hori, hots, dagokion erakunde publikoko kideen erlijio-jatorriek Ipar Irlandako biztanleriaren erlijio-jatorriak islatu behar dituztela.

Orduko giza eskubide egoera

Ez da ahaztu behar gauza bat: 1999rako, beteak ziren aspaldi Ipar Irlandako giza eskubideen mugimenduek 1960. hamarkada hondarrean egiten zituzten jatorrizko eskariak. Bozkatzeko orduko eta etxebizitzaren esleipenetako diskriminazioak iraganeko kontua ziren, eta erlijioagatik edo politikagatik sektore publikoan nahiz pribatuan inor diskriminatzea eragozteko lege sendoek ere urteak zeramatzen indarrean¹⁸. Atxilotuen aurkako polizia ankerkeria ere amaitua zen. Artean zirauten giza eskubideen gaiak bi arlotan zentratzen ziren batez ere: terrorismoaren aurkako legeen aplikazioan (hots, miaketetan eta atxilotetan) egindako usteko gogorkeriak, eta legezko indar armatuen eta legez kanpoko paramilitar unionisten arteko lankidetzak. Horiek horrela, zaila izango zitzaion beti Batzordeari arrakasta handiak iristea giza eskubideen frontearen. Eskatu zituen, eta bai lortu ere, zuzenketa batzuk proposatutako lege, politika eta praktika batzuentzat, baina gutxitan heldu ziren komunikabideetako titularretara. Batzordeak lan asko egin zuen, halaber, polizia agenteei ematen zitzaien giza eskubide trebakuntza hobetzeko, eta txosten batzuk idatzi zituen gaiak, baina lan hori guztia itzalean gelditzen zen Polizia Arartekoaren bulego askoz boteretsuago eta hobeki hornituaren lanaren aurrean. 1999-2005 periodoan Giza Eskubideen Batzordeak egindako jardueren argibide osoa haren urteroko txostenetan eskaintzen da, eta on line dago¹⁹.

Batzordearen ahalmenak eta baliabideak

Batzordeari ahalmen eta baliabide urriak eman zitzaizkion hasiera-hasieratik. Baliabideei dagokienez, 750.000 libra esterlina bakarrik zen aurrekontua. Hori, egia da, aurreko GEBAIren urteko aurrekontuaren hirukoitza zen, baina oso gutxi, Batzordeak Ipar Irlandan benetako eragina izateko egin behar zituen ikerketetarako eta lanetarako. Batzordearen sei garren urtearen (2004-2005) hondarrerako, Batzordekideek eta beste batzuek presio politiko handia eginda, eta negozio plan sendoak aurkeztuta, 1.350.000 libra esterlinaraino igo

zioten urteko aurrekontua Batzordeari: jatorrian emandakoa baino % 80 gehiago. Hori, ordea, gutxi da oraindik, antzeko beste erakunde batzuen aurrekontuaren aldean²⁰.

Ahalmenei dagokienez, Batzordea ez zein izan hain zorionekoa. Bera sortu zuen legeriak agintzen zuen bezala, Batzordeak txosten bat igorri zion Gobernuari sortu eta handik bi urtera (2001). Txosten horretan, Batzordeak bere ahalmenak erabat berrikusi, eta erabaki zuen askoz ahalmen handiagoak behar zituela, benetan eraginkorra izango bazen giza eskubideen zaindari gisa. Gobernuak ez zion erantzun txosten horri beste 15 hilabete igaro arte, eta orduan kontsulta-agiri bat banatuz egin zuen, eta 2002ko abuztua arteko epea eman zion jendeari erantzuteko. Haren ondoren, Batzordeak presio politiko gehiago egin arren (2004an bere ahalmenen berrikuspen osagarri bat igortzea barne), ez zen ezer berririk gertatu 2004ko abendura arte. Data horretan, Gobernuak iragarri zuen atxilotuen guneetara sartzeko eskubidea eman behar ziola printzipioz Batzordeari, eta baita ikerketa bat egitean frogak erakutsarazteko ahalmena ere. Handik ia urtebetera, 2005eko azaroan, Gobernuak beste kontsulta-agiri bat banatu zuen proposamen horien gainean, eta 2006ko otsaila arteko epea ezarri zuen iritzia emateko.

Harrezkero, hitzik ere ez da entzun proposamenez; zalantzarik gabe, Gobernuak esango luke legegintza-aukera egoki baten zain dela aldaketa horiek indarrean jartzeko. Baina ahalmenak onartzen direnean ere, ez dira Batzordeak 2001ean txostena aurkeztu zuenean eskatutakoak bezain handiak izango. Legearen aurreproiektuaren xehetasunetan egongo da etsaia. Atxilotuen guneetara sartzeko ahalmena jadanik emana zaio Batzordeari praktikan (nahiz eta eztabaida gogorra izan zen horretaz 2003-04an). Froga idatziak eskatzeko ahalmenak, berriz, ez dio seguruenik orain artekoa baino handiagoko eskubiderik emango Batzordeari. Orain bertan, bai Batzordeak bai beste batzuek badute eskubide hori Informazio Askatasunaren Legearen (2000) baitan. 2005eko urtarrilean sartu zen indarrean berori. Batzordeak galarazia izango du oraindik «segurtasun nazionala» deritzanarekin lotutako agiriak ikustea. Arlo horri dagokionez, Batzordearen ahalmenak ez dira urrundik ere Ipar Irlandako Polizia Arartekoarenak bezainbestekoak izango, horrenak munduko handienetakoak baitira gainbegiratze-erakundeen mailan²¹.

Batzordearen barruko iritzi zatiketak²²

Batzordearen lehen garai haietako ibilmoldeari begiratuta, nik deritzot Batzordeak bi zatiketa jasateko arriskua zuela bere baitan. Lehen zatiketa-arriskuaren atzean bi alde zeuden: batetik, Batzordekide multzo batek pentsatzen zuen giza eskubide arazo baten aurrean beren jakintza eta esperientzia erabiltzeko izendatu zituztela kargurako, eta, bestetik, beste talde batek uste zuen batez ere hautesleria jakin bat ordezkatzeko edo komunitatearen sektore jakin baten giza eskubideak babesteko izendatu zituztela berak. Bigarren zatiketa-arriskuaren atzean ere bi talde zeuden: Batzordekide batzuek zioten estatu organoek ustez egindako giza eskubideen urraketen aurka aritu behar zela nagusiki, edo erabat, eta beste Batzordekide batzuek esaten zuten legez kanpoko erakunde paramilitarren ustezko urraketen aurka ere jo behar zela.

Azken iritzi-diferentzia hori 2001eko udazkenean izan zen bistakoen. Udazken horretan, izan ere, paramilitar unionisten aldekoek «protesta» egin zuten, neska katolikoek eta haien gurasoek bide jakin bat erabil ez zezaten eskolarako joan-etorriak egiteko (Gurutze Santuko gatazka). Bada, Batzordekide batzuk paramilitarrek nesken (eta horien gurasoen) eskubideei egindako erasoetan kontzentratu nahi zuten, eta beste batzuek, aldiz, poliziak huts egin zuela zioten, *protestariei* beren iritzia agertzea galarazi ez zielako. Batzordekide batzuek Batzordea bera auzitegi kasu batean nahastu zutenean heldu zen iritzi-diferentzia gorenera.

Auzi horretan, Giza Eskubideen Legea haustea egotzi zieten poliziei. Esan bezala, Batzordea nahastuta gertatu zen auzian, nahiz eta Batzordearen osoko bilera batean jadanik parte-hartze horren aurka ziren azalduak, kanpoko aditu batek gomendaturik²³.

Ipar Irlandarako Eskubideen Deklarazio bat sortzeko lanak izan ziren Batzorde barruan iritzi desberdinak sortzeko beste gai bat. Izan ere, Ostiral Santuko Akordioak eta 1998ko Ipar Irlanda Legeak Batzorde horri esleitu zioten aipatu Deklarazioa osatzea. Urtebete baino gehiago emanik herritarrei Deklarazioak jaso beharreko edukiaz kontsulta egiten, Batzordeak 2001eko irailean argitaratu zituen bere proposamen zirriborroak, eta berriro ere kontsultarako banatu zituen. Ez zuten jaso aho bateko sostengurik²⁴. Batzordea sostengatzen ez zutenek (nagusiki politikari unionistek) esan zuten Batzordeak gairitu egin zuela bere zeregina, eta Eskubide Deklarazio baten aurreproiektua osatu zuela, hausnarketarako ideiak eskaini ordez. Giza eskubideen aldeko GKE batzuk ere haserre zeuden, Deklarazioaren zirriborroak berek nahi zituzten guztiak jaso ez zituelako. Britainiar Gobernua hotz zegoen, ez baitzuen nahi Eskubideen Deklarazio horrek eskubide handiagoak ematea Belfasteko jendeari, Birminghamo, Glasgoweko edo Erresuma Batuko edonongo herritarrei baino. Eta Irlandako Gobernua ere uzkur agertu zen, zeren, Ostiral Santuko Akordioaren arabera, Ipar Irlandan giza eskubideak babesteko sortutako edozer Irlandako Errepublikan sortu beharko baitzen geroxeago, eta Gobernua beldur zen ez zela halako Deklarazio bat osatzeko gai izango.

Ipar Irlandako nazionalista batzuek ez zuten atsegin Deklarazio zirriborroa, zeren horrek klausula batean askatasuna ematen baitzien pertsoneri unionistatzat edo nazionalistatzat (edo protestantetzat edo katolikotzat) izenda ez zituzten. Nazionalista horiek uste zuten aldaketa horrek ahuldu egongo zituela Ipar Irlandako politika eta erlijio diskriminazioaren gaineko legeak, zeren lanpostu baten eskatzaileek (esate baterako) esan ahal izango baitzuten berak ez zirela protestanteak, nahiz eta benetan protestanteak izan. New Yorkeko inbertsio funtsen kontu-hartzaile itzal handiko bati sartu zioten buruan proposatutako klausula horren aurka hitz egin behar zuela (nahiz eta gero aitortu zuen ez zuela irakurri Deklarazioaren zirriborroa). Beste batzuentzat, klausula hori seinale on bat zen, eta zioten Eskubideen Deklarazioak onartu egingo zuela azkenean protestantetzat edo katolikotzat ez markatuak izateko pertsonen duten eskubidea. Izan ere, bada «erdiko» talde handi bat Ipar Irlandan, eta talde horrek britainiartzat *eta* irlandartzat dauka bere burua, eta eskola integratuetan hezi nahi ditu bere haurrak. Talde horretakoak nazkatuta daude etiketatze sektarioaz, eta iruditzen zaie nortasun anitzeko gizarte plural batean bizitzeko duten eskubidea urratzen zaiela.

129

Gobernuaren gelditasuna eta Batzordearen lorpenak

2001eko Eskubide Deklarazioaren aurreproiektua aho batez zuten onartua Batzordekide guztiek, nahiz eta zenbait pasartetan aukera desberdinak jasotzen zituen Batzordekideek eztabaidetan adierazitako iritzien lekuko. Baina 2002an, nahiko ustekabean, bi Batzordekidek dimisioa aurkeztu eta Batzordea utzi zuten, Batzordeak Eskubideen Deklarazioaren gaietan izan zuen jokabidearekin ez zirela ados esanda. Hirugarren Batzordekide batek gauza bera egin zuen 2003an. Gobernua ez zen mugitu hutsune horiek betetzeko, eta ez zuen erantzun beste Batzordekide batzuen agintaldiak amaitu zirenean ere 2004an. Ordurako, zazpi kide bakarrik ziren Batzordean, eta talde horrek Eskubideen Deklarazioaren beste aurreproiektu bat atera zuen 2004ko apirilean (ikus behean). 2005eko iraila arte ez zituen izendatu Gobernuak beste Batzordekide batzuk, taldean artean gelditzen ziren bi Batzordekideekin aritzeko. Egun, hamar Batzordekide dira berriro: lau emakume eta sei gizon; lau protestantetzat jotzen dituzte, eta sei, katolikotzat. Badirudi bake hobean ari direla lanean elkarrekin, aurreko taldea baino.

Salaketa sendoa eraiki daiteke Britainiar Gobernuaren aurka. Gobernuak Giza Eskubideen Batzorde bat sortu zuen Ipar Irlandarako, baina bazekien ez zuela oso aintzat hartu beharko Batzorde horren iritzia, eta Batzordeak ez zuela izango behar besteko ahalmenik iraganeko giza eskubide urraketak (Gobernua lotsagarri utz zezaketenak) agerira ateratzeko. Bada beste faktore garrantzitsu bat ere: ia aldi berean, 1998ko Giza Eskubideen Legearen bitartez, ahalmen garrantzitsu bat eman zitzaion Ipar Irlandako auzitegiari, eta ahalmen horrek ziurtatuko zuen Ipar Irlandako agintariek ez zituztela *aurrerantzean* Giza Eskubideen Europako Konbentzioan jasotako giza eskubideak urratuko. Britainiar Gobernuak beharbada pentsatuko zuen ez zeukala zertan erantzunik Batzordearen aholkuen aurrean, zeren gai gehienetan Ipar Irlandako Batzarrari eta haren Batzorde Exekutiboari baitzegokien aldaketak egitea. Baina, jakina, Batzarrak 2000ko abendutik 2002ko urrira arte jardun zuen soilik, 2001eko udaberriko hiru hilabeteko etenaldi bat izan ezik. Eta are hango Batzarrak ziharduenean ere, gai «erreserbatuen» ardura, justizia penala eta polizia zerbitzua barne, Londreseko Parlamentuarena zen. Gai horiek ez zaizkio Ipar Irlandari itzuli oraindik, nahiz eta laster itzuliko zaizkion Batzarra berriz ezarri ondoren, hori datorrenean datorrela. Britainiar Gobernuak bazekien ondo asko ez aurrera ez atzera egon zitekeela Batzordeak Eskubideen Deklarazioaren gaian egindako proposamenekin, eta bazituen hiru arrazoi sendo horretarako: (a) jadanik indarrean ipinia zuen 1998ko Giza Eskubideen Legea, (b) Irlandako Gobernuak ez zeukan proposamenen alde presio egiteko interesik eta (c) Westminsterreko oposizioeko alderdiak ere ez ziren haserretuko Deklarazioak aurrera egiten ez bazuen.

Batzordeak Eskubideen Deklarazioaren bigarren aurreproiektua aurkeztu zuen, bada. Bi urte eta erdi lehenago argitaratutako aurreproiektuaren kritikei erantzuteko ahalegin bat zen. Nik deritzot agiri bikaina dela, baina 2002an Ipar Irlandako Batzarra eten zenetik (Sinn Feinen ustezko zelatitze-jarduerengatik), ez da giro politiko egokirik izan Ipar Irlandan Eskubideen Deklarazioaz eztabaidatzeko. Hemendik aurrera ere, ez dago itxura handirik alderdien artean Eskubideen Deklarazioaz sakon aritzeko adinako girorik sortuko denik²⁵.

Bada IIGEBen lanaren alderdi bat orok baliotsutzat eman dutena: nazioarte mailan egin dituen jarduerak. Izan ere, IIGEBek hitzaldi bat eman du urtero Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Batzordean, eta txostenak bidali dizkie halaber hitzarmenak kontrolatzen dituzten erakundeei, esaterako Giza Eskubideen Batzordeari, Haurraren Eskubideen Batzordeari eta Torturaren Aurkako Batzordeari. Gainera, harreman estuak izan ditu Nazio Batuetako beste giza eskubide tresna batzuekin, adibidez txostengile bereziekin, ordezkari bereziekin eta zenbait lan-talderekin. Batzordeak modu sendoan hartu du parte Giza Eskubideen aldeko Erakunde Nazionalen Nazioarteko Koordinazio Batzordean, eta bi aldiz aritu da prestakuntza ematen mundu osoko era horretako erakundeetako langileei. Batzordeak Giza Eskubideen Europako Auzitegiko kasu batean parte hartu zuen; Europako Kontseiluko eztabaidetan ere hartu zuen parte, Europako Auzitegia erreformatzeko eta giza eskubideak errespetatzen dituzten terrorismoaren aurkako neurri eraginkorrak proposatzeko, eta, bestalde, ohar-tarazi zion Erresuma Batuko Gobernuari nazioarteko legea urratu zuela 2003ko martxoko zirkunstantziatan Irak inbadituta.

Batzordeak arrakasta handiagoa izan zuen Gobernuaz aparte beste erakunde batzuei aholku ematen. Ipar Irlandako Polizia Zerbitzuak eta, azkenean, Ipar Irlandako Espetxe Zerbitzuak berak ere etekin handia atera zioten Batzordearen jakintzari, batez ere trebakuntzaren gaian eta atxilotu ahulenen zainketan. Zenbait giza eskubide arazo auzitegi-tara eramatea ere lortu zuen Batzordeak, edo auzilariari diruz lagunduz, edo kasu batzuetan zuzenean parte hartuz, Lorden Ganberako batzuetan barne. Kasu garrantzitsu batean, Batzordea Lorden Ganberara

joan zen, berak auzitegietako auzietan parte hartzeko nahiz epaile batek gonbidatuta *amicus curiae* gisa jokatzeko legezko eragozpenik ez zeukala berresteko²⁶.

Batzordea informazio iturri garrantzitsua izan da, eta da oraindik, komunikabideentzat. Horiek Batzordearengana jotzen dute maiz, eta iritzia eskatzen diote azken giza eskubide auziari buruz. Batzordeak harreman-sare zabal bat sortu du informazioa trukatzeko Ipar Irlandako beste «gkeia»²⁷ guztiekin, eta Elkar Aditzeko Memorandum formala hitzartu du haietako askorekin. Batzordeak oso modu estuan lan egin du Irlandako Giza Eskubideen Batzordearekin. Erakunde hori ere aurreikusi zen Ostiral Santuko Akordioan, baina ez zen sortu 2001 arte²⁸. Giza eskubideei buruzko kontzientzia ere dezente hazi da herritarren artean, Batzordearen lanari esker, eta zenbait iritzi-inkestetan ageri da hori. Begiratu bat emanaz gero IIGEBen urteroko txostenei (haren web orrian daude guztiak) eta argitarapen ugari, ederki ikusten da zein saiatua eta produktiboa izan den. 2001ean, Erresuma Batuko Parlamentuko Giza Eskubideen Batzorde Bateratuak txosten bat prestatu zuen, eta, bertan, laudorio handiak egin zitzaizkion IIGEBi²⁹.

Gai garrantzitsu batzuetan, ordea, Batzordeak etsipena sortu du jende askorengan. Hauxe da zergatia: gatazkarekin lotutako arazo esanguratsu mordoa dago Ipar Irlandan, eta arazo horiek ez daude nazioarteko giza eskubide irizpideez (Batzordeak bere jardura guztietan eredutzat darabiltzanak) araututa, oraingoz behintzat. Ondokoak dira arazo batzuk: gizarte zatitu batean boterea erdibana erabiltzeko sistema egokia bilatzea, legez kanpoko erakunde paramilitarrek dauzkaten armak suntsitzea, segurtasun instalazio inbasiboak deuseztatzea, preso ohiak eta paramilitarren laguntzaile ohiak ardura postuetan sartzea, bandera eta ikurren erabilera. Bestalde, ez dago giza eskubide irizpide garbi eta zalantzarik gabeko ugari ere, gatazka ondorengo gizarte batean egia eta adiskidetzera nola ekarri behar diren zehazteko. Nola ez den gai era horretako eztabaidetan modu esanguratsuan parte hartzeko, eta gutxiago eztabaida horien emaitzan eragiteko, batzuei irudituko zaien Giza Eskubideen Batzordea jokalaria periferiko bat dela 1998ko bake prozesua gauzatzean. Halere, oso lan baliotsua egin du berari eman dizkieten ardura-alorretan.

131

Ikasgai nagusiak

Zein dira, bada, Ipar Irlandako Giza Eskubideen Batzordearen esperientziatik Euskal Herriko bake prozesurako aterako nituzkeen ikasgai nagusiak?

Lehenik, guri gustatu edo ez, erakunde politikoek joera gaizto bat izango dute ia beti, eta berek aukeratutako giza eskubide arazoak bakarrik hartuko dituzte kontuan. Giza eskubide hitz-jario handia erabiliko dute beren eskari premiazkoenak zurrizteko, baina ez dute beti aitortuko giza eskubide oso gutxi direla benetan absolutu, eta banakoen eskubide gehienak inoiz bigarren mailan utzi behar direla, arrazoi sendogatik, gizartearen interesen aurrean. Ipar Irlandan, bereziki zaila izan da «giza eskubide azterketa» bat erabiltzea hango martxa eta protesta liskartsuen inguruko arazoekin. Jendeak, beraz, ez luke gehiegi espero izan behar giza eskubideen erakunde nazional batetik: hark maniobratzeko daukan lekua ez da beti oso handia, bereziki erakundea bera politikarako tresna bihurtu bada.

Bigarren, giza eskubideen erakunde bat sortu behar bada Euskal Herrirako, funtsezkoa da hari ahalmen egokiak ematea, benetako eragina izan dezan gero. Gobernuek errespetatu egin beharko dute, bai publikoan, bai pribatuan. Gobernuek hitzeman beharko dute erakundeak argitaratutako iritzi guztiei erantzungo dietela³⁰, erantzuna ezezkoa bada ere.

Hirugarren, ongi zehaztu beharko du giza eskubideen erakunde horrek Euskal Herriko etorkizuneko edozein egia eta adiskidetze prozesutan izango duen eginkizuna, eta ahalmen eta baliabide zehatzak eman beharko zaizkio erakunde horri eginkizun horretarako.

Laugarren, erakundeak bere zeregina modu eraginkorren egiteko, baliabide egokiak izan beharko ditu. Areago, erakundeak kontu zehatza eman beharko du noski nola gastatzen duen bere dirua, baina gobernuak ez luke gai izan behar hari nola gastatu esateko. Erakundearen plan korporatibo eta negoziozkoek ez lukete zertan eskuraturik gobernuaren onarpena, eta erakundearen langile antolaketak ere ez.

Bosgarren, erakundea osatzeko (aitzindari gisa edo langile gisa) aukeratutako pertsonen ezaugarri jakin batzuk izan beharko dituzte, eta talde bateko kide gisa aritzen jakitea izango da garrantzitsua. Guztiek ere nazioarteko giza eskubideen arau guztiak defendatu behar dituzte noski (horretarako trebakuntza berezia jasota, behar izanez gero), eta prest egon behar dute aitortzeko ondoko hau: egun, NBEk eta beste nazioarteko erakunde batzuek garbi onartzen dute estaturik kanpoko erakundeek eta estatu erakundeek, bietakoek urra ditzaketela giza eskubideak.

Azkenik, komunikabidetako aditu profesionalek gidatu beharko dute erakunde berria, horietan asmatuko baitute ongien erakundea eraginkorki ezagutarazten eta apustu berriari erantzuten. Erakundea ibiliko den itsaso politikoa ez da nabigatzeko oso eroso izango, eta hondoratuko ez bada, edo herritarren begi ona galduko ez badu, bere irudia ongi saltzen jakin beharko du. Erakunde berriak frogatu beharko du giza eskubideetan zentratutako itzal handiko erakundea dela, nazioarteko giza eskubideen erakundearen sare sendo batean txer-tatuta dagoela, eta betetzen dituela Nazio Batuen Parisko Printzipioak. Erakunde berriak eginkizun garrantzitsua izango du munduan eta bere herrian. Horren ondorioz, indarra eta miresmena irabaziko ditu.

Hitzaldiaren inguruko oharrak

¹ Nazioarteko Zuzenbideko eta Zuzenbide Konparatuko irakaslea Belfasteko Queen's Unibertsitatean, bdickson@qub.ac.uk. Lehenago, Ipar Irlandako Giza Eskubideen Batzordeburua, 1999-2005. Azpimarratu nahi nuke agiri honetan ageri diren iritziak erabat pertsonalak direla, eta ez dituztela adierazten aurreko edo oraingo Ipar Irlandako Giza Eskubideen Batzordeko kideen iritziak.

² Ipar Irlandako biztanleria (1,7 milioi) honela dago osaturik gutxi gorabehera: protestanteak % 46, eta katolikoak % 54.

³ 1973ko Ipar Irlandako Eraketa Legea, 20. sek.

⁴ Erakundeak zenbait gaitan hartu zuen jarreraren laburpena ikusteko, irakur: W. D. Flackes eta S. Elliott, *Northern Ireland: A Political Directory* (2. argitaraldia, 1983; Blackstaff Press, Belfast). Eskubideen Deklarazioaren alorrean, erakundeak Erresuma Batua osoa (ez bakarrik Ipar Irlanda) hartuko zukeen Deklarazio bat lehenesten zuen, eta agiri horrek Giza Eskubideen Europako Konbentzioa izango zukeen oinarri.

⁵ 1982an egindako beste deszentralizatzeko-ahalegin batek indarra galdu zuen handik bi urtera.

⁶ Ikus: *Making Rights Count* (Justizia Administrazioari buruzko Batzordea, Belfast, 1990), 7. kap.

⁷ 1992tik, [talde paramilitarrei] armak kentzeko Nazioarteko Batzorde Independente bat ari zen lanean.

⁸ Ikus: C. Knox eta R. Monaghan, *Informal Justice in Divided Societies: Northern Ireland and South Africa* (2002), eta D. Feenan, *Informal Criminal Justice* (2002). 1997an, esaterako, horrelako 228 eraso izan ziren; 2000n, 268, eta 2003an, 305.

⁹ Abortatzeko eskubidea oso mugatua dago oraindik Ipar Irlandan, eta berdin Irlandako Errepublikan ere.

¹⁰ Hegoafrikako Giza Eskubideen Batzordeak Hegoafrikako Konstituziotik (1996) eta Giza Eskubideen Batzordearen Legetik (1994) jasotzen ditu nagusiki bere botereak.

¹¹ Ikus 1. eranskina behean.

¹² Ikus 2. eranskina behean.

¹³ Erakunde hau aurreko beste batzuen bat-egitearen emaitza izan zen. Ondokoak izan ziren bat-egite horretan: Aukera Berdintasunerako Batzordea (genero diskriminazioaren aurka aritzen zen), Bidezko Enplegurako Batzordea (erlijioagatiko eta arrazoi politikoengatiko diskriminazioaren aurka zen), Arraza Berdintasunerako Batzordea eta Ipar Irlandako Ezinduen Kontseilua. Gainera, «75. ataleko» betebeharrak bete behar zituen. Atal horren arabera, Ipar Irlandako agintari publiko guztiek berdintasuna eta harreman onak sustatzeko ardura berezia izan behar dute.

¹⁴ Harrezkero Izendapen Judizialeko Batzorde bihurtua.

¹⁵ Azken erakunde hau paramilitarren jarduera artean noraino ari zen gertatzen kontrolatzeko sortu zen. Ikus Ipar Irlanda (Kontrol Batzordea etab.) Legea (2003).

¹⁶ Ikus, halaber, S. Livingstone eta R. Murray, *Evaluating the Effectiveness of National Human Rights Institutions: The Northern Ireland Human Rights Commission, with Comparisons from South Africa* (Bristolgo Unibertsitatea eta Belfasteko Queen's Unibertsitatea, 2005).

¹⁷ Haatik, Gobernuak ez zuen defendatu Batzordea.

¹⁸ Ikus Ipar Irlandako Eraketa Legea (1973), 19. sek.; Bidezko Enpleguaren (Ipar Irlanda) Legeak (1976 eta 1989); Bidezko Enpleguaren eta Tratamenduaren (Ipar Irlanda) Agindua (1998).

¹⁹ Ikus: www.nihrc.org.

²⁰ 2004-05ean, Gobernuak 1.632.000 libra esterlina eman zizkion Haurren eta Gazteen Ipar Irlandako Komisarioari; urte berean, Ipar Irlandako Berdintasunerako Batzordeak 6.639.000 libra esterlina jaso zituen, eta Ipar Irlandako Polizia Arartekoak, berriz, 7.006.000 libra esterlina.

²¹ Polizia (Ipar Irlanda) Legeetan (1998, 2000 eta 2003) daude zehaztuta.

²² Ikus, Harold Good, «Making Mischief, The Betrayal of the Human Rights Commission», *Fortnight*, 2004ko apirila, 7-9 orriak.

²³ Auziak huts egin zuen Auzitegi Gorenean, tokian bertan gatazka konpondu eta handik ia bi urtera (ikus: *Re E's Application for Judicial Review* [2003] NIJB 39). Ipar Irlandako Auzitegi Zerbitzuaren web orrian daude.

²⁴ Ikus, adibidez, Ipar Irlandako Lege Hiruhilabetekariaren ale bikoitz bereziko artikulua, 52. libk. (2001).

²⁵ Ikus Ipar Irlandako Batzarrean 2006ko abuztuaren 18an Gobernurako Prestatzeko Batzordean egindako eztabaidaren Hansard agiria (Batzarraren web orrian dago). Ez zen izan adostasunik alderdi politikoek eta gizarte zibilaren ordezkariak Eskubideen Deklarazio baten inguruan eztabaidatzeko mahai bat sor zedin.

²⁶ Erref.: *Northern Ireland Human Rights Commission* [2002] NI 236, [2002] UKHL 25.

²⁷ Akronimo honen esanahia ondoko hau da: «gobernuz kanpoko erakunde ia autonomoak».

²⁸ Bada bi Batzordeen arteko Batzorde Bateratu bat, eta urtean hiru edo lau aldiz biltzen da, alde bientzat interesa duten gaiak aztertzeko.

²⁹ Ikus: *14th Report of Parliamentary Session 2002-03 (HL 132; HC 142)*.

³⁰ *Commission nationale consultative des droits de l'home française*-rekin gertatzen den bezala.

1. Eranskina: Nazio Batuen Parisko Printzipioak (1993)

Giza eskubideak babesteko eta sustatzeko erakunde nazionalen estatusari eta funtzionamenduari dagozkion Printzipioak

Oharra: 1991eko urrian, Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Zentroak nazioarteko tailer bat antolatu zuen, jadanik baziren giza eskubideen erakunde nazionalen buruzko informazioa berrikusteko eta eguneratzeko. Parte-hartzaileen artean, ondokoak zeuden: erakunde nazionalen ordezkariak, estatuak, Nazio Batuen Erakundea, haren agentzia espezializatuak, gobernu arteko eta gobernu kanpoko erakundeak.

Ordu arteko akordioei buruzko iritziak trukatu zituzten, eta, gainera, tailerrean parte hartu zutenek gomendio sorta oso bat eratu zuten giza eskubideen tresna nazionalak izan beharreko rolaz, osaketaz, estatusaz eta eginkizunaz. Giza Eskubideen Batzordeak 1992ko martxoan (1992/54 ebazpena) eta Batzar Nagusiak 1993ko abenduaren 20an (A/RES/48/134 ebazpena) berretsi zituzten gomendio horiek.

A. Eskumena eta ardurak

1. Erakunde nazional bati giza eskubideak babesteko eta sustatzeko eskumena emango zaio.
2. Erakunde nazional bati ahalik eta mandaturik zabalena emango zaio, eta mandaturik ahalik eta garbiena azalduko da konstituzio edo legegintza testu batean, beraren osaketa eta eskumenak zehazten direla.
3. Erakunde nazional batek ondoko ardurak izango ditu, besteak beste:
 - a) Aholku-emaile gisa, eta ukitutako agintarien eskariz edo berak gai bat gorago bidali gabe entzuteko daukan eskubidea erabilia, gobernuaren, parlamentuaren edo beste edozein erakunde eskudunen menpe ipintzea giza eskubideen babesarekin edo sustapenarekin lotutako edozein gai buruzko iritzi, gomendio, proposamen edo txosten. Erakunde nazionalak, gainera, horiek publiko egitea erabaki dezake. Iritzi, gomendio, proposamen edo txosten horiek, hala nola erakunde nazionalaren edozein eskumen, ondoko arloekin egongo dira lotuta:
 - Giza eskubideen babesa gordetzeko edo handitzeko edozein legegintza edo administrazio xedapen, edota erakunde judizialarekin lotutako edozein xedapen. Horri dagokionez, erakunde nazionalak indarreko legeria eta administrazio xedapenak, bai eta lege-proiektuak eta proposamenak aztertuko ditu, eta egoki irizitako gomendioak egingo ditu, xedapen horiek giza eskubideen oinarritzko printzipioekin bat datozeela ziurtatzeko. Beharrezko izanez gero, ondokoak gomendatuko ditu: lege berriak onartzea, indarreko legeria zuzentzea, eta administrazio neurriak onartzea edo zuzentzea;
 - Giza Eskubideak urratzen diren eta berak aipatzea erabakitzen duen edozein egoera;
 - Giza eskubideen egoera nazionalari edo gai espezifikoago batzuei buruzko txostenen prestaketa;

- Giza eskubideak urratzen diren nazioko edonongo egoeratarako erakartzea gobernuaren arreta, eta proposamenak egitea gobernuari egoera horiek amaitzeko ekimenak har ditzan, eta behar denean, iritzia ematea gobernuaren jarreraren eta erantzunen aurrean;
- b) Lege, araudi eta praktika nazionalak Estatuak onartuta dauzkan nazioarteko giza eskubideen tresnekin bateratuko direla sustatzea eta ziurtatzea, eta haiek benetan betearaztea;
- c) Goian aipatutako tresnak berresteko edo tresna horietara heltzeko eskatzea, eta haiek bete daitezkeen ziurtatzea;
- d) Estatuak (beren hitzarmenen arabera) Nazio Batuetako erakundearen eta batzordearen, eta eskualdeko erakundearen menpe ipintzera behartuta dauden txostenei ekarpenak egitea, eta, behar denean, iritzia ematea gaiak, beti ere haien independentzia errespetatuz;
- e) Nazio Batuekin eta giza eskubideen babesean eta sustapenean eskudun diren Nazio Batuen sistemako beste erakundeekin, eskualde erakundeekin eta beste herri batzuetako erakunde nazionalekin lankidetzan aritzea;
- f) Giza eskubideak irakasteko eta ikertzeko programen formulazioan laguntzea, eta programa horien gauzapenean parte hartzea eskoletan, unibertsitateetan eta zirkulu profesionaletan;
- g) Giza eskubideei eta diskriminazio mota oro (berezi arraza diskriminazioa) baztertzeko ahalegin guztiei bultzada ematea, jendearen kontzientzia handituta, berezi informazioaren eta heziketaren bidez, eta prentsa organo guztiak erabiliz.

B. Osaketa, eta independentzia eta aniztasun bermeak

1. Erakunde nazionalaren osaketa eta bertako kideen izendatzea, hauteskunde bidez edo bestela, prozedura zehatz baten arabera erabakiko da. Prozedura horrek beharrezko berme guztiak eskaintzen ditu, giza eskubideak babesten eta sustatzen ari diren (gizarte zibileko) indar sozialen ordezkariak anitza ziurtatzeko. Ondokoak edo horien ordezkariak egongo dira erakundearen:
 - Giza eskubideen alde eta arraza diskriminazioaren aurka aritzen diren gobernu kanpoko erakundeak, sindikatuak, erakunde sozial eta profesionalak, adibidez, abokatuen, medikuen, kazetarien eta zientzialari ospetsuen elkarteak;
 - Filosofia edo erlijio pentsaerako joerak;
 - Unibertsitateak eta aditu espezializatuak;
 - Parlamentuak;
 - Gobernuako sailak (horiek barne badira, horien ordezkariak aholku-emaile bezala bakarrik hartu behar dute parte eztabaidetan).
2. Erakunde nazionalak bere jarduerak behar bezala egiteko moduko azpiegitura izango du, berezi aurrekontu egokia. Aurrekontu horren helburua bistakoa da: erakundeak bere langileak eta egoitza edukitzea, Gobernuagandik independente izateko eta bere independentziari eragingo liokeen kontrol finantzariarik ez jasateko.

3. Erakundeko kideei mandatu egonkor bat ziurtatzeko (hori gabe ez da benetako independentziarik eta), dekretu ofizial baten bidez egingo dira haien izendapenak, eta dekretuak ongi zehaztuko du mandatuaren iraupena. Mandatu hori berri daiteke, erakundeko kideen aniztasuna bermatuta badago.

C. Jarduteko metodoak

Bere jardueraren esparruan, erakunde nazionalak ondokoak egingo ditu:

1. Bere eskumenen barruan erortzen den edozein gai aztertu, Gobernuak bidalia edo agintaritzaz gorago batera jo gabe berak hartua, bere kideen edo edozein eskatzaileraren eskariz;
2. Edozein pertsonari entzun eta edozein informazio edo agiri eskuratu, bere eskumenen barruan erortzen diren egoerak baloratzeko;
3. Iritzi publikoarengana jo zuzenean edo edozein prentsa organoren bidez, bereziki bere iritziak eta gomendioak ezagutarazteko;
4. Aldizka eta beharrezko den guztietan bildu bere kide guztien aurrean, haiei dagokien bezala galdetu eta gero;
5. Lan taldeak ezarri bere kideen artean behar den neurrian, eta tokiko edo eskualdeko sekzioak sortu, bere zereginak betetzen lagun diezaioten;
6. Kontsultak (jurisdikziozkoak edo bestelakoak) egin etengabe giza eskubideak babesteko eta sustatzeko ardura duten beste erakundeekin (bereziki, Arartekoarekin, bitartekariarekin eta antzeko erakundeekin);
7. Ikusirik zer rol garrantzitsua duten gobernu kanpoko erakundeek erakunde nazionalen lana hedatzen, harremanak garatu gobernu kanpoko erakundeekin; zehazki, giza eskubideak babesten eta sustatzen dituztenekin, garapen ekonomiko eta soziala laguntzen dutenekin, arrazakeriaren aurka ari direnekin, bereziki ahulak diren taldeak (batez ere haurrak, langile etorkinak, iheslariak, ezindu fisiko eta mentalak) babesten dituztenekin edo arlo espezializatutan dihardutenekin.

137

D. Kasik eskumen jurisdikzionala duten batzordeen estatusari dagozkion printzipio gehigarriak

Erakunde nazional bati banako egoerei dagozkien kexuak eta eskariak entzuteko eta aztertze baimena eman dakiok. Ondokoek ekar ditzakete auziak erakundearen aurrera: pertsonak, haien ordezkariak, hirugarrenek, gobernu kanpoko erakundeek, sindikatuen elkarteak edo beste edozein erakunde ordezkariak. Zirkunstantzia horietan, eta batzordeen beste ahalmenei buruzko eta goian aipatutako printzipioei kalterik egin gabe, ondoko printzipioetan oinarri daitezke batzorde horiei emandako eginkizunak:

1. Onezko konponbide bat bilatzea adiskidetze bidez edo, legeak agindutako muga barruan, erabaki lotesle batzuen bidez edo, beharrezko denean, konfidentzialtasunean oinarrituta;
2. Informazioa, eta bereziki berarentzat dauden erremedioen berri ematea bere eskubideen eskaria aurkeztu zuen aldeari, eta erremedio horiek iristen laguntzea hari;

3. Edozein kexu edo eskari entzutea edo horiek beste edozein agintari eskuduni helaraztea, legeak agindutako mugen barruan;
4. Gomendioak egitea agintari eskudunei, batez ere zuzenketak edo aldaketak proposatuz legeentzat, araudientzat edo administrazio praktikentzat, bereziki horiek zailtasunak sortu badizkiete beren eskubideen eskaria egin duten pertsoneri.

2. Eranskina: Belfasteko (Ostiral Santuko) 1998ko Akordioaren laburpena

Giza Eskubideak

1. Aldeek berresten dute konpromiso osoa dutela elkar errespetatzeko eta komunitateko pertsona guztien eskubide zibilak nahiz erlijio askatasuna begiratzeko. Komunitate arteko azken urteetako indarkeria historiaren aurka, aldeek ondokoak berresten dituzte zehazki:

- Pentsaera politiko askerako eskubidea;
- erlijio askatasunerako eta adierazpenerako eskubidea;
- modu demokratikoan helburu nazionalen eta politikoen alde aritzeko eskubidea;
- bitarteko baketsu eta legezkoak erabilita aldaketa konstituzionala bilatzeko eskubidea;
- norbere bizilekua libreki aukeratzeko eskubidea;
- jarduera sozial eta ekonomiko guztietan aukera berdintasuna edukitzeko eskubidea, bakoitzaren klasea, kredoak, ezintasuna, generoa edo etnizitatea gorabehera;
- jazarpen sektariorik aske izateko eskubidea; eta emakumeek parte-hartze politiko oso eta berdina edukitzeko eskubidea.

Erresuma Batuko Legeria

2. Britainiar Gobernuak Giza Eskubideen Europako Konbentzioa (GEEK) sartuko du Ipar Irlandako legerian. Orduan, zuzenean jo ahal izango da auzitegietara, eta erre-
medioak izango dira Konbentzioa urratzeagatik; esate baterako, auzitegiek Batzarra-
ren legeak baliogabetu ahal izango dituzte, haiek kontraesanean egonez gero.

3. Une honetan martxan den kontsulta publikoaren emaitzaren menpe beti ere, Britainiar
Gobernuak, lehentasun partikular gisa, estatutuzko betebeharrak bat sortu nahi du Ipar
Irlandako agintari publikoentzat. Horren arabera, agintari horiek aukera berdinta-
suna sustatu beharko dute beren zereginetan, ondoko faktoreei dagokienez: erlijioa,
iritzi politikoa, generoa, arraza, ezintasuna, adina, egoera zibila, menpekoak eta sexu
orientazioa. Erakunde publikoek estatutuzko planak osatu beharko lituzkete betebe-
har hori nola bete behar duten agertzeko. Plan horietan, ondokoak sartuko lituzkete:
politikak ebaluatzea (dagokion arloan izandako eragina ebaluatzea barne), kontsulta
publikoa, informazioa eta zerbitzuak eskuratzeko eskubide publikoa, zainketa eta
egutegiak.

4. Ipar Irlandako Giza Eskubideen Batzorde berriari (ikus beheko 5. paragrafoa) kontsultak
egiteko eta aholku emateko gonbita egingo zaio, Westminsterreko legerian Giza Es-
kubideen Europako Konbentzioko eskubideen eskubide osagarriak zehazten direnean,
Ipar Irlandako egoera berezia isla dadin, eta, horretarako, nazioarteko tresnak eta espe-
rientziak erabiliko dira. Eskubide osagarri horietan, bi komunitateen elkarren nor-
tasunarekiko eta izaerarekiko errespetuaren printzipioak eta bi komunitateen maila
berdina islatuko dira, eta GEEKrekin batera hartuta, Ipar Irlandarako Eskubideen
Deklarazio bat osatuko dute. Ondokoak dira, besteak beste, Batzordeak gogoan edu-
ki beharreko gaiak:

- Betebeharrak orokor bat formulatzea gobernu erakunde eta erakunde publikoentzat,
tratu berdintasunean oinarrituta osoki errespetatzen dituzten Ipar Irlandako bi komu-
nitateen nortasuna eta izaera, eta

- bieran, sektore publikoan eta pribatuan diskriminaziorik ez jasateko eta aukera berdintasuna edukitzeko eskubideak argi eta garbi formulatzea.

Erakunde berriak Ipar Irlandan

5. Ipar Irlandarako Giza Eskubideen Batzorde Berri bat (Ipar Irlandako kideek hango komunitateen oreka islatzen dutela beti ere) sortuko du Westminsterreko legeriak. Batzorde hori independentea izango da Gobernutik, eta egun Giza Eskubideen gaineko Batzorde Aholku-emaile Iraunkorrek (GEBAI) daukana baino eginkizun zabalagoa eta indartsuagoa izango du. Ondokoak sartuko dira hor: legeen eta praktiken egokitasuna eta eraginkortasuna zaintzea, behar denean Gobernuari gomendioak egitea, informazioa ematea eta giza eskubideen kontzientzia sustatzea, Batzar berriak horiei buruz prestatutako lege aurreproiektuak aztertzea, eta, kasu egokietan, auzitara jotzea edo laguntza ematea hori egin duten pertsoneri.
6. Une honetan martxan den kontsulta publikoaren emaitzaren menpe beti ere, Britainiar Gobernuak estatutuzko Berdintasun Batzorde berri bat sortu nahi du, eta horrek ondoko guztiak ordezkatuko lituzke: Bidezko Enplegurako Batzordea, Aukera Berdintasunerako Batzordea, Arraza Berdintasunerako Batzordea eta Ezinduen Kontseilua. Batzorde bateratu berri horrek aholku emango du estatutuzko betebeharrak, baliozkotu eta zaindu egingo du hura, eta hura ez betetzeagatik datozen kexuak ikertuko ditu.
7. Ipar Irlandako Batzar berri batek irekirik luke bidea, nahi izanez gero, gai horietan guztietan dituen ardurak Berdintasun Sail espezializatu batean biltzea hausnartzeko.
8. Epailtzan, justizia sisteman eta polizia zerbitzuan Westminsterreko legerian diren babesen gainean metatuko dira hobekuntza horiek.

140

Irlandako Gobernuak antzeko urratsak


9. Irlandako Gobernuak ere beharrezko urratsak egingo ditu bere jurisdikzioan giza eskubideen babesa sendotzeko. Kontuan izanik Konstituzioari buruzko Parlamentuko (Oireachtas) Alderdi Guztien Batzordeak egindako lana eta Konstituzioa Berrikusteko taldearen Txostena, Gobernuak zenbait neurri aurkeztuko ditu giza eskubideen babes konstituzionala sendotzeko eta hobetzeko. Proposamen horiek egiteko, Giza Eskubideen Europako Konbentzioaz eta giza eskubideen aldeko nazioarteko beste tresna batzuek baliatuko dira, eta GEEK sartzearen gaia testuinguru horretan aztertuko da sakonago. Proposatutako neurriek gutxienez Ipar Irlandakoa adinako babesa ziurtatuko dute giza eskubideentzat. Horretaz gainera, Irlandako Gobernuak:
 - Giza Eskubideen Batzorde bat sortuko du, eta horrek Ipar Irlandakoak adinako mandatua eta eskumena izango ditu;
 - Europako Kontseiluaren Gutxiengo Nazionalen babeserako Esparru Hitzarmena berresteko urratsak egingo ditu lehenbailehen (Erresuma Batuak berretsia du jadanik);
 - enpleguan berdintasuna bermatzeko legeria hobetua ezarriko du;
 - estatus berdinerako legeria sortuko du; eta
 - Irlandako uharterko tradizio desberdinekiko bere errespetua agertzeko beste urrats aktibo batzuk egiten jarraituko du.

Batzorde Bateratu bat

10. Aurreikusten da bi Giza Eskubideen Batzordeen (Iparrekua eta Hegokoa) ordezkarien batzorde bateratu bat sortuko litzatekeela, Irlandako uharteko giza eskubideen gaiak aztertzeko foro gisa. Batzorde bateratuak neurri asko aztertuko ditu. Besteak beste, ea posible den gutun bat sortzea. Alderdi politiko demokratiko guztiek sina lezakete gutuna, eta Irlandako uhartean bizi diren guztien funtsezko eskubideak babesteko neurri hitzartuak islatuko eta berretsiko lituzke.

Adiskidetzeta eta Indarkeriaren Biktimak

11. Parte-hartzaileek deritzote funtsezkoa dela indarkeriaren biktimen sufrimendua aitortzea eta ezagutzea, adiskidetzeko beharreko elementutzat. Ildo horretan, Ipar Irlandako Biktimen Batzordearen lanaren emaitzen zain daude.
12. Aitortzen da biktimek oroitzeko eskubidea dutela, eta gizarte desberdin bat sortzen laguntzekoa. Gizarte baketsu eta bidezko bat lortzea litzateke indarkeriaren biktimentzako oroigarriarik onena. Parte-hartzaileek aitortzen dute, halaber, istiluek ukitutako tokietako gazteek zailtasun bereziak dituztela, eta komunitatean oinarritutako ekimen bereziak bultzatuko dituzte, nazioarteko praktika onenetan oinarrituta. Funtsezko elementua izango da, baita ere, biktimei laguntzeko eta haien beharrei egokitutako zerbitzuak ematea, eta laguntza hori biek, estatutuzko eta komunitatean oinarritutako erakunde boluntarioek bideratu beharko dute, tokian bertako auto-laguntza eta laguntza-sareak errazten direla. Horrek guztiak nahiko baliabide ipintzea eskatuko du, estatutuzko finantzaketa barne, biktimen premiei erantzuteko eta komunitatean oinarritutako laguntza-programak eratzeko.
13. Parte-hartzaileek aitortzen dute, azkenik, erakunde asko lan handia eta baliotsua ari direla egiten, Ipar Irlandako komunitateen eta tradizioen barruan eta artean adiskidetzeta, elkar ulertzea eta elkarren errespetua indartzeko, eta berdin Iparraren eta Hegoaren artean. Funtsezkoa ikusten dute lan hori, bakea eta akordio politikoa sendotzeko. Beraz, hitzematen dute erakunde horiei laguntzen jarraituko dutela, eta adiskidetze lanari laguntza finantzario handiagoa ematerik dagoen aztertuko dute gainera. Adiskidetze prozesuaren funtsezko alderdi bat hauxe da: tolerantziaren kultura sustatzea gizarteko maila guztietan, eta, hor, hezkuntza integratua eta bizileku mistoak eskaintzeko eta sustatzeko ekimenak sartzen dira, besteak beste.



Nazioarteko gainbegiratze mekanismoen ekarpena bake hitzarmenen aplikazioari: bosnia-herzegovinako ikasgaiak

ZORAN PAJIC JN.

Londreseko, Erresuma Batuko, King's College-ko Nazioarteko Politika Institutuko ikertzailea.

Sarajevoko Unibertsitateko nazioarteko zuzenbideko irakasle ohia.

Institute for War and Peace Reporting-eko Administrazio Batzordeko kidea

Karguak (akademikoak eta administrazio publikoan dituenak): Nazioarteko Politika Institutua, King's College, Londres, Irakasle gonbidatua.



Nazioarteko Komunitateak Bosnia Herzegovinan duen Goi Ordezkaritzaren Bulegoa, 2002-2005. Legegintzako Aldaketen Saileko arduraduna Institutuzio Nazionalen alorreko Goi Ordezkararen Aholkulari Berezia.

CURRICULUMA

DFID proiektua (Pertsonen Segurtasunari, Eskualdearen Zaintzari eta Balkanetan Justizia Gizarteratzeari buruzkoa), 2001, Aditua.

Human Rights Quarterly, argitalpena, 1994tik gaurdaino, Ikuskaritza editorialeko Batzordeko kidea.

Nazioarteko Gaietako Errege Institutua (Chatham House), Londres, 1998-2001, Ikertzaile laguntzailea, Nazioarteko Segurtasun Programa.

Gerra eta Bakeari buruzko Txostenak egiteko Institutua, 1994tik gaurdaino, Patronatuko kidea.

Nazioarteko Krisi taldea, Bosnia Herzegovinako bulegoa, Sarajevo, 1999-2000, Goi lege-aholkularia.

Nazio Batuen Garapen Programa, Bosnia Herzegovinako bulegoa, 2000, Taldeburua, Aholkulari Nazionalen Taldea.

Giza Eskubideen Britainiar Institutua, King's College, Londres, 1998tik gaurdaino, Aholularitza Batzordeko kidea.

King's College, Londres, 1994-1999, Ikertzailea, Goi Laguntzailea (Nazioarteko Giza Eskubideetan espezializatua), Zuzenbide Fakultatea (1997ko ekainera arte) eta Giza Eskubideen Britainiar Institutua.

Jugoslavia zenerako Hagako Nazioarteko Epaitegi Penala, 1997, Lekuko aditua, akusazioak aurkeztua.

Essexeko Unibertsitatea, Zuzenbide saila; Giza Eskubideei buruzko Zentroa, Colchester, 1992ko irailetik 1994ko ekainera. British Councilen ikertzailea eta irakasle gonbidatua.

NBEko Giza Eskubideen Batzordea, Hegoaldeko Afrikari buruzko Aditu Taldea, Nazio Batuak, Geneva, 1991-1995, Kidea.

Sarajevoko Unibertsitatea, Zuzenbide Fakultatea, 1972-1992, Nazioarteko Zuzenbide Publikoko irakaslea.

Vrije Brusseleko Unibertsitatea, Zuzenbide Fakultatea, Brusela, 1982ko otsailtik uztaiera arte, Bekadun gonbidatua.

Titulu Akademikoak:

Sarajevoko Unibertsitatea, Zuzenbide Fakultatea. Nazioarteko Zuzenbidean doktore, 1984.

Sarajevoko Unibertsitatea, Goi Hezkuntzako Masterra Irakaskuntzako Psikologian, 1981.

Sarajevoko Unibertsitatea, Zuzenbide Fakultatea. Masterra Nazioarteko Zuzenbidean, 1974.

Sarajevoko Unibertsitatea, Zuzenbide Fakultatea. Zuzenbidean lizentziaduna, 1968.

Unibertsitate-irakaskuntza:

Giza Eskubideak eta Zuzenbide Estatu (doktoretza mintegia, Irlandako Goiza Eskubideen Zentroa).

Gerra Krimenengatiko Auziak (Gerrari Buruzko Ikasketa Saila, King's College, Londres).

Nazioarteko Zuzenbide Publikoa (Nazioarteko Harremanen Zentroa, Kenteko Unibertsitatea; Zuzenbide Fakultatea, Sarajevoko Unibertsitatea).

Europako erakundeak (masterra Europar Ikasketetan, Sarajevoko Unibertsitatea).

Giza Eskubideak Europa Berria (Zuzenbide Saila, Essexeko Unibertsitatea).

2002-2005ean, Goi Ordezkararen Bulegoko Legeriaren Erreformatarako Unitateko Burua izan zen, eta, 1999-2000n, berriz, Krisiko Nazioarteko Taldearen Bosniako bulegoko goi mailako lege aholkulari gisa jardun zuen.

Ikertzen eta aholku ematen aritu den arloak: estatugintza, legearen aginpidea eta giza eskubideak, besteak beste.

Daytonen 1995ean sinatutako Bake Hitzarmenaren ostean, atzerriko potentzia eta nazioarteko ikuskatze-mekanismo asko eta asko zebiltzan Bosnian. Bake-prozesuaren aplikazioaren jarraipena egitea zen Daytoneko Hitzarmenaren xedea, baita gerra ondorengo berreraikitze-lanak sustatzea ere. Inplizituki, nazioarteko komunitatearen protektoratu bihurtu zuen Bosnia Daytoneko Hitzarmenak. 1990eko hamarkadan gerrak edo gatazkek hondatutako hainbat lurralde administratzeko nazioarteak sortutako agindu zabal batean sartzen ziren ekimen horiek guztiak.


Atzerriko potentziaren batek agindu hori ezarri nahi izanez gero, berez litzateke bateraezina herri baten (Bosnia) burujabetzarekin. Nazioarteak aitortzen dio burujabetza hori, eta nazioarteko erakunde nagusietan du ordezkaritza Bosniak. Jakina, giza eskubideak, zuzenbide-estatua eta demokrazia berriro indarrean jartzeko agenda dute oinarri muga horiek guztiek. Dena den, kontuan hartu behar da Bosniako esperimenduak aurrekari bat sortu zuela burujabetzari behin-behingo uko egin eta nazioarteko agentzien agindupera jartzeari dagokionez.

Urteak igaro ahala, gero eta nabarmenagoa zen Bosniako Konstituzioak (edo Daytonekoak) ez zuela abiarazi estatu-erakuntza prozesu sendorik. Konstituzioa aldatzeko prozedura formalari ekin beharrean, Goi Ordezkariaren Bulegoak agiriaren atal bat (4. gehigarria) ikuspegi zabalagoz interpretatzea erabaki zuen. Hori dela eta, lau urte eman dituzte Konstituzioaren garrantzizko atalak aldatzen. Prozesu horri esker, testuaren hitz bat ere aldatu gabe eskualdatu dira gobernu-eskumenak toki-erakundetatik estatura.

145

Horrenbestez, estatu-erakuntza prozesuko bidegurutzean dago Bosnia Herzegovina. Nazioarteak bide luzea egin duen arren aldaketa benetan gauzatzeko, aitortu beharra dago agortu egin direla Konstituzioa era horretara aldatzeko bideak. Dayton osteko fasea gainditu du jada herrialde horrek, eta Europaren atarikoan sartu da.

Etorkizunean edozein aldaketa egiteko, Konstituzioan zuzenketetarako hizpatutako prozedurari jarraitu beharko zaio. Litekeena da herrialde-ereduaren barne-berrantolaketari edo udalerrien zein kantoien arteko mugei lotutako aldaketak egitea. Eta agian, hirualdeko itunean Bosniako lehendakaritzarako ezarritako txandak berrantolatu egingo dira, edo legebiltzarra eta ganberen eskumenak eraldatu, hauteskunde-eskubide unibertsalak eta bi-dezkoagoak bermatzeko, hiritartasun bikoitzaren arazoak konpontzeko.



Nazioarteko gainbegiratze mekanismoen interekarpena bake hitzarmenen aplikazioari: Bosnia-herzegovinako ikasgaiak

1991n, nahiko bistakoa zen gauza bat: Bosnia-Herzegovina, orduan Jugoslaviako sei errepubliketako bat, ez zen libratuko indarkerian jaustetik, Jugoslavia hondatzen zenean. Galdera bat eztabaidatu zen Sarajevoko tailer batzuetan urte hartan¹, eta egokia da oraindik ere: saiheste ote zitekeen 1992-1995 gerra eta erdiets ote zitekeen independentziarako igerotze leun bat nazioarteak zaindutako eta kudeatutako protektoratu batean? Nazio Batuen «fideikomiso» sistemaren esperientzian zegoen oinarritua protektoratuaren ideia, sistema horixe ezarri izan baitzen lurralde jakin batzuetan haien barne-egonkortasuna eta independentziaranzko bidea eragotz zitzaketen tirabirak eta gatazkak konpontzeko². Gure garaiko «X galdera» horrek gerra baino luzaroago iraun zuen, eta eztabaida-iturri zen artean Daytongo Bake Akordioaren lehen urteetan³. Ia ez zen egiten bilerarik Bosnian edo elkarrizketarik komunikabideetan dilema hari aipurik egin gabe⁴. Eskualdeko GKE batzuek ere beren agendan eduki zuten gaia, eta entzunaldi bat ere eskaini zieten Europako Parlamentuko batzorde baten aurrean, 1994an⁵.

Daytongo Akordioaren Ondarea

147

Azkenean, ez zen ezarri Bosnian, ez protektoraturik, ez fideikomisorik. Aitzitik, Daytongo Akordioaren ondoren, bi hauek aurkitzen ditugu han: atzerriko botereen presentzia handi bat, eta bakearen inplementazioa zaintzen eta gerra ondoko berreraikuntzan laguntzen duten nazioarteko erakundeak. Aldi berean, nabarmendu behar da Daytongo Akordioak nazioarteko komunitatearen «protektoratuaren» pean ipini duela implizituki Bosnia-Herzegovina. Etiketa hori eztabaidagarria gerta daiteke, baina «fideikomiso» baino onargarriagoa da oraindik. Utzirik alde batera Daytongo Akordioak Bosnia-Herzegovinan ezarritako erakunde-egituraren definizioak, erraz azal daiteke protektoratu izaera. Lehenik eta behin, Goi Ordezkariaren Bulegoa aritzen da botere gidari gisa nazioarteko komunitatearen ordez, eta Sarajevon du egoitza. Goi Ordezkariari agintzen zaio «errazteko Alderdien» ahaleginak, eta bake akordioaren gai zibiletan sartuta dauden erakundeen eta agentzien jarduerak mobilizatzeko eta koordinatzeko ahalik eta egokien⁶. Bosnia-Herzegovinako Auzitegi Konstituzionala bederatzi kidez dago osatua, eta horietako hiru atzerritarak dira, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren Presidenteak izendatuak⁷. Atzerritar bat aritu zen Banku Zentraleko Gobernadore gisa lehen 5 urtean, eta Munduko Diru Funtsak izendatu zuen⁸. Giza Eskubideen Arartekoa, berriz, Europako Segurtasun eta Lankidetzako Erakundeak (OSCE) izendatu ohi zuen, eta postu hori nazioarteko funtzionarioek bete zuten Daytongo Akordioko lehen 8 urteetan. Giza eskubideen Ganberak ere atzerrikoak zituen kide gehienak (Europako Kontseiluak izendatu zituen 14tik 8), eta 2003 arte funtzionatu zuen⁹. Azkenik, Bosnia-Herzegovinan hedatutako nazioarteko indar armatua inoiz baino handiagoa da pertsonetan, arma astunetan eta mandatuan. Ondorioz, esan daiteke, lasai asko, nazioarteko komunitateak Bosnian izan duen misioa protektoratu bat izan dela *de facto*, edo, modu politikoki zuzenean esanda, nazioarteko administrazio batek gobernatu duela nazio hori

oro har. Bosniako «protektoratuaren» kasua mandatu zabalago baten kategorian sartzen da. Nazioarteko komunitateak hartu zuen bere gain mandatu zabalago hori 1990. hamarkadaren erdi aldera, gerrek eta liskarrek hondatutako lurraldeak administratzeko. Batez ere Nazio Batuei eta Europako Batasunari eman zaizkie Bosnia-Herzegovina, Ekialdeko Eslavonia, Kosovo eta Ekialdeko Timor gobernatzeko aginpide berezia eta ardura onartua. Estatu baten barruko gatazkak konpontzeko hirugarrenek sekula egindako ahaleginik ausartenak dira ekimen horiek¹⁰.

Hori guztia osatzeko, herri subirano baten gaineko aurrekaririk gabeko botere exekuti-boak eta legegileak eman zitzaizkion nazioarteko komunitatearen Bosniako Goi Ordezkaritari¹¹. Kanpoko botere baten horrelako mandatu zabala ez dator bat, definizioz, herri baten estatus subiranoarekin, herri hori aitortuta baitago nazioartean, Daytongo Akordioak berak ere estatu independentetzat berretsi baitu, eta nazioarteko erakunde nagusi guztietako kide oso baita, hasi NBEtik eta Europako Kontseiluraino. Gaur egungo nazioarteko legeriaren testuinguruan, B-H ez da inongo kategoria formaletan sartzen. *De iure*, subiranotasun osoa du, eta nazioarteko erakunde guztiek onartu zuten hori, hura kide oso egiteko prozesuaren bitartez. Are gehiago, nazioarteko tresna batek, hots, Daytongo Akordioak bermatzen du haren estatu izaera, eta Akordioaren 4. Eranskinean dago esplizituki zehaztuta hori, Bosnia-Herzegovinako Konstituzioa baita¹². Bestalde, akordioak berak dio nazioarteko komunitateak zenbait muga ezarri dituela *de facto* B-Hko agintariek beren eskumen subiranoak osotasunean erabiltzeko duten eskubidean, eta horrek galdera ikur handi bat ipintzen du B-Hren estatu izaeran¹³. Nahiz eta zalantzarik ez egon muga horien xedea giza eskubideak, legearen aginpidea eta demokrazia ezartzea dela, Bosniako esperimenduak halere aurrekari bat ezartzen du: nazioarteko erakundeen eskuetan uzten da nazioaren subiranotasuna aldi baterako. Esan daiteke, lasai asko, Bosnia-Herzegovina estatu *sui generis* bat dela, baina eskapismo horrek lausotu egiten du gai nagusia, hots, ea norena ote den nazioa gobernatzeko eta bertako herritarrei segurtasuna bermatzeko ardura.

148

Sinatu zenean, Daytongo Akordioak nazioarteko tresna bikain bat zirudien, gerra geldiarazteko eta Bosniako egoera bestelakotzeko. Akordioa hizkuntza diplomatiko batean zegoen idatzirik, eta interpretazio ugari zegoen irekia. Edukia alde guztiak (nazioarteko komunitatea barne) pozik uzteko bezain iheskorra egin zuten. Aldi berean, akordioaren testua nahiko zehatza zen nazioarteko komunitatearen begi zorrotzen pean bakea zaintzeko eta indarkeria agerpen berri bat saihesteko bere eginkizunean.

Daytongo Konstituzioa versus Estatugintza

Urteak aurrera joan ahala, agerian gelditu zen Daytongo Akordioak ez zezakeela ekar estatugintza koherente bat egiteko edo estatu mailako erakunde-eskumenak sendotzeko biderik. Iritzi-emaile eta analista gehienek Daytongo Konstituzioari (Daytongo Akordioaren 4. Eranskina) egozten diote Bosnia-Herzegovinan geldialdi bat gertatu izanaren eta hura komunitate etnikoka zatitzen utzi izanaren errua. Errua ez da kokatu behar Konstituzioan bertan, baizik eta Daytongo Akordioak Bosniako bi entitateen, Bosniakoen (Bosniako musulmanak) eta Kroaziarren Federazioa, eta Serbiarrak nagusi ziren Republika Srpska, konstituzioak ez ezetzatu izatean. Herzeg-Bosnia Kroaziar Komunitateak (gero Errepublika) ere, nahiz eta sekula ez zen izan beste biak bezain ospetsua, utzi zuen bere aztarna Daytongo Akordioaren sendotasunean.

Herriari bere izenean (Bosnia-Herzegovina) «errepublika» atributua ukatzean ireki zen aurrena eztabaida konstituzionalerako agenda. Konstituzioko «jarraipena» paragrafoa gorabehera,

Daytongo Akordioaren idazleak esplizituak izan ziren, eta xedatu zuten Bosnia-Herzegovinanako Errepublika ez zela jadanik herri horren izen ofiziala, baizik eta Bosnia-Herzegovina soilik¹⁴. Idazkera horrek B-H baino gorago ipini zuen entitateen estatusa inplizituki, estatu berriak bere baitan «errepublika» bakarra eta «federazio» bakarra eduki behar bazituen ere. Hartara, herria egituratu zuten moduak ez du inongo logika praktikorik, eta ez dator bat teoria konstituzionalaren printzipioekin. Are gehiago, Jugoslavia ohia desegiteko prozesuan, lehengo errepublika guztiek, hau da, federazioko (JEFS) estatu kide guztiek, «errepublika» atxiki zuten beren izenean, Bosnia-Herzegovinak izan ezik¹⁵. Esan liteke egitate (maiz ahaztu) horrek posizio politiko apalagoan utzi zuela Bosnia, Jugoslavia ohitik sortu diren beste estatuekin alderatuta, eta, horregatik, serbiar eta kroaziar aitzindari politikoei errazago ipini zutela zalantzan haren estatu izaera Daytongo Akordioko lehen urteetan.

Oraindik garrantzitsuagoa dena, Daytongo Akordioaren 4. Eranskinak ez zuen konpondu entitateen konstituzioen gaia, ez zituen ukitu, nahiz eta Daytongo negoziazioak hasi zirenean (1995eko azaroa) bi konstituzioak jadanik beste garai batekoak ziren, eta nahiz eta nazioarteko komunitateak atzean utzi nahi zuen garai hori gerra ondoko Bosnia-Herzegovinan. Daytongo Konstituzioak ez zuen xedatu, ezta ere, entitateen konstituzioak noizbait estatukoarenera egokitzea. Aitzitik, hori kasuz kasu egin beharrera mugatu zuen posibilitatea, eta, azkenean, B-Hko Auzitegi Konstituzionalak ebatzi behar zuen gaia¹⁶.

Serbiarren Errepublika (Republika Srpska) oso goiz aldarrikatu zen, 1992ko urtarrilaren 9an, eta urte bereko otsailaren 28an onartu zen bertako Konstituzioa. Konstituzioak zalantzarik ez zuen uzten RS serbiarren estatu independente bat izango zela, eta aipatu ere ez zituen egiten, ez Bosnia-Herzegovina, ez eta musulman edo kroaziar komunitateak¹⁷. Washingtongo Akordioak 1994ko martxoan asmatu zuen Bosnia-Herzegovinanako Federazioa (BHF), eta bosniakoak eta kroaziarrak gehiago ziren Bosnia-Herzegovinanako Errepublikako aldeetan ezarriko zen. BHFko Konstituzioa 1994ko martxoaren 30ean aldarrikatu zen, eta ez zuen aipatzen serbiar jendea, era baldintzatu batean izan ezik¹⁸. Ez zeukan inongo xedapen espliziturik Federazioari estatu independente izaera emateko, baina haren egitura instituzionalak subiranotasun asmoak ageri zituen. Washingtongo ekimenak Clintonen gobernuaren gogoia erakusten zuen, hau da, Bosniako gatazka sinplifikatu nahi zen, hiruren arteko gerra («guztiak guztien aurka») biren arteko bihurtuta. Eta, sortu ere, bi herri banatu sortu ziren Bosnia-Herzegovinanako lurraldean: jadanik hor zen RS, alde batetik, eta BHF, bestetik¹⁹.

Bistakoa da gauza bat: 1994ko udaberrian, nazioarteko komunitateak ez zuen ikusten RS Bosnia-Herzegovinanaren berreraikuntzan sartu beharreko osagai gisa. Areago oraindik, Washingtongo Akordioak aurreikusten zuen konfederazio bat ezarri behar zela Kroaziako Errepublikaren eta proposatutako Bosnia-Herzegovinanako Federazioaren artean²⁰. Asmo hori sekula gauzatu ez bazen ere, ederki erakusten du zein ziren Federazioaren «aiten» estatutintza asmoak Washingtongo Akordioaren ondoko garaian.

Daytongo Akordioak aurkako bidea hartu zuen, eta Bosnia-Herzegovinanako Estatuaren teilatu bakarraren pean bildu zituen hiru «herri eratzailak», serbiarrak barne, eta 4. Eranskinak esplizituki berresten zuen hori. Horixe zen eztabaida gutxien sortuko zuen formula, zirkunstantzia berrietan: Bosnia-Herzegovina gerra aurreko bere mugetan berpiztu eta berreraiki, eta aurrera! Historikoki, zuri zitekeen, eta politikoki ere Jugoslavia ohia desegin zen garaiko eredu jarraitzen zen, non errepublika eratzailak guztiek beren aurreko mugak atxiki baitzituzten. Baina bi entitateen konstituzioen presentziak eta haien gobernu-egiturek ahuldu dute logika hori gaur egun arte, zeren oztopatu egin baitute Daytongo Akordioa betetzea, dinamika aldakor baina etengaberen bitartez. Entitateen konstituzioak ez zetozen

bat 4. Eranskinean adierazitako ideiekin. Nahiz eta horren Hitzaurreak etorkizunerako agenda bat ezartzen duen eta B-H birbatzen zuten, halako irudipen bat sortzen zuten halaber, eta, horri esker, bi entitateek interpretatzen zuten beren konstituzioak bat zetozela nazioarteak Bosnia-Herzegovinaz zeukan ikusmolde berriarekin²¹.

Entitateetako konstituzioak indargabetzea izango zatekeen IV. Eranskinari bere espazioa eta bizi handiagoa emateko modua. Hori, ordea, ez zen inoren lehentasuna orduan. Aitzitik, IV. Eranskina entitateetako konstituzioen preso bihurtu zen. Bada xedapen bat, haatik, eta honela dio: «entitateek eta horien edozein azpizatiketarik men egingo diote Konstituzio honi, eta beronek ordezkatu dituzten Bosnia-Herzegovinako legeetako nahiz Entitateen konstituzioetako eta legeetako xedapen kontraesankorrak²²». Baina hitzarmen konstituzional orokorrak oztopatu edo erabat blokeatu egin zituen Estatu mailako erabaki-hartze prozedurak, eta horrek indarrrik gabe utzi zuen, oro har, xedapena.

Entitateen konstituzioak indarrean utzi zirenez, oso nekeza gertatu zitzaion 4. Eranskinarene egileei atal hori eta Konstituzioaren estatu bideragarri bat edukitzeko baldintzak bateratzea. Horren ondorioz, Daytongo Konstituzioaren xedapen orokorrak nahiko ahulak dira herria definitzean, eta konpromiso trakets bat iritsi zen «gizarte anitz bat» bermatzeko eskakizunaren eta Bosnia-Herzegovina barruan *de facto* baziren estatutxo etnikoak babestearen artean. Konstituzioaren paragrafo operatiboek, ordea, entitateen arazoibideari jarraitzen diote argi eta garbi, eta, beraz, ez dute uzten estatu sendo bat, estatu mailako gobernu-egitura egoki eta eraginkor batek lagundutako estatu sendo bat, eraikitzen. Anomalia horrek krisi konstituzionalera eta estatutasun paralisira ekarri zuen poliki-poliki Bosnia. Herriaren etorkizunarentzat, ordea, horixe zen onena. Frogatu zen egia dela esatera zaharrak dioena, hau da, gauzak zeharo okertu ondoren hasten direla zuzentzen, eta horrek «estatu eraikitze prozesuaren benetako hasiera» esan nahi dezake Bosnian.

150

Egungo egoerak luzeegi jo du agertzen, baina iragar zitezkeen. Oinarritzko egitura konstituzionala ukitu gabe egon bada ere ia hamar urtean, bizitzak aurrera jarraitu du: hazkunde ekonomikoa, nahikoa ez izan arren, etengabea izan da, eta aukera berriak ireki ditu; atzerriko inbertitzaileak giroa ikusten hasi ziren, eta inbertsio batzuk egin dituzte zenbait tokitan; kanpomerkataritzak, eta bereziki inportazioak, hazten ari dira etengabe, etab²³. Komunitate etniko guztiek aldaketa sozial dramatikoak jasan dituzte: iheslari kopuru handia itzuli da, herritar askok behiala kendu edo konfiskatu zituzten ondasunak berreskuratu dituzte, duela 15-25 urte jaiotako belaunaldi berri bat dago. Prozesu politikoak gai berriak ekarri ditu berekin, bai barruan, bai kanpoan: gerra ondoko politikariek ordezkatu dituzte garai bateko buruzagi militarrik; iragana, gerrako basakeriak barne, kontuan edukitzea esperientzia normala bilakatu da askorentzat; alderdi politiko nagusi guztiek eta herritarrek oro har Europako Batasunean eta NATO-n sartu nahi dute, etab. Bosniar errealitateko gai berri eta positiboen zerrenda luzea da eta irekita dago oraindik, baina lege eta administrazio egitura desberdin eta malguago baten premia larria du, gai horiei egokiro erantzuteko. Hitzarmen konstituzional zahar, desegoki eta zaharkituak eta nazioaren osakerak tratatzen dituzte goian aipatutako joera positiboak; horregatik ezin dira garatu joera horiek, horregatik ez dira sortzen aukera berriak.

Konstituzioa *de facto* berrikustea

Zenbait ahotsek esan dute Konstituzioa zuzendu behar dela prozedura formal baten bitartez, baina hori egitea ez zen errealizatzen ikusten orain urtebete. Alde batetik, nazioarteko komunitatea oso harrituta zegoen Daytongo Akordioa aldatzeko zegoen oposizio gogorragatik, eta RStik zetorren batik bat oposizio hori. Nazioarteko agenteek uste zuten,

gainera, koloka jar zitekeela Daytongo Bakea, zuzenketen gorpila biraka hasten bazen²⁴. Bestalde, Konstituzioa aldatzeko prozedurak ez zeukan etorkizunik, gehiengo handi bat behar baitzuen Parlamentuan, eta ez zegoen hori lortzeko itxurarik²⁵.

Bitartean, nazioarteko komunitateak, Goi Ordezkariaren Bulegoak (GOB) gidaturik, beste bide bat saiatu zuen Estatuaren egituraren eraginkortasuna hobetzeko eta ziurtatzeko. Bi hauek nahi ziren: Bosnia-Herzegovina nazioarteko komunitateko kide sinesgarri bihurtzea, eta herri horrek osoki parte hartzea Europaren integrazio prozesuan. Konstituzioa prozedura formal batez aldatu beharrean, GOBek 4. Eranskina *de facto* aldatzea hobetsi zuen. 4. Eraskina ez zutelako laster aldatuko eta horrek Bosniaren Europako Batasuneranzko bidea oztopa zezakeelako aukeratu zen bide hori.

Bi alternatiba ziren bide horretan: bat Daytongo Akordioaren interpretazio estu batean oinarritua, eta bestea, interpretazio zabal batean. Lehenak botere gehiago emango zien entitateei, eta elite nazionalisten boterea sendotuko zuen, status quo-a bere horretan uzten zuela. Alternatiba horretan, hitzez hitz aplikatuko zen Konstituzioa, xedapen bakoitzaren testuari hertsiki jarraituz. Bigarren alternatibak, aldiz, Konstituzioaren hitzaurrea izango zuen indar eragingarri, horrek beste era batera uzten baitu ikusten nazioa; hartara, botere legegileak eta exekutiboak estatu mailako mami gehiagoko eskumenak izango zituzten, eta horrek, bere aldetik, demokrazia garatuetako erakundeekin (Europakoekin ere bai) bateragarriago bihurtuko zituen Bosnia-Herzegovinako erakundeak. Errealitatean, haatik, aukera ez da izan hain garbia, eta eremu lanbrotsu ugari dira oraindik bi alternatiben artean. Alternatiba bat nahiz bestea aldarrikatzen zuen orok, zela nazioartean zela nazioan bertan, oso gogoan izan behar zuen gaiaren muina: Goi Ordezkariaren eta Bakea Inplementatzeko Kontseiluaren mandatua Daytongo Akordia betearaztea da, ez hura aldatzea²⁶.

Horrek esan nahi du Goi Ordezkariaren Bulegoaren erabaki guztiek oreka fin-fin bat gorde behar zutela: alde batetik bakea eta egonkortasuna atxikiz, nazioari bere erakundeak eta nazioarteko posizioa sendotzen lagunduz, baina aldi berean Daytongo Akordioaren esparrua zorrotz errespetatzen zutela. Bere buruari harrika egin gabe egin behar zuen hori GOBek.

Orain arte, nazioarteko komunitateak era zabal batean interpretatu du Bosnia-Herzegovinako Konstituzioa, eta estatu mailako erakunde-erakitze prozesuari eman dio lehen-tasuna. Lehenik, nazioarteko eta Europako ingurune on bati esker hartu ahal izan da bide hori. Europa integratzeko prozesua, EB handitzea barne, azenario goxoa zen Bosniako politikarientzat, eta nazioaren «europar etorkizunaren» eztabaida indartu zuen. Nazioak gobernu egitura funtzionalagoak behar zituen, eta botere handiagoko estatu mailako erakundeak. Barruan, entitateen jarrerak lasaituz joan ziren poliki-poliki estatu erakundeen alde, are entitateen eskumenen azken gordelekuak jotzen zirenetan ere, hots, defentsan eta polizian. Azken lau urtean, 4. Eranskinaren interpretazio zabala eginda Konstituzioa zuzendu da *de facto*. IV. Eranskinaren hitz bakar bat ukitu ez bada ere, prozesu horrek joera bat ezarri du, eta gobernatzeko ardura entitateetatik estatu mailara igaro da ia arlo guztietan.

Goi Ordezkariak abiatutako eta gero etxeko agintariak onartutako urratsetan badira adibide harrigarri batzuk. Bosnia-Herzegovinako Ministro Kontseilua estatu mailako gorputz exekutibo xume bat bezala hasi zen, eta txandakako presidentetza disfuntzional bat eta hiru ministerio bakarrik zeuzkan²⁷. Horixe bakarrik atera ahal izan zitzaion Konstituzioari Dayton ondoko lehen urteetan. Ministroen Kontseilua presidentetza iraunkor baten pean da orain (2000tik), eta estatu ministro kopurua zortziraino igo da poliki-poliki²⁸. Bosnia-Herzegovinako Auzitegia 2003an ezarri zen, eta bera izan zen nazioko estatu mailako lehen

justizia auzitegia. Aldi berean, estatu mailako legeria penal eta zibil berria indarrean ipini da, eta lehen zeuden entitateen legeriak poliki-poliki estatu mailakoekin bateratu dira. Azkenik, 2005 hondarrean, alderdi politiko nagusiek hitzartu zuten polizia erreforma egitea, eta entitateek haren egitura instituzionalean zeukaten kontrola lasaitzea. Horra, bada, Konstituzioaren interpretazio «funtzional» hutsean oinarrituta, hots, testua formalki zuzentzearen gai minbera ukitu gabe lortu diren aurrerapen batzuk.

Esan behar da, haatik, aldaketa horietako batzuek ez dutela lortu oraindik erakunde berri edo eraldatuetakoz batzuk ongi aritzea eta ibiltzea: erakunde berritu horien atzetik ez zen beti etorri legeria edo araudi egokirik, entitateek oztopatu egiten dute oraindik erakunde batzuen lana, behar beste bulego-espazio izatea funtsezkoa da batzuetan barne antolamendu egokirako, etab. Ministerio gehienak «oskol hutsak» direla esan daiteke, hau da, ez dutela egiazko boteretik edo ardurarik ezertan. Oraindik ez daukate administrazio prozedura egokirik, ez eta funtzionario andana prestatu bat ere ministerioa maneiatzeko, eta eguneroko gaien jarraipena eta martxa ona ziurtatzeko. Ardura etxeko taldearen eskutara igarotzen den unearen adibide ona da hori. Horrek erakusten du nazioarteko komunitateak ere mugak izaten dituela herri baten estatugintza prozesuan, hain mandatu zabala eta indartsua eduki arren.

Bidegurutzea Gurutzatzea

Bosnia-Herzegovina bidegurutze batera heldu zen prozesu horretan. Herriak osatu du Dayton ondoko aldia, eta orain fase aurre-europarrari ekin dio. Lehena gatazka-ondoko berreraikitze prozesu bat izan ohi da, eta gatazka bortitz batetik irteten ari diren herriei dago-kie, horietan estatuaren aginpidea zeharo hondatu baita, edo gerrako jaunek nahiz miliziek bahitu baitute. Afganistango, Bosniako, Timor Ekialdeko, Irakeko, Kosovoko eta Somaliako kasuek, nahiz eta oso izaera desberdinetakoak izan, elkarren antz ugari dituzte. Hauxe da fase horren helburu nagusia: hondatutako erakundeak birsortzea, eta egonkortasuna eta segurtasun publikoa berrezartzea, bakea zaintzeko indar militar eta polizial bat hedatuta (Bosnia-Herzegovinan SFOR eta IPTF). Normalean, pentsatzen da kanpoko botereen eta nazioarteko agentzien ardurapean egoten dela fase hori. Bosnia-Herzegovinan, lan mundutarrago baina ez gutxiago garrantzitsu batzuk sartu ziren hor: laguntza humanitarioa; mina-eremuak garbitzeko laguntza teknikoa; garraio publikoa, argindarra eta ur-horniketa berrezartzea, bertako diru, banku eta ordainketa sistemei eustea; ospitaleak, eskolak etab. berreraikitzea.

Baldin eta hondatutako estatuak nazioarteko laguntzarekin gutxieneko egonkortasun bat erdiesteko zoria badu (Bosniaren kasuan bezala²⁹), prest egongo da hurrengo fasera igartzeko. Bosnian, hurrengo fase hori nazioaren prozesu aurre-europarraren hasierarekin etorri da bat. Eta hauxe da helburu nagusia: bere kabuz ibiliko diren estatu erakundeak sortzea. Erakunde horiek horko herritarren konfiantza irabazi behar dute, eta sinesgarritasuna halaber, nazioarteko arazoetan. Gainera, bizirik iraun behar dute, nazioarteko komunitatea erretiratzen denean.

Nazioarteko komunitateak arrakasta izan badu ere Konstituzioa *de facto* zuzentzeko ahaleginean, orain hura era horretan aldatzeko potentzuala agortu da. Aldaketa gehiago egiteko, Konstituzioan bertan zuzenketak egiteko xedatutako bidea jarraitu beharko litzateke. Eta hor gai asko sar litezke: herriaren barne diseinua berriro egitea, eta entitateen edo kantoien (Federazioaren barruan) arteko mugak aldatzea, adibidez. Aldaketa horiek beste hauek ekar litzakete: Bosniako txandakako hiruko presidentetza berregituratzea, Parlamentua

eta haren eskumenak aldatzea, guztientzat haustes-eskubide orokorrak eta berak bermatzea, nazionalitate bikoitzaren gaia aztertzea etab.

Hitzarmen konstituzionalaren geroari dagokionez, askoz konplexuagoa da bidegurutzea Bosniarentzat. Beste hitz batzuetan esanda, egungo egoerak erro sakonak ditu, eta erro horiek Daytongo Akordioa baino askoz lehenagoko gertakarietan eta tratu politikoetan dute jatorria. Ondare hori ezin da gainditu nazioarteko komunitatearen makilatxoaren kolpe batez edo presaka antolatutako zuzenketa konstituzional sorta batekin.

Orokorrean hitz eginda, hiru bide desberdin azaldu dira, egungo kale itxitik irteteko, azken urteetako eztabaidetatik, prentsa-komunikatuetatik eta elkarrizketetatik³⁰. Lehenak proposatzen du Daytongo egitura zeharo desegitea, eta, hor, entitateak nahiz Brcko-ko distritua ezeztatuko lirateke, eta gehiengo etnikoek kontrolatutako lurraldeen kontzeptua baztertuko litzateke. Lurralde gisa, B-H eskualde ekonomiko «logiko» batzuetan berrantolatuko litzateke, eta egungoak ez bezalako printzipioren arabera deszentralizatuko. Bigarren bideak Bosnia-Herzegovinako estatu zeharo zentralizatu bat ekarriko luke, eta horko erakundeak ere horren arabera aldatuko lirateke. Eta, azkenik, hirugarren bideak proposatzen du herria hiru entitatetan antolatzea, eta ez bitan orain arte bezala, hau da, «simetriaren» printzipioa erabiltzea etniekin eta lurraldeekin.

Bosnia-Herzegovinako jendearen esku izango da zer sistematan bizi nahi duten erabakitzea eta adostasun bat iristea Konstituzioa aldatzeko prozesuan. Bosniak Europako Batasunean sartu nahi du, eta, horregatik, Batasunak eta Europako Kontseiluak zorrotz zaindu behar dute Bosniako prozesua. Bosniak eta Europako Batasunak 2005 hondarrean hasi zituzten Egonkortze eta Elkartze Akordio bat iristeko negoziazioak, eta, harrezkero, herria Europako Batasuneko kide izateko itzulezinezko bidean da.

153

Eztabaidak eta Kezkak

Une egokia izan daiteke hau Estatu Batuetako gobernuak egun daukan ekimenaren aurrean eszeptiko agertzeko, Bosniako konstituzioa aldatu nahi baitu 2006 hasieran. Bali-teke amerikarrek (amerikar abokatuek eta GKE batzuek barne) ideia onak edukitzea, baina uko egin behar liokete zuzenketa proposamenak diseinatzeko prozesua gidatzeari. Lan hori europar lankideei utzi behar liekete. Bosniak Europaranzko bidea hartu behar du arlo guztietan, eta era serioan hartu ere. Europaren alde egitea ezin da izan estatu ministerio gutxi batzuen ardurarik bakarrik, beste administrazio publiko batzuek Europaren metodoak itxuraz bakarrik defendatzen dituzten bitartean. Herri honek Europari begiratu behar dio gobernu onaren, demokraziaren, lege aginpidearen eta giza eskubideen printzipioak eta irizpideak finkatzeko³¹. Egun, Bosnian, «Europarako bidea» da pizgarriarik indartsuena talde eta komunitate (etniko, politiko, sozial, profesional edo belaunaldizko) guztientzat. Estatu erakitze prozesuan guztia «amerikarren erara» egitea kaltegarri izan daiteke orain. Bide horrek europar bazkideetatik urrun dezake Bosnia, eta Europako irizpide konstituzionalekin bat ez datorren bidean ipin. Aldi berean, Europako Kontseilua Bosnia-Herzegovinan egiten ari den lana ere birpentsatu egin behar litzateke. Hark Bosnian izan duen presentzia oso ahula eta pasiboa izan da, leunki esanda. Gogoan izan behar da Bosnia esperantza handiz sartu zela Europako Kontseiluan 2002an. Erakunde horrek gidari izan behar luke esparru konstituzional berri bat eta lege-aginpide printzipioak eztabaidatzen direnean. Europako Kontseilua posiziorik onenean dago laguntzeko, eta gauza asko eskaini ditzake: bere estatutuetan zehaztutako printzipio demokratikoak gauzatzeko esperientzia, eskualdea «europartzeko» laguntza legala eta tekniko.

Azkenik, ametsa da sinestea Konstituzioa aldatuz bakarrik konpon daitekeela Bosniako estatutasun krisia. Bosniako gizarteak ez du ikusten bere burua herri horretakoa, eta hori larria da. Bosniarrek, maiz, ez dakite zein den beren nortasuna, etnikotasuna eta erlijioa alde batera utzita. Nortasun nazionala sortzeko prozesuak lotura estua izaten du norbere herriak lortzen dituen arrakastekin. Estatu erakundeetan konfiantza orokorra sortzetik edo herriak atzerrian irudi ona lortzetik etor daiteke indar kohesio-emangarri hori, baina guztiek ere autoestimua zabaltzen dute herritarren artean. Beste hitz batzuetan esanda, nortasuna eta norbere burua nonbaitekoa ikustea funtsezkoak dira estatua eraikitzeko eta «aberriaren» sentimendua sendotzeko. Horra heltzea askoz zailagoa eta geldiagoa da zuzenketa konstituzional batzuetan adostasuna iristea baino. Bosniako trantsizioak, ordea, aldi berean egin beharko du aurrera bi bide horietan.

Hitzaldiaren inguruko oharra

¹ Autore honek 1992ko martxoan eta apirilean Sarajevoko «Nedjelja» astekarian argitaratutako artikulu sorta batean landua.

² Nazio Batuen Gutuna, XII. kapitulua.

³ Bosnia-Herzegovinako Bakerako Esparru Akordio Orokorra, eta Eranskinak. Nazioarteko Legezko Agiriak, XXXV. liburukia, 1 zk., 1996ko urtarrila, 75-183 or. (hemendik aurrera «Daytongo Akordioa» deitua). Akordioari «Dayton» deitu ohi zaio bakarrik, zeren Daytongo (Ohio) Wright Patterson Aire Armadaren Basean hiru astean egindako negoziazioetan idatzi baitzen osorik, 1995eko azaroan.

⁴ Pajic, Zoran, *Protectorates Lost. War Report*, Londres, 1998ko otsail-martxoak.

⁵ Jugoslavia ohiari buruzko Aditu Batzordea, Veronako Foruma, Helsinkiko Herritarren Batzarra etab. (autorearen agiri pertsonaletatik).

⁶ Daytongo Akordioaren 10. eranskina. Praktikan, ordea, Goi Ordezkararen rola izugarri hazi zen, eta behatzaile batzuek esan zuten ordezkar horrek britainiar raj-aren antza zuela. Gerald Knaus eta Felix Martin: *Travails of the European Raj. Journal of Democracy*, 14. liburukia, 3 zk., 2003ko uztaila, 60-74 or.

⁷ Daytongo Akordioaren 4. eranskina: Bosnia-Herzegovinako Konstituzioa, VI. artikulua, 1a parag.

⁸ *Ibid*, VII. artikulua, 2. parag.

⁹ Daytongo Akordioaren 6. eranskina, IV. eta VII. artikulua.

¹⁰ Ikus: Caplan, Richard, *International Governance of War-Torn Territories*. Oxford University Press, 2005.

¹¹ Ikus: Bake Inplementazio Kontseiluaren Bonn-eko Ondorioak, BIKen Bilera Nagusia, Bonn, 1997ko abenduaren 9-10. «Kontseiluak ongi ikusten du Goi Ordezkariek duen asmoa, hau da, hark bere aginpide gorena erabiltzea Akordioaren interpretazioan, Bake Hitzarmenaren Inplementazio Zibilar dagokionez. Zailtasunak gainditzen lagunduko du horrela, eta betebeharreko erabakiak hartuko ditu, beharrezko ikusten duenean, ondoko gaietan:

- a. erakunde komun bileren eguna, tokia eta buruzagitza;
- b. behin-behineko neurriak, alderdiek akordiorik iritsi ezin dutenean indarrean sartzeko, eta indarrean egongo dira gainera harik eta Ministro Kontseiluaren Lehendakartzak gai horretan Bake Akordioarekin bat datorren erabaki bat hartu arte;
- c. Bosnia-Herzegovinan eta haren Entitateetan Bake Akordioa inplementatzeko eta erakunde komunak ongi ibiltzeko beste neurri batzuk. Kargu publikoak dituzten pertsonen edo funtzionarioen aurkako ekintzak ere sar litezke hor, arrazoi sendorik gabe bileretara huts egiten badute, edo Goi Ordezkariek ikusten badu Bake Akordioaren pean hartutako lege konpromisoak edo horiek betetzeko baldintzak urratzen dituztela.

¹² Haren I. artikulua, «Jarraipena»-n, 1. paragrafoan, honela dio: Bosnia-Herzegovinako Errepublikak «Bosnia-Herzegovina» izango du izen ofiziala hemendik aurrera, eta estatu gisa jarraituko du bere lege-izatea nazioarteko legeriaren pean, agiri honetan xedatutako aldaketak dituela barne-egituran, eta nazioarteak aitortutako bere egungo mugak gordeta. Nazio Batuen Erakundeko Estatu Kide iraungo du, eta Nazio Batuen sistemako nahiz nazioarteko beste erakunde batzuetako erakundeetan egotea edo sartzea eska dezake Bosnia-Herzegovina gisa.

¹³ «Demokrazia inposatu» gaian sakontzeko, ikus Democracy by Force. Karin von Hippel, Cambridge University Press, 2000.

¹⁴ Ikus 11. oin-oharra.

¹⁵ Hots, Esloveniako Errepublika, Kroaziako Errepublika, Jugoslaviako Errepublika Federala (orduan Serbiak eta Montenegrok osatua). Baita Mazedoniak ere, bere izen inposatu berezian: Mazedoniako Errepublika Jugoslaviar Ohia.

¹⁶ Ikus: III. artikulua, 3b parag. eta VI. artikulua, 3a parag.

¹⁷ Republika Sprska-ko Konstituzioa, *Hitzaurrea (XXVI. eta LIV. zuzenketez zuzendua)*:

Abiatu serbiar jendeak autodeterminatzeko daukan eskubide berezko, alienaezineta
besterenezinetik, horretan oinarrituta aipatu jendeak, beste edozein jende subiranok bezala, era independentean erabakitzen baitu bere politika eta Estatu estatusaz, eta segurtatzen baitu bere garapen ekonomiko, sozial eta kulturala.
Errespetaturik serbiar jendeak mendeetan askatasunaren eta Estatu independentziaren alde egindako borroka;
Adierazirik serbiar jendeak bere Estatu demokratikoa edukitzeko asmo tinkoa duela, eta estatu hori justizia sozialean, legearen aginpidean, giza duintasunean, askatasunean eta berdintasunean oinarrituko dela.
Eskaini nahirik ongizate orokorra eta garapen ekonomikoa, jabetza pribatuaren babesaren eta merkatu ekonomiaren sustapenaren bitartez.
Aitorturik Republika Sprska-ko serbiarrek beren Estatu serbiarren beste Estatu batzuekin estuki batzeko eskubide berezko eta demokratikoa, gogoa eta asmo tinkoa dituztela.
Gogoan edukirik serbiar jendeak bakea eta herrien nahiz Estatu arteko harreman adiskidetsuak bilatzen dituztela.

Republika Sprska-ko Batzar Nazionalak ondokoak onartzen ditu:

Artikulua XLIV. zuzenketaz ordezkatu da, eta honela dio:

«Republika Sprska serbiar jendearen eta bertako herritar guztien Estatu izango da»

Artikuluko 1. paragrafoa XLV. zuzenketaz ordezkatu da, eta honela dio:

«Errepublikaren lurraldea bakarra, zatiezina eta besterenezina izango da».

¹⁸ Bosnia-Herzegovinako Federazioko Konstituzioa, *1. artikulua*:

(1) Bosniakoek eta kroaziarrek, herri eratzailerik gisa, gainerakoekin batera, beren eskubide subiranoak erabilita, bosniakoak eta kroaziarrak gehiengo diren Bosnia-Herzegovinako Errepublikako lurraldeen barne-egitura aldatu, eta Bosnia-Herzegovinako Federazioa sortzen dute.

(2) Serbiarrak gehiengo diren Bosnia-Herzegovinako Errepublikako lurraldeen estatus konstituzionalari buruzko erabakiak Jugoslavia ohiari buruzko nazioarteko batzar bateko bake negoziatioetan hartuko dira.

¹⁹ «Herzeg-Bosniako Kroaziar Komunitatea», nahiz eta RS baino lehenago sortua izan (1991eko azaroaren 18an), sekula ez zen ofizialki aipatu Daytongo Akordioan, baina haren egitura instituzionala luzaroan egon zen bizirik Federazioaren barruan. Nazioarteko komunitatea erabat «hirugarren entitate

(kroaziarraren)» aurka bazen ere ofizialki, praktikan onartu egiten zuen hura epailletzan, zenbait lege arlotan, administrazioan, erakunde militarren mailan etab.etan.

²⁰ Washingtongo Akordioaren «sinatzaileek», Kroaziako Errepublikako Atzerri Ministroa tartean zela, «hitzartu dute goi-mailako Trantsizio Batzorde bat sortzea, eta hark urrats bizkor eta zehatzak egingo ditu... Konfederaziorantz». Ikus: Akordioaren Hitzaurrea.

²¹ Bosnia-Herzegovinako Konstituzioa, Hitzaurrea:

Giza duintasunarekiko, askatasunarekiko eta berdintasunarekiko errespetuan oinarriturik,
Bakeari, justiziarri, tolerantziari eta berradiskidetzeari eskainirik,
Gizarte anitz batean gobernu erakunde demokratikoen eta jardunbide garbiek sortzen dituztela harreman baketsuak sinetsirik,
Jabetza pribatua babestuz eta merkatu ekonomia bultzatuz ongizate orokorra eta garapen ekonomikoa sustatu nahirik,
Nazio Batuen Gutuneko Helburuek eta Printzipioek gidaturik,
Nazioarteko legearen arabera Bosnia-Herzegovinaren subiranotasunarekin, lurralde osotasunarekin eta independentzia politikoarekin konprometitirik,
Nazioarteko lege humanitarioekiko erabateko errespetua ziurtatzea erabakirik,
Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak, Eskubide Zibil eta Politikoen eta Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Hitzarmenek, edota Nazio, Etnia, Erljio eta Hizkuntza Gutxiengoetako pertsonen Eskubideen Deklarazioak zein beste giza eskubide tresna batzuek eraginik,
1995eko irailaren 8an Genevan eta 1995eko irailaren 26an New Yorken hitzartutako Oinarrizko Printzipioak oroiturik,
Bosniakoek, kroaziarrek eta serbiarrek, herri eratzailerik gisa (Beste Batzuekin batera) eta Bosnia-Herzegovinako herritar moduan, honen bidez erabakitzen dute Bosnia-Herzegovinako Konstituzioak honela dioela:...

157

²² B-Hko Konstituzioaren III. artikulua, 3b paragrafoa.

²³ Ikus: Rajko Tomas, Efficiency Constraints on the Economy of Bosnia and Herzegovina, 99-119 or. In Dayton and Beyond: Perspective on the Future of B&H, Christophe Solioz-ek eta Tobias K. Vogel-ek argitaratua, Nomos 2004, 99-127 or.

²⁴ Nazioarteko komunitateak debekatuta bezala zeukan 4. Eranskinaren aldaketa aipatzea ere orain urte gutxi arte. Autore honek Konstituzioa aldatzearen alde hitz egin zuen, Krisiko Nazioarteko Taldearen lege aholkulari zela (1999-2000), eta Goi Ordezkariaren Bulegoak (GOB) zerrenda beltzean ipini zuen. «Baldin eta Bosniak ezer nahi badu Europan, bere Konstituzioa aldatu beharko du», Sarajevoko Oslobodjenje egunkarian egindako elkarrizketa, 1999ko urriaren 5a, 4. or.

²⁵ X. artikulua, 1. paragrafoa: Konstituzio hau aldatzeko, Parlamentu-biltzarraren erabakia behar da. Etorritakoen bi hereneko gehiengoak bozkatu behar du alde, eta Ordezkarien Ganberan egin behar da bozketa.

²⁶ Ikus: 10. eranskina (Inplementazio Zibilaren gaineko Hitzarmena).

²⁷ Kanpo Arazoetako Ministerioa, Kanpo Merkataritzako Ministerioa eta Komunikazioko eta Arazo Zibiletako Ministerioa.


²⁸ Ondoko arloak hartzen dituzte: kanpo arazoak, kanpo merkataritza eta harreman ekonomikoak, finantzak, komunikazioak eta garraioa, arazo zibilak, giza eskubideak eta iheslariak, justizia, defentsa.


Ministro Kontseiluari buruzko Legea, 2003ko uztailaren 18, 2003ko abenduaren 2an zuzendua.

²⁹ Ikus: Fukuyama, Francis, *State-Building: Governance and World Order in the Twentieth Century*. Profile Books, 2004, 135-136 or.

³⁰ Irtenbide politikoaren lehen laburpen bat jasotzeko, ikus: *Is Dayton Failing—Bosnia Four Years after the Peace Agreement*. Krisiko Nazioarteko Taldea, 1999ko urria.

³¹ Ekintza-bide hori Europako Parlamentuak proposatu zuen garairik egokienean onartutako ebazpen batean. Ikus: European Parliament resolution on the outlook for Bosnia and Herzegovina, 2006ko otsailaren 16a, P6_TA-PROV(2006)0065.





Presoak eta bake prozezua Ipar Irlandan

KIERAN MCEVOY JN.

Zuzenbide eta Justizia Trantsizionaleko irakaslea Belfasteko Queen's University-ko Kriminologia eta Justizia Kriminaleko Institutuan. Ipar Irlanda

Kieran McEvoy Kriminologiako eta Jurisdikzio Penaleko Institutuko zuzendaria da eta Belfasteko Queens Unibertsitatearen Zuzenbide Fakultatean zuzenbidea eta trantsizio-justizia irakasten ditu. Aurretik, boluntario-lanetan jardun zuen informazio-teknikari gisa, presoan eskubideen aldeko NIACRO erakunde garrantzitsuentzat. Ikertzaile bisitaria izan da Fordham Universityren Zuzenbide Fakultatean, New Yorkeko Unibertsitatearen Zuzenbide Fakultatean, Cambridgeko Unibertsitatearen Kriminologia Institutuan, London School of Economicsen Mannheim Kriminologia Zentroan eta Kaliforniako Unibertsitatearen Berkeleyko Zuzenbide Fakultatean. Bestalde, Fulbright ikerketa-beka lortu du Harvardeko Zuzenbide Fakultatean. *British Journal of Criminology*ko kritikaria da, bai eta *Criminology and Criminal Justice* eta *Contemporary Justice Review* aldizkarietako argitalpen-batzordeetako kide ere. Halaber, CAJen (Justizia Administrazioari buruzko batzordearen) lehendakariorde da eta NIACROko batzorde exekutiboko eta Community Foundationeko justizia sozialeko batzordeko kide ere bai. Ugari idatzi du preso politikoen, borrokalari ohien, justizia lehenatzailearen eta trantsiziokoaren eta giza eskubideen gainean. Gaur egun, ikerketa garrantzitsua ari da amaitzen Ipar Irlandako, Rwandako, Sierra Leonako, Kolonbiako eta Hegoafrikako gudulari



CURRICULUMA

ohiei buruz. Liburu mordoak du idazle, egilekide nahiz editorekide; hona hemen batzuk: *Crime Community and Locale* (J. Morisonekin, R. Gearyrekin eta D. O'Mahonyrekin batera, 2000, Ashgate); *Paramilitary Imprisonment in Northern Ireland* (2001, Oxford University Press) 2002an urteko liburuaren saria jaso zuen British Society of Criminologyren eskutik; *Criminology Conflict Resolution and Restorative Justice* (2003, editorekide T. Newburnekin batera, Palgrave); *Judges, Human Rights and Transition* (2006/7, editorekide J. Morisonekin eta G. Anthonyrekin batera, Oxford University Press); *Truth, Transition and Reconciliation: Dealing with the Past in Northern Ireland* (Willan, 2007); eta *Beyond the Wire: Ex-prisoners and Conflict Transformation in Northern Ireland* (B. Grahamekin eta P. Shirlowrekin, 2007, Pluto). L. McGregorrekin batera editorekide izan da, halaber, *Journal of International Criminal Justice* aldizkariaren 2007ko ale berezian; *Transitional Justice From Below* du izenburu eta hori ere Oxford University Preesek argitaratuko du liburu moduan.

LABURPENA

Presoei emandako tratamendua giltzarri izan zen Ipar Irlandako gatazkaren bake-prozesuan.

Tratamendu horren barruan sartu zen, lehenik, espetxeetako presoek egoera. Egoera hori Gobernu britainiarraren eta espetxe arloko agintarien jarreraren arabera aldatu zen, eta urteak joan ahala hainbat aldaketa izan zituen. 70eko hamarkadan oinarria espetxe-barruko bortizkeria kontrolatzea izan zen, 1976. urtetik aurrera preso politikoak kriminalizatu egin ziren eta 1981. urtean esku-hartze politiko gutxiagoko estilo pragmatikoa ezarri zen.

1998. urtean Irlandako preso politikoek askapena Epaiei buruzko Legean oinarrituta gauzatu zen. Lege horretan batzorde independentea ezartzen zen, preso paramilitarren askapena gainbegiratzeko.

Bortizkeria amaitzeko ahalegin berri horren elementu nagusietako bat Gobernu labo-ristaren irizpide irmo bat izan zen: presoek askapena ez zegoen armak uzteko baldintzaren pean.

Prozesuaren une zailenak presoek askapenak gatazkaren biktimengan izandako eraginarekin –biktima guztiek ez zuten iritzi bera gertakari horri buruz– eta presoak gizarte zibilera itzultzearekin lotuta egon ziren. Itzultze horretarako hainbat baliabide sortu ziren, besteak beste Europar Batasunetik zetozen diru-funtsak erabiliz.

Presoak eta bake prozesua: Ipar Irlandako prozesua eredutzat harturik

Sarrera

Erne nazioarteko adituak: zuen esku dago euskal testuinguruan zer den garrantzitsua erabakitzea. Aurkezpen honetan, Ipar Irlandako presoak askatu eta gizarteratzeko prozesuari jarriko diot arreta. Lehendabizi, ordea, Ipar Irlandako preso politikoen ibilbide historiko laburra egingo dut, gatazkak iraun duen 30 urteena. Horri buruz liburu bat idatzia dut eta, idazten lau urte eman banituen ere, hiruzpalau minututan laburbilduko dut.

Gobernu Britainiarrak eta espetxe-autoritateek, gatazkan zehar, erantzun desberdina eman zioten *izaera politikoko espetxeen kudeaketari*.

Espetxeak leku praktiko eta sinbolikoak izan ziren, eta haietan ere garatu zen gatazka. Presoak tratatzeko modua protagonisten *borondate politikoaren* isla zuzena da. Estatuak presoak torturatzen baditu, edo haiei edo beren senideei nahita *sufriarazten* badie, ez du bakean interesik izango. Era berean, presoek espetxeko funtzionarioei erasotzen badiete edo kanpoko kideek etengabe erasotzen jarduten badute, haiek ere ez dute bakean interesik izango. Hortaz, gatazkan murgildutako *eragileen buru eta bihotzen* ikuspegi argia eskaintzen digute kartzelak.

163

Euste erreaktiboa

70eko hamarkadaren hasieran espetxeetan aplikatzen zen kudeaketa-eredua euste erreaktiboa zen, hau da, estatua *erreakzionatzen* eta indarkeria *geldiarazten* saiatzen zen. Kartzeletako biztanleak 600etik 3.500era gehitu ziren bizpahiru urtean. Kartzelak arrapaladan bete ziren preso konbiktuak Bigarren Mundu Gerrako eremuen antzerakoetan zeuden. Presoek estatus berezia zuten, IRAren eta talde lealisten artean banaturik zeuden eta berezko aginte-egiturak zituzten. Gainera, hitzaldi militarrek eta politikoak antolatzen zituzten, entrenatu eta desfilatu egiten zuten, eta beren buruzagiek espetxeetako zuzendariekin negoziatzen zuten. Estatua susmagarri paramilitarrak epaiketarik gabe barruan sartzen hasi zen eta modu gupidagabea torturatu zituen. Hori esanda, gehitu beharra dago ez zela gatazkaren izaera politikoa ukatzeko inolako ahaleginik egiten, bereziki kartzeletan. Ekintzaile armatuak ahalik eta modurik erosoenean atxikitzeko lekuak ziren kartzelak, armada britainiarra *IRAren aurkako gerran ari zen bitartean* (lealistas ez ziren hain parte-hartzaile eraginkorrak) eta negoziatutako irtenbide-politiko bat bilatzen zuten bitartean.

Kriminalizazioa

1976tik aurrera, berriz, bigarren eredu bat aplikatu zen, *kriminalizazioan* oinarritua, hau da, gatazkaren izaera politikoa ukatzean oinarritutako eredu. Margaret Thatcherek esaldi famatu honetan laburbildu zuen:

«Krimena krimena da. Ez da politikoa, krimena da».

Politika haren helburua espetxeratze politikoaren eta presoak atxikitzeko moduaren alderdi praktikoak eta sinbolikoak deuseztatzea zen. Ez zen epaiketarik gabe beste inor kartzelaratu. Presoen estatus berezia desagertu egin zen. 1976ko martxoa baino beranduago atxilotutako guztiak kriminal arrunten moduan tratatu zituzten. Presoak lan egitera eta uniforme janztera *behartu* zituzten, eta taldekako banaketa hautsi nahi izan zuten: presoak preso arruntekin harremanetan hastera *behartu* zituzten, eta lealistak eta errepublikanoak *nahastu* egin zituzten. Taldeetan *ez* zen aginte-egiturarik onartzen; oso *zorrotz* aplikatu zituzten arauak. Presoekin indarkeria bortitza erabili zuten eta gorputzeko zokoan miaketa basatiak egin zituzten. Hori dena, presoak *txikitze* eta espetxeetan IRA «garaitzeko» diseinaturik zegoen.

Politika hura izugarri txartzat hartzen dute gaur egun alde guztiek. Honako hauek ekarri zituen: indarkeria handitzea kartzeletan zein kanpoan, errepublikanoen gose grebak eta protestak eta Britainia Handiaren aurkako gaitzespen zabala nazioartean, giza eskubideak urratzearen. Baina estrategia hark *ere ez* zuen funtzionatu. Aitzitik, IRA indarberritu eta gose greban aritu ziren errepublikanoak, Bobby Sands esate baterako, heroi bihurtu zituen.

1981aren ostean hartutako estiloa - Kudeaketa

Estilo hori askoz ere *pragmatikoagoa* zen eta onartzen zuen kartzelek ez zutela talde armatuak «garaitzeko» balio. Aldiz, indarkeriaren ondorioak *kudeatzeko* erabili behar zirela aldarrikatzen zuten. Ministroek interferentzia politiko gutxiago egiten zuten, eta kudeatzaileei kudeatzen uzten zieten. Gutxinaka, bereizketak kudeaketa errazten duela joan ziren onartzen (gustuko ez izanagatik) eta borroka-lerroak zenbait fasetan birdefinitu zituzten, adostasun pragmatiko arruntera mugatu gabe.

164

Jakina, presoak ez dira prozesu osoan pasiboak izan. Erresistentziarako estrategia multzo handia hedatu dute, besteak beste honako hauek: *mobilizazio kolektiboa* eta kartzelutako antolakuntza, *ihesaldiak*, *indarkeria* kartzela barruan eta kanpoan (indarkeria eta mehatxuak modu estrategiko eta neurtuan erabiltzea espetxeko langileak «baldintzatze»), auzitegi eta lege-instantziak erresistentzia sinboliko eta praktikoa egiteko leku gisara erabiltzea (auzitegiak ez onartzea eta espetxe-kudeaketako ia erabaki guztiak epaiketaz berrikustea) eta protesta zikina eta hil arteko gose greba egiteko estrategia sonatuak aurrera eramatea.

Presoen askapen-prozesua Ipar Irlandan

Presoen askapenari buruzko legeria

Gai horiei heldu aurretik, komenigarri izan liteke presoak nola askatu ziren labur azaltzea. Iparraldean, Ipar Irlandako Epaiei buruzko Legearen arabera egin zen. Errepublikan, berriz, 1998ko Zigor Justiziako Legearen arabera (presoen askapena).

Ipar Irlandako Epaiei buruzko 1998ko Legeak jasotzen zuenez, batzorde independente bat eratu zen, «aukeratutako» preso paramilitarren askapena gainbegiratzeko ardurua zuena. Batzorde horretako kideak preso paramilitarren askapena babesten zuten pertsona eza-gunak ziren. Legeak honela definitzen ditu aukeratutako presoak: 1998ko apirilaren 10a baino lehen (data horretan sinatu baitzen akordioa) delitu «terroristagatik» kartzelaratu-tako presoak; su-etena babesten ez duten erakundeen alde ez dauden presoak; askatuz gero, segur aski, erakunde horien alde egongo ez liratekeen presoak eta, biziarteko katea dutenen kasuan, berehala askatuz gero, arrisku publiko ez liratekeen presoak¹. Legearen 3 (8-10) Atalak begirale funtzioa ematen dio Barne Ministroari erakundeak «zehazteko» orduan,

erakundeek su-eten «oso eta nabariari» eusten diotela bermatzeko. Era berean, Legeak beharrezko malgutasuna ekarri du su-etena babesten ez duten erakundeak indarkeria uztera animatzeko, beren presoak aurrez askatzeko mekanismoez baliatu daitezzen.

Presoak askatzeko prozesuaren hasieran, beren askapena batzordeari eskatzera animatu zituzten presoak berak. Horren ondorioz, 1998ko abuztuaren 21erako, batzordeak 446 eskaera jasoak zituen. Barne Ministroak plan hori bertan behera uzteko edo berrabiarazteko ahalmenari eutsi zion, baita arestian aipatutako irizpideak betetzen ez zituzten pertsonak askatzea saihesteko ahalmenari² ere. Planaren amaieran, guztira 433 preso askatu ziren (193 lealistas ziren, 229 errepublikanoak eta 11 beste ideologia batzuetakoak), 2000ko urriaren amaieran.

Presoen askapena talde paramilitar disidenteentzako bake-pizgarri gisa: azenarioa?

Bi jurisdikzioek presoen askapenerako sortu zituzten xedapenei esker, hasiera batean bake-prozesuaren aurka agertu eta borroka armatuarekin jarraitu zuten taldeak baztertuta geratu ziren. Talde horien artean hauek zeuden: Boluntario Lealisten Indarra, Herri Askapenerako Armada Irlandarra, Jarraipeneko IRA eta Benetako IRA. Hala ere, horietako edozein erakunde su-etena emanaz gero, legeriak behar besteko malgutasuna zeukan zegoen gobernuak indarkeria baztertze hori onartu eta talde hori presoen askapenerako planean sartzeko. Estrategia horrek, akordioaren osteko panorama politiko desberdina eta erakunde txiki horien muga teknikoak tarteko zirela, su-etena eman ez zuen talde horietako batekin soilik erakutsi zuen oso erabilgarri zela (agiri hau idazterakoan zegoen informazioaren arabera).

Akordioaren osteko garaian su-etena eman zuen lehenengo taldea LVF talde lealista disidentea izan zen. Talde horrek 1998ko maiatzean iragarri zuen indarkeria utziko zuela, erreferendumak egiteko³. LVF (UVFren zatiketa, Ulster-eko buru izandako Billy Wright buru zuena), bake-prozesuaren aurka agertu zen behin eta berrero, bai eta UVFren beso politikoak, Alderdi Unionista Aurrerakoiak (Cusack eta McDonald, 1997) hartutako ildo politikoaren aurka ere. Hasieran, LVFk ukatu zuen su-etena ematearen helburua alde aurreko askapena lortzeko xedapenen onurez baliatzea zela. Hala ere, taldeko buruzagiak, Maze-ko segurtasun handiko kartzelan baitzegoen, *su-etena eman duten beste erakundeetako presoek zuten tratatu berbera*⁴ eskatu zuen, eta bozeramaileak, Kenny McClinton artzainak, armagabetzarekin konpromisoa hartzeko desioa zuela adierazi zuen, betiere, «presondegiko baldintzetan» aldaketa batzuk egitearen truke. Gobernu britainiarrak onartu zuen bere su-etena, 1998ko azaroaren 12an, eta abagune hartan, gutxi gorabehera, LVFko 25 presok eskatu ahal izan zuten askapena.

Alde errepublikanoan, INLA izan zen akordioa sinatu eta denbora gutxira su-etena eman zuen lehenengo talde disidentea. INLAK su-eten hori 1998ko abuztuaren 24an iragarri zuen. Maze-ko presoei dagokienez, kartzelan zegoen INLAKo buruak, Christopher McWilliams-ek (aurreko urtean Billy Wright tirokatu zuen gizonak) honakoa baieztatu zuen: «...presoen askapena bermatzea, ez da sekula gure lehentasuna izan. Azken batean, munduko gatazka guztietan egoten dira preso politikoak. Zerbait lortzen baldin bada, haren partaide izango garen konfiantza daukagu».

Hori oso ongi dago azenarriotzat, baina zer moduz makiltzat?

Presoak askatzea eta erakundeak armagabetzea: makila?

Lehenago esan dugun legez, alderdien arteko elkarrizketa bati ekin ahal izateko armagabetze paramilitarra beharrezkotzat jotzea izan zen, 1996an, IRAren lehenengo su-etenak porrot egiteko arrazoia. Arazo horrek (agiri hau idazterako unean ere eztabaidagai nagusi izaten jarraitzen duenak) garrantzi sinbolikoa dauka unionistentzat, lealistentzat eta errepublikanoentzat (Von Tangen Page [b]1998). Unionistentzat, suzko froga da, eta zinez indarkeria politikorekin amaitu nahi dutenen fede ona erakutsiko du⁵. Paramilitar lealista eta errepublikanoentzat, berriz, errendizioa da ia, eta hori bakoitzaren protagonista paramilitarren ideologiaren aurka doa. Izan ere, ideologia horren arabera, armak dira beraien komunitatea etsaiaren erasoan aurka babesteko azkeneko bermea.

Behatzaile batzuek iradoki dutenez, presoan askapenaren auziak zerikusia du Akordioak presoan askapenari buruz xedatutakoarekin (Ruane eta Todd 1998, Morgan 2000). Akordioan, azken batean, halako loturarik ez dagoen arren, nola unionistek hala diputatu kontserbadoreek energia ugari erabili zuten lege-proiektua onartu eta erlazio hori erakusteko.

Gobernu laboristak tinkotasunez azpimarratu du presoan askapena ez dagoela armagabetzearekin lotuta.

Bestalde, 80ko eta 90eko hamarkadetan presondegien kudeaketan pragmatismo handiagoa erabiltzeak, zalantzarik gabe, inguru bat sortzen lagundu zuen, non paramilitarrak indarkeria ez beste estrategia batzuk hasi ziren kontuan hartzen. Irlandako kartzelaratzeko politikoen historiari ateratzen dugun ondorioa hau da: presoak ematen zaien tratua paramilitarren babesleengan konfiantza *sortzeko* edo *kentzeko* eragina izan lezake. Ez da, beraz, kontzesioak ematera *behartzeko* erabili daitekeen gai bat.

Presoen askapena eta indarkeriaren biktimak

166

Gatazka konpontzeko prozesuan, alde aurreko askapenen alderdirik konplexuenetako bat hauxe da: askapenak gatazkaren biktimengan duten eragina. Beste kasu batzuetan frogatu izan den moduan, indarkeriazko gatazka politikoa batean, biktimek edo biktimen senideek jasaten dituzten ondorio sozial edo psikologikoak oso larriak dira (Foster eta Skinner 1990, Straker 1993, Dawes 1994). Zigor osoa bete duen preso bat askatzea traumatikoa izan daiteke preso horren ekintzen ondorioz hilda edo zaurituta gertatu zirenen senideentzat (Maguire 1991). Gainera, askapena hasierako epaian aurreikusitakoa baino lehenago gertatzen bada, sententzia hori are larriagoa izan daiteke.

Ikerketa honetarako, eta baita aurreko beste batzuetarako ere, autore honek arrazoi politikoen ondoriozko indarkeriaren biktimak, beraien erakundeak eta bozeramaileak elkarrizketatu ditu Ipar Irlandan, Italian, Espainian, Hego Afrikan eta Israelen (Gormally eta McEvoy 1995). Elkarrizketa horietan atera ziren gaiak azaltzeari ekin aurretik, garrantzitsu deritzot zenbait gauza kontuan hartzeari.

Ez dago ikuspegi bakar monolitikorik; biktimek iritzi desberdinak dituzte, honakoak kasu:

Etsaitasun irmoa.

Posizionamendurik ez, laguntzaren beharra.

Estatuaren indarkeriaren biktimak: 360 hildako. Segurtasun indarretako 4 kide kartzelaratu zituzten. Guztiak zeuden berehala kalean.

Zauriak ixteko eta berradiskidetzeko beharrezko aldea.

Hutsegite larriak izan dira. Esate baterako: IRAko kide bat, berak eraildako poliziaren urtebetetze egunean askatzea.

Prozesuaren zatirik zailena.

Preso paramilitarrak birgizarteratzea

Gobernuek jarraitzen dute onartzen presoei komunitatean birgizarteratzea erraztuko dieten neurriek garrantzi handia dutela. Horregatik, askapenaren aurretik zein ondoren lagunduko diete lanpostu bat lortzeko aukerak aragotzen, prestakuntzaren bitartez, edota gaitze eta ikasketa gehigarrien bitartez (Ostiral Santuko Akordioa, 1998).

Preso paramilitarren «birgizarteratzearen» kontzeptua beti izan da arazo-iturria preso politikoentzat. Lehen aipatu dugun moduan, preso politiko askok birlaneratzeko agentzien (Probation edo NIACRO, adibidez) zerbitzuetako batzuk erabiltzeari uko egin diote, eta ez dute «kriminal» etiketa eramaterik onartuko (McEvoy et al 1999). Gatazkak iraun zuen urteetan zehar, eta 1994ko su-etenen ostean, beren estatus politikoa aldarrikatzeko asmoz, preso paramilitar askok eta haien babesleek adierazi zuten ez zeukatela birgizarteratzearen beharrik. Ziotenez, beren komunitateetan ez zituzten gaitzetsi, eta ez zituzten «krimenak» burutuko, orduko baldintza politikoa egon izan ez balira (Sinn Fein, 1995). Lanbide agentziek adierazi zuten borroka ideologiko haiei ez entzunarena egin behar zitzaiela, presoei zerbitzu praktikoak eskaintzeko orduan⁶.

Bake-prozesuak aurrera egiten zuen neurrian, presoek taldeak (eta lanbide agentziak) beren jarrerak egokituz joan ziren, presoei askapenaren aurretik eta askapenaren ostean eskaintzen zitzazkien erraztasunak aprobetxatu behar zituztela onartzera iritsi arte. Hartu zen birgizarteratze-eredua «autolaguntzarena» izan zen, hots, antzinako presoei kudeatu eta hornituko zituzten beharrezko zerbitzuak (Ritchie, 1998). Europar Batasuneko bakerako eta berradiskidetzeko funtsak, Europar Batasunak bake-prozesua bultzatzeko sortutakoak, 1,25 milioi libera esterlina eduki zituen presoek birgizarteratzea bultzatzeko, 1998an. Funts horiek Ipar Irlandako Funts Boluntarioaren bitartez banatu zituzten. Funts Boluntarioa bekak emateko agentzia bat da, irabazi-asmorik gabeko eta esperientzia handikoa; Belfast-en du egoitza (NIVT 1998).

Fakzio paramilitarren artean proiektuak egin eta aurrera eramane zirela kontuan hartuz, oraintxe bertan preso ohientzako 26 bat komunitate-proiektu daude Ipar Irlandan⁷. IRAko afiliatu errepublikanoek aterki-proiektu bat jarri zuten abian (Coiste na n-Iarchimi), beraien zenbait proiektu kudeatzeko helburua zuena, eta antzinako preso errepublikanoen zerrendetatik kanpo zegoen kudeatzaile bat izendatu zuten proiektuaren buru⁸. Birgizarteratze-proiektuek burututako lanaren barnean honakoak ditugu: hezkuntza, langileak hartzeko programak, finantza eta gizarte laguntza, etxebizitza, ostalua eta famili orientabidea. (McShane 1998).

Antzinako presoei ere presioa egin dute, bai Ipar Irlandako Giza Eskubideen Batzorde berriaren plan estrategikoan eta baita berari dagokion Eskubideen Adierazpenaren zirriborroan ere, antzinako presoek aurkako bereizkeria jasotzeko.

Presoak askatzea eta arrazoi politikoak aitortzea

Gatazkaren izaera politikoa aitortu dezaten lortzeko zorian gaude, eta horrek preso politikoak askatzea ekarriko du⁹.

Elkarrizketa garrantzitsu honetan, Pdraig Wilson-ek, Maze-ko IRAko buruak, presoek garrantzi sinbolikoa azpimarratu zuen. Seamus Mallon SDLPko lehen ministroordeak adierazi zuenez, Ostiral Santuko Akordioa «*geldoen Sunningdale*» zen¹⁰, porrot egindako

1973ko akordio-ahalegin hura aipagai zuela. Izan ere, 1998ko akordioan jasotako zenbait gai 1973koak ere hartu zituen barne: boterea partekatuko duen exekutibo bat, mugaz haraindiko lankidetzaz mugatua, giza eskubideen babesa eta bereizkeriarik eza. (Bloomfield, 1994). Baina Ostiral Santuko Akordioa horrela deskribatzeak haren konplexutasuna gutxiesten du.

Sunningdale-ko prozesuak, gobernuak gatazka-aldian zehar egindako politika ugarik bezala, pentsaera bat izan zuen oinarri, honako hauek lortzeko helburuz: «Ipar Irlandan politika konstituzional arrunta berrezartzea», eremu zentralista bat eraikitzea eta paramilitarrak politikoki baztertu eta segurtasun-politika eraginkor baten bidez geldiaraztea (Cunningham 1991). Ostiral Santuko Akordioak, osteraz, prozesuan «muturreko» iritziak sartzeko nahia du bereizgarri. 1998ko ahalegin hura erraztu egin zuen ideologia errepublikano eta unionista ordezkatzen zituzten antolatutako alderdi politikoak egoteak. Alderdi horiek ez zuten inolako hauteskunde-mandaturik 1973an. Esan liteke horrek paramilitarren arrazoi politikoak onestera, estatua gatazkaren protagonista dela inplizituki onartzera eta politika «segurtasunaren» aurretik jartzera daramala. Horrek guztiak gatazkaren izaera politikoa aitortzea azpimarratzen du.

Von Tangen Page-ek (1998 [a]:164) iradoki duenez, gobernu irlandarrak presoan auzian hartutako ikuspegia (gobernu britainiarrarena baino askoz pragmatikoagoa) arrazoitzen duena estatu irlandarra IRAren jomuga zuzena ez izatea da. Errepublikak gatazkan zehar pairatutako eraso guztiak albo batera uzteaz gain, azterketa horrek ahaztu egiten ditu presoan askapenak bi estatuetan zabaldu zituen aukera politiko eta ideologikoak.

Indarkeriazko borroka politiko batean, presoek jasotzen duten tratua islatzen du estatua gatazkaz duen ikuspegia. Hala, Ikusirik 70eko hamarkadaren hasieran susmagarriak epaiketarik gabe kartzelaratzen zirela eta presoek kategoriatan berezi bat onartzen zitzaiela, 1976an estatus hori baliogabetu zitzaiela, 80ko hamarkadaren hasierara arte egindako kriminalizatzeko ahaleginak eta 80ko hamarkadako kudeaketa-politikak, erraz ulertuko dugu, une jakin horietan, gobernu britainiarrak gatazkaren zein ikuspegi ideologiko eta politiko zuen. «Kartzela britainiarretan preso politikorik ez dagoen» ideari eutsi dioten arren, presoan gaia aztertzerakoan gobernu laboristak erakutsitako jarrera onak agerian utzi du bere pentsamoldea gatazka konpontzen saiatzeko bezainbeste aldatu dela.

Ez da kasualitatea «bai-aren» aldeko kanpaina unionistak parean aurkitu duen oztopo nagusia presoan askapena izatea. Alde batetik, egoera hori azken 30 urteetako izugarrikeriei, eta IRAk eta beste talde errepublikano batzuek egindako ankerkeriei egotzi diezaieke norbaitek. Baina, azalpen hori ez da egokia, izan ere, ez du aintzat hartzen nazionalistek gehienegoz bozkatu zutela preso lealistak askatuko zituen akordio baten alde, nahiz eta gatazkan zehar lealistek katolikoaren aurka egindako erasoek edonon izan jomugan. Aurrekoa bezain desegokia izan arren, beste azalpen posible bat hauxe da: katolizismoak eta protestantismoak, nazionalismoan eta unionismoan, hurrenez hurren, duten eragina. Ideia horrek bi bloke erlijiosoen aldaki teologikoak jartzen ditu parez pare: lehenengoak testamentu berria nabarmentzen du, barkamena eta erredentzioa; bigarrenak, ordea, testamentu zaharra du ardatz, zigorra eta ordaintzea. Ipar Irlandako azalpen erlijioso gehienekin gertatzen den moduan, horiek ez dute analisi sakonik egiten eta orokortze hutsean geratzen dira.

Presoek dagokienez, bi komunitate nagusiek duten desberdintasunaren giltzarria gatazkari buruzko interpretazio zeharo desberdina da.

Hala, nazionalista eta errepublikanoa den eta indarkeriarik ez darabilen SDLPrek aldekoentzat, gatazkaren izaera politikoa ez da sekula benetan zalantzan jarri. Lealistek, komunitate katolikoaren aurka egindako kanpainetan, edozein katolikori eraso izanak ez du aldatu

indarkeriak izaera politikoa zuelako ustea. Presoen askapena, nazionalista askorentzat, mingarria suertatu den arren, komunitatearen gehiengoak gatazkari irtenbide *politikoa* emateko beharrezkotzat jo du¹¹.

Bestalde, unionista askorentzat, «terrorismoa» eremu politikoan gertatzen zen okerbideratzea zen, edozein arrazoi kriminal edo psikopatarengatik «pertsonek bortitz» sutsu batzuek erabiltzen zutena (Robinson 1980, Cochrane 1997). Preso lealisten babesleak alderdi lealisten hauteskunde-oinarri urriek besterik ez zirenez, eta Irlandan komunitate nazionalista kartzelaratzeari buruzko esperientzia historikorik ez zegoenez, estatuaren diskurtso ofizialek elikatu egin zuten unionistek lehendik zeukaten indarkeria «terroristaren» gaineko ikuspegi nagusia. Beraz, segurtasun-indarretako kide unionista zaleak ez ziren gatazkan protagonistatzat jo, aitzitik, *beren* estatu demokratikoak jasaten zituen erasoaren aurrean «legea eta ordena» izaten laguntzen zutela esaten zen.

Baina, presoak askatzea posible egin duena Ipar Irlandako indarkeriazko borrokaren izaera politikoa guztiek aitortzea izan dela iradokitzea, orga zaldiaren aurrean jartzea litzateke. Alde horretatik, historiaren ikuspegi partekatu batetik urrun aurkitzen gara. Azkenean, unionisten gehiengo murrizak bozkatu zuen Ostiral Santuko Akordioaren alde eta Akordio hark jasotzen zituen presoen askapenari buruzko xedapenen alde. Eta aldeko botoa eman zuten nazionalista kopuru handiari esker, Akordioaren aldeko gehiengo %71ra iritsi zen. Prozesuaren babesak gorabeherak izan zituen, eta armagabetzea betiereko laino beltz bilakatu zen, baina badirudi posible dela Ipar Irlandako gobernuari buruzko adostasun batera iristea. Eta, hala gertatuz gero, egile honen bizitzan lehenengo aldiz, panorama politikoaren protagonista preso paramilitarren kopuru ikagarria izan gabe egingo da politika.

Ondorioak

169

- Presoak gatazkatik ateratzea. *Pragmatismoak*, kartzeletan, armarik gabeko borrokari buruzko hausnarketa egiteko aukera eman du.
- Ez da bake-prozesurik presoen askapenik gabe.
- Presoak negoziazioetan zehar giltzarri direla aitortzea. Bai gobernu britainiarrak, bai irlandarrak, Sinn Fein eta alderdi lealitei bermatu zieten presoak prozesuaren zati izango zirela.
- Presoen askapena prozesu politikoa da, ez legala. Legea garraiatzailea da, ez oztopatzailea. Legalismoaren kulturari ezin zaio utzi bake-prozesua habetzeko eta irmotzeko hain beharrezkoa den zerbait blokeatzen.
- Baimenak eta konfiantza publikoa. Presoak baimenen bidez askatu zituzten, hau da, indarkeria ekintzak edo legez kanpoko beste jardueraren batzuk eginez gero, kartzelara itzul zitezkeen. Horrek garrantzia izan zuen konfiantza publikoa bermatzeko orduan, eta gainera, gerta zitezkeenaren aurrean politikoei «estaldura politikoa» eman zien.
- Batzorde independentea (nazioarteko laguntzaz) ere giltzarri izan zen era praktikoan lan egiteko eta alde guztien konfiantza bermatzeko, bereziki, talde paramilitarren beso politikoa.
- Biktimen ideiak eta haien aniztasuna. Hots, biktimek ez daukate gatazkaren ikuspegi monolitikoa, beraz, haien ikuspegi eta aniztasuna errespetatu beharra dago. Elkarriketatutako biktima bakarrak ere ez zuen prozesuari betoa jartzeko eskubidea zuenik iradoki.

- Birgizarteratzeko eta egitura-hesiak deuseztatzeko funtsen beharra, politika berrian parte hartze osoa lortzeko.
- Preso ohiak gatazka bake-prozesu bihurtzeko eragileak dira.
- *Askapena arrakastatsua izan zen.* 14 baimen baliogabetu ziren eta, askapena hasi eta 8 urtera, berrerortze-tasa (arrunta eta politikoa) %15 ingurukoa da. Erresuma Batuan, askatutako preso arrunten artean, %50 gainditzera iritsi zen askatu eta hurrengo bi urteetan kartzelara itzuli zirenen kopurua.
- *Espetxeak gerra gunetik ateratzea.* Presoekin egindako aldez aurreko negoziazioetan, 80ko hamarkadaren bukaeran, «IRAk baieztatu zuen Maze-ko kartzela “gerra gunetik kanpo” zegoela: espetxeetako bi funtzionario aske utzi eta bi polizia tirokatu zituen». Kudeaketa berria egin zuten. «Armarik gabeko borrokari» buruz hitz egiteko sortutako espazioa murriztu zuten. *Kartzelatan* egiten den jokoari buruzko hausnarketa. Pertsonak ezin du modu taktikoan pentsatu torturatzen ari badira.
- *Aurkariari ezin zaio sekula eskatu egin ezin duen zerbait egiteko.* Presoen askapenaren eta armagabetzearen arteko loturak ezabatzea bi gobernuek hartutako erabaki taktiko giltzarria izan zen. Azken batean, ez IRAk ez lealitek ezin izango zuten onartu armagabetzea 1998an. Elementu gakoien segida zuzenak berebiziko garrantzia du. Armagabetzea presoen askapenari lotuta egon izan balitz, ez litzateke presoen askapenik gabeko bake-prozesurik gertatuko.

Bakea lortzeko ongi findutako antena politikoa behar da, hautesle politikoez zenbat jasan dezaketen, eta zenbaterainoko malgutasuna duten igarriko duena. Gure aurkariak bere hautesleak kudeatzeko orduan daukan gaitasuna egoki epaitzea ere beharrezkoa da. Gisa horretako gauzek eragiten dute arrakastaren eta porrotaren arteko aldea.

Hitzaldiaren inguruko oharra

¹ Ipar Irlandako epaiei buruzko 1998ko Legea, 3 (2-7) Atala.

² Ipar Irlandako epaiei buruzko 1998ko Legea, 16 Atala. Botere hau mailarik gorenean erabili zen UDAko «Mad Dog Adair» presoaren kasuan. Adair jauna askatzeko erabakia hartzeko orduan, Barne Ministroak poliziaren presio handia jasan behar izan zuen erabaki hori atzeratzeko. Izan ere, poliziak beldur ziren, Adair-ek ekintza «terrorista» gehiago egin zitzakeela, eta bere azpiegitura paramilitarra drogekin trafikatzeko erabil zezakeela. «RUC Plea to Keep 'Mad Dog' in Jail». Sunday Times, 1999ko urtarrilaren 3a, «RUC Silent on Adair Claim» Irish News, 1999ko urtarrilaren 4a. Adair, azkenean, askatu zuten, garai hartako Barne Ministroak bere eragozpenak baztertu ostean. «Adair Freed» Belfast Telegraph, 1999ko irailaren 14a. Hala ere, berriro atxilotu zuten, eta 2000ko abuztuaren baimena balio-gabetu zitzaion, Barne Ministroak zenbait ekintza terrorista burutzen, prestatzen eta ikertzen nahastua ibili zela erabaki ondoren. Ekintzetako batzuk, UDAREN eta UVFren arteko liskar batekin lotutakoak izan ziren. Zenbait pertsona gertatu ziren hilik liskarrean, horien artean lealista garrantzitsuak. Erabaki hori epaia berraztertzeko batzordeak berretsi zuen. «Adair to Launch Legal Challenge» Irish Times, 2000ko abuztuaren 23a, «Adairs Prison Release Application is Turned Down» Irish Times, 2001eko urtarrilaren 10a.

³ «LVFko gudariak bake-prozesu irlandarraren aurka egin dute borroka gure herrialdeak bere burua sal ez zezan. Ez da erraza izan, bereziki gainerako aldeak aurka izanik. Orain, Ipar Irlanda bere historiako une erabakigarria iritsi da. Maiatzaren 22an herriak Irlanda batu baten alde emango du botoa; hau-testontzietan, britainiar izaten segi nahi duen edo ez esango du, eta ondorioei men egin beharko die. Protestanteak, LVFk su-eten nabaria eman du, herritarren artean giro egokia sortzeko eta, herritarrek Ulster-entzako erabaki zuzena har dezaten, hots, ezezko botoa eman dezaten.» «LVF Announces Unequivocal Cease-fire.»en jasoa. Irish News, 1998ko maiatzaren 15a (b).

⁴ «LVF Chief in Maze Confirms Cease-fire.» Irish Times, 1998ko abuztuaren 12a.

⁵ «Trimble Remains in Ditch over Arms.» Irish Times, 1998ko abenduaren 29a.

⁶ «Bake-prozesurako garrantzitsua da, oro har, espetxean egoteko arrazoen inguruan gobernua eta presoek dituzten ikuspegi ideologiko desberdinak alde batera uztea, eta guztiok presoen birgizarteratzea gure komunitateak berreraikitzeke prozesuaren zati den alderdi gisa ikustea. Gainera, onartu beharra dago, presoek beraiek aktiboki parte hartu ezean, ez daukagula aurrerabiderik.» Dave Wall, NIACROko zuzendaria, Bakerako eta Birgizarteratzeko Foroan emandako diskurtsoa, 1995eko urtarrilaren 20a. Dublin: Bakerako eta Birgizarteratzeko Foroa.


⁷ Ipar Irlandako Funtz Boluntarioak egileari eskuratutako informazioa.

⁸ «Prisoners Group Launched.» Irish News, 1999ko urtarrilaren 20a.

⁹ «IRA Chief in the Maze is Ready to Seek a New Way Out.» Financial Times, 1998ko ekainaren 17a.

¹⁰ «A Favourite Cumudgeon.» Irish Times, 1998ko urriaren 20a.

¹¹ «Most Nationalists Willing to Accept Some Kind of Amnesty.» Belfast Telegraph, 1996ko irailaren 30a.



Segurtasun nazionala eta giza eskubideen Babesa

BILL BOWRING JN.

Giza Eskubideetako eta Nazioarteko Zuzenbideko irakaslea. Giza Eskubideak eta Justizia Soziala ikerketa Institutuko Zuzendaria, London Metropolitan University-n, Erresuma Batuan

Bill Bowring katedraduna Zuzenbideko irakaslea da Londreseko Birkbeck College Unibertsitatean. Bowringen ikerketa-lanen gaiak giza eskubideak, gutxiengoen eskubideak, nazioarteko zuzenbidea eta Errusiako eta desagertutako Sobietar Batasuneko zuzenbidea eta epailetza dira.



CURRICULUMA

Berrogeitik gora lan argitaratu ditu aztergai horien inguruan, *Minority and Group Rights in the New Millennium* izenburukoa (1999an, Deirdre Fottrell-ekin egina) barne, eta, laster, *The Degradation Of The International Legal Order: The Rehabilitation Of Law And The Possibility Of Politics* argitaratuko du.

Diharduen abokatua da, eta 20 auzi hasi ditu Giza Eskubideetarako Europako Auzitegiaren aurrean.

Gaur egun, Errusiako, Georgiako, Letoniako eta beste herrialde batzuetako 90etik gora laguni Estrasburgon hasita dauzkaten auzien inguruko aholkularitza ematen dien Giza Eskubideen Gai-neko Aholkularitza Zentro Europarraren fundatzailea da.

Aldizka, Europako Kontseiluari, Europar Batasunari, Nazio Batuei eta nazioarteko beste erakunde batzuei ematen die aholku.

Euskadin ere afiliatuak dituen Demokraziaren eta Giza Eskubideen Aldeko Europako Abokatuen Elkarteko lehendakaria eta Abokatu Sozialisten Haldane Sozieta-teko nazioarteko idazkaria da. Giza Eskubideen Aldeko Abokatuen Ingalaterrako eta Galeseko Batzordearen fundatzailea eta zuzendaria ere bada, eta tortura nozitu dutenen errehabilitazioan diharduen Redress Trust fundazioko kide.

LABURPENA

Terrorismoa termino legaletan definitzea oso ataza zaila da, eta zibilen aurkako delitu larriak salatzeko bereizi gabeko erabilerak benaz mehatxatzen ditu giza eskubideen gaineko arauak eta estandarrak.

Nire iritziz, gaur egungo legeria penala ez da batere egokia «terroristek» egindako krimenak identifikatzeko eta zigortzeko.

Konferentzia honetan, UNOk eta Europako Kontseiluak gobernuek askatasun zibiletan eta giza eskubideetan jartzen dituzten oztopoen kontrako muga identifikagarriak ezartzeko egiten dituzten ahaleginak aztertuko ditugu.

Estatu Batuetako eta Britainia Handiko politikek abusu bereziki larriak eragin dituzte. Hirurogeita hamarrek hamarkadatik, Erresuma Batuak Ipar Irlandako Gatazkari erantzuteko legegintza azkar eta okerra islatzen duen historia problematikoa du.

Irailaren 11 baino lehenago eta ondoren onartutako legeria alderatuko ditugu. Bi legeria horien efektu erkidea irlandarrak eta, orain, musulmanak «komunitate susmagarri» bihurtzeko egindako ahalegina da.

Erresuma Batuan, erakundeen galarazpena eta bazterketa eta EBn gizabanakoen erbesteratzea arbitrarioak eta funsgabeak dira, eta benetako arriskua dakarte. Duela gutxi, Ingalaterrako Apelazio Auzitegiak EBko Lehen Instantziako Auzitegiaren jurisprudentziari jarraitu dio, UNOren ebazpenek oinarrizko babes prozesalak «akabatzea» onartzean.

Terrorismoa, segurtasun nazionala eta giza eskubideen Babesa

Laburpena

Gutziz zaila da terrorismoa zer den adieraztea, legezko terminoak erabiliz. Hitz hori zibilen aurkako krimen bereziki larriak salatzen erabiltzea mehatxagarria da giza eskubideen inguruko araudi eta legediarentzat. Nire ikuspegitik, indarrean dauden lege penalak aski egokiak dira «terroristen» krimenak zehaztu eta zigortzeko. Gobernuak askatasun zibilen eta giza eskubideen inguruan esku hartzeari muga argiak jartzeko Nazio Batuen Erakundeak eta Europako Kontseiluak egindako ahaleginak aztertuko ditugu aurkezpen honetan. AEBetako eta Erresuma Batuko politikek ateak ireki dituzte gehiegikeria larriak burutzeko. Erresuma Batuan ugariak izan dira, 1970az geroztik, Ipar Irlandako gatazkari erantzuna emateko onartutako legeak. Lege horiek irailaren 11ren aurretik eta ondoren egindakoekin konparatuko ditut txostenean. Lege horien ondorioz, Irlandako herritarrak, lehenik, eta musulmanak, geroago, »komunitate susmagarri» bihurtu dira. Erresuma Batuan erakundeen gainean eta AEBetan gizabanakoen gainean ezarritako debekuak eta proskripzioak bidegabeak eta inkoherenteak dira, eta egoera zailera daramatzate. Duela gutxi, Apela-zioko Auzitegi ingelesak, Lehen Auzialdiko Auzitegi iparramerikarrari jarraituz, NBEko ebazpenei prozedurako oinarritzko babesen aurrean lehentasuna ematea ahalbidetu du.

175

Sarrera

Eusko Jaurlaritzari eta biltzarraren antolatzaileei zinez eskertzen diet aste honetako eztabaida garrantzitsuetan nire ekarpena egiteko aukera eman izana. Nire aurkezpenean, «terrorismoaren aurkako gerrak» sorrarazitako herrialdeko eta nazioarteko erreakzioei lotutako kontuak aipatuko ditut.

Hitzaldian zehar, «segurtasun nazionalaren» esanahia labur-labur aztertu ostean, «terrorismoaren» definizio(ar)en gaiari helduko diot. Hirugarrenik, termino hori zehaztugabea eta zabalegia izateak dakarren arriskuaz ohartaraziko dut, Erresuma Batuan terrorismoaren aurka onartutako lau lege adibidetzat jarrita. Ondoren, bai Nazio Batuek bai Europako Kontseiluak (EK) behin eta berriro aipagai dituzten giza eskubideen bermeak laburki azaldu eta gero, NBEko zein EKko lurralde kidez osatutako Europako Batasunaren egungo jardura izango dut hizpide.

Bosgarrenik, Europako Batasuneko segurtasun-neurri nazionalen eraginpeko herritar eta erakundeei buruzko bi kasuren berri emango dut: Sison irakaslearena eta SEGI euskal gazteen erakundearena. Bukatzeko, 1970-80 urteetako eta gaur egungo legeek Erresuma Batuan «komunitate susmagarriak» nola sortu dituzten azalduko dut. Aurreko esperientziei erreparatuta, hori oso kaltegarri izan da, eta oraingo honetan ere halaxe izan liteke.

Ez da lehenengo aldia Euskal Herrian nagoena eta euskal kontuak aipagai ditudana. 1983an, Amnesty Internationalek Madrilgo Auzitegi Nazionalean lekuko aditu gisa jarduteko eskatu zidan, sei euskal zinegotziren aurkako epaiketan. «Estatuburua iraintzea» egotzen zitzaien eta delitu horrek espetxe-zigorra eragiten du. «Juan Carlos erregeak ez du euskal lurra zapaltzea merezi» euskaraz esan izana zen alegazioa. Esan beharra daukat Europa mendebaldeko lurralde gehienetan ez dagoela halako deliturik. Zinegotziak erruduntzat jo zituzten eta urtebeteko espetxe-zigorra ezarri zieten. Espetxe-zigor hori normalean ez da betetzen, gaizkileak delitua berriro egin ezean. Abokatuak Txema Montero eta Miguel Castells ospetsuak izan ziren. Azken horrek 1982an irabazi zuen bere kasua Espainiaren aurka, Giza Eskubideen Europar Auzitegian¹, 1985ean «Estatua iraintzeagatik» kondenatua izan ostean. Kode Penaleko bi delitu horiek frankismoaren garaitik zetozen.

Gaur egun, Demokrazia eta Giza Eskubideen aldeko Europar Elkarteko lehendakaria, Ingalaterrako eta Galesko Abokatuaren Elkargoetako Giza Eskubideen Batzordeko kide aktiboa eta Haldane abokatu sozialisten Elkartekoa naizen aldetik, lankidetzan jardun ohi dut Giza Eskubideen Euskal Behatokiarekin. Horregatik oso pozik nago Behatokiko Julen Arzuaga eta Iratxe Urizar ere biltzarrean direla ikusita.

Segurtasun nazionala

1983tik hona, Euskal Herriari lotutako kontuetan nahastuta ibili arren, Erresuma Batuarekin zerikusia duten gaiek ere egunero kezkatzen naute. Burura datorkidan lehenengo gaia hau da: zer da segurtasun nazionala? Geroago azalduko dudan pronuntziamendu juridiala alde batera utzita, Erresuma Batuak gaur egun ez dauka konpromisorik iraupen nazionalaren aldeko borroka batekin.

Giza Eskubideei buruzko Europar Hitzarmenaren 15. artikulua arabera, estatu batek baliorik gabe utzi ditzake giza eskubideei buruzko legeak, nazioaren iraupena arriskuan jartzen duten gerrak edo larrialdiak daudenean. Ipar Irlandako *Brogan Erresuma Batuaren aurka*² eta *Brannigan eta McBride Erresuma batuaren aurka*³ kasu ezagunetan, Giza Eskubideen Europar Auzitegiak (GEEA) aztertu behar izan zuen Erresuma Batuaren baieztapen bat egiazkoa ote zen, hain zuzen, Ipar Irlandako gatazka, nahitako gerra ez izan arren, lurraldearen iraupen demokratikoa arriskuan jartzen zuen mehatxua zela esaten baitzuen. Giza eskubideen eta askatasun zibilen aldeko hainbat erakunde garrantzitsuk –hala nola Askatasunak eta Amnesty Internationalek– zalantzan jarri zuten 1970. eta 1980. urteetan gertatutakoak hain larriak izan ote ziren, hau da, nazioaren iraupena benetan arriskuan zegoen eta, beraz, giza-eskubideen inguruko legeren bat baliogabetzeko arrazoirik ba al zegoen.

Gatazkan zehar, gutxienez, 40.000 lagun hil ziren, 1974an Guildford⁴ eta Birmingham⁵ hirietako pub-etan izandako atentatuek eragin zituzten biktimak barne hartuta. Oso gogoan ditu Londreseko leherketak; izan ere, nire alaba ere Victoria Geltokian eztanda egin zuen bonbaren biktima izateko arriskuan egon zen. Bonba hark pertsona ugari hil zituen, eskolara zihoazen umeak eta lanera zihoazen gizon-emakumeak tartean zirela

Nire aurkezpenaren gaia hori ez izan arren, nire ustez, Blair-en gobernuaren lorpenik handiena Ostiral Santuko akordioaren negoziazioa izan zen. Orduko hartan, Ikaragarriko arrisku politikoa onartuta, gobernuak «terroristekin» negoziatzera eseri eta nolabaiteko bakea lortzeko oinarriak finkatu zituen, alegia, gaur egun indarrean jarraitzen duen bakea.

Honekin esan nahi dut edozein estatutako gobernuaren betebeharra bere biztanleen bizitza eta segurtasuna babestea dela, nola herritarrenak hala ez-herritarrenak. Orobat, europar estatu batek, Europako Kontseiluaren aurrean dituen konpromisoen arabera, ordena konstituzional demokratikoa defenditzeko beharra aldarrikatu dezake. Horretarako, zuzenbide penalak eskura jartzen dizkion bitarteko guztiak erabili eta legea betearazteko ardura duten erakundeak baliatuko ditu. Eta horrek azaldu behar dudun hurrengo gaira narama.

‘Terrorismoaren’ definizioa

1974ko azaroaren 29an, pub-etako atentatuak izan eta gutxira, *Erresuma Batuko Legebiltzarrak Terrorismoari aurre egiteko Legea (behin-behineko ebazpenak)* onartu zuen oso denbora laburrean. Hainbat lagun, kasualitatez-edo irlandarrak zirenak, berehala atxilotu zituzten. «Birmingham-eko seiak» (eta beste batzuk) erailketa leporatuta kondenatu zituzten, 1975ean, oso epaiketa zalantzarriaren ostean eta arras etsaitasunezko giroan. Apelazioko Auzitegiak, 1991ko martxoaren 14an, haien kondenak baliorik gabe utzi eta gero, urte berean askatu zituzten. Arrazoa izan zen hilketagatik kondenatu zituztela, eta ez terrorismoagatik. «Terrorismo» hitzak prozeduraren dramatismoa areagotu egin zuen, besterik gabe.

Horrelako gaiez ari garela, ‘terrorismoaren’ definizioaren zehaztugabetasunak giza eskubideen gain duen eraginari erreparatuta abiatu behar genuke.

Ni neu ados nago John Dugard⁶ irakaslearen jarrerarekin. 1974an, Dugardek saiakera bat idatzi zuen, terrorismoa⁷ definitzeko funtsezkoa izango zena. Rhodeseko (Hegoafrika) Unibertsitatearen ehungarren urteurrenean emandako hitzaldian, 2004an⁸, irakasleak ondoko hau arrazoitu zuen:

Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluak, garrantzi handiko potentziek (edo potentziak?) gidaturik, ez du interes handirik terrorismoaren definizio orekatua bilatzeko, hau da, terrorismoaren zergatiak azaltzen dituen eta estatu-terrorismoa zein estatuari ez dagokiona berdin gaitzesten dituen definizioa emateko.

Irailaren 11 igaro berritan, Segurtasun Kontseiluak bi ebazpen onartu zituen: 1368. ebazpena (2001eko irailaren 12koa) eta 1373. ebazpena (2001eko irailaren 28koa), terrorismoa oso gogor gaitzetsi zutenak. Haien bidez, estatuei terrorismoari aurre egiteko eskatu zien, baina terrorismoa zer den zehazteko ahaleginik egin gabe.

Terrorismoa, Segurtasun Kontseiluarentzat, harako epaile amerikar hark lizunkeriaz esaten zuen gauza bera da: ikusi orduko antzematen duen zerbait. Ikuspegi horren arriskua zera da, estatuei terrorismoa zer den euren kabuz zehazteko aukera ematen zaiela, komeni zaien legez. Orobat, estatuak terrorismoaren definizio zabala ematera animatzen ditu ikuspegi horrek, aurkari politikoak terroristatzat jota arazo politikoak konpontzeko. Zapalkuntzarako lizentzia da.

John Dugard irakasleak, gainera, Europako Batasunera luzatu zuen bere kritika:

Jakina, guk Hegoafrikan bizi izan dugu hori. Gogoan duzue terrorismoaren aurkako 1987ko Legea, legea eta ordena arriskuan jartzeko asmoz egindako edozein ekintza terrorismotzat hartzen zuena? Asmo hori sumatzen zen, adibidez, ekintzak zurien eta beltzen arteko aurkakotasuna pizteko edo estatuko kontuen administrazioa barregarri uzteko ahalmena bazuen.

Europako Batasunak ez du hobeto jokatu. Izan ere, 2002an onartutako terrorismoaren aurkako legediak, besteak beste, legez kanpoko protesta-ekintzak barne hartu zituen (Kontseiluaren erabaki markoa 2002ko ekainaren 13koa).

Martin Scheinin-ek, giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak babesteko NBEko berriemaile bereziak, antzeko oharpena egin zuen 2005eko txostenean, 2006an argitaratuan⁹:

Nazioarteko komunitateak terrorismoa desagertzera zuzendutako ekintzak aurrera eramateko behin eta berriro egindako eskakizunak, terrorismoaren gaineko definizio orokorrik ezean, giza eskubideen aurkako ondorioak ekarri litzake, eta hori kezagarria da berriemaile berezi honentzat.

Definiziorik ezean, nazioarteko komunitateak terrorismoari aurre egiteko egindako eskakizunak terminoa komeni zaien moduan definitzeko aukera ematen die estatuei. Horrek giza eskubideen aurkako gehiegikeriak gauzatzeko arriskua dakar berekin, eta baita nahita egindako terminoaren erabilpen okerra ere. Berriemaile berezi hau kezkatu dago erabilpen oker horrengatik eta terminologia hori, sarritan, terrorismoaren aurkako borrokara mugatuta ez erabiltzeagatik. Halaber, nazioarteko komunitateak darabilen 'terrorismoaren' kontzeptuak, definiziorik eman gabe, erregimen zapaltzaileen jokabideari nazioarteko legitimazioa nahi gabe emateko arriskua dakar. Horrela, nazioarteko komunitateak «terrorismoaren» aurka gogor jardun nahi duelako mezua igorriko litzateke, terrorismoa zer den alde batera utzi gabe.

NBEko goi-arduradunek eta gai horretako adituek azaldutako arrazoibideak oso adierazgarriak dira terrorismoaren aurkako legediak dakartzan arriskuak ulertzeko, batez ere fondoak izozteari dagokionez.

McCulloch-ek eta Pickering-ek are hitz gogorragoak darabiltzate terrorismoaren aurkako erregimena salatzen¹⁰:

Terrorismoaren aurkako finantza-gerra dela eta, mendebaldekoak ez diren gobernu kanpoko sistemak eta programak terrorista izateko susmagarritzat jotzeak araupeko uharte artifiziala sorrarazten du merkatu librearen itsasoaren erdian. Finantza-arautze hori, neurri handi batean, inbertsio-kapitalaren korronte nagusiaren osagarri ez diren jardueretara eta irabazteko asmorik gabeko, karitatezko edo elkartasunezko erakundeetara zuzenduta dago, estatusari erronka egiten diotelako, baita terroristen estereotipoan sartzen diren komunitateetara eta gizabanakoengana ere. Finantza-sistema informalak arautzea inperialismo kultural eta ekonomikoaren adibide bat da, kontrol korporatibotik

harago dagoen eremu globalaren kolonizazio etengabearekin batera egiten dena. «Terrorismoaren aurkako finantza-gerraren» babespean, XXI. mendeko muga neoliberaletako gerlariak, gerrarako jantziaren orde, trajea eta korbata jantziko dituzte eta, armen orde, maletak eramango dituzte¹¹.

Aurkezpenaren gaia taldeei eta gizabanakoei aplikagarri den terrorismoaren aurkako legediak giza-eskubideetan duen eragina denez, Colin Warbrick¹² irakaslearen ondorengo baieztapen hau azpimarratu daiteke:

[...] terrorismoari eman beharreko erantzun guztiek giza eskubideei buruzko nazioarteko legeak derrigorrez aplikatu eta betetzea izan behar dute oinarri, nahiz eta, azken muturrean, lege horiek aldatzeko beharra egon. Horrek legea eta ordena babesteko helburuz terrorismoaren aurka egin litekeen gerra baterako ere balio du.

NBERen eta Europako Kontseiluaren bermeak

2006ko apirilaren 27an, Nazio Batuetako idazkari nagusiak dokumentua argitaratu zuen, «Terrorismoaren aurka bat eginik: terrorismoaren aurkako estrategia globalerako gomendioak¹³», izeneko, eta honako hau zioen:

118. Giza eskubideak –terrorista izateko susmagarriei ez ezik, terrorismoaren biktimei eta terrorismoaren ondorioek eragindakoei ere aplikagarriak– errespetatu eta babestea funtsezkoa da terrorismoaren aurkako estrategia baten osagarri guztietan. Nazioarteko komunitateak gaitz horren aurka darabilen borrokan arrakasta izateko era bakarra giza eskubideak bete eta indartzea da.

Nazio Batuetako Gai Juridikoetako eta Aholkularitza Juridikorako Bulegoak ikerketa bat agindu zion Bardo Fassbender-i, estrategia horren osagarri gisa. Hona hemen ikerketaren ondorioak¹⁴:

Neurriak, giza eskubideetan eta pertsona-talde edo-kategoria jakin baten askatasunetan eragina dutenean, haien bidez lortu nahi diren helburuekiko proportzionalak izan behar dute.

(p. 8) 12. Nahiz eta zirkunstantziak eta zigor-erregimen bereziek egokitze edo salbuespenen bat eragin dezaketen, Segurtasun Kontseiluak bidezko tratamendua edo «bidezko prozesu gardenak» jasateko eskubideak bermatzen ditu, pertsonen edo erakundeen zigorrak ezartzen zaizkienean, NBERen Gutunaren VII. Kapitulua arabera. Eskubide horiek honako elementu hauek barne hartu behar dituzte:

- a) Pertsona edo erakunde batek, haren aurkako neurriak hartzen direnean, Kontseiluaren aldetik neurri horien berri izateko eskubidea du, lehenbailehen eta helburua zapuztu gabe;
- b) pertsona edo erakunde horrek, arrazoizko epe batean, Kontseiluari edo organismo subsidiario bati bere arrazoiak entzunarazteko eskubidea du;
- c) pertsona edo erakunde horrek aholku eta ordezkaritza jasotzeko eskubidea du Kontseiluaren aurrean;

- d) pertsona edo erakunde horrek neurri indibidual baten aurkako konpontze eraginkorra jasotzeko eskubidea du, aurrez ezarritako erakunde edo organismo inpartzial baten aurrean.

Betekizun horiek argi eta garbi azaldu ziren Europako Kontseiluko Giza-eskubideei eta terrorismoaren aurkako borrokari *buruzko Europako Kontseiluko Ministro Batzordearen Jarraibideetan*¹⁵, 2002an. Hasteko, Auzitegiaren arabera, segurtasun nazionalaren babesak ez du derrigorrez justiziaren ukapenik ekarri behar. Baieztapen horri jarraituz, Ministro Kontseiluak:

[gogoratu duenez], terrorismoaren aurkako borrokan, posible izateaz gain, guztiz beharrezkoa da giza eskubideak, legedia eta nazioarteko lege humanitarioak errespetatzea, horiek aplikagarri diren guztietan, eta

[berretsi duenez], estatuak, terrorismoaren aurka borrokan ari direnean, giza eskubideak babesteko nazioarteko tresnak errespetatu behar dituzte, baita giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak babesteko hitzarmena [GEEH] –batez ere estatu kideek– eta Giza Eskubideen Europar Auzitegiaren jurisprudentzia ere.

((d) eta (i) aitzinsolasak)

Zehazki, jarraibideek finkatutako oinarrizko printzipio hauek garrantzi handikoak dira prestakuntzarako dokumentu honi¹⁶ dagokionez:

II Arbitrariotasuna debekatzea

180

Estatuak terrorismoaren aurka borrokatzeko hartzen dituzten neurri guztiek giza eskubideak eta zuzenbide-estatua bete, arbitrariotasun oro eta jokaera baztertzaile edo arrazista guztiak baztertu eta gainbegiratze egokiaren eraginean egon behar dute.

III Terrorismoaren aurkako neurrien legezkotasuna

1. Estatuak terrorismoaren aurka borrokatzeko hartzen dituzten neurri guztiek legekoak izan behar dute.
2. Neurri batek giza eskubideak murrizten dituenean, murrizte horiek ahalik eta zehatzenak izan behar dute, baita beharrezkoak eta egokiak ere lortu nahi den helbururako.

IV Jabetza-eskubidea

Terrorismo-ekintzak burutu izanaren susmagarriak diren pertsonen eta erakundeen ondasunak erabiltzea eten edo mugatu dezakete eskudun agintariak, batik bat ondasunak izoztuz edo konfiskatuz. Jabeek erabaki horren zilegitasuna ezetsi ahal izango dute auzitegi baten aurrean.

Printzipio horiek argi eta garbi islatzen dituzte Hitzarmena eta GEEAaren jurisprudentzia, bai funtsezko artikuluei dagokienez (Hitzarmenaren 10. eta 11. artikulua eta Lehenengo Protokoloko 1. artikulua), baita prozeduraren babesa behar duten artikuluen ikuspegitik ere (Hitzarmenaren 6. eta 13. artikulua, lehen aipatuak). Zehazki, arbitrariotasunaren aurka

borrokatzeko «legeek» eta giza eskubideen murrizte guztiek «ezinbestekoak» eta «bidezko helburuarekiko proportzionalak» izan behar dutela agintzen dutenei lotutako betekizunak oroitarratzen dituzte. Halaber, artikuluek berariaz baieztatzen dute ondasunen «izozte» hori auzitegi baten aurrean ezesteko aukera egon behar dela.

Erresuma Batuko terrorismoaren aurkako legedia

Erresuma Batuan, gaur egun, terrorismoaren aurkako lau lege daude. Horrek ziurgabetasuna eta arbitrariotasunerako espazioa sorrarazten ditu, baita hainbat tirabira ere epaileekin, giza eskubideekin zerikusia duten alderdi guztien inguruan. Erreginak, 2006ko azaroaren 15eko hitzaldian, biltzar hori egiten ari ziren bitartean, gobernu britainiarraren lege-programaren lerro nagusiak aipatu zituen, Legebiltzarreko hurrengo saioari begira, baina ez zuen terrorismoaren aurkako inongo lege-proiekturik iragarri, nahiz eta terrorismoaren aurkako borroka gobernu laboristaren lege-programaren puntu nagusietako bat izan. Horren orde, dauden ahalmenak eta baliabideak gainbegiratu egingo zirela esan zuen. Zalantzarik gabe, Erresuma Batuko gobernuak indarrean dauden lau legeak nahasi eta ehunka ebazpen izango dituen lege-munstro bat sortzea du helburu.

BBCko Andy Tighe-k ondokoa baietsi du:

Hutsuneak daudela ikusiz gero, gobernuak dio ez duela zalantzarik izango behar diren legeak onartzeko. Lege horiek eztabaida bizia eragin lezaketek. Poliziak terrorista izateko susmagarrien aurkako karguak aurkeztu aurretik atxilotuta eduki ahal izateko gehienezko denbora luzatzeko presioak handitu egin dira azken egunetan. Iaz, 90 eguneko epea proposatu zenean, gobernuak galtzaile irten zen. Bestalde, telefono bidezko entzuketa eta antzeko zenbait frogarekiko ikuspegia aldatu egin da azken hilabeteetan Ingalaterrako eta Galesko auzitegietan. Beste neurri batzuk izan litezke, adibidez, terroristen fondoak izozteko ahalmena handitzea eta terrorista izateko susmagarriak diren atzeritarrek epaiketari gabe espetxeratzeko aukera ematen duten kontrol-aginduen sistema egokitzea¹⁷.

181

Irailaren 11ko hilketa lazgarrien aurretik ere, Erresuma Batuetan oso lege gogorrak onartu zituzten. Hala, Terrorismoaren aurkako 2000ko Legeak Erresuma Batuen historian izan den «terrorismo» hitzaren definiziorik zabalena egin zuen eta, 2001eko martxoaren 29an promulgatutako Aginduaren bidez (Terrorismoaren aurkako 2000ko Legea (Erakunde debekatuak) (Zuzenketa), 2001eko Agindua («Agindua»)), hots, Lege hori aplikatuz onartutako lehenengo Aginduaren bidez, 21 erakunde legez kanpo geratu ziren. Horretarako, Britainia Handiko Barne Ministroaren ustez terrorismo-ekintzetan nahas-tutako erakundeak edo terrorismoa sustatzen dutenak debekatzeko aukera ematen zuten ebazpenak erabili ziren. Legeak jasotako «terrorismoaren» definizioa honako hau zen:

- 1) «Terrorismoa» ekintza bat gauzatzea edo gauzatzeko mehatxua egitea da, honako kasu hauetan:
 - a) ekintza (2) azpi-sailean zehaztutako esparruaren barruan sartzen denean,
 - b) ekintza betetzeak edo betetzeko mehatxu egiteak gobernuan eragiteko edo jendea edo jende-multzo bat ikartzeko helburua duenean, eta
 - c) ekintza betetzeak edo betetzeko mehatxu egiteak politika, erlijio edo ideologiari lotutako kausa bat bultzatzeko helburua duenean.

- 2) Ekintza azpi-sail honen esparruan sartuko da, honako kasu hauetan:
- a) pertsona baten aurkako indarkeria larria eragiten badu,
 - b) jabetzaren aurkako kalteak eragiten baditu,
 - c) ekintza burutzen duen pertsona ez den beste baten bizitza arriskuan jartzen badu,
 - d) jendearen edo jende-multzo bate osasunerako arrisku larria sorrarazten badu, edo
 - e) haren helburua sistema elektronikoko batean interferentziak edo kalte larriak eragitea bada.
- 3) Su-armak edo leherkariak erabiliz ekintza bat gauzatzea edo gauzatzeko mehatxua egitea, (2) azpi-sailak zehaztutako esparruaren barruan, terrorismotzat hartuko da, nahiz eta (1) (b) azpisailak jasotakoa ez bete.
- 4) Sail honetan:
- a) «ekintzak» Erresuma Batutik kanpo gauzatutako edozein ekintza barne hartzen du,
 - b) pertsona edo jabetza aipatzen denean edozein pertsona eta edozein jabetza adierazten da, edonon kokatuta dagoela ere,
 - c) jendea aipatzen denean Erresuma Batua ez den lurralde bateko jendea ere adierazten da, eta
 - d) «gobernuak» Erresuma Batuko, Erresuma Batuko lurralde bateko edo Erresuma Batua ez den herrialde bateko gobernu esan nahi du.
- 5) Lege horren arabera, helburu terroristak dituen ekintza bat aipatzen denean, debekatutako erakunde baten alde egindako edozein ekintza ere adierazten da.

Terrorismoaren aurkako 2000ko Legea ez-egokitzat hartu zen terrorismoaren aurka borrokatzeko eta, haren ordeztuz, Terrorismoaren, krimenaren eta segurtasun-gabeziaren aurkako 2001eko Legea (2001eko TKSL) ezarri zen. Lege hark epaiketarik gabeko atxilotze mugagabea ezarri zuen, atzerriko herritarrei aplikagarri. Neurri hura salatu egin zuten giza eskubideen eta askatasun zibilen aldeko eragileek eta, 2004ko abenduaren 16an, gobernuak terrorismoaren aurka ezarritako neurrien aurkako kolpe batean, Lorden Ganberako Batzorde Judizialak, hau da, Erresuma Batuko epaitegi gorenak, bederatzi atxilotutako aurkeztutako apelazioen alde ebatzi zuen, aldeko 8 boto eta aurkako 1 emanda. Lord juristen iritziz, 2001eko TKSLren 23. sailak, britainiarrak ez diren herritarrentzat kargurik eta epaiketarik gabeko atxilotze mugagabea ahalbidetzen zuenak, atxilotuen giza eskubideak kaltetzen zituen, xedapenak neurrigabeak eta diskriminatzaileak zirelako. Lege horren arabera, atxilotutakoak oso erregimen murriztailean sartu zituzten segurtasun handiko espetxeetan eta segurtasun handiko ospitale psikiatriko batean. Haien osasun fisiko eta mentalarekiko kezka handitu egin zen, 2004ko urriaren 13an txosten baten ondorioak argitaratu zirenean. Txostena 11 psikiatrak eta psikologo kliniko batek egina zen eta zortzi atxiloturen osasunari eragindako kaltearen berri ematen zuen.

Lord juristek adierazi zutenenez, neurri haiek bateraezinak ziren giza eskubideen inguruko europar araudiarekin, Giza eskubideen inguruko 1998ko Legeak jasotzen duen bezala. Hala ere, orduko Barne Ministro britainiar Charles Clarke eutsi eta atxilotuek espetxean jarraituko zutela esan zuen, Legea berrikusi arte neurri horiek indarrean jarraituko zutela jakinarazita. 2005eko otsailaren 22an, gobernu britainiarrak kontrol-aginduen inguruko

politika berri bat iragarri zuen. Politika horren arabera, askatasun-gabetzea Britainia Handiko herritarrei zein atzerritarrei ezarri zekiekeen, Barne Ministroak horretarako agindua emanenez gero. Eztabaida handia dago kontrol-agindu bat zer den etxe barruko atzipenaldiarekin alderatuta eta etxe barruko atzipenaldia ezartzeko boterea administratzeko moduari buruz, eta botere berri horren administrazioaren inguruan ere eztabaida handia zegoen. Gobernuak indar egin zuen askatasuna gabetzeko agintea bereganatzeko. Amnesty Internationalek ohartarazi zuenez, terrorismoari aurre egiteko lege-proiektuak barre egiten zien giza eskubideei eta zuzenbide-estatuari. Horrez gain, Lordek 2004ko abenduan emandako epaiaren espiritua eta, agian, letra ere urratzen zituen. Gainera, «kontrol-aginduak» edo etxe barruko atzipenaldiak kargurik eta epaiketarik gabe ezartzeko, derrigorrezkoa izango zen Giza Eskubideen Europar Hitzarmena (GEEH) eta Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Hitzarmena (EZPNH) indargabetzea.

Gobernuak 2001eko TKSLren 4. zatiko botereak indargabetu eta, haien orde, kontrol-aginduen sistema bat ezarri zuen *Terrorismoari aurre egiteko 2005eko Legea* (2005eko TAL). Legeak erreginarene onespina jaso zuen 2005eko martxoaren 11n. 2005eko TALEk ahalmena eman zion Ministroari terrorista izateko susmagarri zen edozeinen aurkako kontrol-aginduak emateko, dela britainiar herritarra edo ez, eta bertan zein nazioartean burututako ustezko ekintza terrorista edonolakoa izanda ere. Legearen 14 (1) sailaren arabera, Barne Ministroak, hiru hilabeteko epea igarotakoan, lehenbailehen jakinarazi behar zion Legebiltzarrari denboraldi horretan nola erabili zuen kontrol-aginduak emateko ahalmen hori. Hala ere, bazirudien ahalmen horiek ere ez zirela aski.

Terrorismoari aurre egiteko bigarren legearen irakurketak, 2005eko urriaren 26koak, kontraesan nabarmena azaleratu zuen gobernuaren proposamenetan¹⁸. Charles Clarke, 75 minutu iraun zuen hitzaldi batean, irmoki adierazi zuen Britainia Handia aitzindaria izan zela gaur egun munduan diren askatasunak aitortzeko, eta aldarrikatu zuenez, herrialdeak «demokraziaren alde» borrokatu behar zuen, ordura arte erabili gabeko bitartekoak erabiliz, terrorismo islamiarrari nagusitzeko¹⁹. Garaipen desiratua lortzeko, «printzipio nagusia» ukatu behar omen zuen. Bezperan eztabaida ireki zuenean, arrazoibide izugarria erabili zuen, ondorengoa baietsi baitzuen: bere lege-proiektuari aurre egiten zionak Britainia Handia «legezko esku bat sorbaldari lotuta» utziko zuen terrorismoaren aurka borrokatzeko.

Izan ere, Clarke jauna eta haren aurrekoak lotzen zituen soka Giza Eskubideen 1998ko Legea zen, 1950eko Giza Eskubideen Europar Hitzarmenean oinarritua. Esan daiteke Hitzarmenak oinarritzko eskubideei buruzko mendebaldeko kontzeptuaren funtsezko printzipioak jaso zituela, Gerra Hotzaren testuinguruan.

Gobernuak, «terrorismoa goraipatzea» delitu berriaren bidez, argi utzi du, kargurik gabeko 90 eguneko atxilotze-denbora lortzen ez badu ere, ez duela 28 egunetik beherakoa onartuko. Horrek, zalantzarik gabe, Hitzarmena eta Legea urratuko lituzke. Gu guztion lotsarako, Britainia handiak Hitzarmenaren esparruan dituen erantzukizunak alde batera utzi behar lituzke.

Charles Clarke sortutako «terrorismoa goraipatzea» delitu berriak munduko edozein lekutan mugimendu «terrorista» bat sostengatzea delitu bihurtu du. Iragan urriaren 11n, Barne Ministerioko Batzorde hautatuan, honako hau baietsi zuen: «Munduan ez dago indarkeria justifikatu dezakeen egoerarik». Charles Clarke hizketan ari zen lekutik ez oso gertu estatua bat dago, Legebiltzarrera bizkar emanda, hain zuzen ezpata eskuan Legebiltzarra defendatu zuen Oliver Cromwellena.

Batzordearen bileran, Clarkeri galdetu zioten ea bere legeak Nelson Mandelari Hegoafrikako apartheid-aren aurkako borrokan lagunduko zion politikari gazte bat kondenatuko zukeen.

Haren erantzuna galdera lekuz kanpokotzat jotzea izan zen. Bigarren irakurketako eztabaidan, Batzordeko lehendakari John Denham-ek ondoko galdera hau egin zion: «Uzbekistanen bizi den uzbeko batek estatua bat suntsitzea onetsiko balu, bere herrialdeko erregimen tiranikoaren aurkako oposizio gisa, delituaren errudun izango litzateke eta, Britainia Handira etorri gero, zazpi urteko espetxe-zigorra ezarri lekioko?» Clarkek ezin izan zion erantzun koherenterik eman galderari.

Lege horren arabera, XX. mendeko kolonialismoaren aurkako mugimendu guztiak eta askapen nazionalen mugimendu guztiak, orain, «terroristak» izango lirateke.

Horrez gain, Legeak terrorismoarekin zerikusia izateko susmagarriei «kontrol-neurriak» inposatzeko aukera ematen dio Barne Ministroari. Horrek, kasu batzuetan, giza eskubideei buruz indarrean dauden legetatik berriz ere aldentzera behartuko gintuzke. 2006ko apirilean, *Re MB*²⁰ kasuaren epaian, Sullivan epaileak 1998ko Giza Eskubideen Legearen 4. sailen oinarritutako deklarazioa egin zuen eta, adierazi zuenez, Terrorismoari aurre egiteko 2005eko Legearen 3. saila ez zetorren bat Giza Eskubideen Europar Hitzarmenaren 6. artikulua jasotako bidezko epaiketarako eskubidearekin:

Demanduari, Barne Ministroak kontrol-agindua ezarri dionari, Legeak eskubideen errespetuan oinarritutako bidezko audientziarik bermatzen ez diola baieztatzea ez litzateke zuzena izango. Gainera, aipatutako eskubideek Hitzarmenaren 8. artikuluan xedatutakoak ere hartzen dituzte barne. 1998ko Legeak finkatutako betebeharra (Legebiltzarrak ezarritako betebeharra da) betetzeko, Epaitegi honek argi eta garbi adierazi behar du aipatutako Legean zehaztutako prozedura bidegabekoa dela erabat. Izan ere, prozedura horren arabera, epaitegiak Barne Ministerioaren erabakia, aipatutako agindua ematekoa, legezkoa den aztertu behar du, eskuratutako materialetan oinarriturik. Dena dela, Legearen 3. atalean eskatzen den legaltasun-ukituaren atzean, errealtatea agerian geratzen da: Itunak kontrolpeko pertsonen aitortzen dizkien eskubideak ez ditu onartu auzitegi independente batek 6.1. artikuluari jarraiki; aitzitik, inolako gainbegiratze juridikorik gabeko erabaki exekutiboa izan da.

Lehenago esan dudanez, litekeena da etorkizun hurbilean terrorismoaren aurkako beste lege batzuk ateratzea. Izan ere, polizia eta gobernu kide batzuk presioa egiten ari dira kargurik gabeko atxilotze-denbora 28 egunetik 90 egunera luzatzeko. Hori, berez, GEE-Haren 5. artikulua ez betetzea da. Jakina, kritikoei diotenez, pertsona batek libre izateko eskubidea du, bere aurkako karguak aurkeztu arte. Hala ere, erresumako fiskal buru Ken Macdonald-ek BBCn azaldu zuenez, 28 eguneko epea (aurreko 14 eguneko epearen ordez ezarria, konpromisozko irtenbide gisa, diputatuek 90 eguneko baztertu zutenean) «ezin baliagarriagoa» izan zen. Hurrengo Lehen Ministro britainiarra izan daitekeena, Gordon Brown, ados agertu zen baieztapen horrekin.

Giza eskubideen gaineko ondorioak European

Azken hilabeteetan hartutako erabaki batzuek bidezko epaiketarako eskubidea indargabetu egin dutela dirudi. Arazoa hau da: Gutunaren 103. artikulua arabera, Gutunak agindutako betebeharrak lehentasuna izango dute nazioarteko beste edozein akordio finkatutako betebeharren aurrean. Argi dago Segurtasun Kontseiluaren ebazpenak eta erabakiak Gutunaren betebeharrak direla. Horrek esan nahi du Segurtasun Kontseiluaren ebazpen batek lehentasuna izan behar duela giza eskubideei buruzko hitzarmenei dagozkien betebeharren aurrean?

*Nazioarteko Zuzenbideko Europar Elkartearentzat*²¹ egindako lan batean, Noel Birkhäuser-ek honako hau adierazi zuen:

Oinarrizko kontua hau da: bidezko epaiketarako eta auzitegiatarako jotzeko eskubideak Nazio Batuen Hitzarmenaren 103. artikuluaurrean lehen-tasuna izango ote duen ikustea. Eragindako pertsonak ezin dute Segur-tasun Kontseiluak haien aurka bultzatutako ekintzak ezetsi eta ezin dute giza eskubideen urratzea frogatu. Beraz, funtsezkoa da haientzat egoeraren berrikuspen eraginkorra lortzea. Baina Segurtasun Kontseiluak baztertu egiten du bere neurriak GEEHren eta EZPNHren arauak betetzen dituen edozein auzitegi independenteren aurrean ezestea. Hortaz, «auzitegi batera jotzeko eskubidearen funtsa bera urratzen ari da». EZPNHren 4. artikuluko 2. pa-ragrafoan jasotako indargabetu ezin diren eskubideen zerrendan EZPNHren 14. artikulua ez badago ere, haren muinak ukiezina izan behar du, baita Se-gurtasun Kontseiluarentzat ere. Epaiketa zuzen baten berme juridikoak *jus cogens*-en osagarritzat ere hartu daitezke.

2005eko irailaren 21ean, Europako Justizia Auzitegiko (EJA) Lehen Auzialdiko Auzite-giak (LAA) epaia eman zuen «terrorismoaren aurkako borrokan burututako ekintzen» in-guruan izandako lehenengo bi kasuei buruz: *Ahmed Ali Yusuf eta Al Barakaat International Foundation, eta Yassin Abdullah Kadi Europako Batasuneko Kontseiluaren eta Europako Ko-munitateen Batzordearen kontra* (Europako Justizia Auzitegiko Lehen Auzialdiko Auzitegia, T-306/01 kasua eta T-315/01 kasua)²².

Bi kasuetan, NBEk Al-Quaedari, talibanei eta abarri buruzko egindako ebazpenak ziren epaigai. Ebazpenek fondoak eta bestelako finantza-baliabideak izozteko eskatzen zien esta-tuei. NBEko Zehapen Batzordeak eragindako pertsonak identifikatu eta salbuespen-eskaerak kontuan hartu behar ditu. Ebazpenek »oinarrizko araua« finkatu zuten: »Nazioarteko le-gediaren arabera, NBEko Estatu Kideen betebeharrak, erakundearen Gutunean ezarriek, lehentasuna izango dute beste edozein betebeharrari aurrean, baita GEEHak eta Europako Komunitatearen Hitzarmenak jasotakoan aurrean ere. Oinarrizko arau hori Segurtasun Kontseiluak hartutako erabakiekin ere aplikagarria da».

LAAk berariaz aipatu zuen 103. artikuluaurrean kontua:

233. Bigarrenik, Nazio Batuen Gutunaren eta nazioarteko legediaren arteko loturari dagokionez, lehentasun-araua argi eta garbi adierazita dago Gutu-naren 103. artikuluan, honako hau esaten baitu: Gutun honetan Nazio Ba-tuen Erakundeko Estatu Kideentzat jasotako betebeharren eta beste edozein nazioarteko akordioak ezarritako betebeharren artean gatazka sortuz gero, Gutun honetako betebeharrak izango dute lehentasuna». Hala, Itunetako Zuzenbideari buruko Vienako Hitzarmenaren 30. artikuluaurrean arabera, eta ondorengo hitzarmenei aplikagarri zaizkien arauen kontra, Nazio Batuen Gutunaren aurreko zein ondoko hitzarmenetan aplikatuko da lehentasun-arau hori. Nazioarteko Justizia Auzitegiaren arabera, aldeek hitzartu lezake-ten herrialde mailako bi aldeko edo baita alde anitzeko ebazpen orok Nazio batuen Gutunaren 103. artikuluaurrean ebazpena bete behar dute (1984ko azaroaren 26ko epaia, Nikaraguan eta Nikaraguaren aurkako ekintza milita-rraren eta paramilitarren kasuan [Nikaragua AEBen aurka], *NJAren txostenak*, 1984, 392. or., 107. paragrafoa).

LAAk, orobat, honakoa erabaki zuen:

271 Nazio Batuen Gutunaren VII. Kapituluaren arabera jardunda, Segurtasun Kontseiluak, Zehapen Batzordearen bidez, pertsona edo erakunde batzuen fondoak izoztu behar direla erabakitzen duenean, bere erabakia loteslea izango da Nazio Batuetako kideentzat, Gutunaren 48. artikuluari jarraiki.

272 Aurreko 243tik 254ra bitarteko paragrafoetan jasotako irizpideak betez, ezin da justifikatu, ez nazioarteko eskubidean oinarrituta ez zuzenbide komunitarioan oinarrituta, Lehen Auzialdiko Auzitegiak erabaki horren legezotasuna zeharka aztertzeo jurisdikzioa duelako baieztapena, esparru juridiko komunitarioan onartutako oinarritzko eskubideak babesteko arauaren arabera.

LAAk argi eta garbi bereizten ditu jus cogens eskubideak, hala nola torturatua ez izateko eskubidea edo tratu bidegabe edo iraingarririk ez jasateko eskubidea, eta beste giza eskubide batzuk, esate baterako prozedurako eskubideak edo oinarritzko beste eskubide batzuk.

337 Indargabetzeko ekintza arrazoitzeko, Auzitegiak argudiatu zuen bazuela jurisdikziorik arauaren legezotasuna eta, zeharka, Segurtasun Kontseiluaren ebazpenen legezotasuna aztertzeo, jus cogens-en esparruko nazioarteko zuzenbideko arauak betez, hain zuzen pertsonaren eskubideen babesari dagozkion derrigorrezko preskripzioak.

338 Bestalde, aurreko 276. paragrafoan ohartarazi den bezala, ez dagokio Auzitegiari Segurtasun Kontseiluaren ebazpen horiek, berez, esparru juridiko komunitarioak babestutako oinarritzko eskubideekin bateragarriak ote diren zeharka aztertzea.

186

Steve Peers irakasleak honako hau adierazi zuen gaiaz:

Auzitegiak emandako irizpenaren arabera, ezin du Segurtasun Kontseiluaren ekintzen legezotasuna aztertu Europako Batasunaren zuzenbidearen ikuspegitik, ezta giza eskubideen inguruko legearen ikuspegitik ere. Hala ere, Segurtasun Kontseiluaren ebazpenen legezotasuna aztertu dezake, «jus cogens-a» urratuz gero, hau da, jus cogens deritzon nazioarteko zuzenbideko arauaren arabera, nazioarteko arau batzuk hain garrantzitsuak dira non lehentasuna baitute nazioarteko beste edozein legeren aurrean. Lehenengo aldiz, Europako Batasuneko Auzitegi batek aipagai izan du «jus cogens» printzipioa, nahiz eta kasu berezi batean aplikatu. Azken batean, Auzitegiak aztertu behar du ea jus cogens arauaren bat urratu ote den, jabetza-eskubideari (eta laburki aipatzen du tratu bidegabe edo iraingarririk ez jasateko eskubidea), bidezko epaiketa izateko eskubideari eta konpontze judizialerako eskubideari dago-kienez. Haren ondorioen arabera, aipatutako arauak ez dira urratu²³.

Apelazioko Auzitegi ingelesak honela laburtu zuen kasu horien efektua:

[...] auzitegiak iritzi dionez (213-216. paragrafoetan), Europako Batasuneko kideen betebeharrak, NBEko Segurtasun Kontseiluaren ebazpenak VII. Kapitulan jasotako zehapenak aplikatzean, lehentasuna dute esparru juridikoak babestutako oinarritzko eskubideen aurrean edo esparru horren oinarrien aurrean. Era berean, auzitegiak uste du ez duela jurisdikziorik Segurtasun Kontseiluaren ebazpenaren legezotasuna ikertzeo, *jus cogens*-a betetzen ote duen zeharka egiaztatzeaz gain, argi ulertuta jus cogens-a nazioarteko

zuzenbideko araudia loteslea dela nazioarteko zuzenbideko subjektu guztientzat, Nazio Batuetako organismoak barne hartuta, eta ezinezkoa dela arauok indargabetzea. Arau horiek mugatuta daude eraso, genozidio, esklabutza eta arraza-diskriminazio, gizateriaren aurkako krimen eta torturetara, baita autodeterminazio-eskubidera ere.

Lehen aipatutako adibidea Apelazioko Auzitegiak hartutako erabakia da, 2006ko martxoaren 29an, B.M. Erregina *Defentsa Ministroaren aurkako kasuan (Hilal Abdul-Razzaq Ali Al-Jeddak)* hala eskaturik²⁴. Apelazioko Auzitegiak EJAren bidetik jo zuen, eta baieztatu zuenez, NBEko Segurtasun Kontseiluaren ebazpen batek, kasu honetan 2004ko ekainaren 8ko RCSNU 1546 ebazpenak, okupazioari amaiera eman eta internamendua baimentzeko helburua duenak, jus cogens ez beste giza eskubide guztien aurrean lehentasuna du. Auzitegiaren ondorioa hau da:

Ezinbesteko gatazka dago larrialdi bateko segurtasun-arrazoiek eragindako internamendu-ahalmenaren eta auzitegi batek denbora egonkorretan duen prozesatze-eskubidearen artean. Nire epaian, 103. artikulua lehentasuna ematen dio RCSNU 1546 (2004) ebazpenari, gatazka dagoen guztietan. Horrek ez du esan nahi, askatasun pertsonalerako eskubidea zalantzan jartzen denean, internamendua segurtasun-arrazoiak direla-eta beharrezkoa dela erabaki dutenek euren betebeharra behar bezala betetzen ez dutenik. Galdetu behar lukete ea internamendua erantzun proportzionala ote den presoak segurtasunerako eragindako mehatxuarekiko. Aurrekoak ez du inondik ere esan nahi aztertzeko erabakiak eragindako jeneral-maior batzuen ikuspegia (ikusirik aurreko 10. paragrafoa) akatsik gabekoa ez denik.

Lord Brooke epaileak gehigarri ikaragarri batez amaitu zuen:

187

111 Epaia honen gehigarri gisa azpimarratu daitekeenez, herrialde honetako legedia arriskuan jarri zuen azken larrialdian onartutako internamendu-ahalmenak eta kasu horretakoak antzekoak dira. Ahalmen Legearen 1. sailak (defentsa), 1939ko larrialdian, arauak onartzeko ahalmena sorrarazi zuen, eta 1939ko Defentsa Arauetako (Orokorra) 18B arauak (1), Liversidge Andersonen kontra [1942] AC 206,297 kasuko oinaldeko ohar batean idatzitako terminoetan, atxilotzeko ahalmena sorrarazi zuen. Lord Denning-ek idatzitako *The Family Story* liburuan (Butterwoeths, 1981), 129. eta 130. orrietan, ahalmen hori 1940 eta 1941 bitartean praktikan nola erabili zen deskribatzen du, Alfred Denning QC pertsonaiaren bidez, ipar-ekialdeko eskualde-komisarioaren lege-aholkulari zenean:

Leeds-en nuen eginkizun nagusia, jendea 18B arauaren arabera atxilotzea izan zen. Epaiketarik egin gabe eta arriskutsuak zirelako susmorik gabe atxilotzen genuen jendea. Agintari militarrek informazioa jasotzen edo biltzen zuten edozein susmagarriri buruz, eta aurrean jartzen zidaten. Ikertzeko balio bazuen, nik pertsona hori ikusi eta galderak egin ohi nizkion, nik neuk erabakitzeko susmoak justifikatuta ote zeuden jakiteko. Ez zen izaten susmagarria ordezkatzeko abokaturik.

112 Rollo jeneralak, lekuko gisa egindako deklarazioan, Iraken izandako larrialdietan hartutako antzeko ebazpenen berri eman zuen. Dibisio Auzitegiak konpondutako kontu teknikoek gain, inoiz ez da zalantzan jarri internamendu-prozedurak Segurtasun Kontseiluaren aginduetara egokitzen direla.

Izan ere, kezka nagusia eragiten duena Al-Jedda jaunari Justizia Auzitegi batera jotzeko aukera ematea da, Auzitegi Judizial independenteak beraren aurka zeuden frogak egiaztatu aurretik aurkeztutako karguengatik erantzuteko. Pozten nau halako eskubiderik ez izateak.

Sison irakaslearen kasua

Pertsona fisiko baten fondoak izozteko kasu harrigarria da. José María Sison Filipinetako Alderdi Komunistako sortzaile eta lehendakaria izan zen eta, gaur egun, Filipinetako Fronte Demokratiko Nazionaleko aholkulari politikoa nagusia. Hala ere, AEBek, Holandako gobernuak eta Europako Batasunak «terroristen zerrendan» sartu zuten²⁵. 2003ko otsailaren 6an, LAARA jo zuen, eta ondorengo konpontze hau lortu zuen:

José María Sison irakaslea 2002ko abenduaren 12ko (2002/974/EC) Erabakian jasotako prozeduraren barruan sartzeko ekimena partzialki indargabetzea, terrorismoaren aurka borrokatzeko pertsona eta erakundeetara zuzendutako berariazko neurri murriztaileei buruzko 2580/2001 zk.-ko Arauaren 2(3) artikulua eta 2002/848/EC Ezeztatzeko Erabakia aplikatuta²⁶.

2001eko abenduaren 27an, Europako Batasuneko Kontseiluak 2580/2001 araua onartu zuen, pertsona eta erakunde batzuen aurkako berariazko neurri murriztaileei buruzkoa, terrorismoaren aurka borrokatzeko (Europako Komunitateetako Aldizkari Ofiziala, L 344 zk., 2001/12/28koa, 70-75. or.). Arauak, 2. artikuluan, honako zehapen hauek inposatzen ditu, besteak beste: fondoak izoztea eta finantza-zerbitzuak emateko debekua:

1. 5. eta 6. artikuluetan baimendutako terminoetan izan ezik:

- a) 3. paragrafoan aipatutako zerrendan sartuta dagoen pertsona fisiko edo juridiko, talde edo erakunde batenak diren edo titular duten fondo, finantza-aktibo eta baliabide ekonomiko guztiak izoztuta geratuko dira;
- b) 3. paragrafoan aipatutako zerrendan sartuta dagoen pertsona fisiko edo juridiko, talde edo erakunde bati ez zaio utziko fondo, finantza-aktibo edo baliabide ekonomikorik zuzenean edo zeharka erabiltzen.

2. 5. eta 6. artikuluetan baimendutako terminoetan izan ezik, 3. paragrafoan aipatutako zerrendan sartuta dagoen pertsona fisiko edo juridiko, talde edo erakunde bati edo baten aldeko finantza-zerbitzuak ematea debekatuta dago.

Zalantzarik gabe, zehapen horiek oso serioak dira. Izan ere, arauaren 1. artikulua oso definizio zabalak ematen ditu finantza-aktiboen eta baliabide ekonomikoen kontzeptuez. Aurrekariak honako hauek dira: 2002ko abuztuaren 9an, Barne Ministro iparramerikarrak «atzerriko erakunde terroristak» izendatu zuen Filipinetako Alderdi Komunita/Herri Armada Berria (FAK/HAB). 2002ko abuztuaren 12an, Iparramerikako Ekonomia Ministerioak, hain zuzen Atzerriko Aktiboa Kontrolatzeko Departamentuak, FAK/HAB eta auzi-jartzailea fondoak izozteko zerrendan sartu zituen. 2002ko abuztuaren 13an, Holandako Kanpo Arazoetako Ministerioak «terrorismoa zehatzeko araua» ezagutarazi zuen jendartean, eta FAK/HAB eta auzi-jartzailea, Armando Liwanag, zigorgarri izendatu zituen.

2002ko urriaren 28an, Kontseiluak 2002/848/EC erabakia hartu zuen. Horren arabera, José María SISON, pertsona fisiko bezala (1. artikulua, 1.9. «SISON, José María [Armando Liwanag ezizenez, Joma ezizenez, HABren kargupean], Cabugaon [Filipinas] jaioa,

1939/2/8an) eta Herri Armada Berria (HAB), errakuntzaz, auzi-jartzailearekin ustez lotuta dauden talde edo erakunde gisa [1. 2. 13. artikulua «Herri Armada Berria [HAB], Filipinas, HABren kargupeko Jose María Sisonekin [Armando Liwanag ezizenez, Joma ezizenez] erlazioatuta), 2580/2001 Arauaren 3. paragrafoko 2. artikuluari dagokion zerrendan sartu ziren. Erabaki hark 2580/2001 Arauak finkatutako terminoetan egindako laugarren zerrenda eragin zuen. 2002ko abenduaren 12an, Kontseiluak 2002/974/EC erabakia hartu zuen, eta horrek indarrik gabe utzi zuen aurreko 2002/848/EC erabakia. Erabaki berriak Sison jauna aipagai zuen 1.25 eta 2.19 artikuluetan, aurreko erabakiko termino berak erabiliz. Arau horrek eragin zuen gatazka, José María Sison irakaslea zerrendan sartzen baitzuen eta, hortaz, haren eskubideak eta interes demokratikoak urratu egin zituen. Berak aurkeztutako salaketan, zerrenda horretan sartu izanak eragindako ondorioen berri eman zuen:

Xedapenaren ondorioz, auzi-jartzaileak finantza-aktibo guztiak erabiltzeko askatasuna eta haien jabetza galdu egingo du. Hortaz, aktibo horiek ezin ditu inondik inora ere erabili.

Auzi-jartzailea banku- eta finantza-zerbitzu guztietatik baztertuta, ezin du AEBetako auzitegi batek bermatutako kalte-ordainik jaso, Marcosen erregimenak giza eskubiderik oinarritzkoenak urratu dizkiola eta. Orobat, ezin du bere hitzaldi, liburu eta artikuluek sorrarazi liezaioketen diru-sarrerarik bereganatu, ezta irakasle jardunda irabazi litzakeenak ere.

Sison irakasleak eta emazteak elkarrekin duten kontua izozteak eta Holandako estatuaren gizarte-prestazioak kentzeak premiarik oinarritzkoenak ere betetzea eragotzi eta bizitzeko eskubidea urratuko diete. Prestazio horien indargabetzea ez litzateke sekula epe mugagabea aplikatu behar, terrorismoaren aurkako borroka aitzakiatzat hartuta.

Erabakiaren ondorio praktikoak ezin gogorragoak dira eta Arauaren helburuak, hau da, terrorismoaren finantzazioaren aurkako borroka, ez ditu justifikatzen.

Prozesuak aurrera jarraitzen du oraindik, Sison irakaslearen ordezkariak Jan Ferman eta Belgika eta Holandako beste abokatu batzuk direlarik. 2005eko apirilaren 26an, *José María Sison Kontseiluaren aurkako* T-110/03, T-150/03 eta T-405/03 auzietan, LAAk uko egin zion Sison jaunak egindako eskaerari. Hain zuzen, terrorismoaren aurkako borroka xede duten berriazko neurri murriztaileak (2580/2001 zk.-ko Arauaren (CE) 2(3). Artikulua) ezarri zaizkien pertsonen zerrendan sartzeko erabakiaren oinarritzko dokumentuak eskuratzen ez uzteko Kontseiluaren hiru erabaki indargabetzea nahi zuen Sisonen.

Prozesuan, 230 CE artikulua araber, Kontseiluaren 2002/974 erabakia partzialki indargabetu da. Erabaki horrek eutsi egin dio Sisoni aktiboak izoztu beharreko pertsonen zerrendan, 2580/2001 Arauaren 241 CE artikulua araber (T-47/03 kasua). *José María Sison Kontseiluaren aurka* C-266/05 P kasuko azken berria Geelhoed abokatu nagusiak 2006ko ekainaren 22an emandako iritzia da²⁷. Sison irakasleak dokumentuak eskuratzeko egindako eskaerari uko egitea gomendatu zuen abokatu nagusiak.

SEGI kasua

Berrikuspen judizialerako oinarritzko eskubidea, aurretik aipatutako prozedurazko eskubidea, SEGI kasuan hartu dute aintzat LAAk, 2004an²⁸, eta GEEAk, 2002an²⁹. SEGI euskal gazte-mugimendua zen eta LAAri kalte-ordainak eskatu zizkion, Nazio Batuetako

Segurtasun Kontseiluaren 1373 Ebazpenak (2001) aplikatutako 2001/931/CFSP jarrera bateratuari erantsitako zerrendan, ustez, legez kanpo sartzeagatik. Lehenengo zutabean, jarrera bateratuak neurri zehatzak jarri zituen abian, hala nola fondoak izoztea (2. eta 3. artikulua). Hirugarren zutabean, estatu kideei informazioa trukatzeko eskatu zien (4. artikulua). 1. artikuluan, hiru zutabeetan aplikagarri zen «ekintza terrorista» terminoaren definizioa ezarri zuen. Eranskinean, neurriak aplikatu behar zitzaizkien pertsonen zerrenda sartu zuen. SEGI zerrenda horretan zegoen. Orriaren oinaldeko ohar batek zioenez, SEGI, besteak beste, 4. artikulua eraginpean zegoen. 4. artikulua estatu kideetara bidali zen, lankidetzaren eta judizialaren bidez laguntzeko eskatuz. Beraz, 2. eta 3. artikulua ez zitzaizkion SEGIri aplikatzen eta Komunitateak ez zituen haren fondoak izoztu behar.

LAAREN Bigarren Salak atzera bota zuen SEGIren eskaera, eskumenari lotutako arrazoiak zirela eta, eta erakundeak jasandako bidegabekeria ez zuen aintzat hartu. Laburtuz, erakundeak ez zuen inolako ordainik jasoko, Komunitatearen neurriaren eraginpean ez zegoelako, hau da, fondoak izoztu ez zitzaizkiolako.

Christina Eckes-ek gai horretaz esan zuenez:

SEGI inolako lege-babesik gabe geratu da... Kasuak... argi eta garbi erakutsi du terrorismoa laguntzen duten pertsonen zerrendan agertzeak ez dituela Auzitegiaren atea irekitzen³⁰.

Ez zegoen batere ados Auzitegiarekin, horrek argudiatzen zuenean zuzenbide-estatuak eta oinarritzko beste eskubide batzuek, zehazki 6. eta 13. artikuluetan jasotako Justiziarako eskubideek, kontrol judiziala eskatzen zutelako, «baita berariazko araurik ezean ere³¹». Horrez gain, hau azpimarratu zuen: «terrorismoaren aurkako neurrien esparruko zerrendan agertzeak eragin nabarmena du ospe ona izateko eskubidean³², eta baita jabetza-eskubideetan ere³³».

190

Giza Eskubideen Europar Auzitegiak ere uko egin zion eskaera kontuan hartzeari, baina ospeari zegokionez aintzat hartu zuen, ondorengo hau adieraziz:

[...] bi jarrera bateratu horien helburua terrorismoaren aurka borrokatzea da, sare terroristak finantzatzea eta terroristei aterpea ematea eragozteko xede duten neurri aplikagarrien bidez. Nazio Batuen Erakundeko Segurtasun Kontseiluak 1373 (2001) Ebazpenaren bidez abian jarri duen nazio-arteko ekintza zabalago baten osagarri dira. Ebazpenak terrorismoari eta, zehazki, terrorismoaren finantzaketari baliabide guztiak erabiliz aurre egiteko estrategiak finkatu ditu. Auzitegiak terrorismoaren aurkako borrokaren garrantzia berretsi eta gizarte demokratikoek erakunde terroristen ekintzatik babesteko eskubidea dutela aldarrikatzen du (ikus Zana Turkiaren aurka, 1997ko azaroaren 25eko epaia, Reports of Judgments and Decisions 1997-VII, 2548 or., 55. par, eta Mattei Frantziaren aurka (dic.), 40307/98 zk., 2001eko maiatzaren 15ekoa³⁴).

Auzitegiak ondokoa berretsi zuen:

[...] Hitzarmenaren 34. artikulua arabera, «auzi-jartzaile indibidualak frogatu behar du alegatu duen urraketak eragindakoa dela», eta artikulua «ez du inolako actio popularis-ik jasotzen Hitzarmena interpretatzeko; ez du

baimentzen pertsona batek lege baten aurkako kexa in abstracto agertzea, Hitzarmena hausten duela uste duelako besterik gabe. Hasteko, ez da aski pertsona batek esatea legeak bere eskubideak urratzen dituela Hitzarmenaren esparruan. Ezinbestekoa da legea haren kaltean aplikatu izana» (ikus *Klass* eta beste batzuk Alemaniaren aurka, 1978ko irailaren 6ko epaia, A Seriea, 28 zk., 17-18. or., 33. par.³⁵).

Eta honakoa gehitu zuen:

Orobat, auzi-jartzaileek ez dute inongo frogarik aurkeztu haien aurka 2001/931 CFSP jarrera bateratuaren arabera neurri zehatzik hartu dela erakusteko. Bi auzi-jartzaileen izenak (Segi eta Amnistiaren aldeko Gestorak) aipatutako zerrendan «ekintza terroristetan nahastutako talde edo erakunde» gisa agertzea ezerosoa izan liteke, baina lotura leunegia da Hitzarmenaren aplikazioa justifikatzeko³⁶.

Eckesek dioenez, «Auzitegiaren ondorioa, zerrendan sartzea *peut être gênant* (ezerosoa izan liteke) dioenean, aipamen ironikoa izan daiteke, auzi-jartzaileen egoeraren gaineko eragina kontuan hartuta³⁷». Bukatzeko, honakoa baietsi du:

LAk [...] ez ditu Batasunaren oinarriko printzipioak errespetatu, nahiz eta, iraganean, Auzitegiek aplikatu ohi zituzten. Hori deitoragarria da. Pertsonen oinarriko eskubideak ez ezik, oinarriko eskubideak sustatzeko helburua ere kaltetu egiten da. Era berean, Europako zerrenda beltzak eratzeko erabilitako oinarri objektibo zalantzarriak, batetik, eta GEEA, azken bitarteko gisa, babesa eskaintzeko prest ez egoteak, bestetik, egoera are kezkarriagoa bihurtzen dute³⁸.

191

«Komunitate susmagarrien» sorrera

Terrorismoaren aurkako legediak are eragin kaltegarriagoak ditu. Paddy Hillyard irakasleak garrantzi handiko ikerlana egin zuen 1974ko legeak eta haren ondorengoek Britainia Handiko irlandarren komunitatean izandako eraginari buruz³⁹. Ipar Irlandako gatazka zela-eta, 1974ko azaroaren 29tik 1991ko abenduaren 31ra bitartean, terrorismoari aurre egiteko (aldi baterako ebazpenak) onartutako lege guztien (TAL) aplikazioaren eraginez, Britainia Handian atxilotutako 7.052 lagunetatik, 6,097 baino gehiago (% 86) haien aurkako inolako ekintza judizialik gabe askatu zituzten. Ikerlanak honakoa frogatu zuen:

Jendea susmagarria da, batik bat, irlandarra delako. Behin polizia-etxean daudela, susmagarri irlandarren izendapena ematen zaie, beharbada sailkatzeko sistemaren baten arabera⁴⁰.

Bukaeran, ondorengo dio:

Komunitate susmagarri bat sortu da eta horren atzean dagoena irlandarren aurkako arrazismoa da. Komunitate horrek bere giza eskubideen eta askatasun zibilen urraketa orokorra jasan du[...] Aldi berean, TALEk eragin kaltegarria du ohiko legedi penalaren gainean, Irlandan aplikatutako eredu britainiarra salatzen duen oposizio politikoa kriminalizatu eta isildu egin baitu⁴¹.

Azpimarratzekoa da gaur egun gauza bera gertatzea musulmanen komunitatearekin New Yorkeko irailaren 11ko atentatuaren ostean, Madrilgo martxoaren 11koen ostean eta Londresko uztailearen 7koen ostean.

2005eko maiatzean emandako hitzaldi batean⁴², Hillyard irakasleak ondokoa oroitarazi zion jendeari:

Krimenaren kontzeptuarekin gertatzen den legez, terrorismoaren kontzeptua deseraiki egin behar da. Jaiotzen garenetik hiltzen garen arte mehatxu ugari egoten dira gure bizitzetan, hainbat lekutatik datozenak. Indarkeria politikoko ekintza baten ondorioz hiltzeko edo zauritzeko aukera oso txikia izan da beti herrialde honetan, eta ohiko justizia penaleko sistema aski gauza da mehatxu horri aurre egiteko. Errealitate gordina zera da, gure bizitzarako askoz arriskutsuagoak direla errepidean ibiltzea, brikolajea egitea edo kutsaduraren ondorioak.

Lau puntu psikologiko orokor azpimarratu zituen «terrorismoari aurre egiteko» legediaren erabilpenari buruz, Irlandako gatazkari begira:

1. Komunitateen alienazio orokorrera darama, nahiz eta, mehatxuari aurre egiteko, agintarientzat haien sostengua beharrezkoa izan.
2. Ohiko justizia penaleko sistema aldatu eta, esango nuke usteldu ere egin duela.
3. Segurtasun-zerbitzuei lehentasuna eman die legearen aurrean, segurtasun nazionalaren izenean.
4. Terrorismoa aurreikusi beharrean, erraztu egin du, eta hedatzea ahalbidetu.

192

Konparazio zuzena egiten du Ipar Irlandako 1971ko zoritxarreko internamenduaren eraginarekin. Horren ondorioz, Estrasburgoko Auzitegiak Erresuma Batua kondenatu zuen torturagatik eta tratu bidegabe eta iraingarriagatik. Horrez gain, herritar nazionalistei zera «iradoki zien, Ipar Irlandan gizarte bidezkoagoa sortzeko aldarrikapenak ez zeudela elkarriketaren eta pertsuasioaren bidez betetzerik. Zuzenbide-estatua bertan behera geratu zen eta, hala, ehunka gazte langilek IRArekin bat egin eta munduko indar matxinaturik eraginkorrenetako bat sortu zuten».

Antzeko eragina izan zuten zuzenbide-estatuaren gainean AEBek eta Erresuma Batuak Iraken egindako inbasioak eta okupazioak. Areago, soldadu britainiarrek Iraken jarraitu dute Ipar Irlandan salatutako metodoak erabiltzen eta Abu Ghraib-ek erakutsi duenez, metodo horien aplikazio sistematikoa eta instituzionala da.

Hillyardek erakutsi duenez, kezagarria da ikustea Britainia Handian erabilitako metodoak antzekoak direla:

2000/2001etik aurrera % 16 gehitu dira poliziak Ingalaterran eta Galesen geldiarazi eta miatutako lagunen kopurua. Hala ere, ehuneko horrek % 4 egin du gora herritar zurien artean, % 66 pertsona beltzen artean eta % 75 asiarretan. Poliziak «hainbat» deritzon taldeak are gorakada handiagoa eman du (% 90) eta baita «ezezagunen» taldeak ere (% 126). Azken bi kategoria horietan izandako hazkundearen azalpena ez ote da poliziak gero eta arreta

handiagoa jartzen diela arabiarrei eta bestelako musulmanei, hala nola turkiarrei, ez baitira «zurien», »beltzen» edo »asiarren» kategorietan sartzen?.

Hillyarden hitzetan, Terrorismoari aurre egiteko 2005eko Legearen bitartez onartutako kontrol-aginduak, 1970eko⁴³ hamarkadan Ipar Irlandan erabilitako eskusio-aginduen bertsio handitua ziren. Areago, Terrorismoaren aurkako 2000ko Legearen proskripzioek, erakunde terroristak suntsitzen batere lagundu ez zuten debekuak dakartzate gogora. Aitzitik, erakunde horiek sekretismo handiagotan murgildu ziren, informazioa hedatzeko debekuren eraginez ez zelako eztabaida politikorik izan haien nahien eta helburuen gainean. Justizia penaleko sistema goitik behera aldatu zen, ustez indarkeria politikoa erabiltzeko susmagarriak eraginkortasun handiagoz hartzeko⁴⁴. Epaimahaiak deuseztatu egin ziren, eta frogara arauak errotik aldatu. Aldi berean, gatazkako une batzuetan hainbat estrategia erabili ziren frogak lortzeko: galdeketa basatietatik⁴⁵ hasita, salatariak eta berri-emailek erruz erabiltzeraino. Ipar Irlandan justizia penaleko bi sistema erabili ohiz ziren: bata ekintza terroristak burutzeko⁴⁶ susmagarrientzat eta bestea «ohiko krimen egokiak» burutzeko susmagarrientzat.

Hillyardek baietsi duenez,

Indarkeria politikoarekin erabiltzeko justizia penaleko sistema ezberdina garatzeak usteldu egin zuen ohiko justizia penaleko sistema, bi era oso esanguratsutan. Lehenik, ohiko zuzenbide penalean ahalmenak eta prozedurak erabili ziren –adibidez, atxiloketak terrorismoaren aurkako legeen arabera irautea–. Bigarrenik, terrorismoaren aurkako legeak etengabe erabili ziren ohiko jokaera penalean.

Horixe da, hain justu, Britainia Handiko herritar musulmanek gaur egun bizi duten egoera.

193

Ondorioak

Aurkezpen honetan, lehenengo eta behin, Europako Batasuneko eta Nazio Batuen Erakundeko terrorismoaren aurkako herrialde mailako legedia ez dela beharrezkoa frogatzeko ahaleginak egin ditut. Izan ere, ohiko legedi penala, berez, aski da horretarako. «Terrorista» hitzak kondena-maila handia beste ekarpenik ez du. Bigarrenez, lege berriak aplikatzea hondamendia izan daiteke giza eskubideentzat. Hirugarrenez eta azkenez, legeek, batzuetan, nahi ez diren ondorioak eragin ditzakete: kide guztiak susmagarri diren komunitateak sortzea, etnia edo erlijioa direla eta. Nire iritziz, hori onartezina bezain arrisurtsua da.

Hitzaldiaren inguruko oharrak

- ¹ *Castells Espainiaren aurka* 11798/85 [1992] ECHR 48 (GEEA, 1992ko apirilaren 23ko epaia).
- ² *Brogan Erresuma Batuaren aurka*, GEEAren epaia 1988ko azaroaren 29koa.
- ³ *Brannigan eta MacBride Erresuma Batuaren aurka*, GEEAren epaia 1993ko maiatzaren 26koa.
- ⁴ 1974ko urriaren 5a: 5 hildako eta 65 zauritu.
- ⁵ 1974ko azaroaren 21a: 21 hildako.
- ⁶ Dugard, gaur egun, Palestinako lurralde okupatuetako giza-eskubideen egoerari buruzko NBEko berriemaile berezia da.
- ⁷ Dugard, John (1974) «International terrorism: Problems of Definition» v.50 n.1 *International Affairs* 67-81. or.
- ⁸ Testua eskuragarri dago web helbide honetan: <http://www.ru.ac.za/centenary/lectures/johndugardlecture.doc>.
- ⁹ Scheinin, Martin (2006) «Report of the Special Rapporteur on the promotion and protection of human rights and fundamental freedoms while countering terrorism» UN Doc: E/CN.4/2006/98, 2005eko abenduaren 28a.
- ¹⁰ McCulloch, Jude and Pickering, Sharon (2005) «Suppressing the Financing of Terrorism: Proliferating State Crime, Eroding Censure and Extending Neo-colonialism» v.45 *British Journal of Criminology*, 470-486 or.
- ¹¹ *Ibid.*, 482 or.
- ¹² Warbrick, Colin (2004) «The European Response to Terrorism in an Age of Human Rights» v.15 n.5 *European Journal of Human Rights* 989-1018 or., 989an.
- ¹³ www.un.org/unitingagainstterrorism/contents.htm.
- ¹⁴ Fassbender, Bardo (2006) «Targeted Sanctions and Due Process: The responsibility of the UN Security Council to ensure that fair and clear procedures are made available to individuals and entities targeted with sanctions under Chapter VII of the UN Charter.» Nazioarteko Zuzenbide Publikoko Gaierako Lege Aholkularien Batzordearentzako txostena. Doc. CAHDI (2006) 23, 2006ko abuztuaren 17a, Nazio Batuetako Gai Juridikoetako eta Aholkularitza Juridikorako Bulegoak eskatuta, 2006ko martxoaren 20an. Testua eskuragarri dago hemen: www.un.org/law/counsel/Fassbender_study.pdf.
- ¹⁵ Ministro Kontseilua 2002ko uztailearen 11ko 804. bileran harturiko Erabakien 3. eranskina, CM/Del/Dec(2002)804, 2002ko uztailearen 15ekoa, <https://wcm.coe.int/ViewDoc.jsp?id=296009&Lang=en>.
- ¹⁶ Jarraibideek indargabetzei dagokien paragrafo bat ere barne hartzen dute (XV. Paragrafoa): «terrorismoaren aurkako borroka gerra-egoeran edo larrialdi publikoan egiten denean, nazioaren bizitzaren aurkako mehatxua dagoelarik», hau da, Hitzarmenaren 15. artikulua formalki aplikatzen denean, Jarraibideek berriaz adierazten dute eskudun agintaritzari jakinarazi behar zaiola [Hitzarmenaren kasuan, Europako Kontseiluko Idazkari Nagusiari].
- ¹⁷ Andy Tighe, BBCko barne-kontuetako korrespontsala, «Will latest crime proposals work?» artikuluan, 2006ko azaroaren 15ekoan. Testua eskuragarri dago hemen: http://news.bbc.co.uk/2/hi/uk_news/6151458.stm.

¹⁸ Bill Bowring «The Present Reaction in Britain: Charles Clarke, the Castlereagh of Today» *Camden New Journal*, 30 October 2005.

¹⁹ Michael White, *The Guardian*, 2005eko urriaren 27a.

²⁰ *Re MB* [2006] EWHC Admin 1000. Orobat ikusi *JJ eta beste batzuk Barne Ministroaren aurka* [2006] EWHC 1623.

²¹ Birkhäuser, Noah (2005) «Sanctions of the Security Council Against Individuals—Some Human Rights Problems» *European Society of International Law*. <http://www.esil-sedi.org/english/pdf/Birkhauser.PDF>.

²² Prentsa-oharra eskuragarri dago hemen: <http://www.europa.eu.int/cj/en/actu/communiques/cp05/aff/cp050079en.pdf>. Epaien testua eskuragarri dago hemen: <http://curia.eu.int/jurisp/cgi-bin/form.pl?lang=EN&Submit=Rechercher&docrequire=alldocs&numaff=T-306/01&datefs=&datefe=&nomusuel=&domaine=&mots=&resmax=100> y <http://curia.eu.int/jurisp/cgi-bin/form.pl?lang=EN&Submit=Rechercher&docrequire=alldocs&numaff=T-315/01&datefs=&datefe=&nomusuel=&domaine=&mots=&resmax=100>.

²³ <http://www.statewatch.org/terrorlists/terrorlists.html>.

²⁴ C1/2005/2251, [2006] EWCA CIV 327.

²⁵ Ikusi: <http://www.defendsison.be/index.php?menu=1>.

²⁶ Aplikazio horren testua eskuragarri dago hemen: <http://www.defendsison.be/pdf/ApplicationSison.pdf>.

²⁷ Ikusi: <http://www.statewatch.org/news/2006/jun/sison-ecj-ad-gen-opinion.pdf>.

195

²⁸ T-338/02 *Segi eta beste batzuk Kontseiluaren aurka*, 2004ko ekainaren 7ko agindua, [2004] ECR II-01647.

²⁹ *SEGI eta beste batzuk 15 estatu kideren aurka (SEGI eta Amnistiaren Aldeko Batzordeak Alemaniaren eta beste batzuen aurka)*, 6422/02 zenbakia, 2002ko maiatzaren 23ko onartezintasun-erabakia.

³⁰ Eckes, Christine (2006) «How Not Being Sanctioned by a Community Instrument Infringes a Person's Fundamental Rights: The Case of Segi» v.17 n.1 *Kings College Law Journal* 144-154. or.

³¹ Eckes, *Ibid*, 148. or.

³² *Bladet Tromsø and Stensaas v Norway*, norma n°. 21980/93, juicio de 20 May 1999.

³³ Eckes, *Ibid*, 149. or.

³⁴ Ez onartzeko erabakia, 2002ko maiatzaren 23koa, 7-8. or.

³⁵ Ez onartzeko erabakia, 2002ko maiatzaren 23koa, 6. or.

³⁶ Ez onartzeko erabakia, 2002ko maiatzaren 23koa, 9. or.

³⁷ Eckes, *Ibid.*, 152. or.

³⁸ Eckes, *Ibid.*, 154. or.

³⁹ Paddy Hillyard, «Suspect Community: People's Experience of the Prevention of Terrorism Acts in Britain» (1993, London: Pluto Press).

⁴⁰ Ibid, 6-7. or.

⁴¹ Ibid, 273. or.


⁴² *Suspect Communities: The Real 'War on Terror' in Europe-n* argitaratua, Giza Eskubideei eta Gizarte Justiziari buruzko Ikerketa Institutua, London Metropolitan University, 2005.


⁴³ Ipar Irlandari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikus: Brigid Hadfield (ed) *Northern Ireland: Politics and the Constitution* (1992, Buckingham: Open University Press); Anthony Carty *Was Ireland Conquered? International Law and the Irish Question* (1996, London: Pluto Press); Paul Hill (with Ronan Bennett) *Stolen Years: Before and After Guildford* (1991, Corgi Books, London); Mark Urban *Big Boys_ rules: The SAS and the Secret Struggle against the IRA* (1992, Faber: London); Clive Walker *The Prevention of Terrorism in British Law* (1992, 2nd ed. Manchester University Press); Anthony Jennings (ed) *Justice Under Fire: The Abuse of Civil Liberties in Northern Ireland* (1990, Pluto Press: London).

⁴⁴ Commission, D. (1972) *Report of the Commission to Consider Legal Procedures to Deal with Terrorist Activities in Northern Ireland* (London: HMSO).

⁴⁵ Poliziaren metodo basatiei buruzko informazio gehiago lortzeko, ikusi: Taylor, P. (1980) *Beating the Terrorists? Interrogation in Omagh, Gough and Castlereagh* (Harmondsworth: Penguin).

⁴⁶ Greer, S. (1995) *Supergrasses: A Study in Anti-Terrorist Law Enforcement in Northern Ireland* (London: Clarendon Press).





Nazioarteko terrorismoa: gatazka berri bat?

Definizio baterako parametroak

RAFAEL BENITEZ JN.¹

*Europako Kontseiluko Gai Juridikoetako Zuzendaritza Nagusiak eratutako
Task Forceko (terrorismoaren aurkako aditu-taldea) burua*

Europako Kontseiluko Gai Juridikoetako Zuzendaritza Nagusiak eratutako Task Forceko (terrorismoaren aurkako aditu-taldea) burua da Rafael A. Benitez. Lehendik ere Europako Kontseiluan hainbat kargu izana da, 1994az geroztik.



CURRICULUMA

Kargu horretan sartzen da Europako Kontseiluko Terrorismoaren aurkako Aditu Taldearen (CODEXTER) idazkaritza ere. Erakunde horri dago-kio terrorismoaren aurkako borrokan erakundeak erabakitzen dituen lehentasun guztiak finkatzea.

Halaber, Nazioarteko Zuzenbide Publikoko Aholkulari Juridikoen Batzordeko (CAHDI) idazkari ere bada. Batzorde horretakoak dira Europako Kontseiluko 46 estatueta atzerri ministroei aholku ematen dieten juristak. Beste zenbait estatu eta nazioarteko erakundek ere hartzen du parte Batzordean, begirale gisara.

Gaur egungo kargura iritsi aurretik, Zuzenbide Administratiboari buruzko Proiektu Taldeko Idazkaritzen (CJ-DA) arduradun izan zen, baita Ustelkeriari buruzko Alor Anitzeko Taldeko (GMC) eta Terrorismoari buruzko Alor Anitzeko Taldeko (GMT) arduradun ere.

Idazki ugari argitaratua da nazioarteko zuzenbideaz, zuzenbide administratiboaz, etika publikoaz, ustelkeriaz eta terrorismoaz. Nazioarteko Harremanetako Institutuan (ITI-RI) eta Giza Eskubideen Nazioarteko Institutuan (IIDH) eskola ematen du, Estrasburgon, irakasle gonbidatu gisa, eta Frantziako Administrazio Eskola Nazionalako (ENA) kontratazio-epaimahaiko kide ere bada (2006an).

Sektore pribatuan (bulego juridiko batean eta enpresari-elkarte batean) jardun zen Europako Kontseilura iritsi aurretik.

Zuzenbidean eta ekonomian lizentziaduna da (ICADE, Comillaseko Unibertsitatea, Madril) eta masterra du Europar Zuzenbidean (LL.M; Europako Ikastetxea, Bruselak). Espainian, Estatu Batuetan eta Belgikan egin zituen ikasketak. Gaztelaniaz gain (hori du ama-hizkuntza), ingelesa, frantsesa eta italiera ere badakizki.

LABURPENA

Terrorismoa zer den? Erantzun argirik gabeko galdera topikoa bihurtu da hori. Izan ere, hainbat tankera ditu terrorismoak, eta aldatu egin dira azkeneko hamarkadotan.

Alor akademikoari dagokionez, ez da zaila izan terrorismoaren definizio (sozio-geo-politiko) egitea; politikoari gagozkiola, ordea, Nazio Batuek sistematikoki gaitzesten dute atentatu oro, jarduera eta metodo terrorista oro, eta inongo justifikazio gabeko krimentzat jotzen dituzte, nonahi eta nornahik eginak direla ere.

Terminoak definitzeko ahaleginak egiten diren arren, ez dago nazioartean erabateko adostasunik terrorismo hitzaren esanahiaz.

Dena den, hitzaren definiziorik ezak ez die galarazi nazioarteari eta segurtasun-indarrei terrorismoari aurre egiteko bideak aurkitzea. Ponentzia honetan, terrorismoarekin lotutako faktoreak azalduko ditugu, kontuan izanik, betiere, fenomeno aldakorra dela.

Aztertuko ditugu, halaber, bai hemengo bai nazioarteko terrorismoaren aldaketa-parametroak, ikuspegi juridikotik begiratuta, bai terrorismoaren alde gaiarekin i dagozkion faktoreak.

Nazioarteko terrorismoa: gatazka berri bat? Definizio baterako parametroak

Terrorismoaren definizioa gaurkotasan handiko gaia izan da azken hamarkadetan. «Arrazoi politikotan oinarritutako nazioarteko indarkeriaz» aritu edo «nazioarteko terrorismoaz» aritu, zailtasun berdina dago nazioarteko komunitateak definizio zehatz bat asma dezan. Ezbairik gabe, indarkeria hori eragiten duten arrazoi politikoekin dago loturik nagusiki eta hein handi batean zailtasun hori.

Interesgarria da ikustea akordio unibertsala dagoela hasiera-hasieratik gaiaz, eta *argi eta garbi gaitzesten dira terrorismo ekintza, metodo eta praktika oro, kriminalak eta ezin zurituzkoak baitira, duten motibazioa dutela, ageri diren forman ageri direla, non-nahi eta normahik erabilita ere*².

Komunitate akademikoak nahiko erraz asmatu du terrorismoaren definizio (sozio-geopolitiko) bat. Adibidez, honela defini daiteke: terrorismoa ekintza bortitz errepikatuzko metodo bat da, eta larritasuna sortzen du. Pertsona, talde edo estatu aktore (erdi) klandestinoek erabiltzen dute, arrazoi idiosinkratikorengatik, kriminalengatik edo politikorengatik. Hilketa arruntetan ez bezala, indarkeriaren helburu zuzenak ez dira izaten helburu nagusiak. Indarkeriaren biktimen zuzenak normalean itsuka aukeratzen dira (egokiera helburuak), edo selektiboki (helburu adierazgarriak edo sinbolikoak), helburu-biztanleria batetik, eta mezu bat sortzeko balio izaten dute. Hartara, (erakunde) terroristen, (arriskuan dauden) biktimen eta helburu nagusien arteko mehatxuzko eta indarkeriazko komunikazio-prozesuak helburu nagusia, hots, entzulea(k) manipulatzeko balio izaten du, eta helburu nagusi hori izuaren helburu, eskarien helburu edo arretaren helburu bihurtzen da, zer bilatzen den, beldurtzea, derrigortzea edo propaganda egitea³.

Maila politikoan, bada, etengabe eta gogor gaitzesten dira terrorismo ekintza, metodo eta praktika guztiak, kriminalizat eta ezin zurituzkotzat jota, non-nahi eta normahik erabilita ere, goian ikusi dugun bezala, eta, gainera, Nazio Batuen erakundeak errepikatu du *herritarrei, pertsona talde bati edo pertsona jakin batzuei izua eragiteko egindako ekintza kriminalak ezin zurituzkoak direla guztiz, haiek zurituzko edozein arrazoi politiko, filosofiko, ideologiko, arrazazko, etniko, erlijiozko edo bestelako erabilita ere*⁴.

Nahiz eta ahalegin ugari egin diren⁵, oraindik ez da era unibertsalean onartutako terrorismo definiziorik nazioarteko politika mailan.

Halere, bai nazioarteko komunitateak, bai legea betearazten duten agintariek, aurkitu dituzte fenomeno horri aurre egiteko erak azken urteetan, baita definizioa falta bazen ere. Faktore ugari da hori azaltzeko.

Ez da, bada, unibertsalki hitzartutako terrorismo definiziorik. Horrek ez ditu gelditu gobernuak, ordea, etxe/nazio mailan edo are nazioarte mailan definizioak asmatzetik. Izan ere, herrien gehiengo oso handi batek terrorismoaren definizioak dituzte beren kode penaletan. Orobat, eskualde mailako nazioarteko erakunde batzuek ere aurrera egin, eta definizio bat asmatu dute.

Goian aipatu bezala, nazio mailan, herrien gehiengo oso handi batek, guztiek ez bada, terrorismoaren edo delitu terroristen definizio bat daukate era batean edo bestean, nahiz eta ez eduki izen hori. Horren oinarrian Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1373 ebazpena (2001) dago, hots, *ekintza terroristek nazioarteko bakeari eta segurtasunari dakarzkieten mehatxuei aurre egiteko nazioarteko lankidetzá*⁶. Nazio Batuen Gutunaren VII. kapituluaren pean onartu zen ebazpena. Ebazpen horrek dei egiten die estatu guztiei batera lan egiteko berehala, ekintza terroristak eragozten eta ezabatzen, lankidetzá estuago baten bidez eta terrorismoari dagozkion nazioarteko konbentzioak osoki betez, eta eskatzen die elkarrekin aritzeko delitu terroristak eragozteko eta auzitara eramateko lanean⁷. Oso zaila da hori egitea, ordea, etxeko legerian xedapen kriminalizatzaile espezifikoak sartu gabe.

Etxeko testuingurutik harago Europakora joanda, ondokoa nabarmendu behar da: 2001eko irailaren 11ko erasoak izan eta laster, Europako Batasunak (EB) *Kontseiluaren Posizio Komuna onartu zuen (2001-12-07), eta, bertan, terrorismoaren aurka borrokatzeko neurri espezifikoak erabiltzea xedatu zen*⁸.

Testu horren arabera, *ekintza terrorista*, kasuistikoki definituta, hauxe da: nahita egindako ekintza, eta, bere izaeragatik edo testuinguruagatik, larriki kalte dezake nazio bat edo nazioarteko erakunde bat, eta delitua, nazioko legeriaren arabera, ondoko helburuak baldin baditu: biztanleria larriki beldurtzea; gobernu bati edo nazioarteko erakunde bati bidegabeki edozer eginaraztea edo egiten ez uztea; edo herri baten nahiz nazioarteko erakunde baten oinarritzko egitura politikoak, konstituzionalak, ekonomikoak edo sozialak larriki koloka jartzea edo suntsitzea.

Areago, horrelako ekintzak ondoko zerrendan egon behar du islatuta:

202

- a. pertsonaren biziaren aurka egindako eraso beharbada hilgarriak;
- b. pertsonaren osotasun fisikoaren aurkako erasoak;
- c. bahiketa egitea eta bahituak hartzea;
- d. suntsipen handia eragitea gobernu instalazio edo instalazio publiko batean, garraio sistema batean, azpiegitura instalazio batean (informazio sistema batean barne), zapalda kontinentalean ezarrita dagoen plataforma batean, leku publiko batean edo jabetza pribatu batean, giza biziak arriskuan jar ditzakeela edo galera ekonomiko handiak sor;
- e. hegazkinak, ontziak edo pertsonen nahiz ondasunen garraioko beste bitarteko batzuk indarrez hartzea;
- f. armak, lehergaiak edo arma nuklearrak, biologikoak edo kimikoak egitea, edukitzea, erostea, garraiatzea, hornitzea edo erabiltzea, eta, orobat, arma biologikoak eta kimikoak sortzeko ikerketa egitea eta haiek garatzea;
- g. gai arriskutsuei jaregitea, edo suteak, leherketak nahiz uholdeak eragitea, giza bizia ipintzen dute arriskuan eta;
- h. ur, argindar edo beste edozein funtsezko baliabideren horniketa galaraztea edo etetea, giza bizia ipintzen dute arriskuan eta.
- i. (a)tik (h)era zerrendatutako edozein ekintza egiteaz mehatxatzea;
- j. talde terrorista bat zuzentzea;
- k. talde terrorista baten jardueretan parte hartzea, besteak beste informazioa edo baliabide materialak emanez, edo haren jarduerak nola edo hala finantzatuz, jakinik parte-hartze horrek taldearen jarduera kriminaletan lagunduko duela.

Delitu horietan sartuta egon daitezkeen giza erakunde eta egitura ugariak ere aipatzen ditu Posizio Komunak, eta hiru kategoria desberdin definitzen ditu, hots:

- a. *ekintza terroristetan nahasirik dauden pertsonak, taldeak eta erakundeak*: ekintza terroristak egiten dituzten edo egiten ahalegintzen diren pertsonak, edo ekintza terroristetan parte hartzen duten edo haiek errazten dituzten pertsonak; edo halako pertsonak zuzenean nahiz zeharka dauzkaten edo kontrolatzen dituzten taldeak eta erakundeak; eta halako pertsonen, taldeen eta erakundeen ordean edo agindupean ari diren pertsonak, taldeak eta erakundeak, eta, hor barne sartzen dira halako pertsonak, pertsona elkartuek, taldeek eta erakundeek zuzenean nahiz zeharka dauzkaten edo kontrolatzen dituzten ondasunetatik datozen edo sortzen diren funtsak;
- b. *talde terrorista*: ekintza terroristak egiteko aldi batez irauten duen eta lankidetzan aritzen den bi lagun baino gehiagoko talde egituratua; eta
- c. *talde egituratua*: berehalako ekintza terrorista bat egiteko edonola sortzen ez den, eta bere kideentzat modu formalean definitutako rolik, kideentzako jarraitasunik edo egitura landu bat eduki beharrik ez duen talde bat.

Batik bat izaera politikokoa den Posizio Komun hori gero *terrorismoaren aurka borrokatzeko Kontseiluaren Esparru Erabaki (2002/06/13)* bihurtu zen⁹. Horrek beren legeria bateratzeko eskatzen die estatuei, eta gutxieneko arau batzuk ezartzen ditu delitu terroristei buruz.

Delitu terroristak Posizio Komunak egin zuen modu berean definitu ondoren, Esparru Erabakiak estatu kideek beren legeria nazionalen sartu beharreko zigorrak xedatzen ditu.

Estatu kide batean egindako edo prestatutako, eta herri bat edo nazioarteko erakunde bat larriki kalte dezakeen edozein delitu terroristari aplikatu dakioke Esparru Erabakia.

Jendea beldurtzeko eta herri bateko egitura politikoak, ekonomikoak edo sozialak larriki aldatzeko edo suntsitzeko helburuaz egin behar dira delitu horiek (hilketa, inor zauritzea, bahituak hartzea, estortsioa, armak egitea etab. edo aurrekoetako bat egiteaz mehatxatzea).

Pertsona bateko edo gehiagok eta herri baten edo gehiagoren aurka egin ditzakete delituak. Esparru Erabakiaren arabera, aldi batez irauten duen eta lankidetzan aritzen den bi lagun baino gehiagoko talde egituratua da talde terrorista. Are gehiago, delitu terroristak egiteko bultzada, laguntza eta adorea ematea, eta delitu terroristak egiten saiatzea ere zigorgarri izango dira.

Delitu terroristak zigortzeko, estatu kideek beharrezko xedapenak egin behar dituzte beren legeria nazionalen; alde batetik, zigor penal eraginkor, proportzionatu eta disuasiboak sortzeko, estradizioa ere ekar dezaketenak, eta, bestetik, zirkunstantzia aringarriak (poliziarri eta agintari judizialei laguntzea, frogak eskaintzea, beste delitugileak identifikatzea etab.) zehazteko.

Gainera, pertsona juridikoei ezarriko zaizkie zigorrak, ikusten bada pertsona fisikoak baduela pertsona juridikoa ordezkatzeko ahalmena edo pertsona juridikoaren baitan kontrola izateko aginpidea.

Azkenik, Esparru Erabakiak eskatzen die estatu kideei ezar dezatela beren jurisdikzioa delitu terroristei dagokienez, beren herritarrak estraditatzeko, beren ekintzak koordinatzeko eta delitugileak zeinek epaitu behar dituen erabakitzeko. Helburua hau da: prozesu penalak estatu bakar batean zentralizatzea, ukituak estatu kide asko direnean.

Nola Esparru Erabakia aginduzkoa den, EBko 25 estatu kideei eskatu zitzaizen alda zezatela hura beren herriko legeriara 2002 azkenerako. Horren ondorioz, terrorismo definizio bat eta bera sartu dute guztiek beren etxeko legerian.

Etxeko eta azpi-eskualdeko mailatik aldendurik, nazioarteko eskualde erakunde batzuk ere terrorismoaren definizio bakarra hitzartzen saiatu dira. Batzuek besteek baino arrakasta handiagoa izan dute.

Konferentzia Islamikoaren Erakundeak (KIE) definizio bat hitzartu zuen, eta, 1999an, *nazioarteko terrorismoaren aurka borrokatzeko Konferentzia Islamikoaren Erakundearen Konbentzioa* onartu zuen¹⁰. Konbentzio horrek ondoko biak bereizi zituen: *terrorismoa* eta *delitu terrorista*.

Alde baterik, honela definitzen da *terrorismoa*: edozein ekintza bortitz edo hura egiteko mehatxu, direnak direla haren motiboak, banaka nahiz taldean asmo kriminal bat gauzatzeko eginda, helburuak hauek direla: jendea izutzea, haiei min egiteaz mehatxatzea, edo haien bizia, ohorea, askatasunak, segurtasuna zein eskubideak arriskuan ipintzea, edo ingurumena edo edozein instalazio zein edozein jabetza publiko nahiz pribatu arriskuan ipintzea, edo haiek okupatzea zein hartzea, edo baliabide nazional bat zein nazioarteko instalazioak galzorian ipintzea, edo estatu independenteen egonkortasuna, lurralde osotasuna, batasun politikoa zein subiranotasuna mehatxatzea.

Bestetik, honela definitzen da *delitu terrorista*: helburu terrorista bat zertzeko egindako, hasitako edo parte hartutako eta herriko legerian zigorgarri den edozein ekintza kriminal, biktimak ondokoak direnean: edozein Estatu Itungile edo hango herritarrak, ondasunak edo interesak, edo haren lurraldean diren atzerriko instalazioak nahiz herritarrak. Halaber, terrorismoaren aurkako konbentzio unibertsalean jasotako delituak ere delitu terroristatzat jotzen ditu, printzipioz, Konbentzioak¹¹.

Era berean, Konferentzia Islamikoaren Erakundearen Konbentzioa onartu eta egun gutxira, Afrikar Batasunerako Erakundeak (ABE) *Terrorismoa Eragozteko eta Terrorismoaren aurka Borrokatzeko Konbentzioa* onartu zuen, 1999ko uztailaren 14an. Konbentzio horren 1. artikulua, «ekintza terrorista» definitzean, dio horrelako edozein ekintzak Estatu Itungile baten lege penalak urratzen dituela, edozein pertsonaren edo edozein talderen bizia, osotasun fisikoa edo askatasuna arriskatzen dituela, edota zauri larriak nahiz heriotza eragin diezazkiekeela haiei, edo kalteak eragiten dizkiela edo eragin diezazkiekeela jabetza publikoari eta pribatuari, baliabide naturalei eta ingurumenari nahiz kultur ondareari, eta funtsean xede hauek dituela:

- edozein gobernu, erakunde, instituzio, biztanleria edo horietako edozein segmentu beldurtzea, ikaratzea, behartzea edo bultzatzea ekintza batera edo hura ez egitera, edo jarrera bat hartzera nahiz uztera, edo printzipio jakin batzuen arabera jokatzera; edo
- edozein zerbitzu publiko edo herritarrei ematen zaien edozein funtsezko zerbitzu etetea, edo larrialdi publiko bat sortzea; edo
- altxamendu orokor bat sortzea Estatu batean.

Konbentzioak ekintza terroristen mailan ipintzen ditu, halaber: «goikoekin lotutako edozein ekintza egiteko asmoz egindako edozein sustatze, babeste, laguntze, agintze, eragite, bultzatze, saiatz, mehatxu, azpilan, antolatze edo pertsona lortze».

Konbentzioak eskatzen die Itungilei kriminaliza ditzatela ekintza horiek, eta zigor ditzatela zigor egokiz, hots, delitu horien izaera larria kontuan hartzen duten zigorrez.

Garrantzitsua da nabarmetzea KIEren eta ABEren konbentzioek, biek aipatzen dutela modu esplizituan autodeterminazio eskubidea, eta oso formula berdintsuekin gainera.

KIEk honela aipatzen du: «Jendeen borroka, borroka armatua barne, atzerritarren okupazioaren, erasoaren, kolonialismoaren eta nagusitasunaren aurka, askatasuna eta autodeterminazioa erdiesteko, nazioarteko legeriaren printzipioen arabera¹²», eta ABEk, berriz, honela: «jendeek egindako borroka, nazioarteko legeriaren printzipioen arabera, beren askatasuna eta autodeterminazioa erdiesteko, eta, hor, atzerriko indarren kolonialismoaren, okupazioaren, erasoaren eta dominazioaren aurkako borroka armatua sartzen da¹³». Horiek ez dira ekintza terroristatzat joko.

Munduko beste eskualde handi bat harturik, Estatu Independenteen Komunitateak (EIK) bere terrorismo definizioa asmatu zuen 1999an sinatutako *Terrorismoaren aurka Borrokatzeko Estatu Independenteen Komunitateko Estatuaren arteko Lankidetzaren Itunaren*¹⁴.

1. artikulua dio terrorismoa «legez kanpoko ekintza bat dela, legeria penalaz zigorgarri, eta segurtasun publikoa ahultzeko, agintarien erabaki-hartzeetan eragiteko edo biztanleria izutzeko egiten dela». Areago, ekintza horrek har litzakeen formen zerrenda bat ematen du:

- a. Pertsona fisikoen edo juridikoen aurkako indarkeria edo indarkeria erabiltzeko mehatxua;
- b. Ondasunak eta beste gauza material batzuk suntsitzea (kaltetzea) edo suntsitzeko (kaltetzeko) mehatxua egitea, jendeen bizia arriskuan ipintzeko;
- c. Ondasunei kalte handia edo gizartearentzat arriskutsuak diren beste ondorio batzuk eragitea;
- d. Estatu-pertsona baten edo beste figura publiko baten bizia mehatxatzea, haren Estatu edo beste jarduera publikoren bat amaitzeko, edo jarduera horregatik mendekatzeko;
- e. Atzerriko estatu baten ordezkariari edo nazioarte-mailako babesa duen enplegatu bati edo nazioarteko erakunde bati erasotzea, edo, orobat, nazioarte-mailako babesa duten pertsonen instalazioei edo ibilgailuei erasotzea;
- f. Terrorismoaren aurka borrokatzeko Itungileen legeria nazionaletan edo unibertsalki onartutako nazioarteko lege tresnetan terroristatzat jotako beste ekintza batzuk.

205

Itun horrek beste kontzeptu bat ere sartzen du, *terrorismo teknologikoa*, hots, ondokoak erabiltzea edo erabiltzeko mehatxua egitea, arma nuklearrak, erradiologikoak, kimikoak edo bakteriologikoak (biologikoak) edo horien osagaiak, mikroorganismo patogenoak, gai erradioaktiboak edo giza osasunari kalte degioten beste gai batzuk, eta, besteak beste, instalazio nuklearrak edo kimikoak edo ingurumenari edo hirietako zein biztanledun beste toki batzuetako zerbitzu-sistemei kalte larria eragin diezaiekeen beste edozein instalazio okupatzea, geldiaraztea edo suntsitzea, asmoa ondokoetako bat baldin bada, segurtasun publikoa ahultzea, biztanleria izutzea edo agintarien erabakietan eragitea, helburu politikoa, ekonomikoa edo beste edozein erdiesteko, eta *terrorismo teknologikoa* da, halaber, goian aipatutako delituetako edozein egiten saiatzea helburu berekin, edo horrelako delitu bat egiten duen edo egiten saiatzen den pertsona baten gidatzaile, finantzatzaile, bultzatzaile, laguntzaile edo konplize izatea.

Itungileek elkarrekin lan egin behar dute terrorismo ekintzak eragozteko, agerian ipintzeko, gelditzeko eta ikertzeko, *Itunaren eta beren nazio legerien eta nazioarteko betebeharren arabera*¹⁵.

Ikusi dugunez, eskualde eta azpi-eskualde batzuek lortu dute, benetan, terrorismoaren definizio bat asmatzea. Beste eskualde erakunde batzuk, berriz, ez dira saiatu terrorismoa definitzen, baina aldiz nazioarteko lankidetzaren sendotu dute, terrorismoaren aurkako konbentzio unibertsalean oinarriturik.

Amerikar Estatuaren Erakundeak *Terrorismoaren aurkako Amerikar Herrien arteko Konbentzioa* (2002-6-3) eratu zuen¹⁶. Konbentzioa 2003ko urriaren 7an sartu zen indarrean, baina ez dauka terrorismoaren definizio jakin bat. Aldiz, Europako Kontseiluak 1977an erabilitako sistema bat darabil, hau da, terrorismoaren aurkako konbentzio unibertsalean jasota dauden delituen definizioetan oinarritzen da. Ondoko konbentzioak hartzen ditu eredutzat:

- a. Hegazkinen Legez Kanpoko Bahikuntzak Ezabatzeari buruzko Konbentzioa (Haga, 1970-12-16).
- b. Hegazkintza Zibileko Segurtasunaren aurkako Legez Kanpoko Ekintzak Ezabatzeari buruzko Konbentzioa, Montrealen 1971-9-23an sinatua.
- c. Nazioarteko Immunitatea duten Pertsonen, Agente Diplomatikoak Barne, aurkako Delituak Eragozteari eta Zigorzteari buruzko Konbentzioa (New York, 1973-12-14).
- d. Bahituak Hartzearen aurkako Nazioarteko Konbentzioa, Nazio Batuen Batzar Nagusiak New Yorken onartua (1979-12-17).
- e. Material Nuklearraren Babes Fisikoari buruzko Konbentzioa (Viena, 1980-3-3).
- f. Nazioarteko Hegazkintza Zibila zerbitzatzen duten Aireportuetan Legez Kanpoko Indarkeria Ekintzak Ezabatzeko Protokoloa, Hegazkintza Zibilaren Segurtasunaren Aurkako Legez Kanpoko Ekintzak Ezabatzeko Konbentzioaren osagarria (Montreal, 1988-2-24).
- g. Itsas Nabigazioaren Segurtasunaren aurkako Legez Kanpoko Ekintzak Ezabatzeko Konbentzioa (Erroma, 1988-3-10).
- h. Zapalda Kontinentalean Ezarritako Plataformen Segurtasunaren aurkako Legez Kanpoko Ekintzak Ezabatzeko Protokoloa (Erroma, 1988-3-10).
- i. Bomba Eraso Terroristak Ezabatzeari buruzko Nazioarteko Konbentzioa, Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak New Yorken onartua (1997-12-15).
- j. Terrorismoaren Finantzaketa Ezabatzeari buruzko Nazioarteko Konbentzioa, Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak New Yorken onartua (1999-12-9).

206

Horrela, Konbentzioak eskatzen die Itungileei *Itunaren eraketako xedapenen arabera jokatatu eta saia daitezela* goian aipatutako konbentzioen itungile bihurtzen, eta har ditzatela beharrezko neurriak aipatu tresnak benetan inplementatzeko, eta, horretarako, ezartzeko zigorrak beren etxeko legerian, itun horietan deskribatutako delituentzat¹⁷.

Nabarmendu behar da hemen KIEren konbentzioko terrorismoaren aurkako nazioarteko konbentzioen zerrenda (ikus goian) ez datorrela bat AEEren konbentzioko zerrendarekin. Areago, terrorismoaren definizio bat emateko ahalegina egin ordez, AEEk beste bide bat aukeratu du, hots, terrorismoaren aurkako nazioarteko konbentzioak benetan betetzen saiatzea.

Antzeko sistema erabili zuen Eskualde Lankidetzarako Asia Hegoaldeko Elkarteak (EL-AHE) bere 1987ko *Terrorismoa Ezabatzeko Eskualde Konbentzioan*¹⁸. Konbentzioa Katmandun sinatu zen, 1987ko azaroaren 4an. Konbentzio horrek baztertu egin zuen delitu terroristen izaera politikoa estradizio xedeetarako.

Europara itzulita, Europako Kontseiluak (zeinak Europako Batasunak baino kide gehiago baititu, hots, 46 estatu kide) ere alde batera utzi ditu terrorismoa definitzeko ahaleginak, baita orain gutxi ere¹⁹.

Europako Kontseilua gauza batean kontzentratu da: izaera politikoa kendu die delitu terroristei estradizio xedeetarako, eta jadanik 1977an erantzun zion arazoari, bere *Terrorismoa Ezabatzeko Europako Konbentzio* aitzindarian²⁰. Goian aipatutako AEEren eta ELAHEren konbentzioek eredu horri jarraitu zioten.

Halere, oraindik orain, 2004an alegia, Europako Kontseilua ez da gai izan terrorismoa definitzeko, Europako Batasunean gertatu direnak gertatu arren, eta EBko estatu kide guztiak EKko kide izan arren²¹.

Terrorismoari buruzko definiziorik ez izatea, ordea, ez da izan oztopo nazioarteko lankidetzaren mailan haren izaera politikoa baztertzeko.

Europako Konbentzioak itun unibertsalean oinarritutako sistema bat erabiltzen du, hau da: terrorismoaren aurkako konbentzio unibertsalen eremuko delituak eta han definituta dauden bezala ezin dira jo delitu politikotzat estradizioa edo elkar laguntza ukatzeko. Sistema horretan berean oinarrituko ziren geroago KIE –hein batean–, AEE eta ELAHE beren konbentzioetan.

Sistema hori gogobetegarria jo zen, eta berriz sartu zen agirian, 2003ko *Zuzenketa Protokoloaren* bidez Europako Konbentzioa eguneratu zenean²².

Protokoloak aldaketa esanguratsu batzuk sartzen ditu: sekula politikotzat edo politikak eragindakotzat jo ez daitezkeen delituen zerrenda nabarmenki hazi da, eta, orain, terrorismoaren aurkako Nazio Batuen konbentzio guztiek hartzen dituzten delitu guztiak sartu dira hor; zuzenketa prozedura sinplifikatu bat ere sartu da, eta, horri esker, delitu berriak sar daitezke zerrendan; estatu behatzaileei ireki zaie Konbentzioa, eta Ministroen Batzordeak kide ez diren beste estatu batzuei ere ireki diezaieke laster; delitugileek heriotza zigorra, tortura edo bizi arteko kartzela (baldintzapeko askatasunik gabe) jaso dezaketen herrietara estraditatzeari uko egiteko aukera; Konbentzioari buruzko erreparorengatik estradizioa ukatzeko aukerak nabarmenki urritu dira, eta uko hori jarraipen-prozedura espezifiko baten pean egongo da, eta Konbentzioaren peko edozein betebehar zuzenduren jarraipenari ere badagokio prozedura hori.

207

*Terrorismoa Eragozteari buruzko Europako Kontseiluaren 2005eko Konbentzioak*²³ bide berriak ireki ditu benetan, ekintza terroristak egiatan gertatu aurretik egiten baitio aurre fenomeno terroristari.

Bertan, terrorismoa eragoztearen alderdi minbera lantzen da, eta helburu nagusi bat du: nazioarteko legerian eta terrorismoaren aurkako borrokan dauden hutsuneak betetzea. Ikerketa independente batzuek eta horretarako izendatutako Aditu Batzorde batek identifikatu zituzten hutsuneak.

Nazioarteko konpromisoak betetze aldera idatzi zen Konbentzioa. Lehenago aipatutako Nazio Batuen Erakundeko Segurtasun Kontseiluaren 1373 ebazpena (2001) da konpromiso horietako bat, eta bere 5. paragrafo operatiboan dio terrorismo ekintza, metodo eta praktika oro Nazio Batuen helburuen eta printzipioen aurkakoak direla, eta jakinaren gainean ekintza terroristak finantzatzea, antolatzea eta bultzatzea ere Nazio Batuen helburuen eta printzipioen aurkakoak direla.

Konbentzioaren helburua Estatu Itungileen ahaleginak hobetzea da. Horrela, estatu horiek errazago eragotziko dituzte terrorismoa eta hark giza eskubideen gainean, eta bereziki bizitzeko eskubidearen gainean dituen eragin negatiboak. Konbentzioak nazio mailako neurrien eta nazioarteko lankidetzaren bitartez lortuko du hori, beti ere zorrotz errespetatzen direla Estatu Itungileen arteko alde anitzeko nahiz bi aldeko itunak, 2. artikuluan espezifiki esaten den eran.

Konbentzioak helburu hori erdietsi nahi du; alde batetik, delitu kriminaltzat joz terrorismo ekintzak egitera eraman dezaketen ekintza jakin batzuk, besteak beste probokazio

publikoa, errekrutatzea eta trebakuntza, eta, bestetik, ekintza horiek eragozteko lankidetzaren sendotuz, bai barruan, nazio prebentzio politiken definizioaren testuinguruan, bai nazioartean, egun Itungileen artean dauden estradizio eta elkar laguntze itunak osatuz edo, behar denean, aldatuz, eta, gainera, beste bitarteko batzuk ere aurreikusten dira: informazio-emate espontaneoak eta, horrekin batera, legea betearaztearekin lotutako betebeharrak: ikertzeko betebeharra, zigorrekin eta neurriekin lotutako betebeharrak, legezko erakundeen (eta banakoen) erantzukizuna, edo auzipetzeko betebeharra, estradizioa ukatu denean.

Ikusirik estatu gogaideen, hots, Europako Kontseiluko estatu kideen eta estatu behatzaileen arteko konfiantza giroa (haien izaera demokratikoa eta giza eskubideekiko errespetua), guztiak ikusi zuten aurrera egin zitekeela zenbait jokabideren kriminalizazioan, jokabide horiek ez baitzuten erantzunik jaso ordu arte nazioarte mailan.

Konbentzioak, berez, ez ditu definitzen delitu terrorista berriak, terrorismoaren aurkako nazioarteko konbentzioetan sartuta daudenetatik aparte (ikus goian). Hobeto esanda, hiru delitu nagusi berri definitzen ditu (delitu terrorista bat egiteko probokazio publikoa, terrorismorako errekrutatzea eta terrorismorako trebatzea, eta, horiekin batera, bigarren mailako krimenentzako xedapenak, non hiru delitu nagusiak egiteko laguntza eta bultzada kriminalizatzen baitira, eta baita azken bi delitu nagusiak egiteko saioa ere). Hiru delitu nagusi berri horiek delitu terroristatzat jotzen dira, terrorismoaren aurkako nazioarteko konbentzioetan sartutako delituen ustezko egitearekin lotuta dauden neurrian.

Konbentzioak zenbait xedapen dauzka giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak babesteko; bietara, lankidetzaren sendotuz barruan eta nazioartean (eta estradizioa eta elkar laguntza ukatzeko arrazoiak sartzen dira hor), eta delitu berriak baldintzen eta bermeen forman aplikatuz. Konbentzioaren funtsezko alderdia da hori, zeren hor ukitzen diren gaiak bi alderen arteko mugan baitabilta beti, hots, askatasunen (esaterako adierazte, elkartzeko eta erlijio askatasunak) erabilera zilegiaren eta jokabide kriminalaren artean.

Zalantzarik gabe, ondokoa da ezaugarri interesgarrietako bat: *delitu terrorista egiteko probokazio publikoa* delitutzat jotzea. Xedapen horren negoziazioa ez zen gertatu batere erraza, eta, beraz, arreta berezia merezi du.

Konbentzioak honela definitzen du: publikoari mezu bat banatzea edo beste era batera helaraztea²⁴, delitu terrorista bat egitera bultzatzeko asmoz, non jokabide horrek, zuzenean delitu terroristen alde izan edo ez, horrelako delitu bat edo gehiago egiteko arriskua baitakar, eta, gainera, eskatzen zaie Itungileei zigor deztatela beren etxeko legerian, legez kanpo eta nahita egiten denean²⁵.

Konbentzioko funtsezko beste delituak bezala, gorago aipatu baitira jadanik, delitu terrorista bat egiteko probokazio publikoa delitu terroristekin lotutako delitu larritzat jotzen da, zeren terrorismoaren aurkako nazioarteko konbentziotan jasotako delituak egitera eramateko potentziala baitauka. Halere, ez du eskatzen delitu terrorista bat egina izan dadin.

Eskakizun horren falta esplizituki dago ezarrita Konbentzioan: ekintza bat delitu izateko Konbentzioan ezarrita dagoen forman, ez da beharrezkoa izango delitu terrorista bat benetan gertatzea²⁶. Era berean, delitu terrorista egin den lekuak ez dio axola Konbentzioa aplikatzeko xedearako.

Gainera, gorago aipatutako delituak bezala, delitu hori legez kanpo eta nahita egin behar da.

Bestalde, legezkanpokotasunaren eskakizunak intuizio bat islatzen du, hau da, aipaturako jokabidea legezkoa edo justifikatua izan daitekeela, ez bakarrik legezko babes klasikoak aplikagarri diren kasuetan, baita beste printzipio edo interes batzuek erantzukizun penalik eza dakartenean ere, adibidez legea betearazteko xedeetarako.

Bestalde, legez kanpo esapideak erabili den testuingurutik hartzen du bere esanahia. Hartara, bi gauzari egin diezaioke erreferentzia: aginpide (legegile, exekutibo, administratibo, judizial, kontratuzko edo adostasunezko) gabe abiatutako jokabideari, edo bestela etxeko legeriako legezko babesez edo printzipio egokiz estalita ez dagoen jokabideari. Konbentzioak, beraz, ukitu gabe uzten du gobernu aginpide legezkoaren arabera hartutako jokabidea.

Areago, delitua nahita egin behar da, erantzukizun penalik izango bada. Kasu jakin batuetan, intentzio-elementu espezifiko gehigarri bat ere bada delituaren zati.

5. artikulua eztabaida eta hausnarketa sakonetatik atera zen. Lehenik, Terrorismoari buruzko Europako Kontseiluko Adituen Batzordeko lan-talde bat aritu zen horretan, hots, CODEXTER. Taldeari eskatu zitzaion egiteko ikerketa bat estatu kideetan eta estatu behatzaileetan zeukaten egoeraz, eta kontuan izateko oinarri horiekin prestatutako aditu-txosten independente bat. Lan-taldea, azkenean, hauetan kontzentratzearen alde agertu zen: delitu terroristen eta/edo talde terroristen aldeko adierazpen publikoak, delitu terrorista bat egitearekin kausazko lotura –zuzena edo zeharkakoa– zuten egoerak, eta delitu terrorista baten gauzapean denbora loturak –*ex ante* edo *ex post*–.

CODEXTER gero beste gai batuetan kontzentratu zen: terroristen errekrutamenduan eta talde terrorista berrien sortzean; tirabira etniko eta erlijiozkoak bultzatzean, zeren terrorismoaren oinarri izan baitaitezke; «gorroto-hizkera» zabaltzean eta terrorismoaren aldeko ideologiak sustatzean, arreta berezia eskaintzen ziola beti Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren (GEEA) jurisprudentziari adierazpen askatasunari zegokionez²⁷, bai eta estatuek *terrorismoaren apologiaz eta/edo terrorismora bultzatzeaz* beren legerian xedatutakoaren inplementazioari ere, oinarritzko askatasunak mugatzeko arrisku potentzialik bazen ikertzeko.

Adierazpen askatasuna gizarte demokratiko baten funtsezko oinarrietako bat da. Baina oinarritzko eskubide batzuk eskubide absolutuak diren arren, eta, beraz, ez dute onartzen inolako mugatzerik (adibidez, inor torturatzeko edo hari tratu krudel eta iraingarriak emateko debekua), aldiz adierazpen askatasuna uki edo muga daiteke oso zirkunstantzia espezifiko batzuetan²⁸.

Ildo horretan, adibidez, arraza-gorrotora bultzatzea ezin da onargarritzat jo adierazpen askatasunerako eskubidean oinarrituta²⁹. Orobat esan daiteke delitu terrorista bortitzak egitera bultzatzeaz³⁰. Auzia da ea non dagoen muga zeharka delitu terroristak egitera bultzatzearen eta kritikak egiteko eskubide zilegiaren artean, eta auzi horrixe heldu zion Europako Kontseiluak.

Ondoriozko xedapena Ziberkrimenaren Konbentzioaren Protokolo Gehigarrian oinarrituta interpretatzen da. Protokoloa ordenagailu sistemen bidez egindako eta izaera arrazista edo xenofoboa duten ekintzen kriminalizazioaz da (ETS 198³¹).

Xedapenak formula generiko bat darabil, formula kasuistikoago bat erabili beharrean³², eta eskatzen die Itungileei kriminaliza dezatela publikoari delitu terroristak egitearen alde banatutako edo beste era batean helarazitako mezua. Hori zuzenean edo zeharka egiteak ez du axola xedapenaren aplikaziorako.

Zuzeneko probokazioak ez du sortzen inolako arazorik, jadanik delitu baita era batean edo bestean legeria gehienetan. Zeharkako probokazioa delitu bihurtzeak, aldiz, nazioarteko legeriak eta/edo jardunak arlo horretan zeukaten hutsunea erremediatzea bilatzen zuen.

Aldi berean, eta bere hurbilketa generikoagatik, xedapenak halako hautamen-maila bat uzten die Estatu delituaren definizioan eta haren inplementazioan. Esate baterako, delitu terrorista bat beharrezkotzat jotzea eta zuritzea hura zeharka bultzatzeko delitu izan daiteke. Halere, xedapena aplikatzeak hainbat baldintza bete daitezten eskatzen du:

Delitu terrorista bat egitera bultzatzeko intentzio espezifikoak izan behar da,

probokazioa legez kanpo eta nahita egin behar da,

halako delitu bat gertatzeko arriskua sortzea izan behar da halako ekintza baten emaitza, eta, arrisku hori sortu ote den aztertzean, ondokoak hartuko dira kontuan: egilearen eta mezu-jasotzailearen izaerak, eta delitua egin den testuingurua.

Nazioartean berrikitan definitutako delitu hori bada jadanik herri gutxi batzuetan era batera edo bestera³³, eta beste herri batzuk, berriz, berori sartzekotan dabilta³⁴.

Europako Kontseiluaren Konbentzioaren onarpenaren ondoren, Nazio Batuen Seguratasun Kontseiluak, Nazio Batuen Gutunaren VI. Kapituluaren arabera ziharduera, terrorismoa bultzatzea (apologia) debekatzea erabaki zuen, eta 1624 ebazpena onartu³⁵, 2005eko irailaren 14an.

Oso erraza da, beraz, nazioarteko komunitateak arreta handiz eta zorrotz aztertzea gai hau datozen hiletan edo urteetan.

210

Terrorismoa mundu mailan definitzearen gaira itzulita, egia da oraindik ezinezkoa dela «terrorismoaren» definizio bakarrak hitz egitea. Nazioarteko iritzi publikoak askotan gaitzetsi du terrorismoa bere forma guztietan, bai eta haren motibazio politikoa baztertu ere hein batean. Baina nazioarteko komunitatea sekula ez da bat etorri terrorismoa zehazki zer den esatean.

Horren ondorioz, azken mende erdian, nazioarteko legeriak terrorismo forma espezifiko batzuei erantzutea hobetsi du, eta zenbait neurri onartu ditu gertakari terroristak eragozteko eta ikertzeko nazioarteko lankidetzaz ziurtatzeko.

Esate baterako, NBEren lau konbentziok hegazkinak eta aireportuak bahitzea edo sabotatzea ukitzen dituzte (1963, 1970, 1971, 1988); konbentzio batek nazioarteko babesa duten pertsonen aurkako krimenak ukitzen ditu (1973), eta beste batek, bahituak (1979); bik itsasoko segurtasuna ukitzen dute (biak 1988koak); bik terrorismo nuklearra ukitzen dute (1980 eta 2005). Konbentzio berrienak (goian aipatutako eta berriki onartutako terrorismo nuklearraren aurkako Konbentzioa hor den arren), berriz, 1997an eta 1999an onartu ziren hurrenez hurren, eta oso aplikazio-eremu zabala dute, nahiz eta teoriarik bonba eraso terroristez eta terrorismoa finantzatzeaz izan³⁶.

Ondokoak dira terrorismoaren aurkako nazioarteko konbentzioak:

- a. Nazioarteko Immunitatea duten Pertsonen, Agente Diplomatikoak Barne, aurkako Delituak Eragozteari eta Zigortzeari buruzko Konbentzioa (New York, 1973-12-14);
- b. Bahituak Hartzearen aurkako Nazioarteko Konbentzioa, Nazio Batuen Batzar Nagusiak New Yorken onartua (1979-12-17);

- c. Bonba Eraso Terroristak Ezabatzeari buruzko Nazioarteko Konbentzioa, Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak New Yorken onartua (1997-12-15);
- d. Terrorismoaren Finantzaketa Ezabatzeari buruzko Nazioarteko Konbentzioa, Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak New Yorken onartua (1999-12-9);
- e. Terrorismo Nuklearreko Ekintzak Eragozteko Nazioarteko Konbentzioa (New York, 2005-4-13);
- f. Hegazkinetan egindako Delituei eta beste Ekintza Batzuei buruzko Konbentzioa (Tokio, 1963-9-14);
- g. Hegazkinen Legez Kanpoko Bahikuntzak Ezabatzeari buruzko Konbentzioa (Haga, 1970-12-16);
- h. Hegazkintza Zibileko Segurtasunaren aurkako Legez Kanpoko Ekintzak Ezabatzeari buruzko Konbentzioa, Montrealen 1971-9-23an sinatua;
- i. Material Nuklearraren Babes Fisikoari buruzko Konbentzioa (Viena, 1980-3-3);
- j. Nazioarteko Hegazkintza Zibila zerbitzatzen duten Aireportuetan Legez Kanpoko Indarkeria Ekintzak Ezabatzeko Protokoloa, Hegazkintza Zibilaren Segurtasunaren Aurkako Legez Kanpoko Ekintzak Ezabatzeko Konbentzioaren osagarria (Montreal, 1988-2-24);
- k. Itsas Nabigazioaren Segurtasunaren aurkako Legez Kanpoko Ekintzak Ezabatzeko Konbentzioa (Erroma, 1988-3-10);
- l. Zapalda Kontinentalean Ezarritako Plataformen Segurtasunaren aurkako Legez Kanpoko Ekintzak Ezabatzeko Protokoloa (Erroma, 1988-3-10); eta
- m. Detektatzeko xedez Lehergai Plastikoak Markatzeko Konbentzioa (Montreal, 1991-3-1).

Goian aipatutako konbentzioetako bi bereziki interesgarriak zaizkigu terrorismoaren definizioaren gainean darabilgun eztabaidarako, hots, *Bonba Eraso Terroristak Ezabatzeari buruzko Nazioarteko Konbentzioa* (Bonba Erasoaren Konbentzioa) eta *Terrorismoaren Finantzaketa Ezabatzeari buruzko Nazioarteko Konbentzioa* (Finantzaketa Konbentzioa). Zergatik zaizkigu hain interesgarriak? Ba, biak konbentzio nahiko berriak direlako, eta biek fenomeno terroristaren eremu osoa hartzen dutelako.

211

Bi Konbentzioek *nazioarteko baldintza* deritzana ere sartzen dute beren baitan, zeren beren 3. artikuluan baitote ez direla baliozko izango delitua estatu bakar batean egin denean, ustezko delitugilea estatu horretako herritarra denean eta hura estatu horretako lurraldean dagoenean, eta, Konbentzioko dagozkion xedapenen pean, beste ezein estatuk ez dauka jurisdikzioa erabiltzeko oinarririk, nazioarteko lankidetzarekin lotutako beste xedapen batzuk aplikatu arren.

Azkenik, ondokokoak sartzen dituzte bi Konbentzioek beren aplikazio-eremuan, delitu nagusietako bat³⁷ egiteko ahalegina, eta bigarren mailako delituak egin nahia, ondokoak zehazki: konplize gisa parte hartzea, beste batzuk delitu bat egiteko antolatuz edo gidatuz; talde batek asmo komunaz eta taldearen jarduera kriminala edo helburu kriminala areagotzeko asmoz egindako delitu batean edo gehiagotan nahita laguntzea, aipatu jarduerak edo helburuak delitu bat egitea dakartenean; edo, taldearen asmoa jakinik, halako delitu bat egitea³⁸.

Bonba Erasoaren Konbentzioak dio pertsona batek delitu bat egiten duela, Konbentzioaren esanahiaren arabera, baldin eta, legez kanpo eta nahita, lehergai bat edo beste gailu hilgarriren bat ematen, ipintzen, botatzen edo leherrarazten badu erabilera publikoko lekuren batean, estatuaren edo gobernuaren instalazioen batean, garraio publikoko sisteman edo azpiegitura instalazioen batean: (a) heriotza eta zauri fisikoak eragiteko asmoz; edo (b) leku, instalazio edo sistema horretan suntsipen handia eragiteko asmoz, suntsipen horrek galera ekonomiko handia eragiten duela edo eragin dezakeela³⁹.

Logikoa denez, Konbentzioaren aplikazio-eremua «Lehergai edo beste gailu hilgarri batzuen» erabileran kontzentratzen da. Eta, jakingarria oso, esapide horrek hau dena esan nahi du: «(a) heriotza, zauri fisiko larriak edo kalte material handiak eragiteko asmatutako edo ahalmena duten lehergaiak, arma su-eragileak edo gailuak, edo (b) gai kimiko toxikoak, agente edo toxina edo antzeko gai biologikoak, erradiazioa edo gai erradioaktiboak askatuta, hedatuta edo jaurtita heriotza, zauri fisiko larriak edo kalte material handiak eragiteko asmatutako edo ahalmena duten armak⁴⁰».

Hartara, lehergaiak ez ezik, Konbentzioak beste gailu batzuk ere estal litzake, bai eta bioterrorismoa ere. Batzuek gainera diote su-armen erabilera ere sar litekeela hor, arma horien erabilerak eztanda baitu barne.

Finantzaketa Konbentzioak dio pertsona batek delitu bat egiten duela, Konbentzioaren esanahiaren arabera, baldin eta edozein eratan, zuzenean edo zeharka, legez kanpo eta nahita⁴¹, funtsak ematen edo biltzen baditu, osoki edo hein batean ondokoak egiteko erabiliko diren asmoz edo erabiliko direla jakinda: (a) eranskinean zerrendatutako itunetako batean sartutako eta definitutako delitu bat egiteko⁴²; edo (b) gatazka armatu bateko borroketan aktiboki parte hartzen ari ez den zibil bati edo beste edonori heriotza edo zauri larriak eragiteko beste edozein ekintza egiteko, ekintza horrekin, bere izaeragatik eta testuinguruagatik, biztanleria bat beldurtzea edo gobernu bati nahiz nazioarteko erakunde bati zerbait eginaraztea edo egiten ez uztea bilatzen denean⁴³.

Konbentzio hau bistakoa denez finantzaketa alderdietan kontzentratzen bada ere, interesgarriena *motibazio terrorista* deritzanaren aipua da, hau da, ondokoa, *ekintza horrekin, bere izaeragatik eta testuinguruagatik, biztanleria bat beldurtzea edo gobernu bati nahiz nazioarteko erakunde bati zerbait eginaraztea edo egiten ez uztea bilatzen denean*, horixe baita terrorismoa definitzeko giltzetako bat, edo giltza.

212

Azkenik, beste gauza bat ere nabarmendu behar da: Finantzaketa Konbentzioaren arabera, funtsak benetan Konbentzioan aipatzen den delitua egiteko erabili diren edo ez kontuan hartu gabe jotzen da gauzatutzat delitua. Hori bat dator Terrorismoa Eragozteko Europako Kontseiluaren Konbentzioan darabilten sistemarekin, gorago aipatu den bezala.

Nazioarteko komunitateko askok terrorismo definizio eta lege bakarra ikusi nahi lukete terrorismoaren agerpen desberdinei erantzuten dieten hamahiru konbentzioen eta protokoloen lekuan. Terrorismoa definitzen duen lege bat eduki gabe, ezinezkoa da balizko lege hori betearaztea.

Ildo horretan, Nazio Batuen Erakundea terrorismoari buruzko konbentzio global baten zirriborroa aritu da negoziatzen 1996tik⁴⁴.

Konbentzio global bat sortzeko asmoak helburu hauxe du: lehenago aipatutako konbentzio sektorial guztiak estaliko dituen «aterki» bat sortzea. Konbentzio global batek terrorismoaren aurkako egungo tresnetan estalita ez dauden arloak sartuko lituzke, edo, bestela esanda, terrorismoaren aurkako borrokako lege erregimenean ez dauden hutsuneak beteko lituzke.

Konbentzio globalaren zirriborroan egindako aurrerapena, batez ere Irailaren 11 ospetsuaren ondoren, nabarmenki mantsotu da azken urteetan. Artikulu gehienak adostu dituzten arren, negoziatzaileak ez dira gai izan oraindik konbentzio globalaren zirriborroa amaitzeko, zeren behin eta berriz iritzi desberdinak adierazten baitituzte estatuak xedapen giltzarri jakin batzuei buruz. Ordezkaritza guztiak ados daude bi gauza hauetan: 1) Batzorde negoziatzailearen mandatua ekintza terroristen definizio tekniko bat garatzea da, gero hartatik

zigor legeko tresna egoki bat sortzeko; 2) adostasuna iritsi da, halaber, konbentzioak es-taliko lituzkeen ekintzak definitzen dituen xedapenaren zirriborroan. Baina, duela gutxi, ordezkari-tza batek proposatu du beste paragrafo bat erantsi behar zaiola xedapen horri, estatu bateko indar armatuen aginte postuetan daudenen ekintzak sartzeko⁴⁵.

Konbentzioaren zirriborroak berak ere ukitzen du konbentzio globalaren zirriborroaren eta egungo konbentzio sektorialen arteko harremana⁴⁶. Izan ere, konbentzio global berriak lehenago garatutako tresnen errealitatea atxiki eta horien gainean eraikiko luke, eta lege erregimen aplikagarria argituko luke halaber. Terrorismoaren aurkako nazioarteko beste tresna batzuen eta konbentzio globalaren artean gatazka bat sortuz gero.

Eta, garrantzitsuena dena, adostasun zabala dago, baita ere, goian aipatutako xedapenak estuki lotuta daudela 18. artikuluko xedapenekin, eta denak batera hartu behar direla aintzat pakete global baten zatizat. Bideabar, 18. artikulua bi gai ukitzen ditu. Batetik, konbentzio globalaren zirriborroaren aplikazio-eremuaren salbuespenak, eta, bestetik, inplizituki, nazioarteko legeria humanitarioaren eta konbentzio globalaz ezarriko den lege erregimenaren arteko muga.

Puntu horretan, negoziatzaileek gai giltzarri batzuk dituzte aurrean, eta gai horietan galarazi dute hain zuzen ere konbentzioa osatzea eta onartzea. Nazioarte mailan terrorismoa definitzeko dauden arazoan muin-muinean daude gai horiek, eta, beraz, arreta berezia merezi dute.

Lehen gaia herrien autodeterminazio eskubidearen erabilerari dagokio, edo, hobeki esan, ea ukitu behar diren edo nola ukitu behar diren egoera horiek konbentzioaren zirriborroan⁴⁷.

«Indar armatuek» gatazka armatuetan egiten dituzten jarduerak konbentzioaren aplikazio-eremutik kanpo uztea da bigarren gaia⁴⁸. Nahiz eta batzuek esan «indar armatuak» terminoa ongi definituta dagoela nazioarteko legeria humanitarioan eta, beraz, egokia dela lege penaleko tresna batean sartzeko, beste batzuek proposatzen dute termino hori termino zabalago batez «aldeak» ordezkatzea⁴⁹, eta arrazoitzat esaten dute indar armatuei ez zaiela lehenetsun traturik eman behar gatazka armatuetan nazioarteko legeria humanitarioaren pean jokatzen duten beste agente batzuen aldean.

Goikoarekin lotuta, hirugarren gaia ere eztabaida handia sortzen duen auzi bati dagokio, hau da, «atzerritarren okupazio egoerei». Erreferentzia hori superfluo-tzat daukate batzuek, eta beste batzuek, aldiz, beharrezko argipentzat jotzen dute hori eranstea, eta nazioarteko legeria humanitarioarekin bateragarria.

Azkenik, laugarren gai polemikoa zera da, indar militarrek bake garaian dituzten jarduerak konbentzioaren aplikazio-eremutik kanpo uztea⁵⁰. Batzuk kanpoan uzte horren alde daude, ulertzen baitute jarduera horiek nazioarteko beste arau batzuen pean daudela, baina beste batzuek militarren jarduerak nazioarteko legeriarekin bat etortzea ipintzen dute horretarako baldintzat.

Negoziazioak aurrera doaz. Halere, ez dago garbi zein eratan, ez eta zein aukera dauden ere⁵¹.

Zirriborro horretako definizioa itzulirik, adierazten da edozein pertsonak delitua egiten duela, konbentzioaren esanahiaren barruan, baldin eta, edozein eratan, lege kanpo eta nahita, ondokoak eragiten baditu:

- a) Heriotza edo zauri fisiko larriak edonori; edo

- b) Kalte larriak jabetza publikoari edo pribatuari, hau da, Estatuaren edo gobernuaren instalazioei, garraio publikoko sistema bati, azpiegitura instalazio bati edo ingurumenari; edo
- c) Kalteak artikulua honen 1. (b) paragrafoan aipatzen diren jabetzei, lekuei, instalazioei edo sistemei, galera ekonomiko handiak eragiten dituztela edo eragin ditzaketela, jokabide horrek, bere izaeragatik eta testuinguruagatik, biztanleria bat beldurtzea edo gobernu bati nahiz nazioarteko erakunde bati zerbait egina-raztea edo egiten ez uztea bilatzen duenean.

Areago, zirriborroak goiko horietako edozer egiteko *mehatxu sinesgarri eta serioak* ere sartzen ditu delitu horietan⁵².

Alabaina, nazioarteko komunitatearen ahaleginek sekulako zailtasunak topatu dituzte terrorismoaren aurkako hutsunerik gabeko metodo hori eta autodeterminaziorako nahiz independentziarako eskubidea bateratzeko. Izan ere, Nazio Batuen Erakundeak esana duen bezala, azken eskubide horretan zapalkuntza kolonialaren, arrazistaren edo *atzerritarren beste edozein zapalkuntza* motaren aurkako borrokak sar daitezke. Askotan esan da kontu handiz jokatu behar dela gatazkan edo iraultzan sartuta dagoen herri baten aurrean, zeren guk esku artean darabilgun definizioak *askatasunaren aldeko borrokalari prestua* nazioartean bilatutako kriminal bihur baitezake.

Negoiazioa aurrera doa NBEn, eta epaimahaiak ez daki oraindik arrakastarik izango ote duen nazioarteko komunitate osoaren onerako. Duela gutxi (2005-4-13), Terrorismo Nuklearreko Ekintzak Ezabatze Nazioarteko Konbentzio berri bat onartu da, eta horrek arrakasta izateko esperantza pixka bat dakar, eta konfiantza sortzen du gainera, erakusten baitu oraindik aitortzen dela alde anitzeko ekimenen balioa.

214

Testuinguru horretan, ikusi dugun bezala, munduko eskualde batzuek aurrera egin ahal izan dute definizio baten asmaketan, eta beste batzuek, ez. Hain zuzen ere, etxean, nazioartean (eskualdeka eta/edo azpi-eskualdeka) eta bereziki mundu mailan egindako ahaleginen konbinazioak betetzen ditu benetan nazioarteko legerian eta terrorismoaren aurkako borrokan dauden hutsuneak, nahiz eta, halere, nazioartean hitzartutako definizio baten premia larria dagoen. Definizio hori zinez ona izango bada, guztiek partekatutakoa eta hitzartutakoa izango da, eta ez munduaren alde batek beste bati indarrez ezarritakoa, zeren nazioarteko adostasunean baitago terrorismoaren aurkako borrokaren arrakasta.

Terrorismoaren eta ekintza terroristen definizioak nazioarteko tresnetan

Europako Batasuna

Terrorismoaren aurka borrokatze 2002ko ekainaren 13ko Kontseiluaren Esparru Erabakia (2002/475/JHA).

1. artikulua

Delitu Terroristak, eta oinarritzko eskubideak eta printzipioak

1. Estatu Kide Bakoitzak beharrezko neurriak hartuko ditu eta delitu terroristatzat joko nahita egindako zenbait ekintza. Behean (a)tik (i) puntura aipatzen diren eta legeria nazionalean delitutzat jotzen direnak, beren izaeragatik eta testuinguruagatik kalte larria eragin baitiezaioke herri bati edo nazioarteko erakunde bati, helburu hauekin egiten badira:

Biztanleria larriki beldurtzea, edo gobernu bati edo nazioarteko erakunde bati bidegabeki edozer eginaraztea edo egiten ez uztea, edo herri baten nahiz nazioarteko erakunde baten oinarrizko egitura politikoak, konstituzionalak, ekonomikoak edo sozialak larriki ezegonkortzea edo suntsitzea.

Horren arabera, ondoko ekintzak joko dira delitu terroristatzat:

- a. pertsonaren biziaren aurka egindako eraso beharbada hilgarriak;
- b. pertsonaren osotasun fisikoaren aurkako erasoak;
- c. bahiketa eta bahituak hartzea;
- d. suntsipen handia eragitea gobernu instalazio edo instalazio publiko batean, garraio sistema batean, azpiegitura instalazio batean (informazio sistema batean barne), zapalda kontinentalean ezarrita dagoen plataforma batean, leku publiko batean edo jabetza pribatu batean, giza biziak arriskuan jar ditzakeela edo galera ekonomiko handiak sor;
- e. hegazkinak, ontziak edo pertsonen nahiz ondasunen garraioko beste bitarteko batzuk indarrez hartzea;
- f. armak, lehergaiak edo arma nuklearrak, biologikoak edo kimikoak egitea, edukitzea, erostea, garraiatzea, hornitzea edo erabiltzea, eta, orobat, arma biologikoak eta kimikoak sortzeko ikerketa egitea eta haiek garatzea;
- g. gai arriskutsuei jaregitea, edo suteak, leherketak nahiz uholdeak eragitea, giza bizia ipintzen dute arriskuan eta;
- h. ur, argindar edo beste edozein funtsezko baliabideren horniketa galaraztea edo etetea, giza bizia ipintzen dute arriskuan eta.
- i. (a)tik (h)era zerrendatutako edozein ekintza egiteaz mehatxatzea;

215

2. Esparru Erabaki honek ez du izango Europako Batasunaren Ituneko 6. artikuluan ezarritako oinarrizko eskubideak eta lege printzipioak errespetatzeko betebeharra aldatzeko eragina.

2. artikulua

Talde terrorista batekin lotutako delituak

1. Esparru Erabaki honen xedeetarako, «talde terrorista» hauxe izango da: ekintza terroristak egiteko aldi batez irauten duen eta lankidetzan aritzen den bi lagun baino gehiagoko talde egituratua, eta «talde egituratua»: berehalako ekintza terrorista bat egiteko edonola sortzen ez den, eta bere kideentzat modu formalean definitutako rolik, kideentzako jarraitasunik edo egitura landu bat eduki beharrik ez duen talde bat.

Konferentzia Islamikoaren Erakundea

Nazioarteko Terrorismoaren aurka Borrokatzeko Konferentzia Islamikoaren Erakundearen Konbentzioa, 1999ko uztailaren 1ean Uagadugun onartua.

1. artikulua

Konbentzio honen xedeetarako:

[...]

2. «Terrorismoak» hauxe esan nahi du: edozein ekintza bortitz edo hura egiteko mehatxu, direnak direla haren motiboak, banaka nahiz taldean asmo kriminal bat gauzatzeko eginda, helburuak hauek direla: jendea izutzea, haiei min egiteaz mehatxatzea, edo haien bizia, ohorea, askatasunak, segurtasuna zein eskubideak arriskuan ipintzea, edo ingurumena edo edozein instalazio zein edozein jabetza publiko nahiz pribatu arriskuan ipintzea, edo haiek okupatzea zein hartzea, edo baliabide nazional bat zein nazioarteko instalazioak galzorian ipintzea, edo estatu independenteen egonkortasuna, lurralde osotasuna, batasun politikoa zein subiranotasuna mehatxatzea.
3. «Delitu Terrorista» hauxe da: helburu terrorista bat zertzeko egindako, hasitako edo parte hartutako eta herriko legerian zigorgarri den edozein ekintza kriminal, biktimak ondokoak direnean: edozein Estatu Itungile edo hango herritarrak, ondasunak edo interesak, edo haren lurraldean diren atzerriko instalazioak nahiz herritarrak.
4. Ondoko konbentzioetan zehaztutako delituak ere delitu terroristatzat jotzen dira, Estatu Itungileetako legeriek kanpo utzitakoak edo delitu horiek berretsi ez dituzten herrien kasuetan salbu:
 - a. «Hegazkinetan egindako Delituei eta beste Ekintza Batzuei» buruzko Konbentzioa (Tokio, 1963-9-14).
 - b. «Hegazkinen Legez Kanpoko Bahikuntzak Ezabatzeari» buruzko Konbentzioa (Haga, 1970-12-16).
 - c. «Hegazkintza Zibileko Segurtasunaren aurkako Legez Kanpoko Ekintzak Ezabatzeari» buruzko Konbentzioa, Montrealen 1971-9-23an sinatua, eta haren Protokoloa (Montreal, 1984-12-10).
 - d. «Nazioarteko Immunitatea duten Pertsonen, Agente Diplomatikoak Barne, aurkako Delituak Eragozteari eta Zigortzeari» buruzko Konbentzioa (New York, 1973-12-14).
 - e. Bahituak Hartzearen aurkako Nazioarteko Konbentzioa (New York, 1979).
 - f. Itsasoko Legeari buruzko Nazio Batuen Konbentzioa (1982) eta harekin lotutako itsasoko pirateriari buruzko xedapenak.
 - g. «Material Nuklearraren Babes Fisikoari» buruzko Konbentzioa (Viena, 1979).
 - h. Nazioarteko Hegazkintza Zibila zerbitzatzen duten Aireportuetan Legez Kanpoko Indarkeria Ekintzak Ezabatzeko Protokoloa, Hegazkintza Zibilaren Segurtasunaren Aurkako Legez Kanpoko Ekintzak Ezabatzeko Konbentzioaren osagarria (Montreal, 1988).
 - i. Zapalda Kontinentalean Ezarritako Plataformen Segurtasunaren aurkako Legez Kanpoko Ekintzak Ezabatzeko Protokoloa (Erroma, 1988).
 - j. Itsas Nabigazioaren Segurtasunaren aurkako Legez Kanpoko Ekintzak Ezabatzeko Konbentzioa (Erroma, 1988).
 - k. Bonba Eraso Terroristak Ezabatzeko Nazioarteko Konbentzioa (New York, 1997).
 - l. Detektatzeko xedez Lehergai Plastikoak Markatzeko Konbentzioa (Montreal, 1991).

Afrikar Batasunerako Erakundea

Terrorismoa Eragozteko eta Terrorismoaren aurka Borrokatzeko Konbentzioa, 1999ko uztailaren 14an Aljerren onartua.

1. artikulua

Konbentzio honen xedeetarako:

[...]

3. hauxe esaten da «Terrorismoaz»:

a) horrelako edozein ekintzak Estatu Itungile baten lege penalak urratzen dituela, edozein pertsonaren edo edozein talderen bizia, osotasun fisikoa edo askatasuna arriskatzen dituela, edota zauri larriak nahiz heriotza eragin diezazkiekeela haiei, edo kalteak eragiten dizkiela edo eragin diezazkiekeela jabetza publikoari eta pribatuari, baliabide naturalei eta ingurumenari nahiz kultur ondareari, eta funtsean xede hauek dituela:

- edozein gobernu, erakunde, instituzio, biztanleria edo horietako edozein segmentu beldurtzea, ikaratzea, behartzea edo bultzatzea ekintza batera edo hura ez egitera, edo jarrera bat hartzea nahiz uztera, edo printzipio jakin batzuen arabera jokatzera; edo
- edozein zerbitzu publiko edo herritarrei ematen zaien edozein funtsezko zerbitzu etetea, edo larrialdi publiko bat sortzea; edo
- altxamendu orokor bat sortzea Estatu batean

b) (a) paragrafoan (i)tik (iii)ra aipatutako edozein ekintza egiteko asmoz egindako edozein sustatze, babeste, laguntze, agintze, eragite, bultzatze, saiatzeko, mehatxu, azpilan, antolatze edo pertsona lortze.

Estatu Independenteen Komunitatea

Terrorismoaren aurka Borrokatzeko Estatu Independenteen Komunitateko Estatuaren arteko Lankidetzaren Ituna, 1999ko ekainaren 4an Minsken egina.

217

1. artikulua

Itun honen xedeetarako, bertako terminoen esanahia ezartzen da, eta esaten da:

«Terrorismoaz» legez kanpoko ekintza bat dela, legeria penalaz zigorgarri, eta segurtasun publikoa ahultzeko, agintarien erabaki-hartzeetan eragiteko edo biztanleria izutzeko egiten dela. Eta forma hauek har ditzakeela:

Pertsona fisikoen edo juridikoen aurkako indarkeria edo indarkeria erabiltzeko mehatxua;

Ondasunak eta beste gauza material batzuk suntsitzea (kaltetzea) edo suntsitzeko (kaltetzeko) mehatxua egitea, jendeen bizia arriskuan ipintzeko;

Ondasunei kalte handia edo gizartearentzat arriskutsuak diren beste ondorio batzuk eragitea;

Estatu-pertsona baten edo beste figura publiko baten bizia mehatxatzea, haren Estata edo beste jarduera publikoren bat amaitzeko, edo jarduera horregatik menderatzeko;

Atzerriko estatu baten ordezkariari edo nazioarte-mailako babesaren duen enplegatu bati edo nazioarteko erakunde bati erasotzea, edo, orobat, nazioarte-mailako babesaren duten pertsonen instalazioei edo ibilgailuei erasotzea;

Terrorismoaren aurka borrokatzeko Itungileen legeria nazionaletan edo unibertsaletan onartutako nazioarteko lege tresnetan terroristatzat jotako beste ekintza batzuk.

Eta «Terrorismo Teknologikoa» dela: ondokoak erabiltzea edo erabiltzeko mehatxua egitea, arma nuklearrak, erradiologikoak, kimikoak edo bakteriologikoak (biologikoak)

edo horien osagaiak, mikroorganismo patogenoak, gai erradioaktiboak edo giza osasunari kalte degioten beste gai batzuk, eta, besteak beste, instalazio nuklearrak edo kimikoak edo ingurumenari edo hirietako zein biztanledun beste toki batzuetako zerbitzu-sistemei kalte larria eragin diezaiekeen beste edozein instalazio okupatzea, geldiaraztea edo suntsitzea, asmoa ondokoetako bat baldin bada, segurtasun publikoa ahultzea, biztanleria izutzea edo agintarien erabakietan eragitea, helburu politiko bat, ekonomiko bat edo beste edozein erdiesteko, eta terrorismo teknologikoa da, halaber, goian aipatutako delituetako edozein egiten saiatzea helburu berekin, edo horrelako delitu bat egiten duen edo egiten saiatzen den pertsona baten gidatzaile, finantzatzaile, bultzatzaile, laguntzaile edo konplize izatea.

Nazio Batuen Erakundea

Nazioarteko terrorismoari buruzko konbentzio globalaren zirriborroa (negoiazio pean).

2. artikulua

1. Edozein pertsonak delitua egiten du konbentzioaren esanahiaren barruan, baldin eta, edozein eratan, legez kanpo eta nahita, ondokoak eragiten baditu:
 - a. Heriotza edo zauri fisiko larriak edonori; edo
 - b. Kalte larriak jabetza publikoari edo pribatuari, hau da, Estatuaren edo gobernuaren instalazioei, garraio publikoko sistema bati, azpiegitura instalazio bati edo ingurumenari; edo
 - c. Kalteak artikulua honen 1. (b) paragrafoan aipatzen diren jabetzei, lekuei, instalazioei edo sistemei, galera ekonomiko handiak eragiten dituztela edo eragin ditzaketela, jokabide horrek, bere izaeragatik eta testuinguruagatik, biztanleria bat beldurtzea edo gobernu bati nahiz nazioarteko erakunde bati zerbait eginaraztea edo egiten ez uztea bilatzen duenean.
2. Edozein pertsonak delitua egiten du, halaber, artikulua honen 1. paragrafoan ezarritako delitu bat egiteko mehatxu sinesgarri eta serio bat egiten badu.
3. Edozein pertsonak delitua egiten du, halaber, artikulua honen 1. paragrafoan ezarritako delitu bat egiten saiatzen bada.
4. Edozein pertsonak delitua egiten du, halaber, baldin eta:
 - a) Konplize gisa parte hartzen badu artikulua honen 1., 2. eta 3. paragrafoetan ezarritako delitu batean;
 - b) Beste batzuk artikulua honen 1., 2. eta 3. paragrafoetan ezarritako delitu bat egiteko antolatzen edo gidatzen baditu; edo
 - c) Asmo komunaz ari den talde bati artikulua honen 1., 2. eta 3. paragrafoetan ezarritako delitu bat edo gehiago egiten laguntzen badiu. Laguntza hori nahi-takoa izango da, eta gainera:
 - Taldearen jarduera kriminala edo helburu kriminala areagotzeko egina, jarduera edo helburu horrek artikulua honen 1. artikuluan ezarritako delitu bat egitea dakarrenean.
 - Taldeak artikulua honetako 1. paragrafoan ezarritako delitu bat egiteko asmoa duela jakinik egina.

Hitzaldiaren inguruko oharra

¹ Terrorismoaren aurkako Talde Bereziaren Burua, Legezko Gaietako Zuzendaritza Nagusia, Europako Kontseilua. Artikulu honetan adierazitako iritziak egilearenak dira, eta ez dituzte nahitaez Erakundeko estatu kideen iritziak islatzen. Egilearekin harremanetan jartzeko: Council of Europe, F 67075 Strasbourg cedex (France), Tel. +33388412000, Fax +33388412764.

² Ikus, adibidez, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1269 ebazpena (1999), edo Nazio Batuen Batzar Nagusiak berrikiago onartutako A/RES/60/288 ebazpena, honela baitio: eta, berriro ere, *erarik sendoenean gaitzesten da terrorismoa, ageri den eran ageri dela, eta edozein izanik ere haren erabiltzailea, lekua eta helburua*, [...]. Testu horiek ikusteko: <http://www.un.org/terrorism/res.htm>.

³ Ikus: Schmid, A. P., *Political Terrorism: A New Guide to Actors, Authors, Concepts, Data Bases, Theories, and Literature*, New York: North-Holland Publishing Co., 1988 [1983]. Ikus, halaber, http://www.askasia.org/teachers/Instructional_Resources/FEATURES/AmericasCrisis/BG1/whatisterrorism.htm, proposatutako definizioen bilketa egiteko.

⁴ Ikus, adibidez, Nazio Batuen Batzar Nagusiaren A/RES/51/210 ebazpena, *Nazioarteko Terrorismoa Ezabatzeke Neurriak*. Ebazpenaren testua hemen dago: <http://www.un.org/terrorism/res.htm>, gaiari dagokion ebazpen zerrenda batekin.

⁵ Nazioartean onartzeko moduko definizio bat iristeko lehen ahalegina Nazioen Ligaren pean egin zen, baina 1937an idatzitako konbentzio-zirriborroa sekula ez zen indarrean sartu. Zirriborroaren arabera, «estatu baten aurka zuzendutako eta pertsona jakin batzuei, pertsona talde bati edo herritar guztiei izua eragiteko egindako ekintza kriminal guztiak ziren terrorismo».

⁶ Ebazpenaren testua hemen dago: <http://daccessdds.un.org/doc/UNDOC/GEN/N01/557/43/PDF/N0155743.pdf>. Terrorismoarekin lotutako Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren ebazpenen zerrenda oso bat ikusteko: <http://www.un.org/terrorism/sc.htm>.

⁷ Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1373 ebazpena (2001). Ikus, adibidez, 1. paragrafo operatiboa, (a) eta (b), zehazki ekintza terroristak finantzatzeko delituaz ari dena, eta orokorkiagoko berriz, 2. paragrafo operatiboa, (a), (b) eta (c), egileak auzipetzeari dagokiona.

⁸ Ikus: 2001/931/CFSP, Official Journal (OJ) L 57, 27.2.2001.

⁹ Ikus: 2002/475/JHA, OJ L 164, 22.06.2002.

¹⁰ Konbentzioaren testua hemen dago: http://www.oic-oci.org/english/conventions/terrorism_convention.htm.

¹¹ Konbentzioak ondoko zerrenda dauka bere 1. artikuluan, 4. paragrafoan:

- a) «Hegazkinetan egindako Delituei eta beste Ekintza Batzuei» buruzko Konbentzioa (Tokio, 1963-9-14).
- b) «Hegazkinen Legez Kanpoko Bahikuntzak Ezabatzeari» buruzko Konbentzioa (Haga, 1970-12-16).
- c) «Hegazkintza Zibileko Segurtasunaren aurkako Legez Kanpoko Ekintzak Ezabatzeari» buruzko Konbentzioa, Montrealen 1971-9-23an sinatua, eta haren Protokoloa (Montreal, 1984-12-10).
- d) «Nazioarteko Immunitatea duten Pertsonen, Agente Diplomatikoak Barne, aurkako Delituak Eragozteari eta Zigortzeari» buruzko Konbentzioa (New York, 1973-12-14).

- e) Bahituak Hartzearen aurkako Nazioarteko Konbentzioa (New York, 1979).
- f) Itsasoko Legeari buruzko Nazio Batuen Konbentzioa (1982) eta harekin lotutako itsasoko pirateriari buruzko xedapenak.
- g) «Material Nuklearraren Babes Fisikoari» buruzko Konbentzioa (Viena, 1979).
- h) Nazioarteko Hegazkintza Zibila zerbitzatzen duten Aireportuetan Legez Kanpoko Indarkeria Ekintzak Ezabatzeko Protokoloa, Hegazkintza Zibilaren Segurtasunaren Aurkako Legez Kanpoko Ekintzak Ezabatzeko Konbentzioaren osagarria (Montreal, 1988).
- i) Zapalda Kontinentalean Ezarritako Plataformen Segurtasunaren aurkako Legez Kanpoko Ekintzak Ezabatzeko Protokoloa (Erroma, 1988).
- j) Itsas Nabigazioaren Segurtasunaren aurkako Legez Kanpoko Ekintzak Ezabatzeko Konbentzioa (Erroma, 1988).
- k) Bomba Eraso Terroristak Ezabatzeko Nazioarteko Konbentzioa (New York, 1997).
- l) Detektatzeko xedez Lehergai Plastikoak Markatzeko Konbentzioa (Montreal, 1991).

¹² 2. artikulua, a.

¹³ 3. artikulua, 1.

¹⁴ Terrorismoaren aurka Borrokatzeko Estatu Independenteen Komunitateko Estatu arteko Lan-kidetzari buruzko Ituna Minsken sinatu zen 1999ko ekainaren 4an, eta EIKen Idazkaritzan gorde zen. Itunaren testua hemen eskura daiteke: http://untreaty.un.org/English/Terrorism/csi_e.pdf.

¹⁵ 2. artikulua.

220

¹⁶ Ikus: AG/RES. 1840 (XXXII-O/02), 2002ko ekainaren 3a. Konbentzioaren testua hemen eskura daiteke: <http://www.oas.org/juridico/english/treaties/a-66.htm>, eta izenpean eta berrespenen egoera, berriz: <http://www.oas.org/juridico/english/sigs/a-66.html>.

¹⁷ 3. art.

¹⁸ ELAHERen Terrorismoa Ezabatzeko Eskualde Konbentzioa Katmandun sinatu zen 1987ko azaroaren 4an, eta ELAHERen Idazkaritzan dago gordeta. Testua hemen eskura daiteke: <http://untreaty.un.org/English/Terrorism/Conv18.pdf>.

¹⁹ Ikus, adibidez: Benitez, Rafael A., *Evolución normativa en la lucha contra el terrorismo en Europa: parámetros de una transformación* in *Revista electrónica de relaciones internacionales, e-boletín nº 1 de la Fundación para las Relaciones Internacionales y el Diálogo Exterior (FRIDE)*, 2004ko urria. Testua ikusteko: <http://www.fride.org/Publications/publication.aspx?item=612>.

²⁰ Konbentzioari buruzko informazioa (testua barne), azalpen-txostena eta izenpean eta berrespenen egoera hemen ikus daitezke: <http://conventions.coe.int/Treaty/en/Treaties/Html/090.htm>.

²¹ Ikus: Benitez, Rafael A. *Un nuevo convenio anti-terrorista para Europa* in *Revista Electrónica de Estudios Internacionales*, nº 7/2003; artikulua testua hemen eskura daiteke: <http://www.reei.org/reei7/articulos7.htm>.

²² Zuzenketa Protokoloari buruzko informazioa (testua barne), azalpen-txostena eta izenpean eta berrespenen egoera hemen ikus daitezke: <http://conventions.coe.int/Treaty/en/Treaties/Html/190.htm>.

²³ Konbentzioari buruzko informazioa, testua barne, azalpen-txostena eta izenpean eta berrespenen egoera hemen ikus daitezke: <http://conventions.coe.int/Treaty/en/Treaties/Html/196.htm>.

²⁴ Delituaren definizioan erabilitako termino batzuen esanahia Konbentzioaren azalpen-txostenean ematen da. Txosten horren arabera, «banatzea» terminoak terrorismoaren aldeko mezu bat era aktiboan zabaltzea esan nahi du, eta «helaraztea» terminoak, berriz, mezu bat publikoak erraz jasotzeko eran eskaintzea, adibidez Interneten ipinita edota hiperestekak sortuta nahiz bilduta, hartara errazago heletzea errazteko. Areago, «publikoari» terminoak garbi uzten du komunikazio pribatuak xedapenaren eremutik kanpo gelditzen direla. Azalpen-txostenak, gainera, ondokoa dio: «Mezu bat publikoari helarazteko, bitarteko eta teknika desberdinak erabil daitezke. Adibidez, argitalpen inprimatuak edo beste pertsona batzuk sar daitezkeen lekuetan emandako hitzaldiak, komunikabideak edo baliabide elektronikoak erabilia, bereziki Internet, horri esker e-mailez zabal baitaitezke mezuak, edo materialak eman eta jaso baitaitezke berriketa-geletan, berri-taldeetan nahiz foroetan».

²⁵ 5. art.

²⁶ 8. art.

²⁷ Ikus, adibidez, GEEAk *Lingens versus Austria* kasuan 1986ko uztailaren 8an ebatzi zuena, HUDOC REF 000000108.

²⁸ GEEAren 10. artikuluan, 2. paragrafoan ezartzen dira adierazpen askatasunaren erabilera mugatzeko edo ukitzeko GEEArentzat onargarri diren baldintzak, eta GEEAren 15. artikuluan, berriz, larrialdietako balizko indargabetzeak aipatzen dira. GEEAren jurisprudentzia egokien bilduma bat eskuratzeko, ikus CODEXTER (2004)19 agiria. Hemen eskura daiteke: www.coe.int/gmt.

²⁹ Ikus 1965eko abenduaren 21eko Arraza Diskriminazio Forma Oro Ezabatzeari buruzko Konbentzioaren 9. artikulua, 2. paragrafoa.

³⁰ Ikus GEEAk *Hogefeld versus Alemania* kasuan 2000ko urtarrilaren 20an ebatzi zuena, HUDOC REF 00005340.

³¹ Ikus 3. artikulua. Konbentzioaren testua hemen aurki daiteke: <http://conventions.coe.int/Treaty/EN/Treaties/HTML/189.htm>.

³² Eta Europako Kontseiluko Giza Eskubideetarako Batzordeburuak babestu zuen, besteak beste, Konbentzioaren zirriborroaz idatzitako Iritzian (Ikus: document BcommDH (2005) 1, paragraph 30 in fine). Batzordeburuak iradoki zuen xedapen horrek ondokoak estal zitzakeela: «eraso baten egilea goresten duten mezuak zabaltzea, biktimak iraintzea, erakunde terroristak finantzatzeko deiak eta antzeko beste jokabide batzuk», eta horiek guztiak indarkeria terroristarako zeharkako probokazioak izango ziren.

³³ Ikus, adibidez, Espainian, Kode Penaleko 578. artikulua, 10/1995 Lege Organikoa, abenduaren 23koa, Estatuko Aldizkari Ofiziala (EAO), 281. zk. 1995eko azaroaren 24, eta 54. zk., 1996ko martxoaren 2; eta Frantzian, 1981eko uztailaren 29ko Legearen 24. art., 4. parag. eta, horrekin lotuta, Kode Penaleko 421. art., 1-422 parag., 7. parag. Ikus, halaber, «Terrorismoaren apologia» eta «Terrorismora bultzatzea» ISBN 92-871-5468-6, Europako Kontseiluaren Argitalpenak, 2004, Europako Kontseiluko estatu kideetako eta estatu behatzaileetako egoeraren ikerketa.

³⁴ Ikus, adibidez, Erresuma Batuko berritasunak, Terrorismoaren Legearen aurreproiektua, 1. partea. Terrorismo delituak, terrorismoa bultzatzea etab., eta horrek bi delitu berri aurreikusten ditu: «Terrorismoa bultzatzea» eta «Argitalpen terroristak zabaltzea» (ikus Terrorismoaren Legea, Komunen Ganberak Batzordean zuzendua, 2005eko azaroaren 3an inprimatuko dena ondoko helbidean, <http://www.publications.parliament.uk/pa/cm200506/cmbills/077/2006077.htm>, 2005/11/04tik aurrera.

³⁵ Ebazpenak «modurik sendoenean gaitzesten du ekintza terroristetara bultzatzea, eta arbuia eginen ditu ekintza terrorista gehiago ekar ditzaketen ekintza terroristen justifikazioa eta gorespena», eta «kezka handia» adierazten du «zeren estremismoak eta intolerantziak dakarten terrorismorako bultzada arrisku serio eta gero eta handiagoa baita giza eskubideen gozamenarako, mehatxu handia Estatu guztien garapen sozial eta ekonomikorako, ahulgaria munduaren egonkortasunarentzat eta ekonomia-erentzat, eta berehala eta modu proaktiboan erantzun behar baitiote Nazio Batuen Erakundeak eta Estatu guztiek, eta azpimarratzen du, halaber, beharrezko eta egoki diren neurri guztiak hartu behar direla, nazioarteko legeriarekin bat, herri mailan nahiz nazioarte mailan, bizitzeko eskubidea babesteko». Bere 1. paragrafo operatiboan, Ebazpenak «eskatzen die Estatu guztiei onar ditzatela beharrezko eta egoki diren neurri guztiak, nazioarteko legeriaren pean dituzten betebeharren arabera, eta egin ditzatela ondoko urratsak: (a) Legez kanpoko bihurtu ekintza terrorista(k) egitera bultzatzea; (b) Horrelako jokabidea eragotzi; [...]».

³⁶ Terrorismoaren aurkako konbentzio unibertsalen (nazioartekoak) zerrenda osoa eta haien testuak hemen daude: <http://untreaty.un.org/English/Terrorism.asp>.

³⁷ Bonba Eraso Konbentzioko eta Finantzaketa Konbentzioko 2. art., 2. parag. eta 2. art., 4. parag., hurrenez hurren.

³⁸ 2. art., 3. parag. eta 2. art., 5. parag., hurrenez hurren. Nabardura txiki bat bereizi behar da, ordea, bi Konbentzioen artean, zeren Bonba Eraso Konbentzioak «beste edozein eratan laguntzea» baitio (2. art., 3. parag. (c)), eta hitz horiek ez baitira ageri Finantzaketa Konbentzioan (2. art., 5. parag. (c)).

³⁹ 2. art.

⁴⁰ Bonba Eraso Terroristak Ezabatzeko Nazioarteko Konbentzioa (New York, 1997), 1. art.

⁴¹ Bonba Eraso Konbentzioak «nahita» esapidea darabil.

⁴² Txosten honetan lehenago askotan aipatu ditugun terrorismoaren aurkako nazioarteko konbentzioak dira horiek. Halere, Konbentzioak ezartzen du 2. paragrafoan, artikuluan berean, Itungileek kanpo utz dezaketela eranskineko edozein itun, baldin eta berak horren Itungile ez badira edo izateari uzten badiote. Halaber, kontuan hartzekoa da Europako Kontseiluaren eta Amerikar Estatuaren Erakundearen konbentzioetan erabilitako sistema bera erabiltzen dela, txosten honetan lehenago adierazi den bezala.

⁴³ 2. art.

⁴⁴ Egungo zirriborroa hasieran Indiak aurkeztutako proposamenean (A/C.6/51/6) oinarrituta garatu da. Zirriborroa txandaka eztabaidatzen da bi hauetan: (a) 1996ko abenduaren 17ko Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 51/210 ebazpenaz sortu zen Berariazko Batzordean, zeina hainbestean behin bildu baita bi urtean, eta (b) Seigarren Batzordeko Lan Taldean, zeina orain arte era erregularrean berrezarri baitute Batzar Nagusiaren udazkeneko saioetan. Berariazko Batzordearen azken bilera New Yorken egin zen, 2006ko otsailaren 26tik martxoaren 3ra.

⁴⁵ Ikus 2. artikuluan zirriborroa eta A/60/37 agiria, IIIA eranskina.

⁴⁶ Ikus 2. art. bis-aren zirriborroa.

⁴⁷ Puntu honetan, aipa dezagun ideia bat azaldu zela gaiari buruz konpromiso bat iristeko, hots, Konbentzioari atariko paragrafo berri bat eranstea, herrien autodeterminazio eskubidea berretsi duten itun mordera gogorarazteko.


⁴⁸ Ikus gorago aipatutako 18. artikulua 2. paragrafoa.

⁴⁹ Horri dagokionez, ohartarazi behar da 1947ko Genevako Konbentzioari egindako 1977ko I. Protokolo Gehigarriak «aldeak» terminoa darabilela.

⁵⁰ Ikus gorago aipatutako 18. artikulua 3. paragrafoa.

⁵¹ Horri dagokionez, argitu behar da Berariazko Batzordea ez zela gai izan konbentzio globalaren zirriborroa amaitzeko bere azken saioan, eta ez zuela egin inolako gomendio espliziturik bere txostenean Seigarren Batzordeko Lan Taldea berrezar zezaten Batzar Nagusiaren 61. bilkuran. Horrek nahitaez galdera bat piztuko du, hau da, ea nola kokatu behar ote den konbentzio globalaren zirriborroa Seigarren Batzordeko eztabaidaren erdian.

⁵² Eta, nahiko interesgarria, proposatutako definizioa guk lehenago ikusi dugun EBren definizioaren antz-antzekoa da.




«Desberdintasuna» nola bideratu nazio-eraikuntzan Hegoafrikako EABaren politikari buruzko ondoriak

CHARLES VILLA-VICENCIO JN.

*Hegoafrikako Justizia eta Adiskidetze Institutuko
Zuzendari Exekutiboa, Cape Town-en, Hegoafrikan*

Charles Villa-Vicencio doktorea Lurmutur Hirian egoitza duen Justizia eta Berradiskidetzeko Institutuko zuzendari exekutiboa da. Aurretik, Egia eta Berradiskidetzeko Batzordeko ikerketa-zuzendari nazionala izan zen. Kargu horretan zegoela, batzordeak Mandela presidenteari 1998an eman zion bost liburukiz osatutako txostenaren ardura-duna izan zen.

Ohiko solaskidea da Hegoafrikako eztabaida sozialean, eta justizian oinarritutako trantsizio eta eraldaketa soziala sustatzea da gaur egun bere egiteko nagusia. Lankidetzaren estuan aritzen da Hegoafrikako eta Afrikako beste hainbat herrialdeetako unibertsitateekin, ikerketa-institutuekin eta sektore pribatuarekin.



CURRICULUMA

Honako liburu hauek argitaratu ditu: *The Spirit of Freedom: South African Leaders on Religion and Politics*; *Looking Back, Reaching Forward: Reflections on the Truth and Reconciliation Commission in South Africa*; *Pieces of the Puzzle: Notes on Reconciliation and Transitional Justice*; and *Building Nations: Transition in the African Great Lakes Countries*.

LABURPENA

Hegoafrikako Egia eta Adiskidetzeko Batzordearen (EAB) zereginak, besteak beste, «batasun nazionala eta adiskidetzera sustatu» eta apartheid-aren garaian izandako giza eskubideen urratzeen «arrazoiak, motak eta neurria» azaleratzea izan ziren.

Batzordea itxi zenetik, antzeko beste hamar batzorde eratu dira munduko beste hainbeste lekutan, haietatik sei Afrikan, eta beste bost lurraldetan ere halakoak sortzea aztertzen ari dira. Era berean, badira *gacaca* motako epaitegiak Ruandan eta izaera erritualeko ekimen formalak Kanbodian eta beste leku batzuetan. Ekimen horiek honako hau pentsarazten dute: gatazka politikoa luzeen, giza eskubideak haustearen eta indarkeriaren ondorioz zati-tutako lurraldeetan onartuta daukate, alde batetik, alternatiba bat bilatu behar zaiola inpunitateari, eta bestetik, bide politikoei lekua utzi behar zaiela, eta bitartean, eta aldi berean, indarkeriaren eta gatazka politikoaren arrazoiak azaleratzeko ahaleginak egin behar direla.

Hegoafrikako EABk, sarri askotan, onarpen handiagoa lortu izan du munduko gainerako lekuetan bere lurraldean baino. 1994ko trantsizio demokratikoaz geroztik eraikuntza nazionala bultzatzeko izan diren ekimenen inguruko ikuspegi orokorra emango du saiakera honek. Halaber, lurralde hartan oraindik gairatu beharreko erronken berri emango du, arraza, etnia eta klasearen alorreko faktoreak barne hartuta.

226

Horrez gain, munduko beste lurralde batzuetan ere gizartearen kohesioa hausten dutenak sarritan antzeko faktoreak izaten direla erakutsiko du saiakerak, eta agerian utziko du gatazka gehientsuenak nazio-estatuaren barneko komunitateen artean gertatzen direla, eta ez nazio-estatuaren artean. Gatazka horietatik gehienak, neurri batean behintzat, etnia, kultura edo erlijio ezberdinetako kolektiboak elkarrekin bakean bizitzeko ezintasunaren ondorioz sortzen dira. Era berean, etnia, kultura eta erlijioari lotutako gatazkekin batera, ia beti, diskriminazioak edo bazterketa sozialak eta ekonomikoak gertatzen direla ohartaraziko du. Gizabanako edo talde batzuk esparru politikotik eta haren onura materialetatik baztertuta sentitzen direnean, identitatekin zerikusia duten faktoreak erabiltzen dituzte euren aldarrikapen politikoak eta materialak legitimatzeko.

Saiakerak zenbait bide erakutsi nahi dizkie estatuei, beraien mugen barruan bizi diren herrien arteko ezberdintasunak bideratzeko. Erronka horren funtsezko alderdia ezberdintasunak onartu eta errespetatzea da, batasun nazionalaren garrantzia indartzen den bitartean.

«Desberdintasuna» nola bideratu nazio-eraikuntzan Hegoafrikako EABaren politikari buruzko ondoriak*

Munduak txundituta jarraitzen du Hegoafrikako trantsizioarekin. Izan ere, Egiaren eta Adiskidetzearen aldeko Hegoafrikako Batzordearen (EAB) lana erabat funtsezkoa izan da prozesu horretan. Barne-zatiketak edo -gatazkak dituzten nazioei bereziki harrigarria iruditzen zaie gaia, kontuan hartu behar baita hegoafrikarren arteko zatiketa aspaldikoa dela, 300 urteko kolonialismoaren eta erregimenak 50 urtetan sustatutako apartheid-politikaren ondorioz. Eta hala ere, 80ko hamarkadan, pizteko zorian zegoen gatazka odoltsua saihestea lortu zuten.

EABak Hegoafrikaren alde zer egin zuen galdetzen didate maiz. Beharbada, batzordearen lorpenik garrantzitsuena honako hau da: iraganean giza eskubideen alorrean egindako urraketak jaso izana, aurrerantzean ez zuriak ez beltzek ukatu ez ditzaten, ezjakintasunean oinarritutako aitzakiak erabiliz. Batzordearen lanak komunikabideetan lortutako oihartzunari eta hegoafrikar gizartearen zeharkako atal batekin izandako elkarreragin-harremani esker, iraganeko arazoei eta aurre egiteko moduei buruzko eztabaida publikoa sortu zen. Gutako bakoitzak, jakina, bere iritzia zuen berradiskidetzeko modurik egokienari buruz, baina behintzat, arazoak argi azaltzen eta konponbideak bilatzen saiatu ginen.

Gatazkaren unerik larrienean, hegoafrikarrek txantxak egiten zituzten bi aukera zeudela esanez: konponbide errealista aurkitzea edo miraria gertatzea. Horra zein zen konponbide errealista: belauniko ezarri eta Jaunari aingeruak gatazka konpontzera bidaltzeko eskatzea. Miraria, berriz, hauxe zen: etsai amorratuak mahai beraren inguruan esertzea hitz egiteko. Bigarren bidea hautatu genuen, eta EABaren zeregina funtsezkoa izan zen guztiz.

227

Ondoren, alderdi hauek jorratuko ditut:

1. Zer lortu dezaketen eta zer ez EABek nazioarteko zuzenbidearen eremuan.
2. Zein ziren Hegoafrikako EABaren mugak trantsizio-mekanismo gisa.
3. Nola ari den bideratzen «desberdintasunaren» gaia Hegoafrikan. Era berean, munduko estatu modernoek erronkei buruzko azterlan batez hitz egingo dut.

Egiaren aldeko Batzordeak¹

Nazioarteko Zuzenbidearen alorrean gehien aipatu ohi den trantsizio-mekanismoa Hegoafrikako EABA da, batzordearen legitimitatea dela eta. Nazioarteko Auzitegi Penalaren (NAP) salaketa-aginduaren eta Hegoafrikako EABak emandako amnistiaren arteko lotura aztertu ondoren, honako ondorio hauek ateratu zituen Nazio Batuetako Idazkari Nagusiak:

Estatutuko klausulak [Auzitegiari esku hartzeko eskubidea ematen diona, estatuak bere eskumenaz baliatzeko «gogorik edo gaitasunik» ez badu] helburu jakin bat du: hilketa masiboen arduradunei eta bestelako kriminaletan beraiek eta beraien laguntzaileek zuzendutako Estatuaren babesaz baliatzen ez uztea, batetik, eta lege eta ordenaren esparruan nagusitutako krisi orokorraz

aprobetxatzeko aukera oro eragozte, bestetik. Inork ez zuen uste klausula hori Hegoafrikan aplikatuko zutenik, krimenen iturburu izandako erregimena eta gatazka bukatuta baitzeuden, eta boterea biktimen esku. Beraz, ez zuen inolako zentzurik Auzitegiaren jarraibideei erreparatzea; aitzitik, iragan traumatikoa gailentzeko eta etorkizun hobea lortzeko modurik egokiena bi-latzen ari zen nazio oso baten irizpideak izan behar zuen jaun eta jabe².

EABek baldintza batzuk bete behar dituzte nazioartean legitimitatea lortzeko:

Hiritar gehienek kasuan kasuko EABa trantsizioan justizia bermatzeko mekanismotzat hartzen dutela egiaztatzea, froga garbien bidez.

Giza eskubideen urraketarik larrienei buruzko egia osoa ezagutzera ematea.

Giza eskubideak urratu dituztenak erantzukizunak ordaintzera behartzea. Dena den, ordaintzeko moduak beti ez du zertan izan estatuak ezarritako zigor-epaia.

Amnistiaren xedapen baten ondorioz edozein biktimaren eskubideak murriztuta geratzen badira, egoera hori orekatzeko bideak bilatzea.

Trantsizio-aldietan prozesu judizialak bertan behera geratzen dira batzuetan, baina horrek ez du esan nahi nazioarteko zuzenbidearen beste eskakizun batzuk betetzeari uzten zaionik. Alderdi hori jakinaraztea batzordeen zeregina da.

Biktimei eta bizirik ateratakoei zuzendutako topagunea sortzea, elkarren esperientziak ezagutzeko eta krimenen egileei galderak egiteko aukera izan dezaten.

EABak lanean diharduen bitartean edo bere zereginak bukatutakoan, prozesuan zuzen parte hartu ez duten kriminalen kontrako prozesu judizialak abian jarri daitezkeela kontuan hartzea.

Nazioartean legitimitatea lortzeko gutxieneko baldintzak betetzeaz gain, EABen sorreran eta funtzionamenduan gardentasunak izan behar du nagusi, legitimitate demokratikoa aitortu diezaieten. *Nazioan* legitimitatea lortzeko, aldiz, nahitaezkoa izaten da EABen sorkuntzan eta komunikabideetan ezagutzera emateko urratsetan hiritarrek parte hartzea.

228

EABen mugak

Trantsizio mekanismoek neurritz kanpoko itxaropenak baldin badituzte, litekeena da lorpen txikiak, beharrezkoak izan arren, kontuan ez hartzea. Izan ere, «Batasun nazionala eta adiskidetzeari *sustatzeko legea*» [hitz hori neuk nabarmendu dut] izenburua aukeratu zuten Hegoafrikako EABaren legediarentzat, eta ez «Batasun nazionala eta adiskidetzeari *lortzeko legea*». EABak ez dira trantsizioetako aldaketen panazeak, prozesu askoz ere konplexuagoen atalak baizik, luzaroan ekinean jardungo duten erakunde, ekimen eta erreforma ugari bideratu behar izaten baitira. Beraz, argi dago lorpen batzuk ezinezkoak direla EABentzat:

Egindako krimenen pareko zigorra ezartzea.

Kriminalak damutu eta gizarteratu egingo direla bermatzea.

Biktimak kriminalekin adiskidetu egingo direla edo barkatu egingo dietela bermatzea.

Iraganeko zapalkuntzaren alderdi guztiak orokorrean hartzea.

Sarraskien egia osoa ezagutzera edo ikerlanetako galdera guztiei erantzutea.

Biktima *guztien* esperientziak entzutea.

Biktima guztiek prozesua bukatutzat hartuko dutela bermatzea.

Berregituratzeko eta kalteak ordaintzeko bide egokiak eskaintzea.

Erregimenaren onuradunen eta zapalduen arteko desoreka zuzentzea.

Amnistiekin edo ezagututako «egiaren» ezaugarri edo kopuruarekin ados ez daudenak zigor handiagoak edo mendekua eskatzen ez direla hasiko ziurtatzea.

EABen helburu errealistak

EABek aipatutako helburuak lortzerik ez duten arren, lortzen lagundu dezakete, ez-bairik gabe. Horra zer egin dezaketen:

- Iraganean gertatutako giza eskubideen urraketarik larrienak ezagutzera eman.
- Urraketak ukatzen dituztenei aurre egin eta giza sufrimenduaren jatorria eta hedadura ofizialki jakinarazi.
- Era guztietako esperientziak kontuan hartuko dituen oroimen komuna osatzeko oinarriak finkatu.
- Erantzukizunean oinarritutako kultura sortzen lagundu.
- Eremu segurua sortu, biktimek beraien sentimendu eta emozioak azaldu eta elkarren esperientziak ezagutu ditzaten, auzitegietan eskatzen diren frogak eta prozedurak alde batera utziz.
- Komunitate, erakunde eta sistemei buruzko azterketa morala burutu.
- Iraganeko sarraskien arrazoiak, iturburuak eta ikuspegiak argitzen lagundu.
- Oroitzeko eta kalteak konpontzeko era sinboliko adierazgarriak eskaini.
- Adiskidetze-prozesuak abian jarri eta sustatu, benetan aplikatzeko denbora eta borondate politikoa behar direla onartuz.
- Tokian tokiko herrialdeko gatazkaren oinarritzko arazoez hitz egiteko eremu publikoa sortu.
- Justizia eta gizarte-berreraikuntza suspergarriak sustatzeko moduak bilatu.

Oreka zaila

Bake-prozesuetan, justizia konpontzailea lortzeko nahiak eraginda egin ohi da EABen aldeko apustua. Aipatutako batzordeek biktimen eta bizirik ateratakoen alde egin behar dute, eta krimenen egileek prozesuan parte hartuko dutela bermatu. Beraz, konponketa bideragarriei buruzko akordioak lortzeari eman behar zaio lehentasuna, biktimen giza duintasuna eta ongizate materiala sustatzeko. Halaber, sortzen ari den erregimen berrian partaidetza politiko, ekonomiko, kultural eta espirituala izateko aukera eman behar diete biktimei. Ildo horretan, ez da nahikoa biktima guztientzat kalte-ordain ekonomiko jakin bat finkatzea. Aitzitik, nahitaezkoa da trantsizioari ekin aurreko estatu bidegabearen oinarritzko balioak errotik eraldatzea. Konponbide eraginkorren ezaugarriak hauek dira: bake iraunkorra, hazkunde ekonomikoa eta egonkortasun politikoa.

Egiaren aldeko batzordeekin ados daudenen eta ez daudenen arteko eztabaidak puripurian dirau. Giza eskubideen urraketa larrien biktimen asmoa beti ez da izaten auzibideetara jotzea, eta askotan ez da egoten argi zer konponbide nahi duten benetan. Amnistia-aren, gizarte-egonkortasunaren eta legearen arteko kausazko loturak ilunak dira. Ez da erraza jardunbiderik egokiena zein den jakitea: giza eskubideak urratu dituztenak ekintza judizialetatik babestuz gero, litekeena da epe luzerako gizarte-egonkortasunaren oinarriak finkatzea, edo aitzitik, etorkizunean berriz auzitegietara jo nahi izatea eta egonkortasun hori kolokan geratzea. Argentinan eta Txilen duela gutxi izandako esperientziek agerian utzi dute erantzukizuna kontuan hartzea behar-beharrezkoa dela, geroago arazorik ez sortzeko. Bestalde, ekintza legalak abian jartzearen ondorioen inguruan ere zalantza da nagusi, ez baita egiaztatu benetan baliagarriak diren giza eskubideen urraketak murrizteko edo gobernu egokian eta legean oinarritutako prozesu irmoak bideratzeko.

Hegoafrikako EABaren mugak

Hegoafrikako EABA hiru batzordek osatzen zuten³:

Amnistia Batzordeak. Giza eskubideen urraketa handientzat, «hilketa, bahiketa, tortura edo tratu txar larrientzat», amnistiak emateko aukerak aztertzen zituen. Aparteko salbuespen jakin batzuk gorabehera, ikustaldiak jendaurrean egin zituzten, galdeketen bidez, EABaren legedian aurreikusitako baldintzekin bat⁴. Eskariak 7.116 ziren guztira, eta 1.167ri amnistia osoa eman zitzaien⁵.

Amnistia eskatu ez zutenen eta ukatu zitzaienen kontrako prozesu penalak hasteko aukera ere bazegoen. Hala ere, oso gutxi auzipetu dituzte, eta Agintari Fiskal Nazionalak hainbat jarraibide finkatu ditu orain dela gutxi, ekintzen egileen kontra jo aurretik kontuan hartu beharreko irizpideei dagokionez. Horrela: «interes publikoa», «biktimaren eta komunitatearen interesa», «ekintzen egilearen egoera» eta egia ezagutzeko emandako laguntza hartzen dira kontuan aipatutako irizpideetan. Askoren ustez, proposamen horrekin beste aurrerapauso bat eman da amnistia osorako bidean, argi eta garbi aitortu ez arren.

Giza Eskubideen Urraketa Larrietarako Batzordeak horrelako urraketak jasandakoen eta bizirik ateratakoen testigantzak entzun zituen. Horrela, 21.300 lagunek borondatezko deklarazioa egin zuten, eta horietatik 2.000 aukeratu zituzten giza eskubideen urraketan adibide eta frogatzat.

Konponketa eta Ordainketa Batzordeak konponbideetan oinarritutako politikak proposatzea zuen helburu, biktimek eta bizirik ateratakoek giza duintasuna berreskuratu zezaten. Hainbat eratako bestelako konponketez gain, biktima bakoitzari 17.029 eta 23.023 R bitartean ordaintzea proposatu zuen Batzordeak, 1998an Hegoafrikako etxeetan zituzten batez besteko sarrerak kontuan hartuta. Gobernuak beste erabaki bat hartu zuen, ordea: 30.000 R ematea, ordainketa bakar batean, biktima bakoitzari. 2003an gauzatu zuten erabakia. Baina biktima-talde askori neurri hori ez zitzaien nahikoa iruditu, eta ordainak eskatzen jarraitzen dute. Apartheid-erregimenaren biktimei honako neurri hau bururatu zitzaien, besteak beste: New Yorken *Alien Tort Statute* legea aplikatzea apartheidaren garaien Hegoafrikan negozioak egin zituzten enpresei. Hegoafrikako gobernu horren kontra dago.

EABaren agintaldia oso laburra izan zen, eta bere erabakien ondorioen mugak ere bai, noski, lehenago aipatutako arrazoiengatik, hau da, EABek helburu batzuk lortu ditzaketelako baina beste batzuk ez. Govan Mbeki, hegoafrikarren borrokaren burua eta Mbeki lehendakariaren aita, nirekin elkartu zen 2001ean, hil baino pixka bat lehenago, eta gaiak hitz egin genuen: nazio-erakuntzako prozesuan «zer daukagun eta nongoak garen» ikusi eta horretan oreka lortu behar dugula adierazi zidan. Hegoafrikako EABak behar hori egoki bideratu zuen galdetzen zion bere buruari. «Hegoafrikako trantsizioa ongi errotzeko, ekonomia egituratu egin behar da, nazioko aberastasunaren etekinak pobreen eta baztertuen eskuetara ere iristen hasi daitezen», zioen. «Jendeak, mundu guztiak, zuriak eta beltzak, sortzen ari den nazio berriaren partaide direla sentitzeko beharra dute. Norbaitek Hegoafrika berrian ez dutela ongi hartu edo etxean bezala ez dagoela sentitzen badu, kostatu egingo zaio guztien onerako lan egitea, eta litekeena da arazo politikoak ere sortzea», gaineratu zidan. Hegoafrikako EABak aspalditik tinko errotuta zeuden zatiketa sakonak beharbada ez zituela edo ezin izan zituela egoki bideratu pentsatu dezakezu. Izan ere, arraza, kultura, identitate, klase eta gizarte-privilegioetan oinarritutako zatiketak eragozpen handiak dira gizarte inklusiboak sortzeko. Zatiketa horiek, era berean, nazio-erakuntzako prozesuetan ekonomia eta identitate ere sartzea ezinbestekoa dela dakarkigute gogora.

Bestela esanda, justizian oinarritutako trantsizioari buruzko eztabaidan izandako mugak eta arduragabekeriak (bai Hegoafrikan bai munduko gainerako tokietan) arazo-iturri bihurtzen dira maiz, ikuspegi inklusiboa eta holistikoa baztertuz gero. Trantsizioari lotutako ekimenetan, askotan ohiko arazoei baino ez zaie erreparatzen: ekintza judizialak bideratzeko urratsak, Amnistia, konponketa eta horiekin zerikusia duten gainerako alderdiak bakarrik hartzen dira kontuan. Aipatutako alderdi guztiak garrantzitsuak dira, noski, baina arazo materialak ere ezin dira alde batera utzi: lurraren banaketa, gizarteko talde baztertuei boterea emateko oztopoak, ekonomia, nahiz egitura, desberdintasunak edo identitatean, hizkuntzan, etnien, arrazan zein era guztietako gizarte-pribilegioetan oinarritutako gorabehera kulturalak eta subjektiboak.

Adam Habib-ek kritika garrantzitsua egin du justizian oinarritutako trantsizio-eredu garaikideei buruz, edo zehatzago esanda, Hegoafrikako trantsizioan ekonomia berbanatzeko moduez. Bere ustez, gizarte eta ekonomia-arloko justiziaren ondorioak alde batera utziz edo murriztuz, negoziazioetan aurrerapauso handiak ematen dira maiz, eta erraztu egiten da autoritarismoaren mende egoteari utzi eta demokrazia ezartzen hasteko bidea. Bada, ordea, arrisku bat: epe luzearako demokrazia finkatzeko itxaropenak murriztea⁶. Justizia ekonomikoa adiskidetzeko politikoa lortzeko oinarri garrantzitsua dela uste du.

Erabat zatitutako gizarteetan bidegabekeria ekonomikoak ez konpontzeak ondorioak eragiten ditu, nola edo hala, politikaren alorrean. Zimbabwen, adibidez, hori gertatu da lurraren gaia ez zutelako egoki bideratu. Hegoafrikan ere hiritarren arteko akordioa arriskuan dago, negoziazio-prozesuan desberdintasun ekonomikoen gaiari ez zitzaizolako behar bezala heldu.

Orain dela gutxi, honako hau esan zidan enpresari batek: Hegoafrikan enplegua sortu eta delinkuentzia kontrolatu behar ditugula, eta kito, ez dugula beste ezer egin behar. «Ureztatu ezazue ekonomia», errepikatzen zidan, «eta adiskidetzera erraz-erraz ernalduko da». Iritziak iritzi, argi dago ekonomia hazteko, adiskidetzear gain, nahitaezkoa dela elkar errespetatzea, bestearen statusa edozein dela ere, eta jarrera hori gure eguneroko bizitzan tinko errotzea unean uneko arazoei aurre egiteko. Nazio-erakuntzako prozesuan, ororen gainetik, gizarteko talde guztiek jardun behar dute buru-belarri, eremu publiko berrian komunitate guztien partaidetza-bideak bermatu daitezzen. Gainera, komunitateen kultura eta identitateek nazioko balioetan islatu behar dute.

Aitorpen eta onarpen-behar horren ondorioz, oso lotura estua dago identitate-arazoen eta ekonomia-hazkunde eta -inklusioren artean. Horrela, Hegoafrikako akordio negoziatuan parte hartu zuten aldeek argi ikusi zuten hegoafrikar zuriei tokia eman behar zitzaizela administrazio politiko berrian, eta hori lortzeko modurik eraginkorrena ondokoa zela: nazioaren etorkizuna sortzeko interesetan partaide direla sentiaraztea. Bazekiten, halaber, funtsezkoa zela enpresari beltzak ere ekonomiaren ardatzetara erakartzea, Black Economic Empowerment (BEE) zelakoaren bidez. Baina bazegoen beste zeregin are garrantzitsuago bat: pobreek, nazioko aberastasunez gozatzen dutenen (zuri edo beltzen) pribilegioak urrutitik ikusten dituzten herritarrek, bete-betean sinestu behar zuten sortzen ari zen ekonomia berriak beraien beharrak eta nahiak asetuko zituela. Ildo horretan, Mbeki presidentearen hitzak ekarriko ditut gogora: «Oso korapilatsua da bi elementuon [eraldaketaren eta adiskidetzearen] arteko loturak bideratzea. Ez da matematikako eragiketa, artea baizik... Aldaketak kudeatzerakoan *status quo* delakoari orokorrean bere horretan eusten bazaio, pobreenak aurre egiten hasiko dira, eta akabo berradiskidetzera, bertan behera geratuko baita dena». Alderdi subjektiboa eta materiala txanponaren bi aurpegiak dira.

Bestela esanda, estatu barruko gatazkak bazterkeria etnikora eta indarkeria politikora mugatzeko ahalegina (eta ikuspegi positiboagoa hartuta, nazio inklusiboa sortzeko asmoa) erronka eta gonbidapena ditugu, aldi berean. *Erronka* (batik bat gobernu zapaltzaileen mende egondako herrialdeetan) honetan datza: talde jakin batzuei gizartearen abantailez gozatzeko aukerarik ematen ez dieten faktore ekonomikoak eta bestelakoak konponbide proaktiboak ematean, horien oinarrian arrazoi historikoak edo egiturazkoak daudela ere. *Gonbidapena*, aldiz, ondoko hau dugu: arraza, kultura eta identitate guztiak barne hartuko dituen gizartea eratzea.

W.E.B. du Bois-ek zioenez, hogeigarren mendeko arazo nagusia kolorea izan zen. Zuzen zebilen horretan. Eta hogeigarren mendeko arazo nagusia identitate etnikoa izango da ziur aski. Faktore horrek agerikoak ez diren zenbait ezaugarri, adibidez kolorea eta itxura, hartzen ditu bere baitan, eta beste hainbat ere bai: oroimena eta historia, hizkuntza eta kultura, munduaren ikuspegiak, ideologiak, erlijioak eta norbere buruari buruzko irudiak. Arazo horiei egin behar diegu aurre, hain zuten, Hegoafrikan EABaren zereginak burutu osteko garai honetan. Eta arazo berberak dituzte munduko beste herrialde batzuetan ere.

«Desberdintasunaren» erronka nazio-eraikuntzan

Munduko gatazka handi gehienak estatu nazionalen *barruan* bizi diren komunitateen artean sortzen dira, eta ez estatuen *artean*. Komunitate etniko, kultural eta erlijiosoen elkarrekin bakean bizitzerik ez dutelako sortzen dira aipatutako gatazkak, eta gabezia material motaren bat edota bazterkeria politikoa ere izaten dituzte ezaugarri. Politika-alorretik eta alor horretako abantailetatik kanpo daudela sentitzen duten gizabanako eta taldeek identitate-kontuei erreparratzen diete, beraien aldarrikapen politiko eta materialei legitimitatea emateko.

232

Erljioan edo identitate etnikoan oinarritutako arazoak dituzten komunitateak oso ugariak dira: besteak beste, Ipar Irlandako katoliko erromatarrak; Balkanetako serbiar, musulman eta kroaziarrak; Iran eta Irakeko kurduak; sikh herriak, Indiaren iparraldean eta Kaxmir eskualdean; Sri Lanka, Papua Mendebaldeko eta Aceheko indonesiar komunitateetako tamilak; tibetarrak eta, jakina, euskaldunak. Afrika osoan dituzte horrelako arazoak, ezin konta ahala herrialdeetan: Rwandan, Burundin, Kongoko Errepublika Demokratikoan, Laku Handien eskualdean, Sudanen eta Afrikako Adarreko, mendebaldeko eta hegoaldeko lurraldeetan. Adibide horiei guztiei baztertuta sentitzen diren herriak gehitu behar dizkiegu: pakistandarrak Britainia Handian, hispaniarrak AEBetan, aborigenak Australian, maoriak Zeelanda Berrian, inuitak Kanadan, frantses hiztunak Quebecen, eta khoisan eta afrikanerak Hegoafrikan. Bistakoa da, beraz, identitate-arazoek sekulako garrantzia dutela mundu osoko nazio-eraikuntzako prozesuetan.

Talde eta gutxiengo guztien eskubideak bermatzea helburu duten nazioarteko bitartekoei dagokienez, NBEko azpi-batzorde batek eman zuen lehen urratsa, 1954an. Urte hartan, Bazterkeriari aurrea hartzeko eta gutxiengoen eskubideak babesteko Azpi-batzordeak hainbat gomendio eman zituen, nazioartean ezaugarri bat egiaztatu ondoren: kultura jakin bat nagusi den tokietan etnien, erlijioan edo hizkuntzan oinarritutako arazoiengatik baztertuta dauden taldeak arrisku-iturri direla nazio eta eskualdeko egonkortasunarentzat. Beraz, nazio-eraikuntzako prozesuetan, bakea eta demokrazia ahultzeko gaitasuna duten guztiei sarbidea eman behar zaie, bidezko ordena berria kolokan jarri edo atzeratu ez dezaten, politika etniko zatitzailea sustatuz.

Bestela esanda, munduan gero eta argiago ikusten da berregituraketa-prozesuetan bazterkeriaren gaiari heltzen ez dioten nazioetan, nahiko kolokan geratzen dela dena. Ezaugarri hori

bereziki nabarmena izaten dela bazterkeria etniko eta kulturean oinarritutako erregimen zapaltzaileak izan dituzten tokietan. Oreka beharrezkoa da, ezbairik gabe, baina zaila da lortzea. Denak barne hartuko dituen kultura konpartitua hasiera-hasieratik finkatzen ez bada, lehengo ordenari eusteko aukera emango zaie talde disidenteei. Baina azkarregi ibiltzea ere ez da ona, ezinikusiak indartzeko eta ezegonkortasuna sortzeko arriskua baitago. Zatiketa historiko, kultural, erlijioso eta material handiak dauden tokietan estatu inklusiboak eratzea benetako erronka politikoa da demokrazia ezarri berrietan, eta akademikoek, politikariek eta segurtasun bila dabiltzan hiritarrek arreta handiz erreparatu beharko liokete. Talde disidenteen portaera asozial eta politikoki suntsitzailearen atzean dagoen meta-errealitate ontologiko sakon eta iraunkorrek zuzeneko lotura du horrekin guztiarekin. Legearen beso luzea ez da nahikoa, garrantzitsua izanagatik, ordena ezarri berrian beraien nortasuna kolokan ikusten dutenak kontrolatzeko edo partaide bihurtzeko.

Hainbat kulturatako biztanleak dituzten nazioetan (horrelakoak dira nazio moderno gehienak, edo ziur aski denak), aniztasun politikoaren erronka guztietan funtsezkoena da nazio-erakuntzako prozesuan. Talde nazionalen indibidualtasunak, antolamenduak eta energiak uztartu nahi dituzten buruzagi politikoek kolokan jartzen dute partaidetza demokratikoaren oinarritzko antolamendua⁷. Boterean dagoen gehiengoaren edo gutxiengoaren nazio –edo tribu– jatorriko berbera ez dutenak neutralizatzen edo baztertzen, xurgatzen edo kanporatzen saiatzen diren estatuak ez dute luzaroan irauten.

Jarrian, estatismo monolitikoaz, patriotismo nazionalaz eta kultur menderapenaz bestelako konponbide batzuk aipatuko ditut:

Liberalismoa

Egungo mundu moderno honetan, batzuen protesten arabera kontrakoa dirudien arren, liberalismoak jaun eta jabe izaten jarraitzen du nazio-erakuntzako prozesuetan. Eredu horrek, liberalismoak, guztiei ematen omen die parte hartzeko aukera, banakako giza eskubideetan oinarrituta. Baina ekar dezagun gogora Neville Alexander-ek Hegoafrikako egoerari buruz idatzitako hausnarketa bat: «epe luzerako, liberalismoa faxismoa baino arriskutsuagoa da zapaldutako biztanleen borrokarentzat⁸». Gainera, liberal guztiak ez direla zuriak eta liberalismoari lotutako kontzeptu garaikide guztiak ez direla liberalak aldarrikatu zuen.

Hitz batean, liberalismoaren arabera, banakako giza eskubideak errespetatzen diren tokietan ez da sortzen kultura-arazo larriarik. Liberalismoak ez die garrantzi handirik ematen hizkuntzari, erlijioari, kulturari eta funtsezko bestelako partaidetza-eremuei, hala nola, oroimen, etnia, arraza, gizarte-klase eta generoari. Ondorioz, arazo-iturri horiei (esate baterako arraza, genero eta klaseari) ez zaie aparteko garrantzirik ematen nazioetako politiketan, gizakiaren izatearen funtsezko ezaugarriak direla kontuan hartu gabe. Ideal liberalak desberdintasuna alde batera uzten duen inklusioa aldarrikatzen digu. Izan ere, askotan eta gizartearen mugetatik at daudenen ahotsa ez da aditzen, arrazoiz eta zentzuz mintzatzen diren bakarrak boterean daudenak direlakoan. Antjie Krog hegoafrikar poetak gogoeta egiten digu, bere jaioterriaren historia luzean talde baztertuen partaidetza lortzeko izandako borroka saminaren inguruan. Horra zer galdetzen dion bere buruari: «Zenbat denbora behar du/ahots batek/beste baten parera heltzeko⁹?». Politikan ezereztatuta, kulturen zokoratuta eta ekonomian baztertuta dauden ahotsak zenbat denbora beharko duten ere galdetu diezaiokegu geure buruari. Ahotsari ez diote jaramonik egiten, baina bitartean, «urruti, danbor-hotsen durundia ez da isiltzen», diosku Chinua Achebe Ghanako nobelagileak¹⁰.

Beste gorpuzkera eta identitate batzuetako kideei eremu publikoan parte hartzen uzteko prest daude liberalak. Izan ere, guztiei irekitako gizarte liberaletan barra-barra ikusten dira gona afrikarra, taubak, zapiak edo yarmulkeak. Baina liberalismoaren jarraitzaile sutsuek onartzen ez badute ere, horrelako gizarteetan hizkuntza, sinbolo, errito eta politiken kultur inposizioan oinarritutako gobernu-printzipioak gailentzen dira, eta beraz, ez dira hain libreak kulturaren ikuspegitik. Eta gero, aipatutako printzipioak kolokan ez jartzeko eskatzen zaie funtsezko desberdintasun horiek are gehiago nabarmentzen saiatzen direnei.

Eremu publikoan jaun eta jabe direnentzat oso erraza da beraien kulturaren eta tradizioen onura unibertsalak aldarrikatzea, hau da, gizaki guztientzat onak direla esatea, eta horrekin bat ez datozenen ikuspegia okerrekotzat hartzea. Beraz, aurrerago aipatutako ahotsak ez ezik, eremu publikotik at daudenenak ere entzun behar ditugu, gizartean baztertuta eta zokoratuta daudenenak eremu publikoaren mugak hobeto bereizten baitituzte, haien barruan eroso bizi direnek baino.

Kultura menderatzailearen ondorioz baztertuta daudenenak, eredu liberala oinarritzko desberdintasunak ezkutatzeke prest dagoela ikusita, aukera bakarra dute gizartean bizitzeko: kulturantzatasuna.

Kulturantzatasuna

Talde-desberdintasunak indartzeko aukera ematen zuen kulturantzatasun mota jakin batean oinarritu zen apartheid-erregimena. Oraindik ere, afrikanerren *boerestaat* politikak eta zulu nazionalismoak desberdinak izateko eskubidea aldarrikatzen dute, hainbat bide erabilita. Gizarte berean kultura eta talde etniko desberdinak baldin badaude, litekeena da barne-arazoak sortzea, elkarbizitza horretan konpromisoak lortzeko aukerak bilatzen ez badira behinik behin. Badakigu nolakoak diren giza izaera eta politika, eta argi dago identitate bakar bat nagusitzen den tokietan talde nazionalistak edo nartzisistak sortzeko arriskua dagoela.

Hegoafrikako testuinguruak agerian utzi duenez, kulturantzatasuna ez da identitate-anbiguitasunak egoki bideratzeko gai. Hegoafrikan ez dago talde homogeneorik: ez afrikanerak, ez khoisanak, ez griqua herria. Talde bakoitzean era guztietako jenda dago: pobreak, intelektualak, gizonezkoak, emakumezkoak, langileak eta zuzendaritza-lanetan dihardutenak. Hala ere, langile, zuzendari, emakume eta gazte horiek guztiek zeharkako hainbat ezaugarri komun dituzte, kasuan kasuko kultur- eta etnia-alderdiez gain.

Kulturek etengabe eboluzionatzen dute. Errealitate biziak dira, bati bat mugen inguruan kokatutako lurraldeetan, nahita edo nahigabe nahasten baitira. Hegoafrikako hainbat udalerri, adibidez Soweto, Mamelodi, Gugulethu eta Kwa-Mashu, horren adibide argiak ditugu. Hirigune horietara Eastern Cape, Venda, Kwa-Zulu Natal (landa-eremua) eta Qwa Qwa eskualdeetako jendea joaten da, eta bertako hiritarrekin eta beste talde etniko batzuetako jendearekin batera bizi behar izaten dute. Aipatutako hiriguneak, gainera, Kongo, Zimbabwe, Nigeria eta Malawiko etorkin legalen eta ilegalen bizilekuak dira. Ondorioz, aniztasuna dute ezaugarri: lehendik finkatutako edo enpresak sortzen hasitako ekintzaileak, banda antolatutak, lapurrak, jende izutua eta zerbaiten bila etorri berri den erdi-mailako klasea dituzte biztanleak. Sarritan, biztanleek afrikaans hizkuntza erabiltzen dute lanean, ingelesa seme-alabak eskolara eramaterakoan, tsotsi-taala aldaera *shebeen* izeneko taberna herrikoietan eta xhosa, venda edo zulu amarekin etxean. Kulturaren puristek oso gogoko dute ongi antolatutako kulturantzatasun jarraikorra, elkarren ondoan ilaran kokatutako kultura tradizionaler osatua, baina aipatu dugun guztiak gainditu egiten ditu ikuspegi zurrun horren mugak. Ustez, kulturantzatasunaren aldeko

konpromisoak kulturaren eboluzioa dakar berarekin. Gizakiak eta kulturak beste gizaki eta kulturekiko harremanen bidez hezten edo osatzen dira. Prozesu konplexuak dira, baina askatasun-eremuren bat eskaintzen dute, oso mugatua hala ere. Eremu horretan gertatzen dira gizarte-aldaketak eta ernaltzen dira identitate berriak.

Egoera bakoitzari konponbide jakin bat eman behar zaio. Espainia ez da Hegoafrika, eta Rwanda ez da Islandia. Dena den, edonon gaudela ere, identitateen integrazioari eta eboluzioari sarbiderik ematen ez dion kulturantzatasun-sentimenduak ez digu benetako konponbiderik eskainiko. Sentimendu horren atzean, ezkutuan, kultura bat beste bat menderatzen saiatzen da, hala ez aitortu arren.

Kulturantzatasunak bi alderdi ezartzen ditu aurrez aurre: batetik, «batasuna aniztasunaren *gainenetik*», liberalismoaren aldarrikapena alegia, eta bestetik «batasuna aniztasunaren *bidez*». Baina askotan, identitateen mugetatik harantzago heltzen diren ibilbideak arakatzea ahazten zaio. Eta txarrean, banaketa lauso baina irmo bati bere horretan eusteko trikimailua ere izan daiteke, Hegoafrikan gertatu zen bezala: identitate «bereiziak baina berdinak» deitu zioten egoera horri. Desberdintasunaren aldeko konpromisoa hartzea da kontua, kultur aldaketari eta integrazioari ere sarbidea emanez. Horixe da, izan ere, erronka.

Kulturak irekiz

Max Weberrek gogora dakarkigunez, kultura ez da bizkarrean daramagun eta nahi dugunean janzten eta erantzten dugun kapa arina¹¹. Kulturak alderdi ugari uztartzen ditu bere baitan: historia, oroimena, sinboloak, hizkuntzak eta bizitzeko, mugitzeko eta gu geu izateko tokiak. Frantz Fanon-en ustez, «herria sortzeko eta herri izaten jarraitzeko ekintza» da¹². Ildo horretan, ohiko guztia, eguneroko kontu arruntak, hartzen ditu kulturak. Arbasoengandik jasotzen dugu eta ondorengoei irakasten diegu. Eboluzionatu egiten du, harremanen eta elkarrizketaren bidez. Inposatu egiten da, eta aukera librea da.

Kontraesana badirudi ere, gure kultura babestuz eta defendatuz gero, ahuldu egingo dugu. Aitzitik, beste kulturekin harremanetan dagoela, lasai uzten badugu eta bere burua aurkitzeko aukera eman, bere onera itzuliko da. Hegoafrikan, afrikaans hizkuntza protekzionismoaren eta inposaketaren garai patriotikoan baino askoz ere indartsuagoa da gaur egun. Eta desberdina da, jakina, gainerako hizkuntzak bezala.

Desberdintasunari garrantzia ematea funtsezko oinarria da, hizkuntza eta kultura guztietako hegoafrikarrek bizitza publikoan parte hartu dezaten. Horrez gain, bermatu egin behar da talde batek ez dituela gainerakoak menderatuko edo eremu publikotik kanpo utziko, legez edo bestelako ekintzez baliatuta. Ondorioz, nazio-erakuntzako prozesuetako parte-hartzaileek bete-betean onartu behar dute honako ezaugarri hau: kulturak herritarrak askatzeko eta esnatzeko –Fanonen hitzetan, «herriaren sentimenduen otoitza sortzeko, eta horrela, ekinaren ekinez eratutako errealitate berriaren bozeramale bihurtzeko»¹³– afrikaner, xhosa eta zulu herriei, kurduei edo euskaldunei herri izaten eta beste talde etniko batzuekin harremanak edukitzen utzi behar zaie. Kulturak irekitzeko, nahitaezkoa da etorkizuna arakatzea, iragana babesten edo oraina indartzen saiatu gabe. Etorkizunak ekarri diezagukeenaren inguruko hausnarketa egin behar dugu, halabeharrez helduko dena saihesteko eginahalak egiten ibili beharrean.

Aztertu dezagun orain, une batez, zertan den Hegoafrikako politika garaikidea. Hainbat alderdi politikotako hegoafrikarrentzat onartezina zen arren, *New National Party* (NNP), afrikaans hizkuntzan hitz egiten duten afrikar askoren alderdia, eta *African National Congress* (ANC) elkartu zirenean, ANCeK (ordezkaritzarik handiena zuen) kultur

inklusioaren ondorioei aurre egin behar izan zien berriro, Hegoafrikako Konstituzioaren jasotakoari dagokionez. Horrela, ANCren gobernuan kide zuri gehiago egongo dira ziur-erarik, baina argi dago kultur inklusioari buruzko eztabaida indartu egingo dela. Aipatutako eztabaida intelektual gutxi batzuen kontua izaten da oro har, edo bestela, beraien burua baztertuta ikusten dutenek ematen diote hasiera. Hegoafrikan, aldiz, hainbat egituratan mamitzen da eztabaida: Konstituzioak aniztasuna aitortzen du, hamaika hizkuntza ofizialei status berbera ematen die eta legebiltzarrean alderdi minoritarioen ordezkartza bermatzen du. Ordezkaritza hori oso txikia da, ordea: boto nazionalen % 0,25. Nazio-erakuntzako prozesuan guztiei parte hartzeko aukera ematea da horren guztiaren helburua. Aipatutako egiturak egoki erabiliz eta ustiatuz, eremu publikoa irekia lortu beharko litzateke. Eta bere onerako, eremu horrek ez luke inolako bazterkeriarik onartu behar.

Asmoak asmo, hegoafrikarrek ez diote gaiari gogotik heldu. Utzikieriaz ari dira jokatzeko, sinbolo nazionalak, zenbait hiri- eta herri-izen eta monumentuak eta estatuak desagerrarazteko zuzeneko ekintzak abian jarri beharrean. Dena den, gai horietako batzuei dagoeneko heltzen hasi direla esan behar da. Hegoafrikara joaten direnak, baita Afrikako gainerako herrialdeetakoak ere, harri eta zur geratzen dira: Louis Botha boerren buruzagiaren estatua Lurmutur Hiriko lehendakaritza-eraikinaren sarreran dago oraindik, «Verwoerd» izeneko kaleak daude, eta apartheid-erregimeneko beste buruzagi batzuen omenezkoak ere bai, eta Pretoria hiriri oraindik ez diote Tswane izena ezarri. Horrek guztiak argi erakusten du Hegoafrikan oraindik ez ditugula iraganeko monumentu, estatua eta sinboloak hautsi. Beraz, hainbat alderdi aztertu behar ditugu: norantz jo behar dugun, eta zer egin behar dugun iragana gainditzeko eta inklusioan oinarritutako etorkizunaren oinarriak finkatzeko aukera emango digun ikuspegia geureganatu eta osatzeko. Horra zer adierazi zuen behin John Ruskin-ek: «Nazio handiek hiru eskuizkributan idazten dute autobiografia: ekintzen liburuan, hitzen liburuan eta artearen liburuan. Liburu horietako edozein ulertzeko beste biak irakurri behar dira, baina konfiantza gehien ematen diguna hirugarrena da¹⁴». Bere ustez, nazio batean une jakin batean eraikitako eraikin eta monumentuek beste ezerk baino hobeto islatzen dituzte garai horretako benetako balioak. Hori horrela bada, zein edo zer da egungo Hegoafrikar nazioa?

236

Kulturari buruzko ondorioak

Bukatzeko, kulturari lotutako sei iruzkin egin nahi nituzke: 1) «Kultura» hitza latinetik dator, *cultura* terminotik. Horra zein den jatorrizko esanahia: naturan nahita esku hartzeko prozesu konplexua, produktu hobea lortzeko asmoz egiten dena. 2) Geure kulturari jaiotzen eta hazten gara denok; hortxe egoten da gure zain. 3) Kultura guztiek beraien ibilbidea jorratzen dute, aldaketa-prozesuak izanez. 4) Kultur taldeak inoiz ez dira homogeenak: geu ere ez gara hurbileko senideen berdinak. 5) Kulturaz aldatzea ez da erraza inorentzat, denoi kostatzen zaigu urrats hori ematea. 6) Elkarrizketan eta elkar topaketan oinarritutako kultura bizi inklusiboa abentura askatzailea izan daiteke, eta beldurgarria.

Ezbairik gabe, Hegoafrikako biztanleok ez dugu erantzunik aurkitu denak barne hartuko dituen nazio-erakuntzako prozesua bideratzeko urratsentzat. Inklusioaren gaiari heltzeko beharra indartzera mugatu gara, besterik gabe. Mandela presidentek agintaldia bukatu eta gero adierazi zuenez, Hegoafrikako minoriak nazio-erakuntzako prozesutik kanpo uztearen ondorioa hondamendi nazionala izan daiteke. Agian, zatiketan oinarritutako iragana eta egungo aldaketa gatazkatsuak gainditu nahian dabiltzan herrialdeek gogoan izan beharko lituzkete Mandelaren hitzak.

Hitzaldiaren inguruko oharrak

* Villa-Vicencio doktorea *Institute for Justice and Reconciliation* (Justizia eta Adiskidetzeari sustatzeko Institutua) erakundeko Zuzendari Exekutiboa da. Erakundearen egoitza Lumutur Hirian dago, He-goafrikan.

¹ Ikusi hau ere: «Truth Commissions», en Charles Villa-Vicencio y Erik Doxtader, *Pieces of the Puzzle: Keywords on Reconciliation and Transitional Justice* (Lurmutur Hiria: Justizia eta Adiskidetzeari sustatzeko Institutua, 2004).

² Kofi Annan-ek Witwatersrand-eko Unibertsitateko graduazio-ekitaldi batean emandako hitzaldia (1998ko irailaren 1ean).

³ Nazio-batasuna eta adiskidetzeari sustatzeko Legea, 1995ko 34. a.

⁴ Legearen 20. atalean xedatzen denez, honako kasu eta baldintza hauetan emango da amnistia:

- a) Delitu bakoitzeko eskari bat egiten bada.
- b) Eskariak legeak finkatutako epean aurkezten badira.
- c) Amnistia lortu ahal izateko, egileek krimen guztiak aitortu beharko dituzte.
- d) Giza eskubideen urraketa larrietan, Amnistiarako bistak jendaurrean egingo dira, aparteko egoera berezietan izan ezik.
- e) Amnistia emateko, ezarrita dauden irizpide objektibo guztiak hartuko dira kontuan.
- f) Krimen doiolorrei ez zaie Amnistiarik emango, eta ez da Amnistia automatikorik onartuko.
- g) Amnistia eman zaienen izenak eta krimenei buruzko informazioa Aldizkari Ofizialean eta Batzordearen txostenean argitaratuko dira.
- h) Legean aurreikusitako amnistiari buruzko xedapenekin bat, kasuan kasuko delituen xehetasunak azaldu beharko dituzte eskatzaileek, eta errunduntasun-aitorpenzat hartuko da hori. Amnistia eskatzen ez dutenen edo ukatzen zaienen kontrako prozesu penalak hasteko aukera egongo da, epaileen ustez auzipetzeko adina arrazoi irmo baldin badaude.

5

Erabakia	Guztira
Amnistia	1.167
Amnistia gertakari batzuentzat, baina ez beste batzuentzat	139
Amnistia gertakari batzuentzat, eta eskaria erretiratu beste batzuentzat	6
Bista bukatu ondoren ukatutako amnistiak	362
Administrazio-bidetik ukatutako amnistiak	5.143
Erretiratutako Amnistia-eskariak	258
Eskari bikoitzak	40
Amnistia aplikagarria ez eta eskatzailea absolbitu	1
Guztira	7.116

⁶ Adam Habib, «Economic Policy and Power Relations in South Africa's Transition to Democracy», *World Development*, 28. liburukia, 2. zk., 2000, 28.

⁷ Bernard Crick, *In Defence of Politics* (Harmondsworth: Penguin Books, 1984), 54.

⁸ Neville Alexander, «Black Consciousness: A Reactionary Tendency», N. Barney Pitsoana, Mamphela Ramphele, Malusi Mpumwana and Lindy Wilson, eds., *Bounds of Possibility: The Legacy of Steve Biko and Black Consciousness* (Cape Town: David Philip, 1991), 238-52.

⁹ Antjie Krog en «Country of Grief and Grace» poesia, *Down to My Last Skin* (Johannesburg: Random House, 2000), 95.


¹⁰ Chinua Achebe, *Things Fall Apart* (New York: Anchor Books, 1986), 32.


¹¹ Max Weber, *The Protestant Ethic and the Spirit of Capitalism*. (New York: Scribner's, 1976).

¹² Frantz Fanon, *Wretched of the Earth* (New York: Grove Press, 1963), 188.

¹³ Opus cit., 178.

¹⁴ Kenneth Clark, *Civilisation* (New York: Harper and Row, 1969), 1.





Maiatzaren Lehenaren Plazako Amak: erakundeen indarkeriaren aurkako borroka Argentinan

NORA IRMA MORALES DE CORTIÑAS AND.

Maiatzeko Plazako Amen Elkarteko fundatzaileetako bat. Argentina

Biseme dauzka:

Carlos Gustavo Cortiñas: 1977ko apirilaren 15ean atxilotua eta desagertua. Ekonomia Zientziak ikasi zituen Moroneko Unibertsitatean.

Buenos Aireseko Ekonomia Zientzien Fakultatea.

Militante Politikoa–Gazte Peronistak.

Marcelo Horacio Cortiñas da bere beste semea.

Giza Eskubideetako militantea.

Gizarte Psikologoa. 1993 . Hirib. Fed. GOECRO Lucía Mascialino doktorea. Maiatzeko Plazako Amen Elkarteko fundatzaileetako bat. 77-04-30.

Maiatzeko Plazako Amen Elkarteko–Línea Fundadorako fundatzaileetako bat. 86-01-16.

FEDEFAM elkarteko (Atxilotu eta Desagertuen Senide Elkarteen Latinoamerikako Federazioa).

«Botere Ekonomikoa eta Giza Eskubideak» Katedra Libreko titularra, Buenos Aireseko Unibertsitateko Ekonomia Zientzien Fakultatean. 1998

Jarduerak:

Giza Eskubideen Biltzarretan parte hartu du.

Emakumeen Biltzarretan parte hartu du.

Ikastaro diktatuetan eta Eztabaida Mahainguruetan parte hartu du.

Mintegi Nazionaletan eta Nazioartekoetan parte hartu du.



CURRICULUMA

AEEko eta Nazio Batuetako Giza Eskubideen aldeko Batzordeetako kidea izan da.

Ikastaro eta mintegietan parte hartu du, honako herrialde hauetan: Argentina, Ameriketako Estatu Batuak, Kanada, Suedia, Norvegia, Suiza, Holanda, Belgika, Frantzia, Italia, Espainia, Errusia, Brasil, Mexiko, Bolivia, Txile, Uruguai, Haiti, Dominikar Errepublik, Costa Rica, Kuba, Kolonbia, Venezuela, Nikaragua.

Ikastaro diktatuak eman ditu unibertsitateetan, bigarren hezkuntzako ikastetxeetan, profesionalen ikasketa-zentro eta elkarteetan, erakunde zibil eta sindikaletan, eta auzo-elkarteetan.

Honoris Causa Doktore Titulua

Bruselako Unibertsitate Libreko Honoris Causa Doktore titulua eman zion 2000n.

Saltako Unibertsitate Nazionala, Argentina, 2003.

LABURPENA

Argentinan, XX. mendean zehar, berebiziko indarkeria instituzionala jasan genuen urte luzetan. Prozesu horiek bai gobernu instituzionala bai indarrez ezarritakoetan izan zuten isla. Zibilak ez diren erregimen autoritarioek indarkeria instituzionala erabili ohi dute gizartea kontrolatzeko eta gatazkak saihesteko, kontuan hartu behar baita hiritarrek ez dutela inolako ordezkaritza-biderik izaten.

Azken estatu-kolpea (1976-1983) Argentinako historiako odoltsuena izan zen. Oso zaila da halako indarkeria instituzional bortitza, genozidioaz ere baliatu zena, aukeratu izanaren arrazoiak laburbiltzea. Izan ere, une historiko jakin hartan Argentinako eta nazioarteko testuingurua konplexua zen oso.

Kolpe militarren ondorioz, estatu-indarkeria nagusitu zen, eta are metodo zorrotzagoak erabili zituzten beldurra sortzeko eta hiritarrak desagertarazi eta hiltzeko. Ildo horretan, aipatzekoa da Triple A (Argentinako Aliantza Antikomunista) taldeak aurretik ere horretan ziharduela. Indar armatuek okupazio-armada balira bezala jardun zuten beraien herrialdean.

Estatu zapaltzailearen inpunitatea zela eta, izututa eta babesik gabe zeuden hiritarrak. Gizartean diziiplina ezartzeko asmoari lehentasuna emanez, beldur-giroa sorrarazi zuten, segurtasun-indarrak omen zirelakoan laguntzaz, hau da, hiru indar armatuei eta poliziariei esker.

Horretarako, segurtasun nazionalen oinarritutako teoriaren doktrinara jo zuten, militarren artean aspalditik aldarrikatzen baitzen.

Peronen hirugarren agintaldian jadanik ehundaka lagun desagertu ziren, baina 1976ko estatu-kolpetik aurrera, egoera izugarri gogortu eta egunero-egunero hainbat hiritar desagertzen hasi ziren.

Hiritarrak indarrez eramateko jardunbidea, Argentinan ez ezik, Latinoamerika osoan ere hedatu zen, gobernu militar edota autoritarioak zituzten herrialdeetan.

1976ko erregimen totalitarioa gizartea «militarizatzen» saiatu zen eremu publiko eta pribatuan, izuan eta errepresio sistematikoan oinarrituta. Talde-partaidetzarako eta gizarte-aldarrikapenentarako bide guztiak itxi eta hiritarren anomia eta atomizazioa lortzen saiatu ziren.

Gauzak horrela, partaidetza-guneak eta estatu-terrorismoari aurre egiteko eremuak finkatzeari ekin zioten giza eskubideen aldeko mugimenduek.

Maiatzeko Plazako Amen Elkartea giza eskubideen aldeko mugimendu ugarietako bat izan zen, bidegabekeria eta indarkeria instituzionalari aurre egiteko sortua. Tragedia handi horren erdian ernaldtu zen gure elkartea, eta tragedia horrek eman zion hasiera, halaber, hamaika muga zeharkatu dituen mugimendu politikoari.

Maiatzeko Plazako Amen Mugimendua berez sortu zen, barru-barrutik. Horizontala, heterogeneoa eta anitza da gizarte-klaseetan eta ikuspegi politiko, kultural eta erlijiosoetan. Giza eskubideak urratzeko modu berria, hiritarrak indarrez eramateko eta desagertarazteko jardunbidea, salatze eta horren kontra borrokatze nahiak eraginda elkartu ginen.

Diktadura zibiko-militarrak hildako, torturatutako, preso politiko bihurtutako, desagertarazitako eta atzerrira joatera behartutako hiritarren kopurua izugarria da benetan. Baina horrez gain, Argentinan gerora bere horretan iraun duen gizarte-eta ekonomia-ereduaren oinarriak finkatu zituen.


Azken gobernuarekin, Amen Elkartean aurrerapauso handiak eman genituen giza eskubideen aldeko borrokan, eta bestalde, inpunitatea bertan behera geratzen hasi zen. Dena den, eginahalak egiten jarraitzen dugu gure seme-alaben eta herriaren ametsak lortzeko: gizarte-justiziaren alde eta gosearen, pobreziaren, bazterkeriaren eta diskriminazioaren kontra borrokatze, hain zuzen.

Gerraren kontra gaude.

Ez dugu heriotza-zigorra onartzen.

Herrien autodeterminazio-eskubidearen alde gaude.

Gure borrokarekin demokrazian eta bakean sakontzen laguntzen dugula uste dugu bete-betean.



Maiatzaren Lehenaren Plazako Amak: erakundeen indarkeriaren aurkako borroka Argentinan

XX. mendean indarkeria instituzionalez jositako historia luzean egin zuen bidea Argentinak. Bide hartan, indarkeria instituzionala, gobernu instituzionaletan ez ezik, de facto gobernuetan ere gauzatu zen. Erregimen autoritario ez zibiletan, herritarren ordezkarietza-moduak itxita zeudenez, indarkeria instituzionala ezarri zuten gizartea kontrolatzeko eta gatazkak menderatzeko metodo bakartzat.

Azken estatu-kolpea (1976-1983) izan zen Argentinako historiako odoltsuena. Oso zaila da laburtzea zer arrazoi izan ziren halako indarkeria instituzional ankerra, genozidioa, ezartzeko arrazoiak; eta zaila da, bereziki, garai historiko hartan gertakizun konplexuak zeudelako nonahi, nazioan bertan nahiz nazioartean.

1976ko martxoaren 24an, Indar Armatuak Maria E. Martínez de Perón, presidente andrea kargutik kendu zuten. Batzorde Militarrak hartu zuen haren lekua, Jorge R. Videla Jenerala, Emilio Massera Almirantea eta Ramón Agosti Brigadierra buru zirela. Batzorde hark olde militarista hedatu zuen kontinente osoan, eta antzeko biolentzia-moduak barreiatu zituen aldi berean Latinoamerikako hainbat herrialdetan (Operación Condor izeneko operazioa).

245

Batzorde Militarrak herrialdea berriro eraiki nahi zuen. Peronismoak 40ko hamarkadan hasitako ziklo historikoari bukaera eman eta ongizate-estatuaren eredia finkatuko zutela agindu zuten, funtsean. Aldi berean, ziklo berria zabalduko zutela agindu zuten, formula berriaz baliatuta: neoliberalismoa ezartzea ekonomian, eta kontserbadorismoa politikan.

Golpe militarak estatuko terrorismoa instituzionalizatu egin zuen, eta areagotu eta hobetu izua zabaltzeko metodologia, gogoz kontrako desagertzeak eta heriotza, A hirukoitzak (Alianza Anticomunista Argentina) lehendik ezarrita zituenak. Indar Armatuak ejertzito okupatzaile izan ziren beren herrialdean bertan. Estatu errepresioaren zigorgabetasunak izua eta babesik eza zabaldu zituen herritarren artean.

Aipatutako marko ideologikoetan oinarrituta, 1976ko de facto gobernuak, alde batetik, herriak gustuko ez zituen politika ekonomiko-sozialak ezarri zituen eta, bestetik, politika-, gremio –eta kultura– arloko erakundeen funtzionamendua ezerezean utzi zuen.

Lehentasuna gizartea diziplinatzea zela aitzakia hartuta, izu-giroa zabaldu zuten, segurtasun-indar esaten zitzaienen partehartze kolektiboaren laguntzaz: hiru indar armatuak poliziarekin bat eginda. Horretarako doktrina-erreferenteak segurtasun nazionalaren teoriar aurkitu zituzten, militarren artean lehendik ere historia luzea zuen predikamenduan.

Gobernu peronistaren hirugarren gobernuan ehunka lagun desagertzen hasita bazeuden ere, 1976ko estatu-kolpearen ondoren areagotu egin ziren desagertzeak: sistematiko eta eguneroko bihurtu ziren. Horrek agerian utzi zuen gertakariak ez zirela isolatuak eta ez zirela gertatzen poliziarren edo militarren gehiegizko errepresioagatik; aitzitik, botereak berak

antolatutako plan baten emaitza ziren. Plana indar armatuek gauzatzen zuten, Argentinako eta nazioarteko sektore ekonomiko handien babesaz. Baina buru sindikal burokratikoaren, alderdi politiko nagusien gehiengoaren, klero katolikoaren hierarkiaren eta herritar asko eta askoren isiltasun konplizeak ere izan zuen zeresana.

Gauzak hala, giza eskubideen aldeko mugimenduak estatuko terrorismoari aurre egiteko partehartze-eta euste-espazioa sortu zuen.

Giza eskubideen mugimenduaren adierazpen-esparru zabal hartan sortu zen Maiatzeko Plazako Amen mugimendua ere, bidegabekeriaren eta bortizkeria instituzionalaren kontra egiteko. Tragedia handi haren ondorio gara, eta tragedia hark abiarazi zuen gure mugimendu politikoa, mugaz gaindi hedatu dena.

Maiatzeko Plazako Amen mugimendua berez sortu zen, erraietatik, barru-barrutik. Horizontala eta heterogeneoa zen, eta anitza ere bai, klase, posizio politiko, kultural eta erlijiosoei zegokienez. Salatu beharrak batu gintuen, eta giza eskubideak bortxatzeko forma berri bat, ordura arte inoiz ikusi gabekoa, borrokaren bidez geldiarazteko nahiak: pertsonen gogoz kontrako desagertzeek ari naiz.

Hasieran diktadura zibil-militarrak gutxietsi egin zuen gure mugimendua, uste baitzuten emakumeak izanda, eta gehienak etxeoandreak, laster nekatuko ginela eta berehala itzuliko ginela etxera. Guk uste genuen gure ama-rolak errepresiotik babestuko gintuela, harik eta Azucena Villaflor, Amen mugimenduaren inspiratzailea, Ester Careaga, Mary Ponce de Bianco, bi erlijioso frantses eta familiarterko batzuk bahitu zituzten arte, 1977ko abenduaren 8a eta 10a bitartean, bahiketak eta desagertzeak salatzeke agerpena antolatzen ari zen garaian.

246

Maiatzeko Plazako Amen mugimendua politika, mobilizazio eta borrokaren zurrumbillean sartu zen, ustekabearen eta bat-batean, ordura arte gizonezkoen eremu baziren ere. Hasieran ez genuen uste guk egiten genuena politikoa zenik; urteak pasa ahala onartu genuen guk aukeratu gabe etorri zitzaigun rola. Gure etxea, seme-alabak eta bilobak utzi egin genituen borrokari lotzeko, eta gure asmoak bete ez ziren arren (seme-alabak bizirik agertzea), izugarrikeriaren errealitatea iluntasun tragikotik argira ekartzea lortu genuen behintzat. Gure seme-alabak bahitu egin zituzten, indarrez atera etxetik, lantokitik, eskolatik edo kaletik. Itsu-itsuan bila hasi ginen orduan bulego publikoetan, kuarteletan, polizia-etxeetan nahiz bikariatoetan.

Non daude? Zer egin diezue? Galdetzen genuen, baina agintariak ez zuten erantzuten; kartzeletan ez zeuden, justiziak ez zekien ezer eta Habeas Corpusak erantzunik gabe geratzen ziren.

Ondare-ondasunak bezalaxe, desagertuen seme-alabak ere gerra-ospila ziren. Haurdun zeuden emakumeak bizirik edukitzen zituzten umea jaio arte. Eskuratzeko-mekanismo makur bat finkatu zuten desagertuen seme-alabak nortasun faltsuaz eta jatorria ezkutatuta bizi izatera derrigortu zituzten, eta, askotan, errepresioegileen etxean bertan. Haietako asko eskuratzailerkin bizi dira oraindik; aurkitu ditzakegu, ordea, eta bilatu egin behar ditugu. Horretantxe ari dira Maiatzeko Plazako Amonak.

Gaur egun, adoptatuak direla jakinda, gazte asko beren identitatearen bila dabilta. Izan ere, diktadura zibil-militarrak ez zuen utzi soilik erail, torturatu, preso politiko, desagertu eta erbesteratuen arrasto itzela; horrez gain, eredu sozio-ekonomiko baztertzaileraren oinarriak finkatu zituen, gerora ere bere horretan iraun dutenak Argentinan.

Amak Maiatzeko Plazan elkartzen gara ostegunez arratsaldeko 15:30etan, Maiatzeko Piramidearen inguruan erronda egiteko, askatasunaren monumentu enblematikoa baita, Gobernu Etxearen, Katedral Metropolitarraren eta Kabildoaren aurrean.

Abenduan, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren urteurrena ospatuko denez, Erresistentzia Martxari eutsiko diogu, gure eskakizunak argi eta garbi adierazteko:

Atxilotu edota desagertu bakoitza non dagoen sakon ikertzea eta horri buruzko informazioa ematea.

Zigorgabetasun-prozesuko indultu-dekretuak ezereztea.

Estatu-terrorismoaren garaian bahitu zituzten umei (gaur egun gazte) beren nortasuna itzultzea.

Giza eskubide guzti-guztiak defendatzen etsi gabe jarraitzea.


Maiatzeko Plazako Amek aurrerapauso handiak eman genituen azken gobernuarekin eskubideen aldeko eta zigorgabetasunaren kontrako borrokan, eta aurrera goaz, gure seme-alaben ametsa eta oro har guztiona gauzatu dadin: gosearen, pobreziaren, bazterkeria eta diskriminazioaren kontra eta justizia sozialaren alde borrokatzea.

Gerraren kontra gaude.

Heriotza-zigorra ez dugu onartzen.

Herrien autodeterminazio librea bultzatzen dugu.

Ziur gaude gure borrokaz, demokrazia eta bakea errotzen laguntzen dugula.




Oroimenaren politikak Euskadin: Aintzat hartu, adiskidetu, kontatu, gogoratu

DANIEL INNERARITY JN.

Zaragozako Unibertsitateko Filosofia katedraduna. Nazioko Saiakera Saria

Daniel Innerarity Bilbon jaio zen 1959an. Gaur egun filosofiako irakasle titularra da Zaragozako Unibertsitatean. Filosofian doktorea izanik, Alemanian (Alexander von Humboldt Fundazioaren bekadun gisa), Suitzan eta Italian sakondu zituen ikasketak.

Azken liburuen artean honako hauek dira azpimarratzekoak: *Ética de la hospitalidad*, *La transformación de la política* (Miguel de Unamuno III. entsegu-saria eta literaturako sari nazionala, entsegu-modalitatean 2003), *La sociedad invisible* (Espasa entsegu-saria 2004) eta *El nuevo espacio público*. Bere liburuetako batzuk Frantzia, Portugalen, Italian eta Kanadan itzuli dira.



CURRICULUMA

El Correo eta El País egunkarietan ohiko iritzi-kolaboratzailea da, baita Claves de razón práctica aldizkarian ere.

Unibertsitateak Koordinatzeko Kontseiluko kide ere bada.

LABURPENA

Gatazka politiko bortitzei irtenbidea emateko bidean zenbait eztabaida sortzen da iragana berreraikitzeari buruz, eta batzuetan gatazka bera bezain biziak izaten dira. Gai nagusia konpondu ostean, badirudi oraindik zailena geratzen dela egiteko: iraganarekin lotura duen guztia berreraikitzea. Gatazkak funtsean Interpretazio-gatazkak dira, legitimatzeko eta kondenatzeko balio duten iraganeko kontaketak, gogoratzeko eta ahazteko betebeharrak ezartzen dituzten kontaketak. Biktimekin eta adiskidetzarekin zerikusia duen politika orok hausnarketa eskatzen du, besteak beste gai hauek argitzeko: zer den «bidezko oroimena» (Paul Ricoeur), nola erlazionatu behar dugun gure iraganarekin, etorkizuna eraikitzeko. Baina ez edonola eraikitzeko, baizik eta gainditu nahi duguna berriro ez gertatzeko moduan.

Oroimenaren politikak Euskadin: Aintzat hartu, adiskidetu, kontatu, gogoratu

«Bete ezazue denborak esana; egizue egunero egun bakoitzak eskatzen duena; ez zaitetze tematu hondoratzen ari denari eusten eta ez estutu ustez iragarritakoa ezartzen; izan zaitetze leial justiziarekin, garai guztietakoa baita; errespetatu ezazue askatasuna, ondasun guztiak prestatzen baititu; onartu ezazue gauzak zuek gabe garatzea eta utziozue iraganari bere defentsa egiten eta etorkizunari bere eginkizuna betetzen.»

Benjamin Constant, *De l'esprit de conquête et de l'usurpation* (Paris, Flammarion, 1986), 252 or

Hemendik denbora batera, zuen seme-alabei Euskal Herrian urteotan zer gertatu den azalzen diezuenean, arazorik izango balute hemen ideia politikoengatik hil dela ulertzeko, hilketak, torturak eta inposatzeko zein baztertzeko berariazko estrategiak ezarri direla ulertzeko, erabat sinestezina irudituko balitzaie, horrek esan nahiko luke gauzak ondo joan direla, hots, gure gizarteak bereganatu duela ez dagoela errugabeak hiltzea justifikatzen duen proiektu politikorik. Gizarte batek ezin du indarkeria gainditu ahazmenaren edo oroimenaren bidez, indarkeria ulertezin bihurtuz baizik. Agian, horixe da terrorismoaren deslegitimazio sozialaren gakoak: gizarte batean, indarkeria justifikazio-eskema batekin lotzen duen arrazoibidearen sinesgarritasuna agortzen denean, ekintza bortitzak mutu, zentzugabe eta ulertezin bihurtzen dira. Eta, prozesuaren bukaeran, ikaragarriak eta baita sinesgaitzak ere izatera iristen dira.

251

Baina ez gaude une horretan, beste batean baizik, eta une hori oso gertu dago iragan hurbiletik galdegiten diguten eta oraindik mehatxu posible bat bezala inguruan ditugun gertaera batzuetatik. Izan ere, ez da komeni gertaerei dramatismoa kentzea, ezta, modu batera edo bestera, guztioi dagokigun erantzukizunari muzin egitea ere. Tragedia hau gertutik ezagutu dugunok ezingo dugu ahantzi, zer egin genezakeen hobeto eta, batez ere, etorkizunean ez errepikatzeke nola oroitu behar dugun pentsatu gabe.

Atom Egoyan-en Ararat izeneko filmean, turkiar estatuak armeniar herriaren aurka egindako genozidioa (Turkiak oraindik ukatua) kontatzen da. Filmeak emakume alemaniar baten kontakizuna jasotzen du, berak ikusi baitzuen turkiar soldaduek krudelkeria izugarriko ekintzak bete zituztela emakume armeniarren aurka. Lekukoak esaldi honekin amaitu zuen kontakizuna: «Orain, zer egingo dut neure begiekin?». Horixe da, hain zuzen ere, indarkeriaren osteko funtsezko galdera. Hemendik aurrera nola begiratu, gogoratu, kontatu behar dugu, biktimak aintzat hartuta, indarkeria deslegitimatuta eta adiskidetzearen etorkizunari begira gaudela? Bakeak iraganera, orainera eta etorkizunera begiratzeko beste modu bat eskatzen digu. Izan ere, bakea erdiesten denean, zailena geratuko da oraindik: gorrotoa eta sektarismoa gainditzea, konfiantza piztu eta beldurra desagertzea, legearekiko errespetua berrezarri eta ez manipulatzeko. Eta, batez ere, «bidezko oroimenaren» (Ricoeur) arazoa geratzen da, hau da, nola gainditu iraganeko ankerkeriak eta nola lagundu biktimei itzaropena berreskuratzen.

Lau arazo nagusi planteatzen dira, eta laurak bildu nahi ditut neure gogoetan: biktimak aintzat hartzea, gizartea adiskidetzera, gure historia kontatzea eta ez daudenak gogoratzea.

1. Biktimak aintzat hartzea

Biktimak behar bezala aintzat hartzeko, aintzatespen horrek zer ekarri behar duen ulertzeko, biktimei egin zaien kaltea nolakoa izan den kontuan hartzea da aurreneko gauza. Reyes Matek (2006) laburtuz esaten duenez, biktimei kalte hirukoitza egin zaie: kalte pertsonala (fisikoa eta psikikoa), kalte politikoa (ez-herritar modura baztertzegatik) eta hirugarren kalte bat, gizarte osoaren hausturari dagokiona. Beraz, biktimei justizia egiteko, kalte hirukoitz hori konpondu behar da: kalte pertsonala ahal den neurrian konpondu, biktimen herritartasuna onartu eta adiskidetzera. Azken horrek ez du esan nahi guztiok ados egon behar dugunik, baizik eta bizikidetasun politikoak berdintasuna, aniztasuna eta inklusioa izan behar dituela oinarri, nahiz eta antagonismo demokratikoa ere normala izan.

Aintzat hartzearen esanahiaren inguruko topiko edo gaizki ulertu ugari dago. Uste dut Paul Ricoeur-ek (2004) asmatu duela ongien aintzat hartzearen dimentsio erreala esparru publikoan eta politikoan finkatzen. Aintzat hartzea justizia formaletik urrunago doan baina laguntasunarekin nahasten ez den dimentsioan kokatzen da, esfera politikoan sakon txeratatuta baitago. Aldi berean, dimentsio sinboliko bat ere hartzen du barne, zuzenbidearen prozedurazko edo materialazko kontzeptu hutsek jasotzen ez dutena.

Aintzat hartzearen ideia funtsezkoa da, subjektu politiko aktiboen izaera indarrez kendu zitzaieen halako gaitasuna itzuli behar zaienean. Biktima izateko esperientzia, egia esan, sufrimendu fisikoa da, baina baita mesprezu bidegabekoaren zeinua ere, izan ere, jarduteko gaitasuna murriztu edo suntsitzea esan nahi du. Hala, indarkeriak subjektu politiko izaera kentzen dio biktimari. Biktima izatea ez da norbaiti bere osotasun fisikoan kalte egin izana soilik, baita pertenezkoa zibikoa eta eragile politiko izaera indarrez kendu izana ere. Egoera hori gaingaitu egin behar da. «Aintzat hartzeak berdindu egiten du irainak desberdin egin duena» (Ricoeur 2004, 268). Aintzat hartzea beste batzuei subjektu politiko izaera itzultzea da. Beraz, kontua ez da eskubide guztiak bermatuta dauzkaten gizakien arteko birbanaketa egitea, batzuei guztion etorkizunean protagonista izateko gaitasuna itzultzea baizik. Justizia banatzailearen helburua baliokidetasuna ezartzea bada, aintzat hartzearen ikuspegiak onarpena jartzen du agertokian. Aintzat hartzearen zentzu sakona ondoko aipamen honetan laburtu liteke: «onesten dut zu izatea». Ez zaitut onesten zeure ezberdintasunean eta gu bion giza-tasunean, baizik eta zeure ezberdintasunean eta nirekiko berdintasunean. Hau da, zu izatea ez ezik, zu izateko beharra ere onartzen dut, neure buruari «ni» esan ahal izateko. Besteak aintzat hartzeak norberaren nortasuna eraikitzeke ezinbestekoak direla onartzea esan nahi du.

Ikuspegi horretatik ulertu behar da, gatazkak konpontzeko garaietan, nolakoa izan daitekeen biktimen bizkar gainera datorren mesprezua. Eta horrek, agian, lagundu egingo digu biktimak mehatxatuta zergatik sentitu ohi diren ulertzen eta beldur hori uxatzeko moduak bilatzen. «Simetriaren mehatxua» litzateke, nolabait. Hans Jonas filosofoaren hitzetan, ontasuna eta zitalkeria betirako *ex aequo* geratzeko beldurra da. Biktimarentzat iraingarriena, aintzat hartzearen aurkakoa, beraien eta erasotzaileen artean batzuek ezarri nahi duten simetria da. Gerra bat edo komunitateen arteko gatazka bat horrelaxe amaitu liteke, baina Euskadin ez da ez bata ez bestea gertatu. Estatuko indarkeriaren adierazpen zitatek ere ezin dute simetriaren eskema justifikatu, erruduntasuna erdibanatuta balego bezala. Indarkeria inoiz ez da saihestezina izan, eta ezin da justifikatu aurreko indarkeria bati emandako erantzun egokia dela argudiatuta.

Argi dago gatazketan sufrimendua alde guztietan dagoela, baina sofritzen duten guztiak ez dira biktima (Reyes Mate). Jakina, erasotzailerik gupidagabeenak ere urratu ezinezko eskubideak ditu. Eta, gainera, gizalegeak aginduta, sufrimendu guztiak arintzera behartuta gaude, ahal dugun zaigun neurrian, baina biktima errugabea eta sofritzen duen borroeroa ez direla gauza bera ahaztu gabe. Bi errealitateak konparaezinak dira, nahiz eta biek ere gure arreta eskatu. Claudio Magrisek adierazi duenez, biktimen berdintasunak –guztiekin merezi baitituzte oroimena eta errukia– ez du esan nahi biktima horiek hiltzeko arrazoiak ere berdinak direnik (2005). Ezin da sufrimendu orokorra argudiatu erantzukizunak sakabanatzeko eta errugabetasuna erruduntasun hainbanatuan barreiatzeko. Zeharo bidegabea izango litzateke biktimak berdin-berdin aintzat hartzea, biktimen eta biktimarioen sufrimendua bereizi gabe. Halako hutsa egin zuen duela urte batzuk Italiako Lehendakariak, faxistak eta beraien biktimak parekatu zituenean, eta akats hori askotan errepikatu da hainbat lekutan (Luzzato 2004). Batzuk eta besteak parekatzearen arrazoiak aurreiritzi eroso bat du oinarri, alegia, gatazkaren alde batean eta bestean sofritu duten guztien oroimenaren aldeko omenaldia eginez gero, erakundeek ez lukete ezer esan behar haien ekintzen balioei eta motibazioei buruz.

Euskadiko indarkeriaren kasuan, betebeharrak etiko eta politikoa dugu: gatazka planteatzeko eta konpontzeko bideak ezin du ETAk gatazkari buruz duen jarrera ontzat eman. ETAk, porrot egin arren, arrazoia zuela onartzea, gerora egindako nolabaiteko legitimazioa izango litzateke, desagertu ostean lortutako garaipena. Eta horrela jokatu genuke, onartuko bagenu indarkeria erabiltzeko erabakia saihestezina zela eta ez zela euskaldunek askatasunez erabakitzeko oztopo nagusia; pentsatuko bagenu ETA gatazka politikoa ezinbesteko erantzuna izan dela, eta ez gatazkaren perbertsioa eta enkistamendua; irtenbidea simetria belikoari lotuta planteatuko bagenu, identitate ezberdinak eta zilegiak dituzten euskaldunen arteko hitzarmena lortzen saiatu beharrean; pluraltasuna sakrifikatuko bagenu, ETAk inposatu nahi izan digun interpretazio-esparru sinplifikatua onartuta... Haiek uko egin behar diote indarkeriari, guk ordainean arrazoiari uko egin gabe. Aukera hori eskaini behar diegu, baina ez diegu arrazoia eman behar.

253

2. Adiskidetzea eta akordioa

Edozein bake-prozesutako konturik eztabaidagarrienetako bat adiskidetzea ulertzeko moduari dagokiona da, hau da, nola konpondu behar den terrorismoak gizartearen eragindako kaltea. Sarritan, barkamen eta adiskidetzearen ideiak justifikazio ideologiko gisa erabili izan dira justiziarik ez egin, egia ostendu eta biktimak isilarazteko. Horren inguruan oso kasu adierazgarriak izan dira Latinoamerikan, eta huts horietatik hainbat ikasgai atera daitezke. Oroimena ezin da neutroa izan, adiskidetzea ez delako erasotzaileen eta biktimen artean sinatutako hitzarmena, indarkeriaren eta demokraziaren arteko erdialdeko puntu batean aurkitzeko. Adiskidetzeak elkar onartzeko harremanak sortzea esan nahi du, baina etsaia onartzeko behar horrek, guztientzat balio berbera izan arren, ez dizkie eskakizun berdinak egiten indarkeria erabili dutenei eta erabili ez dutenei. Hor ere ezin da simetriarik onartu. Guztiok dugu eginbehar berbera, baina guztiok ez dugu ibilbide berdina egin behar.

Eskema simetrikoa baliagarria izan liteke zientzia politikoan *transitional societies* deritzenentzat, gerra edo diktadurako prozesu luzeetatik irteten direnentzat. Horrek balio zezakeen euskal gizartearentzat 1970eko hamarkadaren bukaeran (eta orduan amnistia orokorra justifikatu zuen), baina ezin da gauza bera esan hogeita hamar urte geroago. Oraingo helburua, berriz, garai hartan indarkeriak justifikaziorik ez zuela ulertzeko gauza ez ziren haiek berreskuratzea da, baina helburua ez da merezi ez duten justifikazioa ematea.

Tentuz hartzeko moduko beste kontuak, adiskidetzeari buruz ari garela, une egokiarekin du zerikusia. Hegoafrikako gatazkako aditu batek –beharbada gai horretan ez zutelako behar bezain ondo jokatu– «dagoeneko iritsi den zerbaiti buruz hitz egiten ari garela pentsatzeko hutsegiteaz» ohartarazi zuen (Boraine 2000, 378). Gatazka luze baten ostean, azkar ibiltzea baino garrantzitsuagoa da hurrengo etapara azkarregi ez igarotzea, eta batez ere, gauzen ordena ez alderantzikatzea: bakea, harreman politikoen normalizazioa eta adiskidetzeari. Normalizazioa sekula ezin da bakerako baldintza izan, eta ez du zentzurik adiskidetzeari deia egitea bakea oraindik behin betiko errealitatea izatea lortu ez den bitartean. Adiskidetzeari lortu nahi den helburu desiragarria da. Izan daiteke bakea benetako adiskidetzeari gabe, gertatu litekeelako azken hori inoiz ez heltzea edo neurri batean soilik heltzea. Negoziatu daiteke bakea adiskidetzeari gabe, edo oso adiskidetzeari mugatua dela, interesak behar bezain gainjarrita badaude. Nolanahi ere, inozokeria da hurbiltze azkarra izango dela espero izatea. Hutsegite hori egin zuten israeldarrek Camp David-eko negoziazioen ostean. Illusio gehiegi izateak, akordioa lortzeko lehenengo saioak dena aldatu duela pentsatuz, neurri kanpoko itxaropenak sorrarazi ditzake eta hasierako akordioak berak ere arriskuan egon litezke, mesfidantza eta etsipena sorraraziz. Eta ez dugu inoiz bistatik galdu behar, adiskidetzeari ari garenean, jende askori etorkizuna erasotzaileekin batera eratzeko ahalegin ikaragarria egiteko eskatzen ari zaiela.

Biktimak aintzat hartzeko eta adiskidetzeari modurik onena akordio politikoa zabal eta integratzailea delakoan nago. Egia da bakea eta politika bereizi beharra dagoela, ez dela zilegia indarkeriaren bukaera eta ordezkarien artean lortu daitezkeen akordio politikoa nahastea. Baina bi kontuek bat egiten duten gune bat dago, eta irtenbidearen konponbideak akordio politikoa jakin bat eskatzen du, biktimak eta haien esanahi politikoa kontuan hartu behar dituen.

254

Indarkeria bukatzeko prozesu batean, biktimiek bete behar duten eginkizuna zehaztu beharra dago, nahiz eta batzuentzat biktimen tratamendua gai tekniko edo pribatua izan, kalte-ordain ekonomikoek edo banakako afektu eta elkartasunaren bidez konpondu daitezkeen, nahiz eta beste batzuentzat, berriz, biktimiek guztion etorkizun politikoa erabaki behar duten, demokrazia ordezkatzailerik ez balego bezala. Zer esan nahi dugu, gatazka baten konponbidean, biktimak politikoki aintzat hartu behar direla diogunean? Zer zentzutan izan daitezke biktimak irtenbidearen erdigunea? Baieztapen horren arabera, biktimak gainerakoen maila bereko eragile politikoa bihurtu behar dira edo eragile politikoa ordezkatzailerik ordekatu behar dituzte?

Izan ere, biktimen gaia ez da sentimendu pribatuei lotutako kontua; aitzitik, aitorten publikoari eta errealitatearen eraketa politikoki dagokie. Haietaz halabeharrezko patua balira bezala mintzatzea, zehar kalteak balira bezala, hutsaren pare jartzea da, eta gatazkari benetako eta bidezko irtenbidea ematea eragozten du. Baina alderdikieriaz erabiltzeak ez du zauria sendatzen, larritzen baizik. Biktima bat bitarteko gisa erabilitako norbait bada, duintasuna itzultzeko modurik onena erabiltzeari uztea da. Biktimak hutsaltzea eta erabiltzea antzeko prozedurak dira, eta biktima izatearen jatorrian dagoen manipulazioaren luzapena dakarte biek.

Orduan, nola jokatu eta nola ulertu haien eskakizun errealak? Biktimen alde esanguratsu eta errespetagarria ez da esaten dutena edo haien atxikimendu politikoa, baizik eta biktima izatera iritsi izana (Reyes Mate). Horregatik, orain terroristek beren biktimak aukeratzeko ez dute lehenesten joera politikoa jakin bat. Hortaz, biktima gehienek ideologiak ez du inolako lehentasunik izan behar. Horrela jokatu balitz, biktimak eskatu ez duten joko-eremu batean sartuko liriteke eta ETAk gertakizun politikoa erabakitze ahalmena izango luke –ex negatibo bada ere–. Gatazka konpontzeko eskeman, biktimak

ezinbestekoak badira, biktima diren neurrian dira halakoak, eta ez jarrera politiko jakin bateko partaide diren heinean. Aintzat hartzeak ez du esan nahi zehazki biktimek esaten dutena egin beharra dagoenik, baizik eta biktimarioek egin zutenaren aurkakoa egitea. Zer esan nahi du horrek?

Terrorista batek egin duena ez da norbaiten alde jokatu, ohiko eztabaida politikoan, baizik eta solaskideetako bat erarik krudelenean baztertu, erailketaren edo larderiaren bidez subjektu politiko izaera kenduz. Horregatik, adiskidetzetik onena ez da baztertuen iritzia saritzea, baizik eta inor ezin dela baztertu ziurtatzea. Eta biktimei subjektu politiko izaera itzuli nahi bazaie, etorkizuneko bizikidetzarako akordioa inori subjektu politiko izaera ez kentzeko moduan diseinatzea da biktimak aintzat hartzeko modurik onena, azken batean subjektu politikoei baitagokie gure gizartearen etorkizun partekatua zehaztu eta erabakitzea. Helburu politiko jakin batzuk lortzeko oztopo izendatuak izan zirenek, etorkizuna diseinatzeko derrigorrezkoak direla sentitu behar dute orain. Haiek biktima bihurtu zuten printzipioen aurkakoak izan behar ditu oinarri gatazkari bukaera ekarriko dion akordio politikoak: inposaketa eta bazterketa egon ziren lekuan, kontrakoak nagusitu behar du, hau da, hitzarmenak eta inklusioak. Terrorismoak, desagertu ostean, lortutako beste arrakasta bat gure etorkizun politikoa baldintzatzea izango litzateke, baldin eta guk geure buruari inposatuko bagenio gatazkak eta aurkakotasunak artikulatzeko debekua, ezadostasun oro desagerrarazten dituen bake baten izenean. Beharrezkoa da prozedurek subjektu politikorik ez ezeztatzea, eta horrek ez du esan nahi bizitza politiko osasuntsua elikatzen duen osagarrietako bat, hots, ezadostasuna agertzeko aukera, pobretuko denik.

Zuzenbidearen kontzepziorik aurreratuenek justizia konpontzaileari buruz hitz egiten dute gaur egun: helburu nagusia ez da erruduna zigortzea, baizik eta kaltea konpondu eta indarkeriak suntsitutako harremanak berreraikitzea (Garapon 2001). Zuzenbideak, azken buruan, «indarkeriak banandu duena lotu» egin behar du (Bland 1996, 11). Akordio politikoan egituratuko den etorkizun politikoaren ikuspegiak eragin handia izango du aurrera eramane beharrek adiskidetze-prozesuaren nondik norakoak erabakitzeke. Ez da bidezkoa indarkeriaren biktimei ahazteko eskatzea. Zentzuzkoagoa eta begirunezkoagoa da ahaztu ahal izateko baldintzak sortzea. Jakina, ahazmena oroimenaren osagarri bat da. Baina ahazmenaren eremua nola, noiz eta zergatik eraikitzen den zehaztea da kontua. Ez da gauza bera ahazmenaren eragilea hutsegite, inposaketa, mendetasun edo uko egite bat izatea edo akordio errearen eta gertakariak benetan gainditu izanaren ondorioa izatea.

Azken batean, adiskidetzea ez da lortutako akordioen bidez neurtu daitekeen helburua. Aitzitik, aurreikusi ezin den epe luzeko prozesua da, jarreraren, jokaeraren, kultura politikoaren, egituren eta erakundeen aldaketa sakona, eta aldaketa horrek gizarteko maila guztietan eragiten du. Halaber, gizarte osoaren erantzukizuna da, nahiz eta aldaketa sustatzeko erantzukizuna erakundeen esku egon.

3. Kontatzea: historia nola ezagutarazi

Komunitate politikoei XX. mendearen bigarren erdialdean aurre egin behar izan dioten arazorik korapilatsu eta kezkarrienetako bat iraganarekiko lotura da. Nolako lotura dute iraganarekin muturreko errepresioa gainditu berri duten edo indarkeria-garaietatik irten berri diren gizarteek? Nola moldatzen dira iragan horri behin betiko bukaera emateko berri ere itzuli ez dadin eta, aldi berean, indarkeria ez legitimatzeko? Gatazka politiko bortitzen konponbideak iraganaren berreraiketari buruzko eztabaidak sorrarazten ditu eta, batzuetan, eztabaida horiek gatazka bera bezain biziak izaten dira. Dirudienez, behin

arazo nagusia konponduta, zailena egiteke dago oraindik: iraganaren berreraiketarekin zerikusia duen guztia. Orduan egiaztatzen da gatazkak, funtsean, interpretazio-gatazkak direla, iraganari buruzko istorioak, legitimatzen eta kondenatzen dutenak, oroimenaren eta ahazmenaren inguruko betebeharrak jakin batzuk ezartzen dituztenak. Eta egiaztatzen dugu Epiktetok arrazoia zuela hau esaten zuenean: gizakiak ikaritzen dituztenak ez dira ekintzak, baizik eta ekintzei buruz esaten direnak. Zer dela-eta eztabaida latz hori, hain zuzen itxaropenik handienak dauden uneetan sortzen dena?

Indarkeriaren bukaerak une egokiak dira nahasmendurako, horrelako prozesuetan egiaztatatu daiteke zenbateraino den egiazkoa Nietzscheren tesi hau: ez dago ekintzarik, interpretazioak baizik. Ohi baino antzezpen, itxurakeria, imintzio eta disimulu gehiago dago, uste baino gehiago. Objektibotasuna erdi ezkutatuta geratzen da, interpretazioak elkarren aurka ari diren plano gainjarriak ostenduta. Aurreko aurkakotasuna borroka sinbolikoa bihurtzen da. Badirudi oraingoan borrokaldi nagusia behin betiko interpretazioa inposatzea dela. Aurrerantzean, gertatutakoaren inguruko bertsioa aurrera ateratzea lortzen duena gailenduko da. Komeni da erregistro bikoitz hori dagoela jakitea eta ekintzak eta interpretazioak bereizten jakitea, errealitatea eta fikzioa. Nahasten dituenak ez du ezer ulertuko eta babesik gabe geratuko da korrante emozionalen aurrean, korrante horiek, alde bakoitzari komeni zaiionaren arabera, beldurra edo sumina, etsipena edo euforia sorraraziko dituztela.

Indarkeriaren bukaera guztiak, gertatutakoaren bertsioen bat inposatzeko edo, gutxienez, norik bere alde errugabetuko duen kontakizuna ahalbidetzeko borroka bihurtzen dira. Ez dago irtenbiderik hori lortu ezean. Guztiak prestatzen dira historiara gaizkiegi ez igarotzeko. Eztabaida sortzea ona da, indarkeria iraganeko kontua dela esan nahi duelako.

Oroimenaren gaiari buruz hitz egiten dugunean, ezin dugu ahaztu kontatzeko askatasuna dagoela, oroimena plurala dela. Askatasun hori historialarien lanari zein herriaren kontakizun arruntari dagokie. Herritarrok eta gizarte-taldeek gertaera konplexuak eta zama emozional handikoak oso era ezberdinean antolatzen ditugu, sarritan era kontraesankorrean. Hala, gizarte batean gertaera berari buruzko interpretazio ezberdinak egin daitezke aldi berean (Ross 2002, 303). Gertaera partikularak azaltzeko edo zuzitzeko kontatzen ditugun istorioek iragana argudiatzen dute, orainari zentzua emateko prozedura gisa. Garrantzitsuena ez da zehaztasun historikoa, baizik eta iraganarekin egindako konexio horrek ematen duen esanahi –eta identifikazio– sententzia. Britainiar unionista askok, adibidez, sinesten dute Orangeko Guillermo erregeak demokrazia britainiarra eta protestanteen nagusitasuna salbatu zituela Boyn-eko borrokaldian, 1690ean, nahiz eta Guillermo holandarra izan, Aita Santuak lagundu eta Britainia Handia, garai hartan, demokrazia bat ez izan.

Batzuetan, botere publikoek gertaeren zentzua behin betiko finkatu nahi balute bezala eginda daude oroimenaren politikak, iragana beti eztabaidagarri izaten dela ahaztuta. Demokrazian, pluralismo-esparru batean soilik idatzi daiteke historia, eztabaidan ari diren hainbat oroimen paraleloren ikuspen zelatari eta kritikoaren pean. Ez dagokio legegileari iragana interpretatzeko araua era autoritarioan inposatzea. Gure historia irakurtzea amaierarik gabeko lana da, eta problematikoa beti. Oroimenaren behararekin batera konplexutasun historikoa onartu behar da. Ez dira gauza bera egia judiziala, egia politikoa edo historialarien egia. Beti ez datoz bat, eta ez dute zertan bat etorri. Horrek nolabaiteko tartea uzten du jokatzeko eta egokitzeke.

Bada gatazken konponbideko oinarritzko printzipio bat, honako hau gomendatzen duena: galtzen duenari ez zaio exijitu behar irabazleari arrazoia ematea. Horretan tematzeak eragotzi egiten du bukaera. Gaiak duen zailtasun guztia honakoa da: indarkeria bukatzeko nahia eta

edozein justifikazio ontzat ez emateko beharra orekatzea. Aukera bat indarkeriari uko egiten diotenei gehien eskatzea da. Horrek zaildu egingo luke indarkeria bertan behera uztea eta gogorrenei sendotzeko aukera emango lieke, makurrarazteko ahalegintzat jo lezaketelako. Beste muturrean, terroristei arrazoi osoa emateko prest leudekeenak daude, indarkeriari behi betiko amaiera ematearren. Ba al dago aldi berean zuhurra eta bidezkoa den jarrerarik? Erraztu liteke indarkeria bukatzea, funtsezko ezeri ere uko egin gabe?

Hasteko, komenigarria izan liteke esperientziak irakasten diguna abiapuntu hartzea, gizakiok nola egiten dugun borroka eta nola uzten diogun borroka egiteari ulertzeko. Ez da aurreikusteko modukoa eta ez da desiragarria gatazka luze eta sakona bizi izan duten gizarteek bakea kontakizun beraren bidez erdiestea. Eta nire iritziz, horrek ez luke prozesuaren helburua izan behar. Iragan historikoaren interpretazioan ezadostasun handiak daudenean, garrantzitsuagoa da ezadostasun horiek onartzea, jarrera guztiak barne hartuko dituen kontakizun zabalago batean txertatzea baino. Euskal Herriaren kasuan, nire ustez, inork ez du «Ardanza Planak» (1998) baino hobeto formulatu nolakoa izan beharko lukeen irtenbide bideragarri eta duina. Garai hartan, bazirudien denboraren joanak eta gertakizunen eboluzioak gainditua zutela dialektika hau: terroristak amore ematera behartu ala amore eman terroristek hiltzeari uzteko. Orduan eta orain, indarkeria bertan behera uzteko euskarri gisa erabili dezaketen aitzakia eskaintzea da kontua (Ibarra 2005, 210). Ardanza Planak zioenez, «haiek pizgarri politikotzat hartu dezaketen zerbait, beren jendearen aurrean justifikatzeko». Ezin dugu ahaztu konpondu nahi dugun arazoa beraiek sortu zutela, euskal herritar gehienek borondatea onartzeko gauza izan ez zirelako, nahiz eta erakundeek erabateko legitimitasun demokratikoa izan eta gure erabakien helburua legitimitasunaren ustezko gabezia konpontzea ez izan. Dokumentu hark honela formulatzen zuen: «Ez diogu geure buruari galdetzen demokraziak zer egin behar lukeen bere ustezko gabeziak konpontzeko, baizik eta euskal gizartea berez jasaten ari den integrazioerik eza gainditzeko zer egin dezakeen eta zer egin nahi duen. Sistemaren legitimitasun demokratikoa ez dago zalantzan». Aitzakiaren ideia horrek eginkizun bikoitza du: batzuei, beren burua justifikatzeko aukera eskaintzen die, eta besteei, duintasun demokratikoa.

257

Hala ere, gauza bat aitzakia onartzea da, eta beste bat arrazoia ematea. Kontakizun ofizialak, publikoak, eta batez ere gure esparru politikoaren eta aldatzeko prozeduren oinarriko printzipioek, ezin dute indarkeria erabiltzea legitimatu. Gauza bat malgua izatea da, eta beste bat, bizikidetzako oinarriko printzipioak tartean izanik, egia bide erdian dagoela dekretuz agintzea. Iraganaren bidezko kontakizuna, zaila izan arren, inoiz ez da izango biktimen eta borroeroen arteko erdialdeko puntu bat. Eta kontua ez da «egia ofiziala» inposatzea, baizik eta gure iraganari buruzko eztabaida printzipio demokratikoen esparruan finkatzea, hau da, errespetu, pluraltasun, indarkeriaren deslegitimazio eta biktimak aintzat hartzearen esparruan. Habermasek «historiaren erabilera publikoa» deritzona da: Alemanian, Italian eta Espainian iragan faxistari buruz egindako eztabaidak, Frantziako Vichyko erregimenari eta iragan kolonialari buruzko eztabaidak, Argentinako eta Txileko diktadura militarrei buruzko eztabaidak, Europako eta Amerikako eztabaidak esklabutzari buruz... eta, orain, ETAREN indarkeriaren amaierari eta ondoko epaiketari buruzko eztabaida. Ikerketa historikoaren mugak gainditzen dituzte eztabaida horiek guztiek. Eredu publikoaren barruan kokatzen dira eta gure orainari galdegiten eta galdegingo diote. Beti izango dira eztabaidatzen duten historialariak eta era guztietako herri-istorioak, nabarmenkeriaraino, baina gure erakundeek oinarri duten kontakizunak bizikidetzak demokratikoak behar dituen oinarri etikoak eta politikoak jaso behar ditu.

4. Gogoratzea: herrien oroimena

Oroimen historikoari buruz ari garela, kontuan hartzen ez dugun zerbaitez ohartaraztea komeni da, onuragarria baita eta adiskidetzeko ahalmena baitu. Gogoratu nahi dugun iraganaren konponezintasunaz eta oroimenaren mugaz ari naiz. Oroitzeko ahaleginik onena eta bidezkoena ere ez da aski benetan nahi genukeena lortzeko: galdutako bizitzak berreskuratzea, sufrimendua kentzea eta indarkeriak luzaroan eragindako haustura sozialak orbanik gabe sendatzea. Galtzaileak denok gara, arrazoi ezberdinengatik eta batzuk besteak baino areago. Horregatik, irabazleak eta galtzaileak nor diren erabakitzeak eztabaidak ez du garrantzi handirik, errealitatea bere gordintasunean azaltzen zaigulako: hemen jada ez daudenak eta zauriak, konponezinak diren aldetik.

Hala ere, oroimenak garrantzi handiko lana egin dezake, iragan argiaren inertzia apurtu eta gauza berriren bat eskaintzeko. Indar sinboliko handia duen zerbait egin dezakegu, ahal den neurrian, historian egindako kaltea konpontzeko: gertakizunak biktimen ikuspegitik kontatu. Zergatik izan behar da iraganari buruzko ikuspegiak errealena irabazleena edo erasotzaileena (gehienetan berak izaten baitira) eta ez galtzaileena, erabateko galtzaile diren biktimena? Hemen helburu bakarra ez da indarkeria salbatzailearen erretorika gaitzestea, baita nazioen oroimen heroikoen ordeztasun beste oroimen bat jartzea ere, historia biktimen ikuspegitik begiratu, kontakizun arranditsuak alde batera utzi eta iraganaren inguruko ikuspegi kritikoa zabaldu nahi duena. Oroimenaren indar eraldatzaile nagusia, balentrien kontaketaordez, subjektu jasailearen kontaketa jartzea da. Ildo horretatik, biktimen arrazoi-bideak askotan berekin dakarren beste erretorika bat ere baztertu beharrekoa da, alegia biktimak direla eta ez direla heroiak, bi errealitateak zeharo ezberdinak direlako.

258

Oroimenaren politikaren ekarpen nagusia, beraz, kontakizun nazionalen aldebakarretasuna kentzea eta iraganerako begirada eszeptikoaz osatzea izango litzateke. Horrela, historiaren ikuspegi berria sortu liteke, ekintza heroikoen sorrarazitako helburu komunik gabekoa. Bidezko oroimena, orduan, bestearen sufrimenduari sarbidea ematea izango litzateke (Levy/Sznaider, 2001). Elia Barkanek «nazioen erru berria» (2000) deitu ohi zion horri, moral berri baten hipotesi gisa. Haren ezaugarria, besteak salatu beharrean, nazio bakoitzak bere errua onartzeko prest egotea izango litzateke.

Nazio guztiak eraiki dira bidegabekeriaren baten gainean. Hala erakusten dute esperientzia kolonialek, estatu modernoak eratzean burututako bazterkeriek, sarraskiek, talde batzuk beste batzuen gain nagusitu izanak edo nazio-askapenerako mugimenduek erabilitako indarkeria-mota berriek. Arrasto historiko horrekin, nazioek dagoeneko ezin diete euren buruari buruzko irudi akritikoei eutsi, eta batez ere, ezin dituzte euren historiako biktimak ahaztu (Assmann 2006). Horrek ez du esan nahi nazio guztiak edo «nazional» guztiak errudunak direnik edo hein berean errudunak direnik, baizik eta, nazioek sarri askotan biktimak eragiteko balio izan dutela onarturik, aurrerantzean era inklusiboan eratze ahaleginak egin behar ditugula.

Nazioek iraganaren azterketa kritikoa egiteak ez du esan nahi errealitateak edo proiektuak derrigorrez ez-legitimoak izan behar dutenik. Nazioen helburuak, batzuetan, indarkeriaren bidez bilatu izanak ez die nazio izateko balioa kentzen; baliorik gabe geratzen dena, jakina, inposaketaren prozedura da, baina baita helburuak lortzeko indarkeria erabiltzea zilegitzat jotzen duen ikuspegia ere. Horixe baieztatzen dut eta indarkeria kasualitate hutsa izan dela

diotenak aurrez aurre ditut, ez baitira konturatzen indarkeria egoteak gure historia kritikoki aztertzea eta, batez ere, identitateak era irekian formulatzera behartzen duela. Baina printzipio berak balio du ETAREN helburuekin bat datozen xedeak ez-legitimotzat jotzen dutenen arinkeriaren aurka. Gauza bat helburu terroristak dira, eta beste bat terroristen helburuak. Baztertuta dagoena ETAREN proiektua da, baita inposatzeko borondatea erakutsiz berarekin bat datozenak ere, baina ez proiektu nazionalista orokorra, proiektu hori era demokratikoan planteatzen den bitartean. Baina, era berean, nazionalismo demokratikoa ETATik bereiztera behartuta dago, bai erabiltzen dituen baliabideen aldetik eta baita konpondu nahi den gatazkaren formulazioaren beraren ikuspegitik ere.

Nazioak berez ez dira perbertsoak, baina haien ikuspegi mitiko, abstraktu eta totalitarioa bai. Nazio batek ere ez du etsaia akabatzeko edo berarekin identifikatzen ez dena baztertzeko adina balio. Uste hori da indarkeriaren bukaerak eskaintzen duen irakasbide kolektiboa. Euskal gizarteak erabat barneratzen duen neurrian, benetako adiskidetzaz hitz egin ahal izango da.

Bibliografía

ASSMANN, ALEIDA

(2006), *Der lange Schatten der Vergangenheit. Erinnerungskultur und Geschichtspolitik*, München: Beck.

BARKAN, ELAZAR

(2000), *The Guilt of Nations: Restitution and Negotiating Historical Injustices*, New Cork: Norton.

BLAND, BYRON

(1996), *Marching and Rising: The Rituals of Small Differences and Great Violence in Northern Ireland*, Center for International Security and Arms Control, Stanford University Press.

BORAINE, ALEX

(2000), *A Country Unmasked: South Africa's Truth and Reconciliation Comisión*, New Cork: Oxford University Press.

CONSTANT, BENJAMÍN

(1986), *De l'esprit de conquête et de l'usurpation*, Paris: Flammarion.

GARAPON, A.

(2001), «La justice reconstructive», en A. Garapon, F. Gros y T. Pech, *Et ce sera justice. Punir en Démocratie*, Paris: éditions Odile Jacob, 251-325.

IBARRA, PEDRO

(2005), *Nacionalismo. Razón y pasión*, Barcelona: Ariel.

LEVY, DANIEL/SZNAIDER, NATAN

(2001), *Erinnerung im globalen Zeitalter: Der Holocaust*, Frankfurt: Suhrkamp.

LUZZATO, SERGIO

(2004), *La crisi dell'antifascismo*, Torino: Einaudi.

MAGRIS, CLAUDIO

(2005), «La memoria è libertà dall'ossessione del passato», en *Il Corriere della Sera*, 10 de febrero de 2005.

MATE, REYES


(2006), «Justicia de las víctimas y reconciliación en el País Vasco», Documento de trabajo de la Fundación Alternativas.


RICOEUR, PAUL

(2004), *Parcours de la reconnaissance. Trois études*, Paris: Stock.

ROSS, M. H.

(2002), «The Political Psychology of Competing Narratives: September 11 and Beyond», en C. Calhoun, P. Price y A. Timmer (eds.), *Understanding September 11*, New York: The New Press, 303-320.





Justizia eta Berradiskidetzea

JUAN ERNESTO MÉNDEZ JN.

Justizia Trantsizionaleko Nazioarteko Zentroko lehendakaria eta Genozidioa Prebenitzeko Nazio Batuen aholkulari berezia. Nueva York, Estatu Batuak

Argentinan-estatubatuarra. Preso politikoa Argentinan (1975-1977).

New Yorkeko International Center for Transitional Justice zentroko lehendakaria, 2004ko ekainaren 1etik. Modu konkurrentean, genozidioa prebenitzeko Nazio Batuen idazkari nagusiaren aholkulari berezia, 2004ko abuztuaren 1etik. AEBetako Notre Dame unibertsitateko zuzenbideko irakaslea, eta unibertsitate horretako Lege Eskolako eskubide zibilen eta giza eskubideen zentroko zuzendaria (1999-2004). Giza eskubideen batzorde interamerikarreko kidea (2000-2003) eta lehendakaria (2002-2003). Giza eskubideen institutu interamerikarreko zuzendari exekutiboa (1996-1999). Human Rights Watch-eko Americas dibisioko eta General Counsel-eko zuzendaria (1982-1996).

Sariak: giza eskubideen alorreko zerbitzuengatik «Jeanne and Joseph Sullivan» saria, Heartland Alliance, Chicago, 2003; Argentinako Universidad Nacional de Mar del Plata unibertsitateko zuzenbideko ikasleen zentroko ohorezko lehendakaria, 2003; giza eskubideen alorreko lidergoagatik eta zerbitzuengatik «Mons. Oscar A. Romero» saria, Daytongo Unibertsitatea, Ohio, 2000.



CURRICULUMA

Giza eskubideen eta eskubide zibilen alorreko zerbitzu garrantzitsuengatik «Rev. William M. Lewers, CSC» saria, AEBetako Notre Dame unibertsitatea, 1998; etab.

Besteak beste, trantsizioko legearen gaineko gaietara giza eskubideen babeserako sistema interamerikarrari buruzko artikulu eta saiakerak idatzi ditu. U. of Notre Dame Press argitalpeneko, *The (un)Rule of Law and the Underprivileged in Latin America*-ko konpiladorea (Guillermo O'Donnell-ekin eta Paulo Sergio Pinheiro-rekin batera), 1998; gaztelaraz eta portugesez ere argitaratu da.

LABURPENA

Gizarte jakin batzuetako estatu-politiketan justiziari eta berradiskidetzeari lotutako helburuen artean dauden gezurrezko kontraesanak aztertzen dira saiakera horretan. Diktadurei edo gatazka armatuei bukaera eman dioten gizarteak dira aipatutako horiek, kontuan hartu behar baita giza eskubide edo gerra-lege guztiak sistematikoki zapalduta izan dituztela orain arte. Horrelako gizarteetan tentsioa da nagusi: batetik, biktimek eta gizarte zibilek zapalkuntzak aztertzeko eta errudunak zigortzeko eskatzen dute, eta bestetik, gizartearen errotutako gatazkak gainditzeko beharra dago, zapalkuntzak gatazka horien ondorioak izan baitira. Dena den, hizpide dugun tentsioa ez da kontraesan gaindiezina, eta jarrera bati besteari baino garrantzia handiagoa emateko ahalegina aitzakia hutsa izaten da maiz, giza eskubideen kontrako krimenak zigortu gabe uzteko gogoa, alegia. Demokrazia ezarri berrietan gezurrezko dilema sortzen saiatzen dira maiz, nahita saiatu ere: demokrazia egonkorra finkatu nahi bada, zuzenbide-estatuari eta lege-berdintasunari uko egin behar zaiela esaten dute. Ez zigortzeko eskatzen dioten indar anti-demokratikoei amore emanaz, ustezko «berradiskidetzea» ezartzen saiatzen da boterea, eta «berradiskidetze» horren ize-nean, okerreko urratsak ematen dira demokrazia eta bakerako bidearen hasieran.

264

Dena den, dilema hori benetakoa ere badela aitortu behar da, justizia eta berradiskidetze nazionala lortzeko ahaleginetan uste onez dabilzanentzat behinik behin. Gainera etnia, arraza edo erlijioekin zerikusia duten gatazkak bukatzen direnean, Estatu barruko komunitateak elkarren kontra ibili ondoren, justizia berriz ezartzen saiatzea ez da nahikoa indarkeriaren mehatxua behin betiko uxatzeko. Horrez gain, aurrez aurre egondako komunitateak berradiskidetzeko eta gorrotoa eta ezinikusia bertan behera uzteko ekimenak egin behar dira nahitaez.

Baina berradiskidetzeko ekimen hutsekin ere ez da arrakastarik lortzen, bestelakoak ere bideratu behar dira eta: justizia, egia, kalteak konpontzea eta erakundek eraldatzea helburu dituztenak, alegia («trantsizioko justizia» izeneko mekanismo multzoa). Bereizketa egin behar da, batetik, neurrigabekeria masibo eta sistematikoen errudunen, eta bestetik, ustez ordezkatzen dituzten komunitateen artean. Horrela, etorkizunean komunitate horietako kideei ez zaizkie egungo erruak leporatuko, eta indarkeriaren etengabeko zikloa hautsi egingo da.

Justizia eta Berradiskidetzea*

Laburpena

Saiakera honetan justiziaren eta adiskidetzearen helburuen arteko kontraesan faltsua aztertuko dut, diktadura edo gatazka armatua atzean utzi behar duten arren oraindik giza eskubideen edota gerrako legeen bortxaketa masibo eta sistematikoen arrastoa jasaten duten gizartearen estatu-politiken testuinguruan. Bada halako tentsioa biktimek eta gizarte zibilak bortxaketa horiek ikertu eta errudunak prozesatu eta zigortzeko egiten dituzten eskaeren eta gizartearen barruan gatazkak gainditzeko exigentziaren artean (gatazka horrek berak sorrarazi baitzuten bortxakeria bere garaian). Tentsio hori, dena dela, ez da gainditu ezinezko kontraesana, eta bata edo bestea lehenesteko saiakera giza eskubideen kontrako krimenak zigorrik gabe uzteko aitzakia izaten da askotan. Kasu horietan, sortzen ari diren demokraziei dilema faltsua aurkeztu nahi izaten zaie nahita: egonkortasun demokratikoa nahi badute, uko egin behar diote zuzenbideko estatuari eta legearen aurreko berdintasunari. Beren buruarentzat zigorgabetasuna eskatzen duten indar antidemokratikoentzat kontzesio moduan botereak dekretatutako «adiskidetzea» lortzeko nahiak bultzatuta, okerreko bidea hartzen dute demokrazia eta bakea erdiesteko.

265

Aitortu beharra dago, nolana, dilema erreala dela izan, fede onez justizia eta adiskidetze nazionala lortu nahian dabilzanentzat. Gainera, gatazkak dimentsio etnikoak, arrazakoak edo erlijiosoak izan baditu –alegia, gatazkak estatuaren barruan komunitatetzat hartutako taldeak aurrez aurre jarri baditu– justizia berriro ezartzeko ahaleginak ez dira nahikoa izango indarkeriaren mehatxua betiko baztertzeko. Kasu horietan beharrezkoa izango da liskartutako komunitateen arteko adiskidetzea bultzatzeko eta gorrotoa eta erresumina desagertzeko ekimen zehatzak ere abian jartzea. Dena den, adiskidetze-ekimen horiek ez dira aski arrakasta lortzeko, nahitaezkoa baita instituzioetan justizia, egia, ordaintza eta erreformak sustatzea (hots, «trantsizioko justizia» esaten zaion mekanismo-multzoa bultzatzea), ezinbestekoa baita bereiztea, batetik, abusu sistematiko eta masiboak eragin dituztenak eta, bestetik, beren esanetan, ordezkatzeko dituzten kolektibitateak (horien izenean egin baitituzte ankerkeriak). Hartara, gaur egungo erruak ez zaizkie komunitate horietako kideei egotziko etorkizunean, eta bortxakeriaren ziklo errepikakorra moztu egingo da behingoz.

I. Sarrera

Diktaduratik edo gatazka armatutik irteten ari diren gizarteek giza eskubideen bortxakeria masibo eta sistematikoek utzitako arrasto astuna garbitzeko erronkari aurre egin behar izaten diote maiz. Bortxakeria hori jasan duten biktimek zein horien familiartekoak gizarteko kide dira, eta haien saminak sendatu beharreko zauria sortzen du gizartearen baitan.

Aurreko hainbat kasutan uste izan da demokrazia eta zuzenbide-estatua berrezartzea aski zela zauri hori sendatzeko, eta ez dagoela beste ezer egin beharrik; are gehiago: uste izan da biktimei nolabait ohore egiteak edo horien eskakizunak betetzeak arriskuan jarriko lukeela erregimen demokratiko ezarri berriaren egonkortasuna. Azkeneko 20 urteetan, halere (anckerkeria-arrasto haiek nahita alde batera utzi zituzten prozesuei buruzko balorazioa edozein izanda ere), ez da egon trantsiziorik iragan hurbileko arrastoarekin zer egin behar den planteatu ez duenik. Izan ere, munduko edozein txokotan planteatu dute hori, baita diktaduratik demokraziarako edo gatazkatik bakerako igarobidea burutu duten lekuetan ere. Esperientzia horien guztien ondorioz, giza eskubideen inguruko arlo espezifikoak sortu da, «trantsizioko justizia» esaten zaiona. Bestalde, praktika sozial eta politiko horrek giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidean ere ekarri ditu aurrerapausoak, eta halako egoeratan dauden estatuei betebeharrak jakin batzuk harrarazi dizkie.

Trantsizioko justizia gizarte gizatiarrago eta bidezkoagoa eraikitzeko ezinbestean berrezarri eta gauzatu behar diren balioen bat-egiteari zein kompetenziari erantzuna emateko modu bat da. Alde batetik, giza eskubideen urraketa jasan duten biktimek eskubidea dute justizia eta egia lortzeko eta jasandako minaren ordaina jasotzeko, bai eta aurrerantzean botere-gehiegikeriaren kontra babestuko dituen instituzioak era daitezen ere. Bestetik, batez ere, gatazka fratizida atzean utzi nahi duten gizartearen kasuan, beharrezkoa da armak uzteko eta berriro ere politikara itzultzeko baldintzak sortzea, hori baita gatazka ideologikoak konpontzeko bidea. Kasu guztietan beharrezkoa izango da oreka mantentzea justiziaren gauzapenaren eta bakerako baldintzen artean. Nazioa adiskidetzera trantsizioaren erro-erroko helburua da, bereziki, anckerkeriak gatazka baten testuinguruan gertatu zirela eta gatazka hori konpondu beharra dagoela aitortzeko modua baita, gizartearen baitan halakorik berriro gertatu ez dadin. Gatazka konpontzeko jardunetan aldarrikatu ohi da egian, justizian eta iragan hurbilaren memorian tematzeak eta ahaztu nahi ez izateak bakearen kontra eta aspaldiko arerioen adiskidetzearen kontra egiten duela.

266

Armak isilarazteko eta bake-prozesua hasteko premiak bultzatuta, bitartekariak bakeari ematen diote lehentasuna, justiziaren kaltetan, eta garrantzia kentzen diete egia eta memoria berreskuratzeko eskariei, esfortzu horrek oraindik armak eskuan borrokatzen direnei aitzakia ematen dielako borrokan jarraitzeko. Beste batzuetan, justiziaren «alternatibak» proposatzen dituzte, zigorgabetasun mozorrotuaren antzekoak. Politika horien sorburua da uste izatea bakea testuinguru hobea dela giza eskubideentzat gerra baino. Hala eta guztiz ere, eztabaida bakea beti justiziaren gainetik dagoela dioten formulak murriztuta, ez da aintzat hartzen zenbateko kostua, eta zein desorekatua, ordaindu behar duten biktima errugabeek. Gainera, murrizketa hori sinplifikazio arriskutsua da, ez du bake iraunkorra sortzeko bidea ematen, justiziarik gabeko bakeak berriro gatazka sortzeko baldintzak sortzen baititu.

II. 'Adiskidetze' terminoaren esanahiak

Latinoamerikan, adiskidetzera hainbestetan erabili izan da zigorgabetasunaren eufemismo moduan, eta ondorioz, gizarte zibileko erakundeek, nola ez, azkenean termino hori errefusatu egiten dute bete-betean. Bereziki iraingarria da adiskidetzearen aitzakia erabiltzea justizia, egia edo memoria berreskuratzeko edozein saiakerari kontra egiteko, batez ere, helburua demokrazia berreskuratu berriari baldintzak ezartzea besterik ez bada. Ameriketako Hego Konoaren kasuan, esate baterako, gatazka armaturik ez zegoen garaian gertatu ziren trantsizioak, alegia, armak utzi eta berriz politikan sartzeko konbentzitu behar zitzaion eragile armaturik ez zegoenean. Egoera hartan, adiskidetzera egia eta justiziaren politikari kontra egiteko bidetzat aldarrikatzea demokraziarentzako mehatxua zen argi eta garbi, eta

demokrazia erabat gauzatu nahi zutenentzat xantaia hutsa, baita botere judizialak bere eskumenak guztiz garatzea nahi zutenentzat ere (nahiz eta zuzenbide-estatuaren funtsa horixe izan). Hauteskundeen bidez hautatutako gobernari batzuek ere aginte demokratikoari hala huts egitearen konplize izan ziren, eta botereak dekretatutako adiskidetzearen bultzatzaile nagusi ere bai, biktimei adiskidetu sentitzen ote ziren galdetu ere egin gabe.

Zorionez, 80ko hamarkadatik hona beste trantsizio asko izan dira eta horietako bakoitzean baldintzak ezberdinak izan dira. Trantsizio horietako batzuek adiskidetzearen esanahia beste era batera ikusteko aukera eman digute, eta agerian utzi dute adiskidetzeak baduela zeresanik gizarte bidezkoagoa eraikitzeke lanean. Horrek ez du esan nahi, dena dela, adiskidetzearen eta justiziaren arteko aurkakotasuna konpondu ezintzat jo behar dugunik. Lehenik eta behin ezberdintasun batzuk aitortu behar ditugu, adiskidetzea Hego Konoko adibidean baino era konstruktiboagoan ulertzeko. Izan ere, nazioaren adiskidetzea ezin daiteke izan termino abstraktua, gainditu nahi diren enfrontamendu zehatzei inongo erreferentziarik egiten ez diena. Horregatik, orain arte elkarren arteko ezberdintasunak indarkeriaren bidez konpontzen zituzten alderdi politiko edo ideologikoak adiskidetzea edozein gizarte-osaketaren helburu zilegia da. Baita talde etniko edo erlijiosoen kasuan ere, batik bat talde-nortasuna izan bada indarkeriaren ezaugarri bereizgarria. Bi kasuetan garrantzitsua da gatazka gainditu eta elkarren arteko errespetuaren bidari ekitea, bai eta komunitate –nortasun eta– kidetasunak errespetatzea ere.

Baina kasu horiek argi eta garbi bereizi behar dira biktima eta biktima-eragileen artean lortu nahi den ustezko adiskidetzetik. Izan ere, zigorgabetasunaren aldekoek oinarri-oinarrian adierazten dutena da gatazkan ez zela errugaberik inork egon: torturak, atxiloketa arbitrarioak, gogoz kontrako desagertzeak, erailketa selektiboak eta sarraskiak jasan zituztenak ere bekatu edo delituren baten errudun zirela, eta, horregatik, jasan zituzten bortxakeriak barkatu eta ahaztu egin behar direla. Uste ustela da hori, krimenak egin ziren egoera orokorraren interpretazio interesatu eta faltsua. Errepresioa ez da inoiz izan biktima errugabe asko ez eragiteko bezain selektiboa; haatik, gaur egungo gatazka armatuetan, biktima gehien-gehienak zibilak dira, eta, horrenbestez, errugabeak. Horrek ez du esan nahi soilik bando batek egindako bortxakeria zigortu behar denik. Alderantziz, biktima errugabeei beren eskubideak errespetatu behar zaizkiela aldarrikatzen dugu, eragileak zein izan diren kontuan hartu gabe.

Azken finean, adiskidetzea giza eskubideen kontrako bortxakerien ondareari aurre egiteko politika publikoen parte izango bada, zenbait baldintza bete behar ditu. Baldintza horiek bete ezean, adiskidetzea ez da zigorgabetasunaren aldeko aitzakia hutsa besterik. Besteak beste, baldintzetako bat izango da abusu-egileei kontrizio- edo damu-zeinuren bat agerraraztea. Ezin diegu biktimei barkamena emateko eskatu, aurrez eragileari barkamena eskatzeko exijitu gabe, hori izango baita akatsak eta erantzukizuna onartzeko modua. Erruak garbitzeko eskearen lehen urratsa gertakariak oso-osorik ezagutarazten laguntzea da. Berritoren ere, biktimak errazago emango du barkamena gertatutakoaren nondik norako guztiak eza gutzen baditu, eta halaber, gertakari haietan nola edo hala zerikusia izan zutenen erantzukizunak ere eza gutzen baditu. Ekintza kriminalean hainbatek parte hartu izan duten kasuetan, barkamen bila dabilenak prest egon behar du inongo erantzukizunik onartzen ez dutenen kontrako testigu izateko. Hala, Hegoafrikan Egia eta Adiskidetzea sustatzeko Legeak agindutako inmunitatea aurrerapauso itzela izan zen, Latinoameriketako amnistietan ez bezala, urrats jakin batzuk ematera behartzen baitzituen kriminalak, inmunitatea lortzeko¹.

III. Giza Eskubideei buruzko Nazioarteko Zuzenbidean finkatutako Arauak

Trantsizioko justiziaren esperientzia sozialek antzeko praktikak (ezberdintasunak gora-behera) eman dituzte gerra-krimenen eta gizadiaren kontrako kalteen arrastoari zintzo eta benetan atzean uzteko gogoz aurre egin dieten herrialdeetan. Kasu guztietan, justiziaren aldeko eta zigorgabetasunaren kontrako bulkadak oztopo eta eragozpen bat baino gehiago izan zituen, batzuk juridikoak eta besteak de facto-koak. Alabaina, aldi berean, oztopo horiek gainditzeko ahaleginean, nazioarteko epaitegiek eta giza eskubideak babesteko organoek jurisprudentzia oparoa sorrarazi dute, giza eskubideen nazioarteko itunen interprete baimenduak diren aldetik². Sormen intelektual horrek –batez ere, nazioarteko epaitegien epaiak lotesleak direlako– giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidean arau batzuk sortzea bultzatu du. Estatuak zerbait positiboa egiteko betebeharrak dutelako gerra-krimenen eta gizateriaren kontrako krimenen aurrean. Betebehar horrek egia, justizia, eta ordaina ekarri behar ditu, eta halako sarraskiei aurrea hartzeko moduko erakunde-erreforma.

Zehazki, estatua krimen horiek aztertzeraz eta erantzuleak prozesatu eta zigortzeraz derrigortuta dago, eta halaber, zer egoeratan gertatu ziren jakin eta ezagutarazteraz, biktimei ordaintza ematera, erakundeak aldatzeraz babesa eta segurtasuna eskaintzeko, eta botere-gehiegikeriak egindakoak erakundeetatik baztertzeraz³.

Nazio Batuek nahiz nazioarteko beste erakunde batzuek marko arautzailetzat onartu dituzte sortutako arau horiek, aukera ematen dutelako gatazka armatua duten gizartei edo gatazkaren ondoren berriro sortzen ari diren gizartei laguntzeko helburuz nazioarteko komunitateak bultzatzen dituen ekimenak gauzatzeko. Gizartea berriro eraikitzen laguntzen ari diren bitartekari zein funtzionario eta organismoentzako jarraibideak dira⁴.

Sortutako arau horiek direla-eta, nolana, estatuak ez daude derrigortuta trantsizioko justizian programa bakar baten arabera jokatzera. Alderantziz, arau horiek betebehar orokorrak ezartzen dituzte, balio unibertsalekoak, baina abagune ederra ere ematen dute esperimentatzeko eta kasu bakoitzaren testuingurura egokitzeko. Izan ere, betebehar hori bitartekoei dagokie, ez emaitzei; borondate ona da funtsezko irizpidea, alegia: egia, justizia, ordaintza eta erakunde-erreforma helburu izanda, bakoitzak dena ematea. Dena dela, ezin da izan menu modukoa ere, estatuak aukeran duen menu baten modukoa, helburu bakoitza bere aldetik gauzatu behar da, besteak garatu ala ez⁵.

Marko arautzaile horrek nolabaiteko muga batzuk ezartzen dizkie estatuari, ez dadin bakoitza bere nahierara aritu trantsizioaren bidean. Izan ere, politika batzuk, iraganari ez ikusia egin nahi diotenak edo iragana ahanzturaz estali nahi dutenak, giza eskubideen arloan estatuak bete beharreko nazioarteko obligazioen kontrakoak dira.

Aldi berean, marko arautzailea gatazka armatuko partearen nahierari muga jartzeko modua ere bada, eta ez da ahaztu behar parte horiek bake-prozesuko berak izaten direla maiz. Marko arautzaile horrek muga garbiak jartzen ditu, armak uztearen truke amnistia zabal eta baldintza gabeak emateko arriskurik egon ez dadin. Gatazken konponbideen alorreko espezialistek errefusatu egiten dute inposaketa hori, esanez –arrazoirik ez dute falta– bakea lortzeko gogoia ezin daitekeela izan eta ez duela izan behar beste helburu batzuen mendeko, bereziki, menpekotasun hori borroka armatua alde batera uzteko nahiaren kalterako bada.

IV. Amnistiak

Lehenik eta behin argitu beharra dago amnistia guztiak ez direla nazioarteko zuzenbidearen kontrakoak. Alderantziz, zenbait amnistia nazioarteko zuzenbideak berak exijitzen ditu: hain zuzen, nazioarteko hedapena ez duten gatazka armatuen kasuan, Genevako Konbentzioren II. Protokoloak xedatzen du gatazka amaitzean agintariak «ahalik eta amnistiarik zabalena» eman beharko dietela gatazkan tarteko izan direnei edota horren ondorioz askatasun gabe geratu direnei⁶. Argi dago, edonola, amnistia hori traizio, errebolta edo sedizio-delituei dagokiela, hau da, estatuaren kontra armez altxatzeagatik eginiko barne-zuzenbidearen kontrako delituei, eta, hein batean, matxinadaren kontrako jardunean segurtasun-indarrek egindako delitu txikiei. Hortaz, ez zaie aplikatzen matxinatuek zein ordena-indarrek gatazka dela-eta eginiko gerra-krimenei.

Esan dugu dagoeneko: sedizioa baino delitu larriagoi dagozkien amnistiak –amnistiaturko direnek egindako ekintzen egia eta justizia argitzeko urratsak emateko baldintza jarrita–, orokorrean, bat datoz estatuaren nazioarteko betebeharrekin⁷. Kasu horietan, amnistia nola aplikatu aztertu beharko da, litekeena baita hasieran zilegi izanik ere aplikatzerakoan giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbideko arauen kontra joatea⁸.

Edonola, hauxe esan daiteke inongo zalantzarik gabe: efektu juridiko bakarra gerra-krimenen edo gizateriaren kontrako krimenen erantzuleak ikertu, prozesatu eta zigortu gabe uzteko helburua duten amnistiak nazioarteko zuzenbidearen kontrakoak direla erabat. Hala dira baita ere gertatutakoaren egia aztertu eta zabaltzeko egiten diren ikerketak oztopatu edo zailtzen dituzten amnistiak ere.

Bestalde, aitortu beharra dago marko arautzaile horrek bake-negoziazioetarako aukerak murriztu egiten dituela. Baina gure ustez murrizte konstruktiboa da, gerra eta bakearen ondoriok bizi dituzten guztien eskubide eta beharrei konponbideak bilatzeko beharra inposatzen dielako bitartekariari zein aldeei, gogorrenek erabakitako konponbideetara mugatu gabe. Gerra garrantzitsuegia da jeneralen eskuetan uzteko, eta bakea garrantzitsuegia da soilik borrokan egiten dutenen eskuetan uzteko. Edozein gatazkatan, biztanleria zibileko biktima errugabeek eskubidea dute bake-prozesuak beren nahi eta eskubideak ere kontuan hartu ditzen. Hala, lortuko den bakeak aukera gehiago izango du iraunkorra izateko, ez delako hasiko behin eta berriz biktima sentitu diren hiritar amorratuak (lehenik indarke-riaren biktima izan zirelako eta gero duintasuna eta eskubideak aitortu nahi ez izanaren biktima) baztertzen⁹.

V. Adiskidetzea

Trantsizioko justiziar buruzko lehen eztabaidak piztu zirenetik, 80ko hamarkadatik, planteatu da adiskidetzeak izan behar duela iragana berraztertzeke politika ororen helburu nagusia, demokrazia eta zuzenbide-estatua berreskuratzeko ahaleginean¹⁰. Trantsizioko justiziaren mekanismoak diseinatu eta gauzatzerakoan, gogoan izan behar da beti aspalditik liskartutako bandoak adiskidetzea eta sarraskiak eragin zituzten gorrotoak gainditzea dela helburua. Hain zuzen, arduragabekeria litzateke egia eta justizia bilatzen jarraitzea baldin eta egoera jakin batean horrek seguruenik berriro giza eskubideak bortxatzea ekarriko badu. Baina, halere, ezin dugu uste izan egia eta justizia lortzeko edozein ahaleginek berriro gorrotoa sortuko duenik. Hala pentsatuz gero, bene-benetako adiskidetzearen orde beren gustukoa (alegia, egindako delituak zigor gabe utziko dituen) nahi dutenen xantaian eroriko ginatke. Hortaz, aldarrikatzen dugu kasuak banan-banan aztertu eta bideratu behar

direla, tokian tokiko berezitasunen arabera, eta egoera eta une historiko bakoitzaren nondik norakoetan oinarrituta erabaki behar dela proposamena adiskidetzearen mesederako edo kalterako izango den.

Gainera, argi dago ezinezkoa dela kasu guztietan aurretik jakitea prozesuak zer emaitza izango duen. Horregatik, eta justizia, egia eta biktimen eskubideak onartzea balio handiko aurrerapausoa dela –beste balio batzuen mende geratu behar ez duena– kontuan hartua, gure ustez adiskidetzea ezin da ikusi iragana berreskuratze prozesuen zilegitasuna edo ez zilegitasuna finkatzeko «arau kritikoa» balitz bezala. Bestela esateko: ez da bidezkoa, gure ustez, trantsizioko justiziaren meritua adiskidetzea ekartzen lagundu duen ala ez kontuan hartuta epaitzea, adiskidetzearen azken emaitzaren oinarritzko faktore eta jokabideak ez dituztelako biktimek kontrolatzen, ez gizarte zibilak, epaileek, fiskalek ez eta trantsizioko zuzenbidea berriro ezartzeko eginkizuna duten agintariek ere.

Azkenaldian batzuek adierazi dute zuzenbide penalaren justizia dela hutsik gabe beti adiskidetzearen kontra egiten duena, baina adiskidetzea errazten duten «ordainik gabeko» justizia-modu batzuk ere posible direla halere. «Berreskuratze-justizia» aipatzen da halakoetan, justizia baino hobea omen dena moralki nahiz politikoki, zuzenbide penalaren arloan. Dударik gabe, justiziak, kontzeptu gisa, hainbat esanahi izan ditzake. Baina saiakera honetan argi utzi nahi dugu zentzu zorrotzenez aipatzen den justiziak («berreskuratze-justiziak», bestela esanda) beti izan behar duela trantsizioko justiziako politika ororen osagai. Gainera, ez dugu uste erantzule nagusiak ikertu, prozesatu eta zigortzea (beharrezko prozesuak eginez eta epaiketa justua emaneginez gero) adiskidetzearen kontra egitea denik beti. Bestalde, «berreskuratze-justizia» familia arteko edo auzoko arteko delituetarako politika kriminaletik hartutako kontzeptua denez, aplikatu daiteke halaber gerra edo gizakiaren kontrako krimenen aldean hain larriak ez diren kasuetan ere. Berreskuratze-justizia beste arlo batzuetara eramaten hastea, aurretik argi zehaztu gabe zein mekanismori egiten zaien erreferentzia, erantzule nagusiak zigor gabe uzten laguntzeko modu bat da. Horrek ez du esan nahi gatazkak konpontzeko ohiko bideek, hau da, negoziazioak edo arbitrajeak, ez dutenik lekuri trantsizioko justizian. Izan badute; batez ere, komunitate barruko gatazkak konpontzeko. Baina horien eraginkortasuna ere, azken finean, baldintzatuta dago, ezinbestekoa baita ongi bereiztea komunitatea bera, batetik, eta komunitate horren izenean ari zirela aldarrikatzen zuten hiltzaile eta torturatuak, bestetik.

Bereziki, bertako ohiturak eta zuzenbide tradizionala oso lagungarriak izan daitezke etnien edo komunitateen arteko gatazkak konpontzeko. Adibidez, gaur egun Darfur-en, Sudanen, bizi duten gatazkan zaila da «afrikar» eta «arabiar» komunitateak adiskidetzeko mekanismorik gabeko konponbide iraunkorra imajinatu ere egitea. Adiskidetzeko elkarriketetan, lurra itzultzeari buruz, ura eta artzaintzako lurra erabiltzeari buruz, abereak leku jakin batetik pasatzeko eskubideari buruz hitz egin beharko da, komunitate baten eta bestearen produkzio-moduak aurrez aurre baitaude gai horietan. Bien bitartean, bestelako neurriak –esate baterako, Nazioarteko Zigor Gorteak tarteka egiten dituen prozesu penalak, laguntza humanitarioa eta desplazatu eta errefuxiatuak atzera beren jatorrira itzultzea– lagungarri izango dira, baina besterik ez, harik eta gatazka etnikoa behingoz eta betiko konponduko duten adiskidetze-formulak aurkitu arte. Baina horren kontrako ere egia da: ezinezkoa da elkarriketa serioak izango direnik pentsatu ere egitea, baldin eta libre eta presioa eraginez baldin badabilta beren tribuen izenean sarraski masiboak egiten zituzten (eta dituzten) gobernuak eta janjaweed agintariak, Darfur-en egungo krisi humanitariorik larriena sorraraziz.

VI. Ondorioa

Justizia eta adiskidetzea ez dira kontzeptu kontrajarriak, nahiz eta askotan hala diruditen. Kontrajartze hori interesatua da batzuetan, dilema faltsuak sorrarazten dituelako. Beste batzuetan, ordea, dilemak errealak dira eta justizia eta adiskidetzea kontrajartzea (edo justizia eta bakea) hautatu ezinezko aukera da gatazkako parteentzat eta bitartekariarentzat. Baina, halakoetan ere, bake egonkor eta iraunkorra eta bene-benetako adiskidetzea lortzeko bide bakarra izango da guztiz ez sakrifikatzea biktimek egia, justizia eta ordaintza, eta erakunde-erreforma lortzeko duten eskubidea. Jakina, interesatu guztiek egon beharko dute prest zerbaitetan amore emateko, justizia lortzea ez dagoelako bakar baten esku. Baina akats larria izango litzateke gatazkaren parte izan gabe gatazkaren ondorioak jasan dituztenei, soilik haiei, amore emateko eskatuz hastea. Gerraren dinamikak kanpoan utzi zituen, eta bigarren mailako hiritartzat hartu. Orain, bakearen dinamikak beren duintasuna eta erabateko hiritar izateko eskubidea errespetatzeko modua aurkitu behar ditu.

Hitzaldiaren inguruko oharrak

* New Yorkeko Trantsizioko Justiziarako Nazioarteko Zentroko Lehendakaria; NBEko Idazkari Nagusiaren Aholkulari Berezia Genozidioak Prebenitzeko.

¹ Hegoafrikan Egia eta Adiskidetzea sustatzeko prozesuaren alde on eta txarren azterketa sakona egitea saiakera honen asmoaz haratago doa. Nolanahi, aipatzekoa da hasiera batean inmunitatea giza eskubideen nazioarteko estandarretara egokitu zela, baina uko egin zirenak prozesatzeko politika aktiborik ez edukitzeak agerian utzi zuen prozesu hark ere bazituela ahulezia organikoak, beste alderdi batzuei erreparatuta benetan aintzat hartzekoa den arren. Ikus, Garth Meintjes eta Juan E. Méndez, *Reconciling Amnesties with Universal Jurisdiction*, *International Law Forum*, The Review of the International Law Association, The Hague, Kluwer, 2. liburukia, 2. alea, 2000.

² Emandako epai nagusien, itun-organoen ebazpenen eta Nazio Batuen begirale bereziek egindako txostenen azterketa sakonagoa ezagutu nahi izanez gero, ikus Juan E Méndez, *Accountability for Past Abuses*, *Human Rights Quarterly*, 19. liburukia, 2. alea, 1997ko maiatza (batez ere, 6. oin-oharrear aipatzen diren iturriak).

³ Ibid.

⁴ Kofi Anan, *Rule of Law and Transitional Justice in Conflict and Post Conflict Societies*, Nazio Batuak 2004ko abuztua. Ikus, baita ere, 1999an Nazio Batutako Gai Politikoetarako Sailak prestatutako Bitartekarientzako Jarraibideak (ez dira argitaratu).

⁵ Aipatutako arauak ez diete erreferentziarik egiten adiskidetze-praktikei edo-mekanismoei. Halatan ere, saiakera honetako beste atal batean ere azaltzen denez, batzuetan antagonisten edo komunitate liskartuen artean adiskidetzea lortzeko beharrezkoak izango dira bereziki diseinatutako politikak.


⁶ Genevako Konbentzioan (1948ko abuztuaren 12a) eginiko II. Protokolo Gehigarriaren 6. artikulua, 5. tartekia, Nazioarteko Hedapena ez duten Gatazka Armatuen Biktimak Babesteari buruzkoa (1977ko ekainaren 8a).


⁷ John Dugard, *Reconciliation and Justice: The South African Experience*, 8 *Transnational Law and Contemporary Problems* 277-301, 1998ko udazkena.

⁸ Meintjes y Méndez, Hegoafrikako esperientziaren adibide batzuk.

⁹ Juan E Méndez, *National Reconciliation, Transitional Justice and the International Criminal Court*, *Ethics & International Affairs* (Review of the Carnegie Council on International Affairs), 15. liburukia, 1. alea, 2001.

¹⁰ José Zalaquett, *Confronting Human Rights Violations Committed by Former Governments: Principles Applicable and Political Constraints*, *State Crimes: Punishment and Pardon*, Aspen Institute, 1989.





Eztabaida saioa

NORA IRMA MORALES DE CORTIÑAS
RAFAEL BENITEZ
BILL BOWRING
CHARLES VILLA-VICENCIO
JOHN P. LINSTROTH
CARLOS MARTÍN BERISTAIN

NORA IRMA MORALES DE CORTIÑAS

Ni protokoloa, teknikoa den hori haustera nator, eta esan nahi dut duela ordu banaka batzuk Julietaren birramona naizela, eta hementxe, Euskal Herrian, jakin dut birramona naizela, beraz oso pozik nago.

Bide batez, duela bi hilabete Argentinan desagertutako baten argazkia erakutsi nahi dut. Orain hogeita hamar urte, lekuko izan zen (desagertuta egon ondoren) bera torturatu zuen genozida bat kondenatzeko epaiketa batean. Baina genozida hori kondenatzeko testigantza eman eta gero, berriz ere desagertzea pairatu du. Azken bi hilabeteotan ez dakigu ezertxo ere Julio Lópezi buruz.

Egoera oso larrien kontakizun ugari entzun ondoren egunotan guztiotan, hemen oinarritzkoa den zerbait falta izan dela pentsatu dut, Estatu-terrorismoaz hitz egitea. Argentinan Estatu-terrorismoa izan dugu. Argentinan indar armatuak beren herrialdearen okupazio-armada izan ziren. Metodologia zital eta krudela erabili zuten, pertsonen desagertze bortxazkoa, krimenik krimenena den hori, pertsona bat izatetik ez izatera pasatzen deneko hori. Badu antza metodologia Naziaren lainoarekin eta gauarekin. Metodologia hori berrogei eta berrogeita hamarrek hamarkadetako Aljeriatik eta Indotxinatik ikasi eta pixkanaka gure kontinentera pasatu zuten. Gero, Ameriketako Eskolan hobetu zuten. Aurrena, Panaman zegoela, gero Georgian. Han prestatu zituzten torturagintzarako, metodologia izugarri horretarako, hegoaldeko herrialdeetako ehunen bat mila militar.

Eta guk, Amok, hasieran, elkarretaratzen hastean, bata besteari begietara begiratu, eta galdetu eta esaten genion: zergatik eraman zituzten gure seme-alabak? Eta ama bakoitzaren kontakizunarekin, gero eta gehiago jakiten hasi ginen: militanteak zirelako, militante sozialak, politikoak, sindikalak, bizitzaren aldeko, justizia soziala duen herrialde baten aldeko militanteak. Gero denboraldi bat igaro zen eta galdezka hasi ginen: zertarako eraman zituzten? Eta kaleak ematen duen esperientzia apur gehiago horrekin, jakin genuen sistema ekonomiko neoliberal bat errotik antolatzeke izan zela; ordurako hasiak zeudela erabiltzen, 55. urtean, militarrek zibilekin, Maiatza Plaza bonbakatu zutenean, manifestazio batean milaka pertsona zeudela, eta hantxe deliberatu zutela ongizate-gizartea bukatzera zihoala

Argentinan, berrogei eta berrogeita hamarreko hamarkadetan landuz joan zen ongizate-egoera, betiere langileen ekarriarekin, ahaleginarekin. Bazegoen ongizate-egoera hori lana zegoen tokian, hori gauza sinplea!, ez al da egia? Ongizate-egoerak lana dagoenean funtzionatzen du, herriak langileok baikara eta ez dugu inork emandako limosnetatik bizi nahi izaten –irauteko kuota bat eta ez erreklamatu eta ez bizi pena ematen duen eta inork nahi ez duen egoera horretan-. Guk lana egotea nahi dugu, zeren beren etxeari eusteko lan egin nahi duten gizon eta emakumeek badutelako eskubide hori, lanerako eskubidea. Lanerako eskubidearekin osasunerako, hezkuntzarako, etxebizitzarako, lurjabetzarako eskubidea ere errespetatzen da. Eta hemen sartzen da gure seme-alaben historia. Zer nahi zuten haiek? Justizia soziala duen herrialde bat nahi zuten. Denentzat izango zen herrialde bat nahi zuten, eta ez sektore batentzat, oraindik daukagun neoliberalismoak nahi duenez, asko gutxi izentzat, eta gutxi –edo batzuetan ezer ez–, askorentzat. Eta hori zen borroka.

Eta Estatu-terrorismoa antolatu zuten, 1976ko martxoaren 24an hasi zena, diktadura zibiko-militarra abiatzean. Eta entzun: «diktadura zibiko-militarra», ezen ez baitziren militarrek soilik izan, zibilak izan ziren (enpresarioak, bankujabeak, botere ekonomiko hori). Eta Argentinako eliza katolikoaren kupulako ia gehiengoa ere bai. Militarrek berek bakarrik ezin zuten Estatu-terrorismoa egin. Baina gobernu konstituzional batekin hasi zen. Maiatza Plazako bonbaketa gainera izan ziren beste errepresio-mugimendu batzuk ere herria protestaka altxatu zen bakoitzean. «Cordobazoa», «Rosariozkoa» eta beste hilketa handi hori, Treleweko sarraskia, non militante politikoen talde bat sarraskitu baitzuten, guztiari ihesaldi baten itxura emanaz. Egia da batzuek ihes egin nahi zutela, Txilera joateko, eta horietako batzuk iritsi zirela, baina gero sarraskitu egin zituzten aireportu batean, Chubut-eko probintzian. Hau da terrorismo horren historia.

276

Gainerakoa, urte asko igaro ondoren jakin genuen. Amok ama izaten jarraitzen dugu, nahiz eta orain ez izan ama pribatu, zeren ama publiko ere bagara. Egunero irten behar izaten dugu kalera. Gure bizitza programatu egiten da. Gauean, iristen garenean dagoeneko han dago erantzungailuan biharamunerako prestaturiko guztia. Baina indar handiarekin egiten dugu hori. Geure seme-alabengatik eta geure herriarengatik egiten dugu, geratu zirengatik, borrokan jarraitzen dutengatik, ahal zuten lekutik, gaurko eguna arte jarraitzen dutengatik, preso egon zirengatik, erbestera joan behar izan zutenengatik. Kanpoko erbestera eta barruko erbestera, kanpoko baina oraindik krudelagoa den horretara, zeren etxez aldatzea baita, haurrei beren abizenik ez emateko esatea baita, etxera laguntxorik ez ekartzeko esatea baita. Moldatuz joatea da, beste fisionomia bat izateraino, nor bere bizia eta familiarena salbatzeko.

Eta ibili horretan eta xalotasun horretan beste gauza batzuek ere ohartuz gindoazen. Eta nola hasten da hori? Zer gertatzen zen? Gero, albo-herrialdeetako beste ama batzuekin elkartzean, pixkanaka jakin genuen, deuseztapen-plan baten parte zela, Estatu Batuetako Estatu Departamentutik programatua. Kissinger jauna bidali zuten. Nobel Saridun izendatu zuten. Esan liteke heriotza eta tortura barreiatzea saritzen dela. Egun batean hori amaitu egingo da. Indarrez kenduko diogu Nobel Sari hori. Latinoamerikako Hego Konoko diktadurak antolatzen joan zen. Argentina ez zen Estatu-terrorismo hori bizi izan zuen bakarra izan. Bolivian, Paraguain, Txilen, Uruguain, Brasilen ere (Latinoamerikako Hego Konoan) barreiatu zituzten heriotza eta tortura. Eta erabateko tortura. Zeren bahitutako emakume haurdunen jaioberriak bahitu –eta berenganatu– baitzituzten, eta militarren eta zibilen artean banatu. Oraindik 400 baino gehiago dira haur horietatik, gaur egun 30 urte dituztenak, beren identitatea berreskuratu gabeak. Eta Maiatza Plazako amonak horien bila dabilta. Baina gainera hori krimena da –haurtxoei identitatea lapurtzea–, gainera, tortura,

hain zitalki praktikatu zutena, adibidez, emakume haurdun bati koilara bat ezartzen zioten baginan eta akuilu (picana) elektrikoa atxikitzen zioten koilara horri. Horregatik, barkamenaz eta berradiskidetzeaz hitz egitean, nik neure buruari galdetzen diot: zuetako inork uste al du gertakari horiek justifikaturik daudela egoeraren batean? Ez. Zigortu egin behar dira sekula gehiago beste inork berriro horrelakorik ez giteko. Gainera –oraindik «beste zerbait» gehiago tortura horren barruan–, jendea torturatzea eta, biziarekin, heriotze-hegaldietara eramatea eta ibaira edo itsasora amiltzea, bizirik. Zertarako? Guk behin galdetu egin genuen: Zertarako hori? Marinel alemaniar batek esan zigun arrainek jan zitzaten zela. Horregatik botatzen zuten jendea bizirik. Krudelkeria gorena.

Ni entzuten egon naiz izugarrikeria guztia egin dizkidaten kontakizunen bitartez eta agian horregatik ni neu zertxobait gogorragoa naiz kontakizunerako, baina hain da larria gertatutako guztia! Nik terrorismoa, terrorismoa entzun dut. Eta Estatu-terrorismoa zer? Gaur entzun dut nola jaun batek esan duen epaiketa bat jarri diotela Rumsfeldi. Iruditu zait zerbait egin beharra dagoela. Ez dagoela uzterik lasai pasatzen benetako terroristei, herrialde guztietan jendea hiltzen eta torturatzen ari direnei, ondasunez jabetu nahi dutenei –zeren orain Iraken eta Afganistanen gertatzen ari dena ez baita gerra, herrien lurrez eta aberastasunez jabetzeko inbasioak dira–. Ez dezagun aldatu (kontakizuna), zeren mozturrotuz joango baikara eta gero ezin izango dugu atzera jo. Historia aldrebesten badugu, ezin izango dugu atzera egin. Pentsatzen hasi beharra dago nor zigortuko dugun Estatuak eragiten eta armatzen duen terrorismo zital horregatik.

Hau Argentinako historiaren zatitxo bat da. Eta terrorismoaren aurkako borroka horren barruan kontatuko dizuet Espainian sartu nintzenean bizi izandako eszena. Hegazkinean, nire lerroan, Boliviako emakume bat zetorren, gaztea, 17 urteko iloba mutilarekin. Batera jaitsi ginen hegazkinetik. Haiek hona zetozen, Bilbora, eta galdu egin nituen zabar samarra naizelako eta autobus-geltokira joan nintzen, autobusean baintorren. Galdu egin nituen izeba-ilobak. Gero iloba berriz topatzean –ordu eta erdi bat geroago–, esan nion: »Eta izeba?» «Galdu egin dut» «Nolatan galdu duzu izeba?» »Bai, ilara batean nengoen, immigrazio-lerro batean». Nik aurrera egin dut. Aurrea hartu diot. Zain egon naiz. Ez dut berriz ikusi. Desagertu egin da ilaratik. Ez dut berriz ikusi». «Nolatan ez duzula berriz ikusi?» «Ez, ez dago». Esan nion: «Tira, goazen, haren bila». Guardia Zibilengana joan ginen eta bertan zegoen agenteak oso gizalege handiarekin Immigrazioa lagundu gintuen. Emakumea erreteniturik zeukaten. Bi ordu gelatxo batean galdeketa egiteko. Jakina, beltzarana, aurpegi beltzekoa. Paper guztiak behar bezala zeuzkan, inolako zalantzarik gabe. Gainera, gonbidapen batekin zetorren Espainiara. Aldean zekarren gonbidapena, behar bezala. A zer ezustekoa mutilarena izeba galdu zuela eta!

Hauek kontatzea doi-doi merezi duten gertaerak dira, baina kezkatzen gaituztenak. Ni neu Maiatza Plazako ama bat bezala aritu nintzen han. Esan nion «Bai zera! Ez, hori ezinezkoa da, goazen hara, goazen enbaxadorearekin hitz egitera». Eta poliziak begiratzen zidan esan nahian bezala: «Nola desagertu liteke hor barruan badago? Eta gero esan zidan: «Zoaz lasai, andrea, inor ez dago eta erreteniturik».

Gure seme-alabak, desagertu ziren garai horretan, subertsiboak ziren. Orain »terrorista» izena hartuko lukete egiten zuten harengatik berarengatik, justizia sozialaren alde borroka egiteagatik, denentzako herrialde baten alde borroka egiteagatik, beren herriarekiko eta gainerako herriekiko elkartasuna adierazteko gogoia izateagatik. Zeren eta gure seme-alabek beste herrietara begiratzen baitzuten. Argi bat zuten beren bidean, Che Guevararena. Hori esan beharra dago, horrek argitzen baitzien historia. Eta gaur egun terroristak direla esango lukete. Eta horixe da munduan gertatzen ari dena, legeak ezarri eta munduan barrena

barreiatzen dituen terrorista handienari esker. Adibidez, Haitik daukan inbasioa. Nork programatu zuen? Estatu Batuek programatu zuten. Ebazpen bat atera zuten Nazio Batuetan: «Ongia nahi duten herrialde guztiek jarraitu egin behar didate». Eta orduan Haitira doaz, kontinenteak daukan herrialderik txiroenera, daukaten janari eta ur apurra kentzera. Eta hor daude 14 herrialde inguru egun osoan armak herriari apuntatzen. Ni bizpahiru misiotan izan nintzen Adolfo Pérez Esquivel eta beste batzuekin, eta ikusi egin dugu eta argazkiak dauzkagu. Biztanleria osoari apuntatuz doaz (beraiek «terrorismo» deitzen dutenari). Ulertezina da. Baina ez naiz sartuko alor horretan nahikoa gauza entzuten baitugu hemen.

Baina, halaber, esan nahi dut Argentinan lorpenak ere izan ditugula azkenaldi honetan. Zeren eta Argentinan, Estatu-terrorismo anker horren ondoren (eta nik hemen, aretoan, bihotzke neure seme horietako bat daukat, Juan Méndez, eta beste seme bat, Juan Vandeleer, baina Juan Gustavorekiko militantziaren garaikoa da, eta uste dut nik esaten dudana berak sentitu egiten duela. Preso politikoa izan zen eta gurekin borroka- eta emozio-une ugari partekatu zituen) amok kalera irten ginen eta Maiatza Plazan elkartu ginen, Errepublikaren plaza nagusia baita, eta hor egin baitziren askatasun-oihuak eta herri-borrokak. Eta hor hasi ginen kalera irteten, laster 30 urte beteko dituen bilaketa horretan. Hogeita hamar urte, bertara ostegunero joanez, eta jarraituko dugun erresistentziaren martxa honekin (Hebe de Bonafini andreak dio berak ez duela gehiago egingo, itxuraz bizitza konpondu zaiolako bertan). Ez dakigu zer gertatu den atxilotu desagertu bakoitzarekin eta guztiekin. Justizia oso geldoa da bi inpunitate-lege izan baitira: «Azken Puntua» eta «Obedientzia Betebeharrekoa», genozidentzako indultuak, eta asko kosta zaigu horiek lurrera botatzea, mobilizazio asko kaleetan, eskakizun asko, protesta asko. Ez genuen sinesten horiek lurrera botatzea lortuko genuenik. Mugiezinak iruditzen zitzaizkigun. Guztiarekin ere, herri-borrokarekin lurrera bota genituen. Eta gaur egun berriz ireki dira epaiketak. Besterik ez, justizia hogeituz geldi egon ondoren, lokartze horren ondoren, orain, hainbeste kostatzen da! Eta, begira, lehen bi epaiketak, inpunitate-lege horiek baliogabetzat aitortu ondoren, López desagertzen da testigantza ematera joateagatik genozida bat kondenatzeko. Zenbat kostatzen zaigun!

278

Esan behar dizuet, guk, Amok, senideok, amonok, ez dugula berradiskidetu nahi genozidekin, asasinatzaileekin; justizia egon dadin nahi dugu, kartzelara joan daitezen nahi dugu sekula gehiago gerta ez dadin. Zeren eta herriarekin berradiskideturik bizi baikara. Herriarekin gabiltza, errespetua diogu herriari eta berak ere errespetua digu, eta hori da bidea –egiaren, justiziaren, oroimenaren bidea, baina ez berradiskidetzearena–. Nahiz eta nik aitortzen dudana hemen, Euskal Herrian, Hego Afrikan, beste herrialde batzuetan, beste metodo bat izan litekeela. Gogoan dut Hego Afrikako apartheidak bukatu zenean diputatu batzuk etorri zirela amekin hitz egitera, jarraitu behar zuten bidez zer pentsatzen genuen jakitera. Esan genien egia eta justizia nahi genituela. Esan zigutenean han metodo bat erabiliko zutela, genozidak, errepresoreak, biktimarioa, torturatua izan zen pertsonaren aurrean aurrez aurre eseraziko zituena eta berradiskidetze-konponketa bat egingo zela, iruditu zitzaigun horrek ez zuela emaitza onik izango. Baina, tira, Hego Afrikan pasatzen denaren berri eman zuten: milioi bat biktima daude, milioi bat biktimario. Agian, gero, Hego Afrikako lagunak erantzungo du herrialde bakoitzean zer aldatzen den azaltzeko. Guretzat Estatu-terrorismoa izan zen, metodologia zital eta kriminal batekin. Nik, gaurdaino, ez dakit zer gertatu zen Gustavorekin. Ezer ez, berri bakar bat ere ez. Eta Argentinako Errepublikan badira artxiboak. Baina genozidak (militarrak eta zibilak) herritarren artean libre dabiltzan bitartean, Estatu-terrorismoaren apologia egiten jarraitzen dute. Badira kazetariak, «kazetaritza horia» deritzenarenak, berriro Estatu-terrorismoa izan zenaren apologia egitera

itzultzen direnak. Militarrek ez dute epaituak eta kondenatuak izan nahi. Inpunitatean bizi nahi dute. Ez dute lortuko, zeren eta ama bat, aita bat, seme bat, anaia bat, adiskide bat geratzen den bitartean, eragin ziguten min hori sentitzen duena, ezin daiteke bakar bate ere inpunitatean gera. Zure seme-alabekin eta bilobekin berriro horrelakorik egin ez dezaten.

Eta horretarako gaude, borrokan jarraitzeko, eta geure seme-alaben borroka egunero erreibindikatzeko. Oraindik falta den justizia sozialaren aldeko borroka hori egunero erreibindikatzeko. Oraindik Argentinan, orain berreskuratze ekonomikoan dagoen herrialde horretan, neoliberalismoa dela eta, oraindik diru gehiago dago aberatsentzat eta diru gutxiago txiroentzat. Hori aldatu beharra daukagu, zeren eta geure seme-alabak erreibindikatzen ditugunean, esaten ari gara, horiekin guztiekin zer gertatu zen esatea nahi dugula, inork bere egindako haurtxoek beren identitatea berreskuratzea nahi dugula, herrialdean justizia soziala izatea nahi dugula, aberastasunaren birbanaketa nahi dugula, zeren eta hori baita haiek erreibindikatzeko modua. Argentinak orain superavita dauka. Zergatik bildu behar dute (dirua) kanpo-zorra ordaintzeko bakarrik, gurea ez dena, herriarena ez den zorra. Argentinako kanpo-zorrak 30.000 desagerturen eta atxiloturen –gizonezkoren eta emakumezkoren– giza kostua du, garai horretako 10.000 preso politikorena, milaka erbestereaturena eta oraindik ere egunean gosez eta gaixotasun sendagarriekin hiltzen diren 100 haur baino gehiagorena. Zeuok esan borrokatzen jarraitu beharrik dugun ala ez. Nola zahartuko gara, ba, amak? Nork esan du hori? Jarraitu egin behar dugu. Jarraitu egin behar dugu eta zuen laguntzarekin. Eta hemen, herrialde honetan ere, bakearen alde borroka eginez, hemen eta bakea behar duten herrialdeetan. Baina ez hilerrietako bakea. Zoriontsua izango den herri batean bizi izateko bakea. Hori da nahi dugun bakea. Herri batean borroka egiten denean, bidezkoa denaren alde borrokatzen da, herri hori errespetatua izan dadin. Eta horixe da guk nahi duguna.

279

Rafael Sainz de Rosas

Begi-bistan dago handinahikeria litzatekeela nire aldetik hitzik gehitu nahi izatea bizilekukotza honen eta analisi politiko hain zorrotz honen ondoren.

Kontua da analisi-gai batzuk planteatu direla Bowring jaunak ez ezik Benitez eta Villa-Vicencio jaunek esandakoaren inguruan, baita Nora Morales Cortiñas andreak proposatu duenaren inguruan ere. Nolanahi ere, nik neuk lehentasuna emango nieke zuek planteatu nahi dituzuen gogoetei edo galderei.

Ramón Salinas Erkiaga

Eusko Alkartasunako Mahai Nazionaleko kidea naiz. Lehenik eta behin eskerrak eman nahi dizkiot Eusko Jaurlaritzari, eta Justizia Sailari oso bereziki batzar hau antolatu delako. Guztiz interesgarria suertatu zait zuei entzun ahal izana.

Nik neuk bi auzi aipatu nahiko nituzke. Bata torturaren gaia izango litzateke eta bestea autodeterminazio-eskubidearena. Hori guztia kasu honetan Euskal Herriari aplikaturik, gatazka ebazteari eta bake-prozesuari begira.

Torturaren gaiarekin hasiko naiz. Zuzenbide-estatu baten oinarritzko balio gisa kontsideraturik giza eskubideak eta bizi-eskubidea zutabe funtsezkoetako bat bezala, torturaren bide malkarretik abiatu nahi dut, Estatu ugarietako gobernu askok beren historia osoan hainbeste praktikatua. Tortura gaitzesten duten dokumentu garrantzitsu batzuen aipamena egingo dut –barkatu horrekin jarraitzea baina oso garrantzitsua delakoan nago-, horien

artean ditugu Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala, haren bosgarren atalean; gero Genevako hitzarmenak ditugu, batez ere Genevako hiru hitzarmenetako hirugarren atala eta Genevako hirugarren hitzarmeneko 99. atala. Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko ituna dugu, haren zazpigarren atalean; Giza Eskubideen eta Oinarrizko Askatasunen Baberako Europar Hitzarmena dugu haren hirugarren atalean; Giza Eskubideen Hitzarmen Amerikarra, 5. ataleko 2. sailean; Giza Eskubideen eta Herrien Gutun Afrikarra, bosgarren atalean; hor dugu Torturaren eta beste tratu edo oinaze krudel, anker edo degradatzaileen aurkako Konbentzioa. Horiek guztiek erabat gaitzesten dute torturaren «erreminta» hori. Honetaz ari banaiz... zer esango dut?, adibidez, sutan jartzen nau sarritan Espainiako Gobernuaren Estatuak Espainian tortura dagoela ukatzeak. Batez ere ETako presoekin zerikusia duenean, baita ezker abertzaleko jendearekin ere, atxilotzen dutenean. Sarritan Espainiako Gobernuak, edo ia beti, alegatzen du ETak baduela itun bat bere jendeari esaten diona sistematikoki aitortzeko torturatu egin dituztela. Hori ezin hobeki gezurta daitekeen kontua da, eta horren frogara da, adibidez, Nazio Batuetako kontalari bat baino gehiago daudela, Giza Eskubideen Batzordekoak, eta horien artean Ted Van Boemel aipatuko dut bereziki. Ted Van Boemelek, 2004/02/06ko ebazpenean zenbait gai gomendatu zizkion Espainiako Gobernuari, horietako batean esan zuen ekidin egin behar zela, ETaren inguruko edo ezker abertzaleko jendea hartzean, horiek inkomunikatzea. Inkomunikazioa oso gauza txarra da eta badakigu torturaren parte handi bat dela. Berak zioen inkomunikazioa deuseztatu egin behar zela. Hori ikusgai egin behar zela. Adibidez, gomendio batzuk egiten zituen: jakinarazi egin beharko litzatekeela nola zuen izena galdeketetako jendeak, ikusarazi, galdeketak grabatu beharko liratekeela. Manfred Novak, azken kontalariak ere gauza bera esan zuen. Nik uste dut hau oso gertakari garrantzitsua dela eta argitu egin beharko litzatekeela.

280

RAFAEL SAINZ DE ROSA

Txostengileei pasatuko diet galdera. Eta ohar bat: Manfred Novak jaunak, 2006ko martxo txostenean, ez ditu bakarrik markatzen Espainiako Estatuari egindako segimendua eta egindako gomendioak ez betetzea, baita Eusko Jaurlaritzari eta Ertzaintzari egindako segimendua eta gomendioak ez betetzea ere markatzen du. Bere testuinguru orokorrean kokatzearen, zeren eta bakearen ideiarekin baitu zerikusia, berradiskidetzearen ideiarekin, geure buruari begiratzearen ideiarekin, ea zer hobetu dezakegun ikusteko, eta horrela aurrera egiteko. Norbaitek erantzun nahi al du?

Nora Irma Morales de Cortiñas

Nik esan nahi dut, bai horixe, gaitzesi egiten dugula tortura, Espainian, eta oraindik praktikatzeko den beste edozein herrialdetan.

Rafael Benitez

Europako Kontseiluari dagokionez, jakina, torturaren debekua erabatekoa da, ez dago inolako murrizketa posiblerik, ezta inolako zirkunstantziarik tortura justifika lezakeenik. Hortik, adibidez, inkomunikazioa tortura dela ondorioztatzea, beste auzi bat da. Europako Kontseiluari dagokionez, alde batetik Giza Eskubideen Europako Auzitegia dago, eta horrek erabaki batean baino gehiagotan dagoeneko landu du gai hori, eta bestetik, Torturaren Prebentziorako Komitea dago, harrialde kideetako atxilotze-zentroak erregulari bisitatu eta egoera aztertzen duena. Baina, tortura debekatzeari dagokionez, erabatekoa da eta ez

dago justifika daitekeen egoerarik, eta horretan ez dagoela inolako zalantzarik uste dut. Zoritxarrez, nahiz eta nazioarteko akordio bat egon eta edozein zirkunstantzian tortura justifikazina delako kontsentsua eta ez dagoela inolako modurik erabateko debeku hori baliogabetzeko, zoritxarrez, oraindik munduan praktikatzen jarraitzen dute. Denok ekarpena egitea eskatzen duen borroka da hori. «Maiatzeko amak» esan duenari buruz, uste dut zoritxarrez oraindik munduan jarraitzen duen borroka bat dela, eta indarrak batu eta borrokan jarraitu behar dela.

Bill Bowring

Gehitu nahi dut bakarrik Giza Eskubideen Europako Auzitegiak gaitzetsi duen herrialde batetik natorrela, eta bai Ted Van Boemelek eta Manfred Novak jaunek kritikatu dutela, eta uste dut hau gai garrantzitsu bat dela Europako herrialde askotan. Halaber, esan nahi dut demokraziaren eta Giza Eskubideen aldeko Juristen Europar Elkarteak, zeinaren lehendakari bainaiz, oso harro dago Julen Arzuagarekin eta Behatokiko, Giza Eskubideen Euskal Behatokiko lagunekin harreman estuan lan egiteaz. Lantzen dituzten gaiak oso hurbiletik jarraitzen ditugun gaiak dira egiten duten lanaren bitartez.

John P. Linstroth

Bi iruzkin dauzkat terrorismoaren definizioaz orokorrean dagoen nebulosari buruz. Reagan administrazioaren garaian aldatu egin zuten definizioa. Estatu Batuetako administrazio horretan, George Washington, Estatu Batuetako lehen presidentea terroristatzat hartuko zuketena. Beste iruzkin batekin erlazionatzeko: Ingalaterrako unibertsitate batean bazkari batean esku hartu nuen neure adiskide irlandarrekin. Otordu horretan unibertsitateko administratzailea zegoen, eta militar ohia izatea suertatu zen, eta esan zuen «IRAKo guztiak gaizkile arruntak dira» edo antzeko zerbait, eta orduan nire adiskide irlandarrak esan zuen: «gaizkile arruntek ez dute heriotza arteko gose-grebarik egiten beren ideia politikoen-gatik.» Baieztapen honek zer iruzkin iradokitzen dizuen jakin nahiko nuke, besterik ez.

Gero, badut galdera bat Rafaelentzat, terrorismoaren definizioari berriro helduz, izan ere, badakigu, oso lainotsua izan daitekeela, diferentzia argia ezar dezake nazioarteko terrorismoaren eta askapen-mugimenduen artean, baina azken txostengileak aipatu duen Estatu-terrorismoa benetan aipatu gabe. Berriki argitaraturiko libururik hoberenetako bat Columbiako irakasle Mahmood Mamdani-rena da Good Muslim bad Muslim (Musulman ona, Musulman txarra). Bertan dio Al-Qaeda nola den gerra hotzaren ekoizpen bat, zer gertatu zen muhaidinekin Afganistanen. Bada beste liburu bat, bilduma on samar bat ere, Death Squad (Herio Eskuadroia) deritzona, Estatu-politikaren terrorismoaz. Behar bada iruzkinen bat egin nahiko duzue ildo honetatik.

Bill Bowring

Ados nago berriki esan den guztiarekin. Dagoeneko aipatu ditut Charles Clarke, gure Barne Ministro ohiaren iruzkinak, guztiz harrigarriak iruditzen zaizkidanak, eta are gehiago antzinako inperio batetik etorrira, non joan den mendean borroka anti-kolonial ugari izan baitzen, orain terroristatzat hartuko lirakeenak. Gehitu nahi dut, nire familiaren holandar-amerikar aldetik, nire aurreko batek George Washingtonekin borroka egin zuela britainiarren aurka, Amerikar Independentziaren Gerran eta, horregatik, ia segurua da «terrorista» baten ondorengoa naizela, nahiz eta ni neu ez izan.

Rafael Benítez

Uste dut nazioarteko komunitateak hainbesteko zailtasunak izatea gai hau konpontzeko ez dela kointzidentzia hutsa. Ohiko delitu bat eta terrorismoa bereizten dituen motibazio politikoa da; bestela, ez genuke beharko inolako beste hesirik. Izatez, motibazio politikoa da. Nazioarteko komunitateen zailtasuna da, eta horretan nik uste akordio batera iritsi garela, gauza batzuk toleraezinak izatea, ezta kausa politiko baten izenean ere. Esaterako, zibil errugabeen heriotza tolera ezin daitekeen zerbitu da, ezta kausa politiko bat burutzeko ere, eta uste dut horretan datzala bereizketa. Jakina, aurrekari horiekin, zailtasuna dago ea nola uztartzen den hori helburu legitimo batzuk lortzearekin, adibidez, zapalkuntzari edo beste kausa batzuen aurka borroka egitearekin. Orain arte doktrina bat izan da nazioarteko legerian herriek autodeterminaziorako duten eskubideaz. Jadanik hor zegoen, ez da ezer berria, ez zen irailaren 11n sortu, baizik eta askoz lehenagokoa da eta deskolonizazio-prozesuarekin loturik dago, baina gaur egun, neurri handi batean, oreka dago hau esatean: biolentzia mota batzuk, pertsonak asasinatzea, ondasunak indiskriminatuki suntsitzea, pertsonak bahitzea... horrelakoak, ez dagoela ezein motiborengatik justifikatzerik. Nahiz eta horiek izaera politikoko kontsiderazio oso garrantzitsuak izan, horrek berak ere ezin ditzake justifika, eta interesgarria da jakitea badagoela akordio bat –eta neure aurkezpenean esan nuena da– 90eko hamarkadatik datorrena, justifikaziorik ez dagoela esateko, eta akordio hori NBEtik dator. Ez da Segurtasun Kontseiluak onartutako testu bat, Batzar Nagusiak onarturiko testu bat da, Nazio Batuen sistemaren barruko organo demokratikoena da, eta denok dakigu NBEa ez dela perfektua, baina horixe da daukaguna, eta NBEaren sistemaren barruan, Batzar Nagusia da, zalantzarik gabe, organo demokratikoena, herrialde bat, boto bat. Tira, Nazio Batuen Batzar Nagusiak gaitzetsi egin du terrorismoaren edozein egintza eta praktika kriminalizat eta justifikaezintzat kalifikatuz, motibazioa, formak, edozein pertsona esandakoa alde batera utzita, egintza hori burutu den tokia alde batera utzita eta terrorismoarekin duen erlazioa alde batera utzita. Bada, beraz, akordio bat.

282

Alabaina, geure buruari egin diezaiokegun galdera hau da: behar al dugu gaur egun terrorismoaren definizio bat benetan terrorismoaren adierazpen batzuei, agian adierazpen handienei ekiteko? Erantzuna ezezkoa da. Adierazpen horien ia gehientsuenei ekin diezaiekegu alde aurretiko definiziorik izan beharrik gabe. Zer ekarpen egingo digu definizioak? Argitasun pixka baten ekarpena egingo lioke gaur egungo egoerari, justizia pixka bat gehiagoren ekarpena egingo lioke, zeren eta arazoetako batzuk ere jorratuko bailituzke. Zoritxarrez, gaur ez gaude arazo horietako batzuk konpontzeko eran, eta, uste dut, horrek argitzen duela gauzen gaur egungo egoera.

Nire esperientzia pertsonala da terrorismo musulman erradikalari dagokionez ondorio batera iritsi naizela: terrorismo-forma horien oinarritzko kausei buruzko pertsona ez-erradikalen pertzepzioaren parte handi batek zerikusia duela injustizia-sentimendu benetakoa batekin. Hor kanpoan dagoen sentsazioak dio mundua ez dela toki justua, jendeak ez dituela aukera berdinak, eta, oro har, justizia falta dela munduan. Eta pertsona batzuek etorkizun-ikuspegi bera ez dutenez, daukaten «arma hoberena» airean barrena hegaz egitea da. Batzuek pentsa dezakete hori kultura-gabezia batetik edo ulerkuntza-gabezia batetik datorrela. Nahi duzuen bezala deitu.

Baina egia da, eta neure esperientzia propioa da, nazioarteko komunitatearen gehiengo zabala dela gaur egungo munduan injustizia asko dagoela uste duena, eta horregatik gaude aldaketa baten aurrean, eta horrek jotzen du terrorismoaren sustraian dauden kausak aztertzerako, errepresioan soilik zentratu beharrean edo deuseztapenean, nahiz eta horiek, argi eta garbi, beharrezkoak izan, zeren eta ez baitago hor begira geratzerik eraikinak nola

suntsitzen diren, eta milaka errugabe nola hiltzen diren ikusten, baina uste dut ahalegin handi bat egin behar dela tolerantzia-kultura bat sustatzeko, eta kulturen eta erlijioen arteko elkarrizketa bultzatzeko. Horrek ez ditu emaitzak epe laburrean ekarriko, baina argi baino argiago dago irteera bakarra dela.

Lehen Idazkari Nagusiaren hitzak aipatuz bukatu dut neure aurkezpena. Nazioarteko komunitateari gerta dakiokeen gauzarik txarrena da sinesten ditugun balioen defentsan, nola giza eskubideekiko edota zuzenbide-estatuarekiko erlazioan, azkenean horiei uko egitea. Eta ikusi ditugun gauzetako batzuk, atxilotzegune sekretuak, Europako lurraldearen gaineko hegaldiak, argi dago ez direla bidea. Metodo horiek ez dira moralki gaitzesgarriak soilik, baizik eta oso arriskutsuak nazioarteko komunitatea nazioarteko terrorismoaren aurka egiten ari den baterako borrokari eusteko.

Charles Villa-Vicencio

Oso bizkor. Niri esperientziak argi eta garbi erakusten dit, Hego Afrikako egoeran tarteko izan eta beste gatazka-egoera batzuetan lan egin ostean, batez ere Afrikan, hor kanpoan oso terrorista psikopata gutxi dagoela. Terroristak sortu egiten dira, eta dagoeneko hitz egin dugu horretaz. Nork definitzen du terrorista? Klase gidariak definitzen eta zedarritzen ditu. Beraz, definizioei buruz hitz egitea eta gai horren inguruan eztabaidatzea garrantzitsua denez (zeren eta oso garrantzitsua dela uste baitut) bi iruzkin egin nahi nituzke. Lehenik, jakina, esku hartu dudan egoera askotan, terrorista dira bakea lortzen dutenak. Ez baduzu militanteekin hitz egiten, ez bazara «terroristekin» esertzen, ez duzu akordiorik lortuko. Eta pertsona horiekin esertzen zarenean, agian aurkitzen hasten zara zerk eraman zituen portatu diren bezala portatzera. Bigarren iruzkina da uste dudala bakegileak hori izatea erabakitzen dutenak direla. Berrito, barkadazue, baina Hego Afrikako egoerara itzuliz, Mandela jaunari galdetu ziotenean norekin negoziatu behar zuen, esan zuen: «Ez dagokit niri beste aldeari esatea nork eseri behar duen negoziatio-mahaian». Orduan esan zuten: «Negoziatuko al zenuke P.W. Botharekin, terrorista batekin, Estatu-terrorista batekin?» Mandelak erantzun zuen: «Bakea eraiki nahi duen edonorekin negoziatuko dut. Ahaztu dezagun terrorista hitza».

283

Azken iruzkin bat. Arestian Sudanen hegoaldean ari izan naiz lanean. Pertsona talde batekin esertzen nintzen eta herrialdearen arazoez hitz egiten genuen. Eta gogoan dut Dinka buruzagi zahar bat, haren hitzek nirekin jarraituko baitute bizi naizen artean, eta hark esan zidan: «Barkatu, jauna. Ba al dakizu zer esan nahi duen bakegintzak? Badakizu zer esan nahi duen berradiskidetzeak?» Erantzun nion nik, «Esadazu, arren», eta hark esan zuen: «Zuhaitz beraren azpian zeure etsaiarekin esertzeko prest egotea, nornahi dela ere etsai hori, eta zernahi esaten duela ere. Bakegintza hori besterik ez da.»

Bill Bowring

Bi iruzkin labur-labur Rafaelak esan duenari buruz. Lehenik, eskerrak eman nahi nizkioke Europako Kontseiluaren lana gogoratu digulako, eta Dick Martírena bereziki, lan zoragarria egin baitu «extraordinary rendition» (aparteko errenditzea) ikertuz eta aipaturiko «extraordinary rendition» horrek torturaren erabilerarekin duen loturaz. Ekarpene handia da. Bigarrenik, terrorismoaren definizioari buruzko galderari dagokionez, ni Errusiaren aurkako kereila-jartzaile txetxeniarrak ordezkatzeko egon izan naiz kasu batean baino gehiagotan Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren aurrean, eta iazko urtean lehen sei kasuetan irabazi egin genuen. Emakumeak dira, amak, indar armatu errusiarrek beren ekintzatan

seme-alabak hil zizkietenak, adibidez, iheslari zibil talde bat bonbakatu zutenean. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak, Shamanov eta Nedopitko errusiar jeneralak gertakari horien erantzule aitortu ditu, eta, jakina, benetako erantzukizuna gorago ere iristen da. Horiek ez dira krimen edo asasinatze soilak, gerra-krimenak baizik. Terrorismo hitza erabili nahi izateak edo ez izateak ez du garrantzirik. Horrek soilik frogatzen du terrorismoa etiketa bat dela Estatu-funtzionarioek eta Estatuak egiten duenari aplikagarria. Nire galdera, oraingoz galdera erretorikoa dena, hau da: zer egin daiteke Europako Kontseilukidea den Estatu batekin, horrelako gauzak egiten dituenarekin, eta horregatik gaitzetsia izan arren berriz ere egiten jarraitzen duenarekin? Horra auzia.

Carlos Villán

Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen Garapenerako Espainiar Elkartearen Lehendakaria naiz. Nik, moderatzailearen baimenarekin, torturaren gaira itzuli nahi nuke, oso garrantzitsua iruditzen baitzait eta estatu-terrorismoaren adierazpen bat baita. Uste dut baiezta daitekeela herrialde honetan, Euskal Herrian, eta testuinguru espainiarrean, oro har, egon dela eta badagoela tortura. Tortura eta tratu txarrak. Epaibidez ere frogatua izan da, baita nazioarte bidez ere. Epaibidez, gogora dezagun, Auzitegi Gorenak berak aitortu zuen GAL Estatu-terrorismoaren fenomeno bat izan zela borroka antiterrorista egitean eta, estatuaren aldetik terrore-mekanismoak erabiliz estatuak bere burua deskalifikatzen duela borroka antiterroristan. Eta horixe bera ari da gertatzen oraintxe bertan Estatu batuetako administrazio errepublikarrak aldarrikatzen duen terrorearen aurkako borroka/gerra gutian. Argumentu berak dira. Alabaina, espainiako torturaren auzia, aurreko Batzordeko eta gaur eguneko Giza Eskubideen Kontseiluko kontalariek kalifikatu dutenez, zorionez, ez da existitzen praktika sistematiko gisa, baina bai praktika iraunkor, jarraikor eta errepikatu gisa. Gainera esango nuke ez dituela soilik Estatuaren jarduerak hartzen terrorismoaren aurkako borrokan, hori ere egia den arren, baizik eta beste jarduera batzuk inolako zirikusirik ez dutenak terrorismoaren aurkako borrokarekin. Van Boemel kontalariak berak adibideak jarri ditu, kasu bereziak, esanez nola erabiltzen ziren tratu txarrak eta tortura beltzen kontra, hau da, etorkinen eta emakumeen kontra, emakumeen bortxaketa polizia espainiarraren komisaldegietan, oro har, eta ez Euskal Herrian bakarrik, egoera berezi eta jakinetan. Areago, moderatzaileak adierazi duenez, ez ditu Estatuaren segurtasun- gorpuz eta segurtasun-indarrak bakarrik hartzen, baita autonomia-erkidegoetako poliziak ere, Euskadikoa eta Kataluniakoa barne. Eta nik tokiko poliziak ere gehitzen ditut. Torrevejako kasua oso berria da, ez da ahaztu behar. Edo zenbait emakumeren bortxaketa Malagako atzerritarrentzako barnetegietan –emakume atzerritarrak, etorkinak, paperik gabeak–, beste kasu deigarrietako bat da, abusuzkoa, poliziek bortxatutako emakumeena, eta jakina, torturaren pareko kasuak dira.

Beraz, argi dago Torturaren Prebentziorako Europako Komiteak berak eskaini dizkiola Espainiar Estatuari Giza Eskubideen Kontseiluko kontalari bereziek emandako gomendioekin bat datozenak, eta deigarria izan da nola Espainiar Estatuaren aldetik ez den egon nahikoa harmen gomendio horiek aplikatzeko. Eta hori deitoragarria da, eta salatu egin behar da. Beraz, euskal testuingurua ere kontuan hartu nahi badugu, Estatuari erreklamatu egin behar diogu iraganean egin diren abusu eta torturak aitortu ditzala. Baita euskal jendearen artean ere. Baina horretaz haratago, nik kutsu positiboa ezarri nahiko nioke eztabaida honi eta da Estatu espainiarrak keinu oso garrantzitsua egin duela azken hilabeteotan. Joan den otsailean Estatu espainiarrak Torturaren aurkako Konbentzioaren protokolo aukerazkoa berretsi du. Aukerazko protokolo oso garrantzitsua da, zeren eta zuetako askok seguruenik badakizuen, Europako Komitearen antzeko mekanismo bat ezartzen du Torturaren

Prebentziorako, eta horrela Nazio Batuen azpikomite bat sortuko da torturaren aurka aldi-zka eta alde zurretiko abisurik gabe bisitak egin ahal izango dituen, aukerazko protokolo hau sinatu duten Estatuena ia edozein atxilotzegunetara, kasu honetan, Espainiara. Eta horretaz gainera behartu egiten du protokoloa berretsi duen Estatu mekanismo espezifikoak sortzera, nazio mailan, tortura prebenitzeko. Honekin, agerian jarri nahi dudana zera da: Espainiar Estatuak benetan tortura amaitu nahi duelako itxaropena irekitzen zaigula, eta hori, bestalde, iragan frankistatik herentzian jasotako jarduera bat da, Estatuoko segurtasun-gorputz eta segurtasun-ndarren artean, eta ez duela aurrerantzean autonomietako eta tokiko polizia-rik kutsatuko, eta neurri egokiak hartuko direla hori gehiago gerta ez dadin, eta bakerako negoziazioaren testuinguruan Euskal Herrian behar bezala aitortuko dela iraganean gertatutakoa.

Carlos Martín Beristain

Mila esker, irakaslea. Neure moderatzaile-eginkizunetik irtenez, iruzkin pare bat egin nahi dut. Egiazki oso albiste ona da protokoloa sinatzearena. Jakina, gakoa dago zuk aipatzen zenuen mekanismo espezifikoan. Mekanismo espezifiko nazionala, independentea izan behar duena, eraginkorra izan behar duena, ikerketan zorrotza izan behar duena. Gero, itxaropen horrek berrespena edo iruzurra izango ditu mekanismo soil horren baitan: nori esleitzen zaion erantzukizun hori eta zer harmen-maila izango duten kudeaketa-erantzukizuna duten alderdiek. Zeren eta, espainiar testuinguruan, baita euskal testuinguruan ere, alderdi politikoen hizkuntza bikoitza nabari dugu, izan ere aldarrikapen orokorrak egiteko orduan, zinez torturaren aurka daude, baina Barne Saila bezain alor delikatu eta hain beharrezkoak –giza eskubideen defentsarako hain beharrezkoak direnak– kudeatzeko erantzukizuna dutenean, orain kontatuko dizuedan pasartearen logika dute. Tel Aviveko unibertsitateko irakasle batek kontatu zidan Penalisten Nazioarteko Batzar batean. Berme desberdinei buruz ari ginen hizketan prozedura penaleko errespetuaren mailan eta nik erreferentzia kultural-juridikoko gure esparruaren diskurtso bermezaleaz hitz egiten nion. Lehen Charlesek esan du oso bakanak direla psikopatak terroristen artean. Eta oso bakanak dira torturatzaileen artean dauden psikopatak. Torturatzaile gehienak funtzionario jatorrak dira beren lana ongi egin nahi dutenak. Ez dira jende desorekatua. Jaun horrek esaten zidan irudika genezala poliziak datu ukaezinak dituela susmatzeko atxiloturik daukan pertsona batek badakiela noiz eta non jarriko duten bonba bat areto batean biktima kopuru handi bat eragingo duen ekintza batean. Zer arraiorengatik debekatu behar dio legeak polizia horri tortura erabiltzea edo bizitzak salbatuko dituen informazioa eskuratuko dion beste edozein metodo erabiltzea? Eta hau da torturaren auzia; ez da soilik tortura askapen-borroka baten aurka joateko forma. Ez, ez. Gaiztoaren aurkako borroka (tortura), terroristaren aurkakoa, kalte egin nahi duenaren aurkakoa, justifikatzen al da gaur eta hemen? Indar politikoei erantzukizun bat dute, ez hainbeste gizartearen ikuspen bat aurkezteko entitate gisa, baizik eta Barne Sailean kudeaketa-erantzukizun bat duten kidedun entitateak diren heinean. Baditugu adibideak, Estatu espainiarrean, baita Euskadin ere, Nazioarteko Amnistiaren, Torturaren Prebentziorako Komitearen, Nazio Batuko kontalarien, Arartekoaren kritiken aurrean jaramonik ez egitearenak.

285

Julen Arzuaga

Rafak oraintxe aipatu duenez, ez dut uste borondate on gehiegi dagoenik Espainiar gobernuaren aldetik aukerazko protokolo hau betetzeko. Sinatutakoa ez da garrantzizkoa, baizik eta ondoren dagoen borondate politikoa sinatutakoa abian jartzeko, betetzeko.

Ararteko espainiarraren instituzioari mekanismo bat eskaini nahi zaio, Estatu espainiarraren mailan, tortura prebenitzeko, aukerazko protokolo hori garatzeko. Ezaguna dugu Ararteko horrek ageri duen jarrera: Múgicak adierazi zuen behin «bera ez dagoela terroristak babesteko», eta badakigu tortura dela terrorismoaren inguruan planteatzen den arazoetako bat. Hor dago inkomunikazio-sistema ere. Egia da tortura ez dela sistematikoa, baina bada sistema bat hori gertatzea errazten duena. Abagune honetaz baliatzen naiz esateko, gaur egun, gaurko egoera, benetan deitoragarria dela. Berradiskidetzeari, kaltea ordaintzea, egia, justizia... aipatzen entzun dugu baina gaur egungo egoera zehatza da tortura existitu egiten dela; Espainiako Auzitegi Nazionalen zigor-epaiak ezartzen dira –salbuespen-izaera dutenak–, baina ez hori bakarrik. Niretzat, bigarren torturatzat har daitekeen zerbait ari da gertatzen, hau da, tortura salatzen dutenak salatuak izatea. Hor dago Unai Romanoren kasua, eta berari delitua egotzi diote banda armatuarekiko lankidetzarengatik torturak salatu dituelako. Martxelo Otamendiri gauza bera gertatzen zaio. Beraz, gaurkotasuna duen gaia da. Baina ez hori bakarrik. Orain preso bat daukagu gose-greban, bi iritzi-artikulu idaztearengatik hamabi urteko kartzelaldi-zigorra ezarri zaiona. Sakabanaketa hor dago oraindik, eta horren ondorioak ere kontuan hartzea nahiko nuke, zeren eta giza eskubideekin zerikusia duen gaia baita hori ere. Horregatik egin nahi nuen balantzetxo bat giza eskubideak zer egoeratan aurkitzen diren. Ikusenez zer harreman duen justiziaz, egiaz, berradiskidetzeari hitz egin dugun horrekin guztiarekin. Atzo, McEvoy jaunak esan zigun: «If the British won't move on small things, a humanitarian issue, they are not serious». Hitz horiek gure testuingurura, gure egoerara ekarri nahiko nituzke. Baldin eta Espainiako agintariak ez badute urratsik egiten izaera humanitarioko gaietan, orduan, nire iritziz, ez dira seriotasunez ari.

Mireia Uranga

286

Bakearen alde lan egiten dut organizazio bat baino gehiagorekin, nola Euskal Herrian hala beste herrialde batzuetan, Bakearen aldeko Gernika Gogoratuz Ikerketa Gunearekin bereziki atxikitakoekin. Oso interesgarria zait ikustea hemen agertu diren biktimen jarrera desberdinak, eta nire ustez aski ongi hezurmamitzen dituzte gure errealitatean aurkitzen ditugunak. Galdera zehatz bat egin nahi nioke, adibidez Norari, nola ikusiko lukeen berak, bere sentiberatasunetik, hemen, krimen larriak egin dituen ETako jendea zein Estatuko jendea kalera irten ahal izatea. Dagoeneko hitz egin digute Ipar Irlandaz eta nolako arrakastan zen hori –gutxienez planteatzen zuenarentzat–, nola manciatu zuten zenbait urtetan, nola krimen oso larriak zituzten presoak irteten ziren kalera. Eta era berean galdetu nahiko nioke Charlesi nola manciatu duten Hego Afrikan biktimen gai hau. Zinez zigorra eskatzen duten biktimez ari naiz, elkarrizketa dagoen inolako prozesurik eta elkarrizketaren bidez amnistiarik egotea onartzen ez duten biktimak.

Txema Urquijo

Noraren, terrorismoaren biktima baten lekukotasuna mahaian izanik, eta terrorismoaren biktimen ikuspegitik gai nagusi bat agerian jarriarik, biktimarioen, kaltegileen, ezinpunitaterako eskubidea erreibindikatzeari alegia, nola uztartzen da hori kartzelatik ateratzeari edo amnistiarekin zerikusia duten jarrerekin, hain zuzen Hego Afrikako Egiaren eta Berradiskidetzeari Batzordeko ordezkariak planteatu duenez? Zeren eta, azken batean, horrek agerian jartzen duena da nolako zailtasuna dagoen biktimaren, interesaren, gogobetetzeari eta errudunaren, erasotzailearen zigorraren artean. Hau da, badirudi –batez ere Noraren hitzetatik aski argi geratu da– biktimaren gogobetetasunak, oso biziki eskatzen duela erruduna zigortzea. Hori horrela bada, uste dut, aurrez aurre egiten duela talka

inpunitatearekin zerikusia duen edozein neurriarekin, edota zigorra ez betetzearekin, edota erasotzailearentzat zigorrik ez izatearekin. Uste dut hauxe dela gatazka armatuaren, indarkeriazko gatazkaren edozein ebazpen-prozesuk aurre egin beharreko arazo handietako bat, eta jakina, oraintxe bertan gure herrialdean, gure gizartean indarrean dagoen gogoeta bat da, eta etorkizun hurbilean ere halaxe izango da.

Nora Irma Morales de Cortiñas

Guk «justizia behar da» diogunean, krimen guztiak zigortu beharra dagoelako da. Alabaina, herrialde bakoitzak bere historia, bere metodologia du, aurrera egiteko. Ni Argentinaz ari naiz, eta guk uste dugu han «desgizatasunezko» krimenak egin zirela, guk epaituak eta gaitzetsiak izatea nahi dugunak. Guk ez dugu mendekurik nahi. Sekula ez da izan amarik, aitarik, bere eskuz mendekua egin duenik, baina justizia gauzatzea eta egia argitzea bilatzen ari gara. Eta borroka horretan jarraituko dugu. Ez dugu inpunitatean bizi nahi. Hauxe da Argentinaren kasua. Nik hemen horrelaxe azaltzen dut, ez al da egia? Estatu-terrorismoa izan zen. Delitu arruntentzat –edozein kasutan, borrokalari herritarren taldeek delituak egin zituzten– badago zigor-kode bat eta erabili egin daiteke. Baina ez estatu-terrorismoa izan zenaren ankerkeriarentzat, torturarekin, krimenen krimena den pertsonen desagertze bortxatuarekin, eta haurrak bahitzearen beste krimen gehituarekin. Horregatik nik zehaztu dut, eta esan dut, nola sentitu dudana nik hemen Estatu-terrorismoaz inork ez hitz egitea. Hala ere, herrialde bakoitzean izan da Estatu-terrorismoa, edo beste herrialde batzuen aurka inbasioetan... Eta berradiskidetzeaz mintzo naizenean, guk argi daukagu genozidekin ez garelako berradiskidetu. Eta genozidez mintzo naiz, zeren eta justizia sozialaren alde eta bere herriaren alde borrokan ari zen talde nazional bat ezabatzeko kontze-bituriko plana izan baitzen. Hori da Argentinaren errealitatea. Ez dugu nahi mendekurik, eta, gainera, ez dugu heriotza-zigorra sustatzen, sekula. Amnesty Internationalen kanpainan guztietan esku hartzen dugu Amok munduko herrialde guztietan heriotza-zigorraren aurka. Hori da gure jarrera.

287


Charles Villa-Vicencio


Lehenik eta behin, ulertu behar da Hego Afrikako amnistia-prozesua salbuespeneko iragaitza-mekanismo gisa hartu zela. Ordaindu beharreko prezio bezala hauteman zen. Jendea negoziazio-mahaira erakartzeko eta aurretik bazterturik egon zirenak botere-posizio batean ezarriko zituen hauteskunde demokratikoen emaitza onar zezaten prezioa, alegia. Beraz, salbuespeneko mekanismo bat izan zen. Gardentasun publikoa, etab. lortzeko beharrezko bitartekoa zen heinean balioetsi zen.

Bigarrenik, legeriak zehazten zuen Batzordeak amnistia ukatzen zion edozein edo amnistia eskatzeari uko egiten zion edozein epaile-akzioen gai izango zela. Ni neu mugimendu baten buru izan naiz Hego Afrikan gaur egungo gobernuari esateko: «Noiz auzipetu behar dituzue zubi historiko hori gurutzatzeari uko egin zioten, edo ezin izan zuten pertsonak? Noiz hasi behar du prozesu horrek?» Zilegi bekit esatea une honetan Hego Afrikan ez dagoela aski borondate politiko inor auzipetzeko, nire ustez. Gauzak ikusteko modua aldatu egin da (itzulingururik gabe esango dut) eta oraingo lehentasuna ez dira auzipetzeak, baizik eta eraikuntza ekonomikoa, arestian esan dudanez.

Nire azken iruzkina: amnistia ez da ezer berria. Batzuetan prezio hori ordaindu beharra dago. Nahiago nuke horretaz mintzatzeko asti gehiago banu. Inkesta bat egin genuen Hego Afrikan, duela urte pare bat, Egia eta Berradiskidetze Batzordearen ondoren, eta

hegoafrikarren % 68k esaten zuen «bizi gaitzke amnistia-prozesua premia politiko bat bezala hartuta». Hegoafrikar beltzen % 76k esan zuen «onar dezakegun zerbait da». Ustedut onartu beharra daukagula Afrika bere osotasunean (nahiz eta egia izan orokortzerik ez dagoela) gutxiago makurturik dagoela zigorrerantz edo errepresalietarantz, Europan, eta batez ere Estatu Batuetan jendea dagoena baino. Besterik gabe, ez da gizarte hain auzilaria. Elkarrekin bizi izaten ikasten saiatzen gara. Eta horregatik, oraindik jendeari gogorarazten diot, mundu guztiak Robert Mugaberi harriak bota zizkionean, Ian Smithek Harareko kaleetatik ibiltzen jarraitzen zuela. Hego Afrikan P.W. Botha, Lehendakari ohia, Estatuburua, terrorista, Estatu-terrorismoaren haragitzea ber-bera, duela astebete zendu zen. Bandera haga-erdian jarri zuten dolu-seinale moduan. Eta Mbeki Lehendakaria hiletan izan zen. Nork ematen du gehiago?





Zeroren balioa.«0» eta gatazken konponbideak


ADOLFO PÉREZ ESQUIVEL JN.

*Bakearen Nobel Saria (1980). Bakea eta Justizia Zerbitzua
Fundazioko Lehendakaria, Argentina*

Adolfo Pérez Esquivel 1931ko azaroaren 26an jaio zen Buenos Aires-en. San Francisco ikastetxean, Buenos Airesko Arte Ederren Eskola Nazionalean eta La Platako Unibertsitate Nazionalean egin zituen ikasketak.

Irakaskuntzan 25 urtez lan egin du Adolfo Pérez Esquivelek, lehen eta bigarren hezkuntzan eta unibertsitatean: La Platako Unibertsitate Nazionaleko Arkitektura eta Hirigintza Fakultatean, «Manuel Belgrano» Arte Ederren Eskola Nazionalean eta Azuleko Irakasle Institutuan (lehen eta bigarren hezkuntza), Buenos Aireseko probintzian. Argentinako diktadura militarren garaian (1976an) kargutik baztertu zuten.

Jarduera oso oparoa izan du artista moduan. Erakusketak egin, muralak margotu eta monumentuak eraiki ditu; hona hemen aipagarrienak: Errefuxiatuei Monumentua, ACNURen (Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioaren) egoitza zentratean, Suizan; Latinoamerikako Herriei buruzko Murala Riobambako Katedralean (Ekuadorren); Proño Apezpikuari eta Ekuadorreko Herri Indigenei eskainitako Murala Pucahuaicon; eta Amari eskainitako Monumentua Bernalen eta Azulen (Buenos Airesko probintzian). Alemaniako Misereor eta Suizako



CURRICULUMA

Fastenopfer nazioarteko lankidetzako eliza-erakundeetan aurkeztu zuen bere «Via Crucis Latinoamericano y Paño Cuaresmal» obra.

1980an, Bakearen Nobel Saria jaso zuen Giza Eskubideen alde eginiko lanagatik. Sari hori jaso zuenean, honako hitz hauek esan zituen: « [...] Latinoamerikako herrien izenean nator saria hartzera, batik bat behartsuen izenean eta beraien herriekin konpromisoa duten guztien izenean [...] ».

1994ko otsailean, hiru urte preso zeramatzan Aung San Suu Kyi (1991ko Bakearen Nobel Saria) aske uztearen alde, Bakearen Nobel Sariak Thailandiara eginiko Misioan parte hartu zuen. Misio horrek bir-

maniar errefuxiatuen kanpamenduak bisitatu zituen. Dalai Lamak, Desmond Tutu Apezpikuak, Mairead Corrigan-ek eta Betty Williams-ek parte hartu zuten bisita horretan.

Gaur egun, Servicio, Paz y Justicia en América Latina Erakundeko Ohorezko Kontseiluko lehendakaria da; egoitza Milanen (Italian) duen Giza Eskubideen eta Herrien Askapenerako Nazioarteko Ligako lehendakaria; eta Herrien Auzitegi Iraunkorreko kidea.

Bakea Bultzatzeko UNESCOren «Felix Houphouët Boigny» Sariko epaimahaikidea da. 1996ko abenduan «Munduko Biztanlea» saria jaso zuen, Boston Center for the 21st. Century erakundearen eskutik.

1997tik, «Munduko Haurren Bakearen Nobel Sarien» partaide da. Gainera, Nazio Batuek 2000. urtea «Kulturaren eta Bakearen Nazioarteko Urtea» izendatzearen alde egin zuen lan, eta Milurteko Berriaren lehen hamarkada «Munduko Haurrentzat Bake Kulturaren aldeko eta Biolentziaren aurkako Nazioarteko Hamarkada»

izendatzearen alde. Bakearen Nobel Sari guztiek sinaturiko eskari horri baiezkoa eman zion Nazio Batuetako Batzar Nagusiak.

1998ko irailetik, «Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntza» Katedra Askearen titularra da Buenos Aireko Unibertsitateko Gizarte Zientzien Fakultatean.

Davenporteko (Estatu Batuak) Elizbarrutiaren eskutik «Pacem Interris» saria jaso zuen 1999an.

Urte bereko martxoan, Mairead Corrigan Bakearen Nobel Sariarekin batera Irakera bidaiatu zuen, herri horren egoera bertatik ezagutzeko eta blokeoaren amaiera eskatzeko.

2003. urtetik, Veneziako (Italia) Ingurumen Akademiako (IAESeko) lehendakaria da.

LABURPENA

XXI. mendearen hastapenean gerrak nagusi diren mundua ageri zaigu, non bortizkeriaren kultura hedatzen baita, gizartean bertan komunikabideen eta hezkuntzaren bidez gailentzen den kultura, hain zuzen ere. Eta hori areagotuz doa, hala haurren artean nola familietan eta gizartean.

Horregatik, «armatutako kontzientzia desarmatu» behar da.

Hori Eukal Herrian gertatu dadin kontuan izan behar da negoziazio guztiek haien denborak dituztela, eta pazientzia eta buru-argitasuna izan behar dela oztopoak gainditzeko. Euskal herritarrei dagokie protagonista nagusiak izatea, eta beharrezkoa da ekintza armatuak bertan behera uztea. Denek hartu behar dute parte konponbidean, bai Gobernuak bai oposizioko alderdiak. Gobernuak seinale zehatzak eman behar ditu eta, besteak beste, euskal presoak Euskal Herrira hurreratu.


Biktimei kalte-ordain morala eskaintzeko moduak bilatu behar dira. Ikuspuntu jurisikotik begiratuta, kontuan izan behar da egiarako eta justiziarako nazioko eta nazioarteko eskubi-dea.

293

Pertsona eta herrialde adiskideen laguntza behar dugu, negoziazioa bultzatu eta elkarrizketa indartu dezaten.

Gatazka honetan herri baten memoria, nortasuna eta balioak daude jokoan, haren izate, burujabetasun eta autodeterminazioarekin batera.

.



Zeroren balioa. «0» eta gatazken konponbideak

Munduan ziztu bizian doa dena. Teknologiei esker, denborak murriztu eta distantziak laburtu egin dira. Neurritz kanpoko informazioak desinformazioari eman dio bidea, eta jokabide baldintzatu jakin batzuk finkatu dizkigute «globalizazioa» delako horren baitan. Aipatutako prozesuetan, eszenatokiak eta subjektuak aldatu, rolak bilakatu eta, maiz, gatazkak, interesak eta botere-guneak indartu egin dira. Izan ere, bestelako subjektu eta aktoreei eman zaie sarbidea. Horrela, eszenatoki berrietan, lehen ustez zereginik ez zuten gaiei heldu egiten zaie, elkarrizketaren bidez, eta konpontzeko proposamenak azaltzen dira, ezin hobekak ez izan arren posibleak behintzat badirenak.

Ildo horretan, *Ciro Alegría* idazle perutar handiak «El mundo es ancho y ajeno» nobelan aipatutako egoera ekarri nahi nuke gogora: talde txiki boteretsu batzuk mundua mende hartu dute, jaun eta jabe bihurtuz, eta biztanle gehienak kanporatuta eta baztertuta utzi dituzte, goseak eta pobrezia jota, eta esplotazioaren atzaparretan. Izan ere, horixe ari da gertatzen gaur egun, neurri batean.

Ekonomian, boterean eta politikan nagusi diren taldeek finantza-kapitalari ematen diote lehentasuna, eta ez giza kapitalari. *Atahualpa Yupanqui* poeta eta kantari argentinar handiak honako gogoeta egiten digu bere kantarik ezagunenetako batean: «penak geureak dira, baina behitxoak besteenak ...». Etsita dago, jakin badakielako batzuk hortzekin sortutakoak direla, eta beste batzuei, ordea, atera orduko apurtzen dizkietela. Arazoak arazo, jendeak eta herriek gogotik borrokatzen jarraitzen dute, beraien helburuak lortzeko nahiak eraginda.

295

Lurra izeneko planetatxoan, gure etxean, gertatzen ari diren prozesu eta aldaketen ondorioz, daukaguna baloratu beharrean, gutxietsi egiten dugula dirudi. Balioak bertan behera geratu dira. Gure etxea arriskuan dago neurritz kanpoko esplotazioa dela eta.

Jakinekua da gizateriaren aurkikuntzarik handienetakoa «0»(zero edo hutsa) zenbakia dela. Goitik behera aldatu zuen giza ezagutza eta balioa eta edukia eman zizkien pentsamenduari eta matematikei. Azken horiek ezingo genituzke pentsatu eta ulertu zero zenbakirik gabe.

Zerbaitek ez duela batere edo ezertarako balio adierazteko, «hutsaren hurrengoa da hori» esaten dugu askotan. Baina «ezereza» adierazten duen zenbaki horri ezkerrean «1» ezartzen badiogu, beste balio bat hartuko du gure «0-ak», esanahi sinboliko eta erreal ugari uztartuz. Horixe bera gertatzen da hainbat «0» elkarren ondoan kokatzen direnean, bat eginik bestelako balio zirrargarri batzuk hartzen baitituzte (esate baterako ekonomikoak), edo adiera anitzeko balorazioak: sozialak, kulturalak, politikoak, etab. «0» zenbakia berez ez da «ezer», eta zerbait izateko, beste zenbakiei lotu behar zaie.

Balio eta sinboloen erlatibotasunari buruzko adibide labur horretan erronka berriak azaltzen zaizkigu. Lehen aldaezinak ziruditen hainbat balio aldatu egin dira: batzuk garrantzia gutxiago dute orain, eta beste batzuk gehiago.

Ildo horretan, bada kontuan hartzea merezi duen adibide bat: Sobietar Batasunaren deuseztapena. Bigarren Mundu Gerraren ondoren, eginahalak egin zituzten nazioartean boterea eskuratzeko, horretan Amerikako Estatu Batuak aurrez aurre zituztela. Yaltako Akordioaren ondorioz, Gerra Hotzak hamaika tentsio eta botere-eremu sortarazi zituen.

Nire hitzaldiaren helburua ez da, ordea, denok ezagutzen ditugun gai horietan sakontzea; aitzitik, aipatu besterik ez ditut egingo.

Denboraren eta munduan egokitutako aldaketa eta tentsioen poderioz, Perestroika nagusitu eta Sobietar Batasuna deuseztu egin zen. Berlineko Horma bota eta gero, gauzak errotik aldatu ziren bai gizaterian bai bi potentzia handien arteko botere-harremanetan. Era berean, beste potentzia bat hasi zen nagusitzen: Txina.

Gerra Hotza bukatzeaz zegoela, itzaropena piztu zen gutako askoren barrenean: nazioarteko harremanetan, herrialde garatuenean eta garapen-bidean zeudenen artean lankidetzari emango zitzaioala bidea, eta elkar hartuta, lurralde pobreetan goseari, gabeziei eta baliabide-arpilaketari aurre egiten saiatuko zirela. Oker geunden, ordea, eta inozoak izan ginela aitortu behar dugu, bistakoa baita giza izaerak eta interes ekonomiko, politiko eta estrategikoez berezkoa dutela ahalik eta indar eta botererik handiena lortzeko grina. Amerikako Estatu Batuak jaun eta jabe bihurtu ziren. Benetako inperioa dira, eta nahi dutena egiten dute gainerako herrialdeetan, nazioarteko zuzenbidea kontuan hartu gabe, Nazio Batuek gaitzetsitako Itun eta Protokoloak eutsiz eta munduko hainbat tokitan giza eskubideak urratuz. Aipatutako jokabideen ondorioz, gerrak eta gatazka armatuak piztu eta gosea eta pobrezia etengabe hedatu dira. Ziurgabetasuna handiagoa da orain, eta tentsioak ugariagoak.

296

Dorre Bikien kontrako iraileko atentatuak gertatu eta gero, «gaizkiaren ardatza» terminoa erabiltzen eta «prebentziozko gerrak» sortzen hasi zen munduko potentzia handia. Opositoreak bahitu, beste norabait eraman eta hiltzeaz gain, kontzentrazio-esparruak ezarri dituzte, hala nola, Guantanamo base militarra, Kuban.

Dena den, Estatu Batuei ezin diegu gaitz guztien errua leporatu. Gaur egun gizakien artean nagusi diren tentsio eta arazoak sorburuei dagokienez, argi dago beste agintari batzuen eta enpresa transnazionalen babesa izan dutela, kontuan hartu behar baita horientzat gerrak negozio bikainak direla, industria militarri esker sekulako dirutzak, milioika dolar eta euro, irabazten dituztelako. Heriotzaren trafikatzailerak dira, gerraren jaunak. Beren burua diru-truke saltzeko prest dauden armada pribatuak sortu dituzte; dolarrak eta euroak dira haien bandera bakarra. Irabazi guztiak ez dituzte, ordea, dirutan eskuratzen, batzuetan mineral estrategikoak –hala nola diamanteak, urrea eta zilarra– izaten baitituzte helburu.

XXI. mendean, gerrak eta gatazka armatuak bizirik diraute oraindik. Iraken eta Afganistanen kontrako gerra, Rwanda eta Kongokoak (Afrikan), genozidioak jasandako herrialdeak. Premiazkoa da, ezbairik gabe, gogoeta egitea. Ekialde Ertainean, Israel eta Palestinaren arteko arazo larria daukagu, duela gutxi Libano inbaditu dute, eta arsenal nuklearrak gero eta ugariagoak dira. Horri guztiari «Izuaren Elkarteko kideak» gehitu behar dizkiogu: arma nuklearrek segurtasun handiagoa emango dietelakoan daude, baina hori ez da horrela, benetan lortzen ari diren bakarra Lurra eta gizateria osoa mende hartu dituen arriskua areagotzea baita.

Indarkeriaren kulturari gaude murgilduta, eta kultura hori komunikabide handiek ezarri dute hezkuntzan eta gizarteetan. Ondorioz, erruz ari da indartzen haurren artean, familietan

eta gizartean. Hori zurrizko erabilitako arrazoi eta logiketan, nahitaz aztertu beharreko zenbait portaera antzematen dira. Uste bat oso errotuta dago jende askoren artean: indartsuenak bere borondatea inposatu behar diola kontrakoari, indarkeriaz baliatuta. Uste ustela da, ordea, lortzen den bakarra haxe baita: kontrakoak ere indarkeria erabiltzea, eta elkarren kontra gero eta gogorrago jardunez, konponbiderik gabeko zurrunbiloan sartzea. Litekeena da indartsuenak ahulena garaitzea, baina ahulak ez du egoera hori onartuko, eta gatazkak bere horretan iraungo du, konponbiderik gabe.

Raimond Panikkar-ek dioenez, «arrazoi armatuari armak kendu behar zaizkio», eta elkarriketa- eta bake-bideak bilatu. Berlineko Hormaren adibidea baliagarria da hori hobeto ulertzeko. Bota eta gero, intolerantzia oinarritutako beste horma batzuk ezarri zituzten. Horren adibidea dugu, besteak beste, Israelek bere biztanleak eta palestinarrak zatitzeko eraikitako horma, seguruago egongo direlakoan. Beste akats larri bat izan da. Orain, Israelen, segurtasuna errotik murriztu eta tentsioa areagotu egin da, eta ia 50 urteko gatazkari oraindik ez zaio konponbiderik eman, belaunaldiz belaunaldi elkar hiltzen diharduten arren.

Estatu Batuek horma lotsagarria eraiki dute Mexikoko mugan. Potentzia handiak muga horretan salgaien joan-etorriak arazorik gabe onartzen ditu, baina gizakienak inondik inora ere ez. Ipar eta Hego Korearen arteko zatiketa, potentzia handien interesek eragindakoa, ere ekarri behar da gogora. Eta halaber, Pakistanen eta Indiaren arteko gatazka, independen-tziaren garaitik puri-purian dirauena.

Beste gatazka batzuk herrialdeen barne-egoeran dute eragina. Hori ari da gertatzen Kolonbian, 40 urte baino gehiago baitaramatzate gerrillen eta talde paramilitar eta parapoli-zialen kontra borrokatzen. Beste toki batzuetan, adibidez Ipar Irlandan, gatazka bideratzen saiatu dira, eta hamarkada luzeetako borroka gogor eta odoltsuari konponbideak eskaini dizkiote. Agian ez dira izango konponbide ezin hobeak, baina posibleak bai behintzat.

El Salvadorreko gerra zibilaren ondorioz, 70 mila lagun hil ziren. Guatemalan, 200 mila lagun baino gehiago hil edo desagertu ziren indarkeriaren mende emandako hamarkadetan. Hala ere, samina eta beldurra alde batera utzi eta gerra fratizidari amaiera emateko konponbideak aurkitu zituzten. Arazo guztiak ez dira konpondu, baina beti izan behar dugu gogoan «zuhaitz handia hezi txikitik ernaltzen dela, eta 10 kilometroko ibilbidea lehen urratsa emanez hasten dugula». Esamolde zen horrek nondik jo behar den ulertzen lagunduko digu.

Dena den, hormarik gogorrenak, eta botatzeko nekezenak, gutako bakoitzarengan daude, gure bizitzan, gure barrenean, gure gizarteetan, elkarrenganako intolerantzia. Eta horma horiek erortzeko, nahitazkoa da elkar ulertzeko gai izatea eta «arrazoi armatuari armak kentzeko» balioak nagusitzea.

Euskal Herriko arazoa ezin dut aipatu gabe utzi, jakina, indarkeriaren ondorioak ari baita jasaten. Denboran zehar ahalegin ugari egin dira egoera bideratzeko, eta zoritxarrez, porrotak ere ugariak izan dira bidezko konponbidea aurkitzeko ekinaldietan. Aldeek ez dute aurrerapausoak emateko borondate politikorik izan. Orain beste aukera bat sortu da, eta borondate politikoa ere badago. Ildo horretan, gatazka konpontzeko urratsak eman eta elkarriketarako eta elkar ulertzeko bideak aurkitu nahi dira, hainbeste hamarkadatan tentsioak eta heriotzak eragin dituen indarkeria bukatu dadin.

Jarraian, alderdi batzuk aipatuko ditut, nire ustez nahitaz hartu behar direlako kontuan alternatibak bilatu eta helburuak lortzeko bidean aurrera egiteko.

Negoziatioetarako, denbora behar da. Askotan uste baino gehiago luzatzen dira, eta beraz, pazientziaz eta argi jokatu behar dugu, eragozpenak gainditu daitezten. Eguzki eta ilargi asko ikusitako adineko emakume guaraniar baten hitzak ekarriko dizkizuet gogora. Jakintsua zen zinez, bazekielako entzuten. Geure buruarekin eta besteekin berriz orekan egotea lortu behar dugula esaten zuen. Egungo gizarteetan, behar-beharrezkoa da unibertsoarekin eta Jainkorekin berriz orekan egotea. Oreka hausten denean, indarkeria sortzen da. Horra zer esaten zidan umetan aipatutako emakume indiarrek: ibaiko urak zurrunbiloka eta nahastuta datozenean, itxaron egin behar dela berriz baretu arte, eta orduan, gardentasunean, azpialdea ikusiko dugula. Samin –eta itxaropen– zimurrez, bizitzak utzitako aztarnaz, josita zeukan aurpegia emakume indiarrek. Nire amona zen.

Negoziatio-prozesu orotan, batzuetan aurrera eta beste batzuetan atzera egiten da akordioak lortzeko bidean, baina urratsez urrats, konponbide bideragarriak aurkitzen dira. Zuzeneko konponbiderik ezin da espero, baina beti daude aukeran helburu partzialak lortzeko eta aurrera egiteko taktika eta estrategiak.

ETA eta espainiar gobernuaren arteko bitartekari izan nintzenean, bi aldeen arteko arazoa soilik ez dela adierazi nuen. Protagonista nagusiak euskal herritarrek dira, eta beraz, ezin dira dena kanpotik ikustera mugatu, parte hartu gabe. Arazoa konpontzeko, nahitaezkoa da herriak ere parte hartzea. Aldeek urrats zehatzak eta sinesgarriak eman behar dituzte, adibidez ekintza armatuak etetea. Urrats hori emanda dago, eta eutsi egin behar zaio.

Espainiako oposizioa, batik bat Alderdi Popularra, gobernu presionatzen ari da, eta edozein konponbide oztopatzen saiatzen da. Arazoa makulu-hitz bihurtu dute, etekin politikoa ateratzeko, eta denak berdin jarraitzeko, ezer ere aldatu gabe. Gauzak horrela, oposizioarekin hitz egiteko bideak bilatu behar dira, bidezko konponbidea aurkitzeko urratsak guztiek eman behar baitituzte, ideologia politikoa alde batera utzita.

Gobernuak, bestalde, gatazka konpontzeko zerbait egiten ari dela erakutsi behar du, argi eta garbi. Ildo horretan, betidanik azpimarratu dut ETAko presoak Euskal Herrira hurbiltzea funtsezkoa dela, arrazoi humanitarioak eta legeak kontuan hartuta. Izan ere, legeen arabera, presoek etxetik hurbil bete behar dituzte zigorrak, familiek ikustera joateko aukera izan dezaten.

Konpondu beharreko beste arazo bat indarkeriaren biktimak dira. Zoritxarrez, ez dago hildakoak gure artera berriz ekartzetik, baina kalte moralak ordaintzeko moduak bilatu behar dira, zuzenbide humanitarioarekin bat, indarkeriazko ekintzarik berriz gertatu ez dadin. Ikuspegi juridikoari dagokionez, estatuko eta nazioarteko zuzenbidean aitortutako egia –eta justizia– eskubideari erreparatu behar zaio; ekintza odoltsu batzuk lan-batzordeetan aztertu beharko lirateke, indarreko legediari jarraituz.

Negoziatioak bideratzen eta elkarrizketak indartzen lagundu dezaketen pertsona eta herrialde adiskideei jarraipena egiteko eta laguntzeko eskatu behar zaie. Erakunde batzuek esperientzia handia dute gatazkak konpontzeko prozesuetan. Bestalde, ezin dugu ahaztu arazoarekin zuzenean zerikusirik ez dutenak egoera kanpotik ikusteko gai izango direla, emozioen mende erori gabe, eta beraz, laguntza objektiboa eskaini dezaketela aldeak hurbiltzeko.

Euskal Herriko hainbat elkarteek urteak daramatzate lanean, hainbat arazorentzat, besteak beste Nafarroa eta Iparraldearen egoerarentzat, konponbide alternatiboak aurkitu


ahal izateko. Euskal Herria zatitu egin zuten. Nire ustez, arazoaren sorburu bakarra ez da lurraldetasuna; askoz ere sakonagoa da, oroimena, identitatea, herri-balioak, herri izatea, subiranotasuna eta autodeterminazioa hartzen baititu bere baitan.

Galderak ugariak dira, eta hamaika bide daude aukeran. Beraz, ezin dugu geldirik egon hormari begira, ez aurrera ez atzera, konponbiderik aurkitu gabe. Herriak erabaki behar dute zein bide aukeratu, zer egin nahi duen, eta nola, gatazka gainditzeko, Bakea lortzeko eta gizakiek eta herriek elkar ulertzeko.

Gaur egun, «globalizazioa», batere gogoko ez dudan hitz bitxia, nagusi dela, interdependentziaz, «pentsamendu bakarreko» gizarteez, masifikazioaz eta kontsumo-gizarteez mintzo zaizkigu. Horien guztien ondorioz, identitateak eta balioak galdu egin dira. «Hutsaren hurrengo» bihurtu gara, ala?.

Zurrunbilo mundializatu horren beste aurpegia herrien erresistentzia da: «beraien pentsamendua» dute, eta beraien oroimena eta oinarrizko balioak indartzen saiatzen dira. Haziak dira. Bizirik iraun dute denboraren joanean, eta orain indarberrituta suspertu dira. Izan ere, Munduko Gizarte Foroan aldarrikatu genuenez, «Bestelako mundu bat posible da».

Adiskide maiteok. Benetan sentitzen dut zuekin ezin egon ahal izatea, kezka guztion artean aztertzeko eta itxaropen-bideak urratzeko. Onena opa dizuet, eta badakizue zuen anai hau hemen daukazuela beti, eta indarra eta itxaropena izateko eskatzen dizuedala.



Ondorioak

Idazkia. Giza eskubideei buruzko nazioarteko II. Biltzarra: gatazken konponbidea

Honako idazki honetan aurkezten diren hausnarketek, Euskadiko bake prozesuari ikuspegi berri bat ematearren egin zen «Giza eskubideei buruzko nazioarteko II. biltzarra: gatazken konponbidea» izeneko ekitaldian bildutako hainbat ideia nagusiren laburpena izan nahi dute. Aipatu hausnarketak, biltzarrari amaiera ematen zion ekitaldian aurkeztuak, ezin dira ondorio egituratutzat hartu, ekitaldiaren laburpentzat baizik, behin eta berriz aurkezpenetan eta eztabaidetan jorratu ziren gaien ordenari jarraiki.

Azkenean, biltzarrean alderdi guztiak bat etorri ziren puntuetako bat honako hau izan zen: giza eskubideak zeharkako ardatz direla, bake-prozesuen lehenetsunezko gaia, eta ez gai gehigarri soila (NBEn indartzen ari den joera, batik bat Brahimi txostenaren ondorioz). Are gehiago, giza eskubideak errespetatu behar direla azpimarratu zen, baina ez negoziazio-prozesu batean erdietsitako hitzarmenen arabera, baizik eta alde aurreko eta negoziatzeko aukerarik ematen ez duen gaia bezala. Honi guztiari dagokionez, begi bistakoak dira gorigorian dauden gaiekin zerikusia duten inplikazioak, terrorismoaren aurkako borrokaren izenean giza eskubideak apurtzeari lotzen zaizkienak, hala nola, presoak sakabanatzea, terrorismoaren aurkako legeriaren inguruan dagoen komunikazio eza, edo alderdi politikoen legea bera.

Biltzarrean azaleratu ziren gai nagusiak, funtsean, hiru multzotan sailka daitezke: bake prozesuetako erronkak, zailtasunak edo alderdi ahulenak, eta prozesuari irtenbidea bilatzeko eman beharreko urratsak, ikuspuntu konparatzaile batetik.

Erronkei dagokionez, egiaztatzen da bake prozesuetako erronketako bat giza eskubideen nahitaezko errespetuaren eta prozesua behar bezala jorratzearen arteko oreka dela. Hala ere, gatazken konponbideak ikuspuntu pragmatiko batetik begiratzen badira, gatazkek lehenago konponduko dira, baina giza eskubideak alde batera uzteko arriskua hortxe dago eta beraz, adierazi nahi dena zera da, prozesu batean giza eskubideak aplikatzen badira bakeak luzaroan iraungo duela eta gatazka ez dela berriz piztuko.

Bake prozesuetako oinarritzko beste erronketako bat eta bakeak egin baino lehenagoko baldintza egia guztia azaltzea da. Honengatik guztiagatik, diziplinarteko batzorde independentei behin eta berriz esan zaie, euren sinesgarritasuna dela eta, bitartekari proposak direla helburuak lortzeko garaian. Eztabaidetan «egia» hitzaren nabardurak zehazteko beharra azaldu nahi izan zen; adostasuna topatu zen gutxienez, helburu gisa, gezurra deuseztatzean.

Bigarren multzo batean, prozesuan aurre egin beharreko zailtasunak edo alderdi ahulak aipatzea komeniko litzateke.

Lehenik eta behin, eta beste herrialdetan ere garrantzia eman zaionez, presoek gaiak garrantzi handia dauka. Izan ere, aipatu gaia jorratzeko moduaren arabera, gatazkari ematen

zaion izaeran bera ere ondorioztatu daiteke. Honen guztiaren inguruan azaleratu ziren puntuen artean, honakoak dira aipagarrienak: presoak berriz gizarteratzea, presoak bake prozesuan parte hartzea, eta batez ere, amnistia orokorra emateagatik sortu daitezkeen arazoak.

Bigarrenik, biktimez ere hitz egin behar da, bake prozesu guztietan jarraitu beharreko eredu bat direlako. Biltzarrean azaleratu ziren ideietatik aipatzekoa da biktimei kalteak behar bezala ordaintzearen garrantzia (kalte-ordain ekonomikoak zein konponketa sinbolikoak barne), bai eta euren aniztasunarekiko errespetua ere (hala ere, hori bai, amaieran aldean arteko simetria bat aitortzeak dakarren arriskuaz ohartaraziz). Biktimen inguruan behin eta berriz aipatu zen, biktimei ezin zaiela eskatu barkamena ematea ez eta gertatutako guztia ahaztea ere, nahiz eta azpimarratu azken aipaturiko egoera horretara iristeko baldintzak sortzeak duen garrantzia (egindako kalteen erantzukizuna onartzetik hasita, esaterako).

Bake prozesuan oztopo gisa agertu litezkeen beste alderdiak ere aipatu ziren; negoziazioa bera kriminalizatzea eta hainbat talderen bitartez prozesua judizializatzea, bai eta tortura ere, eztabaidan azpimarratu zen errealitatea, berehala konpondu behar den arazo bezala kalifikatu zena.

Laburbilduz, justizia eta malgutasuna elkartu behar izateari garrantzia eman nahi izan zaio, legeak oztopo izan behar ez lukeela adieraziz, baina, aldi berean, malgutasunari muga aproposak ipiniz.

Gai nagusien hirugarren eta azken multzoan, arrakasta-kutsua duen bake prozesu bat lortzeko eman beharreko urratsak daude. Horretarako, biltzarrean azaleratzen diren hainbat premisa hartu behar dira kontuan: lehenengo, uka ezina da gatazkak aldatu egiten direla, errealitate dinamiko bat osatzen baitute. Ildo honetatik, eta adituek gogorarazi zuten moduan, kontutan izan behar dugu bake-hitzarmena sinatzeak ez duela esan nahi gatazkari aurre egin zaionik, aldiz, fase berri bati ematen zaio hasiera. Bigarrenik, gatazka bizi duten gizarte guztien artean ez dagoela printzipio demokratikoekiko iritzi eta errespetu berbera azpimarratu zen. Eta azken premisa gisa, bake-prozesu oro gatazka bizi duen gizarteak duen dinamikari egokitu behar zaiola adierazi zen, ahal den heinean, gizarte horretan nazioarteko komunitatearen autoritarismoa ezartzea saihestuz.

Bigarrenik, eztabaida saioetako hizlariak zein parte-hartzaileek nabarmendu nahi izan zuten beste puntuetako bat, bake-prozesu orok izan behar dituen ezaugarri buruzkoa da. Gehien garatu ziren puntuak prozesuaren gardentasuna eta erantzukizun indibiduala zein kolektiboa aintzat hartu behar izatea izan ziren. Baina batik bat, elkarrizketaren garrantzia azpimarratu nahi izan zen; elkarrizketa gatazkari konponbidea bilatzeko nahitaezko mekanismo gisa, elkarrizketak edonolako errepresioa eta zapalkuntza baliogabetzen baititu.

Azkenik, kaltetuek beraiek ere prozesuan parte hartzea garrantzitsua dela adierazi zen, gatazkaren barnean harrapatuta dauden talde guztiek esku hartu behar dutela, bai eta gizon eta emakumeen arteko oreka errespetatu behar dela ere. Nazioarteko komunitateak parte hartu behar lukeela ere jakinarazi zen, beti ere, kaltetuei prozesuaren titulartasuna kentzen ez bazaie.

Amaitzeko, bake prozesu batek arrakasta izan dezan «jarrera» jakin bat izan behar dela iragarri zen. Entzuteko gaitasuna eta enpatia eta bestea gizarteratzeko gaitasuna prozesua

behar bezala garatzeko beharrezkoak diren ezaugarrietako batzuk dira, emaitza onak lortzeko iraunkortasuna eta irudimena diren bezainbeste, izandako esperientziak erakutsi digutenez, bake-prozesuak luzeak eta zailak direlako beti.

Bestalde, liderrek euren boterearen erantzukizuna izan behar dute, horrek guztiak dakarrena aintzat hartuz. Hortaz, egoera zailei aurre egiteko prest egon behar dute eta negoziazioak amore ematea eta konpromisoak hartzea esan nahi duela ulertu behar dute. Ekimen politikoa eta ausardia politikoa guztiz beharrezkoak dira, izan ere, ezin zaio besteari aldatzeko eskatu, norbera aldatzen hasten ez bada.

Azkenik eta bukatzeko, biktimak eta bakeak egitea helburutzat duen bake-prozesu orotan, iragana berriro eraikitzearen eta «memoria historiakoa» garatzearen beharra inplizituki egon behar direla adierazi zen. Bakeak egiteak ez du esan nahi zigorgabetasuna, eta adiskidetzea ezin izango da erabili egia eta memoria ez berreskuratzeko aitzakiatzat.





